



FERNANDO ARAMBURUren
hitzaurrea

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA
FLORENCIO DOMÍNGUEZ IRIBARREN
(Kordinatzaileak)

PARDINES **ETA** ERAILTZEN HASI ZENEAN


tecnos



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

PARDINES.
ETA ERAILTZEN
HASI ZENEAN

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA
FLORENCIO DOMÍNGUEZ IRIBARREN
(*Koordinatzaileak*)

PARDINES.
ETA ERAILTZEN
HASI ZENEAN

FERNANDO ARAMBURUren HITZAURREA

EGILEAK

JUAN AVILÉS FARRÉ
JESÚS CASQUETE
SANTIAGO DE PABLO
FLORENCIO DOMÍNGUEZ
GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA
JAVIER GÓMEZ CALVO
ÓSCAR JAIME JIMÉNEZ

MARÍA JIMÉNEZ RAMOS
RONCESVALLES LABIANO
RAÚL LÓPEZ ROMO
JAVIER MARRODÁN
JOSÉ ANTONIO PÉREZ PÉREZ
JOSÉ MARÍA RUIZ SOROA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Azalaren diseinua:
Carlos Lasarte González

Azalaren argazkia:
Sánchez Corbí, Manuel Ángel y Simón, Manuela (2017):
Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA,
Bartzelona: Península

Liburu honen argitalpenak honako erakunde hauen laguntza jaso du:

Fundación Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo.
Xunta de Galicia. Consellería de Cultura, Educación y Ordenación Universitaria.
Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola Departamentua.
UNED: Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Idazkaritzak diruz lagundutako ikerketa proiektua, «Europako terrorismoa berunezko urteetan: azterketa konparatiboa», HAR2015-65048-P erreferentziarekin.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Legeak lan honen edukia babestuko du, eta kartzela zigorrak eta/edo isunak ezarriko ditu, baita kalteengatik dagozkion kalte-ordainak ere, baimenik gabe oso-osoan edo zati batean literaturako, arteko edo zientziako lanen bat kopiatu, plagiatu, banatu edo jendaurrean zabaltzen duenari; edota, edozein motatako euskarrian edo jendaurrean edozein motatako bide erabilita zabaldurik, lan horren transformazio, interpretazio edo antzezpen artistikoaren inguruan gauza bera egiten duenari.

© Euskarazko itzulpena: ARITZ GORROTXATEGI, 2018
© JUAN AVILÉS FARRÉ, JESÚS CASQUETE, SANTIAGO DE PABLO, FLORENCIO DOMÍNGUEZ,
GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, JAVIER GÓMEZ CALVO, ÓSCAR JAIME JIMÉNEZ,
MARÍA JIMÉNEZ RAMOS, RONCESVALLES LABIANO, RAÚL LÓPEZ ROMO, JAVIER MARRODÁN,
JOSÉ ANTONIO PÉREZ PÉREZ y JOSÉ MARÍA RUIZ SOROA, 2018
© FERNANDO ARAMBURUren hitzaurrea, 2018
© FUNDACIÓN CENTRO PARA LA MEMORIA DE LAS VÍCTIMAS
DEL TERRORISMO, 2018
© EDITORIAL TECNOS (GRUPO ANAYA, S. A.), 2018
Juan Ignacio Luca de Tena, 15 - 28027 Madril
ISBN: 978-84-309-7430-6
Legezko Gordailua: M-12.540-2018

Terrorismoaren biktimei

Nire hitza zenbat eta objektiboagoa izan, orduan eta sinesgarriagoa eta suhar gutxiagokoa izango zela pentsatu nuen; epaiketa bateko lekukoak horrela baino ez du betetzen bere funtzioa, epaileari eremua prestatzearena. Zeuok zarete epaileak.

Primo Levi: *Hau gizon bat bada*

AURKIBIDEA

HITZAURREA. LEHEN TIROAREN AURRETIK ETA ONDOREN <i>Fernando Aramburuk</i> idatzia	13
SARRERA. BIKTIMEN AHAZTURAREN AURKA, <i>Florencio Domínguezek</i> idatzia	17
I. ATALA. 68aren BIHARAMUNA. BERUNEZKO URTEEN HASI- ERA EUROPAN, <i>Juan Avilés Farrék</i> idatzia	21
I. TERRORISMOAREN HIRUGARREN BOLADA	22
II. HIRUGARREN BOLADAREN MARTXAN JARTZEA	24
III. AURREKARIAK: HIRUROGEIKO URTEEN ERANTZUNA	28
IV. ASPALDIKO JOERA BATEN ALDERANTZIKATZEA: PERTSONEN ARTEKO INDARKERIAREN GORAKADA	32
V. MANIFESTAZIOETATIK ATENTATUETARA: IPAR IRLANDA, ITALIA ETA ALEMANIA	35
ONDORIOAK	37
II. ATALA. KONTRASTE GARAIA. EUSKAL HERRIA 1960KO HAMARKADAN, <i>Santiago de Pablok</i> idatzia	39
I. HAMARKADA BATERAKO BI IRUDI	39
II. AURKAKOTASUNAREN, EGOKITZEAREN ETA BABESAREN ARTEAN	42
III. HERRI EZAGUTEZIN BAT	47
IV. KULTURAREN IRATZARTZEA	49
V. ASALDATUTAKO ELIZA BAT	53
VI. ERREGIMENAREN IREKIERA ETA KRISIAREN ARTEAN	57
VII. OPOSIZIO ZAHAR ETA BERRIA	61
ERANSKINAK	71
III. ATALA. ODOL HOTZEAN. JOSÉ ANTONIO PARDINESEN HILKETA (ETA HONEN AURREKARIAK), <i>Gaizka Fernández Soldevillak</i> idatzia	77
I. «EGUNEN BATEAN HELDUKO DIRA TIROAK». ETAREN GENESIA (1952-1960)	79
II. PINTADAK, SABOTAJEAK, JIPOIAK ETA TEORIA. ETAREN LEHEN AKTIBISMOA (1961-1964)	84

III.	HITZETATIK EGINTZETARA. KIRIBILAREN HASIERA (1965-1968) ...	88
IV.	HILKETA BATEN ANATOMIA. ADUNA, 1968KO EKAINAREN 7A	94
V.	<i>TXABI</i> ECHEBARRIETA. LEHENA ERAILTZEN, LEHENA HILTZEN	102
VI.	EKAITZ INPERFEKTUA. AMESKERIA GERRILLARITIK TERRORIS- MORA	106
	ONDORIOAK	110
	EPILOGOA	111
	ERANSKINAK	114
IV.	ATALA. PARDINES: HILKETA BATEN (DES)MEMORIA, <i>Raül</i> <i>López Romok</i> idatzia	129
	I. LITERATURA MILITANTEA	132
	II. SAIAKERAK ETA KAZETARITZA-LIBURUAK	136
III.	LAN AKADEMIKOAK	139
IV.	BIBLIOMETRIA	140
	ONDORIOAK	144
	BIBLIOMETRIAREN AZTERKETAN ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA	147
V.	ATALA. GIZONETIK SINBOLORA. PARDINES, ETAREN LEHEN BIKTIMA, <i>José Antonio Pérezek</i> eta <i>Javier Gómez Calvok</i> idatzia	151
	I. JOSÉ ANTONIO PARDINES, ETAREN LEHEN BIKTIMAREN SINBO- LISMOA	152
	II. BIOGRAFIARIK GABEKO BIKTIMA	158
	EPILOGOA	162
	ERANSKINAK	164
VI.	ATALA. <i>TXABI</i> ECHEBARRIETA: KONDAIRAZKO MARTIRI BAT EDO MARTIRI BATEN KONDAIRA, <i>Jesús Casquetek</i> idatzia	169
	I. TERRORISMOA, KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA ETA GEZURRA	169
	II. ABERRIAREN ALDEKO HEROI-MARTIRIAK	173
III.	<i>URTE HULIGANIKOEN</i> HASIERA: LEHEN EKITALDIA	175
IV.	<i>URTE HULIGANIKOEN</i> HASIERA: BIGARREN EKITALDIA	181
	V. BIZITZA MOTZ, OROITZAPENA LUZE: ECHEBARRIETAREN MITOERAI- KUNTZA	185
	ONDORIOAK	191
	ERANSKINAK	193
VII.	ATALA. «GERRA IRAULTZAILE»TIK HIGADURAREN GERRARA. ETAREN INDARKERIAREN KIRIBILA (1968-1978), <i>Óscar Jaime Jiménezek</i> idatzia	197
	I. DIKTADURAREN POLIZIA-EGITURAK	198
	II. BIDEA MARRAZTEN	200
III.	AMAITZEN EZ DEN INDARKERIA (1970-1975)	205
IV.	DEMOKRAZIARANTZ AURRERA EGITEN (1976-1977)	214
	V. OKERRENAREN HASIERA (1978-)	219
	ONDORIOAK	222

ERANSKINAK	225
VIII. ATALA. ETAREN AURKAKO POLIZIA-BORROKA: EGIN EZ ZIREN ATENTATUAK, <i>Javier Marrodánek eta Roncesvalles Labianok</i> idatzia	229
I. LEHEN IKERKETAK	232
II. PARDINES ETA MANZANASEN HILTZAILIEN AZTARNAREN BILA	235
III. BURGOSKO EPAIKETATIK CARRERO BLANCOREN HILKETARA	247
IV. ESTRATEGIA BERRIA: «LOBO OPERAZIOA»	257
V. «ANIDO OPERAZIOAREN» AMAIERA	263
IX. ATALA. ETAREN LEHEN BIKTMAK, <i>María Jiménez Ramosek</i> idatzia	269
I. LEHEN HILDAKOAK	271
II. ETAK HILDAKOEN MAPA	273
III. HURBILKETA BAT BIKTIMEN PROFILERA	279
IV. ETATIK BIZIRIK ATERA DIRENAK	284
V. ETAK BAHITUTAKOAK: BAHITUTAKOEN ISTORIOAK	287
VI. VALENTÍN PARRA TOSTADO: ARGITZEKE DAGOEN KASU BAT	291
ONDORIOAK	293
ERANSKINAK	295
X. ATALA. EPAIKETA ETA ERANTZUKIZUNA, <i>José María Ruizek</i> idatzia	309
I. ETAREN INDARKERIAREN GENESIA	312
II. ERANTZUKIZUNA	319
OHARRAK	325
EGILEAK	349
BIBLIOGRAFIA	355
LABURDURAK	371

HITZAURREA

LEHEN TIROAREN AURRETIK ETA ONDOREN

Historiak aldi baterako geratzen diren ur bilduak osatzen dituela pentsatzea ilusioa da. Gizakien bizitzan ez dago aurreko gertakarien batuketa ezin besarkatuzko batetik ez datorren une bat, segida hori, oihartzun handiagoarekin edo txikiagoarekin, luzatzen ez duena. 1914an borroka-zelaira eramán zuten soldaduak ez daki bere gerrari Lehen Mundu Gerra deituko zaiola, hogeita bost urte geroago, antzeko jokalekuetan, beste gerra bat piztuko baita, Bigarren Mundu Gerra izena jasoko duena. Ezein gizakik ez zuen jakin bere garaian zer zen neandertal bat. Inork ez zuen imajinatu askoz geroago Erdi Aroa deitura jasoko zuen aldi batean bizitzen ari zela.

Egunerokotasunean murgilduta, kasurik onenean, gure inguruan gertatzen den guztiaren lekuko partzial gara. Ozta-ozta susma dezakegu zer zentzu historiko emango dien etorkizunak gure gaur egungo gertaerei; besteak beste, etorkizuna beste egoera historiko konplexu baten oraina izango delako, eta, ongi begiratuta, hura ikertzeko eta ulertzeko gogoia duten geroko gizakiek ez dituztelako iraganeko gertaerak epaituko, haren lekukotzak eta arrastoak baizik. Ziurtasun osoz dakiguna da gertaerak jazotzen direla, eta lehen unetik memoria kolektiborako materia dira, edo desagertu egiten dira inoiz gertatu ez balira bezala.

Kontakizun bat, nahiz eta oso sinesgarria izan eta ezin gezurtatuzko frogetan oinarrituta egon, bertsio bat eta laburpen bat da ezinbestean, kronistak trebetasun gehiagorekin edo gutxiagorekin idatzita utzi diguna. ETA jardunean aritu zen aldi historikoak ere ez dio ihes egiten lege honi. 2011ko urriko arma uzte ustez betikoaren iragarpenak ziklo amaituaren traza izan zuen garaikideentzat. Ohi bezala, denborak erabakiko du hori.

Hori guztiarekin, nahiz eta Historia geratu ez, hartatik ezaugarri propioak dituzten denbora segmentu bereziak atera daitezkeelako sentsazioa zabaldu da. Ikerketa objektua amaitu dela esan liteke, eta horrek behaketa errazten duela. 2011. urtetik nire eskuek lerro hauek

idazten dituzten arte nagusi izan den ETaren jarduerarik ezak, atentuei dagokienez bederen, ikuspuntu egoki batean jartzen du historia-laria ingurumari ezagungarriak dituen epealdi bat ezagutzeko, ekintza odoltsuek bat-batean aldatuko ez dutena. Epealdi hori, gauza jakina den bezala, sortzaile nukleo batek sustatu zuen XXI. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran. 1968ko udan, José Antonio Pardines Arcay trafikoko guardia zibila erail zuten, eta, apur bat geroago, haren erasotzaile izandako *Txabi* Echebarrieta hil zen, tiro bidezko liskar batean; gertaera horiek izan ziren krimen kate luze baten —lau hamarkadaz baino gehiago luzatuko dena— eragileak, eta hildako eta zauritu arrasto luze eta gaitzesgarri bat utzi zuten atzean, bai eta haustura eragin ere euskal gizartean, ondorio larriak izan zituen.

Niri dagokidanez, ez dut gogorapen pertsonalik gordetzen duela asko N-1 errepidean, Aduna parean, nire bizitokitik 20 kilometro baino gutxiagora gertatutako hilketa hartaz. Garai hartan bederatzi urte nituen. ETaren izena ezezaguna zitzaidan. Ez etxean, ez eskolan, ezta Donostia kanpoaldean dagoen nire auzoan ere, ez zen gertaera hartaz hitz egin. Edo agian bai, baina haurren ezkutuan. Garai hartan, kontu politikoek kalean zuten presentzia minimoa zen, hutsala ez esatearren. Hormak pintadez garbi ikusten ziren. Diktadura finko errotuta zegoela zirudien, herritarren begietara bederen, nekez jakin baitzezaketzen zer hasi zen sortzen klandestinitatean.

Udako denboraldia hirian igarotzen jarraitzen zuen Francok. Udako eguraldi beroa zegoenean, badian ainguratutako Azor yatearen soslai zuria Donostiako irudi tipikoaren zati bat zen. Haurra nintzela, jakin-minak jota, gogoan dut kaira joan nintzela Generalisimoaren etorrera ikustera. Jendetza zegoen espaloietan. Auto ofiziala igaro zenean, jende askok txalotu zuen uniforme zuriz jantzitako agure hura. Gaur egun badakit nire haur-memorian tinko gertatutako irudi hori Pardines eta Melitón Manzanasen hilketen ondokoa da, eta baliteke Fermin Monasterio taxi-gidariaren, ETaren lehen biktima zibilaren, ondokoa izatea ere, zeina 1969ko apirilean hil baitzuten.

1970ean entzun nituen lehen aldiz sigla horiek, haien esanahiaren kontzientzia nolabaiteko batekin, Eugen Beihl Alemaniako kontsula bahitu zutenean. Elizbarrutiko apaiztegiaren eraikuntzan itxi zutela esaten zen, ni Oinarrizko Batxilergoa egiten ari nintzen lekutik ehun metrora. Oinarri sendorik gabeko zurrumurrua zen, gerora jakin zen bezala. Gertaera hura eta Burgoseko prozesua deiturikoa aldi berean gertatu ziren. Diktadurak indarrean zirauen, baina salbuespen egoerak zeuden orain, Polizia pilo bat kaleetan eta gero eta handiagoa zen gogortze errepresiboa; jada haurrak ere hasiak ginen geure kasa ohar-tzen zerbait kezagarria gertatzen ari zela, Historia ez zela soilik liburu- orrialdeetan zegoen zerbait. Hartan barruraino sartuta geunde-

nok ezin bagenuen geureganatu ezta behar beste ulertu ere, zer esan gero jaio zienei buruz, gertutik bizi izan ez zuten horiei buruz? Gertaera historikoak «hieroglifiko baten irudiekin» alderatu zituen Ortega y Gassetek (*En torno a Galileo-n*). Datuen eta gogoeta xehe eta barearen bidez, ETAREN terrorismoaren atal krudel hura zer baldintzatan eta nola hasi zen deszifratzeko ahalegin baliotsua da honako liburu hau.

FERNANDO ARAMBURU

SARRERA

BIKTIMEN AHANZTURAREN AURKA

FLORENCIO DOMÍNGUEZ

Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo (CMVT)

«Menelao Atridak pika zorrotzarekin hil zuen Escamandrio, ehizan trebatua zegoen Estrofioren semea. Horren ehiztari paregabeari Artemisek irakatsi zion arkuarekin tiro egiten mendietako oihanek hazten dituzten basapiztia orenen aurka. (...) Merionesek bizitza gabe utzi zuen Fereclo, Tekton Harmonidaren semea, eskuekin zernahi asma-men-lan egiten zuena, Palas Ateneak asko maite zuelako. (...) Eneasek Dioklesen bi seme hil zituen, Kreton eta Orsiloko, gizon ezin ausartagoak. Diokles Feran bizi zen, ondasunez oparo, eta emari zabaleko Alfeoren ondorengoa zen, piliotarren herrialdea ureztatzen zuena».

Homerorentzat ez dago biktima anonimorik. Hildakoak norbaiten seme-alaba dira, anai-arrebak dauzkate, bizitza soziala, zerbaitetan nabarmentzera eramaten dituzten dohainak. Beretarrek maite dituzte, baita jainkoek ere. Azken batean, gizabanako bakanak dira, historia propio bat dutenak, eta Homerok gogora ekartzen du historia hori haien heriotza unean, labur eta motz bada ere. Homerori esker, *Iliada* idatzi zuenetik ia hiru mila urtera, Troiako gerrako irabazleak ez ezik, hildakoen izenak eta beren ezaugarriak ere gogora ditzakegu.

Denbora aurrera doa, baina terrorismoaren biktimen memoria ez da atzean geratu behar, ez behintzat jasandako indarkeriaren porrot intelektuala gauzatu eta etorkizuneko indarkeria saihestu nahi duen gizarte batean. Maite Pagazaurtunduaren *Lluvia de fango* libururako idatzitako hitzaurrean, honako hau dio Fernando Aramburuk: «gertatutakoaren lekukotza jasotzeko zeregina geratzen da oraindik, orain arte kontzientzia solidario gutxi batzuek baino egin ez dutena; garrantzi gutxiagokoa ez den azterketa eta gogoeta lan baten zeregin osagarria dena». Memoria hori bizirik mantentzea gizarte osoaren betebeharra da, ez soilik «kontzientzia kopuru mugatu batena», baina ez da beti horrela gertatzen.

Bizitza pertsonalaren gorabeherak, urteen gurpil latza edo ahanztura sozial sustatua edo hautatua direla eta, espainiarren azken bi belaunaldientzat garrantzi historiko bakana izan duten zenbait gertaera itxuragabetuta eta iraganaren lainoan galduta geratu dira. Mundu guztiak gogoratzen du zertan ari zen 23-Fan, Tejero Diputatuen Kongresuan sartu zen egunean, nahiz eta gertaera horren benetako eragina iragankorra eta sakonera mugatukoa izan espainiarren eguneroko bizitzan. Aitzitik, ia inork ez du gogoratzen nor izan zen José Antonio Pardines, nahiz eta haren hilketak, ETAko (*Euskadi ta Askatasuna*) kideek burututako lehenak, ondorio sakonak izan hiritar askoren eguneroko bizitzan hamarkadetan zehar, minez eta heriotzez blaituriko historia luze baten hasiera izan baitzen.

Oroimenerako Zentroak eskatuta, Euskobarometroak galdeketa bat egin zuen 2017ko urrian, eta galdeketa horretan galdera jakin bat zegoen: Nor izan zen ETAREN lehen biktima? Galdetuen % 1,2ak baino ez zuen eman erantzun zuzena. %19,8ak hainbat erantzun eman zituen, guztiak ere okerrak, eta gainerakoak zuzenean onartu zuen ez zekiela. Duela mende erdi gertatutakoaren gaineko ahanzturak logikoa irudi lezake, baina denboran askoz ere hurbilagoak diren terrorismoko gertaeren gainean ere amnesia zabala da nagusi, eta horrek adierazten du ahazteko borondate garbia dagoela.

1968ko ekainaren 7an —ETAren lehen hilketaren data— gertatutakoa gogora ekartzea, gertaera haien lekukotza jasotzea eta garai hartaz gogoeta egitea da liburu honen helburua, José Antonio Pardines, 25 urteko guardia zibil hura, talde terroristaren lehen biktima mortala bihurtu zena, protagonista nagusitzat duena. Adunan zorigaiztoko topo egite hori gertatu izan ez balitz, Pardines 75 urteko erretiratu bat izango zen, bilobak hazten ikusiko zituen, agian A Coruñaiko kostako bere sorterrian. Baina azkeneko hori historia kontrafaktuala baino ez da, fikzioa, José Antonioren benetako historia duela jada mende erdi ezerezean gelditu baitzen, Gipuzkoako errepide baten ertzean.

Oroimenaren Zentroak ahanzturatik berreskuratu nahi du agente gaztea, zeinaren bortxazko heriotza garai berri baten irekiera-krimena izan zen. Zentroak bere egiten du Virgilioren *Eneidako* poema, Irailak 11ko New Yorkeko Memorialaren leloa inspiratu duena: «Zerbait ahal badute nire bertsoek, egun bakar batek ere ez zaitu ezabatuko denboraren memoriatik».

José Antonio Pardinesen oroitzapena eta omenaldia da, beraz, liburu honen ardatza, eta gaian aditu nagusi direnetako batzuek idatzi dute (historialariek, politologoek, kazetariak, juristek), baina, halaber, sortze-krimen haren inguruko guztiaren gogoeta zio ere bada. Horregatik ikertu ditugu hilketaren zuzeneko egileak, baita haien taldea ere; biktima bat dagoen lekuan, borrero bat ere badagoelako nahitaez.

Kasu honetan, borrheroa biktima gisa aurkeztu zuten euskal gizartearen aurrean, bai eta aitopen publiko bidegabea egin ere; izan ere, benetako biktima historiaren itzaletan ezkutatuta geratu zen, familiaren oroimenaren eremura baztertua edo hortxe-hortxe. Biktima eta kaltegieak bizi ziren gizarteaz, hilketaren ondorioez, indarkeriak nazioarteko eremuan zuen lekuaz edota gora egiten ari zen terrorismo hari erakundeek emandako erantzunaz gogoeta egiten da liburuan.

Pardinesen hilketaz eta haren garaiaz idazten ari gara, jada ETaren terrorismoa desagertu delarik; ez dira desagertu, ordea, iraganean gertatutakoak nahiz ETaren jardueraren ondorioak, batez ere gogorrenak, hildakoak, zauritutakoak eta kaltetu guztien sufrimenduak barnebiltzen dituztenak. Atentaturik gabeko garai honek memoriaren garaia izan behar du, jasandako indarkeriari zilegitasuna kenduko dion memoria batena, eta erantzukizunak erruduntasun partekatuen kontakizun batean diluituko ez dituenak.

Sendotu behar dugun memoria ikerketa akademiko sakon eta zorrotz batean oinarritzen da, historian, gertatutakoaren segurtasunean eta ez sufrimendu guztiak berdintzen dituen sentimentalkerian, izan sufrimenduak istripuzkoak edo eragindakoak, haiek sortu dituzten kausen artean bereizi gabe. Ezagutza historikoan oinarritutako memoria behar dugu, gure iragan hurbila ezagutzen ez duen belaunaldi bat dagoeneko adin nagusitasunera heldu delako, eta iragan hori gogoratzeke lanak dituen belaunaldi helduago batekin elkartu delako. Zenbait iragan mingarriak direlako, batez ere ETaren terrorismoarekin zerikusia duena. Biktima zuzenei min ematen die, baita ikusle askori ere, batzuei kaltetuekiko enpatia dutelako, eta besteei, berriz, kontzientzia txarraren eraginez.

Sozialki berreraiki behar den memoria horrek kritikoa behar du izan gertaerekin, ETaren historia, beste edozein terrorismorena bezala, ezin baitugu eguraldi txarraren kontakizunaren neutraltasun berarekin bideratu. Asko dira iraganeko oroitzapenak, pertsonak bezainbeste, baina memoriaren pluraltasunak konbikzio bat izan behar du gutxienezko izendatzaile komun etiko gisa: ez duela bizirik iraun behar terrorearen atzera begirako inolako zuribiderik.

Gainera, biktimen ikuspuntutik idatzi behar dugu historia, bestela terroristen ikuspuntutik idatzita ikusteko arriskupean egon gaitezke, ez baitira gutxi indarkeriaren kontakizun justifikatzaile bat idazteko prest dauden idazkariak.

Labur esanda, terrorismoaren memoria kritiko eta zilegitasun kentzaile bat behar dugu, iraganeko indarkeria ezbaian jarriko duena, etorkizunean norbaitek ekintza politikoko tresna gisa armak berriro hartzeke tentazioa izan ez dezan, ETaren eredia inspiraziotzat hartuta. Giza eskubideen errespetuaren balioa elkarbizitzaren oinarri gisa gizar-

tean sendotuko duen memoria behar dugu, eta eskubide horiek ezin dira urratu ezein kausaren izenean. Ahalegin horretan, hildako pertsonak izen-abizenekin oroitzea, José Antonio Pardines Arcayren kasuan bezala, lagungarria da terrorismoa desmitifikatzeko eta biktimak giza-tiartzeko.

* * *

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa Fundazioak bul-tzatu du lan hau, eta laguntzaile izan ditu Galiziako Xuntaren Kultura, Hezkuntza eta Unibertsitateko Antolaketako Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola Departamentua eta UNED, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Idazkaritzak diruz lagundutako «Europako terrorismoa berunezko urteetan: azterketa konparatiboa» ikerketa proiektuaren esparruan, HAR2015-65048-P erreferentziarekin. Gainera, zenbait kide, erakunde eta artxi-bategik hura gauzatzen lagundu dute. Haien laguntza ordainezinik gabe, liburu hau ez zen posible izango. Jasota gera bedi gure esker onaren aitortza.

Azken ohar bat. Lanean zehar gaztelerazko toponimo tradizionalak erabiltzen dira, baina beste forma batzuetan ager daitezke kaxotxen arteko hitzez hitzezko aipuak direnean. Pertsonaien izen-abizenei dago-kienez, haiek erabiltzen zuten grafia errespetatzen saiatu gara grafia horren froga izan dugun guztietan: hala, José Antonio Aguirre (eta ez Agirre), Javier Echebarrieta (eta ez Etxebarrieta, ezta Echevarrieta ere)¹ edo Mario Onaindia (eta ez Onaindía).

I. ATALA

68aren BIHARAMUNA. BERUNEZKO URTEEN HASIERA EUROPAN*

JUAN AVILÉS FARRÉ

Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED)

1968ko ekainaren 7an, José Antonio Pardines erail zutenean (ikus III. atala), oso zaila zen irudikatzea Espainian terrorismo olatu bat hasi zela, berrogei urtetik gora luzatuko zena, 2010eko martxoaren 6ra arte, Jean-Serge Nérin frantziar polizia, ETaren (*Euskadi ta Askatasuna*) azken biktima, erail zuten egunera arte hain zuzen ere. Garai hartan, halaber, zaila zen irudikatzea Europako beste zenbait herrialde —Ipar Irlanda, Italia eta Alemania— terrorismo garai batean sartzeko puntuan zeudela. Espainiako fenomeno soil-soilik izatetik urruti, ETAk ekintza terroristara eman zuen jauzia bolada baten hasieraren gertaera bat gehiago izan zen, eta «berunezko urteak» bezala ezaguturiko urte horietan herrialde askori eragin zien. Aipatu esamolde hori izen bereko Margarethe von Trotteren (*Die bleierne Zeit*, 1981) filmaren izenburutik sortu zen. Esamoldea Italian zabaldu zen urte haietako terrorismoaz hitz egiteko, eta gero eta gehiago erabiltzen da beste herrialde batzuetan.

Hirurogeien amaieran eta hirurogeita hamarren hasieran, Euskadin, Ipar Irlandan, Italian, Alemanian, Uruguain, AEBetan, Japonian edo Palestinan bizi zen pertsona kopuru esanguratsu bat, batez ere gazteak, konbentzimendu batera heldu zen: iraultza soziala bultzatzeko, edo hari aurka egiteko, beren helburu nazionalak sustatzeko, edo beste batzuek lor zituzaten eragozteko, bide eraginkorrena indarkeria zela. Urte batzuetan zehar, pistolak, lehergailuak, pertsona jakin batzuen edo hegazkin bateko bidaiari guztien bahiketak nagusi izan ziren nazioarteko albistegietan; Estatuaren erantzuna, aldiz, eraginkortasun gutxikoa izan zen hasieran, kriminala ez bazen, Argentinan bezala. Nabarmentzekoa da, ordea, isuritako odolaz eta eragindako minaz harago, terrorismoa oso bakanka izan zela eraginkorra.

I. TERRORISMOAREN HIRUGARREN BOLADA

Terrorismoari buruzko definizio bat baino gehiago dagoenez, orrialde hauetan zer nola ulertzen dugun zehaztea baliagarria izan daiteke: terrorismoa indarkeriazko ekintza segida bat da, aurrez pentsatua eta klandestinitatean prestatua, borrokalari ez diren pertsonen aurka burutzen dena, direla zibilak edo direla gatazka ireki batean parte hartzen ari ez diren Indar Armatuaren kideak, eta ekintza horiek burutzen dituztenen helburu politikoen aldeko izu giro bat sortzea dute helburu. Garrantzitsua da azpimarratzea nazioarteko komunitateak bere osotasunean eta espresuki gaitzetsi duela terrorismoa, nahiz eta data berri samarrean, hizpide dugun bolada terroristaren hasieraren ondotik. 1995ean, 49/60 ebazpenaren bidez, Nazio Batuen Batzar Orokorrak «herritarren artean ikara egoera bat eragin asmoz prestatutako edo sortutako helburu politikoko ekintza kriminalizat» jo zituen eraso terroristak, eta zehaztu zuen «ezin zurituzkoak direla edozein egoeratan, haiek justifikatzeko egiten diren kontsiderazio politiko, filosofiko, ideologiko, arrazazko, etniko, erlijioso edo beste edozein motatakoak zernahi direla ere».

Terrorismoaren ikerketa historikoan aitzindarietako bat izan den David C. Rapoport-ek 1999an azaldu zuen lehen aldiz bere teoria, gaur zabalki onartua. Teoria horren arabera, XIX. mendetik aurrera lau terrorismo bolada gertatu dira. Lehena Errusian sortu zen XIX. mendeko azken hamarkadetan, joera sozialista iraultzailearekin, eta talde anarkisten bidez zabaldu zen Mendebaldera, baita beste zenbait lekutara ere talde nazionalisten eraginez. Bigarrena Lehen Mundu Gerraren ondotik sortu zen, eta joera anticolonialista izan zuen funtsean. Hirugarrena hirurogeiko urteetan sortu zen, berriro ere joera sozialista iraultzailearekin, eta batzuetan nazionalismoarekin uztartu zen, eta beste batzuetan, berriz, terrorismo kontrairaultzaile baten aurka talka egin zuen. Laugarrena laurogeiko urteetan sortu zen, erlijio fundamentalismoan inspiratua, batez ere islamistan¹.

Hemen hirugarren bolada interesatzen zaigu, Ezker Berritik (*New Left*) sortutako taldeak protagonistatzat izan zituena. *New Left* delako termino horrekin izendatu ohi dira hirurogeiko hamarkadan AEBen, Mendebaldeko Europan eta Japonian sortutako talde erradikal eta iraultzaileak, eta termino hori ezar dakieke ere Hego Amerikan, 1959an garaile atera zen Kubako iraultzaren akuiluaren pean (Europako erradikalentzat erreferente bat izan zena ere)², sortutakoei ere. Frantzian gehiago erabiltzen da *gauchisme* terminoa Ezker Berria baino, baina, nolana ere, agertu ziren talde berriez ari gara, eta talde horien ezinegon iraultzailea erakunde sozialista eta komunista tradizionalen sistema politikoaren integrazioaren bestelakoa zen. Funtsean inspirazio

nazionalista duten zenbait talde terroristak, ETAk edo IRAk —*Irish Republican Army* (Irlandako Gudaroste Errepublikarra)— kasu, Ezker Berriaren eragin apur bat izan zuten, baina hirugarren boladan baziren zenbait talde terrorista Ezkerrarekiko ideologia erabat antitetikoa zutenak, adibidez Ipar Irlandako leialistak eta Italiako neofaxistak.

Bolada berrogei urtetik gora luzatu zen, eta haren amaiera, itxuraz behin-betikoa, duela gutxi gertatu zen ETAk «jardun armatuari» 2011n egin zion ukoarekin eta FARC delakoak, Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia-k, Kolonbiako Gobernuarekin 2016an egin zuen bake akordioarekin. Boladak hirurogeita hamarreko urteetan izan zuen oldar handiena.

Azpimarratzekoa da urte haietako indarkeria iraultzailea ez zela ekintza terroristetara mugatu, baizik eta mugimendu gerrillari zabal baten neurria hartu zuela zenbait herrialdetan, Erdialdeko Amerikan eta Kolonbian nabarmenki, baita gerra zibil batena ere, Nikaraguan gerrillariei garaipena eman ziena. Bestalde, terrorismoaren eta gerrillaren arteko ezberdintasuna ez da garbia, besteak beste ohikoa delako erakunde gerrillariak ere arestian aipatutako terrorismoaren definizioarekin bat datozen ekintzak burutzea. Hala ere, bada ezberdintasun erabakigarri bat: terroristek ez dituzte betetzen nazioarteko zuzenbide humanitarioak galdatzen dituen betekizunak gerrillari, partisano edo erresistente bat La Hayako eta Genevako hitzarmenen babespean gera dadin. Hain zuzen ere, Genevako hirugarren hitzarmenaren 4. artikulua lau baldintza eskatzen dizkie ohiz kanpoko borrokalariei: mepkoen erantzule den pertsona bat izatea buruzagia; zeinu bereizgarri finko bat eramatea, urrutitik ezagut daitekeena; armak agerian eramatea eta beren operazioak «legearen eta gerraren ohituren arabera» burutzea.

Jarduteko modu klandestinoak dutenez, terroristek ez daramate zeinu bereizgarriarik, ez armarik agerian, baina, batez ere, entzungor egiten diete nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eskakizunei gatazka armatuak dauden kasuetan: zibilak nahiz militarrek bahitzen dituzte, baita zenbaitetan exekutatu ere; biztanleria zibilaren aurka erasoak egiten dituzte; ez dute kontuan hartzen gatazka batean sartuta ez dauden herrialdeen neutraltasuna, eta herrialde horien lurraldean errepresaliak burutu, eta immunitate diplomatikoa urratzen dute. Dena den, Estatuak ozta-ozta kontrolatzen duen landa eremu batean gerrillariak armak agerian eta ezagut daitekeen zeinu bereizgarri bat eramatea posible bada ere, hori ezinezkoa da ia edozein hiritan; hortaz, «hiri-gerrillan» dabilzanak inoiz ezin dira borrokalaria gisa hartu nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arabera.

1959ko Kubako Iraultzaren ondotik Latinoamerikan abian jarri zen indarkeria faseak baditu ezaugarri komunak berunezko urteen

Europako terrorismoarekin, ideologia iraultzailea barne, baina baita ezberdintasunak ere. Argentinan, Uruguain eta, maila apalago batean, Brasilen eta Txilen sortutako hiri-gerrilla taldeak izan ziren Europako talde terroristen antzekoenak; Nikaragua, El Salvador, Guatemala eta Kolonbiako mugimendu gerrillariak, aldiz, askoz ere hedadura handiagoa hartu zuten.

Estatuaren erantzuna ere ez zen bera izan Europan eta Latinoamerikan. Indar Armaturen edo Segurtasun indarren agenteek aldizkako krimenak egin bazituzten ere (1972an Derryko Igande Odoltsuan hildako hamahiru manifestarrietatik 1983ko José Lasa eta Ignacio Zabaren bahiketa eta erailketara), ezein Estatu europarrek ez zion erantzun terrorismoari giza eskubideak sistematikoki urratzen zituzten praktiken bidez, zenbait latinoamerikar herrialdetan gertatu bezala, eta terrorismoak ez zuen demokraziarik botatzen lagundu, Argentinan eta Uruguain gertatu bezala.

II. HIRUGARREN BOLADAREN MARTXAN JARTZEA

Indarkeria iraultzaileko eta terrorismoko bolada honen martxan jartzean oso deigarria da zer sinkronia egon zen Mendebaldeko Europa, Latinoamerika, AEB, Palestina edo Japon bezalako eremu geografiko hain ezberdinetan. Berunezko urteak deitu diren horiek ia aldi berean hasi ziren.

Ipar Irlandan komunitate arteko beste indarkeria fase bat hasi zen —herrialdeak jada fase asko ezagutuak zituen— UVF leialistak, *Ulster Voluntary Force*-k (Ulsterko Boluntarioen Indarra), 1966ko maiatzean eta ekainean burututako hilketekin, eta 30 urtetik gora luzatu zen, funtsean 1999ko apirilko bake-akordiora arte, nahiz eta ondoren ere zenbait biktima izan. Ipar Irlandako terrorismoaren urte hilgarrienak 1971tik 1976ra izan ziren (1972an 498 biktima mortaleko kopurura heldu zen)³.

Espanian, hirurogeiko urteetan, terrorismo nazionalistaren, marxista-leninistaren eta ultraeskuinaren bat-egite bat gertatu zen. ETA 1968an hasi zen hiltzen, eta hiltzen jarraitu zuen 2011ra arte; terrorismo independentista katalanak 1971n hil zuen lehen aldiz, eta zortzarrezko ospea lortu zuen 1977an José María Bultóren hilketarekin eta 1978an Joaquín Viola eta haren emazte Montserrat Tarragonaren hilketekin, ETArekin hilgarritasun mailatik urruti geratu arren; FRAPek, Frente Revolucionario Antifascista y Patriota delakoak, atentatu hilgarri kanpaina bat egin zuen 1975eko udan. GRAPOkoek, Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre-koek, 1976an hasi zuten bere jarduera terrorista, eta azken biktima mortala 2006an eragin

zuten; eta ultraeskuinaren lehen biktimak Montejurran hil ziren 1976ko maiatzean. Oro har, terrorismoaren epealdi tragikoena Espainian 1978 eta 1980 urteen artean gertatu zen (ikus VIItik IXra bitarteko atalak)⁴.

Italian, lehen atentatu handia, neofaxistek egindakoa, Milango Piazza Fontanako hilketa izan zen, 1979ko abenduan. Terrorismoaren zartada bere gorenera iritsi zen BRak, *Brigate Rosse* delakoak (Brigada Gorriak) 1978ko maiatzean Aldo Moro hil zuenean eta 1980ko abuztuko Boloniako geltokiko atentatu neofaxista ikaragarriarekin, eta, ondoren, terrorismoak behera egin zuen oso bizkor⁵.

Alemanian, RAFak, *Rote Armee Fraktion* delakoak (Gudaroste Gorriaren Frakzioa), prentsak Baader-Meinhof banda gisa bataiatu zuenak, 1971n burutu zuen bere lehen hilketa, eta azkena, berriz, 1977ko urrian. RAFak eta Alemaniako gainerako talde terroristek burututako atentatuen kopurua oso txikia izan zen Ipar Irlandan, Espainian edo Italian burututakoekin alderatuz gero, baina iritzi publikoan izan zuten oihartzuna oso nabarmena izan zen⁶.

Europako beste zenbait herrialdetan terrorismo iraultzailea apur bat geroago sortu zen, oihartzun txikiagoarekin. Grezian, joera komunistak eta zama ultranazionalista, antiamerikar eta antiturkiar handia zuen 17Na, *Epanastatiki Organosi 17 Noemvri* (Azaroak 17 Erakunde Iraultzailea), 1975ean jaio zen; hau da, demokrazia berriro ezarri zenean, nahiz eta haren deiturak zuzenean aipamena egin 1973ko azaroaren 17an, ikasleen protesta bati erantzunez, diktadura militarrek burututako sarraskiari. 27 urtetan zehar, ia babes sozialik gabe baina Poliziak ez antzemateko gaitasun ikaragarriarekin, 17Nko terroristek 21 pertsona erail zituzten Poliziak 2002an taldea desegin aurretik⁷.

Urte haietan demokrazia erdietsi zuen Mediterraneoko beste herrialdeak, Portugalek, historia konplexuagoa du. Denboran asko luzatu zen diktaduraren aurkako borrokaldiak borroka armatuko noiz-behinkako gertaerak ekarri zituen, eta horietako bat nazioarteko terrorismoaren ohiko adibidetzat har daiteke: DRILEk, *Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación* edo *Directório Revolucionário Ibérico de Libertação* delakoak (Askapenerako Direktorio Iraultzaile Iberikoa), 1961eko urtarrilean *Santa Maria* transatlantiko portugaldarra bahitu zuenekoa. DRILEk osagai espainiar bat zuen ere, eta 1960an eraso kanpaina bat egin zuen Espainian lehergailuekin. Eraso horietako batean Begoña Urroz haurra hil zen, zenbaitetan ETaren lehen biktimatzat okerki hartua (ikus III. atala) izan dena. Ondoren, 1961ean Angolan hasi zen gerra kolonialak Portugaleko oposizioko talde batzuk erradikalizatu, eta borroka armatuaren aldeko hautua egitera eraman zituen, nahiz eta haien eragina oso txikia izan. PCP bera, *Partido Comunista Português* delakoa, adar armatu batekin hornitu zen, ARA izenekoa, *Ação Revolucionária Armada*. Talde honek zenbait atentatu

egin zituen 1970 eta 1972 urteen artean, baina kontu handia izan zuen kalte pertsonalak saihesteko; hortaz, eztabaidagarria da talde terroristatzat har daitekeen. Antzeko zerbait esan daiteke 1973an sortu zen *Brigadas Revolucionárias* buruz, joera Guevara zalea zuen *Partido Revolucionário do Proletariado* adar armatuari buruz⁸.

1974ko diktaduraren erorketak amaiera jarri zion dinamika armatuari, baina 1980an, Portugalgo prozesu iraultzailea mendebaldeko tankerako demokrazia batekin amaitu zenean, desengainua hartutako zenbait erradikalek, horien artean Otelo Saraiva de Carvalho, 1974ko iraultzaren estrategia militarretako bat, FP-25, *Forças Populares 25 de Abril* delakoa, sortu zuten. FP-25ak 13 hildako eragin zituen 1980 eta 1987 urteen artean, baina haien ekintzen argitze judiziala osatugabea izan zen, eta ez dago oraindik gaiari buruzko ikerketa akademikorik⁹.

Frantzia, 1968ko maiatzeko protesta entzutetsuak izan ziren lekuan, noraez terrorista hutsaren hurrena izan zen ia. Talde garrantzitsuenak, 1978an sortutako ADK, *Action Directek* (Ekintza Zuzena), joera anarkistakoa zenak, ehun atentatu inguru egin zituen, baita zenbait biktima mortal eragin ere 1987ra bitarte¹⁰. Belgikan, Zelula Komunista Borrokalaria 1983an sortu ziren, eta bi urte geroago desegin zituzten; eragin zituzten biktima mortal bakarrak bi suhiltzaile izan ziren, leherketa batean hilak¹¹.

Hego Amerikan, Kubako iraultzaren garaipenaren babesean sortutako talde armatuak, landa gunetako gerrilletan enfasia jartzen zutenak, ia guztiz garaituak zeuden Ernesto *Che* Guevara 1967an Bolivian hil zenerako, baina hamarkada horren amaieran suspertze bat gertatu zen, zenbait herrialdetan hiri-gerrillan oinarritu zena. Argentinan, 1970eko maiatzean, Montoneros-ek beren burua ezagutzera eman zuten Pedro Arambururen bahiketa eta hilketarekin, eta beren azken atentatuak 1980an burutu zituzten, nahiz eta haien beherakada 1976ko diktadura militarra ezarri baino lehenago hasia zen. Diktadurak metodo errepresibo guztiz krudelak erabili zituen, eta, azkenik, Montoneros-ak desagerrarazi zituzten. Ondoko herrialdean, Uruguain, Tupamaros taldekoek, aurretik ekintza armatuak jada burutu zituztenek, lehen biktima mortalak eragin zituzten 1969ko urrian, Pando hiriko zenbait eraikin ofizial erasotu zituztenean, baina 1973ko ekainean diktadura ezarri zenean, beren buruak garaitutzat jo zitzaizketen. Are gehiago, diktaduran zehar ez zuten ekintza armaturik burutu¹².

AEBen eragin askoz txikiagoa izan zuen Ezker Berriarekin lotutako terrorismoak. *Weathermen* delakoak (hitzez hitz Eguraldiaren gizonak, Bob Dylanen abesti batetik hartutako deitura bitxia) eskubide zibilen alde eta Vietnameko gerraren aurka egin ziren ikasleen mugimenduen harira sortu ziren 1969an. Zenbait atentatu egin zituzten lehergailuekin 1970etik aurrera, eta 1977 aldera ezerezean geratu ziren¹³.

Urte horietan Europako lurreen palestinarrek zenbait atentatu egin zituzten. Sei Eguneko Gerran, 1967ko ekainean, Israelek Bost estatu arabiarren gudarosteak garaitu eta gero, Palestinako erresistentziak bere kausari agerikotasuna ematea erabaki zuen Europan egindako ekintza terroristen bidez. Lehenengo ekintza Erromatik Tel-Avivera zihoan hegazkin bat bahitzea izan zen, 1968ko uztailean, eta, ikaragarriena, Municheko Joko Olinpikoetan, 1972ko irailean, Israeleko atletekin burutu zuten sarraskia izan zen. Nabarmentzekoa da PAHFk, *Al Yabha As Sabiyy li Tahrir Filastin* delakoak (Palestina Askatzeko Herri Frontea) —joera marxistakoa eta zeinaren kanpoko operazioen atala Wadie Haddad-ek zuzentzen baitzuen— terrorista japoniarren, hegoamerikarren eta alemaniarren laguntza jaso zuela¹⁴.

Urte horietan beretan sortutako talde terrorista japoniarrak txikiak eta efimeroak izan ziren, baina izugarri basatiak. *Segikun-ha* delakoak (Gudaroste Gorriaren Frakzioa) gerra deklaratu zion Estatuari 1969ko irailean, baina berehala desegin zuten; horren ondotik, kideetako batzuk talde maoista batean elkartu ziren 1971ko uztailean, *Rengo Segikun* izenekoa (Gudaroste Gorri Batua), eta ezaguna egin zen bere biktimak taldekideak berak izan zirelako. Haietako hamabi desbiazionismoaz akusatu, eta Haruna mendiko entrenamendu-esparruan hil zituzten 1971ko abenduaren 31ren eta 1972ko otsailaren 12aren artean. Apur bat geroago, polizia desegin zuen taldea¹⁵.

Nazioarte mailan oihartzun handiagoa izan zuten JAGren ekin-tzek, *Nihon Segikun*-enek (Japoniako Gudaroste Gorria). Segikun-ha-ko militante ohi batek, Fusako Shigenobu-k, sortu zuen 1971ko urte hasieran Libanon, eta mundu mailako iraultzara jo zuen. PAHFren kanpo-operazioetarako atalarekin lankidetzan estuan aritu zen. JAGren operazio hilgarriena hiru terrorista japoniarrek Israelgo Lod-eko aireportuan burutu zuten eraso izan zen, non 26 pertsona hil eta laurogei zauritu zituzten, gehienak Puerto Ricoko erromes kristauak. Europako zenbait erasotan ere parte hartu zuen JAGk; esaterako, 1974ko irailean La Hayako Frantziako enbaxadara egindako erasoan. Hiru japoniarrek burutu zuten eraso hura, eta ekin-tzaren prestaketan Ilich Ramírez Venezuelako terroristak, *Carlos* ezizenez ezagunagoa denak, parte hartu zuen, orduan PAHFrentzat lan egiten zuena¹⁶.

Carlosek Wadie Haddaden aginduz bahitu zituen Vienan, 1975eko abenduan, LPEEko (Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea) ministroak, eta ekintza hartan RZko, *Revolutionäre Zellen*eko (Zelula Iraultzaileak) bi terrorista alemaniarrek parte hartu zuten. Horren ondotik, *Carlosek* harremanak hautsi zituen Haddadekin, baina ez zuen bertan behera utzi bere jardun terrorista, eta Frantzian 1982. urtean egin ziren zenbait atentatu larriren erantzulea izan zen, Hafed Al-Assad-ren

Siriako erregimenarekin harremanetan. RZko kide batzuek, aldiz, Haddadek sustatu ekintzetan parte-hartzen jarraitu zuten, hala nola Air Franceren hegazkin baten bahiketan 1976ko ekainean. Bi palestinar eta bi alemaniar hegan zihoan hegazkinaz jabetu, eta Entebbe-ra, Ugandara, desbideratu arazi zuten, baina han israeldar komando batek hegazkinari eraso egitea lortu zuen, baita bidaiariak askatzea ere¹⁷.

III. AURREKARIAK: HIRUROGEIKO URTEEN ERANTZUNA

Denboran hain harrigarria den kointzidentzia nekez izan daiteke halabeharraren fruitu, eta arazo bat planteatzen du: hirurogeiko terrorismoaren eta aurreko hamarkadan AEBen, Hego Amerikan, Europa Mendebaldean eta Japonian hedatu zen protesta mugimendu zabal eta askotarikoaren artean —Frantziako 68ko maiatza izan zen horren une adierazgarriena— egon daitekeen harremana.

Hasteko, hirurogeiko mugimenduak parte-hartze zabala izan zuela nabarmendu behar da, batez ere gazteena; funtsean, ez zen biolentoa izan, eta aldaketa sozial eta kulturalen prozesu zabal baten zati izan zen, horien artean afroamerikarren eta beste gutxiengo batzuen eskubide zibilen onarpena, bakezaletasuna, emakumeen burujabetza, askapen sexuala eta ohituren askatasun handiagoa. Horiek gabe ezingo genuke ulertu gaurko gizartea. Berunezko urteen terrorismoa, aldiz, gutxiengoan zegoen fenomeno izan zen. Europan babes sozial erlatibo lortu zuen Ipar Irlandako eta Euskadiko zenbait biztanleren artean, baita Italia erdialdeko eta iparraldeko hiri batzuetan ere, eta ezin da lotu inolako aldaketa positiborekin.

Hirurogeiko kulturaren baziren elkarri hertsiki lotutako bi ezaugarri: batetik, gazteen belaunaldi-identitate bereizgarriaren baieztapena (belaunaldi guztiak sentitzen dira gutxi gorabehera bereziak, baina fenomeno hau bereziki bizia izan zen urte horietan); eta, bestetik, nazio mailako mugak gaingintzen zituen gazte-kultura baten agerpena. Gazte-kulturaren nazioartekotze horri bultzada eman zioten bai telebistak (hura izan zen telebistaren aurrean hezi zen lehenengo belaunaldia) bai nonahi zeuden transistoreek (irratia edozein lekutan entzuteko aukera ematen zutenak). Musika berria —adierazpen esanguratsuena rock and rolla izan zen— gazte-kultura horren hizkuntza unibertsal bihurtu zen, eta tradizioarekiko haustura aldarrikatzen zuen. Ereduz Bob Dylanen abesti ezagun bat dugu horren adibidea, *The times, they are a'changing* (1964): «*Come mothers and fathers! Throughout the land! And don't criticize! What you can't understand! Your sons and your daughters! Are beyond your command!*».

Jakina, gazteen erronka horrek ez zekarren nahitaez jarrera iraultzaile bat, are gutxiago armak hartzea. «Kontrako jarrera» da, agian, termino egokiena ezarritako arau eta erakundeen aurka eginiko erronka zabal hura gogora ekartzeko, hirurogeiko urteetan mendebaldeko gizarteak onerako zein txarrerako astindu zituena. Ez zen iraultza biolento baten parekoa, baina ez zen mugatzen ere erreforma gutxi gorabehera sakonen bidez ase zitekeen aldarrikapen sorta batera. Ikasleen buruzagi Daniel Cohn-Benditek 1968ko maiatzeko egunetan esan zuen bezala, kontua ez zen «erreklamatzea», «hartzea» baizik. Aldarrikapen zehatzek sistema politiko sozial osoaren aurkako jarrerak eragiten zituzten. Eguneroko bizitza arautzen zuten balioak kolokan jartzea —kontrakultura gisa deitu zena— borroka politikoa bezain garrantzitsua zen¹⁸.

Theodore Roszak gazte intelektual estatubatuarrak, 1968ko martxoan argitaratutako artikulu batean, horrela definitu zuen kontrakultura: «Ezker Berriaren politiken hasierako oinarri kulturala; politikaren, etxe burgesaren eta lanaren etika protestantearen zeharo ezberdinak diren komunitate mota berriak, familia eredu berriak, sexu ohitura berriak, bizimodua aurrera ateratzeko bide berriak, forma estetiko berriak eta identitate pertsonal berriak aurkitzeko ahalegina»¹⁹.

Berrogeita hamarren bukaeran eta hirurogeien hasieran Britainia Handian, Frantzia, Italian eta AEBen gertatu zen iraultza kulturalari buruz sekulako ikerketa egin duen Arthur Marwickek idatzi du iraultza horren oinarrizko ezaugarriak —hura positiboki baloratzen dutenen ikuspuntutik— honako hauek izango lirатеkeela: beltzen eskubide zibilen baieztapena; gazte-kulturaren eragina; idealismorako joera, protesta, errebolta; eredu afroamerikarretan oinarrituriko herri-musikaren arrakasta, hizkuntza unibertsal bihurtu zena; ekialdeko erlijioetan inspirazioa bilatzea; aldaketa masiboak harreman pertsonaletan eta sexu-jokaeretan; ausardia eta irekitasun handiagoa liburuetan, komunikabideetan eta eguneroko hartu-emanen; zentsuraren erlaxazioa; feminismo berria; gay askapenaren mugimendua; *underground*aren eta kontrakulturaren agerpena; baikortasuna eta mundu berri bat jaiotzen ari zelako egiazko fede bat. Ikuspegi kontserbadoretik, ordea, honako hauek azpimarratzen ziren: drogen kontsumo masiboaren hazkundera; gorakada delituen estatistiketan; beherakada hezkuntza-mailan, eta, oro har, moraltasunaren, autoritatearen eta diziplinaren esparru orokorraren narriadura. Margaret Thatcher-ek 1982an esan zuen bezala, «hirurogeietan ereindakoa jasotzen ari gara»²⁰.

Marwick bera oso urruti dago aldaketa kultural hura guztia laidoztetik, baina aldaketa hartako protagonistak «gezur *marxistizatzaile* handia» (termino hori erabiltzen du marxisten jarrera eskusibo bat ez

zela azpimarratzeko) deritzon horren pean erortzeko joera zutela nabarmentzen du Marwick; hau da, bizi garen gizarte burges gorrotagarria krisian dagoelako eta gizarte ona aurki helduko delako uste osoa, baldin eta sistematikoki jokatzen badugu hizkuntza, balore eta kultura zein ideologia burgesak suntsitzeko. Hala, aldarrikapen zehatz guztiak, aldaketa positibo asko ekarri zituztenak, aldaketa erabateko baten jomuga irreal batean barnebilduta geratu ziren²¹.

Horri beste uste oso bat gehitu behar zaio, mugimendu eraldatzailearen abangoardian Hirugarren Munduko iraultzaileak zeudelako uste osoa; baina, egiatan, iraultzaile horiek mendebaldekoekin zerikusi gutxi zuten gizarteetan jarduten zuten, eta mugimendu eraldatzailearen aldekoek ez zituzten ikusi nahi iraultzaile horien joera autoritarioak eta are totalitarioak ere. «Hirugarren Mundua» kontzeptua 1952an sartu zuen Alfred Sauvy demografo frantziarrak, eta esanahi handia hartu zuen 1955ean Bandung-en ospatu zen herrialde ez lerrotuen lehen biltzarrean. Hortik aurrera, Asian, Afrikan eta Hego Amerikan garapen bidean zeuden eta Washingtonekin eta Moskurekin lerrotuak ez zeuden herrialdeak izendatzeko «Hirugarren Mundua» terminoa erabili zen. 1959an garaile atera zen Kubako iraultza izan zen mendebaldeko ezkerren txaloa jaso zuen «hirugarren munduko» lehen iraultza. Eta Fidel Castro Moskurekin hertsiki aliatu zenean, *Che* Guevararen mitoa (ikus VI. atala) geratu zen, Guevara 1967an hil baitzuten, eredu sobietarretik urrundutako iraultzaren ideala bizirik mantentzeko, eredu horrek ez baitzuen jada osperik Ezker Berrian²².

Algeriako askapen gerrak, 1962an garaile atera zenak, eragin halako bat izan zuen Frantziako ezker erradikalean, baina, batez ere, Vietnameko gerra izan zen mendebaldeko ezkerren inguruetan solidaritate zabala piztu zuena. Eta Kubarekin, Algeriarekin eta Vietnamekin izandako solidaritatea dela eta, hirurogeiko urteetako Europako erradikalek mundu mailako mugimendu baten kide zirelako irudipena izan zuten, jarraitzaile gutxi izan zitzaizkela Parisen, Berlinen edo Erroman, baina mugimendu horrek Hirugarren Munduko masen aurrera egitea adierazten zuen. Mito horrek ordezkatu zuen proletariotza iraultzailearena, gero eta ikusgaitzagoa herri garatuetan. Hirugarren mundu iraultzaile horri ospea ematen jakin izan zuen Castroren Kubak 1966an Habanan ospatutako Biltzar Trikontinentalaren bidez, Asia, Afrika eta Hego Amerikako ehunka gobernuko ordezkari, alderdi eta mugimendu bildu zituena. 1967an Habanan egin zen hurrengo biltzarrean mezu bat zabaldu zen, non Che Guevarak «bi Vietnam, hiru... asko sortzeko» deialdia egiten zuen.

Askapen Fronte Nazionalak 1968ko urtarrilean eta otsailean Tet-ek egindako erasoaldiarekin Vietnameko gerra bere paroxismora heldu zen. Fronteak ez zituen bere helburuak lortu, baina bere indarra

erakutsi zuen. Gerrarekiko oposizio mugimenduak aurrera egin zuen AEBen 1965ean Vietnam iparraldean bonbardaketak hasi zirenean eta, batez ere, 1967tik aurrera, estatubatuar soldadu gazte asko hil zirenean. Horrek arbuio zabala eragin zuen, zaila baitzen jakitea zeintzuk ziren gatazka hartan amerikarrek zituzten hil ala biziko interesak. Unibertsitateetan gerraren aurkako protesta gehien bulztatu zuen taldea SDS izan zen, *Students for a Democratic Society* (Gizarte Demokratiko baten aldeko Ikasleak), Ezker Berriaren talde bereizgarri bat, zeinaren baitan sortuko ziren *Weathermen* deiturikoak. Hala ere, mugimendua sustrai moral eta erlijiosoko bakezaletasunean oinarritu zen neurri handi batean. Europan, aldiz, gerraren aurkako protesta mugimendua ez zen izan hain masiboa eta erradikala: vietnamdar iraultzaileei emandako babes zuzena bakearen gaiaren gainetik zegoen. 1968an Europako dozena bat herrialdetatik etorritako milaka gazte Berlinen bildu zirenean AEBen interbentzioaren aurkako manifestaldi bat egiteko, urte hartan oso bereizgarri egin zen eslogan erritmiko bat abestu zuten: «¡Ho, Ho, Ho-Chi-Minh! ¡Che, Che, Gue-va-ra!»²³

Hirugarren Munduan iraultza armatua irudikatzen zuten liderrak goresteko joera ohiko ezaugarria izan zen hirurogeiko urteen bigarren erdialdeko mugimendu inkonformisten artean. Fidel Castro, Ho Chi Minh, Mao Zedong eta Che Guevararekiko mirespena ez zen soilik militante erradikalizatuenen kontua, gazte inkonformisten sektore zabala ere hartzen zuen. Sobietar burokrazia grisak ez bezala, lider haiek erromantizismo errebeldearen irudia ematen zuten, eta, Robert Frankek azpimarratu bezala, irudi hori mendebaldeko mugimendu inkonformisten oinarritzko ezaugarri bat zen: «funtsean antierrealista zen boluntarismo bat»²⁴. Ausardia eta irudimenarekin denak ematen zuen posible. Txinako Iraultza Kulturala miresten zutenek, erabat bazterrean utzi zituzten haren gehiegikeria basatiak; era berean, *Cheren* proposamen gerrillariak ez zuen inolako babesik Boliviako nekazarien artean. Aitzitik, haren heriotza heroiko eta goiztiarrak iraultzaren ikono handiena bihurtu zuen, eta etzanda zetzan haren gorpuaren irudiak Kristorekin egindako konparaketa iradoki zuen. Borrokalari iraultzaileekiko mirespen horrek guztiak, ordea, dimentsio sinboliko bat baino ez zuen gehientzat. Borroka armatua Mendebaldeko gizarte garatuetan bideragarria zelako ameskeria zorigaiztokoak oso jende gutxi eraman zuen terrorismora.

Hortaz, hirurogeiko terrorismoaren eta hirurogeiko inkonformismoaren artean dagoen lotura ez da zuzena. Pentsa zer hedadura izan zuten Frantzian protestek eta ez zela ia terrorismorik egon herrialde horretan. *Action Directe* taldea berandu sortu zen, 1968ko maiatza baino hamar urte geroago, eta ibilbide laburra izan zuen. Aitzitik,

Espanian, non terrorismoak indar handia hartu zuen —Europa mailan Ipar Irlandan soilik gaintitu zuena—, zaila da ETA edo GRAPOn jatorria hirurogeiko urteetako inkonformismo mugimendu zabaletan aurkitzea. 1968an Espainian asaldura egon zen ikasleen artean, baina militante terroristak ez ziren hortik sortu.

Ipar Irlandan, aldiz, terrorismoak babes sozial esanguratsua izan zuen aurka jarrita zeuden bi komunitateen artean. Italian babes halako bat eman zioten zenbait ikasle eta langilek. Alemanian babes sozial txikia izan zuen, baina eragin handia iritzian. Aipatu kasu horietan, kaleko liskarrek terrorismoaren sorrerari lagundu ziotela planteatu daiteke. Hiru kasu horiek aztertu aurretik, indarkeria politikoarekin zerikusia izan dezakeen beste fenomeno bat hartu behar dugu kontuan: pertsonen arteko indarkeriaren gorakada.

IV. ASPALDIKO JOERA BATEN ALDERANTZIKATZEA: PERTSONEN ARTEKO INDARKERIAREN GORAKADA

Erdi Aroaren amaieratik, mendebaldeko gizarteetan gertatu den pertsonen arteko indarkeriaren beherakada (hau da, indarkeria politikoa eta gerra baztertzeko dituen) garrantzi handiko fenomeno da, baina historialariek denbora behar izan dute horretaz ohartzeko. Ted Gurr-ek eta Lawrence Stone-k laurogeiko urteen hasieran argitaratutako bi artikulu aitzindarik —gero beste ikerketa batzuk gehitu zaizkie— egiaztatu dute zenbait herrialdetan kontserbatutako dokumentazioak, batez ere homizidioari buruzkoak, garbi erakusten duela beherakada hori. Ingalaterraren kasuan, hobeto ezagutzen dena, urteko homizidio tasa 100.000 biztanleko 20 ingurukoa da 1200 urtean, 6koa 1700 urtean eta 1koa 1900 urtean. Amsterdameko kasuari buruz egingako ikerketa batek, autopsien dokumentazio oso xehean oinarritzen dena, tasaren beherakada are azkarragoa erakusten du; XVIII. mende hasieran 10 ziren, eta XIX. mendearen hasieran, berriz, bakarra. Eta Kent-eko konderrian XVI. mendeko laurogeiko hamarkadan homizidio tasa gehienez 6koa izatetik 0,3ra jaitsi zen XX. mendeko berrogeita hamar eta hirurogeigarren hamarkadetan..., gero berriro 0,7ra igotzeko hirurogeita hamargarrenean²⁵.

Fenomeno honen hainbat interpretazio proposatu diren arren, ikertzaileek, Gurr eta Stone-ren lanetatik aurrera, Norbert Elias soziologo alemaniar erbesteratuak proposatu tesi bati arreta jarri diote batez ere. Eliasek *Über den Prozess der Zivilisation* liburua kaleratu zuen 1939an, eta orduan ia oharkabean pasatu bazen ere, hogeita hamar urte geroago ingelesez argitaratu zenean, ospetsua egin zen. Izenburuak aipatzen duen zibilizazio prozesu horren oinarria honako hau da: Behe

Erdi Aroan goiko klasearen artean gora egin zuen portaeren fintzeak, eta, ondoren, zirkulu sozial zabalagoetara hedatu zen fintze hori. Joera horrek autokontrol ohiturak ezarri zituen, bai eta indarkeria oldarkorrra gutxitu ere, iraganeko garaietan hain ohikoa zena; aldi berean, Estatu indarkeria legitimoaren monopolioa bereganatzen joan zen apurka-apurka, eta mendeku pribatua ordezkatu zuen²⁶.

Aspalditik zetorren pertsonen arteko indarkeriaren beherakadaren joera Bigarren Mundu Gerra ondorenera luzatu zen, baina hirurogeiko urteen inguruan gorakada bat etorri zen mendebaldeko herrialde askotan. AEBen, non homizidio tasa Europan baino altuagoa zen, 4koa zen 1957an, eta tupustean gora egin zuen 10era 1980an. Analistak harrিতuta geratu ziren fenomenoarekin, hazkunde ekonomiko handiko unea baitzen, enplegu betea zegoen, ezberdintasun sozialek behera egin zuten, afroamerikarren eskubide zibilek aurrera, eta programa sozialak gorakadan zeuden; gainera, medikuntzako aurrerapenei esker, txikiagoak ziren eraso baten biktima hiltzeko aukerak. Mendebaldeko Europaren kasuan, Manuel Eisner-ek ikerketa bat egin zuen hainbat herrialdeetako datuetan oinarrituta, eta ikerketaren arabera, homizidioaren batezbesteko tasa 2,5koa zen 1870-1879ko hamarkadan; kopuru hori 0,7ra jaitsi zen 1960-1969koan, baina 1,43ra igo 1990-1999 hamarkadan, eta berriro jaitsi zen 1,29ra XXI. mendeko lehen urteetan²⁷.

Norbert Eliasen ikuspuntuak gertatutakoaren interpretazio posible bat eskaintzen zuen: hirurogeiko urteetatik aurrera homizidioak eta beste zenbait delituk izan zuten gorakada prozesu zibilizatzailearen atzerakada batekin erlazionatuta egon zitekeen, hain zuzen ere belau-naldi gazte berriak portaera onaren arauak ezbaian jarri zituelako. Mendetan zehar, «gizarte ona»ren portaera ereduak gizarte-maila apalagoetara zabaltzea izan zen prozesu zibilizatzailearen oinarria. Belau-naldi berriak, ordea, kolokan jartzen zituen hierarkia sozialak, hirurogeiko gizarte oparoaren gaitz ugariak salatzen zituen eta lanari, familiari, sexualitateari edo harreman pertsonalei buruzko balore tradizionalak arbuiatzen zituen. Horren guztiaren eraginez, gizarte askeago bat sortu zen, bat-batekoagoa eta berdinzaleagoa tratuan, baina, horren ondorioz ere, prozesu zibilizatzaileak indarkeriazko portaerei ezarritako kontrolen erlaxazioa etorri zen. Hori da Steven Pinkler psikologoak, indarkeria mota ororen murriztapen orokor batera eraman duten prozesu ezberdinei buruzko bere ikerketa zabalean, joeraren aldaketa azaltzeko proposatzen duen tesia. Joera horren ondorioz, hamarkada pare batez mendebaldeko gizarteetan pertsonen arteko indarkeria tasek gora egin zuten. Pinklerren ustez, autokontrola alde batera uztea «egizu nahi duzuna»ren mesedetan, lan egonkorra eta familia baten osaketa arbuiatzea, bat-batekotasuna gurtzea, are bio-

lentoa bada ere, eta drogen gehiegizko erabilera, horiek izan ziren estabatuaren hirigune asko suntsitu zituen delinkuentziaren gorakadaren aldeko giroa sortu zutenak²⁸.

Manuel Eisnerren interpretazioa antzekoa da, nahiz gehiago oinarritzen den Max Weberren Eliasen baino. Haren ustez, 1850etik 1950era doan epealdian gertatu zen pertsonen arteko indarkeriaren beharakada nabarmena erakunde sozialek bultzatu zuten portaera kultur-eredu baten hedadurarekin lotuta dago, zeinean autokontrola, familiaren baloreak eta errespetagarritasuna azpimarratzen ziren. Eredu horrek xx. mendeko lehen erdialdeko gerra eta indarkeria politikoaren gorakada epealdian ere jarraitu zuen, baina hirurogeiko urteetan aldatu zen. Esaterako, lapurreta tasek gorakada handia izan zuten 1970 eta 2000 urteen artean Ingalaterran, Suedian, Danimarkan, Italian eta Suitzan. Homizidio tasari dagokionez, batez ere gizonezko gazteen artean egin zuen gora, eta biztanleriaren sektore horretan sei bider biderkatu zen Ingalaterran berrogeita hamarreko eta laurogeita hamarreko urteen artean. Modu esanguratsuan, emakumeen biktimizazio tasak ez zuen modu berean gora egin, familia barruko homizidioak geratu egin ziren, eta infantizidio tasak gutxitu; gizonezko gazteen indarkeria leku publikoetan lazgarriki igo zen, baina, bestalde, xix. mendea baino lehenago ere oso handia zen. Azalpena, Eisnerren arabera, autokontrola eta erakundeen arauetikiko errespetua azpimarratzen zuten portaera arauen atzerakadan bilatu behar da²⁹.

Hipotesi bat zirriborra daiteke, bada, eta hirurogeiko urteetan oso hedatua zegoen inkonformismo gazte eta kulturala hedadura txikiagoa zuen delinkuentziaren gorakadarekin, hiru hamarkadez luzatuko zenarekin, lot daiteke, baita Mendebaldean erabat gutxiengoan zegoen borroka armatuaren aldeko aukerarekin ere. Planteamendu honetara mugatzeak, ordea, fenomenoaren beste zenbait alderdi ahaztea dakar. Borroka armatuak —gizarte garatu batean soilik terrorismo itxura har dezake— Europako zenbait herrialdetan baino ez zuen sona apur bat izan, eta laurogeiko urteen hasieran desagertu zen, salbu eta Ipar Irlandan eta Euskadin, non jarraipena izan zuen. Laurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera, pertsonen arteko indarkeriak behera egin zuen (AEBen homizidio tasa 4,8ra gutxitu zen 2010ean, hain zuzen ere 1957an zegoen tasa baino apurtxo bat gorago). Eta, batez ere, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko urteetan gutxiengoan, emakumearen, haurren eta homosexualen eskubideen alde sorturiko mugimenduek indarkeria mota askoren aurka borrokatu behar izan zuten, eta gorrotzko delituak, genero indarkeria edo haurren tratu txarra zigortzen dituen legedi bat bultzatu zuten. Fenomeno sozial handiak nekez sinplifika daitezke³⁰.

V. MANIFESTAZIOETATIK ATENTATUETARA: IPAR IRLANDA, ITALIA ETA ALEMANIA

Heldu beharreko hurrengo gaia honako hau da: hirurogeiko urteen amaieratik aurrera, protesta baketsua nagusi zen fase berezi baten ondotik, manifestari eta polizien artean edo aurkako taldeen artean izan ziren liskar biolentoek zer neurritan lagundu zuten terrorismoaren eklosioaren aldeko giro bat sortzen? Baiezko aukera planteatzeko, nahikoa izango da Europako hiru herrialderen kasuari aipamen laburra egitea.

Ipar Irlandan, hirurogeiko urteen erdialdetik aurrera, neurri batean AEBtako ereduari inspiratuta zegoen eskubide zibilen aldeko mugimenduak indarra hartu zuen, eta mugimendu horren asmoa gutxiengo katolikoak nozitzen zuen diskriminazio egoerari amaiera jartzea zen. 1968ko udan eskubide zibilen aldeko martxa handiak hasi ziren, zenbaitetan istilu biolentoak zekartzatenak, manifestarien eta polizien arteko liskarrekin, baita manifestari protestanteekin ere³¹.

Garai hartan, 1962tik aurrera, IRAk borroka armatuaren bere jarduna etenda zuen, eta 1966an, Ulsterko Boluntarioen Indarra eratu zen, talde terrorista protestante nagusia, lehen hilketak urte hartan berean egin zituen. Baina 1968an hasitako kaleko liskarrak izan ziren erradikalizazioa ekarri zutenak, eta horrek terrorismorako jausia erraztu zuen. 1969ko abuztuan gobernu britainiarrak Gudarostea zabaldu zuen Ipar Irlandan pertsonen arteko indarkeriari amaiera emateko; hasiera batean, auzo katolikoek ondo hartu zuten neurria, baina luze gabe bihurtu zen kaltegarria. 1970eko hasieran, sektore nazionalista erradikalena IRA ofizialetik, joera marxista hartu zuen hartatik, banandu zen behin-behineko IRA sortzeko, gerora talde terrorista hilgarriena izango zena. Hilketak terroristak, hutsalak 1967an eta 1968an, 19 izan ziren 1969an, eta 140ra igo ziren 1971n.

Indarkeria giro berri horretan, martxak desagertu, eta berriro hasi ziren terrorismoko susmagarriak prozesurik gabe espetxeratzen zituen gobernu britainiarraren erabakiaren aurka. Eta kaleetan piztu zen indarkeriak erradikalizazioa ekarri zuen berriro, 1972ko urtarrilean, Derryn, britaniar paraxutistek manifestari bakezaleen aurka tiro egin eta hamalau manifestari hil zituztenean. Urte hartan indarkeria politikoak eragindako biktimak 498 izan ziren.

Italian, 1968tik 1969ko biurtekoan izandako ikasle eta langileen protestek, nolabaiteko indarkeria maila hartu zutenek, terrorismoaren agerpena lagundu zuen erradikalizazio giro bat sortu zuten. Ikasleen protestak 1967ko azaroan hasi ziren Trentoko unibertsitatean. Berehala zabaldu ziren herri osora, eta ikasleek hainbat fakultate okupatu zituzten. Trenton hamar astez okupatu zuten Soziologiako fakultatea, eta

protestaren bultzatzaileen artean etorkizunean Brigada Gorrien sortzaile izango zirenak zeuden, Renato Curcio eta Mara Cagol. 1968ko martxoaren 1an jauzi kualitatiboa gertatu zen Erromako Unibertsitatean, hiru mila ikaslek aurre egin zioten Poliziari —prentsak Valle Giulia-ko Borroka deitu zion liskarrari—, eta 200 zauritu izan ziren, gehienak poliziak, eta beste hainbeste atxilotu. Ikasleen asaldurak urteetan zehar iraun zuen, baina 1969ko udazken beroan, protesta sozialaren epizentroa Ipar aldeko fabrika handietara pasatu zen, Turin-eko Fiat-era kasu, non grebek jite biolentoa hartu, eta ikasle inkonformisten babesa jaso zuten³².

Garai horretan Ezker Berriko talde erradikalak sortzen ari ziren, iraultza berehalakotzat jotzen zutenak eta indarkeriaren mistika bere egiten zutenak. Nabarmentzekoak izan ziren *Potere Operaio*, 1967an sortua, eta *Lotta Continua*, 1969koa, zeinaren ordenako zerbitzuak borroka oste bihurtu ziren, kaskoz, makilez, giltza zabalgarritz eta beselako tresnez hornituak. Ezker muturreko eta eskuin muturreko militanten arteko borrokek indarkeria giroari lagundu zioten, eta 1977an beste protesta bolada bat egon zen kaleetan, duela hamar urtekoak baino biolentagoak. Baina terrorismorako pauso erabakigarria neofaxistek eman zuten 1969ko abenduan, Milango Piazza Fontanan zegoen banketxe batean bonba bat jarri, eta bereizkuntzarik gabeko sarraskia eragin zutenean. Susmoa zegoen Estatua zegoela atentatu haren atzean, tentsiozko estrategia bat sustatu nahian zebilela estatukolpe baten aldeko giroa sortzeko, eta horrek erradikalizazioa ekarri zuen. Ezkerreko talde terrorista garrantzitsuena, Brigada Gorriak, 1970ean sortu zen, eta bere lehen hilketa 1974an egin zuen.

Antzeko zerbait, baina maila askoz txikiagoan eta langileen parte-hartzerik gabe, gertatu zen Alemaniako Errepublika Federalean. Ikasleen protestak nabarmenak izan ziren, eta bi gertaera tragikok ekarri zuten erradikalizazio biolentoa. 1967ko ekainean, Pertsiaiko *sha* Berlinera bisitan etorri zela-eta egindako protesta batzuetan, polizia batek ikasle gazte bat hil zuen, Benno Ohnesorg izenekoa; eta 1968ko apirilean eskuineko estremista batek larriki zauritu zuen ikasleen buruzagi zen Rudi Dutschke Dutsche. Jauzi kualitatibo bat eman zen 1968ko azaroan, mila manifestarik Poliziaren aurka jo zutenean Berlinen, baina ordurako protesta mugimendua gainbehera etortzen hasia zen³³.

Bien bitartean, 1968ko apirilean, Andreas Baader eta Gudrun Ennslin-ek, etorkizunean Baader-Meinhoff taldearen lider izango zirenek, indarkeriarako jauzia eman, eta Frankfurtoko saltoki handi bat erre zuten, kontsumismoa salatuzeko joera kontrakulturalaren barruan sartzen zen atentatua izaki. 1970eko udaran Jordaniako palestinar entrenamendu-esparru batean egonaldi bat egin eta gero, Gudaroste Gorriaren Frakzioa eratu zen 1971aren hasieran, eta taldearen lehen

biktima polizia bat izan zen, urte hartako urrian hila. Bandak bazuen ezaugarri oso kontrakultural bat: kideetako batzuk psikiatriaren aurkako militanteak ziren, Gaixoen Kolektibo Sozialista-koak, eta hor-tik terrorismora jauzi egin zuten, «Eroak armetara» oihupean³⁴.

ONDORIOAK

Atal honek proposatzen duen hipotesia honako hau da: iraultza armatu baterako jomuga irrealia —gizarte aurreratu batean, era horretako terrorismo baten emaitza nabarmen bakarra biktimen sufrimendu baizik ezin zen izan— hirurogeiko inkonformismoaren testuinguru zabalagoan sortu zen. Belaunaldi berriak zaharkituztat jotzen zuen gizarte baten baloreak arbuiatu zituen, horrek eskubide zibilen, emakumearen burujabetzaren edo bakearen alde borroka egitera eramango zituelakoan; «sexua, drogak eta rock-and-rolla» hirukoa gogoko izatera ere eraman zituen; jokabide biolentoak atsegin izatera (rock-eko zenbait izarrek izan zuten horrelakorik, esaterako *The Who* taldeko Keith Moon bateriak); delinkuentziara desbideratzera, askotan drogaren bitartez, gero droga-trafikora eramaten zuena; baita soilik iraultza armatu batek gizarte hobea bat ekarriko zuelako usteria ere.

Zentzu horretan, pentsa liteke Ezker Berriko terrorismoa inkonformismo kontrakulturalaren ondorioetako bat izan zela, egiazki oso gutxiengoan zegoena, eta ezarritakoarekiko eta boluntarismo idealistarekiko errebeldia partekatzen zuela harekin. Schura Cook-ek idatzi duen bezala, zenbait gazteren artean protesta bakezaletik terrorismo fanatikorako pausoa erraztu zuten faktoreak aztertzea da erronka. Prozesu horretan eragina izan zezakeen inkonformismo ez biolentoaren aurka autoritateek izan zuten gehiegizko erantzunak³⁵. Hirurogeita hamarrek terroristek aurreko hamarkadan izan zuten ibilbidea aztertzeak aukera emango luke berunezko urteek inkonformismoaren urteekin eduki dezaketen lotura horren mugak zehazteko. Michael *Bommi* Baumann alemaniarraren kasua bereziki adierazgarria da: Berlingo *Kommune 1* talde oso kontrakulturaletik Ekainak 2 Mugimendu terroristara pasa zen, *Stasi*-aren informatzailea izan zen, indarkeria ukatu zuen 1974an eta memoria-liburu bitxi bat idatzi zuen³⁶.

II. ATALA

KONTRASTE GARAIA. EUSKAL HERRIA 1960KO HAMARKADAN*

SANTIAGO DE PABLO

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
(UPV/EHU)*

I. HAMARKADA BATERAKO BI IRUDI

1963an bi kazetari suediarrek, Dan Grenholmek eta Lennart Olsonek, Euskal Herria bisitatu zuten beren herriko telebistarako dokumental batzuk egiteko asmoz. Aurreko zineman jada agertu zen euskalduntasunari buruzko ikuspegia jarraituz —XIX. mendeko estereotipo erromantikoen oinordekoa zena—, Grenholmek eta Olsonek landa munduko Euskadi islatu zuten, bere tradizioetan ainguratua. Pilotajokoa erakutsi zuten, baserriak, dantza herrikoiak, kantu korala, txistua, txalaparta, herri-kirolak edo bertsoaritza. Haatik, apenas agertzen zen industria- edo hiri-eremuko ezaugarriarik, nahiz eta euskal probintziek modernizazio prozesu sakona ezagutu ordurako. Gainera, Euskal Herria Espainiatik erabat isolatuta dagoen lurralde bat dirudi, eta gauza bera gertatzen da frankismoarekin, ez baita inolako unetan aipatzen garai hartako testuinguru sozial eta politikoa.

Dokumentalek islatu nahi duten mundutik isolatutako Harkadia tradizional horren irudia gorabehera, dokumentaletako batean, *Basker* («Euskaldunak») izenburukoan, bada sekuentzia bat non, beharbada egileen asmoari traizio eginez, benetako lekukotza historikoa diren plano batzuk agertzen diren ustekabeen. Gipuzkoako herri txiki batean errodatuta daude, Aiako plazan, eta ahari-talka bat, euskal joko tradizional ezagun bat, ikus daiteke. Jendea ahari-talkaren inguruan pilatuta dago, giro herrikoia eta umoretsua dira nagusi, giro euskaldun petoa, janzkerek eta eszenan parte-hartzen duten gizasemeek islatzen duten

bezala. Gainera, filmeko sekuentzia honetan, baita beste batzuetan ere, mundu guztiak euskaraz hitz egiten du, garai horretan Gipuzkoako herrietan ohikoa zen bezala. Halako batean, lehen kolpean osagai *arra-roa* dena, uniformeaz jantzitako guardia zibil bat ikus daiteke, betiko trikornioarekin. Pertsonaia hori ahari-talkari begira dago, barrezka, lasai eta pozik, herriko jendearen lagun eginda, eta herrikoek ez diote inolako *imintziorik* egiten. Aian gaude, Euskal Herriaren bihotzean, 1963an (ikus eranskinak)¹.

Bost urte geroago, 1968ko ekainaren 7an, Aduna udalerrian, Aiatik hogeikilometrora baino ez, ETAk José Antonio Pardines Arcay guardia zibila erail zuen (ikus III. atala). Begi bistakoa denez, ez dago ETAREN lehen hilketaren ikus-entzunezko grabaketarik, baina bisekuentzien arteko kontrastea, denboran eta lekuan oso hurbilak, eta bietan Guardia Zibilak protagonista direla, ezin harrigarriagoa da: erakunde armatu horren agente baten egunerokotasuna herri euskaldun txiki batean (zinema dokumentalak erakutsia, askotan beste iturri batzuek erakusten ez dituzten egintza eta gertaeretara hurbiltzen gaituena), eta, parean, Euskal Herriaren izenean diharduela dioen kide batek odol hotzean hildako guardia zibila. Ia aldi berean, Herri horretako jendea Guardia Zibilaren lagun egiten ari zen, bertako hizkuntzaz eta kulturaz gozatzen ari zen, nahiz eta, zenbaiten ustez, frankismoak benetako *genozidio* baten pean eduki hizkuntza eta kultura horiek².

Bi eszenen artean hogeikilometro eta bost urte baino ez daude. Uler liteke bien arteko kontrastea kronologia ezberdinari zor zaiola. 1963an, gerraondoko une latz eta errepresio krudelekoak atzean utzita, frankismoak hanka altxatu ahal izan zuen azeleragailutik hamarkadan zehar sendotuko zen garapen ekonomikoa baliatuz. Aitzitik, 1968an oposizio antifrankistaren suspertze bat hasi zen, euskal kasuarekin identifikatua, batez ere ETAREKIN. Baina, azalpen kronologikoa neurri batean egiazkoa izanda ere, sinplistegia da, gaur egungo gure ezagutzen egoerak kontraesan horren enigma guztiz ebazten uzten ez digun arren.

Eta bisezenen arteko desadostasuna erabatekoa bada, hala da ere bien ondorengo memoria: 1963 ez da bereziki esanguratsua; 1968, aldiz, munduko, Espainiako eta Euskal Herriko historia garaikidearen funtsezko urtetzat hartua izan da³. Nahiz eta une hartan bere protagonistak horretaz jabetuta ez egon, ETAK egindako lehen hilketak eta ondotik Guardia Zibilaren eskutik etorri zen Echebarrietaren heriotzak (ikus VI. atala), indarkeria ziklo bati hasiera eman zion, ETAK 2011n «jarduera armatuaren behin-betiko etena» iragarri arte bukatuko ez zena. Alderdi askotan sakondu beharra badago ere, azken hamarkadetan historiografiak eta gizarte-zientziek arreta dezente jarri

diote erakunde horrek frankismoan izan zuen bilakaera historikoari, eta lehen hilketaren garrantzia azpimarratu dute, ez hainbeste biktimarena, urte askoan «(des)memoria» ariketa baten objektu izan dena (ikus IV eta V atalak). ETaren ekintzak hirurogeietan izan zuen eraginak eta ondotik etorri zen errepresioak frankismoaren aurka batera altxatzen zen Euskal Herri baten ideia halako bat lagundu zuen. Horrekin batera, 1936ko gerra-gatazka Espainiak egindako inbasio gerra gisa interpretatu izan da; ondorioz, ETaren protagonismoa eta haren aurkako errepresioa kontuan hartuta, batzuek —José Luis de la Granjaren hitzetan esanda— inbasorearen aurkako «erresistentziatzko» historia heroiko bat eraiki zuten, baita «Francoren aurkako matxinada orokor» batena ere⁴.

Aitzitik, 1960ko hamarkadako Euskal Herriaren eguneroko bizitzaren hainbat alderdi —«historiaren une hil horiek», espainiar komiko ezagun bat parafraseatuz—, agian dokumentalista suediarrek jasotako eszenan irudikatuak, bigarren maila batean geratu dira. Ondorioz, historiara pasa den irudia gehiago da 1968koa (ETaren borroka frankismoaren aurka, eta, interpretazioa behartuz, Euskal Herriarena) 1963koa baino (Guardia Zibila giro euskaldun batekin elkarbizitza lasaian). Gertaera traumatiko batek arrasto handiagoa uztea logikoa da, eta, gainera, ziur asko horrek badu zerikusia ez bakarrik arestian aipatutako etapa horren interpretazio alderdikoiarekin, baita garai hartako errealtatea ezagutzen eta ulertzen lagunduko diguten ikerketa sakonen faltarekin ere (Arabaren kasuan izan ezik).

Hala, frankismoak Euskal Herrian izan zuen eraginari buruzko ikerketen egoeraz honako hau azpimarratzen da duela gutxi: «gaur egun, oraindik ere, denboran hain iraunkorra izan zen botere baten barne eraketaz idazten den artikulua edo liburu bakoitzeko, botere horri aurka egiten ziotenei buruzko dozena bat dugu. Ez dugu gobernadore zibilen zerrenda osorik zenbait probintzian, baina bai jakin dezakegula entitate antifrankista txiki-txikien azken xehetasun taktikoa. Oraindik ere, batxilergoko esku-liburuek edo garai hura guztia bildumatzeko ahaleginen batek ez-jakintasun gorabeheratsu hori laburbiltzen du hamar lerrotik bederatziko oposizioari eta are erbesteari eskainiz, eta lerro bakarra, aldiz, frankismoa bere horretan eutsi zutenei edo hura eusteko moduari. Ez-jakintasuna Euskal Herri osoa frankismoarekin zerikusirik izan ez zuelako faltsukeria berrestera baletor bezalakoa da; era berean, zenbait euskal erakundek burutzen duten joko absurdo hori dago, garai hartan erakunde horiek esekita, inolako jardunik gabe eta hutsik —bizilagunen batek hartua izan gabe— egon zirelako itxurak egitearena»⁵. Edozein kasutan, orain arte ikertu den horretatik abiatuta, Euskal Herria 1960ko hamarkadan nolakoa zen modu sintetikoan azaltzea

da atal honen helburua, ETaren lehen hilketa gertatu zen esparrua ezagutze aldera.

II. AURKAKOTASUNAREN, EGOKITZEAREN ETA BABESAREN ARTEAN

Arestian, atalaren izenburuan aurreratu dugun bezala, kontrastez beterikotzat har daiteke garai hori. Berehala etorri zen gerraondoaren izaera *grisaren* aldean, non errepresioa, autarkia, azpigarapen ekonomikoa, eguneroko bizitzaren zailtasunak, falangismoarekin lotutako erregimenaren sektoreen gorakada edo herritarren gaineko kontrol politiko eta soziala izan ziren nagusi, bigarren frankismoa garai kontraesankor gisa agertzen da. Ekonomia eta bizitza sozialaren zenbait alderdi modernizatu zituen erregimen hori bera zen modernitatek berezkoak zituen beste aldaketa batzuk errotik gerarazten saiatzen zena; herri-mailako zenbait erakundek beren eliteak berriitu zituzten, Trantsizioari aurre hartuz; beste erakunde batzuek, ordea, frankismoaren esentziak berreskuratzen saiatu ziren; era berean, errepresioa eta nolabaiteko irekiera bat bateragarriak ziren⁶.

Kontraste horien lehen adibidea hertsaduraren, aurkakotasunaren, adostasunaren eta diktadurarekiko atxikimenduaren artean dagoen harremana da, berehala etorri zen gerraondokoarekin alderatuta oso ezberdina. Nahiz eta, ikusi dugun bezala, ez dugun gai horiei buruzko ikerketa sakonik, hurbilketa bat egiten saia gaitezke. Hala, Espainiari buruz orokorrean egindako zenbait ikerketa gero eta ageriago jartzen ari dira —erregimenaren izaera diktatoriala ukatu gabe, amaieraraino iraun zuena— lehen eta bigarren frankismoaren artean dauden ezberdintasunak; adibidez, errepresioari dagokionez, badira erregimena hasieratik bukaerara «ezereztatzailletzat» edo «genozidatzat» jotzen duten teoriak ezbaian jartzen dituzten kopuruak ematen dituzte. Esaterako, Edward Malefakisek «erregimen adarkatu» batez hitz egiten du, «bere ibilbide luzean zehar erabat aldatu zena», nahiz eta aldaketa horiek bi diktadura moten artekoak izan. Are gehiago, egile horren dioenez, «munduaren historia osoan ez da inoiz egon diktadura frankista bezainbeste aldatu den diktadura pertsonal bat». Estatistikek errealitate askoz ere konplexuagoak ezkuta ditzaketen arren, errepresio modu *lausoak* barne, Malefakisek lehen frankismoan izandako milaka exekuzioak hirurogeiko urteetan, ohiko presoak nahiz politikoak zenbatuta, izan ziren zortzi exekuzioekin alderatzen ditu, Texasen 1960an exekutatu zuten kopuru bera. Hala ere, ez du ukatzen amaieraraino basakeriarik egon ez zenik eta frankismoak «herritarrei egunez egun bere borondatea inposatzen jarraitu ez zuenik jarduera ez hilga-

rrien bidez»⁷. Bestalde, ez da ahaztu behar exekuzioek gora egin zutela 1970eko hamarkadaren lehen erdialdean, 1975era arte bete zortzi egon baitziren⁸.

Kontu interesgarria da garai horretako errepresioan obsesio berezi bat egon ote zen Euskal Herriaren aurka. Hasteko, 1960 eta 1975 urteen artean burututako 16 exekuzioetatik bik baino ez zuten lotura izan Euskal Herriarekin (Juan Paredes Manot, *Txiki*, eta Ángel Otaegi ETAkideak, 1975ean exekutatuak); horrek gezurtatu egiten du Euskadiren aurka errepresio berezi bat zegoelako ideia, are ETAk bere ekintza biolentoak hasiak zituenean.

Hala ere, beste errepresio modu batzuk kontuan izan behar dira, hala nola Ordena Publikoko Auzitegiak burutzen zuena. 1964tik aurrera, aipatu auzitegiak «Estatuaren oinarritzko printzipioak iraultzeko, ordena publikoa asaldatzeko edo nazio-kontzientzian larritasuna ereiteko» joera zuten delituak epaitu zituen. Kasu honetan, «termino erlatiboetan, hiru euskal probintziak izan ziren, Nafarroarekin eta Asturiasekin batera», auzitegi honen errepresioa gehien pairatu zutenak, eta horrek oposizio antifrankistaren indar handiagoa adierazten du. Hala, Gipuzkoa izan zen, alde handiarekin, jazarpen gehiena jasan zuena bere herritarrei dagokienez; ondoren Bizkaia, Araba eta Nafarroa datoz —harrigarria da azken bien kasua, tradizionalki arazo gutxi sorrarazi dituzten probintziak baitira—. Guztira, 1700 euskaldun eta 198 nafar auziperatu zituen Auzitegiak, eta denborak aurrera egin ahala gora egin zuen kopuruak (adibidez, 41 euskaldun 1964an, eta 207 1969an)⁹.

Gainera, Portalen arabera, 1960 eta 1975 bitartean ordena indarrek hainbat egoeratan hil zituzten 59 pertsonetatik ehuneko handi bat euskaldunak ziren (%50a baino zertxobait gehiago), gehienak ETako kideak. Aipatu horiei erakunde horretako bi kide eta EAJren (Eusko Alderdi Jeltzalea) adar gaztearen, EGIren (Euzko Gaztedi), beste bi gehitu behar zaizkie, jartzera zihoazen lehergailuak eztanda egin eta hil baitziren; eta beste bi pertsona ere gehitu behar ditugu, 1975ean ezezagunek hilak Euskal Herrian¹⁰. Datu horiek soilik uler daitezke, kontuan izaten badugu urte horietan beretan ETAk 45 pertsona hil zituela. Edozein kasutan, Euskadi aztoratu baten sentrazioa eta frankismoaren azken urtetan ekintza errepresibo asko izan zirela baieztatzen dute (bereizi gabeak judizialak baino gehiago), eta ia guztiak Pardinesen hilketaren ondotik datoz (ikus VII eta VIII atalak).

Antzeko zerbait gertatu zen 1956 eta 1975 artean ezarritako hamaika salbuespen egoerekin: horietatik bi Asturiasen ezarri ziren, sei Bizkaian eta Gipuzkoan, eta gainerakoak nazio-lurralde osoan, zenbaitek Euskal Herrian aparteko eragina izan zuten arren. Gainera, horietako batzuek harreman zuzena zuten ETArekin jarduerekin. Jáu-

reguiren arabera, horrek guztiak «sinesgarri» egin ahal zuen Euskal Herriak bizi zuen «Espainiaren okupazioa»ren sentsazioa, XIX. mendeko Sabino Aranaren iruditeria sinbolikoan jada bazegoena. Aitzitik, duela gutxi formula horren ahalmen argitzailea zehaztu dute Fernández Soldevillak eta López Romok, «ETAko militanteek ekintzari lotzeko zuten borondateari leku aipagarria gordetzen ez diona»¹¹. Errepresioaren gogortze baldintza horietan ere, mahai gainean jar daiteke zer neurritaraino hitz egin daitekeen «Espainiaren okupazio» batez. Horrek esan nahiko luke sentsazio hori zutenek begiak ixten zituztela askoz ere konplexuagoa zen errealitate baten aurrean; izan ere, euskaldun askok nolabaiteko lasaitasunarekin bizi zuten frankismoa edo hari laguntzen zioten ere.

Egitan, arazoa da jakitea herritarren zer ehunekok parte-hartzen zuen jarduera iraultzaile horietan, zer punturaino babesten zituen edo partekatzen zuen haren oinarri ideologikoa, eta zenbat ziren erregimenean eroso bizi zirenak, suhartasun maila handiagoarekin edo txikiagoarekin haren ontasunez konbentzitutak zeudenei buruz ez hitz egitearren. Hain konplexua den gai baten iturrietara heltzeko zailtasunak zein euskal kasuaz ikertu den gutxiak ezinezkoa egiten dute gai honi erantzun zehatz bat ematea. Azterna batzuen bidez baino ezin gara hurbildu, esaterako, Euskal Herrian erregimena zuen aurkari aktibo kopurura. Hala, Ordena Publikoaren Auzitegiak auziperatutako 1700ak, horietako batzuk «delitu» hutsalengatik, kopuru esanguratsua dira, baina biztanleriaren %0,09a baino ez dira. Beste zenbait datu inpresio hori baieztatzen datoz. Adibidez, Bizkaiko Gobernu Zibilak 686 isun jarri zituen 1966an, baina gehienak (398) eskandaluagatik, ohituren diziplina faltagatik eta ganberrismoagatik izan ziren, eta soilik 101 izan ziren jarduera iraultzaileengatik eta ordena publikoa asaldatzeagatik¹². ELA (Eusko Langileen Alkartasuna) sindikatuaren aurkako errepresioaz diharduen liburu monografiko batean, adierazpen orokorrez harago, errepresaliatu kopurua zehazten denean, harrigarria da hirurogeiko zifrak horren txikiak izatea: ELAko zazpi kide sei hilabetezko kartzelaldira kondenatuak 1963an; hamaika sindikalisten aurkako epaiketa 1967an eta abar.¹³

Memoria pertsonalaren ikuspegitik, urte haietan euskal gizarteak frankismoarekiko izan zuen jarrerari buruzko oroitzapen kontraesankorrak daude. Adibidez, Pedro Ibarraren ustez, «Euskadin jende askok (...) borroka egin zuen diktaduraren aurka» eta «komunitate bat martxan jarri zen frankismoa borrokatzeko». Hala eta guztiz ere, fenomeno berantiar bat izango litzateke, zeren eta egile horren arabera, 1968 eta 1975 urteen artean, Bizkaian zegoen militante antifrankisten kopuruak bost bider egin zuen gora gutxi gorabehera. Bestalde, Ibarrek

zerrenda bat argitaratu du «militante»ren ia 4.000 izenekin, modu batean edo bestean «erregimen frankistaren aurkako borrokan» jardun zutenak Bizkaian 1966tik 1976ra: atxilotuak, erakunde klandestinoen kideak, grebetan eta manifestazioetan parte hartu zutenak eta abar. Zerrenda oso osatua dela dio, eta ozta-ozta egingo ziola ihes izenen batek, zerrenda, funtsean, gizonez osatua dagoen arren; aipatzekoa da, halaber, emakumeen ekintzaren berezitasuna garai horretan, ez zeuden horren aktibo, eta haien aurkakotasuna *formala* zen¹⁴. Baina gizonezko hiritarrak soilik kontuan hartuta egiten badugu kalkulua, %0,78a baino ez litzateke izango aurkari aktibo, eta ez dirudi hori ehuneko handia denik.

Zentzu horretan, Iñaki Díaz Balerdik idatzi du «badela garaia onartzeko hemen denak ez zirela antifrankistak, eta denak ere ez zeudela ezer arriskatzeko prest antifrankistak izateko ahaleginean, eta ez zirela ongizate materialaz edo modak ezarritako gustuez haragoko gauza handiez kezkatzen. Gaur, berrogei urte geroago, gehiengo zabala lubakiaren alde batean kokatzen da —antifrankismo lauso batean—, baina hori proiektzio interesatua baino ez da, nahiz eta ziur asko asmo onekoa ere: gehiengo zabala, ez dezagun geure burua engaina, lubaki horren beste aldean zegoen, non beldurra eta egunerokotasunaren erronka aski serioak baitziren bestelako abenturetan ahaleginak egiteko»¹⁵. Iritzi berekoa da Imanol Villa historialaria; haren ustez, «hirurogeiko hamarkadan zehar, euskal gizarteak, Espainiaren gainerakoak bezala, onespren halako bat erakutsi zuen, erregimenarekiko onarpen adoregabe bat bezala ere uler daitekeena»¹⁶.

Egiantan, zonalde zehatzetan frankismoaren azterketara hurbiltzen diren egileek gero eta gehiago nabarmentzen dute haren konplexutasuna, batez ere diktaduraren aurreko jarrerak eta honek eragiten zuen onarpenera edo arbuioa ikertzeko garaian. Garbi dagoena da frankismoak ez zuela hainbeste iraun soilik errepresioaren bidez. Aitzitik, beren artean lotura duten zenbait faktoreren (errepresiboak, kulturak, sozialak, ekonomikoak, propagandazkoak, Estatuaren eta gizartearen bitartekotza mekanismoak eta abar) arteko elkarrekintzak azal dezake erregimenaren jarraitasuna, eta haren aurrean jendeak oso bestelako jarrerak azaldu zituen. Zona «gris» handiekin batera, ziur asko pertsona askok «egokitze» hutsa erakutsi zuten. Jende arrunt gehiena askoz kezkatuago zegoen bizirautearekin (gerraondoan), existitzearekin edo are hobeto bizitzearekin (frankismo berantiarrean) kontu politikoekin baino. Horrek guztiak laguntzen du azaltzen nola liteke «hirurogeien erdialdean bere goren aldia bizi zuela ematen zuen erregimen bat urte gutxiren buruan amiltzea»¹⁷.

Adierazi dudana bezala, euskal kasuari kategoriatu horiek ezartzeko orduan, arazoa da ez dagoela gaiari buruzko ikerketa sakonik. Baina

esanguratsua ere bada, zenbait datuk, aurkakotasun aktiboaren ildo iradoki orde, gehiengoa egokitu zelako ildo iradokitzen dute, Euskadiri buruzko duela gutxiko kontakizun heroiko jakin batek esaten duenez beste. Adibidez, Arabako Gobernu Zibilaren 1962ko txosten batek, hain zuzen ere, «neutralismo politikoa»ren nagusitasuna nabarmentzen zuen probintzian: arabar arruntak «lasai bizi nahi du, batzuetan orainerako eta etorkizunerako (...) iruditzen zaion ordena natural baten segurtasunean»¹⁸.

Zenbait dokumentu pribatutan, aldi behingo argitalpenetan kaleratzen zen ikuspegiaren aldean, erbestean bizi ziren euskal agintariek atsekabez onartzen zuten euskal gizartearen gehiengoa frankismora egokituta bizi zela. EAJkoek, adibidez, onartzen zuten garapen ekonomikoari esker, enpresari eta talde ertain nazionalistak erregimenera egokitzen ari zirela arazorik gabe. Berrogeita hamarreko urteen amaieran EAJk ezin zuela ezer egin egokitze horren aurka, idatzi zion Francisco Javier Landaburuk alderdikide bati, «gure lagun hurbilenek gauzen egoera horretan parte-hartzen dute, bai eta sustatu ere». Fededun bezala, umorez uste zuen bere esperantza bakarra Jainkoarengan ustea izatea zela, «azken honek Zadorra, Urumea eta Ibaizabalen artean mekanika-lantegi bat jarri ez badu behintzat. Kasu horretan, galduta gaude». Haren alderdikide Jesús María Leizaolak «aldarte konformista eta moldaeraz» bati buruz hitz egiten zuen, «zahar eta gazte hartzen dituen (...) Gure aberkideak lanaz, negozioez, familia-bizitzaz eta beren jolasaldi oro har zintzo baina kaltegabeaz arduratzen dira»¹⁹. Beren oroitzapenetan, euskal nazionalismotik datozen zenbait pertsonen baieztatu egiten dute sententzia hori. ETAko garai bateko kide Xabier Zumaldek (*El Cabra*) idatzi zuen ia mundu guztiak «interes handiagoa zuela Seat 600 bat, edo telebista bat bederen erosteko, ezen ez saltsetan sartzeko». Bestalde, Jokin Inza erbesteratu *jeltzaleak* kontatzen duenez, «desilusio handia hartu zuen» lehengo alderdikideekin topo egitean, «jada ez baitzuten berak bezala pentsatzen. Ondo bizitzean baino ez zuten pentsatzen. Eta diruaz, autoez eta ondo jateaz baino ez zuten hitz egiten»²⁰.

Egia da egoerarekiko moldatze hori bateragarria izan zitekeela egile batzuek azpimarratutako zenbait «erresistentzia» modurekin, hala nola «isila» edo «emozionala». *Jeltzaleez* ari garela, Josu Erkorekak idatzi du frankismoari aurre egiteko «erresistentzia modu asko zeudela»: adibidez, etsi gabe eustea, kikiltzea edo haren aginduen aurrean amore ematea»²¹. Hala ere, iturrietan oinarritutako ikerketarik ez dugun bitartean, erraza da alde aurretikako ikuspegietatik abiatzea edo «erresistentzia» isil edo emozionalaren zeinu gisa hartzea «onarpena», «egokitzea» edo «neutraltasuna» izan litekeena²².

III. HERRI EZAGUTEZIN BAT

Kontrastez betetako mundu bat zen hirurogeiko euskal gizartean aldaketa sakonenean demografiari, ekonomiari, gizarteari eta kulturari eragin zioten. Izan ere, aldaketa horiek hain handiak izan ziren, ezen «euskal historia garaikidearen eraldaketa garrantzitsua eta osoa gertatu zela orduan. Bigarren industrializazioak lurralde guztiei eragin zien, eta egun ezagutzen dugun herri modernizatua osatu zuen funtsean»²³. Logikoa da eraldaketa hain azkar horrek zuzenean politikoak ez ziren gaiei eragitea, diktadurak kontu horietan mamidun aldaketak egitea galarazten baitzuen. Baina egoera hori gerraondokoarekin alderatzen badugu, aldaketa are esanguratsuagoa da.

Hasteko, euskal biztanleriak hazkunde oso azkarra izan zuen, eta 1.400.000 biztanle izatetik ia 1.900.000 izatera pasa zen hamar urtetan. Hazkunde demografiko horrek bai Arabari, ordu arte dinamikotasun gutxikoa, bai Bizkaiari eta Gipuzkoari eragin zien, jada 1936a baino lehen nabarmen hazi zirenak. Hala, frankismoaren bigarren erdialdean «ikusgarritzat jo daitekeen» biztanleria hazkunde bat izan zuen Bilbo Handiak, eta XIX. mende amaierakoa ere gainditu zuen. Euskal Herriaren gainerakoan bezala, hazkunde horren arrazoia jaiotza-tasa handia eta hilkortasun oso baxua izan zen, baita immigrazioa ere, Espainiaren gaineraketik etorri zena. Betalde, hirurogeiko urteetan Arabak bere biztanleriaren %31,80aren baliokidea den saldo positibo bat izan zuen, eta «immigrazio garbiko ehuneko handiena duen Espainiako probintzia» bihurtu zen²⁴.

Álvarez Llanoren arabera, Garapen Egitasmoek abian jarritako ekonomia-politikak «aurrekaririk gabeko hazkunde batera» eraman zuen Espainia, eta garai hartan mundu mailan Japonia bakarrik zuen aurretik. Baina, egoera horretan, euskal probintziek «espainiar batezbestekoa baino hazkunde handiagoak izan zituzten» (urteko %6,3a 1981 eta 1975 artean), per capitako BPGd askoz ere handiago batekin. Ez dugu panorama hori handietsi behar, inoiz ez baitziren falta izan tentsio inflazionistetatik edo gehiegizko esku-hartze publikotik zetozen arazoak; gehiegizko esku-hartze publikoak, adibidez, «zenbait sektoreren garapen artifiziala ekarri zuen, eta sektore horiek ezin izan zioten aurre egin hirurogeita hamarretako bigarren erdialdeko krisiari, ezta ekonomiaren mundu mailako globalizazioaren etorrerari ere»²⁵. Gainera, hazkunde azkarrak «hiri-zonaldeetan aldaketa larriak ekarri zituen Bizkaian, eta, ondorioz, metatze ia autarkikoak, pilaketak eta azpiegituren absentzia ia erabatekoa gertatu zen». Arrazoia? Bilbon bederen, «hiriak bizi izandako aldaketa sakonen garai horretan» Udalak irtenbide partzialak tupustean hartu

zituelako, planifikaziorik gabe eta behar adina baliabiderik gabe. Antzeko zerbait gertatu zen Gipuzkoan, non bertako erakundeek apenas eduki ahal izan zuten eraginik probintziako «bigarren modernizazio prozesuan». 1937an Kontzertu Ekonomikoa galdu ondoren, Foru Aldundia, saiatu arren, «ez zen ez erabakigarria, ezta garrantzitsua ere izan» prozesu horretan, eta inoiz ez zuen haren motorra sustatu: industria²⁶.

Arabian justu kontrakoa gertatu zen, bertako erakundeek Kontzertuak bermatutako autonomia fiskal eta administratiboa baliatu zuten urte gutxitan probintziaren egitura ekonomiko eta soziala aldatu zuen industrializazioa sustatzeko. García Zúñigaren hitzetan, horrek «arrakastaren paradigma» bihurtu zuen Araba industrializazio berantiarra izan zuten probintzien artean; lehen postua bete zuen ekoizpen garbiaren hazkundera eta estatu mailan martxan jarri ziren Garapen Egitasmoei aurre hartu zien. Arabaren kasuan, Nafarroaren kasuan bezala, erakundeek erantzun egoki bat egon zen, merkatuaren dinamismoa bideratu eta sendotu zuena. Foru Aldundiak eta Udalak aldeko kokapen geografikoa baliatu zuten pizgarri fiskalak, industria-lur eskuragarriaren eskaintza, azpiegituren hobekuntza eta ondo trebatutako giza kapitala —batez ere, Elizak gerraondoan Gasteizen sustatuko Lanbide Heziketako eskolei esker— bateratzeko. Bizkaian ez bezala, Arabako hiriburuko Udalak hiri-hazkundera planifikatu zuen, eta, neurri handi batean, aurre hartu zion industrializazioari, eta Bilbo Handiari eragin zioten egiturazko arazo larriak saihestu zituen²⁷.

Beste berritasun garrantzitsu bat, kasu honetan batez ere kostaldeko bi probintzietan, herri txiki asko industria-zentro bihurtu zirela. Horrekin batera, berrikuntza handi bat egon zen zenbait sektoretan, hala nola makina-erremintarenean, etxetresnerean, autoentzako osagaienean eta abar. Industria horiek, Bilboko itsasadarreko lantegi handiak baino bolumen txikiagoak, bere langileen goi prestakuntzan oinarritu zuten beren garapena, eta ekoizpen handiko industria-mapa bat lortu zuten, euskal geografian zehar barreiatutako lantegi txikien tradizioari —batez ere Gipuzkoarekin lotua— jarraitzen ziona. Lurrari atxikitako industria-ehunaren adibide on bat dotrina sozial kristaua ezartzen saiatzen zen Arrasateko mugimendu kooperatiboa izan zen, José María Arizmendiarrjeta apaizak bultzatutakoa²⁸.

Frankismoaren amaieran, hiru probintzietan zegoen hiri-biztanleriaren ehunekoak jada %75a baina handiagoa zen. Eta, urbanizazio- eta modernizazio prozesuen artean eskuarki harremana dagoenez, begi bistakoa da —iturri zehatzekin neurtzea zaila bada ere— biztanleriaren zati handi baten pentsamoldea aldatzen ari zela. Are gehiago, komunikazioen hobekuntzari, biztanleriaren mugikortasunari eta

komunikabideen zein denbora-pasa bitartekoen pixkanakako gorakadari esker, herri txikiak ere ez zeuden jada lehen bezain isolatuta. Benetako soldaten gorakada eta bizi-mailaren eta kontsumo aukeren hobekuntza jarraitua gehitu behar zaio horri, Euskal Herrian langabezia tasak ia hutsalak ziren une batean gainera. Ondorioz, «ohituren aldaketa» sartzan joan zen, eta zinemari, telebistari, autoak ekarritako pixkanakako mugikortasun orokorrari, turismoaren aukerei, komunikazioen hobekuntzari, kirolaren gizarteratzeari eta berritze kultural halako bati esker, hain zurruna ez zen eta garai berriekin moldaerazagoa zen pentsamolde bat hedatzen joan zen²⁹.

Neurtzeko apur bat zaila bada ere, Poliziaren txostenek aldaketa horren berri ematen zuten; hala ikus daiteke 1969an Bizkaiari buruz egindako batean, non Europako korranteetan sartu izana, turismoa, Elizaren aldaketa, kontsumismoa eta abar aipatzen diren: «Bada zer-bait giroan eta bizitza modernoaren eskakizunetan gobernu-neurri orori ihes egiten diona». Barrutik erbestera bidalitako EAJren isilpeko txostenetan ere «bizimoduan izandako aldaketa» batez hitz egiten zuten, «pentsamolde aldaketa» bat eragiten ari zena³⁰.

IV. KULTURAREN IRATZARTZEA

Euskal demografia eta ekonomiaren aldaketa erradikalarekin batera, maila kultural eta sozialean ere Euskal Herria bere garaiari aurre hartzen ari zitzaion neurri batean, nahiz eta frankismoak utzitako muga estuen barruan. Bestalde, kontuan izan behar da frankismoaren permisibitatea —zenbaitetan arinkeria apur batekin— urte batzuk lehenago aurreikus zitekeena baino harago hedatu zela. Bi adibide bakarrik jartzearen, 1966an Bilbon zegoen Frantziako kontsulatuak jakitera eman zuen René Clément-en *¿Arde París?* filma, Bigarren Mundu Gerran Frantziako hiriburuan izan zen nazien aurkako erresistentziari buruzkoa, komertzialki estreinatuko zela. Kontsularen arabera, «zentsurak ez zukeen horrelako film baten estreinaldia baimenduko hilabete batzuk atzera», «matxinada eszenak» erakusten baitzituen, oposizio antifrankistarentzat adibide gisa aisa balio zezaketenak³¹. 1970ean, zentsurak Franz Fanonen, Algeriako iraultzaren teorikoaren *Por la revolución africana* liburua, garai horretan ETAREN gogoko liburuetako bat zena, euskarara itzultzea baimendu zuen³². Baina kontrastez betetako garai horretan, hori bate-ragarria zen diktadurarentzat *a priori* arrisku gutxiagokoak ziren liburuen zentsurarekin.

Hirurogeiko urteen eklosio kulturalaz hitz egiterakoan, kontuan izan behar da garaiko bizitza kultural gorabeheratsu gutzia ez zegoela

euskal nazionalismoarekin lotua eta ez ez zela erregimenaren oposizioaren zati bat ere. Bi premisa horiek onartzeak garai horren ikuspegi oker batera eramango gintuzke beste behin ere. Izan ere, berriztatze horrek Trantsizioaren aniztasun politikoa aurreratuko zuen aniztasun kulturala islatu zuen. Hala, gazteleraz idazten zuten zenbait egile garrantzitsu, hala nola Gabriel Celaya eta Blas de Otero poetak edota Luis Martín Santos eta Luis de Castresana eleberrigileak, euskaraz idazten zuten beste zenbait sortzailearen aldi bereko izan ziren, hala nola Gabriel Aresti edo José Luis Álvarez Enparantzaren (*Txillardegi*) aldi bereko.

Halaber, ezin da ahaztu bertako erakundeek egindako lana kultura sustatzeko orduan, euskalduntasun izaera zuena barne. Adibidez, zentzugabea da garai hartako kulturaren mapa bat marraztea eskolatzean izandako aurrerapenak aipatu gabe, 1970ean osoa zena, nahiz eta oraindik «zenbait alderditan atzerapenak izan herri gartuekin alderatuz gero»³³. Antzeko zerbait gertatu zen goi ikasketekin, gutxi batzuen ondare izateari utzi eta gizarte-maila ezberdinetara ireki baitziren, 1975etik aurrera are gehiago bizkortuko zen prozesu batean. 1935-1936 ikasturtean zeuden 31.809 ikasleen aldean, 1971-1972 ikasturtean 187.756 zeuden. Gainera, emakumeen ehunekoa modu esponontzialean hazi zen garai horretan. 1968an Estatuak marxan jarri zuen Bilboko Unibertsitatea, Euskal Herrikoaren hazia, ofizialki 1980an sortu zena³⁴.

Museoen arloan ere, «frankismoaren hondar uneetan (...) kultura ondarearen egoerak hobekuntza apur bat izan zuen. Museoen zenbait erakunde hobetu ziren. Berriak ere ireki ziren. Seriotasun handiagoz inbertitzen hasi ziren ordu arte itxuraz onurarik gabeko iturritzat jotzen ziren zenbait proiektutan». «Politika ofizialean integratuta egon arren, estereotipotik urrundu eta neurri batean ezezagunak ziren bideetatik ibiltzen jakin izan zuten» zenbaiten ahaleginari esker, Bilboko Arte Ederren museoa sendotu eta Gasteizkoa sortu zuten, «diktaduraren azken urteetan, eta Espainiako museoen panoraman, ekimen berritzaileenetakoa bezala agertu zena»³⁵.

Euskaraz egindako kulturari dagokionez, Bizkaiko eta Gipuzkoako Probintzia Aldundiek eta Arabako Foru Aldundiak, baita Nafarroakoak ere, euskara sustatu zuten. Idatzi den bezala, lan hori «erregimenak ezarritako esparru estuaren barruan egiten zen beti», baina —perspektibarekin ikusita— harrigarria da esparru horrek baimentzen zuena, nahiz eta askotan negoziazio eta zesioen bidez lortu, aldez aurretik ezarritako arauen mende baino gehiago agintarien aldatzearen mende baitzeuden erabaki asko. Hala, 1966an Gipuzkoako probintzia korporazioak euskara irakaskuntzan sartzea bultzatu zuen. Helburua ez zen bakarrik euskal hizkuntza babestea, baita probintziaren gaine-

rakora zabaltzea ere, «gure nazio kulturaren, zaharra bezain miragarria zen hizkuntza baten biziraupena ziurtatzeko bitarteko gisa»³⁶. 1964an —ez erbestean, Gasteizen baizik— ziur asko euskal kulturaren espezializatutako dokumentazio gune osoena izango zena sortu zen: gaur egungo Sancho el Sabio Fundazioa den horren Euskal Liburutegia. Haren sortzailea Jesús Olaizola euskaldun tradizionalista izan zen, eta Aurrezki Kutxako zuzendari zen Vicente Botella eskuindarraren laguntza izan zuen. Ideologia kontuan hartu gabe, Olaizolak euskal gaiari buruz argitara emandako guztia bildu zuen, gerra aurretik debekatuta zeuden liburuak zein erbestean argitaratutakoak, eta ikertzaileen eskura jarri zuen³⁷.

Hala, gerraondoan, zeuden zailtasunen aurrean, kultur sormen euskaltzalearen zati handi batek erbestera jo zuen, baina, 1960ko hamarkadan, kultura dinamismoa barrualdera itzuli zen berriz, erregimenaren permisibitate erlatiboa baliatuz. Irekiera hori eragozpen eta zailtasunekin bateragarria zenez, Elizak eskaintzen zituen auketan bermatu zen askotan kultura-ekintza hori, orokorrean agintariek gutxiago kontrolatzen zutelako. Euskal nazionalistak jakitun ziren kultura borroka-eremu bat zela, aurrerapenak lortzeko —gerora interes politikoak atera zitzaizketen hartatik— eta, batez ere, «euskal arima» lantzeko lagungarria, Primo de Riveraren diktadura pean jada egin zuten bezala. Nazionalismo zahar zein berriko militante asko sustatzaile zein parte-hartzaile bezala agertzen zaizkigu hainbat alorretan: euskal dantza, txistulari taldeak, argitaletxeak, aldizkariak, hezkuntza-ekimenak edo jaialdiak, Mairuelegorretako leizeetan, Gorbaiako mendigunean, egiten zena bezalakoa. Modu kontraesankorrean, beste behin ere, euskal jai horien lehen ekitaldiek, 1963an hasi zirenek, agintari frankistak izan zituzten buru. Aitzitik, 1968an Gobernu Zibilak debekatu egin zuen jaialdia bertaratutakoek ikurriaren koloreak zeramatatzelako soinean, eta, euskal abesti eta dantzez gozatzen zuen jendetzak babestuta, panfletoak bota eta oihu politikoak egiten zituztelako³⁸.

Hamarkadan zehar, euskararen garapena hizkuntza horretan argitaratutako liburu kopuruaren gorakadan islatu zen. Adibidez, 1960-1969 bitartean 592 liburu argitaratu ziren euskaraz Espainian, Gerra Zibilaren aurreko hogeitun urtetan, Euskal Berpizkundearen garaitzat hartua den horretan, argitara emandako kopuru bera ia (593). 1970-1975 bitartean gertatu zenaren atariko bat baino ez zen izan hori; epealdi horretan 723 liburu argitaratu ziren euskaraz soilik sei urtean. Nahiz eta, logikoa den bezala, kopuru horiek urriak izan Franco hil eta gero izandako kopuruarekin alderatuz gero. Historian zehar, inoiz ez zen horrenbeste liburu euskaraz argitaratu frankismoaren amaierako epealdi horretan baino³⁹. Nabarmentzekoa da, halaber, Durangoko

Euskal Liburu eta Diskoaren Azokaren sorrera (1965), euskarak komunikabideetan zuen presentzia eta Euskaltzaindiaren suspertzea. Azken honek 1919an sortu zenetik bere buruari jarri zion helburuetako bat lortu zuen orduan, 1968an: euskara batua finkatzea. Zeregin horretan Koldo Mitxelena hizkuntzalaria nabarmendu zen. Hezkuntzaren alorrean oinarritzkoa izan zen ikastolen mugimendua, neurri batean elizairakaskuntzaren aukerei esker sortua hasieran. Lehen ikastola 1954an sortu zen Donostian, eta bigarrena Bilbon, 1957an. Hala ere, ikastolaren benetako garapena 1960ko hamarkadan hasi zen, euskal probintzia guztietara zabaldu eta 1970ean 12.000 ikasle baitzituen dagoeneko. Garai horretan ez zen arazo faltarik izan; batetik, administrazioaren eragozpenak zeuden, eta, bestetik, nazionalismo tradizionalaren eta iraultzailearen artean kontu ideologikoengatik sortutako liskarrak. Agintari askok errezeloa zieten arren, frankismoaren azken urtetan beste edozein eskola pribaturen pareko ikastetxe homologatu gisa onartuak izan ziren ikastolak. Erregimenaren erakundeek ere zenbait ikastola zuzenean sustatu zituzten, 1973an jada Arabako Aldundiak egin zuen bezala⁴⁰.

Berrikuntza kulturalak askoz eragin txikiagoa izan zuen eguneroko prentsan, funtsean gerraondoko medioak baitzeuden. Bi egunkari pribatu —bata tradizio ideologiko katolikoa zuena, eta besteak, berriz, monarkikoa— borrokan ari ziren Bizkaiko iritzi publikoaren lidergoa bereganatzeko (*La Gaceta del Norte* eta *El Correo Español-El Pueblo Vasco*). Aitzitik, Gipuzkoan esanguratsua da Mugimenduaren Prentsa-egunkari batek (*La Voz de España*) *El Diario Vasco* gainditzea, harik eta lehena 1980an derrigortuta desagertu zen arte. Era berean, zenbait aldizkari argitaratzen airen euskaraz, batez ere izaera erlijiosokoak (*Jakin*, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Karmel*, eta abar). Hala ere, harrigarria da —baita Trantsizioaren ondorengo egoerarekin alderatzen badugu ere— *Boletín Informativo de la Revista Financiera del Banco de Vizcaya* delakoa euskaraz argitaratu zela 1964 eta 1970 urteen artean, batez ere Amerikan bizi ziren euskaldunengana iristeko asmoz⁴¹. Antzeko mugimendua egon zen irratian, batez ere elizaren mendeko ziren Radio Popular-en irratietxei esker. Aipatu horiek euskal kultura eta hizkuntzaren defentsari ekin zioten, eta, ondorioz, isunak eta itxierak pairatu zituzten. Azkenik, garrantzi sozial gero eta handiagoa izan arren eta 1971an Bilbon Centro Regional de Televisión Española delakoa inauguratu arren, jaio berria zen telebistak ez zuen irratia-aren pareko zereginik izan, Gobernuak kontrolatutako estatu-monopolio bat zelako.

Euskal kulturaren berpizkundea musikara (*Ez dok amairu* taldearekin, zeinaren kide baitziren Mikel Laboa, Lourdes Iriondo eta Benito Lertxundi, besteak beste) eskulturara (Jorge Oteiza, Eduardo

Chillida, Néstor Basterrechea, Agustín Ibarrola eta abar), margolaritzara (Gaur, Orain eta Emen taldeak) eta zinemara ere (*Ama Lur*, 1968) heldu zen⁴². Kirolaren kasuan, oposizioak hartaz egin zuela erabilera politikoa mendizaletasunean egin zen hautemangarri batez ere, eta mendizaletasuna euskal nazionalismoaren hazitegi bihurtu zen, Gerra Zibilaren aurretik gertatu bezala. 1967an Euskal Mendizale Federazioa eseki zuten lau urtez, espedizio batek Andeen gailurrean ikurrina bat jarri zuela jakin eta gero. Federazioko zenbait kide kartzelara eraman zituzten ere.

Laburbildu dugun panorama kulturalak «euskara frankismoan debekatua egon zela» dioten adierazpen kategorikoak, maiz errepikatzen direnak, gezurtatzen ditu⁴³. Ez zen inoiz horrelako debekurik egon, ezta gerraondoaren urte gogorrenetan ere. Urte horietan bai izan zela mugatua eremu pribatura eta jazarria, ezein «separatismo» zantzuren kontra egiteko prest baitzeuden agintariak. AEBek Bilbon zuen konsulatuaren txosten batek, 1956ko otsailekoa, jada adierazten zuen «euskararen erabilerari dagokionez, orain urte batzuk baino aurkakotasun gutxiago erakusten jarraitzen dute agintariek». 1960ko hamarkadan ez zen debekatua izan, are gehiago, zenbait agintarik sustatu ere egin zuten, eta horrek haserrealdiak eragin zituen batzuetan erregimenaren barruan. Hala ere, hizkuntza eta euskal kulturaren zenbait erreferente sinboliko hain zeuden nazionalismoarekin identifikatuak ezen zaila baitzen haren *kutsadura* saihestea. Hala ikusi zen 1961ean Consejo Nacional del Movimiento delakoak nazionalismoari bere bandera sinbolikoa kentzen saiatu eta «euskalduna zen guztia espainartasunaren ondare zaharrena» bezala aldarrikatzeko egin zuen ahaleginean porrot egin zuenean. Horren harira aurkeztu zen ponentziak agerian utzi zituen erregimenak kontu horretan zituen kontraesanak. Euskarari dagokionez, «haren ezagutza sustatzea» proposatzen zuen, baina bizitza modernorako eta modernizaziorako tresna baliagarria zela bene-benetan sinetsi gabe, baita «haren jatorrizko garbitasunari nola edo hala eustea ere», Euskaltzaindia tematuta zegoen batasun eta modernizazio prozesuaren kontra. Frankismoak borroka sinbolikoa galdu zuen, eta pertzepzio sozialak nazionalismoarekin identifikatzen zuen euskal kultura, eta haren debekuarekin diktadura⁴⁴.

V. ASALDATUTAKO ELIZA BAT

Ibarraren arabera, «kristau espazioa» —edo beste hitz batzuekin esanda, «erlijioaren bidezko kontzientzia hartzea»— izan zen ziur asko «borroka antifrankistaren militante gehien sortu zituena». Garaiko polizia txostenak inpresio hori baieztatzera datoz: adibidez, 1968an

Bizkaiko Poliziaren Bulego Nagusiak zioen «klero progresista separatista euskalduna»ren kideak zirela «hiriburu honetan eta probintzian gertatutako anormaltasun ororen erantzuleak, lan-mailan zein ikasle-mailan izandako manifestazio, kontzentrazio, lan-gatazken eta abarren erantzuleak»⁴⁵.

Elizaren eta frankismoaren artean gerraondoan izan ziren harremanak kontuan izanda, egoera hori harrigarria irudi dezake, baina euskal kasuan, Gerra Zibilak gorenera eraman zituen eta berrogeiko hamarkadan agian ezkutuan eta desagertu gabe zeuden tentsioen berragertze bat izan zen. Nahiz eta dagoeneko 1950eko hamarkadan hasiak ziren nabaritzen gerora agertuko ziren urrun tzearen zenbait sintoma, Acción Católicako langile taldeen jardueran hautemangarriak adibidez, Elizaren eta erregimenaren arteko tentsioa frankismoaren azken hiru bosturtekoetan heldu zen bere gorenera. Vatikanoko II. Kontzilioarekin lotutako berritze katolikoarekin batera —Kontzilioaren ondorioek paradoxikoki eliza-krisi garrantzitsu bat ekarri zuten—, frankismoaren aurkako erantzun klerikal bat gertatu zen, Euskal Herrian askotan kutsu nazionalista izan zuena. Bestalde, elizakoa zen nolabaiteko askatasuna zuen esparru bakarrenetakoa, eta hori dela eta, orotariko jarduerak (hezkuntza, euskara, sindikalismoa eta abar) hazi ziren Elizaren babespean.

Euskal Herrian oihartzun ikaragarria izan zuen Kontzilioaren osteko krisiak. Seminarioei eragin zien batez ere, eta luzaroan bere irmotasunagatik ezagun egin zen erakunde bat asaldatu zuen. Klerikalismo nabarmen baten tradizioak, arazo politikoek, gerraren ondareak eta ETaren indarkeriak eragin serioa izan zuten elizaren egoeran, eta eliza ez zen une hartan gertatzen ari ziren kultura eta pentsaera aldaketetatik kanpo gelditu. Joseba Arregiren hitzetan, hirurogeiko urteetan euskal gizartea «bidegurutzean zegoen, aurreko garaietatik zetozen osagai sozio-kulturalek bizirik jarraitzen zuten. Erlijio katolikoak gizartea eta kultura kontrolatzeko indar handia zuen oraindik, edo oso handia; beraz, euskaldunen pentsaera osatzen zuen indar bat zen oraindik». Baina, aldi berean «euskal gaztediaren zati bat bere burua erlijio katolikotik distantzia kritikora sentitzen hasiko da (...), adierazpen marxista baten bidez». Egiatan, marxismoa katolizismoaren zenbait ikuskeretan txertatu zen, eta koktel bitxia atera zen hortik, bere burua konfesionaltzat aitortzen zuen diktadura baten barruan aparteko egoera bat eragingo zuena. Arregik gehitzen duenez, lehen industrializazioaren ondotik, sozialismoaren eta «nazionalismo teokratikoaren» arteko «dikotomia garbia» sortu bazen ere, oraingo honetan «nazionalismoak, nazionalismo berri batek (...) eta marxismoak, marxismo berri batek ere, topo egin dezaketen leku bat zabaldu zen, oinordetzan jasotako dikotomia hori gainditzeko aukera zabaldu zuena»⁴⁶.

1960an 339 apaizek, sinatutako agiri baten bidez, «Jainkoak euskaldunei eman zizkigun ezaugarri etniko, linguistiko eta sozialak jasaten ari ziren jazarpen bortitza» salatu zuten, eta idatzi horrek apaizen protesta antifrankista aldi bat abian jarri zuen, gero eta ohikoagoa egingo zena aurrera zihoan hamarkadan. Hala ere, ez da ahaztu behar apaizeria heterogeneoa zela politikaren eta pastoralgoaren ikuspuntutik. ETAren ekintzak babestera heldu ziren apaiz eta erlijiosoekin batera, beste askok bakezaletasunaren bidetik jo zuten frankismoaren aurka (batzuek kontu sozialak azpimarratzen zituzten, besteek, berriz, gai nazionala), eta baziren beren pastoralgo jarduera egoera politiko gatazkatsutik bereizten saiatu zirenak ere, lehenean jarraitzen zuen gutxiengo tradizionalista bat ere bazegoela ahaztu gabe. Haatik, beste esparruetan gertatu bezala, nazionalismoarekin eta antifrankismoarekin lotutako euskal apaizen irudia —kontu politikoetan zuzenean nahasten ez zen eta beharbada gehiengoa zen apaizena baino txundigarriagoa— nonahikoa egin zen⁴⁷.

Edozein kasutan, euskal apaizen eta frankismoaren arteko gatazkek gora egin zuten esponentzialki 1960tik aurrera. Zenbait apaizek —gehiengo handi batean sekularizatzen amaitu zutenak— ekintza politikoren alde egin zuten, bere egin zuten ideologia nazionalista erradikala eta askapenaren teologiako bertsio marxistaren egokitzapen bitxi bat ere. Jesukristo judutar herriaren askatzaile nazional huts bat bezala ikusiz gero —erromatarren zapalkuntzak hildakoa—, erraza zen euskal kasura transposizioa egitea eta egitate erlijiosoa aldarrikapen sozio-politiko huts bihurtzea. Lerro horretan kokatu zen 1968ko iraillean sortutako *Gogor* taldea, apaizen artean gutxiengoan zegoena eta elizaren hierarkiari aurre egin ziona, diktaduraren mendekotzat jotzen baitzuen hierarkia hori. Cirarda gotzainak gogoratzen duen bezala, ez ziren gutxi beren baloreen hierarkia azpikoz gora jarri zuten apaizak, ebanjelioak behin-behineko aukera alderdikoien mende jartzearaino. Ez zen egia pipitarik falta egoera sozio-politikoari egiten zizkieten kritike-tan. Baina hainbeste gangarekin nahastuta zeuden, ezen lohian galtzen baitziren. Hala, ez ziren gutxi izan haien artean fedea galdu zuten apaizak. Beren erradikaltasuna garaiz galgatzen asmatu zutenak salbatu ziren»⁴⁸.

Jokabide horren erakusgarri, ETAk biltzar batzuk egin zituen leku erlijiosoetan, eta zenbait apaizek ETAkide pertsegituei eta propaganda jarduerai laguntza eskaini zieten, atxilotuekiko solidaritatea bilatzen zuten diru bilketak egin zituzten eta abar, eta horren ondorioz, isunak eta apaizen atxilotetak etorri ziren. Hala ere, elizaren eta euskal anti-frankismoaren harreman oro ez zen beti arestian aipatutako forma hain erradikaletan agertu; izan ere, apaiz batzuek giza eskubideak defendatzeraz mugatu ziren, polizien torturak salatu zituzten eta langileen alda-

rrikapen jakin batzuk babestu, baina ETaren terrorismoaren antipodetan zeuden, eta ez zuten partekatzen beren kideetako batzuek erakundeari eskaintzen zioten babes. Donostiako gotzainak berak ETaren lehen hilketa gaitzetsi zuen 1968an, eta gogora ekarri zuen «bortxakeria ez dela arazoak konpontzeko bidea (...), eta, kristautasunari jarraiki, ezin dela haren erabilera inola ere zuritu»⁴⁹.

Euskal Elizbarrutietan izandako gertaera politiko-erlijioso garrantzitsuenei azaleko gainbegirada bat ematen badiegu, frankismoaren amaieran apaizek izan zuten erantzunean erantzunean elizen arteko arazoak, arazo politikoak eta sozialak nahastu zirela ikus dezakegu. Arazoak larriagoak izan ziren kostaldeko bi probintzietan, eta auzi nazionala eta ETaren jardura indartsu sartu ziren tartean. Bizkaian, 1964ko sermoi batean torturak eta askatasun falta salatu zituen Alberto Gabicagogeascoa apaizaren kasuari aurre egin behar izan zion Pablo Gúrpide (1955-1968) gotzainak. Prelatuak baimena eman zuen apaiza epai zezaten, eta horrek beste apaiz batzuen solidaritatea eragin zuen, isunak jaso zituztenak. 1965 eta 1968 urteen artean Bizkaiko Gobernu Zibilak 367 txosten egin zituen apaizen jardura politikoei buruz, iraultzailatzat jotako sermoiak eta langile mugimenduei emandako babes. Espediente horietako batzuek isunak eta atxiloketak ekarri zituzten, eta horrek protesta gehiago ekarri zituen.

1968ko udan apaiz talde batek, gehienak gazteak, bitan hartu zuen Bilboko Elizbarrutiko Kuria. Urte bereko azaroan beste itxialdi bat izan zen Seminarioan, zenbait eskari lagun: Euskadiren gaineko zapalkuntza frankista bukatzea, gotzainaren aukeraketa herrikoia izatea eta Eliza «indigena» bat sortzea. 339ek sinatutako agiriak baina tonu erradikalagoa zuten eskaerok. Itxialdian zeudenak *a divinis* kondenatu zituen Gúrpidek, zeina handik gutxira hil zen. Egoera baretze aldera, Egoitza Santuak Santanderreko gotzain José María Cirarda izendatu zuen Bilboko administratzaile apostoliko. Honek bertan behera utzi zuen zigorra, eta, estilo pastoral berri bati hasiera emanez —haren lanak Gobernuaren, apaiz tradizionalisten eta erradikalen kritikak jaso zituen arren—, gose-greba bat antolatu zuen Gotzaindegian. 1969 eta 1970 artean zenbait apaiz (tartean José Ángel Ubieta, Pastoralako bikarioa) atxilotu zituzten, horietako batzuk ETarekin lankidetzan aritzearen salaketa pean.

Egoera oso zaila izan zen Gipuzkoan ere, non auzi nazionalak eragin handia izan zuen. 1963an izendatutako gotzainak, Lorenzo Bereciartúak, Gúrpidek baino esku ezkerragoarekin jokatu zuen, bai eta jarrera toleranteagoa hartu ere. Arazoek eragina izan zuten Seminarioan ere, eta ikasle zein irakasleek plantoak egin zituzten, eta kalera-tzeak gertatu ziren arrazoï politikoengatik. Gatazken orokortzearen

aurrean, eten egin zuten 1966ko ikasturtea, eta nuntzioaren bitartekaritzari esker baino ez zuten berriro ireki, gobernadore zibilaren protestak gorabehera. 1968an Bereciartúa ordezkatu zuen Jacinto Argayaren ildoa Cirardaren antzekotzat jo dezakegu. Argaya boteretik urrundu bazen ere, ez zituen horregatik gatazkak saihestu; esaterako, 1969an gertatu zena: salbuespenezko egoeraren aurrean protesta egiteko, apaiz batzuk itxi egin ziren katedralean, eta Poliziak handik aterarazi zuten gotzainaren baimenik gabe.

Azkenik, Bizkaia eta Gipuzkoako giroaren aldean, Arabako elizak arazo gutxiago izan zituen. Auzi nazionalak baino gehiago, kontu sozialak eta elizen artekoak izan ziren zenbait apaiz ekintzara mugiarazi zituztenak, eta horrek arazoak piztu zituen agintariekin eta gotzainarekin. Baina Elizbarruti lasaiago honetan ere, frankismoak etsaitzat ikusten zuen kleroaren zati bat. Adibidez, gobernuaren iturrien arabera, 1966ko Lege Organikoaren erreferendumean abstentzioaren alde Araban bultzatutako kanpaina «kleroak zuzendu zuen, eta euskal nazionalista izaera zuten apaizek eta apaiz progresistek aho batez jokatu zuten»⁵⁰.

VI. ERREGIMENAREN IREKIERA ETA KRISIAREN ARTEAN

1960an Euskal Herria bizitzen ari zen aldaketa ekonomiko, sozial eta kulturalak gorabehera, eta gerraondo hurbilarekin alderatuta oso ezberdina zen erregimen baten pean egon arren, Espainiak diktadura baten pean jarraitzen zuen oraindik, inolako askatasun politikorik gabe. Edozein kasutan, alderdi askotan frankismoa asko aldatu zen lehen aldiko faxistizaziotik hirurogeiko urteetako diktadura autoritario eta garatzailera. Maila sinbolikoan, adibidez, egoera oso ezberdina zen. Data jakinetan bakarrik —eroriei egindako monumentu berantiarren inaugurazioa, Bilbo edo Donostiaren *askapenaren* urteroko oroitzak, uztaialak 18arena— ateratzen ziren kalera Mugimenduaren uniformeak eta egiten ziren aurreko epealdiaren gurutzadaren espiritua indartzen zuten hitzaldiak. Espiritu horri bultzada berria emateko balia zitezkeen ekitaldi ofizialetan ere, hala nola 1963an ospatu zen Napoleonen tropen aurkako Gasteizko borrokaren 150. urteurrena, ideia nagusiak bakea —Juan XXIIIren doktrinari jarraiki—, aurrerapena eta Euro-parekiko irekiera izan ziren⁵¹.

Adierazi dugun bezala, garai hartako euskal langile politikoak gutxi ikertuta dauden arren, eskura dauzkagun datuek diote frankismoaren azken bosturtekoetako irekiera arinak Mugimenduarekin edo hura osatu zuten taldeekin —karlistak eta falangistak— lotura txikiagoa

zuten bertako zenbait eliteren berrikuntza halako bat ahalbidetu zuela. Izan ere, frankismoaren azken urteetan aldundi edo udaleko kideetako batzuk ezin dira talde edo *familia* jakin batzuetara atxiki, eta garapen moduko bat ordezkatzan dute bertako mailan.

Eliteen berritze erlatibo horrek borroka politiko moduko bat ekarri zuen erakundeetara. Borroka hori agerian jartzen zen zenbait hautagaitzaren artean udal hauteskundearen familia heren deiturikoa eskuratzeko, eta 1967tik aurrera, Gorteetako prokuradore izateko. Oso politika bitxia zen, nola ez, eta gobernadore zibilaren begiradapean zegoen beti. Hala, Donostian José Ramón Recalde eta ezkerreko beste ordezkari batzuk familia herenera hautagaitza bat sustatzea lortu zuten 1960ko udal hauteskundeetan. Gasteizen, 1963an, Elizbarrutiko Idazkaritza Sozialaren buru zegoen apaizak «zinegotzi sozialen» hautagaitza bat sustatu zuen, eta hautagaitza horren azpian euskal nazionalismoarekiko eta ezkerrearekiko hurbilak ziren pertsonak zeuden ezkutatuta. Recalderen ahaleginak porrot egin zuen Donostian; Gasteizen, ordea, denen harridurarako, baita gobernadore zibilaren harridurarako ere, hautagaitza horrek argitasunez garaitu zuen zerrenda ofiziala, eta, hortik aurrera, gobernadore zibila hautagaiak gehiago kontrolatu saiatu zen. Hala ere, 1967 eta 1974 urteen artean, Arabako hiriburuaren zinegotzi gisa aukeratuak izan ziren etorkizunean, Transizioan zehar, PSOEko, Partido Socialista Obrero Españolko, UCDko, Unión de Centro Democráticoko, eta PNVko buru izango ziren zenbait agintari, baita gerora, 1979 eta 1999an, alkate izango zena ere, José Ángel Cuerda nazionalista karismatikoa⁵².

Berritze horrek ez zien eragin beste zenbait erakunderi, hala nola Bilboko udalari, non hamarkadan zehar alkate izan ziren Lorenzo Hurtado de Saracho (1959-1963), Javier Ybarra Bergé (1963-1969) –ETAk 1977an hil zuena– eta Pilar Careaga (1969-1975). Garai bateko monarkiko erradikalizatuak ziren, Renovación Españolatik zetozenak baina Falangeren bidez erregimenean integratuta zeudenak. Denek bizi izan zuten Gerra Zibila, are errepublikako bandoaren gatibu gisa, eta bazirudien gerra-gatazkaren oroitzari eusteko eta Bilbok hiri «gorri-separatista» gisa izan zezakeen etiketa ezabatzeko tema pertsonala zutela. Gainera, Bizkaiko oligarkiako familia handietakoak ziren (edo gauza bera dena, Negurikoak, Getxoko auzo horretan bizi baitziren), eta hori ere oso esanguratsua zen.

Nabarmentzekoa da, hala ere, Pilar Careaga, Cadaguako kondeen alaba eta Kanpo Arazoetarako ministro ohiaren, José Félix Lequericaren, koinata. Bera izan zen, 1929an, Industria Ingeniaritzako titulu eskuratu zuen lehen emakume espainiarra, eta baita Bilboren historiako lehen emakume alkatea ere. Haren presentziak ez du zerikusirik inolako berritze politikorekin —aitzitik, kontrakoa—,

baina bai erakusten du emakumea frankismoaren bizitza politiko ezin urriagora pixkana txertatu zela. Txertatze hori bozkatzeko aukeran —esan dugun bezala, batere demokratikoak ez ziren hauteskunde batzuetan— eta zenbait udaletan, Barakaldon (Carmen Esturo) eta Bilbon (Careaga bera eta Esther Saiz irakaslea) aukeratuak izan ziren zinegotzi emakumeetan ikus daiteke. Zenbait lekutan, esaterako Barakaldon, «nolabaiteko joko politiko bat egon zen», baina zenbait muga gainditu zituenean, Gobernu Zibilak moztu egin zuen. Kasu honetan, 1968an izendatutako alkate karlistak, Luis Díez Marínek, aurka egin zion Labe Garaiek proposatutako zabaltzeari, osasun publikoko arrazoia eta hiri-antolamenduko plana hausten zuela argudiatuta. Udalak betoa jarri zion enpresa handi horren proiektuari, eta azkenean ezin izan zen gauzatu⁵³. Hala ere, apur bat geroago alkateari kargua kendu zioten, eta hurrengo udal hauteskundeetan gobernadoreak muturreraino eraman zuen hautetsien kontrola, bai eta ezein berritze eragotzi ere⁵⁴.

Gainera, Gorte frankistetan, 1967an aukeratuak izan ziren euskonafar prokuradore batzuk erregimena malgutzen saiatu ziren, Gobernuaren zenbait proposamenei osoko zuzenketak aurkeztuz edo euskara irakaskuntzan sartzea proposatuz. Talde berritzaile hark, besteak beste José Ángel Zubiaur nafar karlistak sustatutakoak, porrot egin zuen jada 1970ean, bai taldearen beraren barruko zatiketarik, bai Gobernuaren aurkakotasunarengatik. Haren eskakizunetako bat 1937ko ekaineko dekretuaren indargabetzea izan zen, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat Kontzertu ekonomikoa ezabatu zuena. Gipuzkoako agintariak —Bizkaikoak baino askoz foralistagoak ziren; Bizkaikoek esku hartu zuten oso modu epelean egin zuten, batez ere gai ekonomikoaz arduratuta eta ez hainbeste beren sinbolismo foralaz— ez zuten etsi erregimen kontzertatua berreskuratzeko setan. Kontua da data horietan beretan Arabak Kontzertua baliatu zuela ez bakarrik probintziaren garapen ekonomikoa bultzatzeko, baita irmoki foralista zen politika sinboliko bat burutzeko ere, arabar izaerakoa baina euskaltasun kultural batekin bateragarria. Hala gertatu zen Manuel Aranegui Arabako Foru Aldundiaren buru egon zen agintaldian (1957-1966).

Gipuzkoan Antonio Epelde (1962-1968) bezalako jatorri karlistako presidenteak izan ziren Probintzia Aldunditik Kontzertua berreskuratzeko gehien tematu zirenak. José María Aralucek (1968-1976) gipuzkoar foralismoa aldarrikatzen zuen ere —ETAk 1976an hil zuen—, eta azaltzen zuen «bazegoela Castillentzat ekarpena egiteko modu bat eta beste bat probintziarentzat. Baina gure gizonak ez dira atzean geratu Erresuma zerbitzatzeko orduan»⁵⁵. Dekretuaren atarikoak bi probintziak salatzen zituen, Kontzertua «politika anti-

espainiar baldarrena egiteko» erabili izanagatik, baina, azkenean, 1968an, atariko hori baliogabetzea lortu zuten. Baina 1937ko dekretuaren funtsak bere horretan jarraitu zuen, eta euskal nazionalismoaren alternatiba izan zitekeen «erregionalismo osasuntsu» bat eraikitzeko orduan erregimenak porrot egin zuelako beste adierazgarri bat da, 1961ean erregioen arazoa konpontzeko egin zuten Consejo Nacional del Movimiento delakoaren ponentzia porrot bat izan zen bezala.

Zenbait herri erakunderen esparruan berritze erlatibo hori gertatzen zen aldi berean, euskal karlismoaren, Euskal Herriaren historia garaikidean ibilbide luzeena izan zuen talde politikoaren, behin-betiko kolapsoa inkubatzen ari zen. Euskal karlismoa ia erabat desagertu zen, nahiz eta lehen aldiz bere historian gerra zibil bateko talde garailean egon, eta hori historiaren paradoxatzat har daiteke. II. Errepublika oxigenozko baloi bat izan bazen karlismoarentzat —1930eko hamarkadan eskuin antidemokratikoaren bandera-ontzi bihurtu zen—, frankismoaren garaipenak diktadura babesten zutenen nahastean difuminatu zuen karlismoaren indarra, eta fakziotan banatu zuen, lankidetzaren eta aurkakotasunaren artean zeudenak. Gainera, ez zegoen erregetzarako hautagai garbirik, eta hori funtsezkoa zen arrazoi dinastikoek definitzen zuten alderdi batean; ondorioz, tradizionalismoaren zenbait sektorek Joan Borboikoa onartu zuten azkenean. Hiru euskal probintzietan, 1960ko hamarkadak karlismoaren zatiketa eta nahasmendua areagotu zuen. Araban, Ignacio Ruiz de Gauna ordezkari-buruak ez zituen bere jarraitzaileak kontrolatzen, eta tradizio karlista hain handia zuen probintzia batean ere, bere hautagaiek kale egiten zuten udal hauteskundeetan frankista huts bihurtutako garai bateko tradizionalisten edo adskripzio jakinik ez zuten pertsonen aurrean. Gipuzkoan, hamarkadaren hasieran Antonio Arrúek (Euskaltzaindiako kide zan zen, eta hura hiltzean, 1976an, «azken urteetan euskarak izan duen gorakadaren zati handi bat» hari zor ziola esan zuten) gidatutako karlismoak diziplina arazoak eta batasun falta izan zituen. Kanpaina foralisten bidez euskal nazionalismoa ahultzen ahalegindu zen —etorkizuneko arerio nagusitzat ikusten zuten—, baina ahalegin horiek ez ziren gauzatu. Bizkaian ere, hamarkada hasieran izandako zenbait mobilizazioen ondotik, tirabirak eta desilusioa ziren nagusi. Alderdia suspertzeko asmoz, Batzorde Foral Karlista Eusko-Nafar bat sortzeko egin zuten ahaleginak porrot egin zuen azkenean. Mugimenduak ezkerreara egin zuen biraketa, Karlos Hugo Borboi-Parmakoa hautagaia buru zutela, 1965ean hasi zen hautematen, baina aurkako erreakzioa piztu zuen jarraitzaile askoren artean: «Batzuk pasibotasunean ainguratuta jarraitu zuten, guztiarekin desilusionatuta; beste batzuk, aldiz, integritate berri baterako pausoak eman zituzten». 1967an José María

de Zavala alderdiaren Idazkaritza Nagusira iritsi zenean, karlismoak ezkertera egindako biraketak behin-betiko garaipena lortu zuen, baina biraketa horrek ezagutezin bihurtu zuen alderdia⁵⁶.

VII. OPOSIZIO ZAHAR ETA BERRIA

Frankismoaren zenbait egituraren berrikuntzarekin batera, erregimenaren oposizioan aldaketa garrantzitsuak izan ziren. Hirurogeiko urteetan, lasaitasun erlatiboko une baten ondotik, gatazkak areagotu ziten, batez ere barrutik sortutako oposizio berri bat agertu zenean, gizartearen sektore guztiak politizatzen zituena eta gerraondo hurbilko oposizioak kanpoaldearekin zuen bezainbeste harreman ez zuena. Aldaketa horiek, ETArekin agertzearekin batera, gainbeheran sarrarazi zuten 1960tik aurrera Jesús María Leizaola buru zuen Eusko Jaurlaritza. Bazirudien Jaurlaritza jada ez zela gai barrualdea mobilizatzeko, José Antonio Aguirrek, gutxienez 1951ra arte, egin zuen bezala. Hala ere, Euskal Herria bere kabuz mugitzen hasia zen, nahiz batzuetan modu lausoagoan. Jada aipatutako elizaren eta kulturaren esparrua horren isla izan zen, baita langile mugimendu berriaren ekintza ere.

Azken honi dagokionez, zaila da garai horretako lan-gatazken historia eta ekintza antifrankista banatzea, zeren eta, erregimenaren muga ezin estuagoez harago, politika existitzen ez zen une batean, lan arloko edozein aldarrikapen *politikoa* zen ere. Frankismoaren bigarren erdiko langile mugimendu berrituak erakunde tradizionalen baztertze bat ekarri zuen, ELAk, UGTk, Unión General de Trabajadoresek, edo CNTk, Confederación Nacional del Trabajok, langile jarraitu bazuten ere. Elkarrekin lan egiten saiatu ziren, eta langileen internazionalen estrategia hori babesten zuten, Espainiako sindikalismo klandestinoaren zatiketa baten beldur baitziren. Hala, UGTa, Ramón Rubialen zuzendaritzapean, aurreko epealditik zetorren Aliantza Sindikalari eusten saiatu zen; baina egiatan zaila zen hori, bai CNTk bai ELAk zituzten barne arazoengatik eta «sakonki ezberdinak ziren hiru erakundeen helburuak bateratzeko ezintasunagatik». Hauteskunde sindikal ofizialetan hartu beharreko jarrerak —orokorrean, boikotaren alde egiten zuten—, Comisiones Obreras berrien aurrean jarraitu beharreko estrategiak eta nazioarteko erakundeetatik jasotzen zuten diru funtsaren banaketak ere tirabirak eragiten zuten. 1965ean ELA Aliantza Sindikaletik atera zenean, ezerezean geratu zen Euskal Herriaren kasuan. Zailtasunak gorabehera, UGTk nolabaiteko indarra izaten jarraitu zuen Bizkaian, batez ere ibaiaren ezker aldeko industria siderometalurgikoan, tradizio sozialista handikoa, eta Ses-

taoko Naval ontziolan. 1970ean egoitza Tolousen zuen UGTko zuzendaritza-batzordeak «erakundeak Bizkaian eta Gipuzkoan normaltasunez funtzionatzen jarraitzen duela» zioen; «ustezko» Arabako federazioa, aldiz, ez zen inoiz bildu. Baina Bizkaiaren ere egoera ez zen hain arrakastatsua: probintzia horretan batzorde siderometalurgiko bat jardunean hasi zenean, UGT berak onartu zuen «paperaren gainean» baizik ez zela existitzen. Gerra Zibil aurreko tradizio bati jarraiki, kostaldeko bi probintzien kultura sozialistak ezberdinak ziren beren artean: Bizkaikoa garbiraigo langilea eta nazionalismoarekiko mesfidatia zen; Gipuzkoan, aldiz, azken horrekiko eta euskal kulturarekiko irekiagoa zen, eta UGTren aktibista nagusien artean profesionalak, abokatuak eta abar zeuden. Hori bai, ez zegoen eztabaidarik UGT eta PSOEn arteko «sintonia eta batasun kulturari». Ondorioz, zaila da batzuetan bi entitateen jarduerak bereiztea⁵⁷.

ELAri dagokionez, 1960ko hamarkadan belaunaldi aldaketa gogorragoa nozitu zuen. Erbestean zegoen sindikatuaren zuzendaritzak (Manuel Robles Aránguiz lider historikoa buru zuela) komunismoaren eta kapitalismoaren arteko *hirugarren bide* sozial-kristau batean pentsatzen jarraitzen zuen, baita ELAk PNVren transmisio-uhalek sindikala izan behar zuela ere. Aitzitik, barrualdeko lider berriek, Kepa Anabitartek kasu, bere burua «sozialista eta laiko»tzat definitzen zuen ELA bat sustatu zuten. 1964an, ELA-Berriren sorrerarekin, haustura gauzatu zen. Erakunde berriak, borroka hertsiki sindikalera baino gehiago, propagandara eta eskola sozial klandestinoen sorrerara bideratu zuen bere jarduerak. Sindikatu berritua kritikoa izan zen ez bakarrik PNVrekin eta Eusko Jaurilaritzarekin (adibidez, hurrengo Aberri Egunean parte hartzeari uko egin zion), baita ETArekin terrorismoarekin ere. Bokazio sindikala baino gehiago bokazio politikoa zuenez, 1968an ELA-MSE (Euskadiko Mugimendu Sozialista) bihurtu zen. Nolanahi ere, talde hori bitan banatu zen hurrengo urtean, oposizioak antolatze-egonkortasunari eta koherentzia ideologikoari eusteko zuen zailtasunaren isla⁵⁸.

Baina 1960ko hamarkadaren protagonismo sindikal nagusia CCOOri, Comisiones Obrerasi, dagokio. Hasiera batean, ez zen sindikatu bat, baizik eta, bere izenak adierazten duen bezala, langileen batzorde sail bat, fabriketan lankideek aukeratuak enpresariekin negoziatzeko, Sindikatu Bertikala alde batera utzita. Lehen batzordeak Bizkaian sortu ziren, 1962ko greben harira, eta Acción Católicako langileen adarren kide asko, erregimenetik gero eta urrunago zeudenak, eta langile komunista asko bildu zituzten. Egiatan, Bizkaiko Langileen Batzorde Probintziala, fabriketako batzordeak elkartzen saiatzen ari zena, Bilboko Hermandad Obrera de Acción Católica delakoaren egoitzan eratu zen. Tolerantzia epeldi baten ondotik, bere agintariak

Ordena Publikoaren Auzitegiaren aurrean salatuak izan ziren, eta CCOOek klandestinitatean lan egin behar izan zuen, lan-hobekuntzak lortzeko enpresen Epaimahaiak erabiltzen jarraitu zuten arren. Sarritan boikotatu zituzten hauteskunde sindikalak, eta, horren ondorioz, parte-hartzea oso txikia izan zen, Bizkaian 1963an gertatu bezala. Baina, kasuren batean bezala, parte-hartzea erabaki zutenean, zenbait enpresatan hautagaitza ofizialistak galdu egin zuen.

Lan-harremanen eredu berri hori garapen ekonomikora lotua zegoen, langile klase berri baten trebakuntzara eta lege-esparru berri baten promulgaziora (1958ko Hitzarmen Kolektiboen Legea); azken honek aukera ematen zien enpresari eta langileei soldatak eta lan-baldintzak ituntzeko, aurreko epealdiaren sistema itxiak ez bezala. Lan-izaera zuten grebak biderkatu egin ziren 1963tik aurrera, baina erregimenaren errepresioa ez zen izan gerraondoko greba mugimenduen ondotik etorri zena bezain gogorra. Orokorrean, enpresariak «apenas kaleratu zuten inor lehenago espetxean egoteagatik edo bestelako arrazoi politikoengatik». 1967tik aurrera, egoera aldatu zen, lan-gatazkak (Bizkaian, urte horretan soilik, 113), errepresioa eta lan-mugimenduaren politizazioa areagotu egin ziren. Garai horren inguruan utzi zion CCOOk multzokatze bateratu bat izateari eta «Euskadiko Alderdi Komunistak (PCE) praktikan zuzendutako egitura bihurtu zen».

1966-1967ko Etxebarriko Banden grebak iraupen luzea izan zuen (163 egun), eta mugarri bat izan zen une hartan, garai hartako langileen mugimenduaren ezaugarriak eredu adierazi baitzituen: langileen biltzarren garrantzia, ekintza bateratua, langileen erakunde berrien protagonismoa, legezko eta ez-legezko baliabideen erabilera, grebalariekin identifikatzen zen giro soziala eta PCEn eta Elizaren (parrokia-biltzarrekin, solidaritate ekintzekin eta abarrekin) parte-hartzea. Mendean ez zuten gatazka baten aurrean, UGTk eta PSOEk zalantzak izan zituzten zer postura hartu behar zuten. Azkenik, greban nahastu ziren, erregimena ahultzeko aukera bat zelako. Oraingoan, frankismoak errepresioarekin erantzun zuen, salbuespen egoera ezarri, eta gatazkari amaiera eman zion. 1969an beste salbuespen egoera bat ezarri zen, eta UGTren ustez, Bizkaian jarraipen handia izan zuten grebak egin ziren. Zenbait emakume sozialista ere atxilotu zituzten lanuztea babesteagatik. Preso zeuden buruzagi sozialistek errepresioaren aurkako protesta gisa egin zuten gose grebaren ondotik, nazioarte mailako solidaritate ekintzak izan ziren, eta LANEn, Lanaren Nazioarteko Erakundearen, ordezkariak bisitan joan zitzaizkien kartzelara.

Gipuzkoan, arazo sozialak areagotu ziren ere, hainbeste ezen 1969an Espainian greba gehien izan zituen probintzia izan baitzen

(133), are Bizkaiaren gaineratik. Gipuzkoa CCOO indartsu hazi ziren, baina nazionalismoak probintzian zuen presentzia handiagoa eta ETA-ren eragina nabarmendu ziren. Hala, Gipuzkoako Langileen Batzorde Probintzialak «gizonak gizona ez esplotatzeko eta Euskal Herriaren askapena gauzatzearen aldeko» proposamen bat onartu zuen 1967an. Azkenik, Araban, garapen industrial egin berriago batekin, apenas egon zen mobilizaziorik 1969ra arte. Horien artean nabarmentzekoak dira 1967an gertatu ziren Banden grebarekin izandako solidaritate ekintzak eta bizitzaren garestitzearen aurkako protesta jardunaldia. Azken honen ondotik, Gasteizen ordu arte ahula zen CCOOri bitzta ematen saiatu zen komunista talde bat atxilotu zuten⁵⁹.

Alderdi politikoei dagokionez, frankismoaren azken bosturtekoak garai zailak izan ziren oposizio tradizionalarentzat. Ez da harritzekoa Errepublikako epealditik zetozen taldeen ahotan «krisi» hitza egotea. Frankismoaren gainbehera —oposizioak etengabe hitz egiten zuten horretaz; ez, ordea, frankistek— benetakoa bihurtzea espero zuten, batez ere Francoren hondatze fisiko saihetsezinarekin. Gerra garaiko erbesterratu dezente barrualdera itzuli ziren, beste batzuk beren jomugako herrialdeetan egokitu ziren, eta denbora aurrera zihoan bitartean, alderdi historiak ez ziren gai 1939koarekin alderatuta oso ezberdina zen barrualde batekin konektatzeko. Izquierda Republicana, Unión Republicana edo Acción Nacionalista Vasca bezalako zenbait talde desagertu egin ziren edo gutxienekora mugatu zuten beren eragina, 1975etik aurrera ikusi zen bezala.

Erbestearen eta barrualdearen arteko urruntzeak etxe-arazoak eragin zituen alderdi ezberdinetan. Ia kasu guztietan, alderdiaren grabitate erdigunea barrualdera ekarriz eta Errepublika garaiko buruzagiak belaunaldi berri bateko buruzagi gazteagoengatik ordezkaturik konpondu ziren arazo horiek. Nahiz eta horrek barne desadostasun batzuk sortu, orokorrean, beteranoak jakitun ziren kimu berriak behar zirela eta ziztu bizian aldatzen ari zen errealtate batetik deskonektatuta geratzen ari zela erbestea. Hortaz, ez zuen zentzurik antolaketa-egitura tradizionalak osorik mantentzen tematzeak. Hori bai, kasu askotan kanpoko erreferentzia osagai sinboliko elkartzaille gisa mantendu zen, Eusko Jaurlaritzaren kasuan gertatu bezala, Parisen baitzegoen, Leizaola buru zuela, baina benetan PNVk eta PSOEek eusten zuten.

Euskal sozialistak bere erakundea bizirik mantentzen saiatu ziren, Nicolás Redondo eta Enrique Múgica bezalako buruzagi berrien pean, baina haiei ere Ramón Rubial edo Antonio Amat beteranoak batu zitzaizkien. Komunistekin lankidetzan aritu behar ote zuten eztabaidak edo erbestean zegoen zuzendaritza-batzordearekin izandako tirabirek diziplina ezako arazo batzuk ekarri zituzten, urrutiago

heldu ez zirenak Rubialen lidergoari eta nortasunari esker. Militantzia sozialista handiena zuten zonaldeak ezkerreko ibaiertza, Donostia, Eibar eta Irun ziren. PSOEn «antolaketa klandestinoaren berregituratzeak» fruitu batzuk eman zituen 1960ko hamarkadan, baina gaur egungo ikerketen arabera, «ez zuten lortu suspertze nabarmen-girik». Euskal Herrian alderdiak «ehunka militante gutxi batzuk» baino ez zituen, «eta PSOEn ekintzarako gaitasuna apala zen urte haietan». Gainera, alderdiak, UGTekin ekintza batasunean, erreprezioaren oldarrak sufritzen jarraitu zuen, eta Rubial berak ere sufritu zuen.

Ekintza sozialistaren puntu indartsuenetako bat urtero ospatzen zuten Maiatzaren Lehena zen: aurreko egunean panfletoak banatzen zituzten lantegietan, Bilboko Kale Nagusian «desfile» bat egiten zuten —hasieran, hiru probintzietako afiliatuak joaten ziren bertara—, baita elkarretaratze isil bat ere Sindikatu ofizialen egoitzaren aurrean. Poliziak ezagutzen zuen gidioa, eta zenbait urtetan buruzagiak atxilotzen zituen badaezpada. 1964an ospakizun aldarrikatzailea lehen aldiz zabaldu zen Donostiara. Hartan, alderdiaren arduradunek jakitera eman zioten zuzendaritza-batzordeari «immigranteen masa kontrolgabea ez zela agertu ere egin, klaseko espiriturik ez zutela erakutsiz». Gipuzkoako hiriburuan erakundea erabat suntsituta izan zen 1958an atxilotetak eta Luis Martín Santosen baztertzea medio. Gero berriz eratu zen PCetik zetorren Enrique Múgicari esker. Abokatu gisa, kontu juridikoez arduratu zen, eta Frantzia gertu zegoenez, PSOEk Eusko Jaurlaritzan zuen ordezkari bakarrarekin, Juan Igleziasekin, lankidetzan aritu zen mugako pasabidetik pertsonak eta dokumentuak pasatzeko garaian.

Garai horretan, kanpotik Gazteria Sozialistak-i bultzada berri bat emateko ahalegin bat egon zen ere, baina kontua da erakunde honek afiliatu oso gutxi zituela Euskal Herrian. 1967ko otsailean Nazioarteko Gazteria Sozialistak-en bilera klandestino bat egin zen Portugaleten, eta mugarri historikoa izan zen, PSOEk antolaketarako gaitasuna bazuela erakutsi zuelako, nahiz eta, beti bezala, ondotik erreprezioa etorri. Nazionalistek bezala, gazte sozialistek ere mendizaletasuna erabili zuten jarduera klandestinoak egiteko, hala nola 1968ko maiatzean burutu zutena, baina ez ziren oso arrakastatsuak izan kopuruari dagokionez, beste eskualdeetako afiliatuak joan arren. Nolanahi ere, sozialisten kasuan, PNVrean bezala, ideia transmisio bat egon zen familia mailan edo «lanaren esparruan iraultzaren eguneroko moldeen bidez, norberaren edo bestearen langile nortasunaren aitortza eginez koadriletan, tabernetan», eta abar⁶⁰.

Azkenik, bere lekua ken ziezaiokeen talde sozialista berri baten presentziari aurre egin behar izan zion PSOEk. ESBA izan zen talde hori,

Euskadiko Sozialisten Batasuna, FLParen, Frente de Liberación Popularraren, euskal adarra; 1961ean sortu zen, eta Luciano Rincón eta José Ramón Recalde izan ziren bere agintari nagusiak. ESBAk aparteko eragina izan zuen Gipuzkoan, eta kideetako batzuek, harreman handiagoa zutenak sektore intelektualekin langile sektoreekin baino, Donostiako kultur esparrua dinamizatu zuten. ESBA «ideologia sozialistako alderdia» bezala bereizi zen, «eklektikotasun» ukitu halako bat zuen eta kritikoa zen euskal nazionalismoarekin. Errepresioaren oldarrak jasan zituen ere, eta bere buruzagietako batzuk atxilotu zituzten zenbaitetan. Buruzagi horiek indarkeriaren eta ETaren aurka azaldu ziren. Honen gorakadak, barne kontraesanek eta poliziaren ekintzek behin-betiko desagerrarazi zuten 1969an, FLP Espainian desagiten zen aldi berean⁶¹. PCERI dagokionez —Ramón Ormazábal izan zen urte horietan alderdiaren idazkari nagusia—, barne arazoak izan zituen ere, alderdiko buruzagi batzuek Txekoslovakiako inbasio sobietikoa babestu baitzuten 1968an. Hala ere, hirurogeiko urteen zati handi batean, PCE izan zen indar polizialen obsesioa Euskal Herrian, ez bakarrik frankismoan ohikoa zen antikomunismoagatik, baita Frantziako mugaren hurbiltasunagatik ere.

PNVk, halaber, une zailak bizi izan zituen garai horretan, antolaketa hobe mantendu zuen alderdi klasikoa izan arren. Jeltzaleek ere barrualdera eraman zuten bere ekintza politikoaren epizentroa, Xabier Arzalluz eta Mikel Isasi bezalako buruzagi belaunaldi berri batekin. Horrek ez du esan nahi memoria eta II. Errepublikako belau-naldiarekin harremana galdu zuenik; izan ere, barne zailtasunak gorabehera, buruzagien labealdi berriak lehengo epealditik zetozenekin batera lan egin zuen, esaterako Juan Ajuriaguerra eta Manuel Irujo-ekin. Hamarkadaren lehen erdian, PNVko barne iturriek egoera kritikoan zeudela onartzen zuten. Hala, Araban eta Nafarroan «ez zegoen Alderdirik, dozena bat pertsona noizbehinka biltzea ez baita Alderdi bat». Gipuzkoan ere egitura «oso eskasa» zegoen, «gizon bakar baten eskutan» zegoena. Soilik Bizkaian hitz egin daiteke «antolaketa on batez», eta krisiak alderdiaren Batzarrei eragiten zien Frantzian eta Amerikan, «non gainbehera etortzen ari garen asko eta era arriskutsuan»⁶².

Egoera kritiko hori hamarkadaren bigarren erdian hasi zen aldatzen, bere jardueraren ahalegin guztia barnealdera ekarri zutenean. Gerra Zibila amaitu zenetik, 1964an Aberri Eguna ospatu zuten lehen aldiz barnealdean, Gernikan hain zuzen ere, herrialdearen errealitatean sartuta zeudela erakusteko ahalegin bat izan zen. Ordu arte, Euskal Aberriaren Eguna Eusko Jaurlaritzak Parisen zuen egoitzan ospatu zen, atzerriko gune nazionalistetan eta familiarte nazionalistetan. Eszena aldaketak asmo adierazpen bat zekarren, eta aktibismo

handiago batean zehaztu zen hurrengo urteetan. Aktibismo horren zati handi bat alderdiaren erakunde gazte suspertuaren, EGIren, eskutik etorri zen, zenbait ekintza sinboliko egin zituen (pintadak, ikurrinak, panfletoak eta abar) eta noizean behin ekintza biolentoak ere burutu zituen, hala nola 1968ko Espainiako Itzuliko Gasteiz-Iruñea etapan bonba bat jartzea⁶³. Urte haietako Aberri Eguna, ezkerrentzat Maiatzaren Lehena bezala, data giltzarria bihurtu zen nazionalismoaren indarra erakusteko. Poliziak beti esku-hartzen zuen hartan, militanteak adierazitako kaleetatik joan ez zitezen, esku-paperak jaurtitzen edo lelo politikak oihukatzen, eta gero ibiltarien artean ezkuta ez zitezen. Gainera, sentimendu nazionalista aitengandik seme-alabengana transmititu zen familietan eta eremu pribatu edo mota orotako asoziatiboetan mantendu zen, esaterako lagun koadriletan, elkarte gastronomikoetan, mendi-klubetan, koru-elkartean, ikastoletan eta abar.

Era berean, PNVko kanpoko buruzagiek etorkizuneko estrategia bati eutsi zioten. Batez ere, Franco hil ondorengo egunerako prestatzea zen kontua, eta Eusko Jaurlaritzari eustea, Errepublikako beste erakunde batzuk jada ia desagertuta zeuden une batean. ETAren eta PNVko sektore erradikalen kritika gogorrak gorabehera, alderdiaren buruzagiek uste zuten erbestean zegoen Leizaolaren Jaurlaritza — nahiz eta bizitza aktiborik ia-ia ez izan— osagai erabakigarria izan zitekeela demokraziarako etorkizuneko trantsizio batean, jarraitasun historikoa zuelako eta euskal autonomia ekintza burututzat aurkezten zuelako. Horregatik mantendu zuten kabinetea, 1965ean sozialista eta jeltzaleen arteko konfiantza krisi bat gaingitu behar izan zuen arren. Leizaolak bere dimisioa eman zuen, baina alderdiak ez zuen onartu. Gainera, PNVk Espainiako oposizioko zenbait entitateetan parte hartu zuen, hala nola Unión de Fuerzas Democráticas (1961) delakoan. Mugimendu Europazalean eta Internacional Demokrata Kristauan egoteko ahalegin berezia ere egin zuen, baita AEBekin harreman onak izateko ere, nahiz eta azken hauek urteak zeramatzaten Franco babesten, Gerra Hotzaren esparruan kalte txikiago bat zelakoan. Ipar Amerikako administrazioaren adiskidetasuna izateko jeltzaleek egin zuten ahalegina «xalotzat» eta «errealismo oso gutxikotzat» jo daitekeen arren, epe luzera begira —beste hainbeste esan daiteke mota guztietako foro europazaleetan egoteko egin zuen ahaleginaz— horrek mendebaldeko demokrazien aitortza ekarri zion, eta lagungarria izan zitzaion Franco hil ondorengo 1975eko buruhaustean leku pribilegiatu bat izateko⁶⁴.

Hirurogeiko urteen testuinguruari buruzko panorama hau osatu gabea geratuko litzateke ETA kontuan izango ez bagenu. Hamarkadan zehar, aipatu erakundea protagonismoa irabazten joan zen, nahiz eta

Poliziarentzat 1968tik aurrera baino ez zen hasi arrisku handiena izaten. Hala ere, PNV nahiko goiz ohartu zen euskal nazionalismoak bere historiako hausturarik handiena jasan zuela, eta *sorpasso* bat ere jasan zezakeela ETAREN eskuetatik. Hainbatentzat, gaztetasunaren eta etorkizunaren sinboloa zen; PNV, aldiz, beteranotasunarena eta iraganarena. Gainera, jeltzaleen artean batzuek bide okerretik joandako seme gisa ikusten zuten ETA, eta «aitaren etxea» berreraikitzeke harekin elkartu beharra zegoen (Telesforo Monzón); beste batzuek, berriz, minbizi bat bezala ikusten zuten, «eta ez badugu erauzten, gure gorputz politiko osoaz jabetuko da» (Manuel Irujo)⁶⁵.

ETAren jatorria EKIN izan zen, 1952an sortutako gazte nazionalisten talde txiki bat, gerora EGIN, PNVren gazterietan integratu zena. Hala ere, berehala hasi ziren barne arazoak, neurri batean, Sabion Aranak eratutako alderdiaren zaharkitzapena zela-eta, eta, beste neurri batean, militanteen belaunaldi berriaren aktibismoak suposatzen zuen erronka zela-eta; hain zuzen ere, belaunaldi berrikoek pasibotasuna leporatzen zioten PNVri diktaduraren aurkako borrokan. Gatazka horien aurrean, alderdiko agintariek EGiko zenbait kide kanporatu zituzten, eta kaleratutako horiek ETA izena hartu zuten, PNVrekin lotuta jarraitzen zuten horietatik ezberdintzeko. Izen hori jada erabakita zegoen 1958 urtearen amaierarako, baina erakundearen hasiera 1959ko uztailan koka daiteke, ETAk bere lehen manifestua idatzi zue-nean⁶⁶.

Ondorengo testuekin alderatuta, dokumentu nahiko moderatua zen, demokraziaren eta autodeterminazioaren alde egiten zuen, eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzearen aldeko joera zuen, nahiz eta erakundea sortzeko arrazoietako bat haren jardun ezaren kritika izan. Manifestu horretan, ETAk honako hau bilatzen zuela zioen: «euskal esentziak salbatzea bide hertsiki abertzale batetik, eta, hortaz, apolitikoa eta akonfesionala (...). askatasun nazionaleko esparru batean». Horretarako, honako hau defendatzen zuen: «gure Aberriaren patuaren autodeterminazioa; arlo politiko-sozialean, Diktadura oren gaitzespena eta, ondorioz, hiritar (adierazpen eskubidea, kredo erlijiosokoa, iritzikoa, irakaskuntzakoa, biltzekoa eta abar) eta langile gisa (lanerako eskubidea, sindikatzekeoa, greba egitekeoa, segurtasunekoa eta abar) gizakiok ditugun eskubideak eskatzea gizatasunean, espiritu liberalean, berdintasunean, elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta abar».

Denborak gezurtatu egin zuen erakunde berriaren hasierako moderazio programatiko hori, eta berehala bat egin zuen hasierako Sabino Aranarekin (esplizitazio arrazistak alde batera utzi arren) eta euskal nazionalismo erradikal eta independentista porrokatuaren gainerako katebegiekin: 1920ko hamarkadako *aberrianoak* eta Errepublikaren

epealdiko Jagi-Jagi taldea. Mugimendu horien martiri mistikak, Espainiarekiko gorrotoak, Gerra Zibilean «Euskal Herriaren borroka»ren gogorapen mitifikatuak eta zapaltzaileari erresistentziaren bidez erantzuteko hautuak haztegi egokia aurkitu zuten frankismoaren diktaduraren testuinguruan.

Frankismoari ez ezik Espainiaren zapalkuntzari ere aurre egiteko —taldekideek berek 1960ko hamarkadan agerian jarri zuten bezala—, ETAko kideek beren borondatez armak hartu eta indarkeria, hilketa barne, erabiltzeko hartu zuten erabakian eragina izan zezakeen beste zerbait zegoen. Izan ere, beren lehen biltzarrean, 1962ko maiatzean ospatua, ETAk «Askapen Nazionaleko Euskal Mugimendu Iraultzaile» gisa definitu zuen bere burua. Hurrengo urtean, *Vasconia: Estudio diáctico de una nacionalidad* liburua argitaratu zen, ETAREN benetako *biblia*, non egileak, Federico Krutwigek, «gerra iraultzailea» kontzeptua sartu zuen. Ideia horren arabera, «kolonialismoaren uztarria bota duten asiarrak eta afrikar herrialdeek hartu duten eta beti indarraren erabilera lagunduta datorren» konponbidea bere egin behar zuen euskaldunak. *Hirugarren munduko* ereduak euskal kasuan ezartzeko oinarriak jarrita zeuden; hau da, gerrillari ekintza, urte haietan horren modan zegoena, Euskadi Espainiak okupatutako kolonia bat zela aintzakotzat hartuta.

1965ean, ETAREN IV. biltzarrak *Gerra Iraultzailearen Oinarri Teorikoak* onartu zituen, eta horien arabera «gutxiengo antolatuta batek» odol isurtzea ekarriko zuten ekintzak burutu behar zituen (..), iraultzaren kiribila hedatzen jarraitzeko». Azkenik, 1966 eta 1967an, bi epealditan ospatutako V. Biltzarrean ETAk «Askapen Nazionaleko Euskal Mugimendu Sozialista» gisa definitu zuen bere burua. Bere «nazionalismo iraultzailea» «nazioarteko inperialismoaren» aurka ari ziren herri zapalduen askapen borrokan kokatzen omen zen. Zalan-tzarik gabe, hitz horiek heresia irudituko zitzaizkion Sabino Aranari, eta PNVren eta ETAREN artean ireki zen amildegi ideologia baieztatzen zuten, nahiz eta era horretako adierazpenak hitzez hitz Sabinorenak ziren beste batzuekin nahastuta egon⁶⁷.

indarkeria askapen nazional eta sozialeko prozesu bikoitzari lotuta agertzen zen orain, eta ETAk 1966an argi eta garbi adierazi zuen bezala, prozesu horrek independentziara bakarrik ez, «Iraultza Sozialistaren Garapenera» ere eramango zuen «Euzkadin». Egiatan, bere erradikalizazio ideologikoarekin batera, ETAk oso goiz ekin zion aktibismoaren bideari, hasieran PNVren ildoan jardun zuen arren (pintadak eta ikurrinak jartzea), baina horien ondotik berehala etorri ziren monumentuei edo eraikin ofizialei egindako erasoak. Beste batzuetan bezala, erregimenak errepresioaren bidez erantzun zuen, eta horrek ETAREN ospea areagotu besterik ez zuen egin. Zenbait urtez kalte mate-

rialak eragin eta sinbolo frankistak erasotu ostean, 1968ko ekainaren 7an Txabi Echebarrietak pauso bat gehiago eman, eta José Antonio Pardines erail zuen. Orduan inork ezin zuen aurreikusi zer garrantzi izango zuen gertaera horrek Euskal Herriaren historian hurrengo urteetan, *Basker*-en agertzen den guardia zibila —1960ko hamarkada kontrastez betetako hamarkada izan baitzen— soilik bost urte geroago gertatu ziren Pardinesen eta Echebarrietaren heriotzak bezain benetakoa zela ahazteko punturaino.


ERANSKINAK

Guardia zibil bat euskal jai batez gozaten Aian (Gipuzkoa). *Basker* (1963) dokumentalaren fotograma.



ITURRIA: *Basker* (Dan Grenholm eta Lennart Olson), 1963. © Sveriges Television AB.

Hirurogeiko urteen industria-garapena Euskal Herrian: Pasaiako portuaren (Gipuzkoa) airetikoko ikuspegia.



ITURRIA: Sancho el Sabio Fundazioa.

Aldaketak eguneroko bizitzan eta turismoaren orokortzea.
Bizkaiko Ereaga hondartza 1963an.





ITURRIA: Sancho el Sabio Fundazioa.

Franco, jende askoren txaloen artean, etxebizitza batzuk ematen Gasteizko Los Herrán kalean 1964ko uztailaren 29an.



ITURRIA: Sancho el Sabio Fundazioa.

PNVk eta EGIk Gasteizen 1966an antolatutako *Aberri Egunaren* panfletoak.



PNVk eta EGIK antolatutako *Aberri egunaren* ospakizun klandestinoan Gernikan, 1964an.



ITURRIA: Sancho el Sabio Fundazioa.

Manifestazio frankista bat Bilbon, 1970eko abenduaren 24an.
Irudiaren ezker aldean, Pilar Careaga alkate andrea.



ITURRIA: Sancho el Sabio Fundazioa.

III. ATALA

ODOL HOTZEAN. JOSÉ ANTONIO PARDINESEN HILKETA (ETA HONEN AURREKARIAK)*

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA

Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo (CMVT)

— Pistolek ez dute ezer konpontzen —esan nion—. Bigarren ekitaldi oso txar baten aurretik datorren oihal azkarra baino ez dira.

Raymond Chandler: *Playback*.

1968ko ekainaren 7ko ostiralean, 17:30tan, guardia zibil gazte bat erail zuten N-I Madril-Irun errepidearen desbideraketan, Adunako udalerrian (Gipuzkoa); 446,5 kilometroaren parean. Ordu bete geroago, diligentzien instruktore militarra, Benemeritako komandante bat, krimenaren lekura joan zen idazkari batekin. Egiaztatu zuenez, gorpua ahoz gorako etzaneran zegoen; hau da, buruz gora etzanda, asfaltoaren gainean. «Eskuin eskutik eta lurretik gertu gidabaimen bat dago, lehen orrian irekita». Begiz egindako azterketan, biktimak gorputz-enborean bost bala zulo dituela ikus daiteke. Auzitegi-medikuaren geroko txostenak xehetasun gehiago ematen dizkigu: zauri bat eskuineko «klabikula azpiko erregioan» zegoen, «bi zulo zituen bihotz aurreko erregioan eta beste bi ezkerreko hipokondrioan» (ikus eranskinak). Gorputik metro bat baino gutxiagora bost jaurtigai-zorro topatu zituzten. Eta gorpua azpian, lau jaurtigai. Arauzko pistolaren zorroa lotua zegoen. Agentea ez zen hari heltzera iritsi. Haren motorra, etakideek ihesean lurrera boa zutena, hildakoaren ezker saihetsean etzanda zegoen, errepidetik kanpo (ikus eranskinak eta liburuaren azala). Dili-

gentziak sei lerro eskaintzen dizkio ibilgailuak izandako kalteei, eta esaldi labur bakarra, aldiz, biktimaren zauriei¹.

José Antonio Pardines Arcay zuen izena. Malpica de Bergantiño-sekoa zen (A Coruña), eta 25 urte zituen. Guardia zibilen seme eta biloba, haren zerbitzu-orrian ikus daitekeenez, bost urte, hilabete bat eta hamahiru egun zeramatzan Benemeritaren zerbitzura. «Haren lehen destinoa Asturias izan zen, eta ondo zegoen», kontatu zuen hildakoaren aitak hiru hamarkada geroago. «Han geratzea zuen, baina Trafikoan sartzeko tema sartu zitzaion. Motorragatik baino ez. Asko gustatzen zitzaizkion... Futbola bezala. (...) Eta, ondoren, jada Donostian, neska bat ezagutu zuen, ezkontzea pentsatzen zuten...» (ikus V. atala)².

Pardinesen heriotzak leku gutxi izan zuen hurrengo eguneko egunkarietan: JFK anaia bezala, hil zuten Robert F. Kennedy senatari estatubatuarraren hiletak betetzen zituen egunkarien azalak. 1968ko ekainean, zaila zen ezein komunikabide espainiarrek Adunan gertatu berri zenaren garrantzia aurreikustea. Hala ere, herri-mailan albisteak nolabaiteko txundidura eragin zuen. Kontuan izan behar da indarkeria terrorista ez zela oraindik Euskal Herriaren eta Nafarroaren eguneroko paisaiaren zati. Billabonako emakumezko biztanle harritu batek honako hau aitortu zion *El Caso* aldizkariari: «Hemen ez da beste ezertaz hitz egiten (...) Ez gaude tiro eta krimenetara ohituak, eta zirrara handia eragin digu». Ohitzen bukatuko zuten. «Denbora eta odola» baino ez zen behar izan; José Manuel Pagoaga (*Peixoto*) buruzagi etakideak uste osoa zuen errezeta horretan «herri bat egiteko». *Vidas rotas* lanaren arabera, bere ibilbidean zehar, ETAk hogeita lau pertsona hil ditu Tolosako eskualdean, zeinari dagozkion hala Billabona nola Aduna. Hamarkada bat geroago, beste guardia zibil bat hil zuten azken herri horretan³.

Une hartan handik gertu bizi zen Bernardo Atxagak «urte hartan, 1968an, euskal politikaren historia aldatu zela» baieztatu zuen. Ia hitz berak erabiliz, ekainaren 7an «Euskal Herriaren historia betiko aldatu zela» zehaztu zuen José María Garmendiak⁴. Eta, hortaz, Espainiaren gainerakoa. Ez zen bakarrik izan ETAk hiltzen zuen lehen aldia, duela gutxi samar arte geratu ez den indarkeria kiribil hasiera ematen zitzaion ere, Zuzenbidezko Estatuaren jokabideari esker amaitu dena (ikus VII-tik IXra arteko atalak)⁵. 1968tik aurrera, urtez urte, atentatuz atentatu, erakundeak gero eta protagonismo handiagoa hartu zuen, eta euskal gizartearentzat lasta astuna bihurtu zen. ETaren terrorismoak honako emaitza hauek utzi ditu: 3500 atentatu baino gehiago, 800 biktima mortal baino gehiago; 853, Barne Ministerioaren arabera; 845 Raúl López Romoren kalkuluen arabera. Azken honek, gainera, 2.533 zauritu gutxienez (horietatik, 709 baliaezintasun handiarekin), 15.649 mehatxatu (1968-2001 epealdian; 2002an ia mila pertsona zeuden bizkar-

tzainarekin) eta behartuta erbesteratutako, estortsionatutako eta ekonomikoki kaltetutako kopuru ezezagun bat gehitzen du⁶. Giza kalteei indarkeriak hiritarren artean eragin dituen ondorio kaltegarriak gehitu behar zaizkie: beldurra, polarizazio politikoa, sektakeria, alderdi ez nazionalistek jasandako jazarpena edo nazionalismo erradikalak, denbora askoan zehar kalea ia monopolizatu zuena, kontrolatutako mugimendu sozial eta kultural ez gutxi. Azken batean, demokraziaren degradazioa.

Zenbait lanen izenburuak erabiltzearren: Zeintzuk dira beldurraren sustraiak Euskadin? Nola heldu gara honetara? Nola gertatu zitzaigun hau? Ez dira falta izan galdera handi horiei erantzun global bat bilatzen saiatu diren intelektualak, ikuspegi ezberdinetatik saiatu ere⁷. Atal honen helburua galdera horien argitzeari ekarpen apal bat egitea da. Halatan, bi abiatze hipotesi planteatzen dira. Bata, Euskal Herriaren eta Nafarroaren historia garaikidea negatiboki baldintzatu duen arazoaren zati bat, bederen, 1968ko ekainaren 7an hasi zela. Eta, bigarrena, Raúl López Romorekin bat etorrita, «dena ezberdina izan zitekeela»⁸.

José Antonio Pardinesen aurkako atentatu hilgarria sarritan kontatu izan da (ikus IV. atala). Hala ere, ez dugu modu zuzenean kontatu. Hala erakusten du lan honetarako kontsultatu den dokumentazio argitaragabeak, non nabarmentzekoa den 16/68 zenbakidun kausa judiziala, Iñaki Sarasketaren (*Pello*) aurkako kontseilu sumarisimoarena. Hari esker, krimenaren anatomia xehe bat egiteko aukera izan dugu. Hala ere, fokua egun hartan jarri baino lehen, komeni da atzera begiratzea ETAk bere historia luzearen lehen epealdian indarkeriarekin izan duen harremana berrikusteko.

I. «EGUNEN BATEAN HELDUKO DIRA TIROAK». ETAREN GENESIA (1952-1960)

Erbestean zegoen José Antonio Aguirre lehendakariaren Eusko Jaurlaritzak, zeinean PNV, PSOE eta ezkerreko beste zenbait indar zeuden, uste osoa zuen aliatuen garaipenak, Bigarren Mundu Gerran (1939-1945), frankismoaren erorketa azkartuko zuela. Ez zen horrela gertatu. Gerra hotzak salbatu zuen erregimena, eta 1953an Konkordatua sinatu zuen Vatikanoarekin eta akordioak AEBekin. Bi urte geroago, Espainia NBEn onartua izan zen. 1960an Parisen hil zen Aguirre, eta garai baten amaiera izan zen. Jeltzalea ere bazen Jesús María Leizaolak ordezkatu zuen. Hortik aurrera, Eusko Jaurlaritza bigarren maila batera pasa zen. PNVk ere ez zuen zeregin aipagarriarik izan, eta alderdiaren afiliatuak, Xabier Zumalderen (*El Cabra*) esane-

tan, «balentria zaharrak» gogoratzera eta hiletak, betekadak eta Aberri eguna ospatzera mugatu ziren. Federico Krutwigek *Vasconian* (1963) idatzi zuenaren arabera, «euskal sentimenduari [nazionalista] heriotza heldu behar zitzaiola ematen zuen. Ez zen ezer gertatzen, ez zen ezer egiten»⁹.

Indar abertzaleen (euskal abertzaleak, nazionalistak) geldialdi egoera ez zen aldatzen hasi berrogeita hamarren bukaeran eta hirurogeien hasieran belaunaldi berri bat agertu zen arte, testuinguru historikoak oso baldintzatutakoa (ikus II. atala): diktadura, haren zentralismoa eta nazionalkatolizismoa, «Gurutzada»ren indarkeria garbitzailea goستن zuen heziketa militarista, disidentzia oren debekua, euskararen bazterketa eta atzerakada, industriaren garapena, Espainiaren gainerakotik etorritako milaka immigrante, langile mugimenduaren eta ezkerreko oposizio antifrankistaren (izaera ez abertzalekoa) indarberritzea, eta borroka anticolonialisten gorakada Hirugarren Munduan. Halaber, gazte horiek zenbait ezaugarri komun zituzten. Lehenik eta behin, Gerra Zibilari buruzko irudi desitxuratu baten eragin sakonaren pean zeuden, esparru frankistak sinesgarri egiten zuena: atzerriko konkista batena, «espainiarren» eta «euskaldunen» arteko mendetako liskar etnikoaren azken-aurreko gertaera, gerora «gatazka» deitua izan dena. Heroi eta martiri gudarien irudi goretsiarekin politikoki hezia (soldaduak, Gerra Zibileko batailoi nazionalisten kideak), labealdi berriak haren oinordekotzat aldarrikatu zuen bere burua. Bigarrenik, II. Errepublikatik PNVk bizi izan zuen garapen demokristau eta posibilista lurperatuz, kultura abertzalearen korrante erradikal, zurrun eta antiespainolenera atxikitzen ziren. Zentzu horretan, nahiz eta ofizialki Sabino Aranaren esplizitazio arrazistei uko egin, Espainiaren gainerakotik etorritako langileen aurka zituzten aurreiritzi xenofoboak agerikoak ziren. Hirugarrenik, haien helburua Urrezko Aroa «berreskuratzea» zen, espainiarrek euskaldunei indarrez kendu omen zieten: Euskadi independente, «bateratu» (Nafarroaren eta Ipar Euskal Herriaren anexoaren bidez) eta elebakar euskalduna. Laugarrenik, belaunaldien arteko talka bat egon zen gazte grinatsuen eta PNVko buruzagi beteranoen (eta askoz zuhurragoen) artean. Orokorrean, zaharragoekiko errespetua nagusi bazen ere, ohituta zeuden eragingabetasunetik ateratzea eskatzen zitzaaien ere. «Zorionez, belaunaldi berri bat dago», iragartzen zuen ETArene bulletin batek, Caracaseko *Zutikek*. «Euskal Herria ez da geratu 1936an; bai, ordea, gure erakundeak (...). Ez dugu oroitzapenik nahi: ekintzak nahi ditugu. Euskal Erresistentzia berehala sortzea eskatzen dugu. Hartan belaunaldi berriak ahotsa eta botoa izatea eskatzen dugu». Bosgarrenik, euskal nazioa amaierako hiltzoria nozitzen ari zela uste zuten, bere betiko etsaiak, Espainiak, gauzatutako ustezko geno-

zidio baten erruz. Euskadiren desagerpena saihesteko modu eraginkorrena «borroka armatua» zen. Helburuaren prestutasunak bitartekoak bidezkotzen zituen¹⁰.

Nazionalisten labealdi berria bi taldetan kokatu zen: Barrualdeko *Euzko Gaztedi* eta ETA. EGIk, PNVren gazteriak, Euskal Herrian eta Nafarroan jarduten zuen. Haien buletinak *Gudari* izenburu adierazgarria zeraman, Gerra Zibileko batailoi nazionalisten aldizkariak izan zuen izenburu bera, eta logotipoa zuzi bat zen, gudari zaharren eskue-tatik jarraitzaileenera pasatzen zena¹¹. ETA *Ekinetik* zetorren, 1952an ikasle unibertsitarioek sortutako kolektibo batetik. Hurrengo urtean, beren eratzte-bileran, *Ekineko* kideek beren konpromisoa itxi zuten Gerra Zibileko *Gudariren* ale baten gainean handikiro zin eginez. Haie-tako batek, José Luis Álvarez Enparantzak (*Txillardegi*) esan bezala, «gudariak zirela uste zuten, eta erakunde hura (...) Euskal Gudaros-tearen jarraipena bezala ikusten zuten». Baina, borroka egin ordez, ikerketari eman, eta euskal nazionalismoa berraurkitu zuten bere aldaera fundamentalistenean. Bi taldeen arteko bat-egite ideologikoak erraztu egin zuen biak EGI siglen pean elkartzea. Batasun efimeroa izan zen. Elkarrekiko mesfidantzari, PNVren zuzendaritzaren kontrol irrikari eta alderdiaren beraren barne arazoei esker, haustura gertatu zen bi urte geroago. Bolada batean, *Ekineko* kide zaharrek benetako EGI-tzat aldarrikatu zuten beren burua, baina 1958ren amaieran izen berri bat hartzea erabaki zuten: *Euskadi ta Askatasuna*¹².

José María Garmendiaren ustez, «indarkeria erabiltzeko beharra presente dago (...) erakundearen jaiotzatik beretik». «Nik, bereziki, hasieratik ikusi dut», baieztatzen zuen elkarrizketa batean ETako buruzagi ohi izandako Juan José Etxabek (*Haundixe*). Zentzu horretan, ETAREN *Liburu zuriak* honako hau finkatu zuen: «gure zapaltzaileen eskuetatik askatzeko, armak baliatu behar dira, nahiz haien erabilera gaitzesgarria izan. Abertzale guztiek onartu behar dute indarkeria azken arrazoi gisa eta une jakin batean». Krutwigen ikuspegitik, «Euskal Herriaren seme-alaba ororentzat betebeharrak bat zen desnazionalizazioari aurka egitea, horretarako iraultza, terrorismoa eta gerra erabili behar badira ere». Txillardegik gogora ekartzen zuen bezala, ez da harrizkoa «erakunde berria sortu eta bataiatzearekin batera, hura ekintzarako adar batez hornitzea». Hala ere, Etxabek zehazten zuen bezala, «borroka armatuaren beharra beti presente egon bada ere», ez zen gauza bera gertatu «hiltzeko beharrek, hiltzea oso kontu serioa baita». Denbora gehiago behar izan zuten azken hori onartzeko, eta hamarkada oso bat egia bihurtzeko. Euskal nazionalismoak ez zuen matxinadarako tradizioirik, eta, horrez gain, ETako militanteen kezka erlijioso eta moralak zeuden, ordena materialeko zailtasunak (entrenamendua, informazioa, dirua, armak eta abar) eta funtsezko elementu

bat: giza borondatea. Horri guztiari aurre egin behar izan zioten. Biktima mortalak eragin baino lehen, ETA bitartekoen bilaketan nahiz antolaketa- eta estrategia-eredu propio bati buruzko eztabaida teorikoetan murgilduta egon zen. Bien bitartean, intentsitate baxuko indarkeriarekin saiatu zen¹³.

Askotan esan izan da ETAk bere lehen ekintza 1959ko abenduan egin zuela: etxean egindako lehergai bana jarri zuela Gasteizko Gobernu Zibilean, Santanderreko Alerta egunkarian eta Bilboko Poliziaren komisaria batean. Hala ere, data okerra da: *Alertako* zuzendarriaren gutun baten arabera, egunkariaren aurkako lehergailuak urriaren 24tik 25erako egunsentian eztanda egin zuen. 1839ko urriaren 25eko Legearen 120. urteurrena zen, euskal eta nafar foruak «Monarkiaren batasun konstituzionalari kalterik egin gabe» baieztatu zituen. Sabino Arana eta honen jarraitzaileek Euskadiren independentziaren galera gisa interpretatu zuten; hortaz, adierazgarria zen euskal nazionalismoarentzat. Ez dakigu Bilboko eta Gasteizko bonbek aldi berean eztanda egin ote zuten urriaren edo azaroaren beste egun batean. Ziur dakigun bakarra da ez zirela lehertu 1959ko abenduan, aurreko hila-beteko bi buletinetan aipatzen baitituzte: *Alderdin* eta *Eusko Gaztedin*¹⁴.

Euskal Fronte Nazionalak, Venezuelan errotua zegoen iraupen laburreko taldexka neorranistak, bere gain hartu zuen Gasteizko lehergailuarena. Nolabaiteko lotura zuen *Jagi-Jagirekin*, II. Errepublikan PNVk izandako eszisio estremista batekin, eta iturri batzuek hura jotzen zuten egiletzat. Aldiz, Bizkaiko Gobernu Zibilaren *Memoriak* EGIko kideei leporatzen die «Poliziaren Goi Buruzagitzaren lorategian bonba bat» jaurti izana, garai hartarako ohiz kanpokoa zen aktibismo bat burutzen ari zirelako. Hain zen horrela, ezen OPIk, Ordena Publikoaren Indarrak, PNVren gazteriak jazarri zitutela ia guztiz desegin arte. Sarekadetan, *Jagi-Jagiko* Trifón Echebarria (*Etarte*) kide beterranoaz gain, ETako lau kide atxilotu zituzten ere, aurretik EGIkoak izandakoak, antza denez beren kide ohiek aipatuta. Julen Madariagaren ustez, «beste erakunde bat zegoela ondorioztatu zuen poliziak, baina ez zuten haren izena jakin». Juzgado Especial Nacional de Propaganda Ilegal delakoak epaitu zituen EGIko kideak eta *Etarte*, bai eta sei hilabete eta lau urte eta bi hilabete arteko espetxe zigorrak ezarri ere; ETako kideek, ordea, egun gutxi batzuk igaro zituzten komisarian. Jon Nikolasen esanetan, OPIk etakideen datuak jasotzera mugatu ziren, haiek sigla berriekin lotu gabe¹⁵.

Aztarna horiek direla eta, zenbait egilek zalantzan jarri dute ETAren inplikazioa 1959ko leherketetan. Azken batean, erakundeak ez zituen inoiz sabotaje horiek bere gain hartu. Egiatan, ia inork ez zuen haren existentzia ezagutzen. Bere argitalpenetan izan ezik, Espainian

eta Espainiatik kanpo garai hartan egin ziren argitalpenetan ez zaio ETARI inolako aipamenik egiten. Adibidez, 1960ko martxoan *The New York Times*ek gainbegiratu bat eman zien Euskal Herrian jarduten zuten «bost mugimendu politiko klandestinoei»: PNV, PSOE, errepublikazaleak, ANV eta monarkikoak. ETA ez zegoen talde horretan. Egiatan, hurrengo urtera arte ez zen bere orrialdeetan agertuko¹⁶.

Gurutz Jáureguik gogoratzen duenez, garai hartan, talde horren argitalpenetan «ez zitzaion inolako aipamenik egiten borroka biolentoko metodoen jarduerari»¹⁷. Nolanahi ere, Lazkaoko Bénédictarren Fundazioa artxiboan Julen Madariagak 1964an idatzitako dokumentu bat dago gordea, orain arte argitaragabea, hasierako hipotesira itzultera behartzen gaituena. *Ekin* eta ETAREN historia labur bat da, non honako hau irakur dait

Baina 1959an eman zitzaion bultzada [aldaketa estrategikoari]. Gure esparru mugatutik ateratzea zen kontua, eta kanpoko mundura, Euzkadiko herriaren aurrera orokorrean, agertzen hastea. Bestela esanda: ETA bere lerroetatik kanpora propaganda egiten hasi da (...).

Lehen ekintzak hasi zirenean beste pauso handi bat eman zen, baita 1959an ere (amorraraztea, oihalezko eta paperezko banderak eta abar), Urte horren beraren amaieran etxean egindako lehen bonbak jarri ziren Santanderren, Bilbon eta Gasteizen. Lehen urratsak izan ziren. Ez genuen gure sinadura utzi, ez genuen esan ETAK egin zuela.

Okupatzailearen polizia EG[I] (PNVrekin geratu zen zatia) zela uste zuen; izan ere, oraindik erabat ezezagunak ginen. Kontua da Bizkaian EGtik geratzen zena erabat desegin eta hondatu zutela. Baina izenak ezagutzera eman ziren lehen aldiz¹⁸.

José Antonio Etxebarrieta Ortizek geroago idatzi zuen beste testu baten oinarria izan zen arestian aipatutakoa, eta Etxebarrietarenean leherketen egiletza bere gain hartzen zen ere. Bertsio hori *Zutik* berezi batean argitaratu zen hurrengo urtean, *Ekinen* 15. urteurrenaren harira, baina, azenik, ez zuen argia ikusi 1968ko ekainaren gertaerengatik: Pardinesen hilketa eta hiltzailearen anaiaren, Francisco Javier (*Txabi* edo *Pepe*) Etxebarrietaren, hilketa; horrek buletin berri bat prestatzera behartu zituen etakideak. Hala ere, bai dago jaso *Documentos Y* delakoetan¹⁹. Bi lanak, Madariagarena eta Etxebarrietarena, hain oharkabean pasa dira ezen, ironikoki, ETAK berak ere ahaztu egin baititu bere lehen bonbak, eta ez daude sartuta *Zuzen* buletinaren 79. alean agertzen den bandaren atentatu ofizialen zerrendan²⁰.

ETAREN lehen atentatua zein izan zen zehatu ostean, bigarrena zein izan galde genezake. Asko idatzi da horretaz; hortaz, gertaerak behinbetiko finkatzea komeni da. 1960ko ekainean leherketa kate bat egon zen Espainiaren ipar aldean. 27an, bonba batek Amarako tren geltokian (Donostia) eztanda egin, eta Begoña Urroz izeneko neska hil zuen.

Ernest Lluchek idatzitako artikulu batetik abiatuta, heriotza haren erantzukizuna ETARI leporatu izan zaio. Urtez urte, leporatzea errepikatzen da komunikabideetan. Dena dela, DRIL taldea izan zela dirudi, 1959an sortutako talde antifrankista eta antisalazarista hispaniar-portugaldar bat, hilabete batzuk lehenago jada lehergailuak jarri zituen. Taldea ospetsu egin zen 1961eko urtarrilean Santa María portugaldar transatlantikoa bahitu zuenean. Ez dago zalantzarako zirrikiturik. Alde batetik, OPIK DRILI egotzi zion 1960ko ekaineko atentatuen errua. Bestalde, ETAK ez ditu inoiz bere gain hartu, ezta bere barneko dokumentazioan ere. Azkenik, *El Nacional* (Caracas) egunkariak jasotzen duen bezala, Direktorioak berak bere gain hartu zituen argi eta garbi. Labur esanda, DRILEk hil zuen Begoña Urroz. Neska hura terrorismoaren biktima izan zen, baina ez ETAREN terrorismoarena²¹.

Ia bi urte igaro ziren ETA berriro ekintzara pasatzeko. 1959ko udazkeneko bonbena gertatu eta apur bat geroago, *Zutikek* (Caracas) abisu bat eman zuen: «abertzale mota jakin batentzat metrailadoreak erostea eta Euzkadiko kostaldean erasora oldartzea da estrategia posible bakarra aberriaren askatasuna berreskuratzeko», baina «jarrera horrekiko susmo txarra pizten digu zerbaitek, zeren eta oraindik ez dugu metrailadorerik eta ez da inbasio hori hasi... eta haiek oihuka jarraitzen dute (...) Metrailadoreak nahi dituzte, edo ezer ez!... Jakina, oraingoz ez dago ezer». ETAREN argitalpenak honako hau gomendatzen zuen: «adiskide, oraindik metrailadoretan pentsatzen baduzu, geratu apur bat, gogoeta egin, eta laguniezaguzu. Egunen batean helduko dira tiroak. Ez izan presarik»²².

II. PINTADAK, SABOTAJEAK, JIPOIAK ETA TEORIA. ETAREN LEHEN AKTIBISMOA (1961-1964)

1961ean ETAK iragarri zuen «Euskal Erresistentzia neurri izugarriko beste epealdi baterako prestatzen ari zela. Presta gaitzen denok hurbil dagoen ordu handirako». Uztailaren 18an taldeko kideek bandera gorri-hori pare bat erre zuten Donostian. Aldi berean, hiru etakidek Donostia-Bilbo trenbideko 53,8 kilometroko 18 tirafondo kendu, beste hamasei askatu, eta erraila 4 bat zentimetro mugitu zuten. Altxamendu frankistaren 25. urteurrena ospatzeko, Donostiara zihoan Gipuzkoako erreketen beteranoen tren bat errailetik irtenaraztea zen haien helburua. Gerra Zibilean gudariak menderatu zituen etsai gorrotatuaren aurkako mendeku sinbolikoko ekintza bat zen. Eta hala ulertu zuten Latinoamerikan erbesteratuta zeuden ultranazionalista beteranoek: «Erresistentziaren Gudariok, Euzkadiren etorkizuna zuen esku-

tan dago: zuen Euskal Herriak gogo biziz maite eta miresten zaituzte!! Erresistentziako Gudariok, Aberriak uste osoa du zuengan!!». EGIk ere, erakunde lehiakide batean militatzen zutela aipatu gabe, «isiltasunaren gudari haiek, Euskal Erresistentzia» goratu zituen. Hala ere, «ordu handia» ez zen oraindik heldu. Egiatan, are gehiago urruntzen ari zela ematen zuen. Etakideen egitasmoa porrot batekin amaitu zen, ez baiten trenik errailetik irten. Kausa judizialaren arabera, Compañía de Ferrocarriles Vascongados delakoak kalkulatu zuen «sabotaje zapuztua»ren kalteak 671,04 pezetakoak zirela (gaur egungo 150 euro). Gainera, eta are garrantzitsuagoa zena, OPIk ETArek berri izan zuen, ordu arte ez baitzekiten ezer, eta hogeita hamar bat kide atxilotu zituen. Kide horiei propaganda eta «neurri handiko hiru giltza ingeles» konfiskatu zizkieten. Horietako zapiri kartzela zigor luzeak ezarri zizkieten²³.

«Hori dela eta, ETAk halako kolpea jaso du, ezen hilabete asko beharko baititu osatzeko», onartzen zuten barne dokumentu batean. Atxilotetek hainbeste eragin zioten taldearen egonkortasunari, taldekide gutxi batzuek ezbaian jarri zutela «borroka armatua»ren egokitasuna. Agian, desadostasun horiek ziren ETArek I. biltzarraren (1962) «Printzipioak»etan irudikatu zen indarkeriaren trataera anbiguoaren erantzuleak: «Egoera historiko bakoitzak eskatzen dituen bitartekoak erabili beharko dira». Nolanahi ere, eztabaida laburra izan zen, kolektiboko kideen gehiengoa armak erabiltzearen aldekoa baitzen. Beren ikuspuntuaren arabera, «atzerritarren» okupazioari aurre egiteko eta Euskadi jasaten ari zen «genozidioa» gerarazteko tresna eraginkor bakarra zen. Dena dela, gogoratzen zuen Etxabek, «ondorio batera iritsi ginen, oinez ikasi baino lehen korrikan egin nahi genuela, oraindik ez geundela prest ekintzak burutzeko eta Poliziaren errepresiotik ihes egiteko». Aldi berean, uztailearen 18ko atentatuaren ondotik, poliziaren errepresioak «ETArek idatzietan hitzezko indarkeria handiagoa» ekarri zuen Gurutz Jáureguiren ustez. Adibidez, *Zutikek* honako hau ohar-tarazi zuen: «Erresistentziarekin lan egiten ez duena traidore bat da, eta halakotzat hartua izango da (...) Euskaldun guztiek jakin dezatela heldu dela jada heroï eta traidoreen artean sailkapena egiteko ordua». Beste ale batean azpimarratzen zuten «alde edo kontra aukeratu behar zela. Amaitu dira abertzaletasun ziurtagiriak. Erresistentzian borrokan edo lanean ari dena abertzalea da (...). Gainerako guztiak zapaltzaileen alde daude»²⁴.

Diskurtsoaren erradikalizazioaren testuinguru horretan, ulertzekoa da 1962an ETAk bere burua «gutxiengo talka-oste» gisa aldarrikatzea, Euskal Herria «esnatzeko» helburua duena, eta Melitón Manzanás inspektorea (modu iragarlean) eta atxilotuek torturatzaile gisa salatutako beste zenbait polizia ere mehatxatzea: «Garesti ordainduko dituzte

beren krimenak. Ez gabilta arrandiaz»²⁵. Baina ari ziren oraindik. José Luis Unzueta (Patxo) ustez, hirurogeien lehen erdian, ETA «talde propagandista bat zen, paper inprimatuan fede ia mugaezina zuena». Buruetako bat zen José Luis Zalbidek onartu bezala, «lehen garaian» zehar «hormak ETArekin siglekin betetzeko tema egon zen», baina «oso gutxi ziren ETArekin siglak erakunde klandestino bati zegozkiola zekitenak». Gizartean zuen eragina oso txikia zen. Gehienera jotan, kalean murmurikatzen zen ETAKoak «hormak margotzen zituzten horiek zirela». Xabier Zumalderen esanetan, «jendeak ezaxolaz begiratzen zituen [pintadak], edo besterik gabe ez zituen begiratzen. Bizkorren batek esaten zuen: -Beste marka komertzialen bat izango da... Zer salduko dute hauek?». José María Portellek gogoratzen zuenez, «askok —zolienek— uste izan zuten merkatura heldu zen detergente berri bat zela». Garai hartan, ETAK indarkeriarekin egiten zituen ahaleginak, Eduardo González Callejak «abenturazaletasun armatu»tzat jo duen horren barruan sartzen ziren; hau da, «maila baxuko indarkeria tekniko bat, militante ez espezializatuek egindakoa, aldizkako izaera duena, eta helburu publizitario hutsa»²⁶.

Juan José Etxaberen arabera, «benetako epealdi ekintzailea» 1963an hasi zen. Nahiz eta Gipuzkoan, agintarien ustez, «atxiloketei esker oraingo ETArekin ekintza biolentoak» saihestu ziren», Bizkaian, guk daki-gula, erakundearen kideek lehen eraso fisikoa burutu zuten pertsona baten aurka. Kausa nazionalistara atxikitzen ez ziren «korearrak» (etorkinak) mehatxatu zituzten *Gudariren* ale berean, EGIk «genozidatzat» salatu zuen Antonio García Escobar, Zaldibarren (Bizkaian) maisu zena. Abenduaren 6an etakideek eraso egin zioten, eta erasotzaileen artean zegoen Etxabe bera. Bere ikasleei euskarazko ekintza erlijiosoetara ez joateko presionatu izana leporatzen zitzaion García Escobarri, nahiz eta poliziaren txosten baten arabera, erasoaren arrazoi nagusia «haur euskaldunen eta ez euskaldunen arteko» diskriminazioa egiten zuen apaiz batekin edukitako enfrentamendua izan. Nolanahi ere den, *Zutik* aipatuz, etakideek «ziur asko ahaztuko ez duen jipoi bat eman zioten. Eta hori ez da indarkeria... Hori autodefentsa da». Ale horretan bertan irakurleei erregutzen zitzaien «antzeko kasuak salatzeko, zigorrak burutuko direla ziurtatzen baitugu». Justu ondoren herrien zerrenda bat aurkezten zen, jada seinalatuak izan ziren irakasleen izenak zituena. Hurrengo urtean poliziaren ustezko isil-mandatari baten denda erre zuela iragarri zuen ETAK, baita beste bati Euskaditik joateko «gonbita» egin ziola ere, kaleratua izan baino lehen. Haien buletinetan beste zenbait «etsai»ren izenak agertu ziren, Espainiako bandera bat jartzeagatik, erakundeari laguntza ekonomikoa ukatzeagatik edo bestelako jarduerengatik seinalatuak, guztiak ere aberriaren aurkako laido delitutzat hartuak²⁷.

Antza denez, Zaldibarreko irakasleari jipioia eman zion komandoa izan zen 1963an harrobi bateko dinamita lapurtu zuena —dinamita horrekin tren bagoi bat leherrarazi zuten gero Altsasun (Nafarroa)—, edo Izaskun Ama Birjinaren ermitan zeuden Tolosako erreketean bolondresen hiru bandera lapurtu zituen. Entseina karlistak herri horretan bertan agertu ziren puskatuta, ETAREN siglekin margotuta, eta poliziaren txosten baten arabera, «haien gainean maiz gernu egin zen seinaleekin». Kontuak horren itxura baldarra zuen, ezen *Oficina de Prensa de Euzkadik*, Eusko Jaurlaritzaren organo ofizialak, «elementu probokatzaileri» leporatu baitzien²⁸.

ETAk indarkeriara izan zuen hurbilketan erabakigarria izan zen 1963. urtea, baina ez Etxaberen zelularen jardueragatik, baizik eta Parisen argitaratu zen *Vasconiagatik*, Federico Krutwigek idatzia. Txillardegik onartu zuen bezala, liburu hura «ETAren biblia» bihurtu zen *de facto*, egilea oraindik erakundeko militante ez izan arren. *Vasconiak* beren nazionalismo erradikalarekin itxuraz bateragarria zen marxismoaren bertsio bat eskaintzen zien etakideei. Gainera, Krutwigek Mao Zedongen eta mugimendu anticolonialen eredu ezartzen zion Euskadiri, eta azken hau Espainiak eta Frantziak konkistatua, zatitua, kulturgabetua eta esplotatua aurkezten zen. Azkenik, metropoliak garaitzeko eta aberriaren izatea babesteko gako askapeneko fronte nazionalen eredu arrakastatsuen estrategia imitatzea zela defendatzen zuen: gerrillak nahiz izaera terroristako taktikak (Krutwigek saihesten ez zuen terminoa) —hala nola bahiketa, tortura eta polizia zein haien senideei zintzurra moztea— barne hartzen zituen gerra iraultzailea²⁹.

Vasconia, Frantz Fanon edo Claude Delmas teorikoen lanak eta Israel, Txipre edo Algeriako mugimendu nazionalistek egin zuten indarkeriaren erabilera, horiek guztiak inspirazio iturri gisa erabili zituen Julen Madariagak «La insurrección en Euzkadi» idazteko, ETAren III. Biltzarrean (1964) onartutako ponentzia. «Gudari-militanteek» gerrilla bat osatu behar zuten, zeinarentzat «iruzur egitea, derrigortzea eta hiltzea ez diren ekintza deitoragarriak, *beharrezkoak* baizik». Gudaroste okupatzaileak garaitu eta gero, ETAk boterea hartuko zuen. Madariagaren egitasmoak alde batera uzten zituen ez bakarrik Euskal Herri oparo eta industrializatuaren eta Afrikako zein Asiako kolonien artean zegoen amildegia, baita ETAREN beraren egoera ere. Sei urte geroago José Luis Zalbidetik onartu zuen bezala, «1964an lehen militante liberatuek [ETArentzat modu eksklusiboan lan egiten zuten pertsonak] ez zuten jatekorik, baina bai zenbait arma. Noski, ez zuten muniziorik, baina ez zuten oso ondo jakingo harekin zer egin». Gainera, esperientzia beliko ezdeusa eta Madariagaren irudimen oparora mutur groteskoetaraino islatzen ziren dokumentuan. Adibidez, Mada-

riagak proposatzen zuen etakideen unitateek «irrintzi handiekin eraso egitea, etsaia beldurrak paralizatuta uzteko. Edo isiltasun betean erasotzea, katuek bezala. Komeni den arabera». Edozein kasutan, dokumentuaren orrialdeetan ekintza-ondorio kiribilaren lehen zirriborroa marraztu zen. Atentatu baten ondotik, «etsaiak, erle askok ziztatutako gizandi batek bezala, bere buruaren kontrola galdu, eta itsu-itsuan jotzen du ezker-eskuin». Era horretan, «gure helburu nagusienetako bat lortuko dugu: mila baldarkeria eta basakeria eginaraztea. Haren biktima gehienak errugabeak dira. Orduan, ordura arte gutxi gorabehera pasibo eta zain egon den herria, gugana itzuliko da»³⁰.

1964ko urtarrilaren leko beren lehen «Manifestu Nazionalan» ETAREN zuzendaritzak bere burua zoriontzen zuen 1963an «Euskal Erresistentziak bere ekintzak areagotu zituelako». Hasi berria zen urtea «gure aberriaren askapenerako borrokaren lehen urtea» izango zela iragartzen zen. «Borroka luze eta neketsua izango da. Ez dugu ez geure burua ez beste inorena engainatu nahi. Ez dago biktimarik gabeko borrokarik». 1964ko Gipuzkoako Gobernu Zibilaren *Memoriak* egiaztatu zuen urte horretan zehar ETAK «jarduera handia burutu zuela ordena guztietan, propagandaren zabalkundetik eta lan zein irakaskuntza arloetan jarraitzaileak erakartzetik, ekintza terroristak burutzeraino, hala nola Bergaran eta Donostian lehergaiak jartzea». Alerta jotzen zuen ere «erakunde honek duen arriskua dela eta, komunikabideak eta Espainiar estatuan delituak egitera eskusiboki emanak bizi diren kideak baitauzka». Hala ere, ETAREN dinamismoa eta beste zenbait talderen (PNV edo PSOE) jarduerarik eza alderatzen badugu, administrazio frankista gauzak puzten ari zen. Kolektiboaren mugak begi bistakoak ziren, ez bakarrik estrategiari dagokionez, baita militantziari, prestakuntzari, baliabideei eta armei dagokienez ere. Barne dokumentu batean onartzen zen bezala, «Euzkadiko biztanleria guztiak, gutxi gorabehera, badaki ETA izeneko zerbait dagoela. Haatik, oso gutxi dira ETA zer den dakitenak (...). Ez bakarrik jende gehienak, jarraitzaile askok eta etakide batzuek ere ez dakite zer den»³¹.

III. HITZETATIK EGINTZETARA. KIRIBILAREN HASIERA (1965-1968)

1965eko ekainaren 6an ETAKO bost aktibista, Julen Madariaga barne, Espainia eta Frantziaren arteko muga zeharkatzen saiatu ziren IV. Biltzarrerara joateko. Mugatik bi kilometrotara Guardia Zibilaren bikote batek gelditzeko esan zien. Gazteen azalpenak nahasiak zirenez, eta haietako batek dokumentaziorik ez zuenez eta beste lauek, berriz, herrialde ezberdinetako pasaporteak zituztenez, agenteek, susmoak

hartuta, Berako (Nafarroa) postura eraman zituzten. Bide erdian etakideek guardia zibilei eraso egin zieten, harriekin jo zituzten haietako bat konorterik gabe utzi arte (beste bertsio baten arabera, biak utzi zituzten konorterik gabe). Une zehatz hartan. Ihesari eman aurretik, beren burua «gudari berri»tzat aldarrikatzen zutenek erabat beren mende eduki zituzten euskal nazionalismo erradikalaren iruditerian superbilau papera, etsaien artean nagusiarena, jokatzeko zuten Benemeritaren bi agenteak. «Hil zitzaizkete», zioen *Zutikek*, «baina jasotako aginduak betetzen dituzte, eta horrelako jazoera batean heriotzak saihestu behar dituzte. Gainera, beren zeregina beste bat da, eta topo egitea erabat ezustekoa izan da». Etakideek pauso erabakigarri hori ez ematea erabaki zuten. Hilketak burutzeko eragilea falta zen: borondatea³².

Mugako gertaerak, segurtasun arrazoiak zirela eta, Biltzarra bertan behera geratzea ekarri zuen. Abagune horretan Xabier Zumalde hautatu zuten «talka-komando» baten buru, etakideen zoriari buruz informazioa biltzeko eta, harrapatuta egon ezker, haiek askatzeko. Zelulak Atxarteko (Bizkaia) haranetik txango bat egin zuen, besterik ez. Hala ere, *El Cabrak* zuen ahalmen ona zela eta, fronte militarren lehen buruzagi aukeratu zuten azkenik IV. Biltzarra egin zenean. Zumalderen hitzetan, «ETAren Batzorde Betearazleak neu izendatu ninduen egiatan ez zutelako inor hoberik... Hilabete batzuk baino ez neramatzan erakundeko militante gisa. Ez nengoen politizatua, ez doktrinatu, eta ez nekien zer adierazten zuten euskal nazionalismoak gure historian»³³.

Aldi berean, ETAren IV. Biltzarrak Madariagaren proiektua alboratu zuen. Euskal Herria ez zetorren bat Hirugarren Munduarekin moldearekin: estrategiak egoerak berezkoak zituen inguruabarrekiko nolabaiteko egokitzea eskatzen zuen, eta errealismo dosi handiagoa. José Luis Zalbidetik idatzitako «Bases teóricas de la guerra revolucionaria» ponentziak ordezkatu zuen «La insurrección en Euzkadi». Dokumentuak taldearen mugak onartzen zituen (adibidez, fronte militarrek sei arma zituen, besterik ez), eta ekintza-ondorio estrategian oinarritutako «gerra iraultzaile» baten alde egiten zuen, xehetasun handiagoz azaltzen zuena. Lehenik, «ETAk, edo ETAk zuzendutako masek, sistemaren aurkako ekintza probokatzailerik bat egingo dute». Bigarrenik, «Estatuaren errepresio-aparatuak masak astinduko ditu». Hirugarrenik, «errepresioaren aurrean, masek bi modu aurkajarri eta osagarritan erantzun dute: izuarekin eta asaldaketarekin. Une egokia da ETAk kontraerasoa egiteko, lehena gutxitu eta bigarrena areagotuko duena»³⁴.

Ekintza-ondorio kiribila zen ETA aspalditik bila zebilen prozedura teorikoa. Beren atentatuek gehiegizko errepresaliak bultzatu nahi

zituzten diktaduraren aldetik. Ez zituzten taldeko militanteek jasango, baizik eta euskaldun guztiek orokorrean; hortaz, saihetsezina zen azken hauek tratatu txarra ematen zieten zapaltzaile «espainiarren» aurkako zernahi mendeku ekintza txalotzea. Lehenago edo geroago, azpiratua zegoen biztanleriak (moldakorregia ere bazenak) bere kateak hautsiko zituen «gerra iraultzailea»rekin bat egiteko. Dena den, ezinbesteko bi baldintza zeuden kiribil hori ondo ateratzeko. Bata, ETAREN egiturak poliziaren erantzunari eustea. Bigarrena, abangoardiaren esanetara, alegia etakideen beren esanetara, jarriko zen herri-matxinada bat piztea.

El Cabrak gerrillari borrokako taktikak erakutsi zizkien gazte gutxi batzuei, eta istiluren bat eragin zuen, gertaerak lasterragoetzeko puntuan egon zena; esaterako, Guardia Zibiletik egindako ihesaldi gorabeheratsua Amurrión (Arabian). Hala ere, oso denbora gutxi eman zuen erakundean. 1966an, Bulego Politikoko arduradun zen Patxi Iturriozek ezkerretera bira bat egin nahi izan zuen, eta horrek Zumalderen jarraitzaileen zatiketa ekarri zuen. Zatitu zirenek beren burua ETAKo Talde Autonomo gisa aldarrikatu zuten, nahiz eta orokorrean *Los Cabras* bezala ezagunak izan. Taldexka honek IV. Biltzarraren printzipioei leialtasuna berretsi zien, baina digresio politikoak alde batera utzi zituen. Langilez osatua zegoen, eta «gerra» egiten zuten «beren aisialdian eta asteburuetan». Maiatzean, Garai (Bizkaia) herriaz «jabetu» ziren ordu batzuez, herriko biztanleak mezatan zeuden bitartean. Herritarrak elizan egon ziren *Los Cabrasekoek* lekua utzi zuten arte. Zumaldek aitortu du ez zirela inorekin harremanetan jarri, biztanleak «ezkutatu eta kontraleihoak itxi baitzituzten. Zaila zen egoera geure gain hartzea, bandoleroak bezala tratatzen gintuztela iruditu baitzitzaitzaigun». Nahiz eta erretorika grinatsua, entrenamendu militar gogorra eta armak izan, gerrillari ikastunek nahiago izan zuten handik hanka egitea Guardia Zibila heldu baino lehen. Tiro ez egitea, ez hiltzea erabaki zuten. *Los Cabras* delako taldea beste zenbait jarduerari lotu zitzaion ere, hala nola: sabotaje elektriko eta telefonikoak, baso-suteak edo oporraldiak Bizkaian igarotzen zituzten Europako turisten ibilgailu eta karabanen erreketak. Landa-gerrilla bihurtzeko asmoz, taldexkak janarentzako eta armentzako biltegiak prestatzen jarraitu zuen mendian. Berehala aienatu zen fantasia bat izan zen. 1968an OPIk desegin zituzten *Los Cabras* taldexkakoak³⁵.

ETAREN IV. Biltzarraren erabakiak gorabehera, ETAK hiru urte gehiago behar izan zituen indarkeria zikloari hasiera emateko. Adibidez, haien ekintza aipagarrienetako bat, EGIREkin batera egindakoa, mendiko txirrindularitza lasterketa batean errepidean pintadak egitea izan zen. Taldeak ez zuen dirurik askoz harago joateko. ETAK berak gerora onartu zuen bezala, ekintza-ondorio kiribila martxan jarri

aurretik, «era guztietako bitarteko ekonomikoak zein materialak behar zituen bizirik irauteko». Bestela esanda, dirua beharrezkoa zen propaganda ordaintzeko eta liberatuak mantentzeko, baita lehergailuak eta armak eskuratzeko ere. Ordu arte, kideen harpidetzen eta jarraitzaileen oparien bidez finantzatzen zen erakundea, baita enpresari nazionalistei egindako eskarien bidez ere. Azken hori izan zen, hain zuzen ere, gerora «zerga iraultzailea» deitutakoaren aurrekaria. Bide horietako bakar bat ere ez zen nahikoa. 1965eko irailaren 24an Bergaran (Gipuzkoa) egindako lapurreta desastre hutsa izateak ere ez zuen lagundu: 2,75 pezetakoa izan zen harrapakina (2016ko 0,52 euro). Hori gutxi balitz bezala, justu operazio horren ondotik, José Luis Zalbidek trafiko istripu bat izan eta ospitalera eraman zuten; hantxe atxilotu zuen Guardia Zibilak³⁶.

1967ko martxoan, Patxi Iturrioz buru zuen korrante langile zalea kanporatu eta gero, ETAk bere V. Biltzarraren bigarren zatia ospatu zuen. Taldea lau frontetan egituratzea (kulturala, sozio-ekonomikoa, politikoa eta militarra), nazionalismo iraultzailea bere egitea («Askapen Nazionaleko Euskal Mugimendu Sozialista» deitura hartuta) eta ekintza-ondorio estrategia berrestea erabaki zuten. Iragarri zuten «Gerra iraultzailea»ren eztanda berehalakoa zen. ETAREN barruan Hirugarren Munduaren aldeko joera (Krutwigen miresle ziren buruzagi gazteek zuzendua) eta Kubako Iraultzaren aldekoa nagusi zirela baieztatzeraz etorri ziren bozketak. Kubako Iraultzaren aldekoek *Ché* Guvera miresten zuten bereziki, eta hura bezalakoa izatearekin amets egiten zuten. Besteak beste, José María Escubi (*Bruno*) eta José Antonio eta Txabi Echebarrieta Ortiz anaaien izenak aipa ditzakegu. Etakide haiek hirurogeiko urteen amaieran Italian, Mendebaldeko Alemanian eta Ipar Irlandan indarkeria terrorista erabiltzen hasi zen belaunaldi beraren kide ziren (ikus I. atala)³⁷.

Bere lehen lapurreta arrakastatsua 1967ko apirilean egin zuen ETAk, eta 1.060.000 pezeta (gaur egungo 147.000 euro) eskuratu zituen Billabonako (Gipuzkoa) Banco Guipuzcoanotik. Urrian komando batek sukurtsal bera erasotu zuen berriro: 600.000 pezeta (83.000 euro). Aretxabaletako (Gipuzkoa) Banco Guipuzcoanok zori bera izan zuen 1968ko martxoan. Lapurrek 740.000 pezeta (100.00 euro) lortu zituzten. Besteak beste, funts horiei esker, bandak liberatuei ordaindu ahal izan ziren, eta, hainbat bidetatik, merkatu beltzetik kasu, Txekoslovakian (Ceska Zbrojovka, «Vzor» bezala ezagunak) nahiz Espainian (Star eta Astra) egindako munizioa, metrailadoreak eta pistolak erosi ahal izan zituen. Burgoseko prozesuaren sententziaren arabera, ETAk Frantziako lurraldean, Espainiako mugatik gertu, zeukan biltegietako batean, «gudarosteko konpainia bat hornitzeko bezainbeste gerra- eta defentsa-arma, munizio eta lehergailu» pilatzera iritsi ziren. Ziur asko,

gehiegikeria bat zen, baina egia da ETAre armategia modu funtsezkoan hobetu zela. Eta armak indarkeriaren aldeko bere apustua gauzatzeko ezinbesteko aurrebaldintza ziren³⁸.

V. Biltzarreko bigarren zatiak honako hau erabaki zuen: «ekintza metodoa ekintza-ondorio ekintzaren goranzko ekintza prozesu bat izango da herrialde zapaldu baten borroka iraultzailea osatzen duten lau fronteetan». Baina, praktikan, kiribilaren pisua ETAre sekzio militarren bizkarrean erori zen, eromenezko dinamika batean sartu zena: lapurretak, sabotajeak, OPIekin lankidetzan aritzeaz akusatuta zeuden pertsonen jabegoen aurkako erasoak («salatariak»), mehatxuak, bonbak zenbait udaletxe, lokal sindikal, kuartel, sinbolo frankista (Eroritakoan monumentuan, Algortan), errepikagailu, egunkari eta abarren aurka. Atentatu horiei *Los Cabrasekoek* edo EGikoek data horietan burututakoak gehitu behar zaizkie, hala nola Donostiako poli-ziaren ustezko kolaboratzaile baten dendaren erreketeta edo 1968ko maiatzean, Espainiako Txirrindulari Itzulia ospatzen ari zela, Gas-teiztik Iruñeara doan errepidean eztanda egin zuen lehergailua. Eztan-dak zauritu arinak utzi zituen, eta etapa bertan behera uztera behartu zituen antolatzaileak. Kasu askotan, OPIek ETari egotzi zizkion okerki operazio horiek³⁹.

Etakideen indarkeriaren goraldia arrisku handiak zituen. Urtea-ren lehen erdian zehar, biktima mortal bat eragitetik gertu egon zen bere aktibismoa. 1968ko martxoan bomba batek eztanda egin zuen *El Correo Español*en Bilboko egoitza nagusian. Egunkariak jakitera eman zuenez, «kalte pertsonalei dagokienez, Lantegien Arloko langile bete-ranoek jasandako zauri arinak baino ez ditu eragin eztandak (Jainkoari esker), kalte larriagoak eragin zitzakeen arren, tartean zorioneko zenbait inguruabar gertatu izan ez balira». Hurrengo egunean, egunka-riak onartu zuen Manuel Domínguez Lorenzo, konposizio eta kutxa-tilako langilea, zauritua gertatu zela (jasan zituen lesioak garrantzi-zkoak ez izan arren). Buegoseko prozesuko sententziak ere egiaztatzen du. Apirilaren 14an, gauerdian, Sondikako (Bizkaia) Benemeritaren kuartelean dinamita zama batek eztanda egin zuen, eta epaiaren bera-ren arabera, «han bizi ziren Guardia Zibilen seme-alabei lesioak eragin zizkieten, baita kalte larriak ere eraikuntzari, hain garrantzitsuak eta larriak, ezen berehala eman baitzuten hura husteko agindua; ondorioz, etxe-kuartela erabilezinezko eta biziezinezko geratu da». Hilabete horretan bertan. ETako komando batek bomba bat jarri zuen *El Correo Español*ek Eibarren zuen ordezkarietan. Mario Onaindiak kontatzen duenez, kalera atera zirenean, aktibistak «izututa ohartu ziren bule-goan argi bat ikusten zela, garbiketako emakumea egongo zen eta. Korrika igo, eta lehergailua desaktibatzen saiatu ziren, hain zorte txar-rarekin, eskuetan lehertu zitzaizela». Etakideetako bat larri zaurituta

geratu zen. Zapuztutako atentatuak beste ondorio bat izan zuen: atxilotutako kideek salatuko zuten beldurrez, Iñaki Sarasketa Ibáñez, zelularen arduraduna eta lehegailua eman ziena, klandestinitatera pasa zen⁴⁰.

Era horretan, ETAko liberatuetako bat bihurtu zen, eta liberatuak arma soinean joaten hasi ziren. Chéjoven armaren printzipio dramatikoa martxan jarri zen: agertokian kargatutako errifle bat agertzen bada, azkenean tiro egingo duen seinale. Juan José Etxabek kontatu zuenez, etakide talde bati pistolak banatu aurretik, oharpen bat egin zien: «nahi ez duenak ez dezala har, baina hartzen duenak, erabiltzeko har dezala». Arma bat hartzea erabaki zutenen artean *Txabi* Echebarrieta zegoen, «kontsekuentea» izan zena, Etxaberen ustez. Ez zen bakarra izan. Egoera horri gehitu zitzaizkion *Kemen* buletinean salatzen ziren barne diziplinaren etengabeko arduragabekeriak eta transgresioak: «Neurri batean, herriaren aurreko martiri mentalitate hori badago, eta horrek segurtasun arauak ahaztera eta gu mirestea nahi dugun pertsona horien artean ezagunak izaten saiatzera eramaten gaitu, baita kartzelara joateari esker ere». Konbinazio arriskutsu horrek mugako egoerak ekarri zituen. 1967ko apirilean etakide batzuek eta polizia topo egin zuten, eta ukabilka amaitu zen kontua oraindik, baina hurrengo urtean antzeko gertaera baten aurrean, tiroka amaitu zuten OPIekin, Sabin Arana Bilbaoren atxilotetan edo Escubiren ihesaldietan gertatu bezala. Baina, Gipuzkoako Komandantziaren teniente koronelaren txosten batek jasotzen zuen bezala, «norbanako horiek ez dituzte armak soilik ordena publikoaren indarren aurka erabiltzen, azken hauek inguratuta dauzkatenean, baizik eta, lehen aldiz (...) ez zuten zalantzarik egin erabat armagabetuta zihoazen bi herrikideren aurka tiro egiteko, eta hori gertaera kezka-garria da»: Aretxabaletako banketxeko lapurrek, atzetik kobratzailea eta bizilagun bat zituztela egiaztatzean, tiro egin zuten haiek uxatzeko. «Bistakoa denez, ekintza horiek zenbat eta maizago egin, orduan eta aukera gehiago giza galerak izateko», azpimarratu du John Sullivanek. Puntu horrekin bat dator José María Garmendia; harentzat, «gero eta ohartuagoak zeuden heriotza biolento bat gerta zitekeela enfrontamendu armatu batean, hori zen ETAk abian jarritako jardueraren begi bistako ondorioa orduan indarrean zegoen halako erregimen batean». Neurri batean, denbora kontua zen. 1968ko apirilean Aberri Eguna ospatu zen Donostian, eta Gurutz Jáuregiaren ustez, «ordu arte ospatutako konmemorazio gogorrena izan zen. Militarren helikopteroak patruilan zebiltzan hiriko teilatuen gainetik; manifestari komandoak autoak iraultzen ari ziren Alde Zaharreko sarbide estuetan, eta Kale Nagusian enfrontamendu oso bortitzak gertatu ziren». Aberri Egunaren karietara ETAk argitara eman zuen manifestuak, *Txabi* Echeba-

rrietak idatzitakoak, oharpen bat egiten zuen: «inorentzat ez da sekretu bat nekez aterako garela 1968tik hildakorik gabe». Taldeak berak bete zuen iragarpen bat izan zen⁴¹.

Giro horretan kokatu behar da ETAREN Biltzar Ttipiaren —alderdi komunisten batzorde zentralaren antzeko funtzioa duen organo nagusia— bilkura erabakigarria, 1968ko ekainaren 2an Ondarroan ospatu zena. Bilera, zenbait egunetan luzatzekoa zena, lehen egunean eten behar izan zuten, aktibista batek, bere kasa eta bere arriskupean, Eibarreko enpresa bati erasotzea erabaki zuelako. Baina hori baino lehen, beste zenbait gauzaren artean, taldeko buruzagiek denbora izan zuten José María Junquera eta Melitón Manzanás, Bilboko eta Donostiako Ikerketa Brigada Sozialaren (herritarren artean Brigada Politiko-Soziala bezala ezaguna) buruak hurrenez hurren, hiltzeko erabakia hartzeko. Azken operazio hori, *Sagarra* izendatua, planifikatzeko eta zuzentzeko arduraduna *Txabi* Echebarrieta izan zen, ETAKO buruzagi gazte eta karismatiko bat, armekin liluratua, jantzia eta literaturarekiko nolabaiteko gaitasunarekin (ikus VI. atala). Hirurogeiko urteen hasieran bi poesia idatzi zituen gudariaren irudiari eskainiak. Horietako bigarrena, Gerra Zibilean hildako gudari baten ikuspuntua hartzen duena, honela amaitzen zen: «Soilik jaio gabeko soroetan. /Bada zer-bait/...espero dudana»⁴².

IV. HILKETA BATEN ANATOMIA. ADUNA, 1968KO EKAINAREN 7A

Gidatze praktikak egin ostean, eta ETAKO beste buruzagi batekin Donostian bilera bat egin eta gero, *Txabi* Echebarrieta eta Iñaki Sarasketa Madril-Irun errepidetik joan ziren lapurtutako auto batean: Seat 850 bat, kupea, zuri kolorekoa eta Zaragozako matrikula zuena. Biak armatuta zihoazen. Lehenak Astra markako pistola bat zerman, 600-43 modelo, 9 milimetroko parabellum kalibreduna, Astra, Unceta y Cia-n (Gernika) egina, 58.669 serie-zenbakiarekin. Bigarrenak, 7,65 milimetroko Astra Falcón bat, serie-zenbakia lima bidez ezabatua. Hitzordu bat zuten Beasainen Jokin Gorostidirekin, lehergai zama eman behar ziena⁴³. Nacional Ieko zubiko lanak zirela eta, etakideek saihebidetako bat hartu behar izan zuten Adunako herri-errepidetik. Han, 15:00etatik aurrera, trafikoa arautzen ari ziren José Antonio Pardines Arcay eta Félix de Diego Martínez guardia zibilak. Bata bestearengandik tarte batera zeuden, eta, hortaz, ez zuten beti elkar ikusten. 17:30ak aldera Echebarrieta eta Sarasketaren autoa Pardinesen aurretik igaro zen. Azken honek bere motorrean jarraitu zituen, eta keinu egin zien geratzeko. Ez dakigu zergatik egin zuen

hori, baina Beneméritaren txosten baten espekulazioen arabera, agian agenteak gogoratu zuen «Z-73... zenbakiaren hasten zen matrikuladun auto bat konfiskatuta zegoela»⁴⁴. Nolanahi ere den, Echebarrieta eta Sarasketaren Seat 850a 446,5 kilometroaren parean geratu zen, Izaguirre igeltsutegiaren ondoan (ikus eranskinak). Pardinesek zirkulazio-baimena eskatu zien. Hura eskuin eskuan zuela, datuak bastidorearen zenbakiarekin bat ez zetozela egiaztatu ahal izan zuen. Bere harridura erakutsi zuen ozenki. Eta horiek izan ziren bere azken hitzak eraila izan aurretik. Bost tiro jaso zituen. Fermín Garcés kamioi-gidari nafarra, gertaeren zati baten lekuko izan zena, etakideetako bat atxikitzen saiatu zen, baina besteak pistola batekin mehatxu egin zion. Sarasketak eta Echebarrietak beren autoan ihes egin zuten, gerora utziko zutena. Babesa bilatu zuten gertu zegoen Tolosako herrian, erakundearen kolaboratzaile baten etxean, E. O.-rean. Ordu pare baten ondotik, etakideek eskatu zioten bere autoan handik eramateko. N-1-ak Tolosa-Azpeitia eskualde-errepidearekin duen bidegurutzean, orduan Venta Aundi bezala (gaur egun, Benta Haundi, ikus eranskinak) ezaguna den lekuan, Guardia Zibilaren bikote batek gerarazi zituen, ordurako jada alerta egoeran baitzeuden. Kontrolean tiroketa bat izan zen, eta haren ondorioz *Txabi* Echebarrieta hil zen. Iñaki Sarasketak eta bere konplizeak ihes egitea lortu zuten. Bata, korrika; bestea, berriz, bere autoan. Hurrengo egunean, goizeko 5:30ak eta 6:00ak artean, Sarasketa Errezilgo (Gipuzkoa) elizan atxilotu zuten. Ekainaren 14an E.O.ri zori bera egokitu zitzaion, eta emaztearekin batera epaitu zuten 1970eko urtarrilean: emaztea kargu guztietatik aske utzi zuten, bera sei urteko kartzelaldira zigortu zuten, «indar armatuen aginduak betetzeko erresistentzia delitu burutu bategatik»⁴⁵. Lehenago, 1968ko ekainean, Sarasketari gerra kontseilu sumarisimoa ezarri zioten, eta kontseiluak Pardinesen hilketaren errudun jo zuen, bai eta kartzela zigor luzea ezarri ere: 58 urte. Hala ere, epaiketa errepikatu behar izan zuten forma akats bategatik (Albaitaritzako kapitain batek kontseiluaren kide bezala jardun zuen, eta hori gudarostearen araudiaren aurkakoa zen). Behin betiko sententziak herio-zigorra ezarri zion etakideari, baina, azkenean, diktadoreak zigorra ordetsi eta 30 urteko espetxealdi handiko zigorra ezarri zion⁴⁶. 1977ko ekainaren hasieran, lehen hauteskunde demokratikoen aurretik, Adolfo Suárezen gobernuak Sarasketa kartzelatik atera zuen, eta, ETako beste preso batzuekin bezala, atzerrira kanporatu zuen, Norvegiara hain zuzen ere. Banda utzita, LKI troskistaren (Liga Komunista Iraultzailea) kide izan zen, eta Auzolan koalizioaren hautagai izan zen 1984ko euskal erkidegoko hauteskundeetan. Sarasketa 2017ko abuztuan hil zen, Pardinesen hilketaren 50. urteurrena baino urtebete lehenago⁴⁷.

Honaino 1968ko ekainaren 7an eta ondorengo egunetan gertatutakoaren laburpen motza. Dena den, gertaeraren xehetasunei dagokienez, badira elkarrengandik urruntzen diren bertsioak. Fermín Garcésen adierazpenetan oinarrituta, ekainak 8ko prentsa ia guztiak zorroztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin kontatu zuen hilketa. Kasuren batean, batere zorroztasunik gabe. Adibidez, *La Voz de Galicia* egunkariaren arabera, «autoan zihoazenek, abiada geratu ordez, azeleragailua sakatu zuten tiro egitearekin batera, eta guardia zibil batek bi tiro jaso eta hilik gertatu zen; beste kidea, berriz, onik atera zen». Nolanahi ere, beste egunkarietan hutsune eta inkongruentzia nabariak hauteman zitezkeen: esaten zutenez, lehen tiroa bizkarretik egin zen, eta biktimaren buruan jo zuen; ondo-ondotik egindako deskargak deskribatzen ziren, eta abar. Ez zen garbi geratzen ere bi etakideek ala bakar batek tiro egin ote zuen. Pardinesen gorpuak jaso zuen bala zauri kopuruari buruz ere desadostasunak zeuden. Ekainaren 19ra arte itxaron behar izan zen erreportaje osatu eta ongi dokumentatu bat irakurri ahal izateko, *Por Qué* astekariarena hain zuzen ere. Aipatu erreportajea hilotzaren, hilketan nahastuta zeuden etakideen, konplizearen, pistolen, bala-zorroen eta balen argazkiak zeuden (ikus eranskinak). Nolanahi ere, *Por qué*ren bertsioan hari solteak zeuden, baita akats nabarmenak ere, hala nola Pardinesen amak ospitalera egindako bisitaren deskribapen hunkigarria. Kontua da amak urteak zeramatzala hilik⁴⁸.

Gertatutakori buruzko informaziorik ez bazuen ere, ETAk luze gabe atera zituen argitalpenak eta paskinak, zeinetan Echebarrietari gertatutakoaren ardura Pardinesi egozten zion (eta hedaduraz Guardia Zibilari). Hala, agentea benetako erasotzaile gisa aurkeztua izan zen, berak eragin omen baitzuen etakideekin enfrontamendua bere arauzko pistolari heldu zionean. *Txabi* Echebarrietak bere buruaren defentsan jokatu zuenez, Pardinesen hiltzaile gisa aurkeztu ordez, heroi gisa aurkeztu zuten, eta hura Venta Aundin hil eta gero, «Iraultzaren Lehen Martiri» mailara igo zuten. «Xabi Euskal Herria osoaren alde hil zen, herriaren benetako askapenaren alde». Propaganda hutsa zen (ikus IV. eta VI. atalak). «Gizakia hertsatzen duten lekuan, hizkuntza ere hertsatzen dutelako oharpena begi bistakoa da», idatzi zuen Primo Levik⁴⁹.

Gertaerak argitzeko oinarritzkoa da haiek bizi izan zituztenen oroitzen zutenaren jotzea. 1968ko ekainaren 7an bost pertsona baino ez zeuden krimenaren agertokian: biktima, honen kidea, bi etakideak eta Fermín Garcés. Bost horietatik hiru baino ez ziren bizirik atera egun hartatik. Hala ere, guardia zibilaren lekukotzaren ekarpena txikia da, eta Sarasketa eta Garcésenek fidagarritasun zalantzak pizten dituzte. Lehenik eta behin, instruktoreak ziurtatu zuen bezala, zeinarekin 19:00tan hitz egin zuen, Félix de Diego agentea ez zen gertatutakoaz

ohartu «Donostiako norabidean zihoan auto pribatu bateko gidariak bere kideak istripu bat izan zuela esan zion arte». Onartu zuen bezala, «tarteka begien bistatik galtzen zuen bere kidea, eta ezin izan zituen tiroak entzun».

Kausa Judizialak Fermín Garcések 19:30tan egin zituen adierazpenak jasotzen ditu ere, gertaera jazo eta bi ordu geroago egindakoak alegia. Agentea bi etakideen ondoan ikusi zuenean, «lasai ari ziren hizketan, ekintza zakarrrik gabe inoren aldetik».

[Kamioi-gidariak] bi zarata entzun zituen, eta gidatzen ari zen kamioiaren gurgil bat lehertu zela uste izan zuen hasieran, baina, ondoren, horrela ez zela ikusita, eta ibilgailutik jaitsi gabe, Guardia Zibila buruz gora nola erortzen zen ikusi zuen, eta segidan harekin zegoen gizonetako batek beste bi tiro jo zizkion. Orduan atera zen deklaratazaila kamioitik, bi gizabanako horien atzetik, baina berehala igo ziren inguruan zuten auto batera. Ihesari ematen ari zitzaizkiola ikusita, deklaratazailak gidariari heldu zion sorbaldatik, mugimendu oro eragotziz, eta, orduan, beste eserlekuan zihoan beste gizabanakoak, gidariaren eskuin aldean eserita zegoenak, pistola batekin destatu zion, eta, tiro egingo zioten beldurrez, deklaratazaila korrika urrunduz zen sigi-sagaka, kamioiaren atzean gordetzeko. Jarraian, ihesari eman zitzaizkion bi gizabanakoak bere autoan. Hori dela eta, kontatazailak oihu egin zien bere atzean zeuden autoetako gidariei. Iheslarien atzetik abiatu ziren auto batean, baina igarotako denbora zela eta, pertsekuzioa alferrikakoa izango zela ohartuta, gertaera jaso zen lekutik bostehun metro ingurura dagoen Oriá papertegian geratzea erabaki zuten, Andoingo Guardia Zibilaren Kuartelera telefonoz hots egin eta gertatutakoaren berri emateko⁵⁰.

Kontakizun honek atentatuaren berehalakotasunaren abantaila badu ere, benetako dilemak planteatzen dizkigu. Garcések baieztatu zuen etakide bat ikusi zuela azken bi tiroak egiten. Lehen hiru tiroak, ordea, Garcésentzat bi zirenak, entzun baino ez zituen egin. Ondorioz, ez zekien nork bota zituen. Hutsune erabakigarri horrez gain, gerora egindako zenbait elkarrizketatan, Garcések adierazi zuen bi etakideek tiro egin zutela Pardinesen aurka. Kontraesan hori dela eta, haren oroitzapenak beharrezko ardurarekin hartzea komeni da⁵¹.

Hirugarren lekukotza, Iñaki Sarasketarena, zenbait elkarrizketatan agertu da. Lehenean, 1978an *Egini* emandakoan, honela gogoratzen zuen:

Zerbait arraroa ikusiko ziguten, zeren eta haietako bat (Pardines) motorrean atzetik etorri, eta geratzeko keinuak egin zizkigun. Billabonatik gertu zen. Agiriak eskatu zizkigun, eta motorraren zenbakiarekin egiaztatzen saiatu zen. Makurtuta zegoen, paperak esku batean eta egiaztatzen. «Hau ez dator bat» esan zuen. Guk bagenekien ez zela bat etorriko, eta, orduan, [Echebarrietak] Algerian gerra egindako bedera-

tziko luzeko Astra bat atera eta tiro bat bota zion omoplatoetan eta beste lau gehiago bularrean (...)

Martxan jartzera gindoazenean, kamioi-gidari batek Txabiri heldu zion irekia zegoen leihatilatik. Neure arma atera, eta urrun zedin eskatu behar izan nion⁵².

1998an xehetasun gehiago eman zituen *El Mundoko La Revistan*:

Nire ustez (...) matrikula faltsua zela ohartu zen [Pardines]. Susmoak hartu zituen bederen. Agiriak eskatu, eta buelta bat eman zuen autoaren inguruan, motorraren zenbakiekin bat ote zetorren egiaztatzeko. Txabik esan zidan: «Jakiten badu, hil egingo dut». «Ez da beharrezkoa», erantzun nion nik, «hura armagabetu eta bagoaz». «Ez, jakiten badu, hil egingo dut». Autotik irten ginen. Guardia zibilak bizkarra ematen zigun, kokoriko zegoen atzeko aldean, motorrari begira. Jiratu gabe, hizketan hasi zen. «Hau ez dator bat...». Txabik pistola atera, eta une hartan tiro egin zion. Buruz gora erori zen. Txabik hiru edo lau tiro gehiago bota zizkion bularrean. Zentraminak [anfetaminak] hartu zituen, eta agian horrek izan zuen eragina. Edozein kasutan, zoritxarreko eguna izan zen, akats bat. Beste asko bezala 20 urte hauetan (sic). Guardia zibil anonimo bat zen, mutiko gaixo bat. Ez zegoen hura hiltzeko inolako beharrik⁵³.

Pardinesen hilketatik hiru hamarkada igaro badira ere, eta hilketan nahastutako pertsona baten lekukotza zuzena bada ere, historialariek eta beste ikertzaile batzuek iturri baliodontzat hartu izan dute azken elkarrizketa hori, iturri bakartzat ez esatearren. Hala, 1998tik aurrera elkarrizketa horren edukia errepikatu dugu zenbait lanetan. Dena den, Sarasketaren lekukotza ez dator bat judizioko dokumentazioarekin. Izan ere, 16/68 kausako sententziak honela laburbiltzen ditu gerra kontseiluak frogatuzat jo zituen egintzak:

[Echebarrieta eta Sarasketa] Adunako saihebidera heldu ziren, RN-1 Madril-Irun errepedean, eta zubi bat igaro eta gero, non Trafikoko Guardia Zibilaren bikote bat lanean ari zen, aipatu zubitik berrehun metroa geratu behar izan zuten, Guardia zibilaren bikotekide batek, José Pardines Arcay jaunak, haien atzetik abiatu, eta geratzeko eskatu zielako; Indarraren beste bikotekidea bere postuan geratu zen, tartean kamioi bat eta ibilgailu batzuk zeudela.

Francisco Echebarrieta autotik jaitsi zen, baita prozesatua ere [Sarasketa], horretarako beharrik gabe, eta Guardiako autoaren agirietan eta, agian, motorraren zenbakiaren erkaketan arreta jarrita zuenean, arriskuan zegoela ohartu gabe, bi herritarrek tiro egion zioten beren pistolekin. Hiru bala zauri eragin zizkieten une horretan, eta, biktima lurrera erori zenean, Echebarrietak akabera eman zion beste bi tiroekin.

Bestela esanda, judizioaren egiaren arabera, Echebarrietak eta Sarasketak hil zuten Pardines. Orain arte, kontu hori ez da aintzakotzat

hartu. Jakina, pisuzko arrazoi bat zegoen horretarako: ebazpen judizialaren legitimotasuna zalantzagarrria baino gehiago da. Gerra kontseilu batek eman zuen, eta uneoro bere burua errugabetzat jo zuen akusatuak ez zuen behar beste berme izan. Begi bistakoa da Sarasketak ez zuela bidezko epaiketa bat izan. Baldintza haietan ezinezkoa zen hori. Azken batean, prozesua alderdi bakarreko diktadura antidemokratiko eta ez-zilegi baten pean gertatu zen, Giza Eskubideak errespetatzen ez zituena.

Dokumentu hori bakarrik bagenu, sententziak islatzen duen istorioaren bertsioarekiko mesfidati izatera behartuko gintuzkete eragozpen horiek. Hala ere, autoetan aurkeztu ziren froga materialen aipamen zehatzak ere baditugu, eta horien frogak geratzen dira bai diligenzietan bai *Por qué* aldizkarian agertutako argazkietan: Pardinesen hilketan erabilitako pistolak eta munizioa (ikus eranskinak). Biktimatik «metro bateko erradioa baino txikiagoa den biribil batean», irakur daiteke begiz egindako azterketaren txostenean, bost bala-zorro aurkitu ziren, «berriki» su egindakoak. «Bost zorro horiek ezaugarri ezberdinak dauzkate, horietako hiruk bederatzi milimetro luzeko edo bederatzi milimetro bereziko kalibrea dute, eta beste biak, berriz, kalibre txikiago batekoak dira, zazpi hirurogeita bost milimetrokoa izan daitekeena, bederatzi milimetroko motza baino txikiagoak baitira». Gorpuaren azpian lau jaurtigai zeuden: bi 9 milimetro luze edo berezikoak, eta beste bi 7,65ekoak. Lehen kalibrea Echevarrietaren Astra, 600-43 ereduarekin bat dator. Bigarrena, Sarasketaren Astra Falcónarekin⁵⁴.

Bestalde, ekainaren 8an bi mediku militarrek egindako txosten forentseak honako hau egiaztatzen du:

Gorpuak suzko arma baten bidez egindako sarrerako bost zulo dauzka, tatuajearekin eta honako erregio hauetan: eskuineko klabikula azpiko erregioan, bi zulo bihotz aurreko erregioan eta bi ezkerreko hipokondrioan. Atzeko planoan hilotz-hipostasia du, batez ere eskapula azpiko erregioan eta erregio lunbarrean kokatua; suzko arma bidez egindako irteerako lau zulo ikus daitezke, bizkarraldearen erdian kokatuak, seigarren, zazpigarren, bederatzigarren eta hamargarren bizkar-ornoaren mailan⁵⁵.

Bosgarren bala, tiro egin zioten lehenengoa, Pardinesen gorputzaren barruan geratu zen. Eskuineko klabikula azpiko erregioan (eta ez bizkarrean) zauria eragin ziona zen. Biktimaren gorputz-enborra zeharkatu zuten lau jaurtigai (kalibre bakoitzeko bi) baina bost bala-zorro zeudela kontuan hartuta, bosgarren balak bederatzi milimetro luzekoa izan behar zuen; hau da, *Txabi* Echevarrietaren pistolarena. Txosten forentseak baieztatzen du tiro horrek lehen saihets hezurra

hautsi ziola. Gero, lurrean buruz gora zegoenean, Pardinesek beste lau inpaktuak jaso zituen. Frogen arabera, inpaktu horietako bi Sarasketaren armatik zetozen, eta beste biak Echebarrietarenetik. Tiro pare batek bihotza estaltzen duen mintza eta bihotzaren eskuineko bentrikulua urratu zion. Beste pareak ezkerreko birikaren oinarria eta diafragma zeharkatu zion, baita gibela zauritu ere. Zauriek «berehalako heriotza eragin zioten» (ikus eranskinak).

Epaiketan zehar, Sarasketaren abokatu defendatzaileak absoluzioa eskatu zuen harentzat, hiru argudio baliatuta. Bata, balen sarrera zuloak gorputzaren aurreko aldean zeudela eta ez bizkarrean, nahiz eta fiskalak esan lehen tiroak atzetik egin zituztela. Bigarrena, «guardia zibilak jasan zituen bost zauriak berdinak zirela, eta tatuaje bera utzi zutela; horrek frogatzen du arma bakarra erabili zela». Eta, hirugarrena, bala-zorroen egoerak adieraziko luke «erabilitako arma gizon berarena zela, eta posizio berean tiro egin zuela». Sarasketari dagokionez, adierazi zuen ez zuela «inolako indarkeria ekintzatan parte hartu, bere printzipioak horrelakoen aurkakoak zirelako. Arma batekin sekula tiro egin ez duela dio, eta Errezilen atxilotu zutenean ez zuela aurka egin. Era berean, 7,65eko pistolaren kartutxoan bala-zorroen froga faltsua dela adierazten du». Azken batean, «berak ez zuen Guardia Zibilaren aurka tiro egin». 1977an kartzelatik atera zenean, errugabea zela errepikatu zuen. «Esan behar dut nire bizitza osoan ez dudala inoiz inor hil, are gutxiago guardia zibil hura. Bi gerra kontseilu haietan aurkeztu ziren frogak faltsuak ziren, eta nire defentsarako aukeratu behar izan nuen ofiziozko abokatu militarrek ez zuen zego-kion bezala jokatu, eta froga horiei sinesgarritasuna eta baliozkotasuna ematen saiatu zen, niretzat herio-zigorra lortzeko». Bere oroitzapenetan, Juan Mari Bandrések, Sarasketaren abokatu militarren nolabaiteko aholkulari zibil gisa jardun zuenak —Sarasketak haren lana goratu zuen—, Sarasketaren errugabetasuna babestu, eta epaiketa-prozesuan ustez izan ziren erregulartasunak salatu zituen⁵⁶.

Sarasketak zioen bezala, frogak manipulatu al ziren? Pardinesen hilketa 1968ko ekainaren 7ko 17:30tan burutu zen, instruktoreak eta idazkariak honako diligentzia hauek idatzi (eta sinatu) zituzten: bost bala-zorroak eta lau jaurtigiak deskribatzen dituen begiz egindako azterketa 18:30tan, Félix de Diegori egindako galdeketa 19:00tan eta Garcésí egindakoa 19:30tan. Ordu bete geroago, Txabi Echebarrieta hil zutela jakin eta gero, Tolosara abiatu ziren. Han aitortpena hartu zieten bi guardia zibilei (22:45tan eta 23:15etan hurrenez hurren). 00:10etan etakideek erabilitako lehen ibilgailua konfiskatzea agintzen zuen proidentzia bat sinatu zuten. Ordu batzuk lehenago, 21:05etan, irratitelegrama bidez, Guardia Zibilaren 551. Komandantziako buruak krimenaren berri eman zion Guardia zibilaren zuzendari nagusiari.

21:55etan Tolosatik igorritako beste irratitelegrama batek Echebarrietaren heriotzaren berri eman zuen, nahiz eta oraindik ez zekiten haren benetako izena, ezta etakidea zenik ere. Hurrengo eguneko, ekainak 8ko, 6:00tan instruktoreak eta idazkariak Venta Aundin begiz egindako azterketaren txostena egin zuten, non neurri ezberdineko munizioa eta Echebarrietaren arma —9 milimetro luzeko kalibredun Astra 600a— topatu zirela agertzen zen. Ia-ia ordu berean, 5:30ak eta 6:00ak bitartean, Iñaki Sarasketa atxilotu zuten Errezilen. Sententziaren arabera, 7,65 milimetroko bere Astra Falcón pistola «jada muniziorik gabe» abandonatu zuen. Etakideak berak non ezkutatu zuen esan arte ez zuten topatu. 9:45etan 551. Komandantziako buruzagiak Guardia Zibilaren zuzendari nagusiari jakinarazi zion susmagarria atxilotu zutela —dagoeneko bazekiten nor zen—, «ETAko kide aktibista» bat zela eta arma konfiskatu zutela. Frogak manipulatu izan balira, ordutik aurrera egin behar izan zuten. Instruktoreak eta idazkariak diligentzia guztiak berriro sinatu zituztela esan nahiko luke horrek, Sarasketaren armarekin tiro egin zutela kargagailua husteraino, eta pistolaren bala-zorroak eta balak eraman zituztela bai Pardines hil zuten lekura (9 milimetro luzeko bala-zorroak eta jaurtigaiak lapurtu behar izan zituzten handik) bai Venta Aundira, Echebarrieta hil zuten lekura. Hori guztia Sarasketaren bila mobilizatu ziren 417 guardia zibilen kopuru zehaztugabe baten isiltasun konplizearekin (Gipuzkoara igorria zegoen multzoaren heren bat baino gehiago), batez ere gertakarien lekutik igaro zirenen isiltasunarekin, adibidez Félix de Diego edo Echebarrietari aurre egin zioten agenteen isiltasunarekin, instruktorea baino lehenago bai Aduñan bai Venta Aundi egon zirenak⁵⁷. Ez da ezinezkoa, baina ez dirudi oso sinesgarria. Gainera, honako hau galdeenezake: frankismo betean maila horretako operazio bat martxan jarri behar ote zen lekuko zuzen bakarrak ezagutu zuen susmagarri bati krimena egozteko? Are gehiago susmagarriak erakunde klandestino batekoa zela aitortu bazuen, baimenik gabeko arma bat bazuen eta aurreko egunean Venta Aundin Guardia Zibilaren patruila bati aurre egin bazion?

Azalpen horiek eman arren, azpimarratu behar da ez dugula Iñaki Sarasketak 1968ko ekainaren 7an José Antonio Pardinesi tiro egin zion erabateko ziurtasunik. Historialaria ez da ez polizia, ez fiskala, ez epailea; ez du halakorik izateko grinarik. Gure lana beste bat da, eta hura gidatzen duten arauak ere beste batzuk dira: metodologia zuzenaren eta eskura dauden iturrien azterketa sakon baten bidez, iraganari buruzko kontakizun onargarri, sinesgarri eta zorrotz bat eskaintzea. Zentzu horretan, egiara ahalik eta gehien hurbiltzea da gure nahia. Ez besterik. Azken batean, ikerketa lan baten emaitzak, hau barne, beti dira behin-behinekoak: defendatu genituen tesietako batzuk zehaztera edo birplanteatzera eraman gaitzakete aurrerapen berriek. Ikuspegi

horretatik begiratuta, dokumentazioak Iñaki Sarasketaren kontakizuna larriki zalantzan jartzen duela eutsi dezakegu⁵⁸.

Hamarkadetan zehar ukaezintzat jo dugu modu akritikoan, egiaztatu gabe sikiera, neurri batean iturri fidagarri gutxi zeudelako, baina agian baita kontakizun hori, neurri batean, kontsolagarria eta egokia zelako ere: Pardines hiltzea erabaki zuen etakide gaiztoaren orde, etakide on eta baketsu bat irudikatzen uzten zigun. Hala, Sarasketak ETA *ona* adierazten zuen, Euskal Herriaren historia garaikidearen mito indartsuenetako bat, lehenago edo geroago armak uzten zituzten horiek irudikatzen zituena, eta ez ETA *txarra*, hiltzeari uzteko hurrenez hurrengo aukerak izan arren, hiltzen jarraitzen tematuta zegoena. Nolanahi ere den, Sarasketaren errugabetasunaz konbentzitututa bageunden lehen, orain onartu behar dugu zalantza arrazoizkoak daudela horri dagokionez.

V. TXABI ECHEBARRIETA.

LEHENA ERAILTZEN, LEHENA HILTZEN⁵⁹

Guardia Zibilaren bikote batek gerarazi zuen Venta Aundin E. O.k gidatzen zuen autoa, Txabi Echebarrieta eta Iñaki Sarasketa zihoazena. Topo egitea Txabiren heriotzarekin amaitu zen, baina orain arte ez genekizkien gertaera horren berezitasunak. Agenteek Echebarrieta atxilotu, eskuburdinez lotu, eta epaiz kanpo hil zutela salatu zuen ETAk: «ez zuten epaitu behar. Haren sententzia erabakia zegoen. Horma baten aurka hil zuten Xabi, atxilotu berritan» (ikus VI. atala). Hala ere, beste behin ere, propaganda zen: ez dago ebidentziarik horri dagokionez. Horrela izanda ere, martiri-kontakizun horrek hedapen zabala izan zuen eta du. Aaron T. Becken hitzetan, «egia bezala onartua izateko, nahikoa izan ohi da talde laidoztatu batek egindako izugarrikerien inguruan osatutako historia bateragarria izatea entzuten duten horien sinesmen sistemarekin, ideologiarekin. Makurtzat hartutako gizabanako batzuek burututako zenbait ekintza gorrotagarri buruzko istorio beldurgarri batek (...) irudi penagarri batzuk sortzen ditu, eta itsumustuan sinisten dituzte egiaztat»⁶⁰.

Zer gertatu zen etakideek Aduna utzi zutenetik Echebarrietaren heriotzara arte? Pardinesen hilketan bezala, kontu hau argitzeko beharrezkoa da eskura ditugun iturriak berraztertzea, han zeudenen lekukotzatik hasita. Ez dauzkagu E. O.ren adierazpenak, baina bai haren emaztearenak:

Egun hartan atea ireki eta ezagutu egin zituen [Echebarrieta eta Sarasketa], zeren eta lehenago D. A. izeneko gazte batek, antza denez

Gasteizko bizilaguna zenak, aurkeztu zizkion. Nolanahi ere, bere senarra ikustera zetozela esan zioten; berak esan zien ez zegoela etxean, hemeretzi orduak arte ez zela iritsiko; hortaz, harrera-gelara bidali zituen, eta han egon ziren senarra etorri arte. Lehenago, bi gazte horiek esan zioten Donostiako errepidetik zetozenean, Tolosarako norabidean, haien atzetik zetorren auto batek poliziarekin gorabehera bat izan zuela, eta tiroren bat izan zela. Esandako orduan senarra heltzean, haiekin harremanetan jarri zen, eta, ondoren, bazihoala esan zion⁶¹.

Osagarri gisa, 1970eko urtarrilean E. O. kondenatu eta haren emaztea aske utzi zuen gerra kontseiluko sententzian sartzen dira frogatutako egitatetzat jotzen diren eta bikoteak bakarrik aurkez zitzakeen zenbait datu:

Ekintza kriminal horren ondotik [Pardinesen hilketak], Echevarrieta Ortiz eta Sarasqueta Ibáñez, jakitun haiek harrapatu nahian zebiltzala, prozesatuaren etxean babestu ziren. Lehen ere egonak ziren hartan, prozesatua ezagutzen baitzuten. Emazteak atea ireki eta gero, senarraren zain geratu ziren, ez baitzegoen etxean une hartan, eta arratsaldeko hamarrak eta zortzietan iritsi zen gutxi gorabehera. Indar Publikoarekin izandako topo egitea bestela kontatu eta gero, Tolosako Hiritik ateratzeko eskatu zioten prozesatuari [E. O.ri]. Arropa aldatu eta gero, Echevarrieta eta Sarasqueta Seat 600-B autoan eraman zituen autoaren jabeak [E. O.k] Tolosa kanpoaldera, Madrilerako norabidean. Errezil-Azpeitiara doan bidegurutzera heltzean, Trafikoko Guardia Zibileko bikote batek autoa gerarazi zuen, barruan zihoazenak identifikatzeko asmoz. Prozesatuak autoa geratu zuen, eta Indarrak, barruan bi gazte zihoazela ikusita, haien identifikazioa eskatu, eta autotik jaisteko agindua eman zien. «Aktibistek» armak erabili nahi zituztela ohartuta, borroka bat hasi zuten haiekin. Prozesatuak une hori baliatu zuen autoarekin hanka egiteko, azkar eta ezustean, Guardiiek horretarako baimenik eman gabe, bila zebiltzan gizabanakoak zeramatzala jakiterakoan identifikatu eta atxilotu zezaten saihesteko (...) Prozesatuak ibilgailua ezkutatu eta istripuarekin eragindako kalteak konpondu zituen [E. O. ihesean ari zenean, agentee-tako batek tiro egin zion autoari identifikatu ahal izateko]; hortaz, gezurra esan zuen istripuaren bertsioan⁶².

Bi etakideak Tolosara heldu ziren uneari dagokionez, testu honek aukera ematen digu beste iturriek utzitako hutsuneak betetzeko, baina Venta Aundin izandako gertaerei ekarpen txikia egiten dio. Ziur asko, garrantzi handiagoa du Iñaki Sarasketaren lekukotzak. Sarasketak bitan hitz egin du horretaz. Lehena, *Egin*-i 1978an eskainitako elkarrizketan:

Txabik dokumentazio faltsua atera zuen, hain zuzen ere Mario Onaindiak laneko lagun bati lapurtutakoa, baina nik ez neraman ezer, eta arakatu egin gintuzten. Guardia oso urduri zegoen, eta ez zuen topatu gerrian neraman arma. Txabik kremaile radun jaka bat zerman. Guardiak ireki egin zion, ebakidura bat egiten edo labankada

bat ematen ariko balitz bezala, eta pistola ikusi zuenean, orro moduko bat egin, eta gerritik heldu zion Etxebarrietari. Bera pistola ateratzen saiatzen ari zen, baina guardia askoz ere zangarragoa zen. Nire pistola atera, eta niri tiro egiten hasi zitzaidan beste agenteari destatu nion. Autoaren atzean ezkutatu zen. Korrika hasi aurretik, une labur batez Txabi ikusi nuen lurrian, eta guardia zibila haren gainean⁶³.

Bigarrena 1998an izan zen, eta Sarasketak honako hau azaldu zuen:

Zentraminek euforiko jarri zuten moduan [Echebarrieta], bi ordu geroago izu eraso batean hondorarazi zuten. Etxetik atera, eta guardia zibilaren bikote batek gerarazi gintuen. Biok generaman pistola bana gerrian. Aurrena, ni arakatu ninduten, eta ez zuten nabaritu. Gogoan dut Txabi miatzen ari zen guardia zibilak orro egin zuela. Eta, ondoren, *Western*-etako ohiko eszena bat, aurrena nork tiro egiten duen horietakoa. Guardia zibilak nik baino lehenago tiro egin zuen, eta korrika atera nintzen... Une hartan ez nuen jakin Txabi hilik zegoela. Auto bat gerarazi, gidaria mehatxatu, eta ni Errezil aldera eramatera behartu nuen (Zarauztik gertu)⁶⁴.

Sarasketa ez zen bere kidearen amaieraren lekuko izan, baina topo egitearen lehen zatian parte hartu zuen. Dena den, bere kontakizuna ez dator bat zenbait puntutan guardia zibilek instruktoreari egindako adierazpenekin, ezta gertaeren lekuan topatutako froga materialekin ere⁶⁵. Gera gaitezen agenteen lekukotzan.

Bikotekideak N-Ieko 443,5 kilometroan zihoazen, eta auto batean zihoazen bi pertsonak José Antonio Pardinesen hilketaren berri eman zieten. Berehala joan ziren krimenaren lekura, non Félix de Diegok «herritarrek esandakoa berretsi zuen» eta gorpua «izara batez estalita» zegoela egiaztatu ahal izan zuten. Telefono bidez bere nagusiarekin harremanetan jartzean, «Azpeitiko C-6324 eskualde-errepidearen eta errepide zaharra deritzonaren bidegurutzean» kontrol bat jartzeko agindu zien honek. Ondoren, etakideen ibilgailua Tolosan aurkitu zutenean, Venta Aundira joateko agindua jaso zuten. Hamar minutu igarota, ibilgailu susmagarri bat gerarazi zuten, barruko bi bidaiari jaso zuten etakideen deskribapenarekin bat zetozelako. Bikotearen buruaren arabera,

autotik eskuak goratuta jaisteko esan zien [hiru gizonei], eta hala egin zuten. Autotik kanpo zeudela, agiriak eskatu zizkien. Haietako batek [Echebarrieta] eman zizkion, eta bera agiriak aztertzen saiatzen zen bitartean, besteak ezker eskua gerrira beheratzen zuela ikusi zuen, non mulko bat nabarmentzen zitzaion. Hori dela eta, adierazpen egileak mulko hura zer zen jakin nahi izan zuen, eta pistola bat zela ohartu zen, baina ezin izan zion kendu, norbanakoa jada armari heltzen ari baitzitzaion.

Horren aurrean, adierazpen egileak aipatu subjektuari heldu zion, hura ibilgetzeko, eta, aldi berean, guardia laguntzaileari abisu eman zion

bila zebiltzan norbanakoak zirela. Beste herrikideak pistola bat atera zuen, eta bere aurka tiro egiten saiatu zen, baina ez zuen hala egin, konplizea zaurituko zuen beldurrez. Hala ere, Bigarren Guardiaren aurka tiroka hasi zen, eta honek bere armarekin erantzun zion erasoari, baina ez zuen bestea zauritzea lortu, ihesari eman baitzitziaion berehala Bien bitartean, adierazpen egileak borrokan jarraitzen zuen lehenarekin, eta lurretik biraka joan ziren biak, baina ez zion askatu ezker eskua, harekin eusten baitzuen arma eta harekin tiro egin nahi baitzion une hartan agerian zegoen bere bikotekideari. Borrokan zehar, herrikideak tiro egin zuen zenbaitetan; behin bere bikotekidearen aurka, eta beste bat adierazpen egilearen aurka, eskua harengana jiratuta, baina ez zen biotako inor zauritzera heldu. Jarrera horretan zegoela, bikotekidearen laguntza jaso zuen adierazpen egileak. Buruan kolpe bat jo zion herrikideari, arma utz zezan, baina nahiz eta hori egin eta behin eta berriz errenditzeko eskatu, tiro egin zuen berriro bi Guardiaren aurka. Gauzak horrela, eurek ere armak erabili behar izan zituzten herrikidearen tiroetatik babesteko, eta azken hau lurrera erori zen zaurituta.

Bigarren agenteak honako hau adierazi zuen:

...beste herrikideak [Sarasketak], jertse gris argi bat zeramanak, pistola bat atera eta harekin destatu zion, are tiro egin ere. Hori dela eta, autoaren atzean babestu behar izan zuen bere burua ezker saihetsetik, eta erasoari bere armarekin erantzun zion. Elkarri saihestu ostean, erasotzailea leku hartan zegoen erreten murru baten atzean babestu ahal izan zen. Babes hori baliatuta, ihesari eman zitzaion tiro egiteari utzi gabe, eta bera haren atzetik abiatzera zihoanean, bere Nagusia deika hasi zitzaion, laguntza eske, beste herrikideak pistola eskutan baitzuen une hartan, ez ordea bikotekide Nagusiak. Hari laguntzera zihoanean, aipatu norbanakoak tiro egin zion, eta ezin izan zion erasoari bere armarekin erantzun, beldur baitzen bere bikotekidea zaurituko ote zuen. Hortaz, norbakoaren gainera oldartu, eta armarekin jo zion behin baino gehiagotan gorputzaren zenbait ataletan. Herrikidea lurrera erori zitzaion pistola hartzen saiatu zen, bai eta lortu ere, eta tiroka hasi zen. Ondorioz, hari tiro egiteko beharrean izan ziren, erasoari aurre egiteko, eta erasotzailea lurrean geratu zen konorterik gabe.

Begi-azterketak erakutsi zuen Venta Aundin «bederatzi milimetro motzeko lau bala-zorro aurkitu zituztela, itxuraz indarrek zeramatza ten armekin bat datozenak»; hau da, guardia zibilek, hori baitzen Trafikora esleituak zeudenen arauzko pistolen kalibrea. Gainera, «bederatzi milimetro luzeko kartutxoei zegozkien bost bala-zorro zeuden, itxuraz hildako erasotzaileak (...) zeraman pistolak tiro egindakoak (...). Aipatu arma topatu zutenean, muntatuta zegoen, eta berriki tiro egin zutelako aztarna handiak zeuden kanoian». Era berean, «7,63 milimetroko kalibreko lau bala-zorro zeuden, (...) ihesari eman zitzaion erasotzaileak bototakoak izango direnak». Guardia zibilen lekukotzatik eta aztarnetatik ondoriozta daiteke Venta Aundin

borrokaldi bat izan zela, eta hartan bai agenteek bai etakideek parte hartu zutela. Guztiek tiro egin zuten. Salbuespen bakarra E. O. izan zen, nahasmena baliatu zuena handik alde egiteko. Epaiketan eta gero aitortu zuenaren kontrara, Sarasketak lau aldiz tiro egin zuen gutxie- nez guardia zibiletako baten aurka, bere helburuan jo ez zuen arren (ezta guardia zibilak berari ere)⁶⁶. Sarasketaren kontakizuna ezbaian geratzen da beste behin ere, baldin eta froga horiek manipulatuak izan ez baziren.

Euskal nazionalismo erradikalak mitifikatu egin du Txabi Echebarrietaren heriotza, eta ETAREN lehen martiritzat hartzen du (ikus VI. atala). Haren inguruan kondaira bat eraiki da, baina honek zerikusi gutxi du errealtate historikoarekin. Baita haren heriotzari dagokionean ere. Bere adierazpenean, bigarren guardia zibilak jakitera eman zuen etakidea osasun-etxe batera eramateko ibilgailu bila ari zela bere nagusia, eta zer erakunderentzat lan egiten zuen galdetu ahal izan ziola. Gogoan du Echebarrietak erantzundakoa: «Utzidazue, hiltzen ari naiz, nik ez dut ezer egin, bilatu idazue apaiz bat». «Azken hitz horiek behin baino gehiagotan errepikatu ostean, isilik geratu zen». Agenteek Tolosako San Cosme eta San Damián klinikara eramán zuten zauritua, eta han mediku batek artatu zuen. «Laguntza jaso arren, handik gutxira hil zen». Echebarrietak martxan jarri zuen kiribilak irentsi zuen haren bizitza bera.

VI. EKAITZ INPERFEKTUA. AMESKERIA GERRILLARITIK TERRORISMORA

Txabi bere lider karismatikoaren heriotzak militante etakideak hun- kitu zituen. *Teo* Uriartek gogora ekartzen duenez, «gainerakoak, ohar- tuta eta ikaratuta aldi berean, mendeku gosez geunden, eta, batez ere, ETA amaituta ez zegoela frogatzen zuen nolabaiteko erantzun bat ema- teko beharra sentitzen genuen». Echebarrietak «[Camilo] Alonso Vega- ren Guardia Zibil guztiak baino askoz gehiago, hura barne,» balio zuela nabarmentzen zuen paskin batek. «Haiek lapurtu digute, eta larrutik ordainduko dute». Errepresalia fantasiatsuak otu zitzaizkien, hala nola kuartel bat erasotzea, poliziak hiltzea edo bonba-auto bat jaurtitzea La Salveko (Bilbo) Guardia Zibilaren instalazioen aurka. Zalantzarik gabe, minak, amorruek eta mendeku nahiak oso baldint- zatuta zeuden ETAKo buruzagiak. «Terrorismo ekintza bereziak egi- teko eragingarri gisa mendekuak duen garrantzia gutxietsi ohi da. Baina fenomeno horri buruzko ikerketek», jakinarazten digu Fernando Reinaresen, «agerian jarri dute atentatu jakin batzuen helburua mili- tanteren baten heriotzak —poliziaren eskutan—, atxilotetak edo espe-

txeratzeak eragindako abaildura mendekatzea zela». Hortaz, *Biltzar Ttipiako* kideak berriro elkartu, eta Junquera eta Manzanas hiltzeko egitasmoari —jada ekainaren 2an finkatua— aho batez (antza denez, isilbidezko onespenez) jarraipena ematea onartu zutenean, kontuan hartu behar da kideen aldarlean emozioek izan zuten pisua. Zentzu horretan, Echebarrietaren heriotzak bultzatzaile bezala jokatu zuen. Baina ez arrazoa bezala. Atentatuaren alde mendekatzaileak ez du ezkutatu behar kiribil terroristaren arrazoi nagusia bandako buruzagien borondatea izan zela, une hartako inguruabarrak alde zituztela interpretatu, eta haietaz baliatu nahi izan zuten beren helburu estrategiko propioak lortzeko. *Txabiren* heriotzak ETArekiko herri-begikotasun olatu ezusteko bat piztu zuen: haren oroimenez egindako hiletak —erakundearen ingurune zibilak bultzatu zuen deialdia— masiboak izan ziren, eta OPIen kargekin amaitu ziren. Horrek gogoak sumindu baizik ez zituen egin. Ekainaren 25an Gorteen Babes Nazionalako Batzordeak Gobernuari presaz agindu zion «zernahi beharrezko neurri hartzeko, arruntak edo salbuespenezkoak, muturrekoak izanda ere, terrorismo separatista honen prozesua errotik eta errukigabe mozteko». Zalbidetik gogoratzen duenez, zuhurtziatzko denbora bat pasata, ekintza hura mendeku «pribatu» gisa hautemana izan zedin saihesteko, ETako kupulak «herriaren buruan errepresioa hobekien adierazten zuten horien [horren] aurka «atentatuak egiteko ordua zela oldoztu zuen»: Junquera eta Manzanas alegia. Iritzi publikoaren ikuspegitik, banda «kriminal horren errepresio basatia jasan zuen biktimen masarekin» identifikatu ahalko zen era horretan. Bestela esanda, kalkulu interesatu bat izan zen. Diktaduraren izaera autoritarioak, poliziaren errepresioak, *Txabiren* heriotzak eragindako minak, baita hari egindako gaztegorespenak ere, horien baldintzapean jardun zuten ETako buruzagiek, baina aipatutako ezerk ez du salbuesten haien erantzukizun historikoa: *Biltzar Ttipiako* kideek hiltzen hastea erabaki zutenean, beren aukerarena erabiltzen ari ziren. Beren burua bidezkotu zuten argitalpenen bidez, «Euskal Herria»k ustezko agindu bat eman zielakoan, baina bistakoa da ez zela horrelakorik izan. Hilabete batzuk geroago, *Zutikeko* ale batek onartzen zuenez, «duela 5 edo 10 urte, bidegabeke-riak ez ziren txikiagoak, kontraesanak ez ziren bizitasun gutxiagokoak. Baina Euskadin jarduera politikoa nahiko mugatua zen. Horregatik ezinezkoa zen ekintza orokorretara pasatzea: polizia baten hilketa herri-kontzientziatik bereizita geratuko zen». Etakideek zain egon behar izan zuten. «68ko abuztuan exekuzioa ez zen bakarrik teknikoki posiblea, baita politikoki egokia ere»⁶⁷.

José María Junquera salbatu egin zen, ez baitzegoen Bilbon, baina 1968ko abuztuaren 2an ETako komando batek Melitón Manzanas komisario hil zuen Irungo bere etxean. Hasieran, batez ere PNVren eta

EGIren ingurunean, zalantzan jarri zen atentatuaren egiletza, nahiz eta ETAk komunikatu batean baieztatu: urrian, erakundeak beste komunikatu bat atera behar izan zuen «erbesteko sektore nazionalista immobilista jakin batzuen «gezur, zurrumurru eta albiste anbiguoiei» aurre egiteko. Edozein kasutan, Manzanasen ospe txarra zela eta, polizia honen heriotza ondo hartu zuen oposizio antifrankistak, batez ere erregimenaren erantzun sutua egiaztatu zenean. Espainian Alderdi Komunistak zuen organ ofizialarentzat, *Mundo Obrerorentzat*, «halako neurriak hartzeko jarri duten aitzakia Irunen burututako justiziazko ekintza izan da, zeinean Gipuzkoako brigada politiko sozialaren burua, Melitón Manzanas, komunisten, sozialisten eta beste demokraten torturatzaile ezaguna, hila gertatu baitzen»⁶⁸.

Etakideek espero bezala, ekintza-ondorio kiribila goranzko fasean sartu zen. «Erresistentzia ekintzek Espainiako poliziaren eta guardia zibilaren errepresio kriminala eragin dute», irakur zitekeen taldearen komunikatu batean. Kontua da diktadurak modu orokor, baldar, basati eta eragingabean erabili zituela OPIk, eta horri esker euskal biztanleriaren zati substantzial baten ezinikusia bereganatu zuen. Gobernuak bidelapurreriaren eta terrorismoaren errepresioari buruzko lege-dekretu bat promulgatu, eta salbuespen egoera deklaratu zuen Gipuzkoan; zenbait unibertsitatetan gatazkak hasi eta gero, Espainia osora zabaldu zuen. 1968an Ikerketa Sozialeko Brigadak 312 pertsona atxilotu zituen soilik Bizkaian, eta horietatik 108 kargurik gabe aske geratu ziren. OPIk ez zeuden prestatuta erronka horri aurre egiteko. Hala, José Sainz inspektorea Manzanasen hilketaren ikerketaz arduratu zenean, ondorio batetara heldu zen: «Ez dakigu ezertxo ere ez ETA erakunde klandestinoari buruz; badela, besterik ez». Ez da harritzekoa atxiloteten kopuru urri batek baino ez bukatzea zigor irmoan. Gainera, kartzelan sartu zituztenetako asko ez ziren ETakoak, beste erakunde batzuetakoak baizik, hala nola PCEkoak, PSOEkoak, ETA *berrikoak* edo *Los Cabrasekoak*; azken horiek desegin egin zituzten. Adibidez, jada aipatutako Bizkaiko kasuan, soilik %35a izan zen atxilotua «separatista» izatearen salaketa pean; kategoria horretan sartzen zituzten euskal nazionalista guztiak, ez bakarrik etakideak. Nolanahi ere den, *Teo Uriartek* gogoan du kartzela erradikalizazio eskola bat izan zela preso askorentzat. «Pertsona horiek doktrinatu egiten zituzten, eta sartzekoan baino askoz ere konprometituagoak ateratzen ziren, edozertarako prest». Profesionalki ez oso gaituak, zigorgabetasunera ohituak eta jatorri militarreko agintariekin, OPIek gehiegikeria ugari egin zituzten, tratu txarrak eta torturak barne, eta horri zenbait hiritar errugaberen heriotza gehitu beharko litzaioke. «Gobernadoreak [Gipuzkoako gobernadore zibilak] Sabino Aranak baino nazionalista gehiago sortzen zituela esaten zen orduan», gogora zekarren Xabier Zumaldek.

Antzeko zerbait egiten zuen frankismoaren prentsak, ETAren ahalezko arriskua areagotuz. 1968ko argitalpen batean, José Luis Zalbidek zioen «Estatu espainiarrak» kale egin zuela «Euskal Herriaren jarduera iraultzailea» zapaltzeko orduan, eta, horrekin batera, «bere izaera zapaltzailea» agerian jarri zuela ere. «Espainiar Estatua geratzen zaizkion baliabideak erabiltzen doan neurrian, are azkarrago hurbiltzen da bere amaierara». Hilabete horretan berean argitaratutako *Zutik* batean, Manzanasen aurkako atentatu hilgarriarekin «ekimen politikoa hartu dugu» irakur zitekeen. «*Jada, kontua ez da soilik erantzutea, haiek guri erantzutera behartzea baizik*. Bagenekien haien erantzuna gogorra izango zela, salbuespen egoera espero genuen. Prest geunden». Eta horrez gain, «bagenekien aparatua eutsi egingo zuela. Hala izan da». Oposizio antifrankistaren gainerakoaren babesari esker, OPIen aurkako mobilizazio olatu bat abian jarri zen etakideekin solidaritatean. Erakundeak aldeko egoera hori baliatu zuen bere siglak protestara lotzeko, baita diktaduraren biktima eta, aldi berean, zapal dutako euskal nazioaren gidari justiziazale zorrotz gisa bere buruaren publizitatea egiteko ere⁶⁹.

1969ko otsailaren manifestu batean, ETAk bere burua zoriondu zuen atentatuek «sistema zauritu» eta «EHL [Euskal Herri Langileak] sentsibilizatu zutelako». Ondorioz, «lerro horrekin jarraitzea» erabaki zuen, «ekintza militarretan gure espezializazioa igoz, jakinda ekintza mota horiek, zentzu politikoarekin egin ezker, ekintza-ondorio mekanismoa erradikalizatzeko eta, ondorioz, prozesu iraultzailea bizkortzeko biderik onena direla»⁷⁰. Hala ere, kiribila ez zen espero bezala atera: ETAren egiturak ez ziren osorik atera poliziaren errepresiotik, eta kiribilak ez zuen masen altxamendurik ekarri. Xabier Zumalderen ustez, «herriak, orokorrean, ez zuen matxinadarako asmorik (ezta independentziarako asmorik ere), «hemen nahiko bizimodu ona zegoelako (...) Herriak ez zuen esnatu nahi, ezta asmorik ere, beldurra zuen, baina erosotasunaren gatibu zen aldi berean. Borrokatzeak ez zuela pena merezi uste zuen, eta garai hobeen zain zegoen, diktadorearen erortarekin etorriko zirenak». Ez zen Hirugarren Munduko antzeko «gerra iraultzaile» bat izan. Euskadi ez zen Kuba. Mario Onaindiak bere oroitzapenetan aitortu zuen bezala, «gizarte berri bat argituz, herriaren borroka zuzentzen duten iraultzaileak izateko pausoa emateko porrot bat izan zen (...) maila pertsonalean zein kolektiboan, edo gutxienez belaunaldien artekoan». Zumaldek beste modu batean laburbildu zuen: «Inoiz iritsi ez zen matxinada galdu genuen!». Afrika, Asia edo Latinoamerikako gerrillen mailara iritsi nahi izateko ametsak behin-betiko lurrindu zirenean, ETAk, Antonio Elorzaren hitzetan, «terrorismoaren ordezkagarria aukeratu zuen». Ezagutzen dugu horren emaitza (ikus VII, VIII eta IX atalak)⁷¹.

ONDORIOAK

Hirurogeiko urteetan zehar, ETAko militanteen begietara «borroka armatua» erakargarri egin zuten zenbait faktore daude. Kanpoko eragileei dagokienez, frankismoa aipa daiteke, disidenteak kartzelara edo klandestinitatera behartzen zituena, frankismoaren ultranazionalismo espainiarra eta haren zentralismoa, edo euskararen atzerakadak eta milaka etorkinen etorrerak eragindako agonia-sentimendua. Baita Hirugarren Munduko askapen nazionalako mugimenduak ere, jarraibide eredutzat hartu zirenak. Barne mailan, Sabino Aranaren dotrinaren hitzez hitzeko irakurketatik eratorritako gorrotoa eta haren antispañolismo sutua dugu, haiek/gu banaketa estereotipatu eta manikeoa, etsaitzat hartzen ziren horien gizagabetzea, «euskaldun» eta «espainolen» arteko antzinako «gatazka» bati buruzko kontakizun historiko oso itxuragabetua, 1936ko gudari zaharrak mendekatzeko nahia, belaunaldien arteko talka edo PNV geldoarekiko tartea handitzeko irrika. Dena den, etakideengan eragin handia zuten arren, osagai horiek guztiek ez zuten haien jarduera taxutu. Ez ziren automata gisa erantzuten ari egoera jakin baten aurrean, ez beren zori saihestezina betetzen ari.

Giza borondateak bidegurutze horretan izan zuen pisua egiazta-zeko, nahikoa da ETArekin, *Los Cabrasekoen* eta EGIren ibilbideak alderatzea. Talde horien gazteek diktadura bera nozitzen zuten, eta zenbait gauza partekatzen zituzten: diskurtso ultranazionalista, nazioarteko eredia, indarkeriaren idealizazioa eta beren buruaz zuten «gudari berri» pertzepzioa, beren arbaso garaituen gerra jarraitzera deitutako «gudari berri»ena hain zuten ere. Gainera, bai batzuek bai besteek bazituzten bitarteko materialak «borroka armatu»rako, neurri ezberdinetan bazen ere. Hala ere, ez *Los Cabrasekoek* ez EGIkoek ez zuten biktima mortalik eragin. Benetakako ordua heltzean, katuari ez sakatzea erabaki zuten.

Beste alternatiba batzuk baztertu ondoren, ETAk indarkeriaren aldeko hautua egin zuen, baina hamar urte igaro zituen gerrillen gerrari buruzko saiakera, eztabaida eta teorizazioetan murgilduta. Egia da hamarkada horretan dirua eta armak falta izan zirela, baina, jada aipatutako gertaera batzuek frogatzen duten bezala, ez zegoen ere borondate irmorik, bai egon zena 1968an. Aurrena, *Txabi Echebarrietak* (eta beharbada baita *Sarasketak* ere) José Antonio Pardinesi tiro egitea aukeratu zuenean, hura armagabetu, ihes egin edo bere burua errenditu orde. Gero, ETAko *Biltzar Ttipiako* kideek Bilboko eta Donostiako Ikerketa Sozialeko Brigaden buruen aurka atentatzeko egitasmoak suspertzea erabaki zutenean, ekintza-ondorio kiribila martxan jartzeko, hau da, ustez defendatzen zituzten hiritarren aurka poliziaren errepre-

sio krudela eragiteko. Bai kasu batean bai bestean, etakideek beren aukerarena erabili zuten. Haiena da erantzukizun historikoa (ikus X. atala)⁷².

EPILOGOA

ETAk hildako zortziehundik gora pertsonetatik bostek nolabaiteko harremana izan zuten José Antonio Pardinesekin, haren hilketarekin edo ondorengo prozesu judizialarekin: oso arina lehen hiruen kasuetan, garbiagoa azken bietan.

1975eko maiatzaren 6an Andrés Segovia Peralta agentea zuloz bete zuten atzetik Gernikako Guardia Zibilaren kuartelera trenbidetik oinez zihoala. 20 bala inpaktu baino gehiago jaso zituen. Bizirik aurkitu zuten, baina taxi batek Bilboko ospitalera zeramala hil zen. Biktimak bere zaintza txanda amaitu berria zuen Astra, Unceta y Cía lantegian, Echebarrieta eta Sarasketaren pistolak egin zituen bera. Terroristek enpresa horren jabea, Augusto Unceta Barrenechea, hil zuten ere, garai hartan Bizkaiko Aldundiko presidente ere bazena. ETA militarreko komando batek 1977ko urriaren 8an metrailatu zuen, bere ibilgailua Jai Alai frontoetik gertatu aparkatu zuenean, lagun batzuekin pala partida bat jokatzera zihoala. Etakideek Uncetari eskolta ematen zioten bi guardia zibilak hil zituzten ere: Rivera Navarrón eta Ángel Fernández Hernández-Segura. Krimenaren aurreko egunean, Ministroen Kontseiluak Amnistia Legearen proiektua berretsi zuen, zeinari esker taldeko preso guztiak kartzelatik aterako ziren. Neurriak horrenbeste esperantza eragin zituen oposizioaren artean, ezen «ezker abertzalea»rekiko hurbilekoa zen prentsak gaitzespen sutsu eta ezohiko batekin erantzun baitzuen atentatuaren aurrean. *Egin* egunkariak eta *Punto y Hora de Euskal Herria* astekariak editorial ezin zorrotzagoak eskaini zizkioten ETA militarri, eta «borroka armatuaren erabilerari uko egin ziezaion» eskatzera ere iritsi ziren. Horrelako kritikak ez ziren errepikatu denbora askoan. Amnistia gorabehera, ETAk hiltzen jarraitu zuen⁷³.

1978ko martxoaren 10ean, Adunan hain zuzen ere, etakide batek José Acedo Panizo guardia zibil erretiratua hil zuen. Ordurako, fabrika batean lan egiten zuen, zaintzaile gisa. El País-en informazioaren arabera, «zirkulu jakin batzuetan, kontuan hartzen da José Acedo Panizok ETAREN lehen militante Echebarrietaren heriotzarekin zerikusia izan dezakeelako aukera. Echebarrieta Guardia Zibilaren balek hil zuten 1968an Gipuzkoako Billabona herrian». Gerora zurrumurru hori jaso izan du ezker abertzalearen aldeko prentsak eta propagandista abertzale batek, zeinak, koska bat estutu dion honako hau esateko: «ETAk

José Acedo Panizo guardia zibila hil zuen, Txabi Etxebarrieta hiltzeaz akusatu zuena». Ez da egia: atentatu hilgarria aldarrikatzen zuen komunikatuan, etakideek zioten «Panizo sarjentua exekutatu zutela Espainiar Estatuko sistema errepresibo militarren kide nabarmena zelako Euskadin duela bi hilabetera arte». Ez da Etxebarrieta aipatzen inolako momentutan. Gainera, badakigu José Acedo Panizo ez zela izan Venta Aundin etakideei aurre egin zien bi guardia zibiletako bat. Ezerk ez du erakusten biktima Sarasketa harrapatzeko mobilizatu zuten 417 agentez osaturiko dispositiboaren zati zenik. Hala ere, bai izan zuen harreman halako bat kasuarekin, txikia bada ere, gertaera jazo eta hilabete geroago: 1968ko abuztuaren 5ean E.O.ren eta honen emaztearen etxe-miaketa zuzentzeko arduraduna orduan kaboa zen Acedo Panizo izan zen⁷⁴.

1968ko ekainaren 7an Pardinesen bikotekidea Félix de Diego Martínez agentea zen. Hamarkada bat baino gehiago geroago, 1979ko urtarriaren 31an, ETA militarreko bi pistolarik hil egin zuten Irungo Herrería tabernan, zeinaren jabea hildakoaren emaztearen familia baitzen. 1977an moto istripu bat izan eta gero, erreserban zegoen. Giltzurruneko min-bizi terminala zuen ere, eta ezindua zegoen. Talde terroristak polizia isil-mandataria zela esanez bidezkotu zuen atentatua, baina hori apur bat zentzugabea da, biktima Guardia Zibilaren kide zelako oraindik, nahiz eta lanean egon ez. Etakideek ez zekiten datu hori, eta, ondorioz, ezta Pardinesen bikotekide izan zenik ere. De Diegok alargun bat eta bost seme-alaba utzi zituen. Eta militarreko bi kidek kendu zioten bizitza: Luis María Marcos Olaizolak eta Fernando Arburuak (*Igeldo*). Lehenak behin egin zion tiro Félix de Diegori, baina pistola trabañu zitzaion. Arburuak, krimena burutzeko unean apaiz katoliko gisa jarduten zuenak, akabatu zuen sei tiroekin. Abituak utzi zituen gero, baina nazionalismo erradikalaren militante da oraindik, eta inoiz ez da damutu⁷⁵.

1990eko ekainean beste terrorista batek José Lasanta Martínez hil zuen Donostiako Kontxako pasealekuan, hildakoa bizi zen hirian. 74 urteko agure bat zen, Cienfuegos (Kuba) jaioa, koronel mailarekin erretiroa hartu zuena. 1968ko ekainean, oraindik infanteriako komandantea zela, instrukzio-epaile gisa jardun zuen Iñaki Sarasketaren aurkako prozesu judizialean. Antza denez, terroristek ez zuten xehetasun horren berri⁷⁶.

Panizorekin eta De Diegorekin gertatu bezala, ETAk ez zuen Lasanta aukeratu Pardines kasuarekin zuen loturagatik, baizik eta erretiratu aurretik soinean zeraman uniformeagatik besterik ez, hil zuten Segoviak egunean soinean zeraman uniforme bera. Haiek, uniformedunak, izan dira talde terroristaren jomuga gogokoena. *Historia de un desafion* agertzen den zenbaketaren arabera, etakideek 477 atentatu

egin dituzte Guardia Zibilaren aurka, eta 215 agente hil dituzte: 196 lanean ari ziren, eta beste 19an erreserban edo erretiroa hartuta. Horiei, guardia zibilen 17 senide gehitu behar zaizkie, gehienak adin txikiak. *Foronda Txostenak* Polizia Nazionalaren Kidegoaren edo honen aurrekoaren 151 kide, 87 militar, 25 udaltzain, 14 polizia autonomiko, 6 epaile, espetxeetako 5 funtzionario eta Frantziako polizia bat gehitzen ditu biktima mortalen zerrendara⁷⁷.

Uniformedunak izan dira ETaren indarkeria intentsitate handienarekin nozitu dutenak, baina baita haien porrotera ekarpen handiena egin dutenak ere. Hala, bere tresna legegile, judizial eta polizialei esker, zuzenbidezko Estatua terrorismoa indargabetzeko gai izan da azkenean. Hona adibide bat horren erakusgarri. 1968tik 2016ra Estatuko Segurtasun Indar eta Gorputzek suzko 4.054 arma eta 41 tona lehergai eta 2.000 granada baino gehiago konfiskatu dituzte gutxienez, munizioa eta bestelako osagaiak kontuan hartu gabe. Hori izan da ETaren benetako armagabetzea, eta ondorioz, haren amaiera⁷⁸.

ERANSKINAK

El Correo Español, 1968ko martxoak 14

EL CORREO ESPAÑOL

EL PUEBLO VASCO

EDICIÓN VIZCAYA

BILBAO.—Jueves, 14 de marzo de 1968. Núm. 18.978. 3 pta.

Promovido por el crítico
ALFONSO NAVALON

AYER SE CELEBRO EN BILBAO EL
JUICIO DE FALTAS CONTRA EL
CUAÑO DE «EL CORDOBES»

(Información en la página TRECE)

Nuevos detalles de la detención de los atracadores



Francisco Javier Escalza Omezcabarrenetia, alias «El Córdoba» y José María Escalá Lorea, fotografados ayer en la Comisaría de Policía de Vizcaya, después de haber sido detenidos en Pamplona en el Callejo de las Pedras Jaquias. Al primer de ellos se le ocupó una pistola del mismo corte, con el cargador completo, otro de reserva, cuatro balas en los bolsillos y una en la muñeca. (Vea nuestro artículo informativo en última página y nuestra información gráfica en las páginas anteriores.)

ATENTADO EN NUESTRO PERIÓDICO

El avión secuestrado regresó a Miami

★ (Pág. DIEZ)

Anoche, el filo de las cosas, un potente artefacto (al parecer de resina) hizo explosión en la planta baja de las instalaciones de EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO, en la calle Porfir Lonsa (Bilbao).

El explosivo estalló, a tales horas de la noche, como no, no sólo a la plantilla del periódico de servicio en aquel momento, sino a todo el ya populoso barrio de Balaña, en cuyas edificaciones próximas causó roturas de cristales, asíntesis de la consiguiente alarma en los habitantes de la zona.

Por esta explosión, las instalaciones de nuestro periódico no han sido dañadas fundamentalmente. Hay graves desperfectos en el garaje y un gran agujero en la planta del mismo. La bomba no ha causado (gracias a Dios) los daños personales que las leves heridas sufridas por uno de nuestros más veteranos operarios de la Sección de Talleres, aunque, desde luego, pudo causarlos más graves de no mediar otras circunstancias.

Este colateral atentado no ha interrumpido en absoluto la marcha normal del periódico. No sólo permaneció en sus

puestos todo el personal de Redacción y Talleres, sino que acudieron inmediatamente cuantos miembros de la plantilla de EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO libres de servicio, se anticiparon del suceso. También acudió, naturalmente, la Policía, que realiza las investigaciones pertinentes.

EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO realiza su tarea informativa con todos los medios técnicos y humanos de que dispone y, por supuesto, con la máxima honradez. Hemos aquí dos centenares de personas empleadas cada día y cada una en su lugar, en la tarea de ofrecer a nuestros lectores el pulso de la actualidad en todos sus facetas de opinión y noticia. Trabajamos al servicio de la objetividad, respetuosos a todas horas un poco más en el esfuerzo.

Estamos, en definitiva — hoy como ayer y como siempre — al servicio de Vizcaya y de España. En la tarea implícita un tiempo, lo aceptamos sin alardes de jactancia. Dando gracias a Dios — esta vez con particular fervor — que ha querido librarnos de más graves daños.

DEBIDO A LA FIEBRE DEL ORO

Nuevo récord en la cotización del dólar

★ (Página OCHO)



BUDAPEST: EL GOL DE BEZUEN MANTIENE LAS ESPERANZAS EN ALTO

(Telefonen PEPE SENDEJA)

Partido duro y difícil el de ayer en el Nap Stadion de Budapest. El Ferencváros se adelantó con dos goles en el primer tiempo, y los húngaros tuvieron que hacer un gran esfuerzo en el segundo tiempo. En la foto vemos disputando el balón con máximo poderío, a dos de los jugadores más destacados que más combatieron; el delantero húngaro, ANTON ARISTA, apoyado por BEZUEN, el checo de Lemoska, que consiguió el gol que puede valer por dos. (UPA)

(Fotografías 28 y 30.)

José Antonio Pardines Arcay




ITURRIA: Barne Ministerioaren Agiritegi Nagusia.

Txabi Echebarrieta eta Iñaki Sarasketa zihoazen Seat 850 kupea.



ITURRIA: Guardia Zibila.

Krimenaren lekuaren krokisa



ITURRIA: «16/68 zenbakidun Kausa», Donostia, 1968, TMTG.

Antonio Pardines eraila izan zen lekua



ITURRIA: Guardia Zibila.

Krimenaren gaur egungo egoera




ITURRIA: Google Maps.

Krimenaren agertokia gertakariaren ondotik



ITURRIA: Sánchez Corbí eta Simón (2017).

Krimenaren lekuan aurkitutako jaurtigaiaik eta bala-zorroak




ITURRIA: *Por qué*, 1968-VI-19.

Txabi Echebarrieta eta Iñaki Sarasketaren pistolak


Las armas asesinas: una, marca Astra, calibre nueve milímetros, Parabellum; la otra, de la misma marca pero del calibre siete con sesenta y cinco. Examinando los casquillos deducimos que el disparo fue hecho con el menor calibre y los otros cuatro con la pistola del nueve; pero a estas horas es seguro que la Guardia Civil tendrá una exacta reseña de quien disparó primero y quien a quemarropa, con tal ensañamiento que resulta difícil aceptar tal: bajos instintos en tan escasa edad.

ITURRIA: *Por qué*, 1968-VI-19.

José Antonio Pardinesen zaurien berreraiketa



© Osuna, J./Anaya.




ITURRIA: Txosten forentsetik abiatuta egindako itxuratze propioa.

Venta Aundiko argazkia



ITURRIA: Guardia Zibila.

Txabi Echebarrietak zuen NAN faltua



ITURRIA: *Por qué*, 1968-VI-19.

Iñaki Sarasketa Ibáñez



ITURRIA: Guardia Zibila.

ABC, 1968ko ekainak 8

A B C. SABADO 8 DE JUNIO DE 1968. EDICION DE LA MAÑANA. PAG. 81.

DOS JOVENES AUTOMOVILISTAS ASESINAN A TIROS A UN GUARDIA CIVIL DE TRAFICO EN VILLABONA (GUIPUZCOA)

Huyeron de un camiónero que les había detenido y en cuya presencia remataron al agente de la autoridad

POCO DESPUES, UNO DE LOS ASESINOS MURIO EN TOLOSA, EN LUCHA CON UNA PAREJA DE LA BENEEMERITA QUE LES HABIA LOCALIZADO

San Sebastián 7. Un guardia civil de Tráfico resultó muerto esta tarde, a tiros, en la carretera general de Madrid, término municipal de Villabona de esta provincia, después de haber dado el alto a un automóvil con "dos" ocupado por dos hombres jóvenes que han huido. La víctima es Humberto José Pardinién Arcau.

Según relato de un testigo presencial, hemos sabido que en las proximidades de Villabona, cerca de Adarra, donde se realizan unas reparaciones en la carretera Madrid-Iruñe se efectuaba el desvío de vehículos que se dirigían a la capital de España y en cuyos puntos prestaba servicio la Policía de Tráfico, distanciada por un par de kilómetros.

El coche, matrícula de Zaragoza, iba ocupado por dos jóvenes que no ostentaban las señales del guardia o infringió a éste sospechas. Lo cierto es que el guardia les siguió en su motocicleta, obligándoles a parar en terrenos de una yegaría existente hacia la mitad de la distancia del camino y les hizo bajar. Uno de ellos sacó una pistola y le disparó al guardia que cayó. En ese momento estaba un camión, cuyo conductor, pensando que había pinchado, al oír el disparo, frenó el coche, quedando entonces el suceso. Inmediatamente se encarrionaron por el otro lado, pero fue encarrionado por el otro motorista, que le obligó a detenerse. Este último motorista notó el arma hacia el guardia civil, caído en el suelo, rematándole de tres o cuatro disparos que le alcanzaron en el pecho. Acto seguido montaron en el coche, dándose a la fuga, pasando a gran velocidad ante el otro guardia de servicio, que no había oído los disparos ni se había enterado del suceso, hasta que fue avisado por el camiónero.

Poco después se organizó la persecución de los matadores, que en las proximidades de Tolosa abandonaron el coche—Cifra.

LOCALIZACION Y MUERTE DE UNO DE LOS ASESINOS

San Sebastián 7. (De nuestro correspondiente, por teléfono). Montados los oportunos servicios por fuerzas de la Guardia Civil para la captura de los asesinos del guardia civil de Tráfico en Villabona, y después de encontrar cerca de Tolosa, abandonado, el coche matrícula de Zaragoza 73956 que resultó ser falsa, una pareja de la Beneemrita localizó a los dos aprehensores en las inmediaciones de la misma ciudad y, al tratar de identificarlos, nuevamente hicieron fuego sobre la fuerza. Uno de los guardias se abalanzó sobre ellos y, después de sostener una tenaz lucha cuerpo a cuerpo, los aprehensores se vieron obligados a hacer uso de las armas, consiguiendo herir a uno de ellos que, trasladado al hospital de Tolosa, falleció momentos después. El otro individuo consiguió darse a la fuga durante la refriega, y se le sigue la pista por la Guardia Civil. El herido llevaba documentación a nombre de Lucas Aguiar, nacido en Zarautz el 5 de diciembre de 1947, pero esta documentación se ha comprobado que también es falsa.

N. de la R.—Con renovada y redoblada energía tenemos que condenar esta nueva señal de violencia que tristemente ha tenido por escenario una ciudad española. Esta vez ha sido un hombre que cumple con su obligación, por encargo de la sociedad, el que ha pagado

con su vida. Un hombre que había hecho de su oficio de cada día profesión de honor al servicio de la paz, de la seguridad y de la confianza en la carretera. Uno de esos ahogados y beneméritos servidores del orden, cuya presencia es garantía para todo ciudadano y para el país. Los disparos de unos locos, de unos bandidos, de unos frívolos, de unos salvajes lo han dejado muerto en el lugar de su servicio.

Contra la epidemia violenta que contagia sus criminales modos y que brota por tantas partes, contra el estilo de creer que con las armas de fuego se pueden resolver los problemas o las discusiones entre gente civilizada hemos estado siempre y nos reafirmamos. Poco pueden las palabras cuando de algo tan sagrado como es la vida de una persona se trata. Este honrado guardia civil no volverá a la vida. Pero sí quisiéramos que volvieran a reflexionar sobre la noticia todos los lectores y desearíamos tener la suficiente capacidad de coherencia para movernos a una manifestación pública y decidida protesta contra estos modos. Jaquetos violentos, imágenes de violencia han convertido en nuestra moneda habitual, moneda corriente, un estilo feroz y torcido que despreza la vida del prójimo y considera la existencia del hombre como un juego o una caprichosidad. Contra todo ello se levanta la indignación de las conciencias. De nada puede valer una civilización en la que la vida de un hombre no cuenta en lo que vale. Y todo hemos de ser firmes y enérgicos para impedir que la violencia de un país más. Con nuestra reprobación, con nuestras leyes, con nuestra actuación hemos de condenar cualquier actitud desahogada como la de éstos, gemberos o febriles, que mataron ayer a un hombre que estaba precisamente donde estaba para ser su servidor. Hace falta un "stop" visible, eficaz y resolutivo contra la violencia. Es esa tarea, desde las autoridades hasta al más sencillo ciudadano, todos tenemos la ineludible obligación de colaborar. ¡No a la violencia! Es una campaña necesaria y urgente.

Mortales accidentes laborales

Málaga 7. En la Casa de Socorro ingresó un obrero que momentos antes había sufrido una descarga eléctrica cuando trabajaba en una casa que se construye en el paseo Martirino. Su estado era agónico y pese a los cuidados que prestaron los facultativos de servicio el trabajador dejó de existir. Se trata de Antonio Díaz Muñoz, de veintitrés años.—Cifra.

Porriño (Pontevedra) 7. Falleció el obrero electricista José Iglesias Acuña, de

MISS semanario
LAS RELACIONES CONYUGALES ENTRE MARGARITA Y TONY. EN ESTADO RUINOSO.

RAPTO Y ASESINATO DE UNA NIÑA DE OCHO AÑOS EN RENTERIA

El criminal es un portugués que ha sido detenido

San Sebastián 7. En un depósito de cemento que recibe las armas residuales de las vías de la Renfe ha sido hallado el cadáver de la niña María del Mar Casado Jimeno, de ocho años, que desapareció el pasado sábado del domicilio de sus abuelos, en Rentería.

Desde su desaparición la Guardia Civil había realizado numerosas pesquisas e interrogatorios, y a multitud de hoy interrumpió al súbito portués José Martins, de treinta y dos años, soltero, que residía en Rentería desde hace poco menos de medio año, el cual se declaró autor del rapto y muerte de la niña.

Esa tarde, el raptor y asesino, con el Juzgado y fuerzas de la Guardia Civil, se trasladó al lugar donde manifestó haber acribillado a la niña, que fue recuperado por los bomberos de San Sebastián.

La indignación del vecindario es patente al conocerse el triste fin de este suceso, que había conmovido al pueblo renteriano desde el pasado sábado.—Cifra.

cuarenta y cuatro años, al verse cuando cortaba la rama de un árbol que dificultaba el tendido eléctrico que instalaba.—Cifra.

Bermego (Vizcaya) 7. Hallándose subido en una grúa a una altura de siete metros, ha sufrido una caída el operario Vahedi Cerca, de cuarenta y cuatro años, vecino de esta localidad. Aunque fue rescatado inmediatamente por sus compañeros y trasladado al más próximo centro asistencial, dejó de existir.—Cifra.

ACCIDENTES DE CIRCULACION

Barcelona. Dos muertos y cuatro heridos de pronóstico reservado resultaron en un accidente automovilístico ocurrido dentro del término de Santa María de Barberá. El turismo B-41222, conducido por Antonio Santiago Cortés, de treinta y cinco años, a quien acompañaba José María Rodríguez Camaño, de cuarenta y siete, voló en la parte izquierda de la calzada. Ambos resultaron muertos. Después otro automóvil chocó con el turismo. Es el matrícula B-37520 conducido por María Gloria Vidal Tarto, de veintidós años, a la que acompañaban Herminio Bruget, de cincuenta y dos años; Antonio Gibernau Bonet, de cuarenta y nueve, y Antonio Figuerola Costa, de cuarenta y dos, todos vecinos de Sabadell, que sufrieron heridas de pronóstico reservado.

Orense. Dos niños han muerto arrollados por el camión OR-10112, que conducía Aurora Real Rodríguez, en el lugar de San Roque, del término municipal de La Rúa.


Antonio Escudero Pérez, de seis años, y Jaime González Núñez, de cinco, descendieron de un autobús escolar y al pretender cruzar la calzada los alcanzó el camión.

Servilla. Resultó muerto Amador Grues Campos, de veintidós años, al volcar el tractor que manejaba, a consecuencia de una falsa maniobra, en el término de Alcalá del Río.

Vitoria. Por reventón de una rueda del ciclomotor que montaba resultó gravemente herido y murió poco después en el pueblo de Villareal de Álava, el vecino de Urdesa (Vizcaya), Antonio Barranco, de treinta y cuatro años.

La Coruña. Dos muertos y tres heridos graves es el balance de un accidente occu-

Melitón Manzanás



ITURRIA: *El Correo*.

Melitón Manzanásen hileta Irunen, 1968ko abuztuaren 3an



ITURRIA: Efe Agentzia.

Andrés Segovia Peralta



ITURRIA: Guardia Zibila.

Augusto Unceta-Barrenechea Azpiri



ITURRIA: Auñamendi Eusko Entziklopedia-Bernardo Estornés Lasa Funtsa.

José Acedo Panizo



ITURRIA: Guardia Zibila.

Félix de Diego Martínez



ITURRIA: Guardia Zibila.

José Lasanta Martínez



ITURRIA: Segoviako Artxibo Militar Orokorra.

IV. ATALA

PARDINES: HILKETA BATEN (DES)MEMORIA*

RAÚL LÓPEZ ROMO

Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo (CMVT)

Nola kontatu behar da hilketa bat, batez ere esanahi historikoa duenean? Modu hotz, urrun eta inpartzialean deskribatu behar dugu? Komeni da irakaspen moral bat ateratzea edo ikuspegi etiko bat gehitzea? Nola egin ohi da? Galdera horiei buruz gogoeta egin dute intelektual handiek, eta atal honetan guztiei erantzuna emango diedala ziurtatzea gehiegizkoa litzateke. Galdera horiei kasu zehatz batetik abiatuta helduko diedala esatea egokiagoa da: José Antonio Pardines Arca-yrena, ETaren, *Euskadi Ta Askatasunaren*, lehen biktima mortala.

Helburu horrekin, datu base bat egin dut ezberdinak diren 70 libururekin, baina liburu horiek badute osagai komun bat: hemen interesatzen zaigu garai eta lekuari buruz ari dira. Gehienak gazte-leraz idatzita daude, baina badira ingelesez eta euskaraz idatzitakoak ere. Lagin honen barruan, hiru talde handi bereizi ditut, María Jimé-nezek ETaren biktimen bibliografiaz idatzitako artikuluari jarraiki¹. Lehenik eta behin, literatura militantea; hau da, euskal nazionalismo erradikaletik eta harentzat egindakoa (22 lan). Bigarrenik, saiaketak eta kazetaritza liburuak, talde heterogeneo bat non denetarik dagoen: ETaren aurka borrokatzeko monografiak, taldeko kideei buruzko ikuskera adeitsuak —hainbat mailatan— eta asmo komertziala dutenak (22). Eta hirugarrenik, lan akademikoak, unibertsitateko diziplinaren baten ondorio (26). Ikus daitekeenez, hiru taldeen artean halako oreka bat dago kopuruari dagokionez. Laugarren talde bat ere egongo litzateke, protagonista batzuen oroitzapenak, baina horiez beste leku batean arduratu naiz, kasu puntual batzuetan izan ezik². Hemen aurkezten dudana ez da zerrenda zehatz bat, baina

bai zabala, eta gaiari buruz argitara eman den eta nabarmenena den ia guztia dago³.

Iturri horietara jo dut honako zalantza hauek argitzeko: 1) Zer neurritan aipatzen dute Pardines bere izen-abizenengatik «Guardia Zibilaren agente gisa», edo existitu ez balitz bezala isilean gordetzen duten. 2) Zenbatetan ez dute hura aipatzen, baina bai Meliton Manzanas, ETArek bigarren biktima mortala. 3) Zenbatetan eskaintzen zaion Pardinesi bere hiltzaileari, Txabi Echebarrietari, baino tarte gutxiago, edo zenbatetan kontaktzen den historia azken honen ikuspegitik. 4) Zer tratamendu ematen zaio gertaerari: hilketa gisa aipatzen da edo hainbat eufemismo erabiltzen dira. 5) Zenbatean esaten da ETArek lehen biktima Melitón Manzanas edo Begoña Urroz izan zela. 6) Zer aldaketa jasaten dituzte parametro horiek literatura motaren eta epealdiaren arabera. 7) Eta, jakina, zergatik dira emaitzak diren bezalakoak. 1968ko ekainaren 7an Aduna aldirietan gertatutakoari buruzko bertsio ugariak egiaztatzeko oinarri sendoa dugu: gertaerak, liburu honen III. atalean finkatuta geratu diren bezala. Banaketa kronologiko oro arbitrarioa da, baina erabilgarria izan daiteke ondo justifikatua badago. Azterketa egiteko, bi epealdi handi finkatu ditut. Lehena 1974an hasten da, nire hautaketan agertzen den lehen liburuaren agerpenarekin, eta Miguel Ángel Blancoren hilketaren aurreko egunetan bukatzen da. Bigarren epealdia 1997tik aurrera abiatu, eta gaur egun arte iristen da. Historialariak bat datoz Ermuako zinegotzi gaztearen bahiketa eta geroagoko heriotza inflexio-puntu bat izan zela gizarteak terrorismoarekiko biktimei buruz zuen jarreran, batez ere Euskadin, baina baita Espainia osoan ere.

Echebarrietari buruzko lehen biografia 1993koa da⁴. Ordurako, asko idatzi zen hartaz egunkari, aldizkari edo askotariko dokumentuetan. Pardines ardaztat duen lehen monografia, irakurleak eskuen artean duena, 2018koa da. Duela gutxi Pardinesen oroimena zaindu den arren, zenbait omenaldi publikoren bidez (ikus V. atala), bi lanen artean dagoen 25 urteko tarte izugarri esanguratsua da. Euskal Herrian bizi izandako terrorismoaren gaia ukitzen duten liburuen azterketa zehaztu batek argi pixka bat egin dezake. Helburu horrekin, atal hau honako eran antolatuta dago. Aurrena, literatura mota bakoitzari atal bana eskaini diot, egile adierazgarrienen kontakizunak aurkeztuz. Gero, ondorioen aurretik, laginaren azterketa bibliometrikoa egin dut. Hortaz, atal honen metodologiak interpretaziozko lehen zati bat, arrazoibideen analisisian oinarritua (lerro nagusiak eta horien esanahia, identitateen eraketaren prozesuei dagokienez⁵) eta estatistikako azken zati bat uztartzen ditu, beti ere testuak agertu zireneko testuinguru historikoen azterketa batekin⁶.

Tony Judtek idatzi zuenez, «historia zer den dioten klixek guztien artean, historialariak adibideen bidez irakasten duten filosofoak garelako dioen adierazpena izan zen gehien erakarri ninduen». Eta gehitu zuen: «nire lanbidearen abantaila da adibide bat, xehetasun bat, ilustrazio bat txerta dezakezun historia bat duzula»⁷. Harrigarria da zenbat kasutan adibide horiek okerreko datuez lagunduta datozen. Kontua ez da oportunistak izatea, beste batzuek duela zenbait urte iturri faltagatik eduki izan ez zuten ezagutza bategatik harrotzea. Gainera, onar dezagun ez garelako hutsezinak: denok huts egin dezakegu, eta egiatan hala da. Kontakizun onargarri batek ez du zertan behin betikoa izan behar: eskura dugun dokumentazioarekin egiazta dezakegu, bai eta berrikusi ere, baldin eta informazio berriak agertzen badira, gure kasuan bezala. Dena den, bada erabat saihegarria den hanka sartze mota bat: betaurreko alderdikoi batzuek erabiltzetik datozenak. Halakoetan erortzea lanbidearen printzipioen aurka joatea da.

Kontatzea merezi duen horren aukeraketak asko erakusten du testuinguru bakoitzean nagusi diren lehentasun eta kezkei buruz: gerora agian berraurkituak izango diren eta beste egile batzuek garrantzitsutzat joko dituzten atal batzuk ahanzturara baztertzen dira. Izandako ondorio historikoei dagokionez, ETAREN lehen hilketak ez zen huseria izan, eta hala bere sinbolismoagatik nola bere ondorioengatik galde egiten digu. Baina ez da beti horrela ikusia izan, eta ezin da baztertu etorkizunean berriro oharkabean pasatzea. Hala ere, gaur egun hori aldatu egin da, erlatiboki gutxienez. Euskadiren iragan hurbilari buruzko berrikuspenean egin da, baina gizarteak terrorismoaren biktimekiko izan duen jarrerari buruzko ikuskera kritikorekin⁸.

Hori gaiari buruzko literaturari dagokionez. Herri-mailan, Pardinesen hilketaren ahanztura agerikoa da. Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroak eskatuta, Euskobarometroaren taldeak galdera jakin bat sartu zuen 2017ko urrian egindako iritziz publikoko inkestan: gogoan duzu nor izan zen ETAREN lehen biktima? %78ak ez zekiela erantzun zuen. 600 elkarrizketatuetatik zazpi baino ez zuten asmatu. Beste 52k Melitón Manzanask aipatu zuten; 13k, Carrero Blanco, bik Ángel Berazadi, beste hainbestek «neska bat», eta hainbat pertsona behin aipatuak izan ziren: Begoña Urroz, Fernando Buesa, Miguel Ángel Blanco, Irene Villa, Calvo Sotelo eta baita Txabi Echebarrieta ere. Erantzun bat ematera menturatu ziren gutxien artean biktima aipatuena iruditeria kolektiboan leku negatiboena duten horiek izatea (Manzanask eta Carrero Blanco) deigarria da.

INGO TAULA

ETAren lehen biktima mortala nor izan zenari buruzko oroipena

	<i>Maiztasuna</i>	<i>Ehunekoa</i>
Asmatu	7	%1,2
Ez asmatu	119	%19,8
Ez daki	472	%78,7
Ez du erantzun	2	%0,3
Guztira	600	%100

ITURRIA: Euskobarometroaren 2017ko bigarren boladatik abiatuta neronek egin-dako lanketa.

Zeri zor zaio ahanzkortasun hori? Honako egiaztapen honetatik abiatzen gara: «Etxebarrietaren aurpegia makina bat argitalpenetan argitaratu zen, eta haren heriotzaren urteurrena ospatzen hasi ziren. Aitzitik, urtetan zehar, gutxi jakin zen ETAren terrorismoaren lehen biktima izan zen José Antonio Pardinesen historiaz eta bizipenez». Egiatan, «*Txabi* Etxebarrietaren mitifikazio kasuarekin aldean José Antonio Pardinesen irudiaren inguruan eralki zen isiltasuna, ETAko terrorismoaren biktimek hamarkadetan zehar jasan izan duten ikusgaitasun faltaren adibide bat baino ez da»⁹. Hori bereziki nabarmena den esparru bat badago, hori parahistoriografia da¹⁰.

I. LITERATURA MILITANTEA

Michel de Montaignek, saiakeraren generoaren aitak, honako hau idatzi zuen XVI. mendearen amaieran: «nahasmena arriskutsua da bekatuen mailan eta neurrian: traidoreek eta tiranoek sobera interes dute nahasmen hori egon dadin, baina ez dago arrazoirik haien kontzientziak arindura aurkitzeko beste batzuk alferrak, lizunak edo deboziora gutxi emanak direlako. Norberak larriagotzat jotzen du kidearen delitua, eta berea arintzen saiatzen da»¹¹. Hitz horiek, gaur egun erabat indarrean daudenak, duela 400 urte baino gehiago idatziak izan eta gero, literatura militantea interpretatzeko erabiltzen dudan eremu orokorra laburbiltzen dute. Santiago de Pablok haren ezaugarri nagusiak azaldu zituen: «*ad probandum* historia bat», «ikuskerako oso partzial eta alderdikoiarekin», «aprioristiko eta oldarkorrarekin»¹².

Martín Alonsok zehaztasunez xehatu ditu gorrotoaren erretoriken engranaje anitzak, osagai unibertsal sail bat dutenak. Laburbilduta, honako hauek lirarteke: 1) gu nahigabetu baten eraketa, 2) aurkakoa

den beste baten mugaketa, 3) norgehiagoka saihetsezina delako irudi-pena, 4) talka hori gizabanako konprometitu talde hautatu bati bakarrik dagokiola onartzea, 5) nolanhiko aukera baten aurrean ez eta eskaera natural baten aurrean gaudelako hausnarketa, eta horrela azken geltokiraino heldu arte, 6) salbazioaren ideia indarkeriaren erabileraren bidez¹³. Arnaldo Otegik, «ezker abertzalea»ren buruzagiak, osagai horietako batzuk laburtu zituen adierazpen bakar batean: XIX. mendetik Euskal Herria «borroka armatuan jardutera kondenatuta» egon zela esan zuen¹⁴.

Dena den, nola jokutzen dute indarkeria politikoaren apologistek hilketa jakin baten aurrean; hau da, berek babesten dituzten horiek egin dezaketen ekintza tragiko, itzulezin eta immoralaren aurrean? Ezein gaitzespen keinu saihesteaz gain, ez ikusiarena egitea edo azaletik tratatzea da ohiko baliabideetako bat, eufemismoz betetako esaldi gutxi batzuekin, eta, jarraian, taldea bera edo kideetako bat subjektu atsekabetua izango litzatekeen beste gertaera batzuk aipatzea. Bertsio (auto)kritikoak erabat baztertzen dira. Sektarismoak zientziaren aurkako interpretazioak sustatzen ditu, soilik norberaren identitatea eusten duen hori elikatzen bideratuak. Beste ohiko tresna bat erruduntasuna alderantzikatzea da: erasotzailea biktima gisa aurkezten da, eta alderantziz. Egilearen irudia zuritzea eta «etsaia» gauza bihurtzea batera doaz: azken honi buruz apenas dagoen daturik edo irudirik; ezer pertsonalik ez, uniforme bat baino ez. Hura abere bihurtzen duten terminoen erabileraren eskutik doa bestearekiko mespretxua. Gehien errepikatu dena «*txakurra*» izan da, polizia eta guardia zibilei zuzendua¹⁵. Ikus ditzagun adibide zehatz batzuk.

1968an berean datatutako orri hegalaria batean ETAk honako hau idatzita utzi zuen: Txabi Etxebarrieta «Guardia Zibilak ERAIL [letra larriz jatorrizkoan] zuela ihes egiten ari zenean, haiek atxilotzen saiatzen ari zen guardia zibiletako bati tiro egin ondoren». Beste erremediorik ez duelako hiltzen du abertzaleak, berak menderatzen ez dituen indar telurikoek horretara bultzatzen dutelako. Bien bitartean, Erakunde Armatuak Pardinesen heriotza mendekatu nahi izan zuelako teoria zabaltzen da, eta horregatik aldeztu aurretik pentsatuta hil zuen Etxebarrieta. Taldearen beste dokumentu batean, kasu honetan bere prentsa zerbitzuaren komunikatu batean, frantsesez idatzia, Etxebarrieta hilketaren ideia errepikatu zen, Pardinesen izena aipatu ere egin gabe: «1968ko ekainaren arratsaldeko lauak aldera, hildako guardia zibil baten gorpua aurkitu zuten Billabonatik gertu». Labur esanda, Etxebarrieta «erail egin» zuten, eta guardia zibil bat «hilik aurkitu» zuten¹⁶.

Literatura militantearen gainerakoan trikimailu narratibo berak daude. Liburu horiek ETaren bertsioa errepikatzen dute, eta, asko jota,

xehetasunen bat gehitzen dute, dagokion egilearen irudimenaren ondorio. José María Lorenzo Espinosa historialari eta HBko (Herri Batasuna) Mahai Nazionaleko kide ohiarentzat *Txabi* Echebarrieta «humanista armatu bat» zen. Ondoren, epiteto losintxari parrastada bat dator: «ikasle bikaina, ikasle aktibista, idazle politikoa, poeta kartsua, filosofoa batzuetan». Halatan, haren heriotzaren berri izan zenean, «Txabiren irudia eta oroitzapena, gazte hiltzen diren liderrekin gertatzen den bezala, handiagotzen hasi zen kondairaren eta mitoaren muga doi-doi ukitu arte». Egiatan, euskal nazionalismo erradikalak Echebarrieta mitifikatu zuen (ikus VI. atala). Baina horretaz ohartzen den Lorenzo Espinosak ez du distantzia hartzen historialari gisa jarduteko, sektore politiko horren mitografo gisa jarduteko baizik: «gudari»a goresten duten fabula horiek errepikatzen ditu, eta hura *Che* Guevararekin alderatzera ere iristen da, osasun ahula zuelako eta heriotza biolentoa izan zuelako.

Honela ebazten du Lorenzo Espinosak Pardinesen hilketa, beti ere etakideen ikuspegitik: «Arratsalde hartan [Echebarrieta eta haren kidea, Iñaki Sarasketa] Donostiatik Beasainera zihoazen, Zaragozako matrikula zuen auto batean. Adunatik hurbil zeudela, guardia zibil batek, agian gehiegizko abiaduragatik edo lapurtutako ibilgailu hartan zerbait susmagarria hauteman zuelako, Billabonaraino joan zen haiei jarraika. Hara heltzean, geratzeko eskatu zion gidariari, eta dokumentazioaren datu faltsuak egiaztatu eta gero, arma ateratzen saiatu zen. Kupean zihoazenean aurre hartu zioten, eta José Pardines Arcay trafikoko guardia lurtean botata geratu zen». Gertaera duela bihurtzen da, non onak azkarragoak diren, eta gaiztoa lurtean botata geratzen da, bost tiro zehatz jaso ordez, bihotzekoak jo izan balio bezala¹⁷. Lorenzo Espinosak ez daki Pardines «bere arma ateratzen saiatu ote zen», baina, hala eta guztiz ere, segurutzat jotzen du.

ETAko sortzaileetako bat izan zen Julen Madariagaren oroitzapenek ildo bera jarraitzen dute. «Nik diot hil ala biziko kontua izan zela: edo Txabi edo etsaia zen handik bizirik aterako», «aurrez aurre»ko borroka bat izan zen, «far-west»eko pelikulen modukoa, non protagonistak pistola zorrotik lehena ateratzen nor izango ote den lehian dabilzan¹⁸. Distiradun heroia orbanik gabeko subjektu bihurtu behar da, ausart, ustekabeen harrapatua den inori bizkarretik tiro egiteko ezgauza¹⁹.

Azken urteotan Iñaki Egaña Sevilla bihurtu da «ezker abertzale»aren kronista ofiziosoa. Egintzez duen ikuspegiaren arabera, ez dago ezustekorik sektore politiko horren kanon ortodoxoari dagokionez. Enfasi dramatikoak Echebarrietaren heriotzaren gainean egiten da, eta beste behin ere judizioz kanpoko exekuzio bat bezala azaltzen da, horretarako frogatik gabe. Pardinesen heriotza istripuzkoa izan omen zen. Lehena

«Guardia Zibilak berbertatik egindako bi tiro jaso ondoren hil zen (...). Ordu batzuk lehenago, Adunan jarritako kontrol batetik ihes egitea lortu zuten, non Guardia Zibilaren agente bat hilik gertatu zen». Bigarren kasu honetan asmorik egon ez zelako irudia eman nahi da; asmorik ez bazegoen, ondorioz, ezta erantzukizun kriminalik ere; «hilik gertatzen den» guardia ez da aipatu ere egiten. Gertaeren ordena aldatzen da ere, geroago gertatu zena lehenago nabarmendua agertzeko²⁰.

Baina Egaña Sevillak manipulazio teknika gehiago menderatzen ditu. Bere azken liburuan honela berreraikitzen du ETaren ibilera odoltsuaren hasiera: «Melitón Manzanas komisarioa izan zen ETaren lehen biktima mortala. Talde armatuak Txabi Etxebarrietak, gerora poliziaren kontrol batean hil zenak, Billabonan José Antonio Pardines guardia zibila hil baino apur bat lehenago erabaki zuten jomuga hori». Hau da, planteamendu exotiko honen arabera, ez du Pardines zenbaitzen biktima bezala, ez baitzuten haren heriotza planeatu. Topo egite deseroso bat izan zen, ETak ustez «justifikagarriagoa» zen atentatu bat egiteko dena prest zuenean: torturatzailer ospea zuen polizia baten aurka²¹.

Literatura militantearen idazleak ez dira historialariak izaten. Horien artean euskal nazionalismo erradikalaren kargu hautetsiak daude, mundu horretako hainbat erakunde sektorialetako militanteak (sindikatuak, gaztediak...), ETaren sortzaileak, «ezker abertzalea»ren ustezko ahalmen iraultzaile eta antisistemarekin liluraturuta dauden atzerritarrak, baita balizko erantzukizun penalengandik babestu nahi duen izengoiti kolektiboren bat ere. Nolanahi ere, historiako doktore eta unibertsitateko irakasle bat ere topa dezakegu (jada aipatu dugun Lorenzo Espinosa). Halako kasuetarako balio du Antonio Riverak saiakera bati jarri zion izenburua: «historia txarra ahanzkortasuna baino txarragoa denean»²². Esaldi horrekin adierazi nahi zuen egoera akademikoak zientzia-aginipide gainaxal bat ematen duela, eta horiek baliatuta, zenbait egilek eraikuntza arriskutsuak egiten dituztela. Lotsagabeak dira Egaña Sevillaren desitxuratzak, ez du bakarrik errealitatea faltsutzen bere aurreiritziekin bat ez datorrenean, gainera plagio salaketa egin diote gaur egungo Euskal Herriaren lau historialari onenetakoei, horien artean Rivera bera, Santiago de Pablo, Javier Ugarte eta Pedro Barrusoz gain²³. Baina beste autore militante batzuk bi aldiz arriskutsuak dira ofizioaren oinarriak ezagutzen dituztelako.

Batzuei nahiz besteei, izan baldarragoak edo apur bat sotilagoak, orain aldiko bere eskakizunak betetzeko atera dezaketen interes politikoaren arabera interesatzen zaie iragana, eta orain aldiko nahikeria horiek ideologia ez-zibil batekin lotuak daude. Askok bozgorailu eraginkorra topatzen dute Tafallan (Nafarroa) egoitza duen eta José María

Esparak zuzentzen duen Txalaparta argitaletxean. Hemen berrikusitako 22 liburu «militanteetatik» 15 argitaratu ziren zigilu horren pean, laurogeiko erdialdean jaiotakoa. Azken urteotan, Euskal Memoria Fundazioa gehitu zaio, «memoria historiko»ko lanak kaleratzen dituen euskal nazionalismo erradikalaren ikuspegitik.

II. SAIAKERAK ETA KAZETARITZA-LIBURUAK

Terrorismoaren eta komunikabideen artean dagoen harremanak tinta ibai asko eragin ditu. Hain gai zabal bezain konplexua agortzeko asmotik urrun, haren oinarrizko bi alderdi aipatzen hasiko gara. Lehenik eta behin, terrorismoak propaganda egiten du bere atentatuen bidez; horretarako, medioek duten hedatze ahalmen baliatzen du, informatzea baita haien berezko zeregina. Bigarrenik, Florencio Domínguezek ohartarazten duen bezala, denbora askoan zehar, terrorismoari buruzko informazioetan atentatu egileek beren biktimek baino protagonismo handiagoa izan zuten²⁴.

2002an Arcadi Espadak lan bat eman zuen argitara «terrorismoak kazetaritza izan duen trataera»ri buruzkoa. Hartan, aspaldi egin zuen ikerketa bat aipatzen zuen, zeinean aztertu baitzuen nola kontatu zitzaizen espainiarrei terrorismoaren urterik odoltsuenean, 1980an, gertatzen ari zena, infernuzko maiztasun batekin atentatuak egiten zirenean, ia-ia bat hiru egunero. Haren ondorioa samingarria da: nahiz eta atentatu mordoa izan, «heriotza agertzen zen, bai, baina disimulatua». Hori hala ikus zitekeen bai krimen askori eskainitako tarte urrian, baita albisteen ikuspuntuan ere. Sarri, albisteak gehiago zentratzen ziren kaltegileen diskurtsoen errepikapenean biktimen bizitzaren edo inguruabarren ezagutzan baino²⁵.

Nekane Parejok Espadaren oharrak osatzen eta indartzen dituen beste datu bat dakar. Haien gordintasuna dela eta, gaur egungo orotariko egunkarietan argia ikusiko ez luketen atentatu terroristei buruzko argazkiak argitaratzen ziren Trantsizioaren urteetan. Krimenaren agertokiaren plano oso esplizituak hartzen ziren, zeinetan gorpuk eta haien zauriak ikus zitezkeen²⁶. Pentsa daitekeenaz beste, irudi horiek ez zuten indarkeriari zilegitasuna kentzen laguntzen, baizik eta morboa edo sentsazionalismoa gehitzen zuten, biktimen zaurgarritasuna eta beren hiltzaileen ahalmen suntsitzailea erakustez gain.

Egin edo *Punto y Hora de Euskal Herriak* beste modu batean jokatzeko zuten: atentatuaren ondorioak leundu (ez zuten senideen mina erakusten) eta biktimaren izena belztu zezakeen guztia azpimarratzen zuten. ETArekiko hurbila zen komunitateari gertaera digerigarriagoa

egitea zen helburua. Komunikabide horiek biktima mortal batzuen irudiak irudikatzen zituzten batzuetan, bizi ziren artean hartuak, hala nola Gudarostearen agintaritzarenak, eta haiek espresio agresibo batekin agertzen ziren irudiak aukeratzen zituzten adibidez. Hildakoarekiko urruntasun sentsazio bat igortzea zen kontua, haren ustezko basatasuna iradokitzea, eta ez haren ezaugarri pertsonalenak²⁷.

1997ko uztailleko Miguel Ángel Blancoren hilketa mugarri bat zela esan behar da. Hortik aurrera, prentsak terrorismoaren biktimei eskainitako tartea handitu zuen nabarmen. Hala, haien biografiari, ikasketei, lanari eta abarri buruzko buruzko xehetasun gehiago ezagutzen hasi ginen. Haiei aurpegi bat jartzeko modua zen; labur esanda, haiek humanizatzea. Ermuako zinegotzi gaztearen hilketaren ondotik, *El Correok* atentatu hilgarriari buruzko orrialde kopurua bikoiztu zuen. Gauza bera gertatu zen *El País* edo *Deia* bezalako beste egunkari batzuetan; ez, ordea, *Egimen*, non apenas egon zen aldaketarik²⁸.

Prentsaz edo beste komunikabideetan egin duten lanaz harago, zenbait kazetari eta idazlek proiektu luzeagoak hasi dituzte, ETARI buruzko bibliografia gorabeheratsu bat sortu dutenak. Pardinesen aurkako atentatua goiz (1993) kontatzen duen liburu bat José María Irujo eta Ricardo Arquesena da, *ETA: la derrota de las armas*. Gertaera labur aipatzen da, baina ez du huts egiten inolako oinarrizko datutan²⁹.

1997ko data enblematikoan agertu zen José María Callejaren *Contra la barbarie*, terrorismoaren biktimetan zentratutako lehen liburua izateko meritua duena. Egileak hainbat bizitzen istorio kontatu zituen, eta ETAK hildakoen zerrenda osatu bat gehitu zuen, ordu arte argitara eman gabea zena³⁰. Lana duela gutxi izan da osatua eta eguneratua beste ikerketa batzuekin.

Duen zorrotzasun eta zabaltasunagatik, nabarmentzekoa da *Vidas rotas*, Rogelio Alonso, Florencio Domínguez eta Marcos García Reyren lumari zor dioguna. Dituen mila orrialde baino gehiagotan ez dago lekuri epika militantearentzat. Lanak ETAREN biktima mortalak duintzen ditu modu erraz bezain eraginkorren: haien izen-abizen guztiak eta atentatuaren lekua eta data gogora ekartzen ditu; haien bizitzari buruzko datuak ematen ditu, ahaideen lekukotza, adierazpen publiko eta abarren bidez; eta borreroak identifikatzen ditu, baita kondena jaso zuten sententziak aipatu ere. José Antonio Pardinesi eskainitako sarrerak xehetasun horiek guztiak jasotzen ditu. Egia kontatzea da helburua, iturri askorekin eta apaingarri literariorik gabe³¹.

Gaur egun, zenbait jurista, biktima elkarte eta kazetariren lanari esker, badakigu ETAK burututako hilketen heren bat edo argitu gabe geratu dela. Horien artean badira kasu batzuk erantzuleak Poliziarekin izandako tiroketetan edo bestela inguruabarretan hil direnak —beraz,

ezinezkoa da haiek epaitzea—, baina badira zigorgabe jarraitzen dutenak ere. Juanfer Fernández Calderínek, COVITEko (Colectivo de Víctimas del Terrorismo) prentsa buru ohiak, bere emaitzak argitaratu zituen gai horri dagokionez *Agujeros del sistema* lanean³².

ETAri buruzko kazetaritza-lanek talde oso heterogeneoa osatzen dute. Aipatu liburuek ekarpen garrantzitsuak egiten dizkiote ezagutzari. Horixe da Javier Marrodánek koordinatu duen hori liburukiz osatutako lan handiaren kasua, Nafarroan izandako terrorismoa aztertzen duena³³. Dena den, badira beste zenbait egile ere aurkezten dituzten datuen benetakotasuna axola ez zaienak. *ETA nació en un seminario* lanaren orrialdeetan, taldeari buruzko klixek bihurtu den izenburua duen lan horretan, Álvaro Baezak honako hau adierazten du: «[Echebarrieta eta Sarasketa zihoazen] autoa geratu ez zenez, Pardines bere bizikletara igo eta autoa geratu arte jarraitu zituen (...) ondoren Echebarrietak tiro egin zion ondo-ondotik. Hogeita bost urteko bizitza hura arekara erori zen, eta, ondoren, akabera eman behar izan zioten»³⁴. Garaiko Guardia Zibilak bitarteko asko ez zituen arren, Pardinesek motor bat zuen. Baezari ez zaio harrigarria iruditzen bizikleta baten gainean doan gizon batek abiaduran doan auto bat harrapatu eta geraraztea. Balentria horren ondotik, areka batera ez eta Pardines errepidearen asfaltora erori zela gogoratzea xehetasun txiki bat da.

Beste zenbaitetan ezin da berealdiko akatsez hitz egin, baizik eta interpretazio alderdikoiez. Bere *Diario privado de la guerra vascan* Antoni Batistak ziurtatzen du «José Pardines guardia zibila kontrol batean hil zutela, besteek dokumentazio faltsua zeramatela egiaztatu eta eskua kartutxerara eramanean». Guardia zibilak azken keinu hori egin zuela adierazten duen aztarnarik ez dago, baina, horrela, enfrentamendu ideia bat zabaltzen da, non Pardines ekimena eramaten saiatu zen eta Echebarrietak aurre hartu zion bere arerioari. *Txabi* Echebarrietaren geroagoko heriotzari dagokionez, Batistak ETAREN buruzagiaren amaren bertsioa jasotzen du. Azken honek baieztatzen du, frogarik gabe baieztatu ere, agenteek «ondo-ondotik» tiro egin ziotela bere semeari³⁵.

Euskal nazionalismo erradikalaren helburuekin ulerkorrak diren kazetarien artean Mark Kurlansky kazetari estatubatuarra nabarmentzen da, *La historia vasca del mundoren* egilea. Pardinesen eta Echebarrietaren heriotzari eskaintzen dizkion lerro apurretan terminoak alderantzikatu, eta lehena «heriotza»tzat jotzen du eta bigarrena, aldiz, «hilketa»tzat³⁶. Haren lanak ingelesezko zenbait bertsio izan ditu publiko anglosaxoiarentzat, eta Baezaren kasuan bezala, berrargitalpen bat baino gehiago izan du. Zabalpen gaitasun hori, zorionez lan serioak ere izan dituen, *Vidas rotasek* kasu, lan akademiko gehienen ale kopuru mugatuaren oso bestelakoa da.

III. LAN AKADEMIKOAK

Atal honetan bildu ditugun monografiak asmo zientifikoa dute. Hala ere, horien artean ere badira zenbait «ezker abertzalea»ren oinarri ideologikoetatik egindakoak —HBko diputatu ohi eta politologoa den Francisco Letamendiaren kasu—, hortaz, literatura militantearen blokean sar litezke. Hala ere, bada ezberdintasun bat Lorenzo Espinosaren liburuekin, eta ezberdintasun hori dela eta, Espinosa lehen taldean sartu dut, eta Letamendía akademikoen artean: azken honek argitaletxe komertzial orotarikoekin argitaratu du, eta ez euskal nazionalismo erradikalaren zigilu propioaren pean. Edozein kasutan, komeni da onartzea irizpide hori eztabaidagarria dela eta liburuei eskainitako hiru multzoak ez direla konpartimentu estankoak, eztabaidara irekitako kasuak ere badaudela, bi literatura motatako ezaugarriak dituztenak.

Kontsultatutako liburu akademikoak hainbat diziplinatatik datoz. Gehienak historiakoak dira, baina badaude ere soziologiakoak, antropologiakoak edo filosofiakoak. Pardinesen kasuari arreta jarri zion lehen historialaria —hilketa gertatu zen testuingurua deskribatu zuen, nahiz termino hori erabili ez— Gurutz Jáuregui izan zen. Hona haren kontakizuna: «ETAk duela urtebete hasitako kanpaina aktibistaren ondorioz, poliziaren neurriak nabarmen gogortu ziren. 1968ko ekainaren 7an, José Pardines guardia zibila errepide kontrol batean hil zuten Tolosaren ondoan, eta, apur bat geroago, Guardia Zibilak Francisco Javier (Txabi) Etxebarrieta hil zuen, ETAREN Batzorde Betearazleko kidea»³⁷.

John Sullivan historialariak ere beste liburu goiztiar bat idatzi zuen ETARI eta haren inguruari buruz, eta honako hau dio: «1968an Txabi Etxebarrieta eta beste liberatu bat, Iñaki Sarasqueta, auto batean zihoazen eta lanean ari zen trafikoko guardia zibil batek geratzeko eskatu zien. Txabik pistola zeraman, ETAko liberatuen artean ohikoa zena. Arma hori zeramala antzematen bazioten, kartzela zigor luzea ezarriko zioten. Hori saihesteko asmoz, tiro egin eta guardia zibila hil zuen»³⁸. Esaldi horiek literatura militantearen estilotik oso urrun gertzen dira. Kasu honetan, argi eta garbi esaten da nork hil zuen nor, eta hori oinarritzkoa izan badaiteke ere, beste testu mota batzuetan hori aurkitzea ezinezkoa dela ikusi dugu askotan. Gainera, lehen eskuko iturriak erabiltzen dira: Sullivanek Sarasketa elkarrizketatu zuen. Hiltzailea horrela jokatzera eraman zuten arrazoiei buruzko interpretazio sinesgarri bat ere egiten da. Norbaitek uste badu pistola bat aldean eraman behar duela, baliteke bere hurkoaren aurka erabiltzen bukatzea, hura bere hurkoa ez delako uste osoa aitzakiatzat hartuta hain zuzen ere. Hura izan zen lehen aldia askoren artean. Eta inoiz ez zen saihetsezina izan³⁹.

Zenbait kazetaritza-liburu oinarrizkoak izan dira biktimak ikusgai jartzeko bidean. Salbuespen batzuk gorabehera, puntu horretan literatura akademikoa atzetik joan da. Hala ere, azken honek azterketa sakonak eta terrorismoa bezalako fenomeno konplexu bat ulertzeko gakoak eman dizkigu, baita abertzaletasun erradikalak axioma absolututzat aurkezten dituen topikoak dekonstruitzeko ere; horien artean, indarkeriaren saihetsezintasuna⁴⁰. Ikus ditzagun zenbait adibide. Juan Aranzadik, trikimainarik gabe, idatzi zuen Echebarrietak Pardinesi «tiro egitea aukeratu zuela» azken honek «haiek zihoazen autoaren agiriak egiaztatzen ari zen bitartean». Ildo horretan sakonduz, Aranzadik azpimarratu zuen «ez zela soilik “ahaztu” Etxeberrieta izan zela lehena erailtzen (ETA izan baitzen nahita eta bere borondatez Heriotza sartu zuena gatazka politikoan), biktimaren existentzia ere, Pardiñas (sic) guardiarena, berehala “ahaztu” zen, eta, ondorioz, kriminala jada martiri bihurtuta, haren odola mendeku eske hasi zen, eta ETAk frankismoaren indarkeriaren aurkako erreakzioztat (...) aurkeztu ahal izan zuen Manzanasko torturatzaile ezagunaren hilketa⁴¹».

Fernando Molinak, Mario Onaindiari buruzko biografia baten egile denak, Euskadiren historia garaikidean giltzarria den irudi bati buruz eskuragarri dagoen bakarrenetakoa, gogoeta ildo berari jarraitzen dio. Molinaren esanetan, «1968an, [Onaindiak] militatzen zuen ETA hark lehen aldiz jo zuen indarkeria zuzenera (...) José Antonio Pardines eta Melitón Manzanasko hilketek botere transzendente bat eman zioten bere aktibistei, aberriaren izenean bizitza eta heriotza administratzearena. Horretarako, martiriaren nahitaezko irudia lagun izan zuten, Javier Etxebarrietarena, eredu izanez bidea irekitzen duenarena»⁴². Hemen ez da aipatzen indarkeria zerutik eroritako «zerbait» bezala, baizik eta aukeratutako tresna gisa, eraginkorra izan daitekeena zenbait xede lortzeko, hala nola, biztanleria polarizatze edo aurkariaren artean izua ereiteko.

Nolanahi ere, literatura akademikoa bere garaiaren seme-alaba da. Haren edukiak eta lehentasunak aldatuz doaz testuinguru berrien neurrira. Garai batean, Pardines eta ETAREN gainerako biktimak mapatik ia-ia kanpoan egon ziren. Jon Juaristik salatu zuen bezala, sarritan Pardinesen hilketaren erreferentziak desagerrarazten zituzten «elipsiek» gutxi zuten nahi gabekotik⁴³.

IV. BIBLIOMETRIA

Azken garaiotan lan-akademikoen eraginaren aurkibideak egiteko erabili izan da batez ere bibliometria. Baina artikuluko zientifiko batzue-

tan beste artikulu zientifiko batzuei buruz agertzen diren aipua zenbatzeko lan autoerreferentzialaz harago, historiaren ezagutzarako esparru emankorra da. Ekoizpen literarioaren edukien azterketak asko esaten du garai eta leku baten ezaugarriez.

Sarreran aurreratzen nuen bezala, datu-base bat egin dut 70 libururekin. Begi bistakoak diren arrazoiengatik, ez ditut sartu beren kronologia-eremuaren barruan 1968. urtea sartu ez dutenak. Ezta, terrorismoari dagokionez, egintza nabarmenen jarraipen bat egiten ez dutenak ere, ikuspegi sinkroniko edo estatiko batetik abiatzen direlako. Bai daudenetik bi bakarrik agertu ziren Francoren diktaduraren garaian, beste lau Trantsizioaren urteetan eta gainerakoak jada demokrazian. Gehienak (48) 1997tik aurrera argitaratu zituzten.

Eztabaidagarria da zenbait lan hiru mailen barruan sar ote daitezkeen. Adibide bat ikusi dugu, baina beste bat ere jar liteke. 1979 eta 1981 artean Hordago argitaletxeak ETArek argirien bilduma bat argitaratu zuen 18 liburukitan⁴⁴. Lan hori funtsezko iturrien kontsulta tresna bat da, literatura militantearen ezaugarriekin bat ez datorrena. Hala ere, azterketa honen ondorioei dagokionez, talde horretan sartzea erabaki dut, ETAk bere historiaren gertaerei buruz duen ikuskera erakusteko.

José Antonio Pardines 50 liburutan aipatua agertzen da; hau da, kasuen %71n. Beste zenbaitetan (beti ere liburu militanteetan) «Guardia zibilaren agente» gisa baino ez da aipatzen, eta gainerako %24an ez da aipatu ere egiten. Literatura motaren arabera bereiztea garrantzitsua da honako honetan, ezker abertzaleari lotuta dauden lanek Pardines ezabatzen baitute beren orrialdeetatik kasuen erdian; aldiz, kazetaritza-lanetan %86koa da aipuen ehunekoa, eta %77a lan akademikoetan.

Interesgarria da ere Pardinesen aipuen bilakaera denboran zehar egiaztatzea. 1997a baino lehen argitaratutako liburuetatik %45ak baino ez du berariaz aipatzen. Data horretatik aurrera, haren izenabizenen aipu kopurua %83raino igo zen, ia bikoitza, eta omisioak %13ra gutxitu ziren. Datu horiek bat datoz arestian egindako oharrekin, Miguel Ángel Blancoren bahiketa eta hilketaren harira, prentsan terrorismoaren biktimei tarte handiagoa eskaini zitzaiela dioenarekin alegia. Egiaztatu daitekeen bezala, ez zen soilik egunkarien kontua izan.

Bada beste alderdi deigarri bat: literatura militantean ere denboragarapen bat hautematen da. 1997a baino lehen, lan mota horien %29an baino ez zen Pardines aipatzen; ondoren, %60 bat aurki dezakegu. Jakina, horrek ez du esan nahi euskal nazionalismo erradikala ETArek biktimekiko hurbildu zenik, baizik eta zailagoa egiten zitzaiela haiei guztiz ez ikusiarena egitea.

2. TAULA

Pardinesi egindako aipamen edo omisioak literatura motaren eta garaiaeren arabera


		«GZren agentea»	Bere izenagatik aipatua	Omisia	Gutzizko orokorra
Kazetaritza liburuak	Gutzizkoa	%0	%86	%14	22
	1997-aurretik	%0	%60	%40	5
	1997-ondoren	%0	%94	%6	17
Literatura militantea	Gutzizkoa	%14	%50	%36	22
	1997-aurretik	%14	%29	%57	7
	1997-ondoren	%13	%60	%27	15
Lan akademikoak	Gutzizkoa	%0	%77	%23	26
	1997-aurretik	%0	%50	%50	10
	1997-ondoren	%0	%94	%6	16
Gutzizko orokorra		%4	%71	%24	70

ITURRIA: neuk egina.

Ikusi berri ditugun datuak eta Melitón Manzanasenak —bere ize-
narekin liburuen %93an agertzen da—, oso bestelakoak dira; hau da,
guztietan agertzen da, bostetan izan ezik. Badakigu Manzanasena izan
zela ETaren lehen atentatu planifikatua. Torturatzailer gisa zuen ospea
dela eta, begi bistakoa da literatura militanteari kasu hori azpimarra-
tzea interesatzen zaiola, eta ez Pardinesena. Baina beste mota bateko
liburuek ere tarte handiagoa eskaintzen diote beti Ikerketa Sozialeko
Brigadakori trafikoko guardiari baino. Pardines liburuen %13an baino
ez da gailentzen. Frankismoak berak azken honen hilketari eman zion
lehentasuna, eta hilketaren ondotik salbuespen egoera agindu zuten
Gipuzkoan. Baina historiaren ikuspuntutik, Pardinesen hilketa garran-
tzitsuagoa da, lehena izateagatik eta ekintza-ondorio kiribila
—geroagoko Echebarrietaren heriotzarekin batera— abiatzeagatik.

INGO GRAFIKOA:

2. Taularen hedadura. Pardinesi egindako aipamen edo omisioak literatura motaren eta garaiaren arabera



ITURRIA: neuk egina.

3. TAULA

Aipu nagusia: *Pardines edo Manzanas*⁴⁵

	<i>Manzanas</i>	<i>Pardines</i>	<i>Inor ez</i>	<i>Guztizko orokorra</i>
Kazetaritza-liburuak	%45	%14	%41	22
Literatura militantea	%82	%0	%9	20
Lan akademikoak	%65	%23	%12	26
Guztizko orokorra	%64	%13	%20	68

ITURRIA: neuk egina.

Pardinesi eta honen hiltzaileari eskainitako tartea alderatzen badugu, Echebarrieta liburuen %76an nagusi dela egiaztatuko dugu,

eta Pardinesen aipamenak, aldiz, 70 lanetatik 10etan dira nagusi. Pauso bat harago bagoaz eta literatura motan arabera bereizten badugu, datuen arabera, Echebarrieta nagusi da liburu militante guztietan, salbuespenik gabe, eta lan akademikoen %86an alajaina.

4. TAULA

Aipu nagusia: Pardines edo Echebarrieta.

	<i>Echebarrieta</i>	<i>Pardines</i>	<i>Guztizko orokorra</i>
Kazetaritza liburuak	%67	%33	21
Literatura militantea	%100	%0	20
Lan akademikoak	%86	%14	22
Guztizko orokorra	%84	%16	63

ITURRIA: neuk egina.

Gainera, liburuetakoa hirutan esaten da Melitón Manzanos izan zela ETAREN lehen biktima mortala —nahasmen hori polizia horrek hartu zuen protagonismoa dela eta azal daiteke—, eta beste bostetan, berriz, Begoña Urroz neska izan zela, 1960an, Donostiako Amarako tren geltokian bomba baten leherketak harrapatu zuena. Dagoeneko argituta geratu da bomba hori jartzearen arduraduna DRIL delako taldea, Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación, izan zela, 1964 arte jardunean aritu zen talde antifrankista eta antisalazarista (ikus III. atala).

Azkenik, apenas lan guztien %36a mintzo da Pardinesen «hilketari» buruz. Hitz hori ez da inolako liburu militantetan erabiltzen, ez baitira gidoi dogmatikotik ateratzen, eta soilik lan akademikoen erdietan agertzen da, non ez den arraroa «erori» edo «hilik gertatu» bezalako eufemismoak topatzea.

ONDORIOAK

Datuek baieztatzen dutenez, terrorismoaren biktimak leku gabe egon ziren espazio publikoan urte askoan zehar; hutsune hori ez da soilik fisikoa, maila sozial eta intelektualean ere hautemangarria da. Azken hamarkadetan hori aldatzen hasi da, batez ere laurogeita hamarreko urteen bukaeratik, baina oraindik bidea geratzen da egiteko. Historialariok eta beste zientzialari sozialek, baita kazetari eta iritzi sortzaileek oro har, ardura handia dugu terrorismoa zer eta nola kontatu behar dugun aukeratzeko orduan.

Bat nator Joseba Arregirekin, zeinaren planteamendua garbia baita: gai honetaz ari garela, ezinezkoa da neutralak izaten saiatzea, erakunde terrorista bat haren aurka egin zuen Zuzenbidezko Estatuarekin berdinduko genukeelako⁴⁶. Horrek ez du esan nahi terrorismoaren kontrako borrokan egindako zenbait legez kontraktasunaren aurrean ez ikusiarrena egin behar dugunik, baina bai da beharrezkoa erlatibizazioak eta alderaketa bidegabeak saihestea. Pisua duten zenbait egile, horien artean Donatella della Porta, nahiago dute «indarkeria politiko klandestino»z hitz egitea, «terrorismoa» anbigua delako eta erabilpen politiko faltsuen mende dagoelako⁴⁷. Baina gehiegikeria kaltegarri horiek saihesten badira, eta horien arriskua benetakoa da, «terrorismoa»k botere-tresna horrek bilatzen duen ondorio nagusia argi eta garbi adierazteko balio duela uste dut: aurkarien artean izua eragitea.

Horrek historialariaren subjektibitateari buruzko eztabaida pizten du berehala. Kontu horretan sakontzeko asmorik gabe, oso urrutira eramango baikintuzke horrek, bai berreskuratu nahiko nituzkeela bi aipu argigarri. Lucien Febvre-k «polizien pelikula bateko fiskalak bezala, printzipioetan aldakorra den moral baten izenean —edo ezkerreko zein eskuineko beren ideologiaren arabera— historiaren antzezle edo konpartsen aurka zigorrik gogorrenak eskatzen ditu[zt]en» historialarien aurkako jarrera agertu zuen. Egiatan, jarraitzen zuen Febvre-k, «historia ez da epaitzea; ulertzea da, eta ulertaraztea»⁴⁸. Merezki du esaldi horretan geratzeak, printzipio-adierazpen baliagarri bat duelako, gaizki interpretatu behar ez duguna. Lehenik eta behin, ulertzeak ez du esan nahi gure protagonisten jokabideak bidezkotzea, baizik eta gauzak modu batean edo bestean zergatik gertatu ziren azaltzen duten faktoreak bilatzea. Bigarrenik, gauzei beren izenagatik deitzea komeni da. Hilketa baten aurrean bagaude, erabil dezagun kontzeptu hori. Horrek ez du esan nahi epaileari bere lana indarrez kentzen ari gatzai-zkionik, terminologia zehaztasunez ezartzen ari garela baizik. Epaile lanetan gehiago ari da errealtatea zuritzen duten itzulinguruen bidez halako errealtate bat aipatzen ari dena, ezen ez ustez «gogorki» azaltzen ari den beste bat, historia halakoa izan zela gertatzen bada.

Febvre-ren aholku hori Tony Judtek egin zuen «adierazpenezko» historia baten defentsarekin batera dezakegu. Judten ustez, iritzirik gabeko historialari bat ez da interesgarria, trapu-saltzaile batek edukiontzi batean arropa pilatzen duen bezala kateatzen baititu historialariak iraganeko gorabeherak. Iraganeko gertaeren kontakizunean zeregin aktiboa dugula onartu behar da eragozpenik jarri gabe, baina horrek ez digu askatasuna ematen gertaera horiek aurreiritzi alderdikoietan indarrez sartzeko, prozesu historikoak zer faktorek azaltzen dituzten eta garrantzitsuak zeintzuk izan ziren aukeratzeko gaitasuna baizik, beti ere dokumentazioa oinarri hartuta eta zintzo jokatuta⁴⁹.

Febvre (1878-1956) eta Judt (1948-2010) historialari handiak belau-naldi ezberdinetakoak dira, eta ezinezkoa da jakitea historia idazteko orduan nik uztartu ditudan bi adierazpenen bateragarritasuna onartuko ote zuten: fiskal bat izan gabe, «zorrotza» izateari ez uztea. Baina harreman hori iradokitzailea iruditzen zait, eta, batez ere, praktikoa terrorismoak bezainbesteko sufrimendua eragin duten fenomenoak aztertzeke orduan, are gehiago hura bidezkatzen duten jarrera indarrean daudenean oraindik.

Lorenzo Espinosak edo Egaña Sevillak aspaldiko gatazka etniko bat dagoela azpimarratzea aukeratu dute, alde zurretikoa eta besterena, «espainiarrena», eta horrek azalduko luke geroagoko erantzun defentsibo bat agertzea, ETArene alegia. Horri eusteko, Pardines itxuragabetu behar dute beren kontakizunetan; Echebarrieta, Euskal Herriaren irudia, aldiz, martiri gisa aurkezten dute, benetako biktima gisa. Literatura militantea joera apologetikoetan oinarritzen da. Baina kazetaritza liburuetan, baita lan akademikoetan ere, batez ere 1970-1990 hamarkadetan, ez da arraroa izan ETArene ibilbidea eta ondorioak maila ezberdinean leuntzen zituzten interpretazioak agertzea, bai azterketa panoramikoak egitearren —hezur haragizko pertsonetan geratu gabe—, bai egileren batek nazionalismo erradikalaren helburuekin kidetasuna zuelako, bai Arregik aipatzen zuen ustezko «inpartzialtasun» hori bilatzeagatik.

Historiografiari egindako ekarpen onenak beste norabide batetik doaz. Asko laburtuta, esan daiteke testuinguru historikoak aurretik erabaki gabe eragiten duela. Eragina du, adibidez, terrorismoaren handitasuna azaltzeko orduan. Baina ez du haren agerpena eta garapena eskatzen. Azken batean, subjektuak dira, inguruabarren eraginpean baina haiek behartuta, zer jarrera hartu erabakitzen dutenak. Eta hainbestetan adierazi den bezala, komeni da gogora ekartzea terrorismoa beti dela gutxiengo erradikalizatu baten baliabidea. Hemen, nire egingo ditut Ute Danielen hitzak: «nire erabaki pertsonala dela eta, nahiago dut pertsonaia historikoek, zeintzuei buruz irakurtzen, entzuten edo idazten dudana, beren burua jarduletzat aitortzea, hau da, egoera historikoetara dagozkiola aitortzea, zeintzuetan jarduten duten edo zeintzuen aurrean erreakzionatzen duten; denboraren aldaketak bizi dituztenak eta beste subjektu batzuei aurre egin behar dietenak, zeintzuekin harremanak dituzten edo harremanak finkatzen dituzten. Bestela esanda: subjektu historikoak nire buruarentzat eskatzen dudana ekintza gaitasunez hornituta ikusi nahi nituzke, horretan baitatza, nire ustez, historiarekiko dudana ardura»⁵⁰.

Hortik abiatuta, iraganeko gertaera tragikoak kontatzeko garaian, ikuspegi «hotz» baten alde egin daiteke, Javier Gómezek Arabako errepresio frankistari buruz idatzitako liburuan agertzen duena bezalakoa, edo «moralagoa» den beste baten alde, Luis Castellsek ETArene terrorismoari buruz idatzitako zenbait lanetan agertzen duena bezalakoa.

Egile horiek zorroztasunez jokatzeko dute, datu deserosoak ezkutatu gabe. Gertatutako horren ezagutzan sakontzea da bien helburua. Biek argitzen dituzte beren azalpenak mikro adibideekin, giza aurpegia erakusten duten kasu zehatzekin. Egitateak deskribatzen dituzte adjektiboak aurreztuz eta alde emozionala bilatu gabe. Baina bigarrenak asmo moral bat gehitzen du, egiaren bilaketara lotua dagoena beti⁵¹. Neurri batean ikuspegi ezberdinak dira, baina ez aurkajarriak: elkar topo egin dezakete, eta elkarren artean hitz egin, metodo zientifikoari dioten begirunea dela eta. Aukeratzen den modua aukeratzen dela, kontakizuna, kasu hauetan egiten den bezala, iturrien gainean eraiki behar da, ez aurreiritzien gainean.

BIBLIOMETRIAREN AZTERKETAN ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

1. LITERATURA MILITANTEA

- AGIRRE, Joxean (koord.) (2012): *No les bastó Gernika. Euskal Herria, 1960-2010*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- ALONSO, Fernando (2005): *Por qué luchamos los vascos*. Tafalla: Txalaparta.
- ÁLVAREZ ENPARANTZA, José Luis (1997): *Euskal Herria en el horizonte*. Tafalla: Txalaparta.
- ARZUAGA, Julen (2012): *Oso latza izan da. La tortura en Euskal Herria*. Andoain: Aise Liburuak eta Euskal Memoria Fundazioa.
- BRUNI, Luigi (1987): *ETA. Historia política de una lucha armada I*. Tafalla: Txalaparta.
- CASANOVA, Iker (2010): *ETA 1958-2008: Medio siglo de historia*. Tafalla: Txalaparta.
- CASANOVA, Iker eta ASENSIO, Paul (1999): *Argala*. Tafalla: Txalaparta.
- EGAÑA SEVILLA, Iñaki (2011): *El Franquismo en Euskal Herria. La solución final*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- EGAÑA SEVILLA, Iñaki (2015a): *Iheslariak. Exilio vasco*. Andoain: Aise Liburuak y Euskal Memoria Fundazioa.
- EGAÑA SEVILLA, Iñaki (2015b): *Nuevo diccionario histórico político de Euskal Herria*. Tafalla: Txalaparta.
- EGAÑA SEVILLA, Iñaki (2017): *Breve historia de ETA*. Tafalla: Txalaparta.
- EQUIPO HORDAGO (1979): *Documentos Y*. San Sebastián: Lur, VII. lib..
- IDIGORAS, Jon (2000): *El hijo de Juanita Gerrikabeitia*. Tafalla: Txalaparta.
- LORENZO ESPINOSA, José María (1993): *Txabi Etxebarrieta. Armado de palabra y obra*. Tafalla: Txalaparta.
- LORENZO ESPINOSA, José María (1995): *Historia de Euskal Herria. Tomo III: el nacimiento de una nación*. Tafalla: Txalaparta.
- LORENZO ESPINOSA, José María (ed.) (1996): *Txabi Etxebarrieta. Poesía y otros escritos*. Tafalla: Txalaparta.
- MADARIAGA, Julen (2014): *Egiari zor*. Donostia: Erein.
- MONZÓN, Telesforo (1986): *Hitzak eta idazkiak*. S. 1.: Jaizkibel.
- NÚÑEZ, Luis (coord.) (1993): *Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la Libertad, 1966-1969. La V Asamblea*. Tafalla: Txalaparta, II. lib..

- PEREIRA, Rui (2001): *La guerra desconocida de los vascos*. Tafalla: Txalaparta.
- ZABALZA, Ricardo (Colectivo) (2000): *Voluntarios. Semillas de libertad*. Tafalla: Txalaparta.
- ZABALZA, Ricardo (Colectivo) (2015): *ETA: una historia en imágenes, 1951-1978*. Tafalla: Txalaparta.

2. SAIAKERAK ETA KAZETARITZA-LIBUTRUAK

- ALONSO, Rogelio, DOMÍNGUEZ, Florencio y GARCÍA, Marcos (2010): *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madril: Espasa.
- ARJONA, Daniel eta FERNÁNDEZ, Silvia (coords.) (2006): *1968: las primeras víctimas de ETA*. Madril: Unidad Editorial.
- AULESTIA, Kepa (1993): *Días de viento sur. La violencia en Euskadi*. Bartzelona: Antártida - Empúries.
- AULESTIA, Kepa (1998): *HB. Crónica de un delirio*. Madril: Temas de Hoy.
- BAEZA, Álvaro (1995): *ETA nació en un seminario: el gran secreto: historia de ETA de 1952-1995*. Madril: ABL.
- BATISTA, Antoni (1999): *Diario privado de la guerra vasca*. Bartzelona: Plaza y Janés.
- BIZKARRALEGORRA OTAZUA, Elisabete (2017): *Ser basque izan: la resistencia vasca no violenta en el franquismo (1957-1977)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- CALLEJA, José María (1997): *Contra la barbarie. Un alegato a favor de las víctimas de ETA*. Madril: Temas de Hoy.
- CALLEJA, José María (2006): *Algo habrá hecho. Odio, muerte y miedo en Euskadi*. Madril: Espasa.
- CALLEJA, José María eta SÁNCHEZ-CUENCA, Ignacio (2006): *La derrota de ETA: de la primera a la última víctima*. Madril: Adhara.
- CARCEDO, Diego (2004): *Sáenz de Santamaría: el general que cambió de bando*. Madril: Temas de Hoy.
- FEIJOO, María (2016): *Zagales: de Extremadura a Zarautz durante la gran emigración*. Zarautz: Zarautzko Udala.
- FERNÁNDEZ CALDERÍN, Juanfer (2014): *Agujeros del sistema. Más de 300 asesinatos de ETA sin resolver*. Gasteiz: Ikusager.
- GURRUCHAGA, Carmen (2001): *Los jefes de ETA*. Madril: La Esfera de los Libros.
- IRUJO, José María eta ARQUES, Ricardo (1993): *ETA, la derrota de las armas: todas las sombras, secretos y contactos de la organización terrorista al descubierto*. Bartzelona: Plaza & Janes.
- KURLANSKY, Mark (2015): *La historia vasca del mundo*. Bilbo: El Gallo de Oro.
- MARRODÁN, Javier (coord.) (2013): *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra, 1960-1986*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Ingo lib.
- MORÁN, Gregorio (2003): *Los españoles que dejaron de serlo: cómo y por qué Euskadi se ha convertido en la gran herida histórica de España*. Bartzelona: Planeta. (1ª ed.: 1982).
- PORTELL, José María (1974): *Los hombres de ETA*. Madril: Dopesa.
- SÁNCHEZ, Manuel eta SIMÓN, Manuela (2017): *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*. Bartzelona: Península.
- SEGURA, Antoni (2009): *Euskadi: crónica de una desesperanza*. Madril: Alianza.
- SILVA, Lorenzo, SÁNCHEZ, Manuel y ARALUCE, Gonzalo (2017): *Sangre, sudor y paz. La Guardia Civil contra ETA*. Bartzelona: Península.

3. LAN AKADEMIKOAK

- ARANZADI, Juan (2001): *El escudo de Arquíloco. Sobre mesías, mártires y terroristas. Vol. I. Sangre vasca*. Madril: Antonio Machado.
- ARANZADI, Juan, JUARISTI, Jon eta UNZUETA, Patxo (1994): *Auto de terminación. (Raza, nación y violencia en el País Vasco)*. Madril: El País Aguilar.
- ARETXAGA, Begoña (1988): *Los funerales en el nacionalismo vasco radical. Ensayo antropológico*. Donostia: Baroja.
- ARREGI, Joseba (2015): *El terror de ETA: la narrativa de las víctimas*. Madril: Tecnos.
- CASANELLAS, Pau (2014): *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada. 1968-1977*. Madril: Los Libros de la Catarata.
- CASQUETE, Jesús (2009a): *En el nombre de Euskal Herria. La religión política del nacionalismo vasco radical*. Madril: Tecnos.
- CLARK, Robert P. (1984): *The Basque Insurgents: ETA, 1952-1980*. Wisconsin: University of Wisconsin Press.
- ELORZA, Antonio (koord.) (2000): *La historia de ETA*. Madril: Temas de Hoy.
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka (2016): *La voluntad del gudari. Génesis y metástasis de la violencia de ETA*. Madril: Tecnos.
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka eta LÓPEZ ROMO, Raúl (2012): *Sangre, votos, manifestaciones. ETA y el nacionalismo vasco radical (1958-2011)*. Madril: Tecnos.
- GARMENDIA, José María (1979): *Historia de ETA*. San Sebastián: Haranburu, II. lib.
- GRANJA, José Luis de la (2000): *El nacionalismo vasco (1876-1975)*. Madril: Arco Libros.
- IBARRA, Pedro (1989): *La evolución estratégica de ETA. De la «guerra revolucionaria» (1963) hasta después de la tregua (1989)*. Donostia: Kriselu (Ingo argit.: 1987).
- JÁUREGUI, Gurutz (1985): *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*. Madril: Siglo XXI. (Ingo argit.: 1981).
- JUARISTI, Jon (1997): *El bucle melancólico. Historias de nacionalistas vascos*. Madril: Espasa.
- JUARISTI, Jon (1999): *Sacra Némesis. Nuevas historias de nacionalistas vascos*. Madril: Espasa.
- LETAMENDIA, Francisco (1994): *Historia del nacionalismo vasco y de ETA*. Donostia: R&B. 3 lib.
- LÓPEZ ROMO, Raúl (2015): *Informe Foronda: los efectos del terrorismo en la sociedad vasca*. Madril: Los Libros de la Catarata.
- MOLINA, Fernando (2012): *Mario Onaindia (1948-2003). Biografía patria*. Madril: Biblioteca Nueva.
- MURO, Diego (2007): *Ethnicity and violence: the case of radical Basque nationalism*. New York: Routledge.
- PABLO, Santiago de (2017): *Creadores de sombras: ETA y el nacionalismo vasco a través del cine*. Madril: Tecnos.
- PAYNE, Stanley G. (1974): *El nacionalismo vasco: de sus orígenes a la ETA*. Bartzelona: Dopesa.
- SÁEZ DE LA FUENTE, Izaskun (2002): *El Movimiento de Liberación Nacional Vasco, una religión de sustitución*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- SÁNCHEZ-CUENCA, Ignacio (2001): *ETA contra el Estado. Las estrategias del terrorismo*. Bartzelona: Tusquets.
- SULLIVAN, John (1988): *El nacionalismo vasco radical, 1959-1986*. Madril: Alianza.
- WIEVIORKA, Michel (1991): *El terrorismo. La violencia política en el mundo*. Bartzelona: Plaza & Janés.

V. ATALA

GIZONETIK SINBOLORA. PARDINES,
ETAren LEHEN BIKTIMA

JOSÉ ANTONIO PÉREZ PÉREZ

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
(UPV/EHU)*

JAVIER GÓMEZ CALVO

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
(UPV/EHU)*

2015eko irailaren 23an DGSIak, *Direction Générale de la Sécurité Intérieure*-ak, eta Guardia Zibilak David Plá eta Iratxe Sorzábal Díaz atxilotu zituen, ETAko bi azken arduradunak une hartan. Bi poliziek elkarlanean burututako operazio batean gertatu zen Baigorri (Frantzia). 2011ko urrian bideo grabaketa baten bidez erakunde terroristaren «jarduera armatuaren» behin-betiko uztea iragarri zuten hiru kaputxadunetako bi ziren¹. Terrorismoaren amaieraren iragarpena egin eta apur bat geroago, bi etakideak Norvegiara joan ziren Espainiako Gobernuarekin negoziazio bat hasiko zain, 2011ko urriak 17an nazioarte mailako pertsona ospetsu talde batek sinatutako Aieteko Adierazpenak planteatzen zuen bezala. Hala ere, orduan dagoeneko Mariano Raxoy buru zuen Exekutiboak uko egin zion negoziazioa burutzeari. 2013ko otsailaren 18an ETAko ordezkariak, *Josu Ternera* barne, kanporatu zituzten herrialdetik Norvegiako Exekutibaren bermearekin jarduten ari zen Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin izandako desadostasunak medio.

Horregatik, Guardia Zibilaren ikerketek abian jarritako polizia operazioak sinbolismo ikaragarria zuen, baita ikuspegi politiko eta historikotik ere. Eta inguruabarren mailan egongo zen izen bat behar zuten, betiko gogoratua izango zena eta, aldi berean, erakunde terroristaren biktimak omentzeko balioko zuena. Erakunde horrek zortzie-

hun pertsona baino gehiago hil zituen azken berrogeita hamar urtetan. Aukeratutako izena ezin zen beste bat izan: «Pardines operazioa», 1968aren ekainaren 7an erail zuten bere kidearen omenez, ETaren lehen biktima izan zena. Beneméritak berak zabaldutako ohar batean, operazioaren izenaren sinbolismoaren garrantzia azpimarratu zuten: «Etakideek hiltzera zihoazela hilik gertatu ziren terroristen izenak jaritzen dizkiete beren komandoei; guk gure heroiak ohoratzen ditugu horrelako operazioekin».

Zalantzarik gabe, sinbolismo sakoneko omenaldia zen, eta operazio antiterrorista haren garrantzia azpimarratu, eta Espainiako demokraziaren atal zorigaitzuetako bat itxi nahi zuen.

I. JOSÉ ANTONIO PARDINES, ETAREN LEHEN BIKTIMAREN SINBOLISMOA

1968ko ekaineko arratsalde hartan José Antonio Pardines Arcay hil zuten lekua orduan bezain leku interesik gabea eta desatsegina da gaur egun, Madril eta Irun lotzen dituen I Nazionean beste edozein errepide tarte eta bazterbide bezalakoa². Gaur egun ez dago leku horretan krimena gogora ekartzen duen inolako plaka, lorratz edo idazkunik³. Eta hala izan zen hamarkadetan zehar, 1993ra arte bederen, Jorge Oteiza euskal eskultore bikain eta eztabaidagarriak polemika ospetsu bat sortu zuen arte, beste bat gehiago. Oteiza bi puntu elkartzan saiatu zen: Gipuzkoako Aduna herriaren irteeran erabat ahaztuta zegoen leku hura, zeinean Pardines erail zuten, eta Tolosako Venta Aundiko beste puntu bat, haren hiltzaile Txabi Echebarrieta hilik gertatu zen lekua, sinbolismo handiz betetakoa, hamarkadetan zehar mundu abertzaleak ohoratu duena⁴.

Oteiza Echebarrietarekin lankidetzan aritu zen ETaren Fronte Kulturean hirurogeiko urteen erdialdean; *Zutiken* azal bat ere margotu zuen, erakundearen prentsa buletina, eta estimu ikaragarria zion itxura ahuleko gazte jantzi eta geldiezin hari, zeinari omenaldia egin nahi zion haren heriotza gertatu zenetik 25 urtera. Euskal eskultoreak orduan Juan Alberto Belloch buru zuen Justizia eta Barne Ministerioaren burofax bat jaso zuen 1993ko martxoaren 22an. Bellochen aholkularietako batek sinatu zuen mezua, José Luis Zalbidek, ETaren buruzagi ohi historiko batek.

Hiru hamarkada geroago, Zalbidek izan zuen bilakaera politikoa dela eta, Justizia eta Barne Ministerioaren taldeko kide izatera heldu zen, non atsekabe une izugarriak bizi zituzten. Egun batzuk lehenago, ETak guardia zibil bat hil berri zuen Donostian, Emilio Castillo López de la Franca, Beneméritaren kabo bat, eta Pardinesen oroimena eta

haren hiltzailearena sinbolikoki uztartzearen asmo hura deserosoa egin zitzaion Ministerioari. Arantzazuko santutegi sakratuaren sortzaileetako bati zuzenean zuzentzen ari zaion norbaiten tonu txeratsu eta begirunezkoan, Zalbidek honako hau erantzun zion:

Maite zaitut, eta pasatzen ari zaren infernuak sakonenean ematen dit min. Badakit duela ia berrogei arte sumatu zenuen 13. apostolua bezala sentitzen zarela. Esaten duzun guztia ulertzen dut, eta ulertzen zaitut ere. Jarri nahi, duela ia berrogei urte sumatu zenuena. Neronek jarri nahi nuke Pare Mugikorra Txabi [Echebarrieta] erori zen lekuan, baina uste dut hori ez dela posible izango orduan sortu genuen munstroak gizakiak hiltzen jarraitzen duen bitartean. Arrazoi beragatik, uste dut edozer pentsatu, esan, egin... daitekeela Guggenheimaren inguruan, Deabruari dei egitea izan ezik, lagun diezagun. Nahi dudan azkeneko gauza da inork ez dezala zure izena lotu Ryan berri baten hilketarekin⁵.

Oteiza jada gizon edadetua zen orduan, sumendi-izaerako jeinu deprimitu bat, bere obra eskultoriko eta filosofikoarekin esanahiz bete zuten herriaren aldetik esker ona eta ulermena behar zuena. Oroitzapezko eskultura altxatzeko debekua eta Lemoizko zentral nuklearreko ingeniari buruaren erailketaren —ETAk ordu arte burutu zuten krimenik ikaragarrienetakoa— aipamen hura zekartzan mezu hark atsekabettuta eta sakonki zauritua utzi zuten eskultorea. Erantzun labur bat baino ezin izan zuten eman: «Guk ez genuen munstro hura sortu»⁶. Gobernuak omenaldi hari eman zion ezezkoaren aurrean, Oteizak, bihozminduta, lerro bat gehiago erantsi zion bere erantzun labur eta eroriari: «Hau da, gure herria zapaltzen eta hondatzen utzi behar dugu»⁷.

Eskultorearen esaldi gordinean gaitzespenaren pisu handia zegoen. Oteizaren ustez, muntaketa eskultorikoan era horretan amore ematea beste umiliazio modu bat zen, herria suntsitzekoa. Beste irain bat. *Oroi-menaren pisua* eta Euskadin indarkeria politikoa eragin zuten tragedia-
ren lehen eszena nolabait ixteko ezintasuna, sinbolikoki bederen. Desadostasuna eragin zuten Pare Mugikorra Oteizaren identitate-metafisika bitxiaren zati zen, eta haren barruan ulertu beharreko eskultura. Metafisika horrek berak argitu zuten bere *Quosque tandem, ensayo sobre el alma vasca* ospetsua, bere garaiko liburu hausle eta iraultzaileenetakoa, Federico Krutwigen *Vasconia* argiratu zen urte berekoa. Eskulturak bi zirkunferentzierdi zituen, bata bestearen gainean muntatuak, euskarri-rik gabe lurrean, bulkada txikienarekin ere bira egingo zutenak mugimendu birakari iraunkor batean. Oteizaren esanetan, *iraultza iraunkorrari* egindako omenaldia zen, eta Echebarrietak iraultza hura nortu eta betikotu zuten bere sakrifizioarekin. Zalantzarik gabe, lan irudimentsua zen, eta eskultoreak bere talentu guztia jarri zuten Tolosako

Udalak bultzatutako herri-ekimen hartan. Gipuzkoako herri hura euskal artista entzutetsuen eskulturez betetzea zen asmoa, aire zabalean benetako museo bat eraikitzea. Baina Oteizak egin nahi zuen eskultura hori baino askoz gehiago zen, eta beste ondorio batzuk zituen. Venta Aundi eta Echebarrietak berak Pardines erail zuen lekua elkartu nahi zituen, minari, sakrifizioari eta berradiskidetzeari buruzko metafora halako batean, martirien aldare batean, eta biak indarkeria beraren biktima gisa aurkeztu. Altzairuan urtutako «Euskal gatazka»ren inkarnazio eskultorikoa zen, Euskal Herriak jasandako gaitz guztien jatorria eta justifikazioa, Espainiarekin zuen errukirik gabeko gerra aipatzeko ezker abertzaleak urte horietan berreskuratu zuen definizio berriaren arabera⁸.

Tirabirak eta hark zenbait mediotan —bai kazetaritzakoak, bai kultural eta politikoak— eragin zuen polemikak ordu arte uniforme soil bat baino ez zen José Antonio Pardinesen oroimen labur eta txikia ahanzturatik berreskuratzen lagundu zuen neurri batean. Garai hartan, biktimen oroimenaren presentzia publikoa hiletetara eta kazetaritza-erreportajeren baten errutinazko oroitzapenera mugatzen zen, non agente horren abizena aipatzen zen ETaren historiari heldu aurretik. Bi heriotzen, Pardinesena eta Echebarrietarena, agertokiak sinbolikoki lotzeko Oteizak egin zuen ahalegina baino hilabete gutxi batzuk geroago, zenbait talde bakezalek, Gesto por la Paz eta Denon artean buru zituztela, ekimen hura gauzatu, eta giza kate bat osatu zuten Aduna eta Tolosaren artean. Azkenean, 1993ko abenduaren 26an Gipuzkoan egin zuen eguraldi txarra zela eta, bertan behera utzi behar izan zuten ekitaldia, eta, horren orde, elkarretaratze bat egin zuten herri hartan⁹. Bakea eta berradiskidetzea ikuspegi humanista batetik aldarrikatzea helburutzat zuen kanpaina batean inspiratua zegoen talde horien ekimena¹⁰.

Urte gutxiren buruan, biktimen oroimenaren aitortza eta presentzia publikoa modu erradikalean aldatu zen Euskal Herrian eta Espainiaren gainerakoan, batez ere Miguel Ángel Blanco PPko zinegotziaren hilketa krudelaren ondotik. Ermuak katarsi kolektibo bat eragin zuen, terrorismoaren biktimen oroimenaren aldarrikapenari behin betiko bultzada eman ziona, baina oraindik laurogeita hamarreko urteen hasieran isiltasuna eta ahanztura biktimen eguneroko errealitatearen zati ziren, eta biktima gehienak ordena publikoaren indarren kideak ziren.

Pardinesek irudikatzen duen gizakiaren memoria eta sinboloa ahanzturatik berreskuratzeko krimenaren unera arte atzera egin behar dugu.

1968ko ekainaren 7an Adunan jazotako gertaera izugarriek Euskal Herriaren historia garaikideena markatu dute, eta historia hori, modu batean zein bestean, erakundeari lotuta dago hura hamar urte lehenago

sortu zenetik. Orrialde hauetan beretan gogora ekarri dugun bezala, egun hartan Madril eta Irun artean konpontzen ari ziren tarte batean trafikoa zuzentzen ari zen Jose Antonio Pardines erail zuen ETAk. Gaizka Fernández Soldevilla historialariak heldu die krimenaren inguruabarrei liburu honetan, bai eta xehetasunez aztertu ere (ikus III. atala). Gertaeren berreraikitzeak gezurtatu egiten du ETAk eta haren inguruak ordu batzuk geroago horrenbeste arrakastarekin zabaldu zuten kontakizun epikoa. Hala ere, bi gizon gazteren irudi zinematografiko (eta faltsu) txundigarri hura, zeinean Guardia Zibilaren agente bat eta buruzagi politiko bat aurrez aurre dauden, pistola beren zorrotik ateratzen, belaunaldiz belaunaldi bolo-bolo zabaldu zen iruditeria horren zati da, eta oraindik ere nazionalismo erradikalaren heroi eta martirien oroimen-ondarea apaintzen jarraitzen du (ikus VI. atala). Irudi horrek, zapaltzailearenak, armatutako inbasorearenak, «txakurra»renak —Francoren erregimenaren morroi huts bat— eta, inguruabarrek bultzatuta, bere bizitza eta mehatxupearan dagoen eta berak ordezkatzeko duen Herri oso batena defendatzeko arma bere zorrotik ateratzeko beharrean dagoen askatzaile errugabe, zaurgarri eta heroikoarenak, irudi horrek «euskal gatazka»ren metafora tragikoa adierazten du¹¹. Eszenak, azken batean, urteetan zehar iraun duen ideia bat irudikatu zuen ezin hobeki eta modu grafikoan: ETAreN indarkeria saihetsezina izan zen, erakundeak ez zuen inoiz bilatu, eta, azkenean, hura gertatu zenean, Euskal Herria jasaten ari zen zapalkuntza genozidari erantzuna emateko izan zen¹².

Egiantan, zenbait egilek nabarmendu duten bezala, ETA erakundea bere sorreratik ari zen eztabaidatzen eta gogoeta egiten ekintza sinbolikoagoetatik atentatu hilgarrietara pausoa emateko beharrari buruz¹³. Pardinesen hilketa ez zen planifikatua izan, ez zen erakunde honen aurkako operazio batean gertatu ere, baina Gipuzkoako Gobernu Zibilak atentatuaren ondotik gogora ekarri zuen bezala, aste batzuk lehenago guardia zibil batzuen emazteek zenbait mezu anonimo jaso zituzten, zeinetan herio-mehatxua egiten baitzitzairen beren senarrei. Agintariek prentsan errepikatu zuten testuaren edukia, Euskal Erresistentziaren Batzorde Betearazleak sinatua¹⁴, benetan kezkarria zen Benemeritako agenteei egindako mehatxuen tonu gordin eta zuzenagatik:

Euskal nazioaren indar guztiak borrokarako prest daude; horregatik, zure senarra mendira doan edozein egunetan (badakigu bide arraroetatik dabilela), ez litzateke harritzekoa burua soin-enborretik bereizia agertzea, edo gorputza balaz josia. Lehena izango litzateke, baina ez azkena, eta tamalgarria litzateke, gu ez garelako ari zure senarraren aurka borrokan, Madrileko erregimenaren aurka baizik, zure senarraren goikoen aurka, gure Aberria kateatuta duten horien aurka, eta zure senarra haiek lagun-

tzen ari denez, haren aurka borrokatu beharko dugu, hura hil eta zintzurra moztuko diogu, beharrezkoa bada. Oraindik ez dira gertatu kuartelen aurkako atentatu eta erasoak, baina etorkizun hurbil batean etorriko dira, horretarako ari baikara lanean, eta horregatik ohartarazten dizut senarra konbentzitzeko, Euskal Herriaren aurka egiten dituen jarduerak alde batera utz ditzan. Orain garaiz zabilta, gero berandu izan daiteke, aberriaren aldeko jarduerak gora egingo baitute (...). Euskal Herriaren aurkako jarduerak egin dituzten guztiak ez dira fusilatuak izango, zintzurra moztuko diegu, eta haien gorpuak zakurretara botako ditugu, haien odola edan dezaten, eta hondakinak mendira botako ditugu, putreek jan ditzaten. Alferrik izango da ihes egitea, judutarrek beren hiltzaileak aurkitu zituzten bezala, haiek ere aurkituko baitituzte. Eta behin aurkituta, izurrite bat balira bezala sarraskituko dituzte, infernura bidaltzeko¹⁵.

Hilketaren ondotik, bi etakideek lasterka ihes egin zuten gertaeren lekutik, eta Guardia Zibilaren bikote batek gerarazi zituen Venta Aundin apur bat geroago. Miaketaren ostean, tiroketa bat izan zen agenteen eta etakideen artean, eta Echebarrieta, zeinaren mitoa une hartan jaio zen, hilik gertatu zen (ikus III. atala). Era horretan, euskal *Ché* bihurtu zen, Espainiak odol hotzean hildako gerrillaria, Gerra Zibileko gudariak piztutako zuziaren lekukoa hartu zuen lehen martiria (ikus VI. atala). Eta su-lama horrek kontakizun abertzalean herri oso baten bidea argitzen eta adierazten zuen bitartean, José Antonio Pardines Arcayren oroimena itzali egin zen. Euskal Herriaren oroimen kolektiboan haiek biez geratu den oroimenak —abertzaletasunak, eta ez bakarrik erradikalak, arrakastaz patrimonializatu duena— Echebarrietaren irudia handiagotu du, eta hura handiagotu duen bezainbeste txikiagotu du gutxienez José Antonio Pardinesena, hura desagerrarazteraino.

Gertaera dramatiko haien hurrengo orduotan hasi zen dena sortzen, ETAk eta haren inguruneak gertaeren kontakizun manipulatu bat zabaltzen hasi zirenean. Antifrankismoak nabardurarik gabe onartu zuen kontakizun hura, bai Euskal Herrian, baita kanpoan ere. Echebarrieta euskal aberriaren aldareetara igo zuten; aitzitik, José Antonio Pardines Arcay, gizona, gizakia, gazte eraila, ahanzturara kondenatua izan zen. Harengandik abizena baino ez zen geratu, ETAREN biktimen zerrenda luzearen, oso luzearen, lehena, baina gainerako biktimak ere ahaztuak izan ziren ere orain dela gutxi arte (ikus IX. atala). Gaur egun ere, ETAk Espainiaren aurka deklaraturako askapen antikolonialeko gerran «euskal kausa»ren lehen martiri bezala ospe eta aitortza sozial eta politikoa du Echebarrietak, eta, hori dela eta, ehunka omenaldi jaso ditu, eta haren ibilbidea iruzkintzen duten eta ikasle konprometitu, buruzagi eta are idazle bezala zituen bertuteak nabarmentzen dituzten zenbait liburu eman dituzte argitara. Kopeta-ilea eta betaurreko graduatuak zituen gazte irribarretsu haren

irudia ehunka pintada, afixa eta argitalpenetan behin eta berriz errepikatu den ikono baten zati da. Neurrigabeko ustiapen propagandistiko horren aldean, Pardinesen irudi gatzgabea berehala geratu zen historiaren pisuaren azpian lurperatuta, eta historia horrek terrorismoaren biktimak berdintzeko joera izan zuen, haiek desagerrarazteraino. Badira esanguratsuak diren inguruabarrak. José Antonio Pardines Guardia Zibila bezalako kidego baten kidea zen, ETaren aurkako jazarpenean protagonismo handia izan zuena, baina baita erakunde antifrankista gehienek bultzatutako oposizio baketsuaren jazarpenean ere, eta horrek eragina izan zuen hasiera-hasieratik kolektibo horretako biktimen estigmatizazioan. Azken batean, Pardines diktaduraren makineria errepresiboaren beste katebegi bat zen, gerra baten lehen biktima, «euskal erresistentzia berri»a diktaduraren aurka burutzen ari zena.

Guardia Zibilek hil zutenez, horrek Pardinesen hilketarengatik errugabetu zuen Echebarrieta. Gertaera horien ondorioek —eta haietaz egin zen irakurketarenak— politika eta moralaren artean lubaki bat zabaltzen lagundu zuten. Nazionalismoarentzat, eta ez bakarrik erradikalarentzat, Euskadirentzat irekitzen zen etorkizun hurbila azaltzera eta/edo bidezkozera zetorren suzko froga zen. Komunitate oso baten eta militante eta jarraitzaile belaunaldi oso baten totem autoerreferentzial eta zentral gisa ETAk zuen nonahikotasunak markatu zuen etorkizun hurbil hori, eta antifrankismoaren osotasunera hedatzen amaitu zuen. Jon Juaristik honako hau idatzi du:

Etxebarrietaren heriotzak Pardinesen hilketa onartzeko edo gaitzes-teko aukeran jarri zituen pribatuki bere burua nazionalistatzat zuten guztiak. Etxebarrieta hil izan ez balitz —une batez historia birtualera nator—, gaitzetsi egingo zuketzen zalantzarik gabe. Baina hura Benta Haundin tiroz hil eta gero gaitzetsi izan balute, Guardia Zibilaren «mendekua» onartzea ekarriko zukeen horrek (hala ikusi baitzen Javierren heriotza, mendeku bat bezala). Komunitate euskal-nazionalista odolezko hitzarmen horren gainean berreraiki zuten (eror bedi gure gainera Pardinesen odola, eta haien gainera Etxebarrietarena). Etakidea biktima errugabea bihurtzean, euskal gizartearen zati handi batek bere onespentazitua eman zion guardia zibilaren heriotzari¹⁶.

1977tik aurrera, Euskal Herria astintzen hasi zen hilketen errutina odoltsuak terrorismoaren biktimen oroimena lausotzen lagundu zuen, baina, egiatan, prozesua hamarkada bat lehenago hasi zen Adunako errepide hartan. Hirurogeita hamarreko eta lauogeiko hamarkadetakako prentsari begiratu bat emanez gero, errealitate horretaz ohartuko gara. 1978 eta 1980 urteen artean, terrorismoaren urte gogorrenetan, ETako biktimek prentsari zuten presentzia eta, batez ere, Guardia

Zibileko kideek zutena —ETAk gehien zigortutako kidegoa— kasu gehienetan bi albistetara mugatzen zen: hilketarena eta hiletarena. Goizeroko gosaria atentatu hilgarri batekin egin behar zuen errealtate zorabiagarri haren bilakaerak biktimekiko enpatia eta arreta falta erabatekoa ekarri zuen informazioaren dinamikara¹⁷. Diktaduraren amaieratik laurogeiko urteen hasierara jazotako gertaeren erritmo azkarra eta gaurkotasun politiko sutsuarekin eta terrorismoarekin lotutako zernahi albisteren berri emateko beharra zela eta, biktima bakoitzaren izena azkar ahaztu zen, batez ere ordena publikoaren indarren kideak baziren, eta gizatasunik gabeko uniforme soiletara murriztuak izan ziren.

II. BIOGRAFIARIK GABEKO BIKTIMA

José Antonio Pardines Arcay Malpica de Bergantiñosen (A Coruña) jaio zen 1943ko ekainaren 1an. Galiziako herri horrek 7.500 biztanle baino zertxobait gehiago zituen une hartan, eta gehienak arrantzatik eta hartatik eratorritako lanetatik bizi ziren. Bizilagun zahar batek honela goratzen zuen Pardinesen irudia hura haurra zenean:

Ez zen oso mutil altua, zuria zen, ama bezala. Amaren antzekoa atera zen gauza guztietan, eta ama oso neska polita zen, oso ondo egina, eta lotzailea zen (arrantzako sareak konpontzen dituzten emakumeak). Eta haren ama, Guardia Zibilaren ama, Domingo Lapitaren erraina, herriko politena izan zen¹⁸.

Domingo Arcay aitonarekin hasi zen arrantzarako tradizioari amak, Estrellak, eman zion jarraipena, lotzaile gisa, baina José Antoniok ez zuen tradizio hura oinordetu. 60ko urteen hasieran Espainian bizi ziren estutasun ekonomikoek Guardia Zibilean, arrotza ez zitzaion kidego batean, sartzera bultzatu zuten. 2008an, Pardinesen hilketaren berrogeigarren urteurrenean, bere anaia Manuelek, denborarekin Malpica de Bergantiñoseko alkate aukeratuko zutenak, elkarrizketa labur bat eskaini zion *Público* egunkariari, non zertzelada gutxi batzuetan familiaren egoera azaldu zuen, baita José Antonioren etorkizuna erabaki zuten inguruabarrak ere:

Hiru anai-arreba ginen, ez zegoen dirurik denek ikasteko. Nire ama hilda zegoenez, izeba bat zegoen gurekin. Eta gure izebak seme bat zuen. Lau neska-mutiko ginen (...) José zen zaharrena; lanean hasi behar zuen bere anai-arrebek ikastea nahi bazuen. Garai hartan ez zegoen gauza gehiegi. Eta, gainera, bera ez zen ikasle oso ona¹⁹.

Pardinesen aitona Benemeritako kidegoaren kide izan zen, eta aitak jardunean jarraitzen zuen Institutu Armatuaren barruan. Familiako tradizioa gorabehera, José Antonio gaztearentzat ez zen erraza izan Guardia Zibilean sartzea, haren garaierak, 1,66 metrokoa ozta-ozta, zentimetro urri bakar bategatik gaingitzen baitzuen galdatutako gutxieneko garaiera. 1963ko apirilean, 19 urte doi-doi zituen mutiko hark futbolera jokatzeko ametsa alboratu, eta Victoria de San Lázaro taldeko botak aldatu zituen aitak jantzita zeraman —eta lehenago aitona jantzita eraman zuen— uniforme berdeagatik²⁰.

José Antonio Pardines Arcay gazteak 1963ko apirilaren 23an hasi zuen bere ibilbidea Guardia Zibilean, Bartzelonako Eskualdeko Instrukzioko Akademian, eta urte hartako uztailaren 15era arte egon zen han. Bartzelonatik Tudela Vegúnera (Oviedo) igaro zen, eta aste batzuk geroago motozale espezializazioa egitea eskatu zuen Madrileko Ibilgailuen ataleko Komandantzian. 1963ko abenduaren 18an bukatu zuen kurtsoa. Bi urte geroago, 1966ko urtarrilaren 8an, José Antonio Donostiako Guardia Zibilaren Trafikoko Azpisektorerara bidali zuten, non bere soldatu apala hobetuko zioten lehen hirurtekoa bete eta gero. Donostian emandako lehen urtean, José Antonio Pardinesek zenbait baimen izan zituen Ferreira de Pantónen (Lugo), eta litekeena da Donostian eroso ez egotea, 1967ko urtarrilaren 3an Asturiasera itzultzea eskatu baitzuen. Urte hartako otsailaren 3an 20 eguneko baimen berri bat izan zuen Galizian, baina handik Gipuzkoako hiriburura itzultzean zerbait aldatu zen, eta han jarraitzea eskatu zuen²¹. Kontuan izanda zorigaiztoko 1968ko ekainaren 7ra arte eskatu zuen azken baimena izan zela, oso litekeena da bat-bateko aldaketa hartan Emiliak zerikusia izatea. Emilia Salamancako neska gazte bat zen, Usurbilera bizitzera joana, eta harekin harreman sentimental bat hasi zuen Pardinesek²².

Txabi Echebarrietak José Antonio Pardinesi tiro egitea aukeratu eta hura hil zuen unean, kaltegilearen mitoa jaió, eta biktimaren oroitzapenaren oroimena hil zen. ETAk hildako lehen biktima mortalaren aldeko hiletak haren aitaren bizi arteko heriotza ekarri zuen; José 2017ko urriaren 1an hil zen, semearen oroitzapenaz hitz egin ahal izan gabe, bere beste hiru semeetako bat apur bat geroago galdu izanaren minaz eta haiek emaztearen babesik gabe hezi behar izanaren zailtasunaz hitz egin ahal izan gabe ere, Estrella Arcay 36 urte doi-doi zituela hi baitzen²³.

Ekainak 9an, igandea, «córporo insepulto» tankerako meza ospatu zen Donostiako Ospitale Militarren kaperan. Egun haietako prentsak gogora ekartzen duenez, ekitaldi erlijiosoak erregimenaren ordezkaritza politiko eta militar zabal eta nabarmena bildu zuen²⁴. Jarraian, Guardia Zibilaren motozale sekzio bat buru zuela, Gipuzkoako hiri-

buruaren kale erdialdeenetakoz batzuk zeharkatu zituen La Perlaren inguruetaraino, eta han agur esan zioten doluari, begirunezko isiltasuna erakutsi zuen jende askoren artean. Agur esan zitzaion han hildakoaren gorpuari, eta bere jaioterrira eramanez zuten, Benemeritakoz zenbait unitatek lagunduta. Hileta hurrengo egunean ospatu zen San Julián de Malpica elizan, atsekabe sakon baten erdian, arrantza-herriaren jarduera geratu zuena²⁵.

Garaiko kazetaritza medioek oihartzun handia eman zioten hilketari, eta estaldura aipagarria eskaini zieten atentatuari eta ordu batzuk geroagoko gertaerei. ETA bezalako erakunde baten lehen atentatu hilgarria zen. Ordu arte zenbait eraso egin zituen, baina oraindik ia-ia ezezaguna zen Euskal Herrikan kanpo bizi zen espainiarren gehiengo oso handi batentzat. Bai eskualdeko prentsak bai nazionalak datuak eta informazioak jaso zituen, erreakzio politikoak eta agintarien zenbait adierazpen, gertaerak berreraikitzeke aukera eman zutenak, baina Pardines familiarentzat krimenak izan zuten eragin izugarriari buruz ez zuten ia berririk eman. Soilik berrogei urte geroago jakin ahal izan genuen, modu laburrean jakin ere, Guardia Zibilaren agente gazte haren hilketak haientzat izan zituen ondorioak.

Egun batean telefonoak jo zuten, eta (nire aitak) Donostiara joan behar izan zuten. Kontu hark betiko ukituta utzi zuten nire aita. Kontuan izan nire ama 36 urterekin hil zela. Ondoren José hil zen, 25ekin. Eta anai-arreba gazteena 38rekin. Nik min-bizia izan nuen, baina, zorionez, ondo joan zitzaidan. Baina nire aitak 88 urte dauzka, eta ni ikusten naueanean Jainkoa ikusten du²⁶.

Hitz horiek jasotzen zituen elkarrizketa laburrak honako izenburu adierazgarri hau zuen: «Pardinestartarrak, bakardadean negar egin behar izan zuten familia». Kazetariak gogora zekarren familia hark nahiago izan zuela ezein protagonismotik urruntzea, prentsaren flash eta fokueetatik ihes egitea. Azken urteetan zehar, askotan saiatu izan dira haiekin harremanetan jartzen, haien bizitzak nolakoak izan ziren eta galera ikaragarri hari nola aurre egin zioten jakin nahian. Familiak nahiago izan du gonbidapen horiei guztiei uko egitea. «Nire anaia hil zenean, bera izan zen lehena. Gu bakarrik geunden»²⁷.

Bakardade hura bera izan zen hamarkadetan zehar biktimen familia gehienek, eta modu berezi batean Euskal Herrian hildako Guardia Zibileko kideen familiek, lagun izan zutena. Zentzu horretan, lekukotzak argigarriak dira. Iñaki Arteta zinegileak filmatutako dokumentalek bezalako lanek agerian jartzen dute terrorismoaren biktimek jasan zuten bakardade ikaragarria. Familia suntsituak, alargunak, emakume gazteak, haietako batzuk haurdun edo adin txikiko haurrak bere ardurapean zituztela... Horiek guztiek Euskal Herria korrika eta presaka

utzi behar izan zuten beren jaioterrietara itzultzeko, edo are okerrago, une hartan euskal probintziek adierazten zuten etsaitasunezko ingurune hartan aurrera egin behar izan zuten, axolagabetasun erabatekoan eta are are bazterketa sozialean murgilduta²⁸.

José Antonio Pardinesen hilketa gertatu zenetik ia berrogeita hamar urte geroago, Estatuko Segurtasun Indarrekin bai kolaboratu zuen hiritar bati Guardia Zibilaren Merituaren Gurutzea domina eman zioten. Fermín Garcés zen, kamioilari nafar bat, Pardinesen hiltzaileen ihesaldia geratzeko bere burua arriskuan jartzeko zalantzarik izan ez zuena. Gertatutakoa ikusi eta gero, bere kamioitik jaitsi, eta paparretik heldu zion Iñaki Sarasketari, eta soilik *Txabi* Echebarrietak pistola ateratzerakoan egin zuen atzera. Hala ere, Garcés ez zen kikildu; kontrolaren lehen lerroan zegoen autora igo, eta etakideak ihesean zihoazen autoaren atzetik joateko agindu zien bi bidaiariei. Félix de Diegori, Pardinesen guardia bikotekideari, abisua eman zioten, eta iheslariak Tolosan babestu zirela jakitera eman zuten. Datu hori funtsezkoa izan zen Guardia Zibilak haiek harrapatzeko²⁹.

Orduantxe jakin zuen Fermín Garcések guardia zibila izan nahi zuela, eta gaitz hasiberri hura deuseztatzen lagundu nahi zuela. Bai eta lortu ere; 1968ko irailean, ETAreN lehen atentatu hilgarritik hiru hilabete doira, Garcés Institutu Armatuaren Automobil Parkean sartu zen. Lan horretan aritu zen erretiroa hartu zuen arte. Hala ere, lanean ari zela, bizirik atera zen ETAk 1988ko azaroaren 22an Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren aurka bonba-auto bidez burutu zuen atentatutik. Fermín Garcésen biloba emakumezkoak aitona ohoratu nahi izan du ere, eta Kidego berean lan egin du, mende erdiz odol eta izerdi asko utzi dituen beste hiritar bakar bat ere gehitu ez dadin *Txabi* Echebarrietak José Antonio Pardines Arcayrekin inauguratu nahi izan zuen zerrendara³⁰.

«Heroi bat izan zinen?», galdetu zioten kazetariak Garcési bere kideen eskutik jasotako sariaren kariatara. Agian, haietako inork ez zuen jaso espero zuen erantzuna, Garcések soiltasun harrigarritz konstatzen baitzuen behin eta berriz gertatutakoa. Hala ere, komunikabide batek honako izenburu hau eman zion informazioari: «ETAreN aurkako lehen heroï hiritarra»³¹. Izenburuak iradokitzen du ausardia eta lankidetzaren irmoa erakutsi zuten hiritarrak etorri zirela Garcésen atzetik terrorismoa deuseztatzeko. Zoritxarrez, ez da horrela inondik ere. *Foronda Txostenaren* arabera, hirurogeita hamar zibil baino gehiago hil zituen ETAk poliziaren isil-mandatariak edo Estatuko Segurtasun Indarren kolaboratzaileak izatearen salaketa pean, «zurru-murru publiko» gisa euskal gizartea hamarkadetan zehar lotuta eduki zuen aipu beltza. Biztanleriak begi onez ikusi izan duen hiritar betebeharra estigma bihurtu zen susmo txikienaren aurrean. 1992an Maite

Castellanok, Jose Luis Luengosen neska-lagunak, «zeru-lurrak nahastuko» zituela zin egin zuen ETAk onar zezan bere bikotekidearen hilketa akats bat izan zela eta ez zela inoiz Poliziarekin lankidetzan aritu. 1997an ETAk Eugenio Olaciregui hil zuen Valentín Lasarte salatu izanaren akusazio pean; 2012an sumarioa berriro ireki zenean, Olacireguik Estatuaren Segurtasun Indarrei dei egin ez ziela frogatuta geratu eta gero, familiak bere arindura agertu zuen. Esan zutenez, horrek «kondena gehigarri» bat suposatu zuen³².

2010ean, ETAk bere jarduera terroristaren amaiera iragarri baino ia urte bete lehenago, *Ciudadano X* dokumentala aurkeztu zuten, zenean Espainiako hiriburuan bonba bat jarri berri zuten bi etakide bere autoan pertsegitu zituen Madrileko bizilagun baten goraipamenezko balentria kontatzen den. Dokumentala kolaborazioaren salbuespenekotasunari lotzen zaio bere argumentuan³³. Manuel Sánchezek, Guardia Zibilaren ofizialak, berriki hil den Santiago Abascalen ausardia nabarmendu zuen, ia hogeita hamar urtez agenteei lagundu baitzien modu nekaezin eta isilean. Haren lankidetzaren ezinbestekoa izan zen agenteak hel ezin zitezkeen lekuetara heltzeko eta Arabako Aiara eskualdeko kolaboratzaile zein terroristak atxilotzeko³⁴.

Ohiz kanpoko heroitasuna duen Fermín Garcésen historia 1968ko ekainaren egun tragiko hartako bizirik atera zen protagonista bakarra-rena da ere. Pardinesen hilketari eta *Txabi* Echebarrietaren geroagoko heriotzari, 1979ko urtarrilaren 31n ETAk Félix de Diego Martínezen aurka burutu zuen atentatua gehitu behar zaio. José Antonio Pardinesen kidea bere emazte Dolores Echevarriarekin zegoen biek gobernatzen zuten Iruneko tabernan, eta orduan, ETako komando bat sartu, eta Félixen bizitzari amaiera ematea erabaki zuen, nozitzen zuen giltzurruneko min-biziak hil baino lehen. Urtebete lehenago ETAk Guardia Zibilaren sarjentu ohi José Acedo Panizo hil zuen, *Txabi* Echebarrieta eta Iñaki Sarasketa harrapatzeko egin zen operatiboan parte hartu izateaz akusatu baitzuen bandaren inguruneak. Sarasketa 2017an hil zen³⁵.

EPILOGOA

Pardinesen hilketak Guardia Zibila astindu zuen, eta lau hamarkada iraun duen indarkeria ziklo bat ireki zuen Euskal Herrian, baina, batez ere, hilketa hark handik oso urruti bizi zen familia baten bitzta suntsitu zuen, sortzen ari zen prozesuarekin inolako zerikusirik ez zuena. 2008ko ekainean, Malpicako bizilagunak astindu zituen krimen hura gertatu zenetik berrogei urtera, Adunak eraildako Guardia Zibil gaztearen aitak zorigaitzoko arratsalde hartan sentitu zuena


gogora ekarri zuen, bere semea «zerbitzu-egintza»n hil zela jakinarazi ziotenean:

Orduan ez genekien ere zer zen ETA, zer jakingo genuen...? Hilabete geroago Melitón Manzanas erail zuten, eta nik pentsatu nuen: Toño izan da lehena, zergatik ez azkena ere? Baina ez... Neure etxetik kanpo ez dut berriro horretaz inorekin hitz egin duela hogeita hamar urte. Eta orain horrenbeste kostatzen zait³⁶.

Krimen hura gertatu eta bi hilabetera, ETAk Gipuzkoako Ikerketa Sozialeko Brigadako burua, Melitón Manzanas, hil zuen. Krimenak astindu handia eragin zuen gobernuan. Manzanas errepresio frankistaren ageriko burua izan zen probintzia hartan. Antifrankismoaren militante politiko eta sindikal asko jo eta torturatu zituen atxilotu osteko galdeketetan, eta krimenak, salbuespen oso zehatz batzuk kenduta, ez zuen gaitzespen esanguratsurik piztu antifrankismoaren lerroen artean. Hilaketa hark, urte batzuk geroago Carrero Blancoren bizitzarekin amaitu zuenak bezala, terrorismoaren biktimak estigmatizatzen eta haiek zuzenean erregimen frankistarekin zein errepresioarekin identifikatzen lagundu zuen. Horri esker, frankismoaren biktimak mendekatzen zituen ETA justiziazale zorrotz baten irudia sortu zen. Atentatuaren ondorioz durduzatuta, gobernuak gogortasun ikaragarriarekin erantzun zuen. Abuztuaren 5ean salbuespen egoera promulgatu zuen Gipuzkoan, eta hilabete horren 14. egunean Ministro Kontseiluak *bidelapurretaren eta terrorismoaren* errepresioari buruzko Dekretu bat onartu zuen. Horri esker, propaganda delituak, grebak edo sabotajeak jurisdikzio militarren barruan sartu ziren, baldin eta helburu politikoak bilatzen bazituzten. Salbuespen egoera ezartzean, Espainolen Foruaren 14, 15 eta 18 artikulua esekita geratu ziren; hau da, bizileku-askatasuna, etxebizitzaren bortxaezintasuna eta polizia-atxiloketaren epealdia arautzen zutenak. Urrian beste hiru hilabetez luzatu zen neurria, eta horrek estaldura eman zien Ordenaren Publikoaren Indarrei era guztietako abusu, atxiloketa eta tratu txarrak burutzeko. Horrekin, erakunde terroristak bultzatutako ekintza-ondorio-ekintza estrategiaren arrakasta ziurtatu zuen erregimenak nahi gabe, bai eta erakundearen ekintzen legitimazio soziala erraztu ere (ikus VII eta VIII atalak).

ERANSKINAK

Guardia Zibilean sartzeko eskaera, 1962ko urriak 5



José Antonio Pardines Arcay



ITURRIA: Guardia Zibila.

Hileta Bilbon



ITURRIA: Guardia Zibila.

Hileta Malpica de Bergantiñosen



ITURRIA: Guardia Zibila.

Pardinesen hilketaren diorama Guardia Zibilaren museoan



ITURRIA: Guardia Zibila.

Fermín Garcés, 2016ko apirilak 22



ITURRIA: Guardia Zibila.

VI. ATALA

TXABI ECHEBARRIETA: KONDAIRAZKO MARTIRI BAT EDO MARTIRI BATEN KONDAIRA *

JESÚS CASQUETE

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
(UPV/EHU)*

Gizakiak gainerako animalia guztien gainetik duen pribilegio bakarra gezurra da

F. Dostoievski: *Krimena eta zigorra*

Zuen salbatzaileek idazten dutena irakurtzen ikasi.

Max Frisch: *Clement Moreauk Mein Kampf-ari egindako Hitzaurrea*

I. TERRORISMOA, KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA ETA GEZURRA

«Indarkeriaren edo indarkeriaren mehatxuaren bidez, beldurra nahita zabaltzea eta ustiatzea, begirada aldaketa politikoan jarrita»¹, horra nola definitua izan den terrorismoa. Gaiaren ikertzaileek adostasunez nabarmentzen dutenez, ordena soziala «behetik» birdefinitu nahi duen talde baten jarduera basati orori egiten dio aipamena terrorismoak. Espazioari egindako erreferentzia interesgarria da, zeren eta, aurrerantzean, ez dugu terrorismoaren aldaera batez jardungo, Estatuarena, indarrean dauden botereek adoretzen edo onartzen dutena, estatukoak ez diren agenteek burutzen duten indarkeriaz baizik. Nolanahi ere den, motibazio etnonazionalista, iraultzailea edo erlijiosoaren duten terroristek (fenomenoaren adierazpen nagusiak hizpidera ekartzearren²), «basakeriaren politika»ren³ baliabidea erabiliz, ordena politikoan eragiteko ahalegina partekatzen dute. Adituen

artean adostasun moduko bat dago fenomenoaren izaera politikoa nabarmentzeko orduan. Hala, Bruce Hoffmanek dio terrorismoa «eta boterea bereizezinak direla: boterea bilatzea, boterea erdiestea eta aldaketa politikoa lortzeko boterea erabiltzea. Terrorismoa, bada, indarkeria da edo —garrantzitsua ere— helburu politikoen mende edo hura lortzeko erabiltzen den indarkeriaren mehatxua»⁴. Ildo horri jarraiki, AEBeko Kontraterroismoarako Koordinatzailearen Bulegoak terrorismoari buruz urtero egiten dituen txostenetan, bokazio politikoa esplizituki aitortzen du terrorismoaren tasun definitzaile bezala: «“terrorismo” terminoak —errepikatzen da behin eta berriz aipatu txostenetan— aldez aurretik pentsatutako eta arrazoi politikoak dituen indarkeria esan nahi du, eta talde azpinazionalek edo agente klandestinoek burutzen dute borrokalariak ez diren helburuen aurka»⁵.

Terrorismoari buruzko ikerketetan arreta gutxiago izan du terrorismoaren beste ezaugarri gehigarri batek, hain poliedrikoa den fenomeno ulertzeko bistatik ez galtzea komeni dena. Politikariek beren kontakizunak paketatzen dituzte iritzi publikoaren kontsumoa gogoan, hari eskatuko baitiote botoa hurrengo hauteskundeetan (sistema demokratikoez ari bagara), edo hari galdutako baitiote esanekotasun akritikoa, neurri errepresibo ahalakoen mehatxu pean (alderdi bakarreko diktaduretan eta hauteskunde prozesu sinesgarririk ez duten erregimenetan). Hilketeta edo bahiketeta bezalako neurri hilgarri gutxi gorabehera selektibo edo bereizi gabeetara jotzen duten terroristek estrategia komunikatzaile baten esparruan jarduten dute, eta haien asmoa biztanleria edo haren zati bat ustezko lozorrotik atera eta bidegabetzat, fedegabetzat jotzen den edo birdefinitu behar den *demos* baten gainean eraturako ordena politiko baten aurkako erresistentziara motibatzea da, terroristek erabiltzen dituzten hiru arrazoi nagusiak aintzakotzat hartzeko (soziala, erlijiosoa eta nazionalista; azken honen kasuan *ethnos* bat mugatzea da kontua). Terroristek izua edo mehatxua zabaltzen dute biztanleria jakin baten artean, eta aldi berean haren begikotasuna eta babesa erakarri nahi dute. Hain zuzen ere arrazoi horregatik da garrantzitsua haien komunikazio-estrategietan sakontzea, balorazio moralak alde batera utzita, arrazionalak izan ohi direlako. Moby Dick ehizatzeke bere zeregin obsesiboan Ahab kapitainak esaten zuena esan daiteke ere terroristei buruz: «Nire baliabide guztiak zentzudunak dira; nire arrazoia eta nire helburua dira eroak»⁶. Terrorismoaren ezaugarri hori bere azterketaren lehen lerroan jarri duen fenomenoaren ikertzaile batek, Peter Waldmann soziologo alemaniarrek, dioenez, «terroristak ez daude beren ekintzen ondorio disruptiboengatik arduratuta. Bitarteko bat baino ez dira, seinale moduko bat, pertsona kopuru handi bati zerbait komunikatzeko. Terrorismoa (...), batez ere, komunikazio estrategia bat da»⁷. Bahiketek eta

atentatuek ahalik eta oihartzun mediatiko handiena izan behar dute, dagokion «target audience»an beldur eta ikara gehiena eragiteko, dela aurkako talde etniko edo erlijioso batean, herrialde oso batean, gobernu batean, alderdi politiko batean edo iritzi publikoan oro har⁸. Ikuspegi horretatik, ez da posible egintza biolentoa bere komunikazio-eraginetik banantzea; oihartzun mediatikorik gabe, terroristak ez dira existitzen iritzi publikoaren aurrean, beren kausa ezin delako beren hartzaile potentzialengana heldu, eta publikorik gabeko kausa galdutako kausa da⁹. Garrantzitsuena ez da ekintza biolentoa berez (hori ere bada), baizik eta, batez ere, ekintza horrek ordena sozialarentzat dituen ondorioak. Ikuspegi horretatik, fenomeno terroristari heltzeko, bere mezuak gizarte demokratikoen iritzi publikoetara helarazteko terroristek erabiltzen dituzten baliabideak ere aztertu beharko ditugu, kontuan izanda gizarte demokratiko horietan prentsa- eta adierazpen-askatasuna konstituzionalki onetsiak daudela. Horri dagokionez, diktadura-sistemekin dagoen aldea garbia da: azken horietan zentsura eta komunikabideen gaineko Estatuaren kontrola dira nagusi; sistema politiko irekietan, ordea, talde terroristek komunikazio sare plural eta aske samarra izaten dute eskura¹⁰. Era horretako taldeentzat zentzu handiagoa du gizarte demokratikoetan estrategia mediatiko bat diseinatzeak.

Talde terroristek biztanleriaren aditasuna eta, zirkunstantzialki, begikotasuna erakartzeko erabiltzen duten komunikazio-estrategian jartzen badugu arreta, interesgarria izango da aipatu estrategia hori zer osagaiz elikatzen den ohartzea. Gure ustez, osagai horietako bat gezurra da, eta gezurtzat ulertzen dugu nahita egindako itsukeria egintza bat, terrorismoaren izaera politikoa behin finkatuta, boterea oinarritzat duen gezur bat baino ezin daitekeena izan: hau da, gezur politikoez ari gara.

Gezurra jarduera politikoari atxikitako osagaia da, diplomazia barne hartuta. Edo, modu osagarrian esanda: egiazkotasuna ez dago, ez da inoiz egon, Estatu gizonaren bertuteen artean. Boterea lortzeko edo babesteko gezurraren maltzurkeria estratega politikoaren *virtú* bat bezala ikusten da sarritan. Maquiavelorengana jo dezagun. XVI. mendean agintariak zernahi kontsiderazio moraletik askatu behar zuela bidezkotu zuen (ezaxola morala onartzeagatik filosofia politikoaren historiara igaro zen) honako termino hauetan: «Kontuan izan behar da printze batek —batez ere, printze berri batek— ezin dituela hautesman gauza horiek guztiak zeintzuengatik gizakiak ontzat jotzen ditugun; izan ere, sarritan, bere Estatua lortzeko, fedearen, karitatearen, gizateriaren, erlijioaren kontra jokatzera behartua ikusten du bere burua»¹¹. Hortaz, agintzen duenak gezurra esaten jakin behar du; baita agintzeko edo politikan parte hartzeko asmoa duenak ere. Firenzeako agintarientzat idatzi zuen eskuliburuaren arabera, agintariaren etika

pertsona pribatuaren etikari gailentzen zaio. Gezurra esatean, agintaria zintzotasunik gabea da egitateekin, eta norbanakoen morala urratzen du, baina Estatuaren arrazoiaren mendean bizi da. Ikuspegi horren arabera, terroristek ez diote uzten osotasun sozialaren berrituratzean azpitik esku hartzen duten antzezle politikoak bezala jarduteari.

«Hauteskundeon aurretik, gerran eta ehizaren ostean» esaten ditugu gezur gehien. Bismarcki egozten zaio aipatu oharpen esakunetsua. Egiatan, Estatuaren arrazoiaren gidoiak hala galdatzen duen edozein unetan esaten dugu gezurra. Erregimen faxista eta totalitarioek gezurra esatea, hori aukeren esparruan sartzen da, eta gezur sistematikoaren («ez den hori esatea») egiturazko ezaugarri horren gainean arreta jarri zuen Alexandré Koyrék Bigarren Mundu Gerra betean, nazionalsozialismoa, estalinismoa eta demokrazia liberala elkarren artean gerratokian borrokan ari zirenean¹². Aitzitik, gezurraren kultura egia-oste garaietan, garai «posfaktikoan» edo «fake news»enean erregimen demokratiko baketsuetara egokitzea sakonera handiko arazoa da, eta haren egonkortasuna jokoan jartzen du (gerran, baita demokrazian ere, arerioa garaitzeko bidezko armatzat jotzen da gezurra)¹³. Izan ere, erregimen demokratikoetan ustez nagusi dira ordezkatuak eta ordezkarien arteko konfiantza eta funtzio publikoan gardentasunez jardutea bezalako funtsezko balioak.

Hannah Arendtek bi saiakera mamitsu idatzi zituen politika modernoan gezurrak zuen erabilera eta neurrigabekeriari buruz, biak ere, jatorriz, 1972an ale bakar batean argitara emanak *Verdad y mentira en la política* izenburupean (gaztelerazko edizioa 2017koa da). Arendten ustez, «Sekretismoa (...) eta iruzurra, hau da, nahita egindako faltsukeria eta gezur hutsa, helburu politikoak lortzeko bitartekari zilegi gisa, idatzitako historiaren sorreratik izan ditugu lagun. Zintzotasuna inoiz ez da egon bertute politikoaren artean, eta gezurrak beti jo izan dira bitarteko zurigarriz hitzarmen politikoetan». Eta honela jarraitzen du: «Sarritan gezurrak errealtatea baino askoz sinesgarriagoak dira arrazoimenarentzat, erakargarriagoak, zeren eta gezurra esaten duenak bere entzuleek entzun nahi dutena edo entzutea espero dutena alde aurretik ezagutzeko abantaila handia dauka. Kontsumo publikorako prestatu du bere kontakizuna, eta hura sinesgarria izan dadin saiatu da; errealtateak, aldiz, gu ustekabearekin, prest ez gauden horrekin, aurrez aurre jartzeko ohitura nahasgarria dauka». Etsaiari zuzentzen zitzaion gezur tradizionalaren aldean, gezur modernoak bere zirkulua hedatzen du iritzi publikoaren sektore bati eragin arte, edo, erregimen totalitarioez ari bagara, literalki biztanleria osoari iruzur egin arte. Gezurra ez da izan historikoki, ezta gaur ere, jarduera politikoarekiko gorputz arrotz bat —epaia ematen du Arendtek—; aitzitik, beti egon da haren jardueran txertatua¹⁴.

Jatorri alemaniarreko filosofo emakumezkoaren gogoetak elite batzuek parte hartzen duten jarduera politiko konbentzionala erakusten badu ere, izan sistema diktatorial batean edo demokratiko batean, gezurrari (edo egiari) buruzko haren gogoetak egokiak dira terrorismoaren ikerketan ezartzeko. Terrorismoarekin lotutako kontuekin borrokan ari direnean, agintean dauden agintariek edo botere mailan gorago igo nahi duten hautagaiek gezur politikora jotzen dute, Swifték «helburu on batekin herriari faltsukeria osasuntsuak sinistarazteko Artea» bezala ulertu zuenari jarraiki. Swiftentzat «helburu ona» ez da absolutuki ona dena, «baizik gezurraren artea lanbide bihurtzen duenari hala iruditzen zaiona»¹⁵.

Jarraian datorren horretan, izaera etnonazionalista duen talde terrorista batek kontsumo publikorako diseinatu duen kontakizunean jarraitzen duen komunikazio-estrategian sakontzea interesatzen zaigu, ETA erakundearenean alegia. Hain zuzen ere, bere martiriak iritzi publikora aurkezteko duen moduan arreta jarriko dugu, bere kideen sakrifizio-prestutasunetik sinesgarritasuna transmititzen saiatzeko baliabide gisa erabili duena. Lehen etakideak segurtasun indarrekin izandako enfrentamendu batean bizitza galdu zuenetik, euskal nazioaren izenean bizitza eman duten martiri edo gudari horien goresmena izan da euskal talde terroristaren komunikazio-lanaren zutabe nagusienetako bat. *Txabi* Echebarrietaz ari gara, 1968ko ekainean hil zen ETako buruzagiaz; lehena erailtzen, lehena hiltzen. Harekin inauguratu zen euskal nazionalismo erradikalaren martiri-panteoia, gure historiaren ia azken mende erdian Euskal Herrian eta Espainian indarkeriaren emaitzari eta ugalketari zerbitzu maiteak eman dizkiona. Haren heriotzaz geroztik, Echebarrieta euskal nazionalismo erradikalaren heroi-martiri abertzale izaerara igo dute (sozial eta diskurtsiboki eraikia esan daiteke), bere burua MLNV, Movimiento de Liberación Nacional Vasco, deitzen duen antolaketa-sare horren zentzu- eta memoria-komunitatearen zerrenda luzearen lehen sinbolo-mito izaerara¹⁶.

II. ABERRIAREN ALDEKO HEROI-MARTIRIAK

Tipo ideal bezala, kaosaren eta krisiaren erdian (dela izaera sozialekoa, ekonomikokoa, politikokoa edo kulturalekoa) ordena apur bat jartzeko borrokan ari den borrokalari ausarta da heroia. Harekin, hari esker, etorkizuna inoiz ez da izango iragana baino ilunagoa, halabeharrez hobea baizik, argiz eta loriaz betetako garai berri bat. Heroia eta norbanako arrunta bereizten dituena ekintza bat burutzea edo erabaki bat hartzea da, aipatutako komunitatearen miresleen begietara beha-

rrrezkoa, baliagarria eta eredugarria dena, eta aldi berean burutzeko konprometitua eta arriskutsua, zereginak dituen arriskuak kontuan hartuta. Ekintza burutzeak eskatzen dituen konplexutasun eta/edo konpromiso maila dira, hain zuzen ere, heroi-ekintza edonoren eskura ez egotea eragiten duten faktoreak; hori dela eta, bere zaleen artean miresmen ez disimulatu bat eragiten du, gehienek ez dutelako heroiaren ekintza eredugarria imitatzeko jakintza, ahalmena edo, besterik gabe, nahia. Eta ez daude mundu guztiaren esku, soilik izaki apartekoek edo probidentziak ukitutakoek baitituzte zolitasunaren, konpromisoaren, altruismoaren, sakrifizioaren, pairakortasunaren, borondateren, ausardiaren, ematearen, ilusioaren, erabakimenaren eta heriotzarekiko mespretxuaren ezaugarriak, heroiaren eta gizaki hilgarri arruntaren arteko aldea erremediorik gabe ezartzen dutenak.

Orokorrean, bere bizitza kausaren alde arriskatzen duela da heroiaren ekarpenetik gehien miresten dena, dei dadin Jainkoa, jauna, errepublika, inperioa, nazioa, estatua, klasea edo aberria. Heriotzaren aurrean ez kikiltzea (ez norberaren bizitza sakrifikatzea, ez besteena kentzea) heroiaren ezaugarri prototipikoetako bat da tipo ideala den neurrian, zalantzarik gabe haren gurtza bihurtu den *heriotzaren erromantizismoaren* froga-harria. Zentzu horretan, heroiak bere denbora, mundu afektiboa, ibilbide profesionala, ondasun materialak eta, guztiaren gainetik eta aurretik, bere existentzia bera sakrifikatzeko duen prestutasuna da gizaki hilgarri arrunta eta heroi aparta bereizten dituen. Beren bizitza eskaintzeko, «beren fedea odolarekin aitortzeko» bezain urruti heltzen direnek lortzen dute heroi estatusa. Hortaz, komunitatea iraunaraztea eta, zer esanik ez, baita ekintza hilgarriak burutzea ere, bere heriotzarekiko beldurraren gainetik jartzea berezkoa du heroiaren esentziak. Heriotza subjektu eta objektu bezala heroiaren irudiaren lagun bereizezina da infernuko maitasuna duen biribil batean. Aberriaren sakrifizio-jarrerak zein deabruzkoak bihurtzeko arriskua duten modu zehatzean zabaldu zuen Pierre Vilar-ek. Frantziako historialari ospetsuak honako hau esan zuen: «“aberriagatik hiltzea” laudagarria izatea eta “aberriagatik erailtzea” oro har aitorezina izatea neurri batean asegarria da gure sentikortasunarentzat. Baina gauza batek ez dakar bestea. Arrisku handiz»¹⁷. Heroi-martirien diskurtsoa eraztean, egia faktuala desitxuratu eta gezurra «puzten» da, Jonathan Swifitek bereizi zuen gezur politikoen tipologietako bat: «gezurra puzteak berezkoa duena baino ospe handiagoa ematen dio pertsonaia handi bati; eta hori xede edo asmo jakin bat zerbitzatzeko moduan jar dadin»¹⁸.

Heroi-martiri bat sortzea mito baten sorreran murgiltzea da, eta hori, Mircea Eliaderi jarraiki, «*in illo tempore* gertatutakoaren historia da, jainkoek edo izaki jainkotiarrek denboraren hasieran egin zuten

horren kontakizuna. Mito bat “esatea” *ab origine* gertatutakoa aldarrikatzea da. Behin hori “esanda”, hau da, “agerian” jarri eta gero, mitoa egia apodiktikoa izatera pasatzen da: erabateko egia tinkotzen du... Mitoak “egoera” kosmiko berri baten eta funtsezko gertaera baten agerpena aldarrikatzen du. “Sormen” baten kontakizuna da beti: zer-bait nola gertatu zen kontatzen da, nola hasi zen *izaten*»¹⁹. Ameskeria, desitxuratze eta errealitatearen interpretazio gisa, «orainaldia ulertzeko gako sorta bat eskaintzen du, eta sareta bat eratzen du, zeinaren bidez egitate eta gertaeren kaos nahasgarria ordenatu ahal dela dirudien»²⁰. Hala bada, orainaldiko denbora ulertzeko interpretazio-esparru bat eskaintzen duen neurrian, mito politiko orok —azken batean, sinboloen hustubide bat baino ez da— fededunen gizarte-oinarria mobilizatzeke eta zementatzeko inola ere ez baztergarria den ahal bat dauka, eta terrorismoa bezalako aparteko kasuetan, baita «hiltzen duten mitoak»²¹ sortzeko ahala ere.

III. URTE HULIGANIKOEN HASIERA: LEHEN EKITALDIA

Ikasleak (Frantziatik Japonera, tartean, besteak beste, AEB, Alemania edo Mexiko daudela) eta Europa Ekialdeko Estatu sozialismoaren orotariko aurkariak —Pragako udaberria delarik mobilizazio horien guztien laburpena— protagonista izan zituen protesta olatu bat gertatu zen urtea bezala gordea geratu da 1968a iruditeria kolektiboan eta munduaren historia garaikidean (ikus I. atala). Protesten bultzatzaileek iraultza politiko bat nahi zuten, eta ordena kapitalista ezkerretik aldatzea (marxismoaren, maoismoaren, troskismoaren eta anarkismoaren nahas-mahas bat), baina, azkenean, badakigu errebolta horien benetako garrantzia kulturala izan zela²².

Euskal Herrian eta Espainian erronka kontrakulturala erabat gelditu gabe igaro zen, mendebaldeko garaikideak mobilizatzeraz bultzatzen zituen arrazoiei dagokienez bederen, eta 1968 oso bestelako arrazoiengatik gogoratzen dugu. Urte hartan ETAko lehen aktibista hil zen, eta urte hartan berean ere erakunde terroristaren lehen bi hilketak gertatu ziren, 1966-1967an egindako V. Biltzarraren ekintza-ondorio-ekintza estrategiaren arabera bultzatutako indarkeria mimetikoaren hasiera ekarri zuena. 1958an erakundea sortu eta aurreko urtetan, ETAREN jarduera honako ekintza hauetara mugatu zen: sinbolo frankistak suntsitzea (batez ere monumentuak eta «Jainkoagatik eta Espainiarengatik» eroritakoak omentzen zituzten oroitzapenezko plakak), pintadak egitea, propaganda banatzea, sabotajeak egitea, lapurretak eta ustezko konfidenteak aurkako errepresalia ekintzak egitea eta abar

(ikus III. atala). Baina erailtzea berria zen. Era horretan, Norman Manea idazle errumaniarraren inspirazioaren pean, «urte huliganikoak»²³ bezala deituko ditugunak hasi ziren. Bere saiakera autobiografikoan, Maneak Errumanian 1930 eta 1940 urteetan izandako bizi-penak ditu hizpide, Burdinazko Guardiako faxistek arrazazko etsaien aurka, judutarren aurka, izua eragiten zutenean pogrom eta deportazioen bidez. Manea eta bere familiakoek kontzentrazio-esparru batean preso sartuta amaitu zuten. ETAk 1968ko ekainean lehen hilketa egin zuenetik 2011n indarkeriaren uztea adierazi zuen arte, Euskal Herrian eta Espainian bizi izan zen indarkeria terroristaren olatuari aipamena egiten diote *gure* urte huliganikoek: hamarkada horietan zehar, indarkeriak herrialde oso baten bizitza politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala baldintzatu zuen.

1968ko ekainaren 7an, Pariseko bere epizentroan ikasle eta langileen mobilizazioen sugarrak itzaltzen ari zirenean, Francisco Javier (*Txabi*) Echebarrieta Ortizek guardia zibil bat hil zuen eta gero bera hil zuten, dena euskal kausaren izenean. Echebarrieta 1944ko urriaren 14an jaio zen Bilbon, klase ertaineko familia baten magalean. Egun hartan Madril-Irun I Nazionaletik zihoan dokumentazio faltsua zuen Seat 850 kupe lapurtu bat gidatzen. Echebarrietak, halaber, agiri faltsuak zeramatzan aldean, Lucas Agoues Zubeldiaren izen-abizenak zeramatenak²⁴. Bidaian beste etakide bat zuen lagun, Iñaki Sarasketa. Haien lehen jomuga Beasain zen, non lehergai zama bat jasotzeko asmoa zuten Jokin Gorostidiren eskuetatik, ETako kide liberatua azken hau, bi urte geroago Burgoseko prozesuan epaitua eta bi heriozigorrera kondenatua izan zena (gero kommutatu egin zizkioten)²⁵. Ondoren, beneditarren Lazkaoko monasteriora joateko asmoa zuten biek, beste etakide batekin, Eustakio Mendizabal (*Txikia*)²⁶, biltzeko. Azken honek duela gutxi aldatu zuen monasterio hartako sotana armengatik, eta ETaren Gipuzkoako fronte militarren buru bihurtu zen jada 1971n. Echebarrietaren zori bera egokitu zitzaion, 1973an, Algortan (Bizkaia). Ipar Euskal Herriko Sokoa herrian haren omezezko meza eman zuen apaizak, Piarres Larzabalek, atsekabezko hitzak eskaini zizkion: «Eustaquio joan egin zaigu. Baina Herri gisa dugun arazoak bere horretan darrai. Ziur naiz haren izenean, duela gutxi eroritako kideen izenean, 36an eta ondoren hildakoenean ere ari naizela gure herriaren batasuna eta hobekuntza lortzeko bat egitea eskatzen badizu»²⁷.

Ez ziren inoiz elkartu beren armakideekin. Aduna herriaren inguruetan errepede-lan batzuk egiten ari zirenez, trafikoa erregulatzen ari zen Guardia Zibilaren kide batek, José Antonio Pardinesek, geratzeko eskatu zien. Agirien eta motorraren zenbakia bat ez zetozela egiaztatu zuen Pardinesek. Benemeritako bere bikotea lanen beste muturrean zegoen.

Une horretatik aurrera, gertaeren bertsio aurkajarriak dauzkagu (ikus III eta IV atalak).

Alde batetik, nazionalismo erradikalak gaur egun oraindik ere defendatzen duen bertsioa dago. Bertsio horren arabera, jada gertaerak jazo bezain laster zabaldu zen orri hegalaria batean jaso, «biak atxilotzeko asmoa zuenean, Echebarrietak haietako baten aurka [guardia zibil bat, Pardines] tiro egin behar izan zuen»²⁸. Modu landuagoan azalduta, oraingo honetan José María Lorenzo Espinosa historialariaren eskutik, honela gertatu ziren egitateak: «Arratsalde hartan, Donostiatik Beasainera zihoazenean Zaragozako matrikuladun auto batean, Adunatik hurbil guardia zibil bat, agian gehiegizko abiaduran zihozelako edo zerbait susmagarria ikusi zuelako auto lapurtu hartan, haien atzetik joan zen Billabonaraino. Hara helduta, gidariari geratzeko agindua eman zion, eta, agirien datuak faltsuak zirela egiaztatu eta gero, bere arma ateratzen saiatu zen. Kupeko bidaiariek aurre hartu zioten, eta trafikoko guardia, José Pardines Arcay, lurrian etzanda geratu zen»²⁹. Modu laburragoan, baina funtsean modu berean, gertaera jazo zenetik ia berrogeita hamar urtera, Julen Madariagak, ETako sortzaileetako batek, Pardinesen hilketa justifikatzeko abertzaletasun erradikalaren oroimen kolektiboaren zerbitzura zenbait azpikeria zeudela esan zuen behin eta berriz: «Hortik aitzina [Pardinesek autoa gerarazi eta bidaiariei buruzko errezeloa piztu zitzaion unetik aurrera], farwesteko edozein filmetan bezalako sekuentzia gertatu zen: pipa lehenik jalgitzen duenak, hark irabazi. Azkarrago izan zen Txabi. Pardines tirokatu zuen, eta hil ere. Eta ez bizkarrez zegoelarik, baizik eta aurrez aurre, bekoz beko, eta aurpegiz aurpegi»³⁰. Nazionalismo erradikala gertaeren interpretazio hagiografiko bati lotzen zaio, Echebarrietaren ospe mitikoa handiagotzeko sortuak, eta haren kaltegile izaera ezkutatzen duten akatsez ziprztindutako gertaeren berreraikitze bat egiten du. Eskura ditugun aurrez aurreko lekukotzen, sententzia judizialen, kazetaritza-informazioen eta artxiboko dokumentazioaren azterketaren bidez, oraintxe aipatutakoa zehazten joango gara. Kontua da Pardinesek zenbait tiro jaso, eta heriotza eragiteraino zauritua izan zela.

Nazionalismo erradikalak Echebarrietak zeraman pistolaren inguruko kontakizun epiko bat elikatu du, zeinaren arabera, pistola Gerra Zibilean parte hartu zuen ofizial nazionalista batena zen, eta gerora Algeriaren independentzia gerran erabili zuten, harik eta, Parisen denboraldi bat eman ostean, etakidearen eskuetara heldu zen arte³¹. 1970aren hasieran Burgoseko epaiketaren esparruan irekitako diligentzietan, Mario Onaindiak ahozko transmisioaren kondairari (gerora idatzizkoa ere izango zen) bide eman zion honako adierazpen honekin: «Echebarrietak bederatzi milimetro luzeko [pistola] bat zeraman, guda-riek 36an erabili zuten horietakoa, eta Argeleko (sic) gerran ere erabili

zuten. Geroago, ETAk Parisen erosi zuen. Xehetasun horiek Echebarrietak eman zituen»³². Geroztik, gertaera hori sarritan zabaldua eta eutsia izan da. Xabier Bareñok, 1968ko martxotik preso zegoen ETako liberatu batek, honako hau idatzi zuen bi hamarkada gerago, orduan HBko legebiltzarkide autonomikoa zelarik: «Historia duen pistola da: 36ko Gerran gudarien ofizial batena izan zen. Batek daki zer bideetatik, Algeriako FLNa babesten zuen talde baten eskuetara heldu zen. Algeriako Askapen Nazionalean ekarpena egin eta gero, Pariseko bideetik, euskal eskuetara itzuli zen. Txabi Etxebarrietaren azken kidea izan zen»³³. Ikus ezazue zer jarraitasun hari eta legitimitate historiko eman nahi zaizkion aureolatuari eta haren kausari, Euskal Herriaren palinogenesiaren alde bere bizitza eman zuen lehen etakideari³⁴.

Kontua da armaren jatorria ameskeria baten fruitua dela, aberriaren askapenaren aldeko kateatze epikoaren ospea handitzeko asmatutako kontakizun bat, ebidentzia historikoaren arabera, egia faktualarekin tupust egiten duena. Azter ditzagun xehetasunak. Loiolako kuartelean (Gipuzkoa) 1968ko ekainaren 27ko data jarria duen gerrakontseiluaren sententziak jasotzen duenez, Echebarrietak eta Sarasketak zeramatzaten bi pistolak Astra markakoak ziren (bata, 9 milimetroko Parabellum bat; bestea, 7.65 milimetroko Falcon bat), eta jatorriko herrialdea salatzen zuen ezein lorratz limaz ezabatuta zuten³⁵. Ekainaren 8an egin zen eta kausa judizialaren barruan sartuta dagoen begi bidezko diligentziak, Pardines hil zuten pistolari buruzko xehetasun osagarri mamitsuak ematen ditu. Aipatu egingo ditugu: «Astra Marka [Pistola], 600-43 modelo, bederatzi milimetro parabellum, Gernikako Unceta y Compañía SA-n egina, hartan Espainia hitza ezabatua agertzen da eta 58669 serie-zenbakia dauka. Saihetseko kirten-azalean ETA siglak agertzen dira»³⁶. Utz dezagun alde batera «*Made in Spain*» idazkUNETIK «Espainia» borratu izanaren xehetasuna, nahiz eta datu horrek nahiko garbi uzten duen euskal nazionalismo erradikalak, jada Sabino Aranaren garaitik, Espainiari dion ezinikusia³⁷. Orain, gehiago axola zaigu pistolaren modeloaren xehetasunean geratzea, 600-43a, argudiorik gabe uzten baitu gudari batek Francoren gudaroste matxinatuaren aurka euskal askatasunak babesteko erabili zuelako kondaira.

Hain zuzen ere, Astra 600-43 modeloaren fabrikazioaren hasiera —azken bi zenbakiak salatzen duten bezala— 1943. urtea da. Gernikako Unceta y Compañía armagileak *Wehrmacht*-en, nazien gudarostearen, enkargu bat jaso zuen urte hartan 9 milimetroko parabellum bat egiteko, hura baitzen une hartan Alemanian eta Europa Erdialdean kalibre gogokoena. Naziek bi ingeniari bidali zituzten Gernikara modelo berriaren diseinuan parte hartzeko. «Gudarosteko Komando Goren»ari (*Oberkommando des Heeres*) 50 pistolako probako sorta bat eman eta gero, arduradun naziek eskaria baimendu zuten. 990 gramoko

pisuarekin, munizioa aparte utzita, armak gutxi zuen arinetik. 1944ko maiatzaren eta uztailaren artean 10.450 ale bidali zituzten Irungo mugako pasabidetik, hiru entregatan, harik eta aliatuen Frantziako inbasioak hurrengo operazioak galarazi zituen arte. Bidaltzeko prest zegoen pistola kopuru handi batekin geratu zen Astra, alemaniarrek jada ordaindu zituztenak (edo Gerra Zibilean alemaniarrek emandako laguntzaren ordainketaren barruan sartzen zirenak), eta pistola horiek Burgoseko Artilleria Parkean biltegitatu zituzten. 1945ean Astra 600-43aren ekoizpen prozesuari amaiera eman zitzaion. Zenbait urte geroago, 1951n, aliatuek baimena eman zioten Alemaniari gudaroste txiki bat sor zezan, baita Poliziaren kidego bat ere. Urte hartako uztailaren 9an guztira 29.000 pistola eta 2 milioi kartutxo lehorreratu zituzten Hanburgoko portuan. Espainiako gobernuak Burgosen zeuden pistolak eraman zizkion Alemaniari, 10.501 eta 41.650 arteko numerazioarekin, eta Polizia Federalen eskuetan geratu ziren. Muntaketa prozesuan zeuden beste 3.550 pistola (41.851 eta 45.400 arteko numerazioarekin), Alemaniak ordaindu ez zituenak, besteak beste Portugal, Txile, Turkia edo Jordania bezalako herrietara esportatu zituzten. Astra 600aren ekoizpenaren historia bukatzeko, Alemaniako Errepublika Federaleko gobernuak beste 14.000 ale enkargatu zituen (45.401-59.400 serie-zenbakiarekin), honako honetan ordaintzeko. Hori da Echebarrietak Pardines hiltzeko erabili zuen pistolari dagokion sorta. Alemaniako gobernuak ohartu zen esku artean zuen pistola kopuruak aisa gaintitzen zituela bere benetako beharrak; ondorioz, Berlin Ekialdeko eta Niedersachsen-eko eskualdeko polizia zati bat eman zien; jada 1956an, Gudaroste Federalari (*Bundeswehr*) eman zioten beste zati bat, eta 1961ean, jada zaharkituta zeudelako, pistola modernoago bategatik aldatu zituzten³⁸.

Auto-egunean Echebarrietak zeraman pistolaren ibilbideari aztarna jarraitzea zaila da. Urte horietan ETaren barruan protagonista izan zen iturri batek dioenez, erakundeko buruzagi batek, José Maria Escubik, Frantziatik ekarri zuen ETaren V. Biltzarra (1966-1967) egin baino lehen, eta Echebarrietak 1967ko udazkenean hartu zuen oinordetzan³⁹. Beste iturri baten arabera, ETak Alemaniako Poliziak erretiratutako zenbait pistola erosi zizkion trafikatzailer bati. Horietako batzuk akas-dunak ziren, eta horregatik eraman zituzten Gernikako lantegira konpontzera bertakoa zen etakide baten bidez, orduan Unceta y Compañiako goi kargu baten senidea zena; ETako beste militante bat lantegiko tailerreko burua zen. Konplizitate korapilo honi esker, Astra 600-43 batzuk konpontzea lortu zuten, eta horien artean egon zitekeen Echebarrietak Pardines hil zuenean zeramana⁴⁰. Nolanahi den ere, ondo dokumentatua dago pistola horren modelo ez zela 1943ra arte fabrikatzen hasi; hortaz, ezinezkoa da Gerra Zibileko gudari batena

izatea. Ez dago, halaber, Algeriako gerran parte hartu zuen inolako ebidentziarik.

Pako Aristik, abertzaletasun erradikalarekin konprometitutako idazleak, honako hau idatzi zuen: «Etxebarrietaren pistola: hori da herri honen erresistentziaren oroimena gorde duen sinboloa, beste batzuen artean; estatuaren indarkeriaren monopolioa hausteko burutu zen eginahal ausart eta frustratuaren kontzientzia»⁴¹. Arrazoi du Aristik pistola sinbolo bat dela eusten duenean, baina ziur asko, ez berak nahi duen zentzuan. Hark bezala pentsatzen dutenei komeniko litzaieke birpentsatzea Euskal Herrian elkarbizitza zibikoa eta zibilizatua giltzatzeko zer zumerekin eraiki nahi dituzten sinboloak eta berreraiki historia, indarkeria ez eta elkarrizketa ardatz hartuta. Normalean, pistola bat ez da kolektibo baten sinbolo mailara igotzeko objekturik egokiena; are gutxiago norbait hil zuen pistola bat; baina bere existentzia nazien ekimenari zor dion bat, haiek izan baitziren eskatu zutena eta bere proiektu genozida eta libertizidan erabili zutena? Etxebarrietaren pistolarekin herriaren salbatzaile batzuen kontakizunaren idazketa abiatu zen, talde eta gizarte proiektu bezala irakurtzea eta behin eta berriz berrirakurtzea komeni zaiguna, atala irekitzen duen aipuan Frischek aholkatzen digun bezala.

Pistola alde batera utzita, Lorenzo Espinosaren eta espektro nazionalista erradikalaren interpretazio hagiografikoak ezin dio kontrasteari eutsi gertaeren lekuko bakarrak, Iñaki Sarasketak, zenbait alditan egingdako adierazpenen aldean⁴². Hona 1978an etakideak eman zuen bertsioa, aurreko urtean amnistiari onura atera eta apur bat geroago: «Billabonatik gertu zen. Agiriak eskatu zizkigun, eta motorraren zenbakiarekin egiaztatzen saiatu zen. Makurtuta zegoen, paperak esku batean eta egiaztatzen. “Hau ez dator bat” esan zuen. Guk bagenekien ez zela bat etorriko, eta, orduan, [Etxebarrietak] Algerian gerra egingdako bederatzi luzeko Astra bat atera, eta tiro bat bota zion omoplatoetan eta beste lau gehiago bularrean»⁴³. Hau da: arma ateratzen lehena Etxebarrieta izan zen, eta ondo-ondotik tiro egin zion bizkarretik, Sarasketaren kontakizunaren tiroen sekuentzia sinesgarritzat jotzen badugu. Hilketan erabili zuen pistola Astra 600-43 9 mm Parabellum bat zen. Gertaeren 20. urteurrenaren harira, Sarasketak uko egin zion beste behin ere bere bertsioa eskaintzeko aukerari⁴⁴. 1993an, gertaeren 25. urteurrenarekin bat, elkarrizketa labur bat eman zion *Egin* egunkariari, non ETArekin kausarekin zuen konpromisoa berretsi zuen («orain ere badira gazte eskuzabalak gure herrian»), baina ez zion berritasun bakar bat ere gehitu bere aurreko kontakizunari.

Hala ere, hizpide ditugun gertaerak jazo eta hogeita hamar urtera, 1998an, Madrileko komunikabide bati egingdako adierazpenetan, bere aurreko bertsioa osatu zuen era honetan: «Nire ustez (...) matrikula

faltsua zela ohartu zen [Pardines]. Susmoak hartu zituen bederen. Agiriak eskatu eta buelta bat eman zuen autoaren inguruan, motorraren zenbakiekin bat ote zetorren egiaztatzeko. Txabik esan zidan: “Jakiten badu, hil egingo dut”. “Ez da beharrezkoa”, erantzun nion nik, “hura armagabetu eta bagoaz”. “Ez, jakiten badu, hil egingo dut”. Autotik irten ginen. Guardia zibilak bizkarra ematen zigun, kokoriko zegoen atzeko aldean, motorrari begira. Jiratu gabe, hizketan hasi zen. “Hau ez dator bat...”. Txabik pistola atera, eta une hartan tiro egin zion. Buruz gora erori zen. Txabik hiru edo lau tiro gehiago bota zizkion bularrean. Zentraminak [anfetaminak] hartu zituen, eta agian horrek izan zuen eragina»⁴⁵. Nazionalismo erradikalaren kontakizuna blaitzen duen heroitasuna, zeinaren arabera Echebarrietak azkartasunean eta trebetasunean irabazi zion guardia zibilari eta bere arma erabili zuen askatasunerako bide bakar bezala, muinik gabe geratzen da lekuko bakarraren bertsioaren aldean. Azken honek egiaztatzen du odol hotzean egindako hilketa bat izan zela, ezustean harrapatutako gizon baten aurka egina, eta anfetaminen eraginpean zegoen norbaitek burutua. Eta, batez ere, Sarasketak garbi uzten du beste aukera bat ere bazutela odol isurketaren aldean: une hartan bakarrik zegoen guardia armagabetzea eta ihes egitea. Gerra-kontseiluak Sarasketaren aurka eman zuen sententzian xehetasun garrantzitsu bat zehaztu zuen, bizirik irten zen etakidearen kontakizunarekin bat datorrena eta nazionalismo erradikalaren bertsioa gezurtatzen duena, zeinaren arabera Echebarrietak aurre hartu zion guardia zibilari armarekin: «Arauzko pistola zorroan (sic) botoitua eta egiaztatutako ibilgailuaren agiriak eskuin eskuan zituela aurkitu zuten hildakoa»⁴⁶.

IV. URTE HULIGANIKOEN HASIERA: BIGARREN EKITALDIA

Honaino Pardinesen heriotzaren sekuentzia. Azter dezagun jarraian dramaren bigarren ekitaldiaren bukaera, kaltegilearen, Echebarrietaren, heriotza. Gertaeren lekutik ihes egin eta gero, azken hau eta Sarasketa E.O.k, ETAko kolaboratzaile batek, Tolosan zuen etxebizitzan babestu ziren, lehen ekitaldia gertatu zen errepidetik kilometro gutxira zegoena. Aurkituko zituzten beldurrez, hiruek —Echebarrietaren ekimenez, Sarasketaren esanetan «oso burugogor jarri baitzen»— E.O.ren ibilgailua hartu, eta presazko ihesaldi bat egitea erabaki zuten. Ordu-rako bi ordutik gora igaroak ziren, Guardia Zibilak inguruan errepede-kontrolak jartzeko behar adina denbora⁴⁷. Olarraineko bidegurutzean, Tolosan, Venta Aundiko ostatuaren parean, gerarazi egin zituzten, bai eta autotik jaistera behartu ere. E.O.ri eskuburdinak jarri zizkioten, eta

Echebarrietari jo egin zioten guardiek; Sarasketak, ordea, korrika eta tiroka hanka egin zuen. Segundo batzuk geroago tiro hotsak entzun zituen. Deflagrazioetako batek «alkandora, kamiseta eta azala erre zizkion, eskuin birika behetik gora hondatu, eta bala ezkerreko sorbalda-hezurretik atera zen»⁴⁸. Erregimenaren iturri ofizialen arabera —esaterako, Gipuzkoako gobernadore zibilak komunikabideetara zabaldu zuen idatzi bat—, guardia zibilek gelditzeko eskatu zioten Echebarrietari, eta honek tiro egin zien; ondorioz, bere buruaren defentsan hil zuten guardia zibilek⁴⁹.

Gregorio López Irasuegik, Bilboko Eskolapioetan Echebarrietaren armakide eta eskolakide izandakoak (ez, ordea, ikasmaila berekoa) eta geroago Burgoseko epaiketean prozesatua izan zen atxilotuetako batek, hildakoaren ibilbidea laburbildu eta esan zuen «lehena erailtzen eta lehena hiltzen» izan zela⁵⁰. «Militante erantzukizuna»rekin bete zuten horrela; erantzukizun horren arabera, behartuta zeuden atxilotzen ez uztera, baita horretarako bizitza eman behar bazuten ere⁵¹. *Patxo* Unzuetak, Bilboko Ekonomia Fakultateko beste ikaskide batek, ETAKoa baita ere, Tolosako babeslekua utzi, eta Echebarrietak bere burua «hiltzen uzteko» erabakia klabe psikologikoan azaldu zuen, eragin berri zuen heriotza «ordaintzeko behar» bat izan zela argudiatuta⁵². Zalantzarik gabe, haren heriotzak martiri berri baten jaiotza inauguratu zuen, ETAREN historian *pro patria mori* kontsignari nahita men egiten lehena. «Gure reboluzioaren lenengo martiria» izan zen, garai hartako orri hegalari batean irakur zitekeen bezala⁵³. 1921ean aranismoaren sektore ortodoxoenek *Aberrri* sortu zutenetik, Eli Gallastegui buru zuen PNVren eszizio bat (Gallastegiren izengoitia, eta ez kasualitatez, *Gudari* zen), euskal nazionalismo erradikalak «gizon berri» baten sorrera irrikatu zuen, zeinaren ezaugarri bereizle nabarmenena individualismo berekoa gainetik kendu, eta bizitza aberriaren alde emateko gaitasuna den. Echebarrieta izan zen kausa nazionalistaren lehen martiria, izen-abizenarekin eta modu erritualean omendua izan zen lehena, *Che* Guevararen mailan. Hain zuzen ere, azken honekin alderatua izan da askotan⁵⁴.

Pardinesen eta Echebarrietaren heriotzek indarkeria bolada baten sortze-unea ekarri zuten, eta bolada horren ondorioz, 1968 eta 2010 urteen artean, 914 pertsona hil ziren kolore ezberdineko talde terroristek burututako atentatuetan. Horietatik 845 hil zituzten ETAK eta honen kideko taldeek, eta 62 eskuin muturreko talde terroristek edo talde parapolizialek⁵⁵.

Hildako biktima horietatik, hiruk gutxienez bazuten lotura Pardines eta Echebarrietaren heriotzarekin, eta hori euskal tragedian maila bat gehiago igotzea da. Melitón Manzanasko poliziaren inspektorearen kasua da ETAK planifikatutako lehen atentatu hilgarria, Echebarrie-

taren heriotza jazo eta bi hilabete doi geroago burutua. Zenbaitetan bi hilketak lotuta daudela dirudi, eta bigarrena lehenaren mendeku ekintza bezala uler daiteke. Burgoseko epaiketa sumarisimoan tesi horri eusten zaio, Echebarrietaren heriotzaren testuinguruan honako hau esaten baita: «Lehen hileta-epealdia atzean utzita, eta jada “aktibismo” zuzenerako bigarren igoeran, Taldeak egin zitzakeen ekintza posibleak ikertzen hasi ziren, eta Espainiar Estatuko funtzionarioen gaineko herio edo herio-mendeku baten aldeko ideia hazten joan zen»⁵⁶. Hala ere, ez zen errebantxismo ekintza bat izan. Egiatan, Tolosako gertaerak alde batera utzita, Manzansen zoria erabakita zegoen, kontu honetan Gorostidik bi hamarkada geroago eta 1977ko Amnistia legea tarteko egin zuen aitortzari jarraitzen badiogu : «Txabi hilik edo bizirik egon balitz ere, Manzanasen azkena begien bistan zegoen, haren herio-sententzia sinatua zegoen. Txabi Benta Haundin hil izan ez balitz ere, astebete lehenago edo gerago, hura akabatu behar genuen. Bestalde, egia da Txabik Manzanas zelatatu zuela zenbait egunetan zehar, erakundeak zituen datuak zuzenak ote ziren egiaztatzeko»⁵⁷. López Irasuegik berretsi zuen informazio hori: «Dokumentazio guztia, informazio guztia eta Manzanas egindako jarraipen guztia Txabiren ardurapean zegoen (bera zen orduan Gipuzkoako liberatua). Txabi hil izan ez balitz ere, Manzanas hil egingo genuen une jakin batean. Exekuzioa alde zurretik prestatua zegoen. Herriak Gipuzkoako Brigada Politiko-Sozialeko burua zergatik hiltzen genuen ulertuko zuen unea bilatzea zen kontua»⁵⁸. Lekukotzek badute sinesgarritasuna. Aurreko ekainaren 2ko ETaren zuzendaritza batzordeak, *Biltzar Ttipiak*, José María Junquera eta Melitón Manzanasen aurka, Bilboko eta Donostiako Ikerketa Sozialeko Brigadako buruak hurrenez hurren, atentatua egiteko erabakia hartu zuen. Echebarrietari eman zioten ataka gainditzeko zeregina, hau da Manzanas erailtzekoa, eta operazioa *Sagarra* gakoizenarekin bataiatu zuten⁵⁹. Egiatan, 1968ko ekainaren 7 inguruan ETAko terroristek Manzanesen ohiturei buruzko informazio xehea zuten, Sarasketak bildutakoa⁶⁰.

Jarduera terrorista hasteko erabakia hartuta zegoelako tesia — Echebarrietaren zoria gorabehera — eta Manzanasen hilketa denbora kontua baino ez zelakoa berrestera datoz Mungia, Lekeitio eta Ondarroako guardia zibilaren kuarteletan 1968ko uztailean jaso zituzten mehatxuzko gutun batzuk, «Euskal Erresistentziaren Batzorde Exekutiboa»k sinatutakoak, antza denez *El Cabra* buru zuen frakzioaren ekimenez bidalitakoak⁶¹. Gutunaren hartzaileak han kuarteleratuta zeuden guardia zibilen emazteak ziren, eta, idatzita dauden moduagatik, inprobisazioa bazter daitekeela dirudi: «Anderea, beste behin ere errepikatzen dizut zure senarra kidegotik atera dadin konbenzi (sic) dezazun. Ez du pena merezi oparotasunean bizi diren kapi-

talista edo buruzagi batzuen interesen alde estutua bizitzeak. Ez du pena merezi Pardines Azcay-k (sic) bezala hitzeko arriskua hartzeak. Edozertarako prest gaude, ez diogu heriotzari beldurrik, bidezko kausa bategatik borrokan ari garela baitakigu». Mehatxuak ezein epiteto onar dezake, mehatxu estaliarena izan ezik: «Hori dela eta, haiek akabatzen behartuta gaude nolabait (...) Erregutzen dizut, anderea, pentsatzeko eta gutun honen (sic) edukia berrirakurtzeko, erakutsiezaiozu zure senarrari eta har ezazue Espainiara joateko erabakia, soilik horrela bizi ahal izango duzue zure senarra atentatu batean hila izateko larritasun etengabearen mehatxutik libre»⁶². Echebarrieta hil eta handik aste gutxi batzuetara, haren alderdikideek ondo olioztatua zuten «Euskal Herriaren etsaien» aurkako herio-mehatxuen (sinesgarriak) makineria.

Bere ahalmen hilgarria zabaltzeko orduan, ETAk garbi erakutsi zuen memoria oneko erakundea zela. Mendekuaren kontuan sar litekeen lehen hilketa (baldintzazkoa ez da kasualitatea, berehala ikusi ahalko den bezala) erretiroa hartutako José Acedo Panizo guardia zibilara da, 1978ko martxoaren 10ekoa (ikus III. atala). Hain zuzen ere, Adunan gertatu zen, lehen ekitaldiaren agertokia, Pardinesen heriotzarena. Komunikabide baten arabera, ETAk Echebarrietaren hilketan parte hartzeaz salatu zuen⁶³. Jatorri oso ezberdineko ikerketek sinesgarritzat jo dute interpretazio hori, nahiz eta ez duten inolako ebidentziarik eman⁶⁴. Hala ere, atentatua aldarrikatzeko erakunde terroristak bidali zuen komunikatua ez da aipatzen Acedoren heriotzak Echebarrietarekin izan dezakeen harremana; bai ordea «Goierri, Tolosa eta Andoaineko inguruetan oso ezaguna zela, eta manifestazioak eragozteko egin zituen jarduera basatiek, Herriaren militanteak atxilotuz eta torturatuz, herri-gorrotoaren jomuga bihurtu zutela»⁶⁵.

Pardinesekin batera I Nazionalean trafikoa erregulatzen zebilen bikotekideak zori bera izan zuen geroago; Félix de Diego Martínez ondo-ondotik tiro eginda hil zuten Irunen 1979ko urtarrilaren 31n. Zerbitzu aktiboa abandonatu zuen laneko motorrarekin istripu bat izan eta gero, baina kidegoaren zati zen oraindik, erreserbako kide gisa. De Diego kontuan hartuta, gure urte huliganikoen hasiera unean zuzenean nahastuta zeuden lau pertsonetatik hiru terrorismoaren biktima-kaltegile izan ziren. Laugarrenari, Sarasketari, heriotza-zigorra ezarri zion gerra-kontseiluak, eta 30 urteko espetxealdi handiko zigorrarengatik konmutatu zioten. 1977ko Amnistia baliatu zuen, eta Norvegiara erbesteratu zuten urte hartako ekainean. 2017ko abuztuan hil zen⁶⁶.

Ekainaren 7ko gertaeretan bosgarren protagonista bat ere izan zen, eta hartaz hitz egitea beharrezkoa da, haren bizitzak ezusteko bira bat izan baitzuen (ikus V. atala). Fermín Garcés Hualde kamioilari nafarra Pardines hil zuten lekutik zihoan bere ibilgailuarekin, eta tiro hotsak

entzun zituen. Haren kontakizunaren arabera, lehen unean zarataren jatorria bere ibilgailua zela uste izan zuen, baina zama ondo zegoela egiaztatu ostean, bi gizon eta lurrean botata zegoen guardia zibil bat ikusi zituen. Kamioitik jaitsi, eta, aldi berean gizabidetsua bezain ausarkeriazkoa den ekintza batean, terroristei aurre egin zien. «Geldi, hiltzaileok, geldi!» oihu egin zien. Sarasketari sorbaldatik heldu zion, eta, hori baliatuta, Echebarrietak bere pistolarekin destatu zion. Ondoren, bi terroristek ihes egin zuten. Gertaerak arrasto ezabaezina utzi zuen Garcésengan, eta urte hartako irailaren 1an Benemeritan sartu zen⁶⁷. 2016an Guardia Zibilak omenaldi bat egin zion, eta, hala, 1968an Sarasketaren aurkako gerra-kontseiluaren sententzian aipatzen zen «ausardia gizabidetsu handia» aitortu zitzaion⁶⁸.

Ekaineko zorigaiztoko egun hartako gertaerek haietan nahastuta egon ziren guztien bizitzak, baita haien sendi eta lagunena ere, baldintzatu zituzten, modu ezberdinean baina: Pardines eta Echebarrieta, hilik; Sarasketa, giltzapetua; Acedo Panizo hamar urte geroago erail zuten, nahiz eta honen kasuan zuhurtziaz hartu behar dugun lotura, Echebarrieta hilda gertatu zen operazioan parte hartu ote zuen ez baitago egiaztatua; De Diego 1979an erail zuten; Garcések bere kamioilari bizitza atzean utzi, eta Guardia zibilean sartu zen 1968an.

V. BIZITZA MOTZ, OROITZAPENA LUZE: ECHEBARRIETAREN MITOERAIKUNTZA

Echebarrietak bere irudiaren baitan biltzen du memoria komunitate batean martiri baten eraikuntzak jarraitzen duen ibilbide prototipikoa⁶⁹. Bere burua estimatzen duen heroi batek ez du ondo-ondotik tiro egiten; Echebarrieta heroi bat zen, gudari bat, eta ezin izan zuen horrela jokatu; hortaz —erradikalismo abertzaleak sortutako kateamendu horri jarraiki—, Pardinesen hilketa bere buruaren defentsan egindako ekintza baten ondorio tragikoa baino ez zen izan, etsaia izan baitzen bere arauzko arma lehena atera zuena.

Talde sozialek, iritzi publikoan eragiteko duten nahiari jarraiki, zenbait diskurtso-mekanismo erabiltzen dituzte komunikazio-borrokan erabilia izateko prest dagoen martiri bat sortzeko garaian. Nabarmendu daitekeen lehen mekanismo bat *hil-osteko perfekzioaren apaingarria* da, martirien eraikuntzan prototipikoa den baliabidea. Echebarrietari buruzko idatzi hagiografikoetan haren irudia goratzen duten epitetoak dira nagusi, ñabardurari edo orbanari tarterik uzten ez diotenak. Lorenzo Espinosak epiteto andanarekin zipriztintzen du bere biografia liburua ildo apoteosiko horri jarraiki, eta epiteto horietako asko *Txabi* Echebarrietaren anaiak, José Antoniok, ETAko militante eta abokatu

ere izan zenak, *Iraultzan* 1968an argitaratu zuen azalpen biografikotik hartuak daude. Konstruktu horren arabera, Echebarrieta lider adeitsu bat zen, gizatiarra, eskuzabaltasunaren eta sakrifizio pertsonalaren eredu, solidarioa, heldua, eskuzabala, haurridea, askatasunaren aldeko iraultzailea, sakrifikatua, gizartekoia, ez zuen erretzen, ez zuen edaten, ikasle aparta zen, zintzoa, zuzena, karismatikoa, sentikorra, bakegilea, diplomatikoa eta elokuentea. Gainera, adimena eta ekintza uztartzen jakin izan zuen, «armak eta letrak», borroka armatua eta gogoeta intelektuala zein sentikortasun poetikoa elkartzen. Anaiaren arabera, halakoa zen «euskaldun jakitun baten heriotza, euskaldun iraultzailearena izan duen lehen euskaldunaren» profila⁷⁰.

Martiriaren eraikuntza sozial eta diskurtsiboan ematen den bigarren ezaugarri prototipikoak heriotzaren *heztearekin* du zerikusia; hau da, beren jarduerak zoritxarra ekar dezakeela barneratzea eta atseginez onartzea. Heriotzaren gaia errepikaria da, ia obsesiboa, Echebarrietaren idatzietan, gazteleraz idatzitakoetan, ez baitzuen euskara menperatzen. 1961 urtearen amaieran honako gogoeta hau idatzi zuen bere egunkarian: «Gaztaroan erraza da heriotza ahaztea, harekin borondatez jokatzeko delako. Zahartzaroan gupidagabe gainera etortzen ikusten dugunean, beharrezkoa da bizitzari zentzu bat ematea, zeina gabe ez den giza izatea»⁷¹. 1962an ekin eta ekin jarraitzen du: «Ez nau inola ere beldurtzen modu itxuraz zentzugabe hiltzeak, jakin badakidalako gauza orok zentzugabekeria ikaragarri bat gordetzen duela bere baitan»⁷². Urte bete geroago idatzitako poema batean, Gerra Zibilaren urradura jasan zuten herriei aipamena eginez, honako hau idatzi zuen: «Otxandio eta Mungiaren ondoan/ Bakio eta Lekeitioaren ondoan/ Durango eta Markinaren ondoan/ Etxebarria eta Areitioaren ondoan/ Gernikan bertan/ jausi nintzen ni, bizitzatik heriotzara»⁷³. 1964an aberriaren alde zuen sakrifizio-bokazioaren ideia errepikatu zuen: «Zu zara nire sentimendu dudagabea/ Aberria: nire odolaren ibaiaren itsasoa»⁷⁴. Azken adibide bat: 1965ean kontakizun labur batzuk idatzi zituen, behargin baten emaztearen, ikasle baten eta agure baten heriotzari buruzko zenbait ohar, «Tres cuentos sobre la muerte» izenburupean. Azken ipuina honako esaldi honekin amaitzen da: «Neu prestatu beharko naiz jada?»⁷⁵.

ETAn izan zuen gerra-lagun baten lekukotzaren arabera, Echebarrieta, geroago *Txikia* eta *Argala* bezala⁷⁶, gaitasun profetikoak zituen heriotzaren hezte adibide garbi bat izan zen honako hau esan zuenean: «Uste dut 25 urtera arte biziko naizela, agian 30era arte, baina ez naiz ohean hilko»⁷⁷. Haren anaiak ziurtatu duenez, «ezpainetan irribarre bat zuela» hil zen⁷⁸, heriotza heztea lortu zuenaren seinale garbia. Zorigaitzarekin horrenbeste konfiantza izan zuen, ezen profetia bat egin zuen (gero berak bete zuena), eta irakurketa interesatu baten ikuspegi-

tik begiratuta, haren aureola mitikoa elikatzen lagundu zuen. 1968ko Aberri Egunaren deialdiaren karietara, Echebarrietak berak idatzitako manifestu bat zabaldu zuen ETAk, non Echebarrietak honako hau baieztatzen zuen: «Inorentzat ez da sekretu bat nekez aterako garela 1968tik hildakorik gabe»⁷⁹. Ziur asko Manzanas zuen buruan. Haren aurkako atentatuaren prestaketa fasea nahiko aurreratua zuen ETAk, eta, kasu horretan, ondo informatutako iragarpen batez ariko ginatke, baina zoriak nahi izan zuen aierua bere aurka itzultzea. Ez da hura Euskadiren askatasuneko kausako martiri bihurtzeko manifestuan jasotako osagai egoki bakarra. Idatziaren amaieran aktibismoari eta konpromisoari kantu bat eskaintzen die, aberriaren epikaz egarri dauden gazteen artean berehala oihartzuna izango duena. Honako hau idatzi zuen: «Jada ez da nahikoa Franco familia artean kritikatzeko. Jada ez da nahikoa esatea “gerran gudari izan nintzelako zelatatzen naute”. Jada ez da nahikoa Aberri Eguna ospatzea edo hilabeteen hogeiei ogerleko ematea. Abertzale guztiok eman behar dugu pauso bat aurrera Euskadiren askapen integralaren borrokan ari direnekin lankidetzan. Eta hala ez bada, ez diezaietela beren buruari abertzale deitu; zeren eta —esan dezagun behingoz— gaur egun askapen nazionalaren alde eguneroko gauza zehatzak egiten dituen baina ez da abertzalea»⁸⁰.

Sarritan mitoek interpretazio erabat aurkajarriak eragiten dituzte. Dikotomia baten berri luze-zabala eman dugu, zeinaren arabera memoriaren bere komunitatearentzat Echebarrieta martiri bat den, eta estandar moraletan zentratzea nahiago dutenentzat, berriz, hiltzaile bat. Haren pentsamenduak, halaber, aurkako irakurketei bide ematen die. Alde batetik, nazionalismo erradikalak ETAREN V. Biltzarraren oinarritzko irudia bezala aurkezten du. Hemen axola zaigunari dagokionez, biltzar horretan ETAk bere egin zuen Askapen Nazionalako Euskal Mugimendu Sozialista definizioa: «Euskal Herriaren askapen nazionala Euskal Herriaren eta gizon euskaldunaren askapen integrala da; gaur egungo errealitate zapaltzailearen ukazioa da. Ukazio erabateko hori euskal herri langileak bakarrik egin dezake bere klase esplotatuaren bidez. Horregatik euskal herriaren borroka nazionala adierazpen sozialista bat da (nazionalismo iraultzailea)»⁸¹. Zenbait egileren arabera, dokumentu hori Echebarrietak aurreko testu batetik egin zuen sintesiaren ondorio da⁸². Echebarrietak 1960ko hamarkadaren erdialdetik aurrera ETAk hasi zuen borroka nazional eta sozialaren batzea adierazten duelako uste osoari atxiki zaio nazionalismo erradikalak geroztik zabaldu duen irudia, Josu Urrutikoetxeak azaldu zuen bezala⁸³. Aitzitik, beste interprete batzuen ustez, borrokaren dimentsio sozialari dena ematen zion ezkertiaratasun bat zen Echebarrietarena, nazionalismoa atxikimendu banderatzeko gisa modu oportunistan erabiltzen bazuen ere⁸⁴.

Hura hil eta berehala, Euskal Herrian protesta olatu bat lehertu zen, gorespen olatu bat ere bazena. Adierazpen- eta bilera-askatasunak zorrotz mugatuta egon arren, elizetan egindako hileta-ekintzek herri-adierazpenari leiho ireki bakarretako bat eman zioten hurrengo egun eta asteetan. Aipagarrienak Bilboko San Antón elizan ekainaren 13an egindakoak izan ziren, milaka pertsona bildu zituena. Haietako askok manifestazioa egin zuten gero, frankismoaren aurka Bilbon egiten zen lehen manifestazio nazionalista⁸⁵. Prentsa ofizialak mobilizazioen zenbatekoaren bertsio apur bat ezberdina zabaldu zuen, eta parrokiaren atean zenbait istilu sortu zirela onartzen bazuen ere, ordu erdian Polizia Armatuak normaltasuna berriro ezarri zuela gehitzen zuen⁸⁶. Halaber, liskarrak sortu ziren Euskal Herriko zenbait herritan Echebarrietaren omenez egindako beste meza batzuetan. Hala, ETAk orrikkak banatu zituen, Arrasateko San Francisco elizan ekainak 16ko eta uztailak 7ko igandeetan egin behar ziren hiletetan parte hartzeko deia eginez, Jesukristok bezala, «dena edukita ere, gugatik bizitza eman zuen hura» omentzeko⁸⁷. Parrokoaren arabera, Guardia Zibilak tenplua inguratu eta gero, pertsona bakarra joan zen omenezko mezara⁸⁸. Uztailaren 21ean, Lazkako beneditarren komentuan meza iragarrita zegoen egun berean, ikurrina handi bat agertu zen haren fatxadatik zintzilik. Poliziak meza eten zuen, bai eta zortzi pertsona atxilotu ere⁸⁹. Bizkaiko herriei dagokienez, besteak beste Bermeon, Gernikan, Lekeition (bost larunbat jarraian), Markinan, Sestaon, Iurretan, Erandion, Lezaman edo Derion egin ziren Echebarrietaren omenezko otoitz-meza⁹⁰. Gertakari horiek kontuan hartuz, Bizkaiko Gobernadore zibilak ohar bat igorri zuen uztailaren 6an, non meza-emaleei otoitz-mezetara joatea mugatzen zitzaien: «Orain arte Francisco Javier Echevarrieta Ortizen omenez (...) egin diren otoitzak izaera separatista handia duten ekintza bilakatu direla kontuan hartuta, Gobernu Zibil honek, ekitaldi erlijiosoak ospatu ote daitezkeen kontuan muturra sartu nahi ez duenak, jendearen bertaratzea mugatzeko beharra ikusten du, ordenaren asaldurak errepika ez daitezen saihesteko helburuarekin, hortik erator daitezkeen ondorio tamalgarririkin»⁹¹. Auzitegi frankistek garbi zuten Echebarrietaren hileta-ekintzek ETAk antolatutako kanpaina bati erantzuten ziotela, eta eliza-elkarteko kide erlijiosoen konplizitatea zutela. 1970eko abenduaren 18ko Burgoseko epaiketa sumarisimoko sententzia oso garbia da horri dagokionez: «ñabardura askoko ekintza sorta mailakatu bat programatu zen. Ekintzak meza-kanpaina batekin hasi ziren, eta euskal kausaren atxikimendua begiko zuten apaizen elizetan egin ziren, adierazpen sasi-erlijioso gisa antolatu zirenak fakzio terrorista-separatista horrekin batera. Adierazpen horiekin bat egin zuten apaiz egoskor eta separatista horiek»⁹².

Frankismoa bezalako diktadura-esparru batean, elizak eta haien arduradunak oinarrizkoak izan ziren herriaren amorrua katalizatzeko ETAko kideekin zerikusia zuten elizkizunak ospatu ziren une puntualetan. Gainera, zenbait apaizek zeregin garrantzitsua bete zuten nazionalismo erradikalaren urte hasiberri haietan. Hona adibide argigarri batzuk. Sarasketak ihes egitea eta Errezilera iristea lortu zuen, eta gaua elizaren pulpitu eta aitorlekuan igaro zuen, apaizak lagunduta. Hurrengo goizean sakristauak aurkitu zuen, eta geroago atxilotu zuten; Bilboko San Antón elizaren inguruan izandako gorabeheretan hogeita hamar pertsona atxilotu zituzten, horien artean lau apaiz (haietako bat, Periko Solabarria, HBko kide nabarmena izan zen gero) eta bi apaizgai⁹³. Hortaz, ez da harrigarria hamabost egunez behin ateratzen ziren Polizia frankistaren informazio buletinetan «ideia-bilduma separatista zuten apaiz batzuk», «separatismo amorratu batekoak», Euskal Herrian 1968ko udazken aldean bizi zen gatazka giroaren eragile bezala seinalatzea⁹⁴.

Hilerrietan ere bizi izan zen Echebarrietaren goresmena. Santu Guztien jaia baliatuz, Bizkaiko zenbait herritan (Bilbo, Getxo, Barakaldo, Santurtzi, Erandio, Durango, Portugalete...) kopiagailu batean ateratako orrilaurren batzuk agertu ziren, zeinetan jendeari eskatzen zitzaion efemeride hura «Xabi Etxebarrietaren oroimen eta omenaldiaren aldeko Euskal Nazioaren Eguna» bezala ospatzea, Derioko haren hilerriaren gainean lore bat jarrita. Postontzietan banatu zituzten, postaz eta «ereintza» txikietan⁹⁵. «Xabiren oroimena —zioen orri hegalaria— karranpa bat da gure kontzientzian. Hartan islatuta ikusten dugu geuk egiteko ausardia eduki nahi genukeen hura, baina hala ere egiten ez duguna. Esan dezagun apaltasunez. Hark egin zuena egiteko adorerik ez badugu, izan gaitezen behintzat gai hura duintasunez gogoratzeko»⁹⁶.

Aduna eta Venta Aundiko gertaerek inflexio puntu bat markatu zuten euskal eta espainiar gizarteetan, eta ondorioak suma ditzakegu gaur ere. Gazteriaren zati garrantzitsu batek sentitu zuen amorraren eta ezintasunaren ondotik, jende gehiago gehitu zen ETAREN lerroetara Echebarrietaren eredia imitatzeko. Miren Alcedo antropologoak garai bateko zenbait etakide elkarrizketatu zituen, eta etakide horiek aitortzen dutenez, Echebarrieta, *Pertur* edo *Argalaren* heriotzen berri izan ostean eman zuten jauzia konpromiso armatura. Hala aitortzen du ere Arantza Arrutik, urte haietan ETAREN lerroetan Echebarrietaren kide zenak eta gerora Burgosen epaitua izan zenak: «*Txabi* erori eta gero, gazte asko batu ziren taldera, eta ETAko legezko militanteetako asko, besteak beste López Irasuegi, liberatu, eta klandestinitatera pasatu ziren, hori baitzen *Txabiri* eskaini ziezaioketen gutxienekoa, herriaren alde buru-belarri eta eskuzabaltasunez aritzeagatik»⁹⁷.

Hura hil eta gero, Echebarrietak zenbait oroimen-leku izan ditu. Agian, guztien artean aipagarriena, Arantzazuko Basilikan dagoena da, Jorge Oteizak egindakoa. Artistaren lekukotza batek jakitera ematen duenez, Venta Aundiko gertaerak erabakigarriak izan ziren bere fatxada proiektua Pietate bat izan zedin —eta ez Amatasun bat, hasieran aurreikusia zegoen bezala—, non Ama Birjinak oinetan edukiko zuen hildako semea. Hildako semea Echebarrieta baino ezin zen izan. Honako hauek dira interpretazio horri bide ematen dioten Oteizaren hitzak: «*Txabi* Etxebarrieta ikerketa-manifestu bat prestatzen ari zen euskal artista eta intelektualentzat, eta nirekin kontsultatu eta eztabaidatu nahi izan zuen... Eta han [Madrilen] nengoela kolpatu ninduen haren heriotzaren albisteak, ekainaren 7an, Benta-aundin sakrifikatua... Azaroaren 1an Arantzazura igo nintzenean jada erabakita nuen Hormaren gorenean hildako Semea jarriko nuela, Amaren oinetan, zerura begira egongo dena, zeruari erreguka, hizketan, ez dakit»⁹⁸. Badira interpretazio hori «ahoz aho zabaldutako kondaira»tzat jotzen duten egileak, eta diote Oteizak «ez zuela inolako unetan Pietatea Txabi Etxebarrietaren heriotzarekin uztartu»⁹⁹.

Beste oroimen leku batzuk kale izendegiarekin lotuta daude. Horri dagokionez, adibide aipagarriena Bilboko Alde Zaharreko Unamuno Plazarena da. Azken hamarkadetan nazionalismo erradikala behin eta berriz saiatu da Echebarrieta familia bizi izan zen enparantza «Plaza Hermanos Etxebarrieta» bezala izendatzen, baita haren anaia José Antonioren omenez ere, erakunde terroristako ideologo izan zena. Beren sinekdokearen politika argitzen duen adibide gisa (zati bat osoa bihurtzea), 2008an bere heriotzaren berrogeigarren urteurrenaren harira dei egindako ekintzetan, *Gara* egunkariak zioenez, «haiek bizi izan ziren lekuari Hermanos Etxebarrieta deitzeko borondatea zuten Bilboko Alde Zaharreko bizilagunek»¹⁰⁰. 2004 urtean Bilboko udalak Echebarrietaren busto bat kenarazi zuen Otxarkoaga auzoko Urretxindorra enparantzatik. Lehenago, haren heriotzaren hamargarren urteurrenarekin batera, Euskal Herriko herrien kale izendegian lorratz frankista garbitu gabe zegoenean, pertsona talde handi batek Donostiako Avenida del Generalisimiko plaka kendu, eta beste bat jarri zuen haren lekuan, honako hau zioena: «Calle Txabi Etxebarrieta, 7-6-1968»¹⁰¹. Azkenik, merezi du Bizkaiko Leioa herriko adibide bat hizpidera ekartzea. Ekaineko gertaeren 40. urteurrenarekin batera, Dignidad y Justicia elkarteak justiziaren aurrean salatu zuen aipatu Bizkaiko herrian «Avenida Txabi y Joseba Etxebarrieta» izeneko kale bat zegoela¹⁰². Polemikaren ondotik, herri-agintariek izena aldatu zioten, eta «Avenida Euzko Gudariak» izena jarri zioten. Grafia ikusita, errepublika babestu zuten soldadu nazionalistei egiten die aipamen («Euzko» jartzen du «Eusko»ren ordez), ez etakideei.

Aipatutakoen aldean izaera ezberdina duen beste oroimen leku mota bat talde terroristen ohiko jardun bati lotuta dago: beren komandoei hildako kideen izenak jartzea, haien ohoretan. Badakigu 1970eko hamarkadaren bukaeran komando bat izen horrekin aritu zela Bilboko Ibaiaren Ezkerraldean. Antza denez, haren partaideak PCER-koak ziren, Partido Comunista de España revolucionario-koak. Alderdi horrek, zeinaren beso armatua GRAPO zen (ez zen Euskal Herrian aritu «askapen nazionalako borrokan» ez nahasteko), beren militanteei eskatu zien Euskal Herriaren independentziaren aldeko borrokarekin bat egiteko. Ez dago garbi aipatu komandoa Komando Autonomo Antikapitalisten barruan zegoen ala ez¹⁰³. Azkenik, ETAn sartutako «Txabi Echebarrieta» izeneko beste komando baten zantzuak daude, eta haren arduraduna Juan Carlos Yurrebaso Atutxa izan zen¹⁰⁴.

Echebarrieta, ETAn lehen gidoigilea Mario Onaindiaren ustez, nazionalismo erradikalaren martirien panteoia inauguratzen duen lehen martiria da. Urtez urte haren oroimenaren aldeko ekintzak ospatzen dira erritualki, eta horrek pentsatzera garamatza komunitate nazionalista erradikalak nahiago duela Echebarrieta kausaren aldeko martiri gisa goraiatzeko duen bertsioari atxikitzea, Gerra Zibileko gudariei jarraiki¹⁰⁵.

ONDORIOAK


Alemaniko Gudaroste Gorriaren Frakzioaren komunikazio-estrategietan aditua den batek baieztatzen duenez, «talde terrorista baten sinesgarritasunak gora egiten du bere hildako propioak erakuts ditzakeenean»¹⁰⁶. Atal honetan ETAk 1968an, bere lehen hilketen urtean eta baita bere martirien panteoi partikularraren zerrenda ireki zuen urtea ere, abian jarritako komunikazio-estrategia aztertu dugu. Euskadiren askapen nazional eta sozialaren alde bizia eman zuen ETako lehen martiri gisa pasa da *Txabi* Echebarrieta nazionalismo erradikalaren intrahistoriara. Haren heriotzaren inguruan izandako gertaeren azterketa xehe bat egin ezkerro, aberriaren aldarera igoa izateko zenbait osagai disfuntzional daudela ikusiko dugu: pertsona bat odol hotzean eta atzetik hil zuen, droga baten eraginpean. Hori ez da oztopo nazionalismo erradikalak urtez urte goretsi dezan, sarritan bere anaia Jose Antoniorekin batera, baita Joseba Asensiorekin batera ere, 1986ko ekainean kartzelan tuberkulosiaz hil zen beste etakide bilbotar bat. Eskura dugun ebidentzia historikoa bihurrituz eta sortze-gezur bati hegoak emanez, nazionalismo erradikalak Echebarrietaren kondaira elikatzen jarraitzen du bere urteroko gorespen erritualarekin, baina gaur egun beharrezko judiziozko osagai nahikoak dauzkagu

haren heriotzaren aurretik hilketa bat egon zela esateko, hil-ondorengo perfekzio hori ezbaian jartzen duena. Gainera, ezinezkoa da Pardines hiltzeko erabili zuen arma, Astra 600-43 bat, Gerra Zibileko gudari batena izatea, hagiografia ultranazionalistak behin eta berriz zabaldu duen bezala.

Hortaz, Echebarrietaren mitoa aztertzea komeni da, hartan txertatuta dauden osagai faltsuak bereizteko: pistolak erregimen naziaren ekimen batetik sortu zen, 1943an euskal lantegi bati eskatu baitzion. Pistolak ibilbide luzea egin zuen Euskal Herriaren eta Alemaniaren artean, eta, ondoren, bide ezezagun batetik Euskal Herrira itzuli zen berriro Parisetik. Beraz, ibilbidea ez zen 1936-37an hasi, eta, era berean, ez dugu Algeriako independentziaren aldeko gerran erabilia izan zelako inolako ebidentziarik.

Gezur politikoari buruzko bere saiakeretako batean, honako hau eutsi zuen Hannah Arendtek: «Belaunaldi bakoitzak bere historia propioa idazteko eskubidea duela onartzen ari garenean, aipatu belaunaldiek gertaerak bere ikuspegiaren arabera ordenatzeko duten eskubidea aitortzen ari gara, eta ez gai objektibo bera aldatzeko eskubidea»¹⁰⁷. I. Mundu Gerraren historia modu askotan idatz daiteke (eta idatzi da), baina inor ez da hasi esanez Belgikak Alemania inbaditu zuela¹⁰⁸. Gai objektiboa, egia faktuala, Arendtek esango zuen bezala, honako hau da: Echebarrietak odol hotzean hil zuen Pardines, eta, ondoren, Guardia Zibilak hil zuen bera. Euskal Herrian alibi politikoa duen indarkeriaren historia berreraikitzeke orduan, ez da komeni hori saihestea, are gutxiago desitxuratzea, zeren eta 1968ko ekaineko egun hartan hamarkadetan zehar Euskal Herrian indarkeria elikatu duten *urte huli-ganikoei* hasiera eman baitzitzaien.

ETAko martiriak, 1977



ITURRIA: Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa.

Txabi Echebarrietari omenaldia, Bilbon 1988ko ekainean




ARGAZKIA: Jonan Zinkunegi/Arovite <http://www.arovite.com/es/jonan-zinkunegi/>

Txabi Echebarrieta, 2008



ITURRIA: Jesús Casquete.

ETArein komunikatua: «El primer mártir de la revolución»,
1968ko ekaina

ITURRIA: *Documentos Y*, VII. lib., 484. or.

VII. ATALA

«GERRA IRAULTZAILE»TIK HIGADURAREN GERRARA. ETAren INDARKERIAREN KIRIBILA (1968-1978)

ÓSCAR JAIME JIMÉNEZ

Universidad Pública de Navarra (UPNA)

Gure gaur egungo gizarte demokratiko, ireki eta pluraletan onartzeko zaila egiten den anomalia bat bezala ikusten dugu talde terroristen presentzia. Egitura horiek maximalistak dira, ideologia fanatikoa dute eta errealitatea sinplifikatzen dute, leku klandestino lohi eta isolatuetan saihestezina den indarkeria bat bidezkatzen dute. Begirada aditua, arazoa zatitu, eta izaera politiko, instituzional, sozial, ekonomiko eta kulturaleko izaera duen aldaera bakoitza aztertu ostean, bakoitzari pisu espezifiko bat ematen saiatzen da, haiek egoki konbinatuta, terrorismoaren fenomenoaz azaltzeko bidea eman dezaten. Prozesu honen ulermenak aukera ematen die Estatu demokratikoei, akats eta egokitze askoren ostean, erantzun konplexu eta eraginkorrak emateko.

Aitzitik, testuinguru ez demokratikoetan agertokiaren eta honen ondoriozko bilakaeraren konfigurazioak ildo oso ezberdinak jarraitzen ditu. Ezarpena eta boterearen kudeaketa autoritariora ohituta dauden erregimen politiko hauek erantzun oso murriztuak eskaintzen dituzte, eta bere muga kognitiboengatik, jatorrizko arazoaren ulermen estuagatik, jazarpen sentsazio iraunkorragatik eta ezerein ordezko kudeaketak proiektu lezakeen ahultasuna irudiaren aurrean irmotasuna erakusteko beharragatik hertsatuta daude. Testuinguru horretan indarkeria bide transakzional bakarra, bere burua elikatzeko joera duen gorako kiribil bihurtzen da. Dinamika horrek bere logika propioa garatzen du, batez ere alde bakar bat ere ez bada gai besteari gailentzeko.

ETA, *Euskadi ta Askatasuna*, erakunde terroristaren eta Espainiako Estatuaren arteko borroka, ekindako epealdian zehar, bigarren agertokia xehetasunez ikusteko aukera ematen du, eta kalkulu akatsengatik, interpretazio-joerengatik eta bi protagonistek egokitzeko duten gaitasun ezagatik bereizten da, krisia sakonagoa izatea ekarriko duena. Garai honetan zehar finkatu zen ETAk eta bere inguruneak hurrengo hamarkadetan proiektatuko zituen pertzepzioen zati handi bat, hortik garaiaren garrantzia.

I. DIKTADURAREN POLIZIA-EGITURAK

1958an ETA Euskal Herriko agertoki politiko-sozialean agertu zenean, erregimen frankistaren gainbehera urrun zegoen oraindik. Hala ere, urte gutxi falta ziren lehen sintomak agertzeko, estatu mailan gertatzen hasi ziren langileen asalduraren eta ikasleen protesten bidez, hirurogeita hamarrekoko hamarkada hurbildu ahala areagotzen joan zirenak. Frankismoaren erregimen autoritarioak polizia-egitura eraginkor bat zuen bere biziraupen propioaren zerbitzura, makien eta hirietako oposizio klandestinoaren aurkako borrokan jo eta ke aritutakoa. Gerra Zibilaren ondorengo errepresioak intentsitate handia harrapatu zuen segurtasun indarren aldetik, Alemaniako nazioaren aholkularitza jaso zutenak¹. Hamarkaden joan etorriarekin leuntzen joan zen haien gogortasuna, baina korporazio-kulturak eta poliziaren *know how*-ak, baita haien joera ideologikoak ere, betiberdin jarraitu zuten². Militarizatutako poliziak ziren, beren helburuen kontzepzio politikoarekin, eta segurtasun eta gudarostearen hierarkia kontuetan egitura militar nonahikoa —gehienak Gerra Zibilean borrokan aritu ziren— zuten. Hortik ondoriozta dezakegu barne-segurtasuneko arduradunek kaleko eta unibertsitateko protesten esanahiaz zuten kontzepzioa: ageriko matxinada baten adierazpen gisa ikusten zituzten, garaietara egokituak eta nazioarteko antzezle etsaiek sustatuak.

Nahiz eta egoera horrelakoa izan, segurtasun indarrak eta beren funtzionarioak une hartako agertoki sozial eta kulturalaren zati integral eta integratua ziren. Poliziak Estatuaren dimentsio biolentoa ziren, eta gai politikoetan nahastuta ez zegoen biztanleriaren gehien-goak hala onartzen zuen. Poliziak, beren jarrera zakar eta autoritarioekin, bake sozialaren zaintza ulertzeko modu baten adierazpena ziren bai agintarientzat bai gizartearentzat berarentzat ere. Beste ezein ordeko ikusmolde anarkiarako eta desordenarako aukera ageriko bat bezala ulertuko zen. Guardia Zibilaren kuartelak paisaia instituzional eta sozialaren zati ziren, eta haien kideak ingurune horretan

txertatuta zeuden lurralde guztian, Andaluziatik Probintzia Baskongadoetara³.

Polizia-egituren oinarritzko helburua disidentzia politikoaren aurkako borroka zen. Zentzu horretan, CGPk, Cuerpo General de Policía delakoak, Ikerketa Sozialeko Brigada izeneko elite bat zuen, «la secreta» bezala ezaguna, oposizio politikoaren jazarpenean zentratua. Guardia Zibilak, aldiz, SIGC delakoa zuen, Servicio de Información de la Guardia Civil (Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua), 1941an promulgatutako lehen jarraibide zehatzetatik garatu zena⁴. Gatazka zibilaren ondotik, informazio-egiturako baliabide ugariak errepresio politikoan zentratu ziren, makien behin-betiko porrotera arte. Gerora, lehen bultzada bat jaso zuen 1958 eta 1965 artean, 18 informazio-talde izatetik 91 izatera pasa baitzen⁵, 1959an hasitako modernizazio prozesuari lotutako Espainia berriaren azalratzearekin batera. Hirurogeita hamarreko urteen hasieran SIGC-i emandako bultzada berritu zen, eta GOSI delakoa sortu zen gero, Grupos Operativos del Servicio de Información. Horietatik sortu ziren GAO delakoak, Grupos de Apoyo Operativos. ETAk 1968an egindako hilketen ondotik, guardia zibil beteranoen artean lekualdatze-eskariak gorako joera hartu zuten, eta gero masibo bihurtu ziren. Ondorioz, esperientziarik gabeko agenteak etorri ziren guardia zibil beterano horiek ordezkatzera. Hirurogeiko urteen amaiera eta hirurogeita hamarrekoen lehen erdia hartzen duen epealdi horretan Guardia Zibilak presentzia eraginkor oso eskasa izan zuen ETAre aurkako borrokan⁶. Azken batean, terrorismoari aurre egiteko informazio-zerbitzuek zuten prestakuntza oso urria zen, eta matxinadaren aurkako borrokari zegozkion erreferentziak, bai hurbilekoak bai urrunekoak, makia edo anarkismoa bezalako esperientzia historikoe-tatik zetozen hurrenez hurren.

Segurtasun egitura osoan *ethos* militarizatua zen nagusi. Indar Armatuak ordena publikoarekin zerikusia zuten kontuetan bizitasunez parte hartzen zuten. Gogoratu behar da bai Guardia Zibila bai Polizia Armatua Gudarosteko jeneral baten agintepean zeudela. Herrizaintza Ministerioaren zenbait zerbitzutan langile militarrek zeuden, baita Gobernuko presidentziarenean ere, erregimenaren aurkakotasunarekin zerikusia zuten gaiekin lanean. Eskuduntza judizialen mailan, auzitegi militarrek zibilak epai zitzaketen Indar Armatuakiko desobedientzia, erresistentzia eta laido delituengatik⁷. Hala, erakunde militarrek, Trantsizioan eta kontsolidazio demokratikoaren zati handi batean segurtasun agentziak kokatzen ziren esparrua zen aldetik, eragin handia izan zuen estatuko poliziek beren egoeraz eta beren inguruneaz zuten pertzepzioan⁸.

II. BIDEA MARRAZTEN

Berrogeita hamarreko hamarkadan zehar, euskal nazionalismoaren sektore gazteek gelditasuna leporatzen zieten belaunaldi zaharrei; hori dela eta, aldarrikapen bide ordezkioak bilatzeko hautua egin zuten zenbait taldek. Hamarkada horretan zenbait proposamen antolatu baziren ere, 1958an ETA sortu arte —hasierako egitura zehaztugabe batekin, orduko gizartearentzat profil baxua eta hutsala zuena⁹—, ez ziren finkatu indarkeriaren erabilerari buruz gogoeta egiteko oinarriak (ikus III. atala). Hortik aurrera, aldez aurretik euskal nazionalismo tradizionalarekin hasitako urrutiratzea sendotuko zuten norabideak hartu zituen erakunde berriak, eta, era horretan, tradizionalki euskal abertzaletasunaren sentsibilitatearekiko arrotzak izandako zenbait gizarte-sektoreetara hurbildu zen, nolabaiteko herri-aldarrikapenak zituztenak. Langileen ingurunera egindako hurbilketa horren ondorioz, ideal nazionalistetan jarduera politiko eta sindikalak barneratzen joan ziren progresiboki, halako eran non gero eta zailagoa baitzen borroka nazionalista borroka politiko eta sozialetik bereiztea, nahiz eta, gerora, sentsibilitate aniztasun hori izan zen erakundea zatikatu zuten liskarren oinarria. Indarkeriaren ernatze epealdi horretan, helburu politikoen elkarrekiko erlazio estua eta ETAk jarraitu beharreko estrategi militarrik definitu ziren ere.

Segurtasun indarrentzat nahiko oharkabean pasa zen ETAREN sorrera, ez baitzen ekintza aipagarririk izan. Eraginkortasunak baino gehiago, berotasunak bultzatu zituen lehen ekintzak. 1961eko uztailearen 18an tren bat errailetik irtenarazten saiatu ziren. Porrot egin arren, ekintzak errepresio bizia ekarri zuen, eta jarduera biolentoa ia-ia desagertu zen, hurrengo urtean jarri zituzten bi lehergaiengatik izan ezik. 1964an bederatzi bonba jarri, eta beren lehen armak eskuratu zituzten. 1967an bost ekintza egin zituzten bonbekin, eta lau molotov koktelekkin. Hurrengo urtean Espainiako Astra arma motzen lehen sorta eskuratu zuten Txekoslovakian (ikus VI. atala)¹⁰.

1968ko ekainaren 7an ETAk José Antonio Pardines erail zuen (ikus III. atala). Hilketak horrek ETAREN historiaren lehena eta oraina markatu zuen¹¹, uda hartan burutu zuten Melitón Manzanos inspektorearen hilketarekin batera, eta, hortik aurrera hasi zen ETAREN eta Estatuaren borrokaren iruditeria kolektiboaren eraikuntza¹². Ekintza horiek ondotik etorri zen dialektika biolento moldagarri eta ETAK estrategikoki konfiguratutakoaren bilakaera definitu zuten, ekintza-errepresio-ekintza deiturikoa, nahiz eta gehiago izan zen aurkikuntza baten emaitza eta ez teoria baten fruitua¹³. Ziur asko, erakundearen historiako dotrina estrategikoko garrantzitsuena izan da, eta horrela sartu zen fronteen egitura¹⁴, gai alor gisa (politikoa, militarra, ekonomikoa eta kulturala).

Logika estrategiko hori bazegoen jada Mao Zedong-en ekintza iraultzailean, eta V. Biltzarrak barneratu zuen, 1966 eta 1967 artean¹⁵, nahiz Julen Madariagak III. Biltzarrean jada zirriboratu zuen 1964an¹⁶. Hainbat taldek jasaten zuten errepresioaren artean bereizketarik ez egiteko beharra nabarmentzen zuen teoriaren oinarriak; hau da, aktibista, teoriko, jarraitzaile edo maila ezberdinean hura babesten zuen biztanleria orokorraren artean. Potentzia kolonialek Palestinan, Txipren, Indotxinan eta Algerian (ikus I. atala) egindako akatsetan oinarritutako logikaren ondorioz, uste zuten biztanleria zibilaren aurka pilatutako errepresioak —askatzaileen ekintza armatuek erantzun gisa izandako gainerreakzioaren ondorioz— jarrera ambigua edo ez konprometitua zuen biztanleria matxinadaren besoetara bultzatuko zuela. Kasu askotan hori neurri batean hala izan bazen ere¹⁷, euskal probintzietan eta Nafarroan ez ziren ematen lurralde kolonial baten berezko ezaugarriak (ikus II. atala). Hala ere, ikuspegi estrategiko horrek aldagaitz jarraitu zuen ikertutako epealdian zehar, eta une kritikoetan indartu egin zen, diktadorearen heriotzaren ostean erregimena kolapsa zitekeelako edo ekintza zehatzen bidez haren heriotza aurreratzen lagundu zitekeelako argudioarekin. Hala, Algeriako kasuan eta beste adibide batzuetan bezala, monumentuen aurka hasieran burutzen zen izaera sinboliko hutseko indarkeriak gora egin zuen, bere etsipenarekin berarekin elikatu zen, eta bere burua bultzatzen zuen kiribil bat sortu zuen, non indarkeriak bere dinamika propioa garatuko zuen kudeatzaileen asmoak alde batera utzita. Erakundearen zuzendaritzak finkatu zituen helburu maximalista eta irrealak, askatutako indarkeria baten ondorio albokideak maximizatu nahi zituzten estrategia militarrekin osatzen ziren, eta askatutako indarkeria horri gaitasun dinamizatzaile eta katartikoa egozten zitzaion. Azken batean, arerioaren probokazioaren bidez, Estatuaren ahuldadea bide gisa erabiltzeko espazio gisa ikusten zuten borroka asimetrikoa.

Deigarriena da paradoxa bitxi bat ematen zela: errepresio frankistaren logika bera dotrina horren mende zegoen, modu desberdindu gabean tratatzen baitzituen erakundekoak izateaz susmagarri zirenak edo jarraitzaile finko zein aldikakoak. Bilboko Poliziaren Goi Buruzagitzaren laburpen estatistiko batean, ETA erakundeko kideak jazarzeko dauden zailtasunak azpimarratu zituzten, baita jarraitzaileei ematen zitzaien tratu desberdindu gabearen arrazoiak ere, zeren eta...»ideologia bera duten pertsona askok babesten eta laguntzen dituzte (...) beren etxeetan babesten dituzte, eta orotariko baliabideak eta dirua ematen dizkiete (...), eta honela poliziaren ekintza ia erabat ezeztatzen dute»¹⁸.

Aipatu ETAren lehen ekintzek arretaz ikertu ez den prozesu bat eragin zuten, eta aztertzaile, ikertzaile eta kazetarien arreta erakarri

zuen ondorengo urteetako indarkeria maila handia izan zen. Hala ere, lehen une horien garrantzia azpimarratu behar da, haietan finkatu baitziren pertzepzioak, rolak eta iraganeko berrinterpretazioak. Segurtasun indarrentzat berentzat 1968 urtea garrantzitsua da, urte hartatik aurrera agertoki sozialetik bat-batean alde egin, eta beren komisaria eta kuarteletan babestu baitziren. Alde egite hori 1974an sendotu zen, eta aurreko epealdiaren dramatismoarekiko oso bestelakoa izan zen¹⁹.

1968an eragindako bi hildakoak —geroago berriro aipatuko ditugu, duten garrantzia dela eta—, askoz lehenago, 1962tik aurrera, gertatutako helburu argitzapen baten ondorio izan ziren, eta V. Biltzarra ekarri zuten. Mundu mailako politikaren analisiak esparru politiko global batean gertatzen ziren, eta, esparru horrek bultzatuta, Euskal Herria lurralde kolonizatutzat eta esplotazioaren mendekotzat jotzen zuen interpretazio-leku horretan kokatu zuen bere burua orduko ETAk. Alderdi horrekin batera, 1967tik aurrera bizi izandako errepresioaren gorakadak noraez horren aldeko jarrera kognitiboa eragin zuen. Erregimenaren errepresioak abantailak eskaintzen zizkion Erakundeari, eta azken hau horretaz erabat jakitun zen²⁰.

1967an, langile-gatazken artean sei hilabete igaro eta gero, gobernuak salbuespen egoera ezarri zuen apirilean. Horrek geroagoko indarkeria gorakadarako oinarriak finkatu zituen, ekintza-errepresio-ekintza estrategia berrian jada erabat integratuta zegoena. Elkartutako errepresioaren gorakadak presondegietako bizi-baldintzak hondatu zituen, eta polizia benetako sua erabiltzen hasi zen manifestazioetan. Ondorengo hilabeteetan ETAk zenbait lapurreta egin zituen, eta 1968an bonbak jarri zituen sinbolismoz betetako leku batzuetan. Bizi zen tentsioaren karietara, ETAk bere liberatuei armak emateko erabakia hartu eta ekintza-ildo batzuk ezarri zituen, emaitza oso positiboak turrustan ekarriko zituztenak. Horrek borroka armatuaren aukerak areagotu zituen. Donostiako 1968ko Aberri Egunean istilu oso larriak izan ziren. ETAREN ekintzen ondotik, segurtasun indarren erantzun irmoa etorri zen. 1968ko ekainaren 7an José Antonio Pardines guardia zibila erail zuten, eta ETako militante Francisco Javier Echebarrieta ere hilik gertatu zen (ikus III. atala). Ondoren, Melitón Manzanás inspektorea erail zuten, Txabiren heriotzak eta haren kide Iñaki Sarasketaren espetxeratzeak eragindako aztoramen biziko hilabeteen ondotik. Agertoki horri esker, ETAk ohiz kanpoko protagonismoa lortu zuen, eta nazionalismo berri eta indarberrituaren adierazpen sinbolikoa bihurtu zen (ikus VI. atala).

Inspektorearen heriotzaren ondotik, erregimenaren nahasmena errepresio bereizi gabe bihurtu zen. Salbuespen egoera deklaratu zen Gipuzkoan hiru hilabetez, bederatzi hilabeteraino luzatu zena, eta

indarrean zeuden berme pertsonalak ezabatu ziren. Agerikoa denez, egoera horrek gehiegikeria asko erraztu zituen, eta hori zen ETA bila zebilena. 1968an 434 pertsona atxilotu zituzten, 189 kartzelara eramanean, 75 deportatu eta 38 erbesteratu. Gertaera horiek solidaritate olatu bat eragin zuten bai Espainian bai atzerrian, eta, hortik aurrera, nazioarteko komunitatea Euskal Herriaren egoerari arreta jartzen hasi zitzaion²¹. Egoera horrek ondorio oso kaltegarriak izan zituen Estatuaren erantzunarentzat²². Manzanasko inspektorearen hilketatik ikusminez eta larritasunez bizi izan zen erregimenaren aurkako erronka aipagarriarik ezagutu ez zuen agertoki batean. Inflexio-puntu bat zen, eta hartatik aurrera diktaduraren ahultasuna hautematen hasi zen. Edozein kasutan, euskal gizarteak hoztasunez hartu zuen Manzanasko heriotza, eta hala sentitu zuten ere ETAk militanteek. Geroko salbuespen egoerak ekarritako errepresioaren harira, jarrera hori progresiboki aldatzen joan zen²³. Gertaera horiei esker, ekintza-errepresio-ekintza estrategiak esleitu zion zeregina zehaztasunez bete zuen diktadurak, baita ETAk berak esleitutako gidoia bete ere. Helmen zabalean eta atxiloteta mordoa oinarritutako polizia-estilo eta -ekintza bat ezarri zen modu iraunkorrean, eta inertzia horiek guztiak hurrengo urteetan zehar luzatu ziren. Horri foru militarren ezarpena gehitu behar zaio, Ordena Publikoaren Auzitegia ordezkatu zuena²⁴. 1963an sortu zenetik, ordu arte eskumen militarren pean jausitako zenbait delitu zibilizatzen saiatu zen. Hortik aurrera egin ziren epaiketek ETAk militanteen eskakizunen bozgorailu gisa funtzionatu zuten, eta konprometituta ez zeuden hiritar sektore zabalen begietara, baita sentikorrek eta harkorrek ziren nazioarteko iritzi publikoarenetara ere, biktima bihurtzeko aukera eman zieten. Errepresioak emaitzak izan zituen, halako eran non, 1968ko abuztutik aurrera, ETAk, une biziki ahul batean, atzera egin behar izan zuen berrantolaketa bat egiteko helburuarekin.

Frantziako maiatzeko esperientziak eragina izan zuen Europako erakunde iraultzaile guztiengan, baita ETArengan ere. Une hartatik aurrera, mistika iraultzaile eta biolento halako batek Europako zenbait gazte belaunaldi liluratu zituen (ikus I. atala), eta ETA ingurune horren partaide izan zen²⁵. Auzoko herrialdean bizi zen egoeratik bi ondorio atera zituen erakunde terroristak: lehena, Frantziako ezkerreko mugimenduak kale egin zuela egitura sendo, diziplinatu eta hierarkizaturik ez zuelako; hori dela eta, erakundeak izaera leninistako zentralizazio baten aldeko apustua egin zuen. Bigarrena, Estatuaren indarkeria errepresiboa gupidagabea dela. Espainiako testuinguruaren kasuan, kopuruek modu dramatikoan jartzen zuten agerian hori —1953 atxilotu 1969an, eta 831 1970ean²⁶, zeintzuetatik 890ek tratatu txarrak jasan zituzten; 350ek lehen mailako torturak eta 160k

bigarren eta hirugarren mailakoak, STV (Solidaridad de los Trabajadores Vascos) sindikatuaren arabera—, eta hortik ondorio logiko bat atera zitekeen, ETarentzat oso nabarmena zena: soilik indarkeria izango zen gai euskaldunek bizi zutena bezalako zapalkuntza egoera bat bideratzeko.

Lurralde nazional osoaren gainean ondoren deklaraturako 1969ko salbuespen egoerak eragin berezia izan zuen Euskal Herrian, halako punturaino non ETAk bere militantzia handitu, eta langileen esparruan sartzea ere lortu baitzuen, zeinean ordu arte zailtasun handiak izan zituen. Edozein kasutan, diktaduraren informazio zerbitzuek ezin izan zuten ikusi 1969an ia erakunde osoa desegin zutela, eta 40 aktibista baino ez zirela aske geratzen²⁷. Poliziaren txostenek nabarmentzen dutenez, biztanleriaren artean gogo-hoztasun masibo bat zegoen, baita agintarien aldetik kontrol eraginkor bat gauzatzeko zailtasun gero eta handiagoak ere, eta autokritika lotsati bat martxan jarri zuten hala Mugimenduaren Gipuzkoako Kontseilu Probintzialesetik nola Bizkaiko Gobernu Zibiletik, nazionalismoaren dinamismoari aurre egin ezin izan ziotelako. Poliziaren esparruan ere hasiak ziren irakaskuntzaren erakundeen bidez transmititzen ari zen sentimendu nazionalistaren ondorio kaltegarriak azpimarratzen²⁸.

Urte hartan berean, oposizioari buruzko datuak biltzeko ardua zuen talde bat sortu zen, Informazio eta Turismo Ministerioaren eta Herrizaintza Ministerioaren artean kokatua, Eduardo Fuentes Gómez de Salazar izeneko militar batek zuzendua. Administrazioen mailan egiten zen informazio zatikatu eta kontraesankorraren gainean ohartarazpena egin zuen. Talde berri honek *Plan Udaberri* bezala ezagutuko zena idatzi zuen, benetan originalak ziren gogoetak eta erantzunak biltzen zituena, testuinguru politikoa eta ordu arte erakutsitako ikuspegi murrizta kontuan hartuta. 1969ko data duen proposamenak kontzeptu sofistikatuak erabiltzen zituen, eta egoerari aurre egiteko ekintza psikologikoko diseinuak aipatzen zituen. «Postura malgu baten alde egiten zuen bigarren mailako gauzetan (kontzesio administratibo posibleak, erraztasunak kulturaren alorrean, eta abar...), oinarrizkoan amore eman gabe»²⁹. Sektoreak bere perzeptzioaren eta konpromisoaren arabera bereizteko beharra aipatzen zen. Komunikabideek garrantzi handia hartuko zuten, euskarazko zenbait modalitate indartuko ziren, dagoeneko sortzen ari zen bertsio berri-berri eta artifiziosuaren aldean, talde karlistak bultzatzea planteatu zen, eta abar³⁰.

Plan honekin ezin izan zituzten frankismoaren arazo nagusiak uxatu, eta haren benetako garrantzia oso mugatua izan zen, piztutako errezeloak zirela eta; hala ere, urte batzuk geroago zati batean abian jarri zen, geroago ikusiko dugun bezala. Gogoeta kabineteak inoiz ez

dira baloratuak izan Espainiako pentsamolde administratiboan, non ez zegoen gogoeta estrategikoarekin lotutako inolako tradizioarik, are gutxiago lekuaren gaineko plangintzaren inplementazioarekin lotutakorik. Bestalde, proposamenak handinahiegiak ziren departamentuen arteko koordinazio bat berekin ez ekartzeko, eta Espainiako administrazioa ez zen inoiz horren oso aldekoa izan.

Egiazki, beranduegi zen bere amaiera aurreikusgarriagatik larrituta zegoen diktadura baten pentsamoldetik jarduteko. Ematen zuten tratu bereizi gabea zela eta, salbuespen egoerek beren eraginkortasun eza frogatu zuten, eta frustrazio eta laido masiboak eragin zituzten. Bestalde, nagusiki landa eremukoa zen eta iraganean gerrillarien aurkako matxinadetara ohituta zegoen Guardia Zibilak baliabide gutxi zituen arazoa pixkana hiriguneetara lekualdatzen ari zen ingurune batean. Ondorioz, Benemerita Poliziaren atzetik joan zen are geroko urteetan ere³¹, eta frankismoan izandako bere kultura korporatiboak eta sozializazioak baldintzatu zuen^{32,33}. Errepresioaren erabilera bizia izan zen gailendu zena.

III. AMAITZEN EZ DEN INDARKERIA (1970-1975)

1970 urtea lasai joan zen, eta erregimenak ulertu zuen bere lan eraginkorraren ondorio zela hori, salbuespen egoerei esker lortu zuela hori. Hala ere, maila nazionaleko gatazka sozialek eta Burgosen ospatutako gerra-kontseiluaren ikuskizunak nazioarteko ingurunean piztutako kritikak —1970eko abenduan bederatzi heriotza zigor ezarri zitzaizkien beste zenbait ekintzen artean Melitón Manzanasen heriotzan parte hartu zuten ETAko militanteei—, agertokia zaildu zion erregimenari. Epaiketa sumarisimotik eratorritako protestak oso biziak izan ziren, eta nabarmentzekoa da Gipuzkoako gobernadore zibilaren iruzkina, lehen aldiz onartu baitzuen Poliziarekin liskarrak izan zirela, eta Tolosan barrikadak jarri zituztela. Garai hartan, ETA buruzagi urritasun egoera batean zegoen, bere liderrak espetxean baitzeuden. Epaiketak kemen berria eman zion erakundeari, poliziaren zenbait txostenek amaitutzat jotzen zuten erakundeari. Kanpoko komunikabideek emandako garrantziaren aurrean gerra-kontseiluak ekarri zuen adore bultzadak barne zein kanpo begikotasun korronte orokor bat sustatu zuen, eta horri esker aktibista berrien errekrutatze masibo bat egon zen.

Kontseiluaren bidez, Gobernuak biztanleria koka zedin nahi zuen; batetik, Estatuaren eta ordenaren aukera zegoen, eta, bestetik, ETArena eta kaosarena, baina asmo horrek huts egin zuen, eta akats larria izan zen³⁴. Erregimenaren arduradun nagusiak ez ziren gai izan uler-

tzeko diktadura errepresiboaren ordenak ez zuela behar beste laguntasun sortzen injustiziaren eta iraganeko baloreen —euskal testuinguruan oso gutxiri axola zitzaien— aurkako borrokaren mistikak eragiten zuenaren aldean. Erregimenak ezarritako dikotomia hura diktadurak berak ehundu zuen tranpa bat izan zen, Estatu frankistaren eta ETaren arteko dualtasun dialektiko eta interdependentea ezarri baitzuen. Horren ondorioz, euskal gizarteko sektore askok, eta baita espainiar gizartekoek ere, bere egin zuten Francoren kontra egoteak ETaren alde egotea esan nahi zuela, edo gutxienez hura onginahiez interpretatu behar zutela. Erregimenak ez zuen gaitasunik Espainiako gizartean oro har eta Euskal Herrikoan bereziki gertatutako aldaketa sorta onartzeko.

1971aren amaieran berriro hasi ziren ekintza armatuak, baina erakundean barne desadostasunak gero eta handiagoak ziren borroka armatuaren aldekoen eta mobilizazio sozialaren aldekoen artean. Paradoxikoki, ETak bere buruaren inguruan egin zuen ixtea aipatutako solidaritate olatuarekin eta euskal gizarteko sektore askoren hurbilketarekin batera gertatu zen, ahultasun goreneko eta barne berdefinizio une batean. Une horretako egoera dela eta, Estatuaren informazio aparatuari garrantzi handi goa eman zitzaion oposizio politikoari erantzun ahal izateko; hala ere, larritasun egoera horrek ez zuen ekarri Poliziaren berregituraketarik, ezta inolako aurrekontu igoerarik ere, eta horrek garbi erakusten du ziklo amaiera antzematzen zen testuinguru batean erantzuteko zegoen ikuspegi falta eta gaitasunik eza. Zenbaitetan, ematen zuen ETaren analisi-gaitasuna gobernuaren baliabideena baino zehatzagoa zela. Maila politikoan, erregimenaren sektore dogmatikoenek ere kezka handia zuten, 1971ko otsailean ospatutako Mugimenduaren Kontseilu Nazionalan agerian jarri zen bezala, non herrialdearen egoera kritikoaren azterketa modu irekian egin zen. Herrialdea zuzentzen zuten eliteen giro orokorra ezkortasun argi eta ezin ezkutatzukoa zen, gutxienez barne mailan, baina ez zuten uzten pertzepzio hori iritzi publikora hel zedin.

1970eko abenduaren esperientziaren ostean, bazirudien erregimenak ondorio sorta bat atera zuela, eta zenbait lege-erreforma planteatu zituen. Horien artean aipagarriena delitu politikoetatik foru militarra bereizteko asmoa izan zen. Hala ere, logika horrek ez zuen bere osotasunean aurrera egin, eta erreformak txikiak izan ziren. Auzitegi militarrek garrantzia izaten jarraitu zuten bai delituen tipifikazioan, bai kasuak Auzitegi batari edo besteari esleitzeko orduan. 1971ko egoera horretan, erregimenak aukera gutxi zituen. Erreakzionatzeko gai izan ez zela esan badaiteke ere, erregimenaren izaera bera aldatu gabe, aukerak benetan hutsalak ziren. Irakinaldi orokorreko epealdi horre-

tan irekiera eta malgutasun handiagoa egon izan balitz, horrek asaldura eta ETAk bere helburuetarantz aurrera egiteko zuen erabakimena baino ez zukeen lagunduko. 1971 urtearen hasieratik aurrera, eta uste-kabea, giza- eta materiazko-baliabide gutxi zituelako, ETA V. Biltzarrak erakunde aktibo eta dinamikoa bihurtu zen, eta zenbait ekintza ausart burutu zituen. Teoria eta gogoeta mailan zituzten mugak ekintza ausart eta desinhibituekin orekatu zuten, zenbait dokumentu ofizialetan ere miretsia izan zena³⁵. 1970eko aldaketa garrantzitsu bakarra anticolonialismotik antiinperialismora emandako pauso irmoa izan zen³⁶.

1972tik aurrera, ETA V. Biltzarrak finkatutako ildoek markatu zuten ETA-Estatuaren arteko borroka eredia. Liskarraren gorakada latzak apurtu zuen ordu arteko lasaitasun erlatiboa. Gorakada horren une gorena 1973an Gobernuko presidente Carrero Blancoren aurka eta 1974ko irailean Rolando kafetegiauren aurka egindako atentatuak izan ziren. Indarkeria orokortu egin zen, baita ekintza-errepresio kiribil bat hasi ere. Hortik aurrera, euskal arazoa izatetik Estatu kontua izatera pasa zen, eta erantzun irmo eta eredugarria eskatzen zuen. Hala ere, egoerari aurre egiteko moduari dagokionez, erregimenaren barruan tentsioak eta desakordioak ikus zitezkeen.

ETAren 1972ko berpiztea kezka hartu zuen erregimenak, eta informazio eta inteligentzia egitura espezifiko bat garatzeko beharra ekarri zuen, *Plan Udaberri* izenekoa, urte batzuk atzera diseinatu zena. Horrek ere aldaketa sakonagoa ekarri zuen diktaduraren inteligentzia egituretan, batez ere euskal arazoari dagokionez. Aipatu planaren helburua jasotako informazioa aztertzea zen, eta gobernadore zibilei gertatzen ari zenaren ikuspegi zabalagoa eskaintzea, beti ere SECEDekin (Servicio Central de Documentación), Madrilen zegoen inteligentziako zerbitzu berri eta nagusiarekin, lankidetzan³⁷. Ekimen horrek etsai boteretsu asko zituen Estatuaren egituren barruan, herrizaintza ministrotik eta gobernadore zibiletatik hasita Gudaroste eta polizia indarretara, azken hauek ez baitzeuden oso prest informazioa trukatzeko³⁸.

Modu paraleloan, ETAk eragindako indarkeriari eta herrialdearen gainerakoan ordena publikoaren aurka sortzen ari ziren arazoei eman beharreko erantzunean, izendapen politikak irmotasun eta gogortasun handiago baterako joera erakutsi zuen. Hala, 1972an Iniesta Cano izendatu zuten Guardia Zibileko Zuzendari Nagusi, eta Luis Díez-Alegría «ahula» ordezkatu zuen. 1964tik Madrilgo Poliziaren Buruzagi Nagusi karguan egondako Eulogio Salmerón Mora Gipuzkoako gobernadore zibil izendatu zuten. Eta egiatan jardueren dinamikak aipatu gogortasunera jo zuen. 1972an bost militante akabatu zituzten zenbait ekintzatan. Hurrengo urtean, polizia operazio

polemiko batean, Eustakio Mendizabal Benito (*Txikia*) buruzagia hil zen. Ekintza horien ondorioz, ETArekiko solidaritatea eta babesaren indartu zen, erakundeak etengabe jasotzen zituen kolpeak gorabehera. Gipuzkoako gobernadoreak berak esaten zuen bezala, komando legal franko zegoen, eta estaldura handia ematen zuten. Halaber, polizia instantzietatik agerian jartzen zen irtenbide errepresiboa ez zela sinesgarria Gipuzkoako eremuan³⁹.

Testuinguru horretan, garrantzi handikoak dira epealdi horretan Administrazioaren esparrutik banatu zituzten azterketa-dokumentuak, zalantzarik gabe gogoeta zintzo bat eskaintzen zutenak, Erregimenaren printzipioekiko erabateko mendetasunetik baina. Ildo horretan, garai hartan SECEDeko agente zen Andrés Casinellok egindako azterketa fina nabarmen daiteke, XXI. mendean emandako geroagoko erantzun antiterroristen gakoetako bat jasotzen zuena eta honela zioena: «Neutroen eta aktibisten artean sorta lauso bat dago, aldizkako jarraitzailetik alderdikide ausartera doana, eta heinik gabeko jarrera gogor baten aurrean, matxinadan are gehiago nahastera bultzatuak izan daitezke»⁴⁰. Poliziaren ikuspegi brotxakada oiesekoa nagusitu zen azkenean, eta, ondorioz, asaldatzailea edo euskaltzalea zen oro lot zitekeen ETArekin eta haren ingurunearekin.

Erregimenaren polizia ekintzak osagarri bat izan zuen: eskuin muturraren jarduera, erregimen frankistaren hondar uneetan Espainian egon ziren zenbait taldeei zegokiona. Estaldura emango zitzaie, baina litekeena da Gerra Hotzean nahastuta zeuden atzerriko egituren zeharkako babesaren ere jasotzea⁴¹. 1970ean Italian estatu kolpe ilun batean (Borghese Kolpea bezala ezaguna) parte hartu zuten zenbait ekintzaile italiar Espainiara bizitzera etorri ziren. Italiako Inteligentzia eta Epailletza Zerbitzuek informazioa eta zenbait kideren estradizioa eskatu zuten. Kide horien artean zeuden Stefano Delle Chiaie ultraeskuindar ezaguna eta Borghese printzea bera. Delle Chiaiek berak kontatzen duenez, biek elkarrizketa bat izan zuten 1973ko abenduan orduko Gobernuaren presidentearekin, Carrero Blancorekin, eta subertsioaren aurkako borrokan bere laguntza eskaini zioten babesaren truke. Delle Chiaiek 1989an esan zuen bezala, «militar askorekin harremana izan nuen. Baina ematen ziguten babesaren ez zeterren zerbitzuetatik, ez geunden Espainian haiek eskatuta. Francok eman zigun baimena zuzenean. Hura hil arte, inor ez zen ausartu taldearen aurka ezer egitera»⁴². Italiako eskuin muturreko kideak Espainian zeudela eta Espainiako Poliziarentzat babes-jarduerak egin zituztela, hori guztia laurogeiko hamarkadako zenbait polizia-txostenetan agertzen da⁴³.

1973ko abenduko Carrero Blanco almirantearen heriotzak txundidura handia eragin zuen erregimenaren egituretan. Ziurgabetasun han-

diko une hartan, erregimenaren amaiera gertu baitzegoen, hilketak sektore muturrekoenak bultzatu zituen modu ausartean. Orduan polizia indarren artan zegoen tentsioaren erakusle da Guardia Zibilaren Zuzendari Nagusiak emandako jarraibidea, zeinean «kementsu» jokatzeke eskatzen zuen, «armen erabilera zipitzik ere mugatu gabe», eta hori gehiegikeriarako gonbidapen bat zen⁴⁴. Erakunde mailan zegoen nahasmenak ez zuen gutxitu erantzunaren gogortasuna, nahiz eta bazeuden kontrako zenbait ahots, presioa lasaitzea eskatu zutenak, baita indultuak ematea ere, odolezko deliturik izan gabe ihes egin zutenei, justizia militarrek zigortuko baitzituen bestela. Atentatuak ikerketa zerbitzuak indartzeko beharra ekarri zuen. Conesa komisarioak eraman zuen ikerketa, eta polizia eta GOSI eta SIGCeko kideak ikerketa egitura bakar batean integratu zituen⁴⁵.

Polizia-txostenetan jasotzen ziren gogoeta gehienek erantzuna gogortzearen alde egiten zuten, baita indarrean zegoen legediaz eta sar zitezkeen erreformez harago ere. Erreforma horiek zigortzeko gaitasuna areagotzearen aldeko joera izan zuten. Carrero Blancoren heriotzak gerra zikinaren erabilerari buruzko zenbait gogoeta piztu zituen, lehenago jada abiarazia izan zena, eta antolaketaren erakundetze halako bat proposatu zen⁴⁶. Antolaketa alderdiak alde batera utzita, presidentearen heriotzaren ostean, kontrola galdutako taldeen jarduerak ugaritu ziren, hautematen zen mehatxu sentimenduaren ondorioz⁴⁷. Egiatan, gerra zikina geroago onartu zen normaltasun halako batez, irekian lekukotza asko emateko punturaino, erabat identifikagarriak diren ekintzak leporatuz. Horren adibide, Juan María Castro Teroren aitortza. Castro Tero garai batean Goi Estatu zerbitzuen kidea zen, baita SECEDekoa ere, eta etorkizunean, sozialisten gobernu aldian, Guardia Zibilaren Estatu Nagusiaren buru izango zenak, Andrés Casinellok, Frantziara joateko agindua eman zion, «bonbak jartzeko»⁴⁸.

Testuinguru berriak gobernuaren birmoldaketa garrantzitsua ekarri zuen, segurtasun aparatuen konfigurazioari biziki eragin ziona. Euskal arazoa lehen mailako gai bezala jarri zela, horra aldaketei buruz egin daitekeen irakurketa. Gobernuko presidentearen hilketaren ikerketa Madrileko Ikerketa Sozialeko Brigadari esleitu izana —ordu arte komunismoaren aurkako borrokan zentratua zegoen—, terrorismoaren aurka aritu zedin, aipatu aldaketaren erakusle da. Birmoldaketak Espainiako polizia aparatuen urritasun larriak agerian jarri zituen. Barne koordinazio eza itzela zen, baita kidegoen beren barruan ere; era guztietako baliabideak falta ziren, eta horrek tentsio egoerak sortzen zituen kidegoen artean. «Dena kontroletik at zegoela ematen zuen (...), denak bere kasa zihoazen»⁴⁹. Egoera horren ondorioz, erantzuna bereizkuntzarik gabea zen, estrategiarik gabea,

eta jarraitzaile eta militante gehiago eragiten ari zen. Hurrengo urte-tako atentatu hilgarriek modu erabakigarrian eragin zuten Guardia Zibilaren lurralde antolaketaren birkokapenean, terrorismoak suposatzen zuen gertakizun berrira egokitu behar baitzuen. Era honetan, 5. Zonaldeko Basea Zaragozatik Logroñora lekualdatu zuten 1974an. Halaber, Sevillan zegoen ibilgailuen 2. komandantzia Logroñon birkokatu zen, eta, azkenik, Donostian egoitza zuen 55. Tertzioa eta honi dagozkion komandantziak 51. Tertzioa deituko dira, Donostia 511 eta Araba 512. Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusia —zeinaren jarduera 1941eko behin-behineko testu baten arabera arautzen zen— 1975eko apirilean berritu zen ere, terrorismoaren aurkako borroka dinamizatzeko beharraren ondorioz⁵⁰.

Espainiako lurraldearen gainerakoan patruilatze eta ikerketa gaietan ezartzen ziren polizia metodo klasikoek ez zuten lortu Euskal Herriko jarduera terrorista gutxitzea, eta, gainera, segurtasun indarrak berak begi bistako arriskuen pean jarri zituzten. Guardia Zibilak egiaztatu zuen bikoteka egindako ohiko patruilatzea eragingabea eta arriskutsua zela, eta, bestalde, lurraldea laukietan zatitzeko jarduerak, hura estuago kontrolatzeko helburuarekin, ez zekarren inolako emaitzarik. Matxinadari aurka egiteko Guardia Zibilak zituen jatorrizko kontzepzioak ez ziren baliagarriak agertoki horretan. Guardia Zibilak borroka antiterroristaren kontzepzio berrietara egokitzeko izan zuen atzerapena Benemeritak landa eremuetan gerrillaren aurka borrokatzeko zituen sustraiekin lotu zuen Galindo jeneralak hitzerdika⁵¹.

Gregorio Posadas Guardia zibilaren kabo lehenaren hilketak, 1974an, paradigma aldaketa bat ekarri zuen ekintza terroristan, herri mailan ezagunak ziren poliziaren funtzionarioen aurkako erasoak izan baitzen, eta horrek, zalantzarik gabe, aukeren espektroa handitu eta zenbait helbururengana heltzeko zailtasuna gutxitu zuen. Ekintzak gero eta handiagoa zen teknikaren sofistikazioa erakutsi zuen, geroagoko ekintzetan nabarmena izango zena. Hurrengo pauso itzulezina Rolando kafetegiauren aurka Madrilen egindako atentatua izan zen, 13 hildako eta 80 zauritu eragin zituena. Haren ondorio bereizi gabeek gaitzespen zabal bat eta barne polemika gogor bat eragin zituzten. Erregimenak ez zuen jakin izan atentatua behar bezala erabiltzen, eta errepresio kiribila handitzen jarraitu zuen, Guardia Zibilaren Estatu Nagusiko buruzagi Sáenz de Santa Mariaren iruzkinak —Madrileko atentatuaz ari dela—erakusten duen bezala: «Horrelako zerbait egiteko gai ziren pertsonekin ezin zen inolako gupidarik eduki, hori berretsi nion neure buruari egun hartan»⁵².

Aldi berean, ETAREN barruko tirabirek zatiketa ezin adiskidetuzko bat eragin zuten politiko-militar eta militar deituriko sektoreen

artean. Barne egituraketaren inguruan, erakundearen bi arimen arduradun izango zen aginte bakar bati buruzko eztabaidan, zeuden iritzi nabarmenki ezberdinak izan ziren tirabiraren arrazoia. Bi arima horietako bat, erregimen frankistaren berehalako kolapsoa ikusita, borroka armatuarekin batera maila politikoan borroka ere bultzatzearen alde zegoen, lehen borroka bigarrenaren mende egongo zelarik, halako eran non, une hartatik aurrera, indarkeria atzeguardiako tresna gisa ikusiko zen, herri-sektoreek lortutako konkista sozialen babeste eta sendotzearen zerbitzura. Urritik aurrera, sektore hertsiki militarrek gutxiengo bereizi bat osatu zuen, 30 aktibistez osatua, nahiz eta egitura ETApM-ren (ETA político-militar) esku egon oraindik, une horretan 200 militantetik gora zituena. Bi erakundeak banandu ostean, fronteen egitura desagertu egin zen. Hala, ETAm-k (ETA militar) egitura soil baina praktiko bat hartu zuen, bi liberatuz osatua, eta kide berriak trebatu eta komando legalak zuzentzen zituzten. Egitura hori 1979aren hasierara arte egon zen indarrean, baina une horretatik aurrera aldatzea erabaki zuten, liberatuen ahultasuna zela eta. Modu horretan, formatu berri bat jarri zen martxan, 1976an probatu zena. Komando estanko gisa antolatu ziren, turrustan egingako atxilotzeak saihesteko. Egitura hori IRAk garatu zuenaren oso antzekoa zen, eta poliziaren ekintza saihesteko eraginkorra zen. Egitura militar bat garatu arren, ETApM-k Uruguako tupamaroen eredu imitatu zuen, zoritxarreko ondorioak izango zituena, dozenaka militante biltzean sortzen zen ahultasun egoeratik⁵³.

1975 urte erabakigarria izan zen zikloaren amaiera hurbil zegoelako. Antzezle askok hala ikusi zuten, eta nabarmentzekoak dira kaleetan izandako erantzun soziala, disidentzia politikoa, oso aktiboa eta amaiera hurbilerako prest zegoena, baita Erregimenaren beraren barne desadostasun ezin ezkutatuak ere. 1974ko otsailean, Arias Navarro presidentearen ekimenaren eskutik, irekiera txiki bat bultzatu nahi izan zen, baina sektore atzerakoienek lurperatu egin zuten ekimena, eta 1975eko une zehatz horretan atzerakoiek abantailazko egoera oso erlatiboa zuten. ETA jasotzen ari zen kolpe larriak gorabehera, erreklutatzeak zuten gaitasuna ez zen gutxitu, 1975eko uztailera Guardia Zibilaren txosten batek adierazten duen bezala: «gero eta kopuru handiagoan atxilotzen ditugun “legal”ek argi uzten dute [ETAre] egitura abiada bizian handitzen ari dela, eta horrek, zalan-tzarik gabe, segurtasun handiagoa dakarkie aktibista “liberatuei”, “pisu franko” asko dituztelako eskura edo ekintza osagarrien bidez laguntza handiagoa dutelako»⁵⁴. Erakunde terroristak eragindako indarkeria eta jarduteko zuten gaitasuna zela eta, Gobernuak, 1975eko apiriletik aurrera, salbuespen egoera ezarri zuen Gipuzkoan eta Bizkaian hiru hilabetez. Poliziaren ekintzaren ezarpena oso bizia izan

zen, eta errepresio mailak aurreko esperientzietan baino askoz ere handiagoak⁵⁵, ETApm-ko militanteek segurtasun neurrien ezarpenari dagokionez izan zuten arduragabekeriari esker ere. Mikel Lejarza, *Lobo*, infiltratu bat zen, eta bazuen egoera horren berri. Erakundearen sartu, eta haren lanari esker, kupularen 10 burukideetatik 7 atxilotu zituzten, baita 158 militante ere, hainbat lekutan⁵⁶.

Epealdi horretan erantzun parapoliziala berraktibatu zen, eta segurtasun indarrek eta SECEDEko kideek zuzenean esku hartu zuten, lekukoen eta parte-hartzaile zuzenen hainbat lekukotzek frogatzen duten bezala⁵⁷. Giroa egokia zen, eta zaila zen hori ezkutatzea. Baionako Etxabe jatetxearen aurkako atentatu baten ondotik, atentatuaren egileak honako hau adierazi zuen epailearen aurrean: «Errefuxiatuak gogaikarriak dira Gobernuarentzat, eta guk lan ekologiko bat burutu dugu...»⁵⁸. Frantziako agintariek beren erresumina erakutsi zuten, eta Poniatowski ministroak Espainiako Poliziak Frantziako lurretan egindako legez kontrako jarduerak salatu zituztenean, une larrienetako bat bizi izan zen⁵⁹. Dena den, gerora, 1976ko urrian, bi herrialdeen artean poliziaren artean informazioa trukatzeko lankidetzak oinarriak finkatu zituzten⁶⁰.

ETAren terrorismoaren aurkako borrokaren gaian, Espainia eta Frantziaren arteko harremana oztopoz josia zegoen⁶¹, eta Pirinioen hegoaldean etsipen sakona eta are ulertezintasun xaloa eragin zuen beti. Garai frankistaren azken urteetan, auzokoen herrialdea ez zen prest agertu diktadurari inolako kontzesiorik egiteko, estradizioari buruzko 1877ko hitzarmen frantziar-espainiarra argudiatuta, zeinaren arabera «ez da sententziatutako edo prozesatutako inor entregatuko, baldin eta estradizioa eskaria jaso duen aldeak delitu politikotzat jotzen badu estradizioa eragin duen delitua...»⁶². Espainiako arduradunek ahaztua zuten Erregimen frankistak OAS, *Organisation de l'Armée Secrète* (Gudaroste Sekretuaren Erakundea), erakunde terroristari — eskuin muturreko erakundea — eta muturreko kolono zuriei, Algeriako deskolonizaziotik zetozenak eta Espainiako lurraldean birkokatuak izan zirenak, emandako laguntza. Kolono zuri horiek dozenaka milaka ziren, eta frankismoak modu irekian erakusten zien begikotasuna. OASeko kideak estraditatu ez bazituzten ere, Espainiako agintariek bai onartu zutela Frantziako estatuari interesatzen zitzaizkion kideak kontrolatzea, eta elkarren artean profil baxu eta apaleko lankidetzak maila bat finkatu zuten bi herrialdeek⁶³.

Epealdi horretako errepresio masiboaren ondorioak aurreko epealdiaren berdintsuak izan ziren. Amnistía Inernacional-en ustez, atxilotuen kopurua 2.000ra heldu zen, nahiz eta beste iturri batzuek gehiago izan zirela dioten, eta sarritan inolako kargurik gabe uzten zituzten aske. Edozein kasutan, epealdi horretan ETAk eragindako indarkeria

terrorista gehiena salbuespen egoeraren ondotik etorri zen, eta hori argigarria da. Hortaz, haren benetako ondorioak oso mugatuak izan ziren, beti ere, uste badugu ETAren terrorismoari erantzuteko beharrak hartaratuta ezarri zutela, eta ez gero eta ausartagoa zen oposizio politikoa neutralizatzeko eta hura subertsioarekin lotzeko⁶⁴.

Salbuespen egoeratik atera daitekeen ondorio nabarmenena da Erregimena ez zela gutxiengo antolatu bati bakarrik aurre egiten ari, gizartearen sektore askori baizik, urtetan zehar alienatuak izan zirenak. Baina ordu arte hartutako neurri guztien porrota agerian uzten zuen ere. Estatuaren zigortzeko gaitasuna areagotzea zen neurri horien ezau-garria, baita gizarteak progresiboki beldurra galdu zuela ere, publikazioen bahiketetan edo protestetan eta mobilizazio orokorretan agerian jartzen zen bezala. Azken horiek gutxitzen hasi ziren 1975aren erdialdetik aurrera.

Gobernuaren muturreko noraezaren ondorioz, urte hartan berean, eta sektore immobilistenek hala eskatuta, araudi antiterrorista oso bat promulgatu zen 10/1975 Lege-Dekretu itxura pean. Arauak egoera normaltzea ahalbidetu behar zuen, baita salbuespen egoera gehiagoren ezarpena mugatu ahal izatea ere, haien gogortasuna nahikoa izango baitzen berez bake soziala sortzeko. Aktibismo sozio-politikoaren eta indarkeriaren erabileraren arteko mugen lausotasunak legedi berriaren bidea zein zen adierazten zuen, bermeen etendurari dagokionez bederen⁶⁵. Beste zenbait neurriren artean, atxilotze epea hamar egunera luzatzeko aukera ezarri zen. Neurri horiek, ordea, ez zuten estatu mailan orokortzen ari zen indarkeria terrorista geratzea lortu, eta oposizio talde berriak aktibatu ziren lurralde nazionalaren hainbat lekutan.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdian, erregimenaren amaiera begiztatzen zen neurrian, gero eta handiagoa zen indarkeria. ETA ziur zegoen Estatu autoritarioaren gehiegikeriek —arbitrariotasun eta poliziaren neurrigabekeria sistematikoek adierazten zituztenak— bere alde jokatu zutela, eta, hala, euskal biztanleriaren zati handi bat beren jarreretara bultzatu zutela. Suposizio horiek benetan egiazkoak ziren⁶⁶. Zailtasun guztiak gorabehera, 1973tik 1975era, diktadorea hil zen datara, segurtasun indarrek atxiloteta masiboak egin zituzten zenbait informazio maila lortzeko, ETAko kideak eraginkortasunez kontrolatzeko aukera emango zutenak. Poliziaren jardueraren ondorioak suntsigarriak izan ziren erakunde terroristarentzat, eta erakundeko kide garrantzitsuak atxilotzea lortu zuten.

Zalantzarik gabe, epealdi hori sakonki markatu zuena Gobernuko presidentearen, Carrero Blancoren, hilketa izan zen, 1973an. Heriotzak berak eta erailtzeko moduak aukera eman zioten ETARI nazioarte mai-

lan ikusgarri bihurtu, eta gaitasun eta eraginkortasun irudi bat proiektatzeko. Ekintza-errepresio-ekintza estrategian argi eta garbi sartzen zen egintza bat zen, zeren eta, une horretatik aurrera, agintarien alde-tik gogortasuna eta errepresioa baizik ezin zitezkeen espero. Eta hala izan zen, baina atentatuak, halaber, ETAre barruan dotrina militarra ezartzen ari zela baieztatu zuen, dotrina politiko eta sozialaren aldean. Jada epealdi goiztiar honetan, matxinada-ikuspegia, ekintza-errepresio-ekintza logika azpian zuena, zalantzan jartzen hasi ziren; lehenik eta behin, ETAm, 1975ean, Estatuarekin negoziazioa behartzeko higidura norgehiagoka bat planteatzen hasi zenean. Hiru urte geroago baino ez, ETAm antzeko zentzu batean gogoeta egiten hasi zen, «KAS Alternatiba» (Koordinadora Abertzale Sozialista) egin zuenean. Hor-tik aurrera, negoziazio bati ekiteko aurretiazko baldintza Espainiako agintariek hura onartzea zen⁶⁷.

Epealdi horretan benetan agerian jarri zen Estatu autoritarioak ez zuela inolako planik, soilik kolpeak geratzea eta indarraren bidez erantzutea agonia-une batean. Frankismoaren agintarien beren zati batek ere horrela hautematen zuen, Carrero Blancoren bidez antzeko eredu bat luzatzeko aukerak desagertuak baitziren haren heriotzarekin. ETAk, aldiz, aurretik finkatutako ibilbide bat zuen, Estatuaren aurkako su-etenik gabeko erasoak sustatuz eta hiritarren sufrimendua bere onurarako bide gisa erabiliz.

IV. DEMOKRAZIARANTZ AURRERA EGITEN (1976-1977)

Diktadorearen heriotzak, 1975eko azaroan, eta ondoren hasi zen prozesuak itxaropen handiak eragin zituzten orduko Espainiako gizartean, baita euskal gizartean ere. Hasiera batean, ETAk ez zuen aldatu bere ibilbide-orria, 1976an sortzen ari zen erregimen politikoa frankismoaren luzapen hutsa zela uste baitzuen, nahiz eta jarrera hori aldatzen joan zen agertoki politiko berri bat *de facto* agertzen zela ikustean. Bere gaitasun operatiboak ez zuen gora egin, ezta indarkeria mailak ere. ETAm une oso ahulean zegoen, aurreko urtean jasadako kolpeen ondorioz. ETAm izan zen ekimena hartu zuena, eta epealdi horretan hildako kopuru handiena eragin zuena. Fase horretan, halaber, ETAre ekintzak kritikatzeko hasi ziren lehenengoz, jarraitzaile abertzalea zen Ángel Berazadi enpresariaren bahiketa eta heriotzarekin gertatu bezala, 1976ko apirilean, eta sektore sozio-politiko esanguratsuek ekintza horrekiko zuten desadostasuna publiko egin zuten. Aldi berean, gerra zikinarekin lotutako jarduerak berriro suspertu ziren epealdi honetan, eta 1975eko erdialdearen eta 1976ko amaieraren artean ekintza kopurua 200ekoa izan zen Espai-

nian, eta 40koa Frantzian⁶⁸. Noizbehinka eskuin muturreko ekintzailerek eta maila ezberdinetan zeuden poliziek parte hartu zuten, jarduera horiek xehetasunez jasotzen dituzten lan mordo batek egiaztatzen duen bezala. Esan daiteke epealdi horretan legearen eta poliziaren erantzuna izaera erregularra zuten ekintza garrantzitsuekin tartekatuta zela, askotan emaitza hilgarriekin⁶⁹.

Arias Navarroren gobernuarentzat ezinezkoa zen maniobratzea, sektore erradikalenen eta oposizioko moderatuenekin harremanak ezartzeko zailtasunen artean harrapatua baitzegoen. Horrek gobernu krisi bat eragin zuen, eta 1976ko uztailean dimisioa eman zuen. Adolfo Suarez izendatu zuten presidente berri, baina ez zuen ematen horrek aurrerapen esanguratsuak ekarriko zituenik, batetik presidente berriak iragan falangista zuelako, eta, bestetik, profil immobilista zuten pertsona ospetsu nabarmenak sartu zirelako gobernuan. *De facto* sortutako egoera berriak eta Gobernu berriari hautematen zitzaion ahultasunak oposizioa gero eta desinhibituago agertzea ekarri zuen, hainbestera non Bilboko Poliziaren Kidego Nagusiaren Buletinean honako hau adierazten baitzen: «gobernuak aipatu indar horiekin itundu beharko luke haien atseginerako demokratizazio bat»⁷⁰. Gobernu aldaketak ez zuen leundu oposizio politikoaren hasierako presioa, eta epealdi horretan ez zen inolako aldaketarik sumatu Euskal Herrian.

SDiktadorearen heriotzaren ondotik, ondorengo gobernuak pentsatu zuten amnistia tresna egokia izan zitekeela tentsioa arintzeko eta irtenbide baterako oinarriak finkatzeko. 1976ko data goiztiarrean lehen amnistia promulgatu zen Lege-Dekretu bidez, baina ezin zen ezarri zuzenean terrorismoarekin lotutako delituetan; hortaz, ETAko presoek gainean izan zuten eragina oso mugatua izan zen. Garrantzi handiagoa izan zuen 1977koan, asmo politikoa zuten delitu eta falta guztietara zabaldu zen, baita eskumen militarren pean erori ziren guztietara ere. Hala ere, ehun bat preso politikok kartzelan jarraitu zuten, eta ezkerak osatugabetzat jotzen zuten amnistia hura. Azkenean 1977ko urrian promulgatu zen, ekaineko lehen hauteskunde orokorren ondotik. Anbizio handikoena izan zen, eta kartzelak ETAko militanten gabe geratu ziren⁷¹. Kaleratze prozesu guztiak oso mantso egin zuten aurrera, eta, hori dela eta, protestak behin eta berriz errepikatu ziren. Egiazki, ETAre azken hilketek eragindako presioek eragina izan zuten. Beren presoak askatu zituzten, eta beste erakunde batzuetako presoek, aldiz, kartzelan jarraitu zuten, gobernuko presidentek gerora onartu zuten bezala⁷². Prozesu hura espektro zabal baten akordioaren emaitza izan zen, atal bat behin betiko ixteko nahiaren ondorio, indarkeriaren amaiera bultzatu behar zuena. Garaiko borondate bakezalearen erakusgarri, 1977an Diputatuen Kongresuan gehiago ziren hitzal-

dietan neurri politikoak babesten zituztenak neurri polizialak babesten zituztenak baino⁷⁵. Edozein kasutan, ETAk Estatuaren ahultasunaren adierazgarri bezala interpretatu zituen amnistiak⁷⁶, bere eskari eta mobilizazio masiboek eragindakoa. Amnistia estrategia baten zatia zen, Estatuak prozesua kontrolatzeko zuen gaitasuna erakutsi nahi zuena, frankismoarena zen arazo bat atzean utzi eta etorkizuneko erronketan zentratzeko, baina gobernua ez zen gai izan hori helarazteko. Berradiskidetze eta baketze prozesu baten hasiera zen, ziklo berri bat hasteko helburua zuena.

Diktadorearen heriotzaren ondotik errepresio biziak jarraitu zuen, nahiz eta trataera ezberdin bat ikusten hasi zen Estatuaren aldetik oposizioaren sektore moderatuen gainean, frankismoaren ondorengo erregimenaren lur-jotze aktiboarekin oraindik konprometituta zeuden militante antifrankisten artean eta indarkeria terroristaren alde egiten zuten beste talde batzuen artean. Epealdi honetan eragin handia izan zuen gertaeretakoa bat 10/1975 Lege-Dekretuaren erreforma izan zen, ziur asko erregimenak sumatu zuelako legedi horrek, konponbideak eman baino, arazo gehiago sortzen zituela. Testu berriak otsailaren 18ko 2/1976 Lege-Dekretu itxura hartu zuen, eta eskumen arruntari lehentasuna eman zion terrorismoko delituak epaitzeko, eragin handia izan zuten beste hainbat erreforma alde batera utzita⁷⁷. Hala ere, Poliziak baliabiderik izan gabe jarraitzen zuen, eta koordinaziorik eza iraganen bezain agerikoa zen⁷⁸. Aztertzen ari garen epealdiaren ezaugarrietako bat segurtasun indarretan zegoen nahasmen orokortu maila handia zen. Horren arrazoia? Neurri handi batean, «erregimen autoritariotik zetozen operazio-planteamendu zaharkituak, orduan zegoen baliabide falta eta erabaki politiko zehatz baten hutsunea, poliziaren erantzuna ez baitzen lehentasun bat epealdi horretan. Bestalde, epealdi frankistatik oinordetzan jasotako inertzia sozio-politikoak eragotzi egiten zuen jarrerek eta pertzepzioek modu esanguratsuan aurrera egitea aldaketa politikoaren lehen urteetan»⁷⁹. Gobernuak egoera hura hauteman zuen, eta Rodolfo Martín Villa ministroari eta José María Belloch Gipuzkoako gobernadoreari eskatu zien poliziaren agintaritzza aldatzeko⁸⁰. Hala ere, Barne ministroa zen Rodolfo Martín Villak berak Diputatuen Kongresuan 1978ko azaroan onartu zuenez, diktaduraren amaieratik ez zen langile aldaketa nabarmenik izan goi-karguen artean. Sei baino ez ziren erregistratu Poliziaren Goi Buruzagiñen artean, eta hogeita hamar probintzia-komisarietan⁸¹. Segurtasun agintarien artean egindako ordezkatzeko masiboak beren aurkako jarrera bat bezala interpreta zitzaizketen militarrek, eta, horren beldurrez, ez zen sakontasuneko aldaketarik egin.

Immobilismo gutxien zuten erregimenaren oinordekoak izan ziren trantsizio politikoari bide eman zion prozesua osoro zuzendu zutenak.

Antzele politiko berriak, ordu arte legez kontrakoak, agertokian integratu ziren hainbat itxaropenekin. 1977ko ekainean lehen hauteskunde orokorrak izan ziren, eta Estatu demokratikoaren esparru politiko berria zehazten hasi zen. ETAk eta bere ingurune erradikalak ez zuten berehala ulertu aldaketa esanguratsuak gertatu zirela. Erregimen berria aurrekoaren luzapen hutsa zela uste zuten, baita egonkortasun ezak aprobetxatu beharreko aukerak sortzen zituela ere. Amaiera gertu zegoela onartzen zuen erakundeak, nahikoa zen bizitasun gehiagoz bultzatzea Estatu apurto eta bere baldintza propioak ezartzeko erabateko kaos egoera batean. Agintari berriak ETArengana hurbildu ziren. Iraganeko antzezletzat jotzen zuten, eta haren izanak ez zuen zentzurik testuinguru demokratiko eta pluralista berrian. Erakundeak, aldiz, uko egin zion negoziazioari lehen epealdi horretan, erregimenak kolapsorako zuen berehalako aukerak ez beharrezko bihurtzen baitzuen ezein hurbilketa garaipen ziurreko testuinguru batean. Hala ere, Konstituzio baten eta honen herri-berrespenaren aukerak —Estatu eredu integratu bat aurreikusten zuena, eta nazionalista moderatuen babes anbigua zuena, bai katalanena bai euskaldunena— prozesua bizkortzeko beharra ekarri zuen, ibilbide-orriaren arabera Konstituzioa ETAre eta ingurune erradikalaren helburuekin lehian sartzen baitzen. 1977aren eta 1978ko amaieraren arteko epealdi horretan gora egin zuten ekintza terroristek, eta goraldi hori premiazko erasoen estrategia horren barruan ulertu behar dugu. Konstituzioaren onarpenak agertoki oso ezberdina sortu zuen, etorkizuneko antzele, erakunde eta prozesu politikoei finkatzeko aukera eman zielako. Hortik aurrera, demokraziak adostutako eta irmoki finkatutako egitasmo bat izan zuen.

1977 eta 1979ko epealdi horretan ere, XXI. mendera arte proiektatuko den erakunde terrorista konfiguratu da, hala antolaketa nola estrategia mailan. 1977an ETAm-k ETApm gaintu zuen baliabideetan eta indarkerian. Epealdi horretan, bi osagai nagusi gailendu, eta etorkizunera proiektatu ziren: batetik, klandestinitatea dela eta, kooptazio bidez ezarriko den lidergo mekanismoa, aukeraketa prozesuak ilun bihurtu eta militantzia baztertuko duena. Bestetik, dotrinatze politikoa ere ezabatu zen, eta hortik aurrera, kide berriak armen eta lehergaien erabileran eta bizimodu klandestinoan trebatu ziren, barne eztabaida politikorako horrek txirotzea ekarri zuelarik. 1977 eta 1979 artean ETAk 82 komando legal antolatu zituen, eta, horiei, dagoeneko zeudenak eta ilegalak gehitu behar zaizkie. Ekintza terroristek gora egin zuten epealdi horretan, baina agintari berriek uste zuten ETAre fenomeno —frankismoan sortutako arazoa zenez— desagertu egingo zela testuinguruz kanpo geratuko zelako. Hori dela eta, epealdi horretan, euskal arazoan baino gehiago, erregimen politiko berriaren

eraikuntza politiko-instituzionalean jarri zuten bere arreta agintariak, eta ez ziren indarkeria nazionalistaz arduratu une erabakigarrietan. Kontu hori ere ez zen politikoki onuragarria, eta arazoak baizik ezin zizkien ekarri hartan nahastuta zeuden antzezleei, etorkizunera baikortasunez begiratzea ezinbestekoa zen une batean. Biktimekiko arreta ezak eta haien familiek egindako babesgabetasun lekukotza ugariak estatuaren pasibotasuna baieztatzen dute⁸². Poliziari dago-kionez ere, presioa modu nabarmenean jaitsi zen.

ETAm-ri lotutako nazionalismo erradikalaren jarrera politikoa ahula zen 1977an. Uko egin zioten hauteskundeetan parte hartzeari, eta porrot egin zuten ere prozesuari zilegitasuna kentzerakoan. Gainera, PNV ez zen gai izan Konstituzioaren idazketan bere tesiak ezartzeko. Hori guztia dela eta, ETAm-k bere estrategia aldatzeko beharra ikusi zuen, hurrengo urtean Konstituzioa onar zitekeen aukeraren aurrean. Hura indarrean sartu ostean, Gobernuak akuilagarri gutxi izango zituen negoziatzeko. Bestalde, ETAko goi buruzagitzako zenbait kide jakitun ziren ekintza-errepresio-ekintza strategiak emaitza biziki negatiboak eragin zituela. Ustezko indarkeria kiribil batean, segurtasun indarren ekintzen ondorioek erakundea indartu ez eta ahuldu egiten zuten, mina eragiteko zuten gaitasuna erakundearena berarena baino askoz ere handiagoa zelako epe luzera, eta ezinezkoa zen ahaleginari eustea. Hala ere, euskal nazionalismoaren ingurune erradikalizatuenean Estatu egoera biziki ahulean zegoelako pertzepzio orokorra zegoen; hortaz, egingarria zirudien ETAk bere baldintzak ezartzea, trukean ezer eman gabe⁸³. Aurreko esperientziaren oinarriaren gainean eta Estatuaren egoera estua zelako pertzepzioaren gainean, estrategia berri bat egin zuten, su-eten bat bilatzen zuena Konstituzioa 1978an onartu aurretik; izan ere, ondoren ez zuten presio osagai nahikorik izango. Horretarako beharrezkoa zen ekintza biolentzia areagotzea, bigarren fase batean sartzeko helburuarekin, independentziaren lorpenarekin erabakiko zena⁸⁴. Estrategiak kale egin arren, lehen epealdiak ezarri zuen inertziak erasoaldi terroristarokortu baten hasiera azaltzen du neurri batean, eta hari jarraiki, 1978aren erdialdean egitura egonkor bat sortu zen Madrilen, 1980ko abendura arte partzialki desegin ez zutena⁸⁵. Labur esanda, egoera horrek bi ondorio ekarri zituen, indarkeria areagotzea eta, erakundearen aldetik, negoziatzeko borondatea erakusten zuen mugimendu bat egiteko beharra. Hala, ETAk bere termino ageriko eta ukaezinak azaldu zituen «KAS Alternatiba»ren bidez, zeinean honako puntu hauek nabarmentzen ziren: erabateko amnistia; Segurtasun Indarrak Euskal Herritik ateratzea eta izaera politikoko zenbait aldarrikapen.

Epealdi horretan zehar, ETAk bere bilakaera des/integratzailean jarraitu zuen maila politiko, nazional eta sozialean. Hain zuzen ere, horrek eman zion erakundeari berezkoa zuen idiosinkrasia hori. Ordezko estatu eredu bat taxutzeko beharrak, nazio etniko-kultural baten ideiak eta langileen interesen defentsak —sindikatuena eta beste zenbati erakunde sozialen bidez— egiturazko tentsio sorta bat eragin zuen erakundearen barruan, eta horren ondorioz, ETaren jarduna adierazten zuten hiru mailen praktika integratzaile bakar gisa hautesman zen indarkeria. Aurreraka egindako ihesaldi honek Trantsizioaren epealdian ekintza biolentoek zergatik jarraitu zuten azaltzeko gakoe-tako bat eskaintzen digu. Estatu zentralari zilegitasuna kentzeko orduan hain izan zen arrakastatsua ETaren jarduna, ezen «zilegitasun gatazka» bat eragitea lortu zuen. Ondorioz, bai indarkeria nazionalista bai Estatu zentralarena erabat parekagarriak ziren euskal gizartearen zati handi batentzat. Estatuaren indarkeriaren aurkako desoreka Estatu-tuko segurtasun kidego eta indarrek erabilitako gogortasun eta bereizi gabeko indarkeriagatik zetorren. Haien jardunaren ondorioz, ikusle neutralek begikotasun eta ulermen halako batez begiratzen zituzten muturreko abertzaleak. Testuinguru horretan logikoa zen euskal nazionalismoaren sektore esanguratsu batzuek, PNVko kide zirenek, beren adierazpenetan eta egoerari buruzko analisisetan «terrorismo» hitza erabiltzea saihestea eta gehienetan «indarkeria» edo «borroka armatua» hitzengatik ordezkatzea.

Arian-arian, ETAm-k eragin maila handiagoa lortu zuen euskal sektore erradikalen artean. Azken hauek ez zuten aldaketa esanguratsurik nabaritzen Estatu-tuko segurtasun kidegoen artean epealdi frankistari dagokionez. Aldarrikapen sozio-politikoak planteamendu estrategiko izaera erabat militarrekoen mende zeuden, eta izaera alternatiboko ekintza aldarrikatzaile ez biolentoak egitea eragozten zuten. Jardun biolentoek Estatu Espainiarraren eta «benetako» euskal nazionalismoaren arteko elkarrekintza politikoaren espektro osoa betetzen zuten. Borroka sozial eta politikoa jardun terroristen mende zegoela agerian geratu zen Trantsizioan zehar ETAm-k eta honen talde politiko legalak, Herri Batasunak, izan zituzten harremanetan. ETaren goi-karguek hartutako erabakiek HBren egiazko zuzendaritza mugatu eta kontrolatu zuten. HB ETAm-ren adar zibila zen, eta elkarrekintza politikotik oso urrun egon zen ordezkaritzako esparru instituzionaletan.

V. OKERRENAREN HASIERA (1978-)

1978an, ETAm-k bere indar-jarreratik prozesua dinamizatu behar zuela ulertu zuen. Eraldaketan zegoen Estatuaren punturik ahulena

Indar Armatuak ziren, eta lehentasunezko helburu izatera pasa ziren. «Ezinbestekoa da Estatuaren aparatuaren aurkako kanpaina armatu erasokorra suspertzea, batez ere haren egitura errepresibo militarri erasotuz, egitura horretan larriagoak baitira kontserbadore eta erreformisten arteko tentsioak». Horrela mintzo ziren ETAREN organoan 1978an. Erakundeak errepresioaren testuinguruan kokatu zituen ekintza horiek, baina ETAREN ingurunean ahots disidenteak ere sortu ziren, indarkeria areagotze baten hasiera besterik ez zirela nabarmen-tzen zutenak. Erakunde militarri behin eta berriz erasotzean oinarritua zegoen estrategia berri horrekin, ETAM-k erregimen demokrati-koaren egonkortasuna galarazi nahi zuen, une horietan egoera oso delikatuak igarotzen ari zena, estamentu militarra eragiten ari zen presioaren erruz. Lehen militarra 1978ko uztailean hil zuten, militar izae-ragatik hil ere, nahiz eta lehenago beste bat hil zuten 1977ko azaroan, baina, azken hori, segurtasun indarren kidea izateagatik. Polizien hilketak argudiatzeko, okupazio indarrak zirela esaten zuten. Azken hauek Estatuaren opresio sinbolikoaren eta errepresio fisikoaren adierazpena ziren ETARENTZAT.

Militarren aurka burutzen ziren ekintzak zuritzeko, militarrek berez botere politiko bat zirela esaten zuten. Euskal Herriaren egoeran eragin handia zuena⁸⁶. 1978aren amaieran Indar Armatuei «gogor» jotzeko jarrera argi eta irmoa zegoen, zuzendaritzari bai-mena eskatu beharrik gabe. Indar Armatuaren kontra atentatua egiteak estrategia aldaketa inplizitu bat zekarren, baita «negoziazioaren estrategia»n sartzea ere, eta aurrekoak jada ibilbiderik ez zuela onar-tzea zen. Aldaketa testuinguru bat zen, Konstituzio berria zetorren eta sektore nazionalista moderatuak gero eta urrutiago zeuden nazio-nalismo erradikaletik⁸⁷. Fase horretan, atentatu hilgarrien kopuruak nabarmen egin zuen gora 1978 eta 1979 urteetan. Indar Armatuekiko jarrera horrek indarrean jarraitu zuen hurrengo hamarkadetan ere. Hala ere, erakundeak ezegonkortasun erlatiboa eragitea bilatzen zuen, agertoki kolpista bat lagun zezaketen kontrolik gabeko egoerak bultzatu gabe. Halako egoera batean errepresioak triskantzak egin zitzakeen ETAREN baitan, frankismoaren salbuespen egoerek jada agerian utzi zuten bezala⁸⁸.

Demokraziaren finkapenak eta sendotzeak aurrera egin zuen ETAK eragindako indarkeria terroristarekin batera; horra Espainiako Tran-tsizioaren paradoxa handienetako bat. Nahiz eta Konstituzioa onartu eta Euskal Estatutua urte gutxiren buruan onartzea aurreikusi, indar-keriaren inertzia sortua zen jada, eta militarki, ideologikoki eta sozialki elikatzen zen. Euskal Herrian 1977an hasitako prozesu bat martxan bazegoen ere, atzera bueltarik onartzen ez zuena, bilakaera hori senti-mendu anibalenteekin hautematen zen. Egia da aurrerapen politikoak

egin zirela demokraziari eta eskuratutako eskubide historikoen errespetuari dagokionez, eta Konstituzioak hala islatzen zuen, baina poliziaren gehiegikeria zenbaitetan bereizi gabeek erregimen berriaren agintariak iraganeko garaiekin lotzen zituzten, baita aurreko hamarkadaren amaierakoekin ere⁸⁹.

ETA iraganeko kontua zelako, eta, hortaz, arreta eta baliabide gehiegi merezi ez zuelako Estatu ikuspegia okerra zela agerian jarri zen 1977an eta 1978an, ETAren jarduerak behera egiten ez zuela argi eta garbi ikusi zenean. Testuinguru horretan, Barne Ministroak, Rodolfo Martín Villak, egoera larri bati aurre egin behar izan zion. 1978ko irailean Alemania bisitatu eta gero, terrorismoaren aurkako kontuetan aholkularitza jasotzeko, Ministerioak Poliziaren Kidego Goreneko 60 funtzionario bidali zituen Euskal Herrira Roberto Conesa komisarioaren agindupean, une hartan Informazioko Brigada Zentralaren arduradun zenaren agindupean alegia. Helburua informazioa gaurkotzea zen, eta, hori lortzeko, ETAko militante ohiak eta legezko alderdietan zeuden hiritarrak bereizketarik gabe atxilotu eta galdekatu zituzten⁹⁰. Conesaren taldeak gutxi gorabehera 180 atxiloteta egin zituen urte bukaerara arte, eta 46 komando desegin zituen hurrengo lau hilabetetan operazioen hasieran⁹¹. Atxiloteten hilabeteke batezbestekoa 25etik beherakoa zen 1978aren hasieran, eta urte amaieran ia 50eraino igo zen kopuru hori⁹². Kartzelan zegoen euskaldunen kopuruak gora egin zuen brastakoan. 1978aren hasieran 10 baino gutxiagokoa zen, eta urtearen amaieran 100eraino igo zen. Horrek guztiak jarduera terroristaren berehalako gorakadari lagundu zion, baita ordu arte izandako ETAko kideen errekrutatzearen gorakadari ere. Amnistiatura zeuden kideen bersartzea erakundearen hazkundera ekarri zuen faktore bat izan zen zalantzarik gabe⁹³. 1979ko otsailean GEO-a (Grupo Especial de Operaciones), Polizia Nazionalako kidez osatutako 120 gizoneko operazio berezien talde bat eta GAR-eko, Guardia Zibileko Grupo Antiterrorista Rural-eko, 450 gizon elkartu zitzaizkion Conesaren taldeari. Kopuru horri 12.000 guardia zibil eta 6.000 polizia nazional gehitu behar zaizkio, eta pertsonal kopuru handia zen Euskal Herrian⁹⁴. Unitate berriak 1977an sortu ziren, atzerritarren aholkularitza pean. Edozein kasutan, egingdako aldaketak oso puntualak izan ziren. Poliziaren ikuspegitik terrorismoaren aurkako borrokari bultzada bat emateko ahalegin hori gorabehera, barne segurtasunezko egiturek bizi zuten paralisi eta harridura egoera orokortua zen. Informazioaren jasotze eta aztertze prozesua modu erabat artesanala eta koordinatu gabean egiten zen, eta arloko espezializazioa Poliziaren barruan ia-ia oso urria eta behin behinekoa zen. Ekintza-errepresio-ekintza ikuspegi estrategikotik higadura bidezko negoziazio agertoki baterako prestaketarako iga-

rotzea —Konstituzioa onartu ondoren— garai honetakoa da. Epealdi honetan gero eta handiagoa zen ETAre indarkeriak erakusten du indarkeriaren baliabidea eztabaidaezina eta utziezina zela. 1979an ETA gai zen bi astean behin komando bat ateratzeko, eta 1978-79 epealdian Polizia desegiteko gai zena baino 24 komando gehiago antolatu zituen. Horrenbeste jende gazte inguratu zitzairen, ezen soldadutza egin ez zutenak baztertu baitituzten⁹⁵.

Gobernu demokratiko berriek terrorismoaren aurka martxan jarritako politikek ikuspegi falta handia zuten, Euskal Herriko indarkeriaren arazoari hertsu-hertsian polizia arazo bat bezala heltzen baitzioten. Hori horrela zela ikus daiteke, une horretara arte Estatuoko segurtasun kidego eta indarren jardunean ez baitzen egon aldaketa esanguratsurik, eta ETA ere hori agerian jartzen saiatu zen. Diktadorea hil eta Konstituzioaren onarpenera arte 39 pertsona hil ziren OPIen jardunagatik (manifestazioak, ekintza politikoak, poliziaren kontrolak eta abar); horrek erantzunaren proportzionaltasun ezaren eta Estatu mailan, Segurtasun publikoaren erronka berriei aurre egiteko, Poliziak zuen prestakuntza eta baliabideen desegokitasunaren adibide bat ematen digu⁹⁶. 1978ko San Ferminetako gertakariak —poliziaren ekintzaren ondorioz heriotza bat izan zen, eta, ondoren, Erreterian, Polizia Armatuaren konpainia batek kalte handiak eragin zituen herrian— are gehiago sutu zuten giroa.

Erregimen berriaren etorrerak ez zuen Frantziako gobernuaren jarrera nabarmen aldatu, baina bien arteko hurbilketa handiagoa lagundu zuen, eta aurreko ukatze esplizitua axolagabekeria bihurtu zen. Frantziako Estatuaren Santutegi Dotrinak —zeinaren bidez talde iraultzaileak hartzen zituzten, lurraldean inolako ekintzarik egin ez zezaten baldintza pean— indarrean jarraitu zuen. Espainiako agintari berriek ulertzintasunez eta etsipenez onartu zuten egoera hori⁹⁷. Hurrengo urteetan ehunka izan ziren hildako hiritarrak edo ikaratuta bizi izan zirenak, elkarbizitza politikoa urardotu egin zen, printzipio demokratikoak sakonki hondatu, eta frustrazioak eta errezeloak lorratz sakona utzi zuten gizartean.

ONDORIOAK

Balizko agertoki terrorista fikziozko bat sortzen badugu, non antzezle garrantzitsuenek zeregin disfuntzionalak jokatzen dituzten, oinarrian ezegonkortasun politiko sakona duena eta lurraldearen egoera egonkortzearen alde dauden Estatuak inguratzen dutena, ziur asko aztertzen ari garen epealdi horretako Euskal Herriaren antza duen fikzio bat birsortzen ariko ginatke. Esperientzia honetatik zenbait

irakaspen atera daitezke. Lehen a ETaren ezaugarriak dituen erakunde terrorista baten berezko mugekin lotuta dago. Horien artean azterketa egiteko eta berregokitzeko gaitasun murriztua nabarmen daitezke. Elkarrekintzako tresna nagusia indarkeria den unetik, gainerako tresnak zokoratuta geratzen dira. Hori dela eta, bereziki interesgarria da ekintza-errepresio-ekintza logikaren inguruan garatzen duten ikuspegiak; izan ere, beren estrategia horretan kognitiboki harrapatuta geratu ondoren, beste estrategia bategatik ordezkatu zuten, non indarkeria ere zen nagusi. Azken batean, berek askatzen duten indarkeriaren gatibu dira.

Hala ere, ETak ez zuen desio zuen agertokia birsortzea lortu. Espainiako Administrazioak eragindako nahasmena eta akatsak izan ziren amildegiaren ertzean dabilen errealitate baten oinarriak finkatu zituztenak. Epeari eta moduari dagokionez, Estatuak gaizki kudeatu zituen bereak ziren esparru horiek, baina epealdi horretan terrorismoari emandako bultzada gehiago izan zen errepresio disfuntzional baten ondorio politika ez eraginkor batena baino. Agertokiaren larritasunaren ondorio gisa, erantzunaren berrantolaketa giza eta materialzko baliabide eskerga erabiltzea ekarri zuen, eta ez zen eragotzi askoz txikiagoa izan zitekeen sufrimendu bat. 1977-78ko ekintza-errepresio-ekintza strategiaren amaierak ez zuen zerikusirik izan Estatuaren eraginkortasunarekin, baizik eta eskura zuen baliabide eskergarekin eta estatuaren egituren pisu hutsak dakarren presioarekin.

Ondorio nabarmenena da segurtasun indarrek oso bestela jokatu behar zuketela eta Estatuak gai izan behar zukeela ulertzeko erantzuna soilik ezin zela poliziala izan, baizik eta baita politikoa, soziala, judiziala eta hezigarria ere. Hala ere, epealdi horretan testuinguruak galazazi egiten zuen argitasun hori, eta terrorismoaren aurkako dotrina modernorik ez zegoela gehitu behar zaio horri —funtsean ez zegoelako horrelakorik inon—, arazoa egitura-ikuspegi batetik ikusteko aukera eman zezakeena.

Bestalde, oso interesgarria da ikustea nola ETak eta, hedaturaz, beste zenbait erakunde terroristek gaitasun ezdeusa esleitzen dieten Estatuari egoerei erantzuteko eta haietara moldatzeko. Erakundeari ez zitzaion bururatu ere egiten Estatuak, bere baliabide eskergekin, erantzun sofistikatu bat eman zezakeenik, zenbait fronte koordinatuz. Estatuaren eraginkortasunaren ondorioak oso gerora hasi ziren hautematen, agintariak poliziaren erantzuna terrorismoari eman beharreko erantzun eraginkorraren alderdietako bat baino ez zela ulertu zutenean. Azken finean, arazo konplexu baten aurrean, irtenbidea erantzun koherente eta koordinatuaren emaitza baino ezin zen izan, hainbat esparrutatik zetorrena, hala nola politikoa, legegilea, ekonomikoa, soziala eta kulturala, polizialaz gain. Hurrengo urteetan zehar egiaztatuko den

bezala, erantzun konplexu baten aurrean ETAre indarkeriaren logikak, ezaugarri gisa dimentsiobakartasuna eta zurruntasuna zituenak, ez zuen ia aukerarik gero eta meharragoa zen leku batean.

ERANSKINAK

Nola geratu zen kalea Luis Carrero Blanco eta honen bi laguntzaileen hilketaren ondotik, 1973ko abendua.



ITURRIA: Agentzia EFE.

Carrero Blancoren hileta Bilbon, 1973ko abendua.



ITURRIA: Archivo Municipal de Bilbao-Bilboko Udal Artxiboa, *La Gaceta del Norte* egunkariaren Funtsa.

Nola geratu zen Rolando kafetegia atentatuaren ondotik,
1974ko irailak 13.



ITURRIA: Archivo Municipal de Bilbao-Bilboko Udal Artxiboa, *La Gaceta del Norte* egunkariaren Funtza. <http://www.arovite.com/es/cronologia/>

Manifestazioa José María Portell-en hilketagatik, ETak hil zuen
lehen kazetaria. Portugalete, 1978ko ekaina.



ITURRIA: Archivo Municipal de Bilbao-Bilboko Udal Artxiboa, *La Gaceta del Norte* egunkariaren Funtza. <http://www.arovite.com/es/la-gaceta-del-norte/>

ETArri konfiskatutako materiala, 1979ko otsailak 10.



ITURRIA: Archivo Municipal de Bilbao-Bilboko Udal Artxiboa, *La Gaceta del Norte* egunkariaren Funtsa. <http://www.arovite.com/es/la-gaceta-del-norte/>

VIII. ATALA

ETAren AURKAKO POLIZIA-BORROKA: EGIN EZ ZIREN ATENTATUAK

RONCESVALLES LABIANO

Universidad de Navarra

JAVIER MARRODÁN

Universidad de Navarra

1980ko hamarkadaren amaieran José Antonio Anido Martínezek Baezako Guardia Zibilaren Akademian sartzea eskatu zuenean, haren profil apur bat ez ohikoa ETAren aurkako borrokan abagune interesgarria bihur zitekeela susmatu zuten guneko arduradunek. Gaztea Strasburgon jaio zen, eta Frantziako doinu markatuarekin hitz egiten zuen gaztelera¹. Bere gurasoak —galiziarra, A Coruñaako Terras de Xallasekoak— Frantziara emigratu zuten lan aukeren bila². José Antonio Akademian formalki sartu baino lehenago ere, USEko (Unidad de Servicios Especiales, Zerbitzu Berezien Unitatea) zenbait kidek ezau-garri oso zehatzak zituen norbaiten bila ari zirela azaldu zioten, hura ETAn sartzeko helburuarekin, eta bera hautagai egokia izan zitekeela. Proposamena ondo iruditu zitzaion: «Luzea, zaila eta arriskutsua izango zela esan zidaten; abenturak erakartzen ninduelako eta terrorismoaren aurkako borrokan baliagarria izan nahi nuelako onartu nuen erronka. Une horretan ez nintzen beldur»³.

Heziketa 1990eko azarotik 1991ko maiatzera arte luzatu zen. Frogak «gogorrak» izan ziren: Haren zereginaren berri ez zuten Guardia zibil batzuek José Antonio Anido atxilotu zuten ere, ETArekin elkarlanean aritzearen salaketa pean. 1991ko maiatzean bere buruzagiek prest zegoela oldoztu, eta Frantziako hegoaldera bidali zuten nortasun berri batekin.

Agente gaztea ingurune abertzalearen pertsonekin pixkanaka harremanak egitea zen egitasmoa, baina gehiegi aurrea hartu gabe edo nabarmendu gabe: estrategikoki egokiagoa zirudien «haiek» bera-

gatik interesatzea. Modu sotilean sartu zen «Iparretarrakekin lotutako *light* giroetan». Iparretarrak ETAREN hurbileko erakunde terrorista bat zen, 1972tik Frantzian sabotajeak eta atentatuak egin zituen. Baionan, non errefuxiatuen eta ETAREN jarraitzaileen pisua nahiko handia baitzen, José Antonio Anidok Espainiatik ihes egindako intsumisotzat aurkeztu zuen bere burua, soldadutza eta kartzela saihesteko ihes egindakoa hain zuzen ere. Itxura eta janzkera egokiak eskuratu zituen, porruak erretzen zituen, *reggae*-a entzuten zuen, eta euskara ikastaro batean izena eman zuen Baionako Gau Eskolan. Eskolak Aitor Rentería Maletak, Joseba Garayk eta Iñaki Bilbok ematen zituzten, «une horretan etakideen giroan oso ezagunak zirenak». Anidok elkarlanean aritzeko interesa eta gogoia erakutsi zuen, eta diruzain gisa aritzeko proposatu zioten, baita Gau Eskolako sukaldean apur bat laguntzeko ere. Atseginez onartu zuen betekizuna. Inoiz edo «ETArekin lotutako ohar banaketaren bat» ikusi ahal izan zuen. Eta Guardia Zibilaren aurkako atentatu baten festara ere batu zen, itsaskiarekin, alkoholarekin eta drogarekin. Kosta egin zitzaion disimulatzea, baina eustea lortu zuen.

Hiru urtetan zehar, bere inguruan zebiltzan errefuxiatu abertzaleen konfiantza irabazi zuen «pixkana-pixkana», harik eta 1994an ohar bat eman zioten arte, «pertsonek bat jasotzera» joan zedila proposatuz. Talde terroristarekin zerikusia zuen lehen betekizuna zen. Une hartan, bi urte atzera zuzendaritza kupula guztiaren desegitea ahalbidetu zuen polizia-operaziotik berregiten saiatzen ari zen ETA. Bidarteko atxilotetak Guardia Zibilaren eta Frantziako poliziaren lankidetzak estuari esker posible izan zirela jakitun ziren Erakundearen arduradunak, eta errezeloz eta susmoz betetako giro ia itogarrian bizi ziren: edozein ezezagun kamuflatutako agente bat izan zitekeen. «Etakideek beren amesgaizto okerrenetan ere ikusi ez zutena, poliziak haiek garaitzea, bat-batean gertaera hurbil gisa agertu zen», idatzi zuen Florencio Domínguezek, Bidarteko krisiaz ari zela⁴. Espainiako zerbitzu sekretuak poliziaren arrakasta ikuspegi psikologikotik ustiatzen saiatu ziren. «Erakundea bere arazo eta barne gatazkei esker burugabetu zezaketela iradoki zuten», eta horrek «taldeko dozenaka kolaboratzaile erretxindu zituen, une horretan informazio horren egitasuna egiaztatzeko beren goi agintariekin komunikatzeko aukerarik ez zutenak»⁵.

Guztiarekin, ETAK bere zuzendaritza taldea berrosatzea lortu zuen hurrengo hilabetetan. Garai hartako poliziaren txostenen arabera, 1992 urtearen amaieratik, Ignacio Gracia Arreguik (*Iñaki de Rentería*) eta Mikel Albizu Iriartek (*Antza*) osatu zuten erakundearen batzorde betearazlea. Legez kontrako komandoak José Javier Arizkuren Ruizen (*Kantauri*) eta Juan Luis Aguirre Leteren (*Isuntza*) esku geratu ziren,

aparatu militarren eta teoriar taldearen «bigarrena» zen Félix Alberto López de la Calle Gaunaren (*Mobutu*) koordinazioaren pean. Aurretik *Mobutuk* erantzukizun funtzioak bete zituen jada ETAren barruan⁶.

Egoera ahul eta tentsioz betetako horretan mugitu behar zen José Antonio Anido. «Pertsona bat jasotzeko» proposamena heldu zitzaionean, alde aurretik harremanetarako finkatu zuten «metodo ziurra» bidez jakinarazi zion bere agintariari. Anidori «sustoak eta urduritasunak» saihestearren, berak emandako informazioarekin martxan jarritako operazioei buruz ezer ez esatea erabaki zuten nagusiek.

Jaso zuen ETAko militantea Zorion Zamakola Ibaibarriaga izan zen, 1992an «Bizkaia» komandoa desegin zutenetik ihesi zebilena eta gero eta erantzukizun handiagoak zituena taldearen azpiegituran, batez ere arlo politiko eta ekonomikoetan⁷. Bere burua «ETAko diruzain» gisa aurkeztu zuen. José Antonio Anidori galdetu zion ea haren etxean gera zitekeen, eta honek baiezkota eman zion, nahiz eta, irakatsi ziotenari jarraiki, «zalantzakor eta ikarati» azaldu zen. Guardia Zibilak mikrozu bete zuen haren etxea.

Zamakola segurtasunarekin obsesionatua zegoen: egunez lo egiten zuen, eta ez zuen zaratarik egiten bizilagunek etxebizitzan bi bizilagun zeudela suma ez zezaten. Ez zuen komunaren zisterna ere erabiltzen. Hari «zapatilak, barruko arropa, behar zuen guztia» erostez arduratu zen Anido. Jakitun zen «norbanako arriskutsu bat» zela. Etakideak zenbait hitzordu eta bileratara autoz eramateko eskatu zion. «Askotan» joan ziren Pauera edo Bordelera, non erakundeko beste militante batzuekin elkarrizketak izaten zituen. Zatitan txikitzen zituen beti bai jasotako gutunak bai berak idatzitako dokumentuak; ondoren, hondarrak plastikozko poltsa batean sartu, eta José Antonio Anidori ematen zion, honek zaborrontzira jaitsi zezan zaborraren kamioia handik pasatzeko minutu gutxi batuk baino falta ez zirenean. Zamakolak diskrezioz behatzen zuen manioobra leihotik. Guardia Zibilak «zoko bat» prestatu zuen eskaileran, eta barruan ezkutatzen zituen paperez betetako plastikozko poltsak. Poltsak «etxebizitza kideek» erabiltzen zituzten denda berekoak ziren. Zorion Zamakolak zaborra jaisteko eskatzen zionean José Antonio Anidori, guardia zibilak «aldaketa» egiten zuen eskaileran, besteak ezer susmatu gabe. Gauez agente batek poltsa ona jaso, eta gezurrezko beste bat uzten zuen. Sistema horri esker, taldearen diruzainaren jardueren «informazio asko» lortu zuten. Batzuetan, Zamakolak zuzenean eskatzen zion bere anfitrioiari etakideren bati gutunen bat emateko. Itxitako gutun-azal bat ematen zion. Anido «leku seguru batean» biltzen zen Guardia Zibileko Zerbitzu Berezien Unitateko espezialista batekin. Azken honek gutun-azala ireki,

barruko paperei argazkiak atera, eta edukia berriro itzultzen zuen gutun-azalera, itxuraz ukigabe.

Hilabete horietan zehar, José Antonio Anidok beldurra pasa zuen. «Beldur asko», idatzi zuen txosten batean handik urte batzuetara. «Ametsetan ozen hitz egin, eta bera ohartuko zen beldur nintzen; hori zen nire obsesio nagusia, ametsetan hitz egitea»⁸.

I. LEHEN IKERKETAK

José Antonio Anido Martínez agentearen amets urduria terrorismoaren aurkako borrokaren klasiko bat da. Hura bezala, ehunka agente antzeko egoeretan kezkatuta ibili ziren ETAREN aurka hasiera-hasieratik borrokatu nahian. Polizia frankistak Euskal Herrian beren helburuak lortzeko biolentzia erabiltzeko erabakimena zuen gazte nazionalista talde bat zegoela jakin zuenetik hasitako ibilbide luze eta interesgarriaren mugarrri gogoangarrienetako bat izan zen talde terroristaren bihotzean guardia zibil bat sartzeko aukera eman zuen operazio sofistikatua. Hasieran, ordea, dena askoz landu gabeagoa eta inprobisatuagoa izan zen.

Segurtasun Kidego eta Indarrek ETAREN aurka egin zituzten lehen jarduerak ia beti aktibistek burututako atentatu edo sabotajeei erantzun bat izan ziren: ez zegoen ia epe ertaineko estrategiarik edo taldearen egitasmoak ahultzeko aukera eman zezakeen inteligentzia lanik.

1959ko udazkenean —justu *Euskadi ta Askatasunaren* sorrera baino urtebete lehenago— etxean egindako hiru lehergaik eztanda egin zuten «sinboliko»tzat jotako beste horrenbeste helburutan: Arabako Gobernu Zibilean («Espainiako Estatuaren ordezkari gisa»); Bilboko Polizia komisaria batean («errepresioaren ordezkari gisa»); eta Alerta egunkarian —Mugimenduaren prentsa katekoa—, Santanderren («etsai ideologikoaren ordezkari gisa»)⁹. Inork ez zituen erasoak bere gain hartu, komisaria eta kuarteletan alarmak piztu ziren arren. Atentatu hirukoitza EGik egin zuela uste izan zuten (ikus III. atala). Ekintza bat burutu bitartean atxilotu zituzten ETAKo lehen militanteak Juan José Etxabe Orobengoa eta Jon Ozaeta izan ziren. 1960ko irailean Guardia Zibilak ezustean harrapatu zituen Donostiako eraikin batean erakundearen eta Euskal Herriaren askatasunaren aldeko pintadak egiten ari ziren bitartean¹⁰. Hala ere, Ordena Publikoaren Indarrek ez zekiten oraindik ETA bazenik ere.

Garai hartan, «ukitu estremista, marxista, anarkista eta abar zuten jardueren» inguruan bideratzen zituen Poliziak bere ikerketak, baita PNVren inguruan ere, zeinaren agintaritzaren guneak Frantzia jarraitzen zuen. 1960ko martxoan Parisen José Antonio Aguirre lehendakaria hil

zenean, martxoaren 22an Donibane Lohitzunen egingo zen hiletara joateko presta zedila eskatu zion Bilboko Buruzagitzako Ikerketa Sozialeko Brigadak bigarren mailako inspektore José Sáinz Gonzálezi. José Antonio Anidok hogeita hamar urte geroago egingo zuen bezala, egokien jo zuen arroparekin jantzi («txapela, gorbatarik gabe, koadrodun alkandora eta abar»), eta «pertsonei nahiz barnetik zetozen (hau da, Espainiatik) autoen matrikulei» buruzko oharrak hartu zituen¹¹.

ETAri leporatzen zaion lehen atentatua —eta erakundeak bere garaian espresuki aldarrikatu zuen lehena— tren bat errailetik irtenarazteko ahalegina izan zen, 1961eko udan uztailaren 18ko oroitzapenezko ekintzetan [«Alzamiento Nacional» deitutakoaren data, Gerra Zibila ekarri zuen estatu-kolpearena alegia] Donostiara parte hartzera zihoan gudari ohiez betetako trena hain zuzen ere. Zenbait militantek burdinbideko tirafondo batzuk kendu, eta errailak batzen zituzten bridak askatu zituzten. Hala ere, trenak aurreikusitako bidaia egin zuen katramila handirik gabe.

Atentatuak ETAren lehen sarekada ekarri zuen, urte horietan egin ziren hainbaten artean lehena. Hogeita hamar atxilotu izan ziren, eta horietatik zazpi —Rafael Albizu Ecenarro, Imanol Laspiur, Iñaki Larramendi, Evaristo Urrestarazu Fernández, Félix Arrieta Jáuregui, Iñaki Balerdi eta Eduardo Ferrán Oyarzábal— hilabete batzuk gerago epaitu zituzten gerra-kontseilu batean: hogei urte Rafael Albizurentzat, hamabost Imanol Laspiurentzat, hamar Iñaki Larramendi eta Evaristo Urrestarazurentzat, eta bost Balerdi, Arrieta eta Ferránentzat. Kartzela-zigorrekin batera, Segurtasun Indarrek erbesterako bidea ere ireki zuten. 1961eko uda hartan berean atxilotuak izan ziren aktibista askok muga zeharkatu, eta Frantzian geratzea erabaki zuten, non «jada errefuxiatuta baitzegoen ETAren lehen erbesteratu publikoa», José Luis Álvarez Enparantza¹².

Hala ere, poliziaren erantzunaren lerro mardula ekintza-ondorio kiribila ere aktibatzen hasi zen, urte batzuk geroago taldeko ideologoei hego hemisferioa astintzen zuten iraultzetatik inportatzen saiatu zirena: atxilotuen ingurunean elkartasuna gehiago areagotu, eta Administrazioaren jarduera errepresiboari aurre egin zion, atentatu are ausartago baterako haztegia sortuz (ikus VIII. atala).

Pau Casanellasek dio errepresio frankistak ematen zizkion onuren «erabat jakitun zela» ETA. Eta bere adierazpena babesteko, ofizialki IV. Biltzarrean (1965eko abuztu-iraila) onartutako «Carta a los intelectuales» dokumentuaren pasarte bat dakar gogora, non honako hau esaten den: «Franco jeneralaren diktadura Errepublika demokratikoburges bat baino askoz ere positiboagoa izaten ari da gure herriarentzat. Azken honek gure asmoak itoko zituen tentsiorik eragin gabe, baina oraingo tentsio hauei esker, herria borrokara bidal dezakegu»¹³.

Garaiko zenbait txostenek ezagutzera ematen dutenez, 1960ko hamarkada horren lehen urteetan susmagarri ohiko eta bilatuenak *Ekin* taldea 1952an sortu zutenak ziren, baita PNVko gazteriarekin elkarbizitzan zenbait urte igaro eta gero ETA abian jarri zutenak ere, jada izen horrekin abian jarri ere. «Baina inoiz ez zituzten atxilotzen epaileak haiek zigortzeko behar beste frogarekin», dio bere oroitzapenetan José Sáinz poliziak.

Edozein kasutan, ETA buruhauste bat izaten hasi zen Poliziarentzat. Sáinzek jasotako garai hartako dokumentu bat erakunde «arriskutsu» batez mintzo da, «bai haren kide hasiberrien arduragabetasunagatik bai sustatzen dituen indarkeriazko metodoengatik» arriskutsua dena, eta «koadro erabat egituratuak dauzka zernahi ekintza subertsibo burutzeko, propaganda “ereintzetatik”, kartelen margoketatik eta abarretik hasita, gertaera larriagoetara, aurreko udaretan Donostian egin zituzten sabotaje ezagunak bezala, larridura eragin zutenak».

1963an, «hilabete batzuek zainketa lan bizi eta zailak egin ostean», Patxi Iturrioz atxilotu zuten, Poliziak ETAko «buruzagi nabarmen»tzat zuena, «asaldura eta indarkeria kanpaina bideratu eta gorenara biziagotzeko» agindua jaso zuena¹⁴. Haren protagonismoa erlatiboa zela frogatu zen denborarekin. Haren ustezko aktibismo biolentoak are oinarri gutxiago zuten: apur bat geroago, Iturrioz langile-lerro baten ideologo bihurtu zen, eta ETAtik egotzi zuten 1966ko udazkenean, V. Biltzarraren lehen zatian zehar; haren kide ohiek heriotzara kondenatu zuten, sententzia burutu ez zuten arren¹⁵. Iturriozekin batera beste zenbait militante atxilotu zituzten 1963an, baina fronte militarren buruak, Juan José Etxabe Orobengoak, Frantziara ihes egitea lortu zuten. Guardia Zibilaren zenbait txostenek aurreratzen dutenez, ETAk mila berrehun bat militante zituen orduan, lau edo bost ibilgailu, autoak eta motorrak kontuan hartuta, eta hiru kopiagailu zahar»¹⁶.

Denbora kontua zen borrokak sortzea. Horietako bat Iruñean gertatu zen 1965 urtea ozta-ozta hasi berria zela. Hiru aste lehenago lehergai batek eztanda egin zuen Erorien Monumentuan, Nafarroako hiriburuaren bihotzean. Egunkarien informazioaren arabera, bi bonbak —bat ez zen lehertzer heldu— «iturgingin orearekin eutsita zeuden, Frantzian eginak ziren, berrogeita hamar gramo dinamita zuen bakoitzak eta bost metroko metxa bati lotuta zeuden. Gainera, atentatuaren egileek pintada batzuk egin zituzten soplete batekin Monumentuaren hormetan. «Dios-patria-rey = opio» zioen haietako batek. Poliziak tira egin zion hariari, susmagarri batzuen aztarna topatu, eta urtarrilaren 16an Jokin Gárate Bayo, Algortan jaiotako ETAko militante bat, aurreko astean auzi-ihesean epaitua, harrapatu zuten Iruñeako Carlos III etorbidean. Funtzionarioek agiriak eskatu

zizkioten, eta gaztea ihesari eman zitzaion. Atzetik zihoazkionek beren armak erabili zituzten, eta tiro batek izterrean jo zion Gárateri. Aktibista atxilotu egin zuten. Ziur asko, etakide baten eta Segurtasun Indarren arteko lehen gertaera izan zen Nafarroan. Jokin Gárate José Mari Gárateren semea zen, Eusko Gudariaren konpositorearena. Poliziak Erorien Monumentuen aurkako atentatuan esku hartzea leporatu zion. 1968ko otsailaren 8an epaitu zuten, José Antonio Muguerza Plazarekin batera —egitate berengatik epaitua—, baina biak errugabetzat jo zituzten froga faltagatik¹⁷. 1965eko otsailaren 2an, bi aste geroago, Poliziak Christianne Etxaluz frantziar gaztea, Enbatako militantea —ETAgandik hurbil zegoen talde abertzalea, 1963an sortua Pirinioen beste aldean —, atxilotu zuen Elizondon. Etxaluz Iruñeara bidean zihoan eskolara, Nafarroako Unibertsitatean ikasketak egiten ari baitzen. Poliziak une hartan esan zuenez, atxilotua izatean aldean zerman «petardoa» Monumentuaren aurkako erasoan erabilitakoen «antzekoa» zen. 1966ko martxoan gerra-kontseilua egin zioten Iruñean, eta bi urte, lau hilabete eta egun bateko espetxealdi-zigorra ezarri zioten «jarduera terroristengatik».

Bizkaian eta Gipuzkoan atxiloketak, epaiketak eta zigorrak izan ziren ere. Hala ere, ETAren jarduna modu geraezinean hazten joan zen urte haietan: 1967an ehun eraso baino gehiago egin ziren sinbolo frankisten aurka¹⁸. Urte hartan berean, V. Biltzarra jada amaituta, ia 200 preso eta 342 iheslari zeuden *Euskadi ta Askatasuna* entziklopediaren arabera, izaera ia hagiografikokoa¹⁹. Hurbil sumatzen zen etakideak berak akuilatzen ari ziren jauzi kualitatiboa. «Inorentzat ez da sekretu bat nekez aterako garela 1968tik hildakorik gabe», ohartarazi zuen *Txabi* Echebarrietak Aberri Egunaren harira idatzitako testu batean²⁰. Intuizio bat zirudien, baina profezia bat zen.

II. PARDINES ETA MANZANASEN HILTZAILEEN AZTARNAREN BILA

1968ko ekainaren 7ak bitan banatzen du ETAren historia, nahiz eta egun hartako gertaerak hilabete batzuk atzera inkubatzen ari ziren nolabait. Apur bat lehenago erakundeak lehen pistolak jaso zituen, Txekoslovakiatik zetozenak. Astra markako zenbait arma ziren, Espainian egindakoak. Juan José Etxabe arduratu zen haiek militanteen artean banatzeaz, ohar bat lagun, gauza jakina zena: «Nahi duenak har dezala, baina erabiltzeko dira»²¹. Mario Onandiak bere oroitzapenetan zehazten duenez, pistolak zozketatu egin ziren²². Ekainaren 2an Biltzar Ttipiak Melitón Manzanos eta José María Junquera, Donostiako eta Bilboko Ikerketa Sozialeko Brigadaren buruak, hiltzeko era-

bakia hartu zuen Ondarroan²³. Zenbait militanteren artean «aktibismo neurrigabeko» giroa zegoen²⁴.

Liburu honen III eta IV. atalean ekainaren 7an gertatutakoaren xehetasunak jasotzen badira ere, baliagarria da poliziaren jarduera agertoki egokian kokatzen lagun dezaketen zenbat xehetasun gogoraztea. 1968ko aste horietan norbait hiltzea ez zen berritasuna, ez behintzat mapamundiaren beste leku batzuetan: Pariseko barrikaden kea haizatu gabe zegoen oraindik, eta ekainaren 5ean Bishara Sirhan Sirhan-ek, antisionista porrokatu batek, Alderdi Demokratik AEBko presidentetzara aurkeztu zuen hautagaiaren aurka, Robert Kennedyren aurka, tiro egin zuen. Haren gorpua San Patrizio katedralean ikusgai jarria zegoen, Atlantikoaren beste aldean, eta José Antonio Pardines Arcay eta Félix de Diego Martínez guardia zibilak I Nazionalean zeuden, Aduna herrian, Gipuzkoan, lanetan zegoen errepide baten trafikoa erregulatzeko.

Gelditutako auto ilara bat zegoen, eta José Antonio Pardinesek, 25 urteko mutiko galiziar batek, guardia zibilen seme eta biloba zenak²⁵ (ikus V. atala), agiriak eskatu zizkien Zaragozako matrikula zeraman Seat 850 kupe batean zihoazen bi gazteri. *Txabi* Echebarrieta eta Iñaki Sarasketa ziren, eta Jokin Gorostidirekin zuten hitzordura zihoazen. Antza denez, azken honek lehergai kantitate bat eman behar zien. Autoa lapurtua zen. Gazteek agiriak eman zizkioten, baina guardia zibilak anomaliaren bat topatu zuela susmatuta, Echebarrietak pistola atera, eta tiro egin zion. Litekeena da Sarasketak ere tiro egitea (ikus III. atala). José Antonio Pardines Arcay agentea berehala hil zen. «Ez zen borroka bat izan, ez zen ernai dagoen etsai baten aurkako gerrillari baten borroka heroikoa izan, hilketa bat baizik, Lituaniako basoetako zanga batean belauniko dagoen juduaren garondoari tiro egiten dion naziaarena bezalakoa, edo Ardeatinako hobietan bahitutakoari tiro egiten dionarena bezalakoa»²⁶, idatzia du Jon Juaristik. Bi aktibistek ihes egin zuten, eta babesa bilatu zuten Tolosan bizi zen kolaboratzaile baten etxean.

Pardinesen kideak, Félix de Diegok, gertatutakoaren berri eman zuen. Hala egin zuen gertaeren lekuko izan zen kamioilari batek ere, Fermín Garcések. Kamioilariak borroka arin bat izan zuen Sarasketarekin, azken honek bere armarekin destatu zion arte. «Pardinesen hiltzaileak harrapatzeko jarritako operatiboa beste edozein gaizkile harrapatzeko jar zitekeenaren ia berdina zen»: patruilak inguruko errepideetan sakabanatu ziren, eta ordu eta erdi geroago, Seat 850a topatu zuten Venta Aundi jatetxearen ondoan, Olarrain auzoan, Tolosatik gertu²⁷. Bidaiariak ezin ziren oso urruti egon.

Bi ordu geroago edo, Trafiko Elkarteko bi guardia zibilek «limoi koloreko Seat bat» ikusi zuten, barruan hiru gazte zituena, eta geldi-

tzeko agindua eman zioten. Bidaiariak *Txabi* Echebarrieta, Iñaki Sarasketa eta E.O. ziren. Azken honi ingurutik urruntzeko laguntza eskatu zioten beste biek. Tiroketa bat izan zen. *Txabi* Echebarrietak bi tiro jaso zituen, eta hilik gertatu zen; Iñaki Sarasketak menditik ihes egitea lortu zuen bere kargadorea hustu eta gero, baina hurrengo egunean atxilotu zuten Errezilgo elizaren barruan, non ezkutatu baitzen²⁸ (ikus III. atala). Hildakoak Lucas Aigüesen NANA zeraman, banketxe bateko langilearena, eta Mario Onaindiak eman zion²⁹.

Txabi Echebarrietaren desagerepenak —lehena erailtzen eta lehena hiltzen, bere kideek nabarmendu zuten bezala (ikus VI. atala)— bi hilabete geroago izan zuen erantzuna, ETAk aurrez pentsatuta egin zuen lehen atentatu hilgarrian. Biktima Melitón Manzanos González Polizia inspektorea izan zen. Echebarrieta bera eta Jokin Gorostidi jarraika aritu zitzaizkion, haren ohiturei eta ordutegiei buruzko informazioa biltzeko. Manzanos, Ikerketa Sozialeko Brigadako buru, atxilotutako antifrankistak torturatzeagatik salatu zuten behin eta berriz. 1968ko abuztuaren 2an bi etakide zain zituen Villa Aranan, bera bizi zen Irungo etxean, eta hil egin zuten, zenbait tiro jota.

Bi krimen horien ondorioz, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek jauzi kualitatibo bat eman behar izan zuten ETAren aurkako borroka moldeari dagokionez. Ordu arte interes erlatiboa eskaini zioten kolektibo horri, baina Euskal Herria ikurrinez, pintadez eta sabotaje txikiez betetzen zuen talde gutxi gorabehera ausart bat izatetik erakunde kriminal bat izatera pasa zen, Gipuzkoako Poliziaren arduradun nagusienetako bat, errepresio frankistaren sinbolo bat ia-ia, odol hotzean hiltzeko gai zena. «Egun hartan jazotako gertae- rek hurrengo hamarkaden nondik norakoa markatu zuten —diote *Sangre, sudor y paz. La Guardia Civil contra ETAren* egileek—. Garai hartan, ETAren aurkako borrokan eskuratuko zuen eraginkortasunetik urrun zegoen kidegoa, agenteek ia ez zuten ez tresnarik ez trebakuntzarik terroristei aurka egiteko, eta are gutxiago horizontean marrazten ari zenaren kontzientzia garbirik»³⁰. Garbi dago 1968ko ekainaren 7an eta abuztuaren 2an Rubikon ibaia zeharkatu zutela bai etakideek bai haien aurkako borroka arduratzen ziren agenteek. Taldeko arduradun batzuek susmatu zuten orduan beren enfrentamendua ez zela izango «herriaren (erakundeak gutxi gorabehera zuzendua) eta Estatuaren arteko borroka bat», Poliziaren eta ETAren artekoa baizik³¹.

Jakina, zaila zen Estatua tartean ez sartzea. 1968ko ekainaren 25ean —oraindik Pardinesen eta Manzanosen heriotzaren artean—, Gorteetako Babes Nazionaleko Batzordeak Gobernuari premiari zuzendutako «terrorismo separatistako prozesu hau errotik mozteko balio dezakeen zernahi neurri hartzeko, arruntak edo salbuespenekoak, baita mutu-

rrekoak badira ere, eta erantzukizuna zorrotzasun handienarekin exijitzeko, ekintza edo ez-egite horietan jausitakoen forua edo izaera zernahi zela ere»³². Egoerak ez zuen aurrekari askorik: Ordena Publikoaren Indarrak paisaia berri batera azaltzen hasiak ziren.

Polizian «nahigabea oso handia izan zen». José Sáinz Manzanasen «behin-behineko» ordezkotza izendatu zuten, eta, era berean, hilketaren «erantzuleak topatu eta harrapatzeko beharrezkoak ziren ikerketak zuzentzeko» enkargua jaso zuen. Bere oroitzenetan xehetasun handiz gogoratzen du nolakoak izan ziren ordu haiek. A Coruñaetik atera — hantxe izan zuen elkarrizketa komisario nagusiarekin —, Bilbora lotara iritsi, eta Donostiarantz jarraitu zuen hurrengo egunean. Lorenzo Calatayud inspektoreak egin zion harrera, eta, ondoren, Seguritasuneko zuzendari nagusiak galdera kezkarri bat egin zion: «Zer aldarte duzu, Sáinz jauna?». Erantzuna bere autobiografia profesionalean dago, urte dezente geroago idatzia: «Kide bat hil dute, eta hona nator ekintza terrorista horren eta probintzia baskongadoetan gertatzen ari diren beste ekintzen egile eta kolaboratzaileak topatu eta harrapatzen laguntzeko prest nago. Badakit orain arte egokitu zaidan polizia-zeregin zailena dela, baina buru eta bihotz emango natzaiola ziurtatzen dizut»³³. José Sáinzek jakin zuenez, bera izendatu baino lehen boluntarioak eskatu zituzten ikerketa zuzentzeko. Ez zen inor aurkeztu, eta Madrileko bi komisario «entzutetsu»ri eskaini zitzaizkien zeregina, baina uko egin zioten beldurratetik. «Ez dakit zeren beldur ziren, beren bizitzaren beldur ala porrotaren beldur», gehitzen du.

José Antonio Pardines eta Melitón Manzanasen hilketak baino urtebete lehenago, Guardia Zibilak bere lurralde-banaketa berrantolatu zuen. Espainiako ipar aldeko garnizio nagusiak Gasteizen, Iruñean eta Burgosen kokatuta geratu ziren. Agenteak modu berri batean lantzen hasi ziren informazioa: «Gerra Zibil osteko makien aurkako estrategia, arrakastatsua nagusiki landa eremuan zegoen arerio isolatu bati aurka egiteko, erabat zaharkituta geratu zen terrorismoaren erronkari aurre egiteko, askoz inbrikatuagoa gizartean, eta Estatuarentzat mehatxu nagusienetako bat adierazten zuen Euskal Herrian eta Nafarroan, nahiz eta oraindik inor ez izan horren jakitun»³⁴.

1968ko abuztuaren 5ean salbuespen egoera dekretatu zen hiru euskal probintzietan: «ehunka atxiloketa» eta «miaketa ugari» izan zen³⁵, baina José Sáinzek berak, ia modu presatuan ETaren aurkako borrokan espezialista izatera behartuta, bere oroitzenetan onartzen du bera eta bere gizonak «larriki nora ezean ibili zirela» nahasmen aste horietan. «Larrialdi egoerako indar neurriak ziren» —gehitzen du—, «goikoen aurrean eraginkortasun sentsazio bat» sortu nahi zutenak. Bere aginduetara zeuden agenteen artean baziren batzuk «beldur askorekin eta are benetako laborriarekin». ETari aurka egiteko osatu zen

taldea «hogei edo hogeita bost inspektorek osatzen zuten, gehi hiruzpau auto, lauzpabost metrailleta eta besterik ez». «Tren baskongadoen geltokitik gertu zegoen ostatu apal batean ostatu hartu zuten», eman zitzaizkien dietek ez zutelako gehiagorako ematen.

ETArekin zerikusia zutelako susmopean zenbaitzuei egin zitzaizkien galdeketek ez zuten ondorio argigarririk ekarri. José Sáinzek «arreta handienarekin» gainbegiratu zituen Melitón Manzanasek berak giltzapean gordetzen zituen dokumentu eta paperak, eta ez zuen «ez inolako argirik ez inolako arrastorik topatu». Are irudipena izan zuen ez zekitela ezer ETARI buruz, existitzen zela baino ez. «Orain arteko defentsiba etsigarritik poliziaren eta hiritarren adorea igotzeko beharrezkoa den larderiazko erasoaldira pasa behar dugu kosta ahala kosta».

Aurreko urteetan manifestazioen, sabotajeen, erasoen «eta ETAko separatistekin nolabaiteko zerikusia zuten beste jarduera batzuen» kariatara atxilotutakoen fitxategietatik abiatuta, hari batzuei jarraiki hasi ziren. Liberatu batzuk identifikatu zituzten, kontrolak eta araketak biderkatu, batez ere tabernetan eta leku jendetsuetan. Funtzionarioek lauko edo bosteko taldeetan jarduten zuten; talde bakoitzak «metrailleta bat zeraman, eta hura ezkutatzeko itxurak egiten zituzten, nahiz horrela agerian uzten zuten». «Neurri horiekin —aitortzen du José Sáinzek— joera bateko zein besteko jendearengan ondorio psikologiko bat eragitea bilatzen genuen. Lehenago sei edo zortzi geunden han, eta hamabost gehiago etorri ziren taldea indartzera, baina ehunka iritsi ginelako sentsazioa ematen genuen»³⁶.

Estrategia eraginkorra izan zen: «Polizia lehen baino metodo sofistikatuagoak erabiltzen hasi zela ematen zuen»³⁷, idatzi zuen Mario Onaindiak egun haietako giroa laburbilduz. Donostian militante «dezente» atxilotu zituzten, baina Francisco Javier Larenak (*El Mudo*), garrantzitsuenetako batek, taldearen kupulan Txabi Echebarrieta ordezkatu zuenak, Poliziarengandik ihes egitea lortu zuen. Frantziara ihes egin zuen ere Imanol Larzabalek, denborarekin euskarazko abeslari ezagun bihurtu zenak. Donostiako leku estrategiko batzuk kalez jantzita zaintzen zituzten Sáinzen gizonak Larena kalean antzeman zuten laburki haren ihesaldia baino egun batzuk lehenago. «Ordu arte kontaktatu genuen norbanako interesgarriena zen, baina ez zitzaidan iruditu atxilotua izateko adina maila zuenik», azalduko zuen geroago poliziaren arduradunak. ETAko lehena José María Eskubi Larráz, *Bruno*, zen, eta zainduta zuten Sestaoko etxe batetik ateratzen ikusi zuten egun haietako batean.

Gipuzkoan egindako hedatzeak ETAko liberatu José María Dorronsoro Ceberio, ezizenez *Txomin*, harrapatzeko aukera eman zuen 1968ko abenduaren 8an Arrasaten. José Sáinzen arabera, aurretik preso

hartutako batek emandako informazioari esker atxilotu ahal izan zuten. Preso hartutako hori Joaquín Etxabe Orobengoa zen, ETaren fronte militarren arduradunaren anaia («[Etxabren galdeketa] une jakin batean zera adostu genuen, nirekin lankidetzan jarraitzen bazuen aske utziko nuela»³⁸). 1963an Iturrioz edo 1965ean José Luis Zalbide harrapatu zuenetik, Dorronsoro izan zen atxilotu zuten taldeko lehen buruzagia. Haren atxiloketari esker, Julen Kalzada apaiza ere atxilotu zuten, zeinak berea zen Iurreta-Durangoko etxe batean hartu zuen Dorronsoro. Polizia erakundearen mapa osatzen ari zen pixkana.

Melitón Manzanasen hilketarekin zerikusia zuten lehen atxiloketak Iruñean egin ziren, eta modu ezin susmatuzkoan. Une hartan Arantza Arruti Odriozola zen ETaren herrialde-burua Nafarroan. Hau da, taldearen arduradun nagusia probintzian. 1968aren hasieratik propaganda klandestinoia egiteaz eta banatzeaz arduratu zen garai hartako beste aktibista batzuekin batera. Bere nagusiek Parisen eskatu zioten Nafarroako Unibertsitatearen egoerari buruz ikerketa bat egiteko («ikasleen giroa, irakasleak, bekak, nahigabea, ikasleak...»). Taldeak makina kopiagailu bat zuen, Muro de Cameros-eko (Errioxa) etxe batean ezkutatzen zuena. Han prestatu zituzten *Txabi* Echebarrieta Ortizen heriotzari buruzko zenbait testu, ondoren Nafarroan eta Euskal Herrian banatu zituztenak³⁹.

Etakide guztiek bezala, Arrutik ere Poliziaren erasoaldiak ekarritako tentsioa jasango zuen. Bere oroitzapenetan Teo Uriartek egun haien aztoramenaren zurrunbiloan Mario Onaindiak esandako esaldi bat jaso zuen: «Orain ziur gaude hilko gaituztela». Argazkiak ere atera zituzten, bukaera tragiko baten aukera buruan zutela...⁴⁰

Kontua da 1968ko azaroaren 10ean Guardia Zibilak Arantza Arruti atxilotu zuela Iruñeako Conde Oliveto kalean. Arrutirekin batera bere senarra zihoan, Gregorio López Irasuegui, ETaren partaide bera ere. Egundak lehenago ezkondu ziren sekretupean Donostiako San Prudentzio auzoko elizan. Jon Etxabe Garitazelaia apaizak egin zuen elizkizuna, «pistola gerrikoan eta apaiz-ornamentu guztiekin», Mario Onaindiak bere oroitzapenetan kontatzen duenez. Ezkonberriak Nafarroako hiriburuko Orhi hotelean zeuden. Iruñeako kartzelara eramane zituzten, baina Gregorio López Irasuegui aske utzi zuten egundak batzuk geroago.

Abenduaren hasieran, ETako arduradun batzuk Orozkotik (Bizkaia) gertu dagoen Dimako artzain-borda batean bildu ziren egoera aztertzeko. Balantzea nahiko iluna zen, aurreko hilabeteetan izandako atxiloketa ugarien erruz, eta Gregorio López Irasueguik «erortze andanaren ondotik erakundeari adorea itzuliko zion ekintza bat» proposatu zuen. Adibidez, preso zegoen militanteren bat askatzea. Bera eta Javier Izco de la Iglesia (*Txikerra*) behin baino gehiagotan joanak ziren

Arantza Arruti bisitatzera Iruñeako kartzelara, eta egitasmoa egingarria zela uste zuten. «Gainerakoei [Gregorio López Irasueguik] aditzera ematen zuena baino askoz ekintza korapilatsuagoa iruditu zitzaien», dio Mario Onaindiak *El precio de la libertad*en. Egiatan egitasmoa gaitzetsi zuten, «arrisksuesuegia» zelako⁴¹.

Aste batzuk lehenago ihesaldi bat egiten saiatu ziren, arrakastarik gabe baina: Antton Lópezena, Soriako kartzelan zegoen presoarena. Bi kidek baino ez zuten osatzen hura askatzeko komandoa: Mikel Etxeberria Iztueta (*Makagüen*) eta Conchi Rodríguez Grisaleña, presoaren neska-laguna. Barazarreko mendatean zihoazela, bien autoak lerro jarraitua zapaldu zuen, eta gailurrean zegoen polizia batek geratzeko agindua eman zien. *Makagüen* autotik ziztu bizian atera, eta ihes egitea lortu zuen, tiroak gorabehera. Conchi Rodríguez atxilotu egin zuten⁴². Pardines eta Manzanasen hilketen arduradunen inguruko itxitura taxutzen hasi zen.

Beren kideen errezeleok zirela eta, Gregorio López Irasueguik eta Javier Izco de la Iglesiak beren kasa aritzea erabaki zuten Iruñean. *Teo* Uriartek zehazten duenez, beste militante batzuek lagundu behar zieten kartzelako erasoan, baina azken orduan ez ziren agertu⁴³. Garaiko egunkariek argitara emandako informazioan esaten zenez, 1969ko urtarrilaren 5ean, 12.45etan, bi gizon jaitsi ziren beix argi koloreko auto batetik, NA 52633 matrikula zenbakia zuena, eta presondegiko eraikin zaharrea sartu ziren, jaio berria zen San Juan auzoko San Roque kalean. Bisiten ordutegia zen, eta ez zuten inoren arretra erakarri. Funtzionarioak izenak galdetu zizkienean, beren buruak Gregorio Vicente eta José Enrique López Irasuegui anaiak bezala aurkeztu zituzten, eta María Aránzazu Arruti Odriozola ikusi nahi zutela esan zuten, lehenaren emaztea baitzen. Funtzionarioak sartzen utzi zien, eta, orduan, pistolak atera, eta Arantza Arruti eramateko asmotan zetozela esan omen zuten. Baina bien egitasmoa minutu gutxiren tartean amaitu zen: borroka labur bat egon zen; Izco bere pistolaren ipurdiarekin jo zion agente bati; ondoren, arma galdu zuen; funtzionarioak oihuka hasi ziren laguntza eske; etakideak ihesari eman zitzaizkion; Polizia Armatuaren kide batek Izcori gabardinatik heltzea lortu zuen, eta azken hau askatzeko ahaleginetan zebilela, tiro batek jo zion toraxean⁴⁴.

Zauritua Nafarroako ospitalera eraman zuten, eta han egin zioten ebakuntza. Iruñeako presondegira joateko erabili zuten autoan — aurreko egunean Bilbon lapurtua — hiru metraileta eta bi estutxe agertu ziren, 25 kartutxoko bi kargadorekin. Izco osatu egin zen, eta kartzelan sartu zuten urtarrilaren 18an. Jon Juaristiri, etakidea bera ere, eskatu zioten atxilotuen inguruneke bi abokatu —Antonio Jiménez Pericás eta José Antonio Etxebarrieta, *Txabiren* anaia— Iruñeako

zenbait letradurekin harremanetan jartzeko, kartzelarako sarbidea erraz ziezaieten. Juaristi bera haiekin joan zen Nafarroako hiriburura, eta karlismoaren inguruko zenbait profesionalekin egin zuten bileran ere haiekin izan zen⁴⁵. Asko zegoen jokoan: Iruñean egindako atxilotetak ETaren historiaren epaldi baten amaieraren hasiera izan ziren.

1969ko urtarrilaren 30ean Javier Izco eta Gregorio López Irasuegui Iruñean epaitu zituzten gerra-kontseilu batean, presondegiari egindako erasoagatik. Izcori berrogei urteko kartzela-zigorra eman zioten, eta López Irasuegui, aldiz, hamarrekoa. Gainera, 20.000ko isun bat ezarri zieten (2017ko 2.682 euro). Antza denez, hasiera batean inork ez zuen susmatu Izco Melitón Manzanasen hilketan nahastua egon zitekeenik. Urtebete geroago, jada poliziaren alargunak «formalki»⁴⁶ identifikatu zuenean, Burgosen Izco epaitu eta zigortu zuen auzitegiak finkatu zuen bera izan zela benetan tiroak bota zituena. Gainera, adituen azterketak «modu irmo eta garbian» ondorioztatu zuenez, krimenaren egunean Irunen jasotako bala-zorroak eta balak Txekoslovakia «Vzor, 50 modelo, 7,65 kalibrea, C-24263 fabrikazio-zenbakia» pistola batetik atera zirela, Izco Iruñeako presondegiari egindako erasoan aldean zeraman bera⁴⁷. Baina Poliziak hari-mutur guztiak lotu baino lehen, ETaren erdigune gogorraren inguruko itxitura estutzen zihoan, modu inprobisatuan bazen ere.

«Hala Manzanasen hiltzailea topatzeko nola ETaren terrorismoari behin betiko kolpe bat emateko ez zen nahikoa oinean zegoen jendea atxilotzea, burura heldu beharra zegoen», horretaz ziur zegoen Sáinz komisarioa. Baina ez zen beti erraza jakitea nor zegoen oinean eta nor buruan. Zenbait atxilotu eta isil-mandatariren azalpenei esker, Gipuzkoako poliziaren arduradunak ETaren izaeraren, nahien eta egituraren laburpen bat eduki ahal izan zuen, errealitatearekin bat etorzen hasten zena: «E.T.A. deitura Euskal Herriaren askatasuna eta independentzia modu subertsiboan lortu nahi duen erakunde bati dagokio, eta, era berean, herri horren alderdi kultural, politiko, ekonomiko eta sozialak gizarteratu nahi ditu. Hori lortzeko metodo indarkeriazkoak eta terroristak erabiltzen ditu. Erakunde egitura du, eta bere organo nagusiak Batzar nazionala, batzorde betearazlea, liberatuak, herrialdeak, zonaldeak eta *irurkoak* dira».

Etakideak identifikatzeko edo topatzeko herritarrengandik jasoko zuten laguntza oso txikia edo hutsala izango zela egiaztatu zuten ere poliziek: «Gainditzeko oso zailak diren eragozpenekin topo egin dugu —kexu zen José Sáinz—. Landa eremu osoan ez dugu inoren aldetik lankidetzat txikiena ere jaso. Guardia Zibilaren postuak etorri berriez beteta daude, eta ez dute inor ezagutzen; Udaltzainek iskin egiten diote beti ezer esateko konpromisoari; erregimenaren zale izandakoak ikararuta daude, ez dute nahi guk haiek bisitatzea, are gutxiago galdezka

hastea; eta horien artean herri garrantzitsu bezain urrunetako alkateak daude».

1969ko martxoaren 6an Francisco Javier Larena atxilotu zuten Eibarren, eta, egun batzuk geroago, Deban, Jokin Gorostidi Artola. Biak ziren Meliton Manzanasen «exekuzioa» erabaki zuen *Biltzar Ttipiako* kideak. Gorostidiren neska-laguna, Itziar Aizpurua Egaña, atxilotu zuten ere. Larenari kendutako paperen artean bazegoen dokumentu bat non «Manzanasen aurkako atentatua barneko komando batek burutu zuela egiaztatzen zen»⁴⁸. Ondorioz, 31/69 prozedura sumarisimoa ireki zen, hilabete batzuk geroago Burgoseko prozesua ekarriko zuena. Gorostidik emandako informazioari esker, 1969ko apirilaren 3an Antonio Arrizabalaga Basterretxea, *Andoni*, atxilotu zuten Markinatik gertu zegoen baserri batean. *Andonik* giltza sorta batzuk zeramatzan aldean, eta, azkenean, haietako bat etakideek erabiltzen zuten pisu franko bati zegokiola aitortu zien agenteei, Bilboko Artekalako 54.ean zegoena⁴⁹. Eduardo Uriarteren arabera, *Andonik* «beldurrik gabe» hitz egin zuen etxebizitza hartaz, jakin bazekielako bere kideek ez zutela erabili behar⁵⁰. Hala ere, Artekalako etxebizitza horretan jazo zen poliziaren erasoaldiaren gertaera nabarmenena.

Etxebizitza ikuskatzera joan ziren agenteek hutsik zegoela egiaztatu zuten, baina zaintza-dispositibo bat jartzea erabaki zuten, aktibistaren bat agertzen bazen. Etakideek, hain zuzen ere, bizitza «erretzat» jo zuten. Hala ere, egun batzuk Kantabrian igaro eta gero, poliziaren presiotik aldentzeko, haietako lau Artekalera hurbildu ziren Josu Abrisketa Kortak, ezizenez *Txutxo*, utzitako praka bat jasotzera. Harekin zihoazen Víctor Arana Bilbo, Mikel Etxebarria Iztueta eta Mario Onaindia. Azken honek gertaerak xehetasunez azaltzen ditu bere oroitzapenetan: «*Txapetonek* [Víctor Arana] atea ireki zuen, eta egongelara sartu ginen, non altzari bakarria armairu bat zen, platerak eta tresnak gordetzeko erabiltzen diren horietakoa; eskuinera jo zuen, logela gisa erabiltzen genuen gelara, eta maleta bat ikusi zuen lastaira baten gainean. Harrituta, geratu eta etxe hartan norbait sartu zela ohartarazi nahi izan zigun, baina ez zion denborarik eman, pistola baten tiro hotsa entzun baitzen, metro bat baino gutxiagora sabela zeharkatu ziona. Ezin izan genuen argi hauteman, zeren eta, aldi berean, *Txutxo* eta biok, egongelan geunden, eta argi itsugarriko leherketa bat entzun genuen». Zauritua oihuka erreguka ari zen, ez zezatela hil; polizia batek, ordea, tiro egin zuen metrailleta batekin ETako beste hiru kideen aurka. Mario Onaindiak pasillotik korrika egin, eta sukaldean sartu zen, barruko patiora jauzi egiteko asmoz, baina, hiru etxebizitzako altuera ikusita, atzera egin, eta harraska azpian ezkutatzea erabaki zuen. Polizien ahotsak entzuten

zituen etxearen beste aldetik garrasika, amore eman zezala. Agente batzuk etxebizitzatik joan ziren Mikel Etxeberrriaren atzetik. Zaurituta egonda ere, ihes egitea lortu zuen. Mario Onaindiak kalera heltzeko aukerak zituela uste izan zuen, baina poliziek miaketa bat antolatzen zutela entzun zuen, eta harraska azpian sartu zen berriz. Funtzionarioak sukaldean sartu ziren, bera han zegoela jakin gabe. Leihora hurbildu, eta gertatutakoz hitz egin zuten. «Halako batean, isildu egin ziren. Isiltasuna zen seinale txarrena. Konplizitate begiradak trukutzen ari zirela irudikatu nuen, baita ustez ni nengoen lekua seinalatzen ari zirela ere. Ingurura begiratu, eta ikaztegia estaltzen zuen plastikoa urratuta zegoela ohartu nintzen; eskuaren laguntzaz, nire eskuineko bota barrurago sartu nuen. Baina beranduegi zen. Metrailetaren muturra sartu, eta handik ateratzeko agindu zidaten, tiro egingo zutela bestela. Banekien hala egingo zutela. Bi polizia altu eta gazte zirela ikusi nuen, hogeita bost eta hogeita hamar urte bitartekoak, ni bezala zehatz-mehatz jantzita zihoazenak: panazko prakak, koadrodun alkandora eta jertse itxia. Ezin zuten sinetsi metro eta laurogeitik gorako ni bezalako pertsona bat nola sar zitekeen halako leku batean, kanpotik are txikiagoa ematen zuena»⁵¹.

Makagüen iheslariak taxi-gidari bat gerarazi zuen, bai eta Burgo-seraino eramateko agindu ere, baina gidariak, bestea zaurituta zegoela eta pistola bat zeramala ohartuta, azalpenak eskatu zizkion; Mikel Etxeberrriak lau tiro jo zizkion orduan, eta larri zaurituta utzi zuen bazterrean, Arrigorriaga parean. Fermín Monasterio Pérez taxi-gidaria Basurtoko ospitalean hil zen 1969ko apirilaren 9an⁵². José Antonio Pardines eta Melitón Manzanasen ondotik, ETaren hirugarren biktima mortala izan zen.

Artekaleko etxebizitzan atxilotutako hiru etakideen adierazpenek ETako beste liberatu talde baten arrastoaren gainean jarri zuten polizia, «maila handiagokoak», Kantabriako Mogrovejo herrian ezkutatuta zeudenak, Potesen inguruan⁵³. Eduardo Uriarte, Jon Etxabe (Arruti eta López Irasuegui ezkondu zituen apaiza), Enrique Gesalaga eta Jone Dorronsoro ziren aipatu liberatuak. Lauek Radio Parisen entzun zuten atxiloketen berria⁵⁴, eta zenbait paper konprometitu erretzeko denbora ere eman zien. Hala ere, gaua han bertan igarotzea erabaki zuten. Etxe hura herriko senar-emazte batzuei alokatu zieten. 1969ko apirilaren 11an, goizeko seitan, guardia zibil batzuek, Bilboko Ikerketa Sozialeko Brigadako agenteen laguntzarekin, etxebizitza inguratu zuten. Benemeritako Francisco Javier Cereceda teniente koronelak zuzentzen zuen operazioa, urte batzuk geroago kidegoaren arduradun nagusia izango zena Espainian⁵⁵. Larderiako tiro batzuk izan ziren, baina atxilotuak aurka egin gabe errendatu ziren. Polizietako bat Gesalagari eskuburdinak jartzera zihoanean, haren armak

bere kabuz su egin, eta balak etakidearen saihetsean jo zuen, zeina lurrera erori zen «txori bat bezala uzkurtuta». Orduan, poliziek Jon Etxabe askatu zuten, honek gertatutakoa aitortu zezan⁵⁶. Herriko bizilagun emakumezko bat botikin batekin hurbildu zen zauritua sendatzeko, eta manta batekin estali zuen. Agenteek autoetako batean eramatu zuten Valdecillako Osasun Etxera, eta medikuak «ezker hemitoraxean egindako zauri bat, pronostiko larrikoa» hauteman zuten⁵⁷. Denborarekin osatu egin zen. Hiru atxilotuak «Poteseko dorreko ziega moduko batean» giltzapetu zituzten, eta, ondoren, Bilbora eramatu zituzten. Une horretan Uriartek ia bi urte zeramatzan bilaketa eta harrapaketa, «eta horrek ez dio ezer onik orduko Poliziaz», aipatzen du bere oroitzapenetan⁵⁸.

Atxilotuak jipoiak eta torturak jasan zituzten komisarian. Mario Onaindia Melitón Manzanasen heriotzari buruz txintik ez esateko asmo irmoarekin heldu zen polizia-bulegora. «Esandako izen bakoitza suntsitutako bizitza bat izango zen, kartzelara edo erbestera bidalitako bizitza bat, lana edo ikasketak galduko zituena; edozein kasutan, zuriz igarotako zenbait urte izan zitezkeen haien bizitzetan. Eta zama hori betiko izango nuen neure kontzientzian». *Makagiñenen* atzetik alferrik joan ziren poliziak «amorratuta» zeuden. Bilboko Poliziaren Buruzagi nagusia agertu zen orduan, Bartzelonatik iritsi zena terrorismoaren kontrako borroka koordinatzailea. Onaindiaren gainera oldartu, eta bularrean jotzen hasi zitzaion, bere gizonei agindu zehatz bat eman aurretik: satora eramane zezatela eta «ihes egin zuen putasemea nor zen esan arte eduki zezatela han, baita horretarako azala atera behar bazioten ere»⁵⁹. *Teo* Uriarteri eman zitoten lehen jipoiak zortzi ordu iraun zuen⁶⁰. Eta beste kideek antzeko zoria izan zuten.

Orain arte orrialdeotan aipatutako etakide ia guztiak atxilotuta zeuden 1969ko apirilaren 11ko eguerdi hartan: Larena, Gorostidi, Uriarte, Onaindia, Aizpurua, Kalzada, Etxabe, Abrisketa, Izco, Arana, López Irasuegui, Dorronsoro, Arrizabalaga... Zenbait hilabete geroago, haietako batzuk akusatuen aulkian eseri ziren Burgoseko prozesu ospetsuan. Mikel Etxeberria *Makagiñenez* gain, taldeko bi liberatutako baina ez zuten lortu ihes egitea (José María Eskubi Larráz, *Bruno*, eta honen emazte Asun Goenaga López, *Txiki*).

Iturri ofizialen arabera, «erregimenak ETAren kontra bultzatutako kontraeraso berria» —hau da, Pardines eta Manzanasen hilketen ondortik etorri ziren operazioak— buruzagi nagusien harrapaketaekin, 434 atxilotuarekin, 75 deportaturarekin eta Baionara, Parisera, Lovainara eta Bruselara alde egindako 38 erbesteraturarekin amaitu zen. «Bere jardun politiko eta terrorista etetera behartua ikusi zuen bere burua ETak, antolaketa-krisi garrantzitsua nozitu zuen, eta ia-ia deuseztatua eta

bere une makalenean geratu zen»⁶¹. Bilboko Poliziako buruzagi nagusiak, Antonio Juan Creizek, zuzenean jakinarazi zion Bizkaiko hiriburuan zegoen Frantziako kontsulari Espainiako gobernuak «erakunde terrorista sakonki desagintzat» jotzen zuela⁶².

José Sáinz ere zehatza da bere oroitzapenetan: «ETA erakundearen aurka egindako zerbitzua inoizko garrantzitsuena izan zen zalantzarik gabe, eta ez da gauditua izan orain arte [oroitzapenak 1993koak dira, aurreko hamar urteetan idatziak dauden arren], ezta antzekorik izan ere, ondoren egindako beste batzuez asko hitz egin eta idatzi den arren»⁶³. Jon Juaristik hitz gutxiagorekin baino irmotasun berarekin laburtu zuen: «ETA lur jota zegoen»⁶⁴.

Burgoseko prozesura eta Sáinz nagusiaren balantze irmora eraman zuen hedadura haren guztiaren ondotik, ETAREN historiako epealdi kementsuenetako bat —baita krudelenetakoa ere— etorri zen. Horra paradoxa handiena. Beharbada poliziaren jarduerak epe motzekoak izateak, baliabide faltak, esperientzia ezak eta emaitza zehatzak bilatu izanak terrorismoaren aurkako estrategiari modu zabalago batean heletzea eragotzi zuten.

Egitan, poliziaren eremutik kanpo, ETAREN aurkako borrokaren epaiketa gutxi gorabehera globalak, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko urteetan, nahiko negatiboak izan ohi dira. Adibidez, Fernando Reinaresek baieztatzen duenez, «erregimen frankistak ETAREN aktibismo oraindik mugatu baina setati eta nabarmenari emandako erantzunaren ondotik, euskal nazionalismoaren osotasunaren aurkako jazarpena etorri zen, eskrupulu moralik eta legezko muga eraginkorrik gabea». «Gaitasun eza izugarri»az ere mintzo da Reinares, «atxiloketa masiboak, tratu txarrak eta torturak» izan ziren, eta bilatzen zutenaren «aurkako ondorioa lortu zuten» azkenean. Haren beste adierazpen batek nahiko modu zehatzean laburbiltzen du Burgoseko prozesuaren harira gertatutakoa: «Bai Erregimenak bai Estatuak legitimitatea galdu zuten, eta, aitzitik, ETAK begikotasun gero eta gehiago lortu zuen»⁶⁵. Pau Casanellas are erabatekoagoa da: Frankismoaren errepresio politikak, ETAREN planteamendu eta jarduerekin elkarrekintzan, hirurogeiko urteen amaieran jaiotako gatazka armatuaren sorrerari lagundu zion, baita haren betikotzeari ere, frankismoaren legeriaren eta erakundeen iraungipenaz harago»⁶⁶.

Agian, bi pertzepzioek badute oinarria: egia da «Erregimenak —horrela, orokorrean— ETAREN garapen eta hedadurari lagundu ziola bere lerro marduleko errepresioarekin, baina ezin da ahaztu José Antonio Pardines eta Melitón Manzanasen hilketak gertatu eta urte eta erdira bi krimenetan nahastuta zeuden ia gehienak atxilotuak, epaituak eta kondenatuak izan zirela. Azken horrek baikortasunerako tentazioa eragin ahal zuen, baikortasun puztu baterakoa.

III. BURGOSKO EPAIKETATIK CARRERO BLANCOREN HILKETARA

Ia beharrezkoa da kausa-ondorio harreman bat finkatzea Burgosen 1970eko abenduaren 3tik aurrera ospatu zen epaiketaren eta ETAren ondorengo bilakaeraren artean. Hamasei auzipetuei ezarri zitzaizkien kondenak —Arantza Arrutiri izan ezik, absolbitu egin baitzuten— Kalzada eta Etxabe apaizen hamabi urteko espetxealdien eta Izco, Gorostidi eta Uriarteren herio-zigorren artean egon ziren. Baina sententziak ez ziren garrantzitsuena izan. Atxilotuek, beren abokatuekin lankidetzan, ahozko bista baliatu zuten ETAren izaera eta helburuak publikoki azaltzeko, baita zer injustizia eta gabezia borrokatzen saiatzen ari ziren argitzeko ere. «Bere erakundearen barnekotasunak munduari ezagutzera emateko aukera izan zuten», laburbildu zuen José María Portell kazetariak⁶⁷.

Adibidez, Josu Abrisketak magistratu eta kazetariei azaldu zien Langile-Frontekoa zela, eta langile-klasearen interesei erantzuten zien erakunde bakarra ETA zela; Eduardo Uriartek eta Francisco Javier Larenak fronte politiko eta kulturalaz hitz egin zuten; Jon Etxabek eta Julen Kalzadak baieztatu zuten bere gain zeuden salaketak herriarekin hartutako «konpromiso ebanjelikoari» erantzuten ziotela... «Epaiketaren aurrean borrokako jarrera bat hartu izanak, eta kideek gure inguruan sortu zuten giroak, kemena eman zigun jasan beharreko trantze txarraren aurrean jarrera duin bati eusteko», dio Eduardo Uriartek⁶⁸. «Bagenekien geure bizitzako borrokarik erabakigarriena zela», onartzen du Mario Onaindiak, zeinak fiskalari sablea aterarazi zion azken ekitaldian *Eusko Gudariak* abesten hasi zenean⁶⁹. Auzipetuan gaztetasunak, haien idealismoak, auzitegiaren aurrean azaldu zuten irmotasunak eta beren azalpenen maila intelektualak haiekiko miresmen bolada bat eragin zuen, solidaritate keinu mordo bat eta herio-zigorra konmutatzeko eskari ugari ekarri zituen.

«Ordena politiko orokorreko ondorioez harago —idatzi du José María Garmendiak—, Burgoseko prozesuak eta hura inguratu zuten gertaerek etorkizunean ETAn sartuko zen gazte belaunaldi borrokalaria eta militante bat ekarri zuten Euskadira, 72tik aurrera arituko zen bakarra eta Carrero Blancoren atentatuarekin behin betiko sendotu zena. ETAren ondorengo historia ulertzeko oinarrizko datua da hori»⁷⁰.

Burgoseko prozesuaren eszenaratzea ETAk egindako lehen bahiketarekin osatu zen kanpoaldean. Ahozko bista hasi eta bi egunetara, erakundearen komando batek Donostiako bere etxetik eraman zuen Alemaniako kontsula, Eugene Beihl Schaafer, nazioarteko erakundeen arretoa erakartzeko eta Franco jeneralari hainbat herrial-

deetatik zuzendu zizkioten bihozberatasun eskariak indartzeko. «Beihl jaunaren zoria Burgosen gaur egun epaitzen ari diren atxilotuen zorira lotuta geratu da», adierazi zuen publikoki Telesforo Monzónek bahiketa gauzatu ostean. Beihl Berorizeko (Ipar Euskal Herrian) etxebizitza baten ganbaran itxita egon zen. Abenduaren 24an askatu zuten, haren gatibutasunak bahitzaileek nahi zuten propaganda efektua lortu eta gero.

Kondenak 1970eko abenduaren 28an jakitera eman ziren, baina herio-zigorra jaso zutenak dekretu baten bidez indultatu zituen dikta-doreak soilik bi egun geroago. Ordurako, iritzi publikoak dagoeneko indultatu zituen gehiengoaren onespenerekin. Eduardo Uriartek, kon-denatuetakoa batek, honela laburbildu zuen urte batzuk geroago: «Aurkari talde baten indarkeriazko hasiera nola zigortu behar zuen erakutsi nahi zuen Erregimenak erakustaldi handi batekin. Baina, Espainiako prentsaren bidez, erregimenaren, Espainia immobilista eta izaera totalitarioko baten eta ETAREN arteko dikotomia bat bezala planteatzean, azken honek erregimen zalea ez zen ororen babes irabazi zuen: oposizio taldeak, mendebaldeko gobernuak, atzerriko prentsa, Eliza...»⁷¹. Bitxiki, taldeak bere ospea nola igotzen zen ikusten zuen bitartean, barneko tentsioek zatiketa handienetako bat eragin zuten: ETA V eta ETA VIren banantzea.

Are esanguratsuagoak dira Guardia Zibilaren beraren gogoetak, *Historia de un desafío*ren lehen liburuan azaltzen direnak, non Benermeritak ETAREN aurka burutu zuen «errukirik gabeko borroka» berre-raikitzen den. Burgoseko prozesuaren kontakizuna amaitzean, liburuan esaten da «terrorismoaren aurkako intelijentzia gutxieneko eta baldarrak eta are Erregimenaren politikak ETA berrasmatzea lortu zutela, hura ozta-ozta existitzen zenean». Eta gehitzen dute aurrerago egileek, kidegokoak biak ere: «Urteen joan-etorriarekin egiaztatu da Burgoseko prozesua kalkulu akats bat izan zela Erregimenaren aldetik, ETARENtzat propagandako durundi kutxa bezala balio izan zuelako, bai maila nazionalean bai Espainiako mugetatik kanpo»⁷².

Ildo beretik, harrigarria da Burgoseko sententziak berak ETARI buruzko erradiografia zabal eta zentzuzko bat edukitzea —labur azaltzen ditu hala egitura, bere batzar, batzorde, aparatu eta argitalpenekin, nola aktibisten antolaketa, militante motak, mugapen geografikoak, apaizen begikotasuna edo Gipuzkoako landa giroetan izandako barneratzea⁷³— eta une horretatik aurrera taldeak bere arrakastarik handiena izatea. «Atxikimendu mordoa egon zen», dio Eduardo Uriartek, epealdi berria Espainiako hainbat kartzelatan bizi izan zuenak, eta gogoeta interesgarri bat gehitzen du bere oroitzapenetan: Artekale eta Mogrovejoko atxiloteten ondotik berriz osatzen joan zen ETA hura jada ez zen lehengo bera: «Ez da harritzekoa gaur egungo ETARI —bere

oroitzapenak 2005ean argitaratu ziren— ez gustatzea [epaiketan] esan genuena. Orduko ETA hura beste gauza bat zen. Oraingoak, haren oinordekoak, gure txarrena dauka»⁷⁴.

Edozein kasutan Segurtasun Indarrak ez zeuden ñabardura askotarako. 1972ko martxoaren 7an, Burgoseko prozesutik dagoeneko urtebete luze igaro zenean, Carlos Iniesta Cano jeneralak, Guardia Zibilaren zuzendari nagusiak, Iruñeara egindako bisitaldi batean esan zuen ETAren arazoa «bi aspirinekin konpontzen zen hotzeria bat» baino ez zela. Ordu batzuk geroago, bonba batek Iruñeako hiriburuko Galicia etorbidearen bigarren zenbakian, Benemeritaren Komandantziaren ondoan, zegoen Ahumadako dukearen monumentua txikitu zuen. Kidegoaren txosten batek zehazten duenez, hiru agentek zauri arinak izan zituzten. Bonbak bereziki landu gabeak ziren: lehergaiez betetako bi olio-poto ziren —bata Repsol markakoa, eta bestea CS-koa—, berrogei zentimetro luze inguruko metxa banarekin. Lehergaia «ziur asko atzerrikoa» zela ondorioztatu zuten adituek. Errepidearen gainera eroritako hondakin eta beira puskak kendu zituzten, eta beiragile bat agertu zen Komandantzian bere zerbitzuak eskaintzeko. Atzera-aurreren erdian Francisco García agertu zen, Guardia Zibilaren V. Zonaldeko jenerala, Zaragozatik heldu zena Iruñeako Komandantzian bizi ziren agenteei babesa erakusteko asmoz⁷⁵. Lehen ikerketek jakitera eman zutenez, leherketa baino egun batzuk lehenago «norbanako» batek Mini Morris bat alokatu zuen Iruñeako agentzia batean dokumentazio faltsuarekin. Ibilgailua gertatutakoarekin lotu zuten⁷⁶, eta astebete geroago Irurritako postuko hiru guardia zibilek Zigako bidegurutzean topatu zuten, barruan hiru gazte zituela. Haiek gerarazi, eta NANak eskatu zizkieten. Agenteak agiriak aztertzen ari zirenean, bidaiariek arma batzuk atera, eta tiro trukaketa bat izan zen. Miniko bidaiarietako bat hankan zauritu zuten, baina bere kideekin Saioa mendira ihes egitea lortu zuen. Agenteek pistola bat, zenbait kargadore eta munizioko kaxa batzuk topatu zituzten autoan. Iheslariak Zigako herrira hurbildu ziren halako batean, eta apaiza bilatzen saiatu ziren, babesa eskatzeko asmoz. Aurkitu ez zutenez, bi taldetan banatu ziren. Hurrengo egunean bigarren tiroketa bat izan zen, eta geroago, etakideetako bat, Mikel Goikoetxea Elorriaga, ezizenez *Txapela*, mugatik oso gertu harrapatu zuten. Benemeritaren txostenean zehazten denez, inguratuta zutela ikusita, buruaz beste egin zuen bere pistolarekin. Euskal nazionalismo erradikalaren gertukoa den Txalaparta argitaletxearen *Voluntarios* liburuan bizkarretik tiro egin ziotela ziurtatzen da⁷⁷. Beste biak Jesús María Zabarte Arregi eta Isidro Garalde Bedialauneta bezala identifikatuak izan ziren, eta Frantziara heltzea lortu zuten menditik. Benemeritak Ahumada dukearen monumentuaren aurkako atentatua leporatu zien⁷⁸.

Aurreko paragrafoan laburtutako gertaerak urte haietan sarritan errepikatu zen gidoi baten osagaiak dauzka: agintarien hotsandiko eta oinarririk gabeko topak, ezusteko atentatua, oinezko agenteen babes-gabetasuna, herritarren babes urria, bisita ofizialaren eztingarri berantiarra, ikerketa ia eskulangintzakoa, ustekabeko topo egitea, mugako tiroketak, iheslarien Frantziako aterpea, «bertsio ofizialari» buruzko errezeloak, eta, kasurik okerreanean, pertsona bat edo gehiagoren heriotza.

ETAren laugarren biktima mortala Galdakaoko (Bizkaia) Eloy García Cambra udaltzaina izan zen, Nafarroako San Martin (Ameskoa) herrikoa, 1972ko abuztuaren 29an eraila. *Vidas Rotas* liburuan kontatzen denez, Eloy García eta patruilako bere kideak, Ignacio Rubiok, susmagarria iruditu zitzaaien norbanako bat harrapatu zuten Galdakaoko autobus geltokian. Eloy García harekin geratu zen —hura etakidea zela jakin gabe—, eta bere kidea, berriz, Basaurira joan zen Guardia Zibilari atxilotetaren berri ematera. Atxilotuaren hiru adiskide agertu ziren orduan, udaltzainarengana hurbildu, eta tiro egin zioten garondoan eta bizkarrean. Eloy García lurrera erori zen larriki zauritua, eta apur bat geroago hil zen. Lau terroristak ihesari eman zitzaizkion, baina Guardia Zibilaren ibilgailu batekin topo egin zuten, zeinean Igancio Rubio zetorren beste agente batzuekin batera. Tiroketa bat izan zen, eta guardia zibiletako bat zauritu zuten. Lau etakideek ihes egitea lortu zuten azkenean⁷⁹.

Sumarioari eta garaiko egunkariek argitaratutako bertsioei esker, uste baino korapilatsuagoa den kontakizun bat osa dezakegu. Informazio batzuen arabera, bere hilketaren bezperan Eloy García kolore «berde horixka»ko Seat 600 bat ikusi zuen, BI-58377 matrikuladuna, Udaletxeko plazan aparkatuta, itxuraz bertan behera utzia. Hura aztertu, eta irekia zegoela ohartu zen, eta giltzak alfonbra txikiaren azpian zeudela. Bitxia iruditu zitzaion, eta zaintzapean edukitzea erabaki zuen.

Hurrengo goizeko hamarretan gizon gazte bat autora zihoala ikusi zuen. Eloy García harengana hurbildu, eta jabea ote zen galdetu zion. Gizonak esan zion bere lagun batena zela autoa, Luis izenekoa, Laudion bizi zena. Azalpenak sinesgarriak iruditu ez zitzaizkionez, agenteak ez zion autoa gidatzen utzi. Inguruan jarrera susmagarrian zebiltzan hiru pertsona ikusi zituen orduan, eta ea ezagutzen zituen galdetu zion gazteari: honek ezezko biribila eman zion. Gaztearen hitzak guttiz sinetsi ez arren, joaten utzi zion.

Gazteak Bilborako autobus bat hartu zuen, baina lehen geltokian jaitsi zen, Galdakaotik atera gabe oraindik. Han lehengo hiru gizonak zituen zain taxi batean, ustez ezagutzen ez zituenak. Eloy García eta bere kideak, Ignacio Rubiok, mugimendu horiek guztiak jarraitu zituz-

ten, eta Udaltzaingoaren Land Rover-era igo ziren taxia herriaren irteeran geratzeko asmoz. Gainera, inguruan lanean ari zen Guardia Zibilaren bikote bati laguntza eskatu zioten, gauzak korapilatzen baziren. Ibilgailua gerarazi zutenean, beren buruak ezagutzera emateko eskatu zieten barruko lau bidaiariei. Bakar batek ere ez zeramatzan agiriak aldean; hortaz, haiek Komisariara eramatea erabaki zuten.

Beti ere egunkarien bertzioaren arabera, susmagarrietako hiru taxian joan ziren Herminio Nobreda sarjentuaren zaintza pean, eta laugarrena Land Rover-ean joan zen udaltzainekin. Ibilgailutik jais-tean, laugarren horrek zakarki bultzatu zituen bi agenteak, eta bi aldiz tiro egin zion Eloy Garcíari, garondoan eta bizkarrean. Han zeudenen artean tiroketa bat izan zen. Ignacio Rubiok ezezagunetako bati sabelean gogor jo, eta gainean zeraman diru-zorroa kendu zion. Herminio Nobredak tiro bat jaso zuen hankan, baina onik ateratzea lortu zuen lurretik pirritan joan zelako, mosketoia askatu gabe. Nahasmena baliatuta, lau terroristek ihes egin zuten. Herrira itzuli, eta kalean aparkatuta zegoen Mini Morris gorri bat lapurtzen saiatu ziren. José María Portell kazetariak *Los hombres de ETA*n kontatzen duenez, autoaren jabea Vicente Aranguren zela jakin ostean, lau ihes-lariek haren etxeko txirrina jo, eta laguntza eskatu zioten «lan istripu» batean zauritutako gizon bat Bilboko Andre Maria Zuriaren klinikara eramateko. Arangurennek desgogara onartu zuen, benetan zer gertatu zen jakin gabe: kontatu zuenez, gazteetako batek zapi zuri bat ateratzen zuen leihotik, presaka zebiltzala aditzera emateko. Bizkaiko hiriburura helduta, ibilgailua klinikara heldu aurretik geratzeko eskatu zioten. Mesedea eskertu, eta 100 pezeta (gaur egungo hamar bat euro) eskaini zizkieten bidaia gastuak konpentsatzeko. Ez zuen haietaz ezer gehiago jakin⁸⁰.

Egunkariek azaldu zutenez, guardia zibilak ez ziren iheslarien atzetik atera hasiera batean, zaurituak artatzea premiazkoagoa iruditu zitzaielako. Zenbait ospitaletara eraman zituzten berehala. Eloy García salbatzeko ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren: polizia ebakuntzaganen sartu baino lehen hil zen.

Hiru mila pertsona baino gehiago joan ziren Galdakaoko elizan egin zen agentearen hiletara. Eloy García Cambra pertsona oso maitatua zen herrian: hamabost urte zeramatzan lanean Udaltzaingoan, eta bizilagunen estimua eskuratu zuen. Milagros Martínez Sanzekin ezkondua zegoen, eta zortzi eta hamasei urte bitarteko lau seme-alaben aita zen. Hiriko denda ia guztiak itxita egon ziren ordu betez, dolu gisa⁸¹.

Ignacio Rubiok gazteetako bati kendu zion diru-zorroan bederatzii milimetro luzeko 47 bala, autoak irekitzeko hiru giltza faltsu eta labana automatiko bat zeuden. Seat 600 berdearen barruan, berriz, munizio

beste kaxa osatugabe bat, lapurtutako hiru gida-baimen, zenbait ohar zituen libreta bat, propaganda, Poliziaren Kide Nagusiko funtzionarioen autoen matrikula zenbakien zerrendak eta nortasun agiri faltsu batzuk zeuden. Astebete geroago, Guardia Zibilak lau iheslariak identifikatzea lortu zuen: antza denez, José Ignacio Múgica Arregui, José Luis Zabalondo Loibe, Isidro Garalde Bedialauneta eta José Antonio Aranguren Múgica ziren, ETako kide nabarmenak lauak. EGIko, PNVren gazterietako, kide asko ETaren lerroetara pasa ziren, eta aldaketa horren burua Iñaki Mujika Arregi izan zen, ezizenez *Ezker-rra*⁸².

Eloy García Cambraren heriotza ekarri zuten gertaeretan ezkutatuta dauden kasualitateak eta inprobisazioa esanguratsuak dira ziur asko; horregatik da hain deigarria egun haietan beretan ETari Gobernuko presidenteordea, Luis Carrero Blanco alajaina, bahitzea bururatu izana. Hasierako plana hura 48 orduz ezkutatua edukitzea zen, eta hamar urtetik gorako kondenak zituzten erakundearen 150 presorengatik trukitzea. Egitasmoak martxan jarri zuen informazioa oso arrunta zen: presidenteordea egunero joaten zen bederatzietako mezetaresa Madrilgo Serrano kalean zegoen San Francisco de Borja elizara. José Miguel Beñaránek (*Argala*) eta Pedro Ignacio Pérez Beoteguik (*Wilson*) zuzenean egiaztatu zuten datua, baita mezetaresa joan ere Carrerogandik metro gutxira. Telefono gidari esker, ez zitzaien zaila izan almirantea Hermanos Bécquer kalean bizi zela jakitea, handik oso gertu⁸³.

Gainera, bi aktibistek ikusi zuten eskolta urria zela, eta errutina halako bat jarraitzen zuela. Hortaz, bahiketak egingarria zirudiela jakinarazi zioten taldearen zuzendaritzari. Plana antolatzen hasi ziren, eta aste batzuk geroago ETako militante talde batzuk elkarren segidan joan ziren Madrilera. *El Mundon* magnizidioaren 30. urteurrenaren harira erreportaje dokumentatu bat argitaratu zuen Manuel Cerdán kazetariak baieztatzen duenez, dentsitate handieneko uneetan hiriburuan taldeko hogeita hamar kide ere egon ziren⁸⁴. Burgoseko prozesuaren ondotik sendotzen joan zen ETaren handi-mandiek parte hartu zuten atentatuan une batean edo bestean: *Txomin* Iturbe, *Josu Ternera*, Isidro María Garalde (*Mamarru*), Jesús María Zabarte Arregi, Joaquín María Villar (*Fangio*), Ignacio Abaitua... Lehen hilabetetan, operatiiboaren arduraduna *Ezkerra* izan zen. Harrigarria da aktibisten joan-etorri hori, garai hartako Espainian erraztasun handiz eskuratzen baitzenuen susmagarri etiketa. 1972ko abenduaren 27an «Frantzia hegoaldean zeuden zerbitzuek» txosten bat bidali zioten Sáinzi. Hartan jakitera ematen zenez, etakide batzuek esan zuten «ekintza handi bat» prestatzen ari zirela «Madrilen»⁸⁵, baina inork ez zuen susmatu esku artean zuten operatiiboaren neurria.

Hala ere, etakideek bi eragozpen izan zituzten ia aldi berean. Gai-zkile arrunt batzuek bahitutakoa ezkutatu nahi zuten mertzeriaren atea indarrez ireki zuten gaeuz, eta bizilagunek Poliziari hots egin zioten. Agenteez mertzeriaren lehengo jabeak topatu zituzten, eta hauek jabe berrien helbidea eman zieten: La Habana pasealekuko etxebizitza bat. Funtzionarioak bizileku hartara joan ziren, baina hutsik aurkitu zuten. Gainera, Carrero Gobernuako presidente izendatu zuten 1973ko ekainaren 9an: izendapenak ez zituen haren ohiturak aldatu, baina bai haren eskolta, bikoiztu egin baitzen.

Bahiketa oso korapilatsua zen, eta irailean ETAko arduradunek almirantea hiltzeko erabakia hartu zuten. Haiek berek herabetasuna galduta kontatzen dute plan aldaketa *Operación Ogron*. Ez dirudi digresio handirik egon zenik krimenaren zentzu historikoari edo Antxon Etxebestek gerora aipatuko zituen «diktadura ahultzeko jarraibide estrategikoei» buruz: erakundearen presoek trukaketa bide-ragarria ez zenez, biktima akabatzea erabaki zuten. Luis Carrero Blanco, haren gidaria, Luis Pérez Mogena, eta bizkartzainetako bat, Juan Antonio Bueno Fernández, 1973ko abenduaren 20an hil ziren etakideek Claudio Coello kalean jarritako dinamita zamak presidentearen Dodge Dar-aren azpian lehertu zirenean. Jakitun izan gabe, Madrileko polizia batzuek oso gertu izan zuten magnizidioa eragozteko aukera, baina ondorioak *a posteriori* ateratzea ausartegia da. Egun haietako ez-egite, gabezia eta akatsek konspirazioaren inguruko zenbait teoria elikatu dituzte ere, atentatuaren arrakasta CIAren, *Central Intelligence Agency*-ren (Inteligentziako Agentzia Zentrala), gainbegiratze tekniko aitorrezinarekin edo Juan de Borbónen aldekoen asmo dinastikoekin lotzen dutenak⁸⁶. Eduardo Blanco jeneralak, 1965 eta 1974 artean Estatuaren segurtasunaren buruzagia izan zenak, ukatu egin zuen ETARI magnizidioan lagundu zion esku beltzik egon zenik. Haren ustez, segurtasun kidegoen koordinazio eza dela-eta posible izan zen atentatua, eta inork ez zuelako uste ETA Madrilen egongo zenik⁸⁷. Bitxiena da José Sáinz kexu agertzen dela bere oroitzapenetan jaramon gutxi egin zitelako «Madrilen» Euskal Herriatik bidaltzen zituzten txosten eta oharpenei: «Sarritan gehiegizkotzat jotzen zituzten gure baieztapenak, eta kriminal sutsuen talde txiki baten ekintzak baino ez zirela eusten zuten, Ordena Publikoaren Indarrek harrapatu edo deuseztatu behar zituztenak»⁸⁸.

Bai egon zen proiektu gutxi gorabehera handinahi bat epe luzerako estrategi batekin ETARI aurre egiteko: *Udaberri Plana*, Herrizaintzaren Ministerioak eskatuta, Eduardo Fuentes Gómez de Salazar militarrek bi egunetan idatzi zuen dokumentua. Zenbait ministeriotan ETARI buruz zerabilten informazioa «iragazgaitz jarraitzeaz gain, sarritan kontraesan bez betea zegoela, eta hori erakundearen aurkako borrokan

funtsezko hutsegitea zela» egiaztatu eta gero, ekimena martxan jarri zuten. 1969ko abenduaren 31n datatutako *Udaberri Planak*, bi lan ildo proposatzen zituen: «Talde aktibistak beren masa babesetik isolatzea», «aurkako indarren artean zatiketa» sustatuz; eta «behin isolatuta, fokuak hurrenez hurren suntsitzea». Kontramatxinadako lanak ere planteatzen zituen. 1972ko apirilean martxan jarri zen. Hala ere, ia eskusiboki informazioa biltzera emana zegoen talde baten orrialde eta buletinez harago, egiatan ez zuen aurrerapenik ekarri. Izena (*Udaberri Plana*) Euskal Herriko zerbitzu sekretuen berrantolaketari esleitu zitzaion azkenean⁸⁹.

Bien bitartean, ETA hazten eta jarduten jarraitu zuen. Orain arte aipatutako atentatu hilgarriez gain, 1973ko martxoaren 24an Ipar Euskal Herrian desagertutako hiru gazte galiziarren (José Humberto Fouz Escobedo, Jorge Juan García Carneiro eta Fernando Quiroga Veina) heriotzak ere leporatzen zaizkio taldeari (ikus IX. atala)⁹⁰. Mikel Lejarza Eguiak, ETAn 1974an infiltratu eta garai hartako militante askoren bizikide izan zenak, baieztatzen duenez, behin Tomás Pérez Revilla eta *Peixotori* (José Manuel Pagoaga Gallastegi) entzun zien esaten «urte batzuk atzera Ipar Euskal Herrian noragabe zebiltzan hiru galiziar harrapatu eta exekutatu zituztela, kamuflaturako polizia zirelakoan»⁹¹.

1973a amaitzean ETAk hamar biktima mortal zeramatzan, eta 1969ko atxiloteten eta Burgoseko prozesuaren ondotik etorri ziren balantze triunfalistak desegin zituen. Segurtasunaren ikuspegitik, batez ere Carreroren aurkako atentatuaren ostean, lehen azterketek ezagutzera eman zuten ordutegien eta ibilbideen errutinak tranpa hilgarri bihur zitezkeela, eta gerora premisa hori ez zen beti kontuan hartu. *Sangre, sudor y pazen* egileek ez dute ezkututzen ETAk gero Madrilen egin zituen hainbat atentatu (1986ko apirilaren 25ean Juan Bravo kalean egindakoa, non bost guardia zibil hil ziren, edo hiru hilabete geroago República Dominicana plazan egindakoa, non 12 agente erail zituzten) agian saihets zitezkeela. «Egunero ibilbide bera egiten zuten ordu berean», nahigabetzen zen urteen ondotik Javier Gómez Segura, bigarren erasotik bizirik atera, eta gerora Guardia Zibilaren Trafiko Elkarteko Psikologiako Kabineteko buru izan zena⁹². Baina ETAn aurkako borroka polizialaren historia, egin ez ziren atentatuen historia ere bada. 1972ko urtarrilean Jokin Azaola Martínez atxilotu zuten Precicontrol enpesako arduradun Lorenzo Zabala Suinagaren bahiketari nahastua egon zitekeelako. Erakundearekin zituen loturak hauskorak zirela ondorioztatu zuten galdeketa egin zioten agenteek: «Pertsona zintzo eta zentzuduna zen, inolako fanatismo eta erradikalizaziorik ez zuena»⁹³. Karguak leundu zituzten askatasuna berreskura zezan, eta, horren trukean, bere kontzientzia

asaldatzen zuen zernahiri buruz informazioa ematea proposatu zioten, eta «zintzotasunez» onartu zuen akordioa. José Sáinzek antzeko tratuak egin zituen beste aktibista batzuekin, emaitza ezberdinekin. Gorago azaldu dugu José María Dorronsororen atxiloketa, 1968ko abenduan, Joaquín Etxabe atxilotuaren laguntzari esker izan zela posible. Honako honetan, hilabeteak aurrera joan ziren, eta etakideak bere konpromisoa ahaztu egin zuela pentsatu zuen poliziak. Harik eta 1974ko apirilean Jokiz Azaolak —Baionako kontsularen bidez— Bilboko komisariara gutun «konfidentzial» bat helarazi zuen arte, non elkarrizketa bat eskatzen zuen «ilehoria» zen eta «batzuetan betaurreko ketuak» erabiltzen zituen inspektorearekin, 1972ko urtarriean galdeketa egin zion inspektore berarekin. «Pertsona oso zuzena izan zen nirekin, eta konfiantza handia eragin zidan —azaltzen zuen testu hartan, José Sáinzek gorde zuena—. Aldi berean, uste dut gizon horrek gogoan izango duela agurtzerakoan esan niona, alegia nire kontzientziaren aurka zihoan zerbaiten berri banuen, esango niola. Uste dut ordua heldu dela». Eta ETAren lerroetan prestatzen ari zen beste «magnizidio» bati buruz informazioa zuela aurreratu zuen.

Elkarrizketa burutu zen, eta Azaolak emandako hariei esker, Espainiako Poliziak jakin zuen ETAko militante talde nabarmen batek —*Txomin* Iturbe Abasolo, José Luis Arrieta Zubimendi (*Azkoiti*), Isidro Garalde Bediauneta... — Monakon, Cannesen eta Nizan beharrezko azpiegitura prestatu zuela orduko printzea, Juan Carlos, eta honen emaztea, Sofia andrea, bahitu, eta haien truke 150 «preso politikoren» askatasuna eskatzeko, 250 milioi pezetaz gain, gaur egungo ia 25 milioi euro. Bost hilabeterako alokatu zuten txaletean, hilabetean hiru mila franko ordainduta, dagoeneko «herriko kartzela» bat eraikitzen ari ziren. Azaola —gerora elkarrizketa batean kontatu zuenez— ziur zegoen Francok ez ziola inoiz xantaiari amore emango. «Denak hil beharko genituen; behin ekintza hasita, ezin genuen atzera egin». «Demokraziarako bilakaeraren aukera oro moztea» izango zen ondorioa —gehitu zuen—, «errotiko aldaketa bat egongo zen eskuinera, eta errepresio ikaragarria Euskal Herriaren aurka»⁹⁴. Horregatik erabaki zuen Poliziarengana joatea.

Diktadorearen tromboflebitisak oinordekoaren egutegia aldatu zuen, eta terroristek azken honen aita, Joan Borboikoa, Cadizeko dukeak edo Villaverdeko markesak bahitzea pentsatu zuten, Kosta Urdineko portu nagusietara ere joaten baitziren. Dozena bat militante zeuden egitasmoan nahastuta, eta yate bat ere bazuten, «Panamako edo Liberiako banderarekin», beren biktimgana hurbiltzeko aukera ematen ziena.

Azaola lekuan bertan ematen zihoan datuei esker, eta zenbait astatan jarraipena egin ondoren, gertaerak azkartu egin ziren: 1974ko abuztuaren 20an Espainiako Poliziak Monakotik etorri berria zen on Juan ebakuatu zuen hegazkin batean, beldur baitziren ETAk antolatutako dispositibo konplexuaren ondorioz bahituko ote zuten. Haren bat-bateko alde egitea prentsara filtratu zen, eta terroristek susmoak hartu zituzten zainduta egon zirela⁹⁵. Jokin Azaola talde armatu batekin lankidetzen aritu zen benetan, eta horregatik geratu zen Frantzian, kartzela saihesteko. 1977aren amaieran itzuli zen Espainiara, eta Amnistiaren Legeari heldu zitzaion. Azkenean, poliziarekin kolaboratu zuela jakin zuen ETAk, eta Getxon (Bizkaia) hil zuen 1978ko abenduaren 19an⁹⁶. Krimena bere gain hartzeko taldeak publiko egin zuen komunikatua egiazko ohartarazpen bat zen: «Jokinen exekuzioak eredu eta ohar gisa balio izatea espero dugu, haren bidea jarraitzeko tentazioa dutenek ez dezatela pentsa ETAk justizia egiteko biderik ez duenik». Bere oroitzapenetan José Sáinzek «oroitzapen txeratsu eta mingarri bat» eskaintzen dio «inork inoiz merezi zuen garrantzia —are gertuko Espainiako trantsizioaren prozesuarentzat— eman ez zion egintza baten lehen protagonista apartari»⁹⁷.

Hala ere, ETArekin aurkako borrokan zebiltzan guardia zibil eta polizia guztien egunerokoa askoz arruntagoa zen, eta, ziur asko, askoz arriskutsuagoa. 1973an Grupeta sortu zen Nafarroan, terrorismoaren gaia lantzeko berariazko dispositibo bat. Sarjentu batek eta lau guardia zibilek osatzen zuten. Hasiera batean, ingurune independentistaren pertsonak probintziaren ipar aldean egiten zituzten mugimenduak zaintzeari eman zitzaizkion. «Susmagarriak antzemateko moduetako bat Nafarroako santutegietako zaindariaren jaietara eta erromerietara joatea zen». atentatu bat zegoenean, taldeko kideak «ahalik eta azkarren» joaten ziren gertaeren lekura, baita beren ibilgailu partikularretan ere: biktimak artatu, informazioa bildu —nahiz eta bizilagunen artean «ezaxola» eta «beldurra» nagusi izan— eta susmagarrien gaineko «kontrola» estutzen zuten. Polizia Armatuarekin zuten lankidetzak «ia-ia hutsaren hurrengoa zen»⁹⁸. Jose Sáinzek berak, garaian ezagutu zituen Benemeritako arduradun eta agenteen artean laudorioak aisa banatzen dituenak, onartzen du ere Guardia Zibilaren zenbait buruzagirentzat «Espainiako Gerra Zibilaren osteko bidelapurren aurkako metodoek» indarrean jarraitzen zutela⁹⁹.

Gainera, Benemeritako agenteen eguneroko bizitza ikaragarri zaildu zen 1974tik aurrera, ETA haien aurka sistematikoki atentatuak egiten hasi zen unetik: «Garai hartan guardia zibil batek ezin zuen bizitza sozialik eduki Euskal Herrian, bere ingurunearekin zituen harremanak urriak ziren, eta bere familiako kideak gezurra esateko eta familia-buruaren ogibidea ezkutatzeko beharrean izaten ziren. Arropak

zintzilikatzea bezalako eguneroko kontu bat odisea bat zen garai hartan kuarteletatik kanpo bizi zirenentzat»¹⁰⁰. Azken honek agerian uzten du aldaketa garrantzitsuak izan zirela 1968a baino lehenagoko urteei dagokienez. Orduan guardia zibiletako asko euskaldunak ziren, edo emakume euskaldunekin ezkondata zeuden.

Alderdi askotan hain biziak eta erabat berriak izan ziren urte horiek lehen pertsonan bizi izan zituen agente batek onartzen duenez, kidegoan ematen zieten trebakuntza urri samarra zen: «Harrigarria irudi dezake, baina urte haietan eremu gatazkatsu hartako lekuetara joaten ginen terrorismoari aurka egiteko inolako informaziorik edo presakuntza berezirik gabe. Bete gabeko postu asko izaten ziren (...), eta han denbora gehien igaro zuen jendea izaten zen postua uzten zuena, alegia terrorismoari aurka egiteko informazio eta esperientzia gehien zuena, nahiz eta errealitatearen berehalako ezagutzaren bidez eskuratutako esperientzia izan»¹⁰¹.

Baina panorama etsigarri haren erdian ere, ETARI aurre egiteko ekimen ausart eta irudimentsuak sortu ziren. Gainera, horietako batzuk oso eraginkorrak izan ziren.

IV. ESTRATEGIA BERRIA: «LOBO OPERAZIOA»

1972ko urriaren 20an Bilboko Poliziaren Informazio Brigadaren Lehen Taldeko buruak bere sei inspektore bildu, eta ETAk «borroka armatuaren bere estrategia atentatu gero eta selektiboago eta biolentoagoekin indartuko zuela» iragarri zien¹⁰². Erasoaldiari nola aurre egin izan zuten hizpide, eta denak ados egon ziren oso baliagarria izango zela infiltratu bat edukitzea, barruko informazioa lehen eskutik jasotzeko. Ordurako, Taldearen buruak sator perfektuaren profila zehaztua zuen: hogeit bat urteko gaztea, euskalduna, maila kultural ertainekoa, politikoki garbia, erregimenarekin zerikusirik ez zuena eta, batez ere, «gorringo biko pare eder bana eduki eduki behar zituen». Hura topatzea falta zen «soilik», eta bere bizitzako misiorik arriskutsuenean parte har zezan konbentzitzea.

Juan Antonio Linares gaztea izan zen Bilbo eta inguruak orraztu zituen inspektoreetako bat, profilarekin bat zetozen hautagaiak bilatzeko asmoarekin. Ezagun batek, Canuto Eguiak, bere iloba Mikelez hitz egin zion. Iloba saltsa batean sartuta zegoen, itxuraz desiragarri-gia zen negozio batean dirua jarri, eta iruzur bat izan zelako. Mikel Lejarza Eguia Areatzakoa zen sortzez, baina Basaurin bizi zen, eta familia tradizional, euskaldun eta katoliko batetik zetorren. Gerra Zibilean bere osaba erreketek batzuek jazarpenak eta torturak jasan zituzten.

Gainera, ETako jarraitzaile batzuk ezagutzen zituen. Linaresak laguntza eskaini zion, eta, pixkana, harremana estutzen joan zen, Mikelek zenbait errezelo izan arren: «Mejor ser amigo del diablo que de un “madero”», gogoan du esaten zela orduan¹⁰³.

Francisco Gómez, Linaresak lan egiten zuen Taldeko burua, bile-retara batu zen ere. Denboran banandutako hitzorduei esker, poliziek patxadaz aztertu zuten agian bila zebiltzan gizona. Hasieran, gai politikoak saihestu zituzten, baina, ondoren, trebakuntza edo propaganda marxistako testuak edo nazionalismo iraultzailekoak irakurtzera adoretu zuten hautagaia. Ondo ezagutu behar zuten etsaia, azaldu zioten. Polizien diskurtso «apokaliptikoa» gaztearengan finkatzen hasi zen. Ikasleen manifestazioetan eta eserialdiren batean parte hartzeko gomendatu zioten, eta ETaren kupulan nor zen nor zehaztu zioten. Garrantzitsua zen pertsona horiek atxilotzea. Harremanetan jarraitu zuten, eta egun batean erakundearen kontra borrokatzeko hartan infiltratzeko prest ote zegoen galdetu zioten. «Ez zuten lan handirik izan ni konbentzitzeko», onartzen du Lejarzak. Francisco Gómezek erabaki zaila hartu behar izan zuen orduan: operazioa José Sáinz buru zuen Bilboko Brigada Politiko Sozialaren ardurapean uztea, edo agintea Madrili ematea. Bere ibilbide profesionalarentzat arrisku bat bazen ere, Gómez ziur zegoen Bilbon ez zutela neurri horretako operazio bat kontrolatzeko adina baliabiderik, eta SECEDeko (Carrero Blancoren zerbitzu sekretuak) bi inspektoreekin harremanetan jarri zuen Mikel: bata *Carlos* zen, Emiliano S.M.ren ezizena, eta bestea, berriz, *Pedro*, Ángel M.ren ezizena. *Carlos* eta *Pedro*ren proposamen behin betikoari baiezkoa eman zion egunean, Mikelek ezin izan zuen lo egin. Begiak biltzea kostako zitzaion gau askoren artean lehena izan zen.

Prestaketa fasea hasi zen orduan. Gazteak ondo ezagutzen zuen mendia, eta bazekien nola orientatu. Trebetasun horiez gain, beste zenbait ere ikasi zituen entrenamenduari esker: arte martzialak, laban jaurtiketa eta SECEDen egindako ikastaro bat, non ETari nahiz zerbitzu sekretuen lan egiteko moduari buruzko informazioa jaso zuen. Bertatik bertara lan egiten zuten agenteak batez ere guardia zibilak eta Poliziako inspektore ondo prestatuak ziren, horietako asko Israelgo *Mosad*arekin trebatuak. Gainera, Mikelek biziraupenerako bere gaitasuna probatzea erabaki zuen: mendian bakarrik galdu, eta bi gau eta hiru egun igaro zituen han, bere beldurrei aurre eginez.

Lejarzak larrialdietarako lau telefono-zenbaki ikasi behar izan zituen buruz, eta SECEDarentzat lanean hasi zen ofizialki 25.000 pezetako soldata batekin (gaur egungo 2.300 euro inguru) eta gastu guztiak ordainduta. Egitasmoaren zati erabakigarria heldu zen. Bere zeregina

erakundearengana diskrezioz hurbiltzea zen, militante bihurtzeko eta hari barrutik aurka egin ahal izateko. Kontatzen duenez, hasieran bere bizitza James Bondena bezalakoa izango zela irudikatu zuen, baina berehala ohartu zen errealtatea «askoz zikinagoa eta kaxkarragoa» zela.

Bere jaioterriko bizilagun ziren Iturbe Totorika anaiak izan ziren sarrerako atea. Miguel Antonio, handiena, Leongo kartzelan egon zen 1968an, eta Juan Ignacio Segoviakoan zegoen. Haiei eta haien begikotasunari esker, Mikel erakundearen ingurunea ezagutzen joan zen: ETAn elkarrekin bizi ziren joera ezberdinak identifikatzera heldu zen, eta barrutik astintzen zuten tirabiren berri ere izan zuen. Hurbilketa herabeak ziren oraindik, berarentzat gutxi zirenak: «Tabernako hizketaldi ugarietz gain, aho beroak eta blablaba askokoak, ez gindoazen inora»¹⁰⁴. SECEDEko gizonak jakitun ziren prozesuak pixkanakakoa izan behar zuela, denbora hartuko zuela, baina krimenen maiztasuna estugarria zen: orrialde hauetan zehaztu da 1973an ETAk sei pertsona hil zituela, aurreko bost urteetan baino bi gehiago. 1974an hemeretzi izan ziren biktimak¹⁰⁵, horietako hamahiru Madrilgo Rolando kafetegia-riaren atentatuan.

Bide batez, galdeketak erabakigarriak izan ziren Rolandoren kasuan egileak identifikatzeko. José Sáinzek azaltzen du beste behin ere. Eva Forest Tarrat, medikua eta klandestinitatean zegoen Alderdi Komunistako kidea, Alfonso Sastre antzerkigilearen emaztea, atxilotu zuten bomba jarri zuten etakideekin —gizon eta emakume bana— izandako ustezko kolaborazioagatik. Forest ohitua zegoen poliziarekin borrokan aritzera, eta trebetasunez itzuri zituen hurrenez hurreneko galdeketak: galdera garrantzitsuak saihestu zituen kontakizun sinesgarriekin eta are gertaera txikiei buruzko benetakoeekin. Adibidez: behin ETako emakume bati lagundu ziola 500 franko pezetengatik aldatzen. Sáinzek kontatzen duenez, agenteek xehetasun horri «lotu» zitzaizkion «hudoa leizean dagoen untxiari nola»: Salamanca auzoko banketxe guztiak ibili zituzten, eta dibisa aldaketa María Lourdes Cristóbal Elhorga Frantziako hiritarrak eskatu zuela jakin zuten. Harengatik galdetu zieten Baionako beren kideei; haren argazkia lortu zuten; «Irunen jaiotako komunista nabarmen baten» alaba zela jakin zuten, baita bere mutil-laguna Beñat Oyarzábal Bidegorri zela ere; biak «Mendi Berri erakunde separatistako» militanteak zirela jakin zuten, eta ondorioztatu zuten haiek izan zirela kafetegian bomba jarri zutenak, Eva Foresten eta PCERekin lotutako beste zenbait pertsonaren laguntzarekin, alderdiko buruek horretaz ezer ez zekiten arren. «Ez dago krimen perfekturik», dio ia gozamenek Sáinzek bere kontakizun xehatuaren amaieran. Hilabete batzuk lehenago Printzeak edo on Juan bahitzeko

Kosta Urdinean abian jarritako operatiboan parte hartu zuen ere Beñat Oyarzabalek. Orduan hura zelatatu zuen inspektoreetako bat —José María U.T.— zaurituta gertatu zen Rolando kafetegiaren leherketagatik. «Topo egin izan balute, hura ezagutu eta atxilotuko zukeen», nahigabetzen da José Sáinz¹⁰⁶.

Madriren poliziek aipatu ikerketekin aurrera egiten zuten bitartean —1974ko udazkena—, Iturbek *El Rubiori*, Daxen (Frantzia) errefuxiatua zegoen lagun bati, gutun bat eramateko eskatu zion Mikel Lejarzari. Honek onartu egin zuen, eta *Carlosekin* zuen hurrengo hitzorduan dokumentua erakutsi zion. Gutuna irakurri eta gero, SECEDeko inspektoreak gerora ezagun bihurtu zuen izena jarri zion: «Hemendik aurrera guretzat *Lobo* izango zara»¹⁰⁷.

ETArentzat, ordea, ez zen ez *Lobo* ez Mikel. Gutunaren mandatu-tik aste batzuetara, Lejarzak beste mandatu bat jaso zuen: errifle batzuk eraman behar zituen Frantziatik Espainiara. Ezagutu zuen lehen etakide kualifikatuetako bat Javier Zarrabeitia (*Fanfa*) izan zen, orduan batzorde betearazleko burua. Harekin egon zen «1975aren hasieran»¹⁰⁸. Hasierako misio horiek —*Carlosi* unean-unean ematen zion haien berri— aktibisten konfiantza irabazten lagundu zioten. Egun batean, azkenik, hainbeste irrikatzen zuen hitzordua lortu zuen: José Ignacio Zuloaga Etxebestek (*Smith*), erakundeko liberatuak, bera ezagutu nahi zuen. «Orduan, egia da eskatzen dizugun guztian lagunduko diguzula?», gogoan du Mikelek galdetu ziola, FN Browning bat eta bi kargadore atera baino lehen. Itxuraz eta arrazoibidez gogorra eta segurua zen etakide hark nekez imajina zezakeen handik aurrera Espainiako zerbitzu sekretuek bere mugimenduak kontrolpean edukiko zituztela. «Hemendik aurrera *Gorka* deituko zara»¹⁰⁹, gehitu zuen Arxanda mendiko hitzordu hartan hirugarrenez bataiatua izan zen Mikel agurtu aurretik.

Lobo barruan zegoen dagoeneko, baina haren ibilerak ez ziren SECED-ek nahi bezain azkarrak. Hori dela eta, Frantziara ihes egi-tera behartu zuten: militante batzuk atxilotu zituzten, Zarrabeitia barne, eta, beren adierazpenetan nahastuko zutela ikusita, Mikelek aitzakia bat izan zuen Pirinioen beste aldean ezkutatzeko¹¹⁰. Bere egoeran, edozein aktibistak berdin jokatu zukeen. Iparraldean informazio gehiago lor zezakeen, baita ETaren goi-karguengana hurbildu ere, baina arrisku gehiago izango zuen ere. Gainera, zaila-koa eta arriskutsuagoa izango zen Frantziatik SECEDarekin harremanetan jartzea, baita errudimentarioagoa ere, handik gutxira egiaztatu zuen bezala. Zerbitzu sekretuek Hendaiaiko geltokiaren ondoan aparkatu zuten auto baten leihoaren zirrikitutik oharrak sartzeko proposatu zioten. Mikel mugaldeko herrian gelditu zen, beste errefuxiatu batzuekin partekatzen zuen pisu batean. Ezin izan

zuen *Carlosekin* harremanetan jarri behar izan zuen guztietan. 1974aren amaieran ETA militarren eta ETA politiko-militarren artean gertatu zen zatiketean, berak *polimilien* aldeko hautua egin zuen. ETako inguruneari —bera ere bazena— jakinarazi zion bazituela bi lagun on Espainian filialak zituzten dekorazio enpresak zituztela. Ustezko harreman horrek ETako komando berezien ateak ireki zizkion. Komando horien buruak Ignacio Pérez Beotegui (*Wilson*) eta Félix Eguía Inchaurrega (*Papi*) ziren, eta Madrilen eta Barzelonan pisu franko sare bat osatzea eskatu zioten. Baina Espainiara liberatu gisa itzuli aurretik, entrenamendu militarreko ikastaro batean parte hartu behar izan zuen baserri batean. Epealdi horretan zailagoa egin zen *Carlosekiko* harremana: *Lobok* bi orduko ibilaldia egin behar zuen Bidaxune herriraino handik telefonoz hots egiteko, eta beste etakideek ikusia izateko arriskua zegoen. «Askotan pentsatzen nuen horretan, nire joko bikoitza igartzen bazuten, hanka-sartzeren batean harrapatzen baninduten, hobe nuen neure buruari tiro egitea»¹¹¹, gogoratzen du. Urte batzuk geroago José Antonio Anido Martínezi gertatu bezala, Mikel Lejarza ere beldur zen ametsetan hitz egingo ote zuen eta bere logelan zeuden ikastaro kideen aurrean bere burua salatuko ote zuen. Baina baziren beste arrisku batzuk: egun batean bi adiskide errefuxiatuk atentatu bat jasan zuten, gerra zikinari egotzi ziotena, eta apur bat geroago, Hendaian, ETAren batzar bat ospatzen ari zen Sokoako egoitzan bonba bidez egindako eraso baten lekuko izan zen. *Carlosek* ohartarazi zion ordu horretan eraikinean ez egoteko, baina Mikelek ezin izan zuen garaiz atera. Azkenean, Gorka Espainiara bidali zuten: zenbait adiskiderekín muga Kataluniatik zeharkatu, eta Madrilerira iritsi zen, non *Wilson* eta *Papirekin* bildu zen, ordutik aurrera «buztanarekin» mugitu zirenak (polizia-jazarpenarekin). *Wilson* terrorista bilatuenetakoa zen une hartan: «Operación Ogro»ren arduradunetako bat izan zen, eta haren argazkia komisaria ia guztietan zegoen. *Lobok* berritasunak kontatu zizkion *Carlosi*, eta azken hau oso pozik agertu zen. Bere buruzagiak esan zion Gobernuko presidentea ere, Carlos Arias Navarro, operazioaren jakinaren gainean zegoela. SECEDeko goi karguak beharrezkoa zenean esku hartzeko prest zeudela esan zion ere. *Lobok* Madrileko zenbait apartamenturen giltzak jaso zituen. Lehen apartamentuak izan ziren, eta, gerora, etxebizitzan azpiegitura handitzen joan zen beste hiri batzuetan. Mikeli ez zitzaizkion pisu horiek gustatu, ez zirelako berak eskatu bezain anonimo eta diskretuak, baina bere zeregina bete zuten: hiriburura etakide gehiago iritsi ahala, Gorka zen haiei ostatu emateko arduraduna, militante bakoitza non zegoen zekien bakarra zen. ETApn-ko buruzagiek beragan jartzen zuten konfiantzak taldearen etorkizuneko mugimenduei buruzko

informazioa jasotzeko aukera ematen zion, hala nola Segoviako karzelatik ihes egiteko lehen egitasmoa.

1975eko uztailaren 30ean, banketxe bat lapurtzera zihoala, *Wilson* atxilotu zuten Bartzelonan Juan Paredes Manotekin batera. Atxiloketak ezkutu pean eduki zituzten egun batzuetan, eta, horri esker, kondehirian ETApM-ko kide gehiago harrapatzeko aukera izan zuten. Madrileko komandoak ez zekien ezer, eta ohiko errutinari eutsi zion, baina polizia Bartzelonako aztarna ustiatu zuen, eta Madrileko kideak ezustean harrapatu zituen, *Gorka* barne. Operazioan dozenaka agentek parte hartu zuten, eta jazarpenak eta tiroketak izan ziren. Funtzionarioek ez zekiten *Gorka* benetan Mikel zela, ez zuten *Loboren* berri, ez zekiten arriskuaren aurrean bakarrik zegoela. Atzetik zituenak saihesten ahalegintzeko, pistola eskuan zuela sartu zen senar-emazte batzuen etxean. Etxeko jabeak egongelatik aterarazi, telefonoa hartu, eta eman zioten telefono-zenbakietako bat markatu zuen. Erantzungailu batek erantzun zion beste aldean, eta berak mezu bat utzi zuen grabatuta: «*Lobo* naiz! Zintzilik nago! Egoera kritikoa. Atera nazazue hemendik. Hots egin berehala. Berriro diot: berehala». Bi ordu amaiezinen ondotik, joka hasi zen aparatua. *Carlos* zen, eta SECEDEko auto bat bidali zuen haren bila. Madrilen zeuden ETako beste kideek ez bezala, Mikelek bizia salbatu zuen, eta ez zuten atxilotu.

Hurrengo egunak korapilatsuak izan ziren: gertatutakoaren ondotik, Mikelek ez zekien zer pentsatuko zuten beretaz ETAn, baina, bere nagusiekin harremanetan jarri zenean, dena ordenan zegoela ematen zuen. 1975eko udaren amaiera hartan Bartzelonan pisuak bilatzeko eskatu zioten, eta, apur bat geroago, baita Madrilen ere. Jon eta *Ezkerria* SECEDEk kontrolatzen zituen Madrileko apartamentu batera eramán zituenean, sekulako ezustekoa hartu zuen: duela gutxiko janari arrastoak, ziur asko polizia-zaintza talderen batek ahaztutakoak. Bi etakideek etxebizitzaz aldatzea erabaki zuten hurrengo egunean, eta ez zioten *Gorkari* beren helbide berria eman. Badirudi susmoak hartuta zeudela. Eta kontaktu baten bidez, BBCK Espainiako zerbitzu sekretuen infiltratu bat ETAn zegoela aipatu zuela jakin zutenean, susmo horiek areagotu egin ziren. Honela azaldu zioten *Gorkari*: «Pasa dudán guztiarekin, eta horrekin zatozte! Hemen daude “burdinak” [armak]», erantzun zuen berak, oso asaldatuta. Bere errugabetasuna frogatzeko, esan zioten Frantziara joateko edo burutu behar zituzten «ekintza» guztietan parte hartzeko. *Gorkak* baiezkoa eman zien, Bartzelonara zihoala giltza batzuk ematera, eta bueltan zetorrenean ekintza guztietan parte hartuko zuela. Eta elkar agurtu zuten.

Lobo eta SECEDEn hurrengo bileran hainbat aukera aztertu zituzten. Sator berriak infiltratzeko aukera aipatu zen. Edo Mikel zauri-

tuta gertatuko zen sarekada bat egitekoa, horrela haren irudia garbitzeko. Baina erabakia Castellana 5eko bulegoan bilduta zeuden SECEDeko goi-karguek hartu zuten gau hartan. «Amaitu da infiltrazioa, *Lobo*. Haiek atxilotuko ditugu», jakitera eman zion *Carlosek* Mikel Lejarzari. Goikoen agindua zen. Mikelek barrutik lanean jarrai zezakeela uste zuen, baina erabakia ontzat hartu zuen. Hori bai, beldur zen: kezkatuta zegoen operazioaren amaieran ez ote zen oztopo bat bezala geratuko, ez ote zen «hildako etakide bat gehiago bezala» desagertuko. «Espainian ez dugu horrela jokutzen», lasaiarazi zuen inspektoreak.

1975eko irailaren 18ko gaua Bartzelonako Colón hoteleko gela batean itxita igaro zuen. Bien bitartean, ehunka polizia hedatu ziren Madrilan, Bartzelonan, Bilbon eta Donostian, ETAren aurka burututako erasoaldi handienetako batean. SECEDaren datuen arabera¹¹², «*Lobo* Operazioa» 158 atxilotekin bukatu zen. Kupula osatzen zuten hamar kideetatik zazpi kartzelara joan ziren. Mujica Arregi eta Pérez Beotegi izan ziren Carrero Blancoren hilketarekin zerikusia zuten lehen bi atxilotuak. Ondoren, Lejarzak eman zuen informaziotik eratorritako jarduera polizial gehiago izan ziren. ETAren adar politiko-militarra ia-ia desegina geratu zen¹¹³. Egun hartan, borrokarako kide bat gehiago zela uste zutenentzat, *Lobo* pertsona bilatuena bihurtu zen. «Frantzia hegoaldean Mikel Lejarzaren kartel eta argazki asko agertzen hasi ziren, Euskal Herria traizionatu zuelako salaketa pean, eta haren buruari salneurria jarri zioten»¹¹⁴.

1975eko irailaren 25ean, *Lobok* posible egin zuen sarekada handia gertatu eta bederatzi egunetara, FRAPeko hiru aktibistez gain (Ramón García Sanz, Humberto Baena Alonso eta José Luis Sánchez Bravo), Ángel Otaegi eta Juan Paredes Manot etakideak fusilatu zituzten. Franco oso gaixo zegoen, eta nahiz eta era askotako bihozberatasun eskariak izan —Pablo VI.a aita santuarena barne—, diktadoreak haiei entzungor egin ostean, exekuzioak burutu egin ziren. Bi hilabete geroago, azaroaren 20an, Franco La Pazeko ospitaleko gunean hil zen. Garai berri bat hasten zen. Ordurako, ETAk berrogei pertsonatik gora hil zituen¹¹⁵. Zaila da jakitea zenbat hilketa eragotzi zituen Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen lanak.

V. «ANIDO OPERAZIOAREN» AMAIERA

José Antonio Anido Martínezek ondo ezagutu zituen orrialde hauetan bildutako gertaera eta aurrekariak. Beharbada, Jokin Azaola edo Mikel Lejarzak edo Sáinz buruzagiren kontakizunek arinduko zituzten haren lo-galtzeetako batzuk Baionako bere etxean «ETAko

diruzain» Zorion Zamakola izan zuen bitartean. ETAREN aurkako borrokaren beste operazio batzuen xehetasun gogoangarriak entzungo zituen ere. Sokoakoa, 1986an, Espainiako zerbitzu sekretuek ETARI lur-aireko bi misil saldu, eta haietan bi transmisore ezkutatu zituztenekoa. Haiek esker topatu zuten ETAKOEN biltegia, non bere armen zati bat eta agiriak gordetzen zituzten («ETAREN aurkako borrokan, urtebete baino gehiago bizitzen egon ginen Sokoako operazioari esker», laburbildu zuen aurkikuntzaren garrantzia bi urte geroago Sáenz de Santamaría tenienteak¹¹⁶). Edo Luis Casares Pardoren kasua, Intxaurrondon suminduta agertu zena, bere etxean ezkutatuta zeuden «Eibar» komandoko kideek «bere ahaideen kontura» leuntzen baitzuten itxialdiaren asperraldia, eta Rodríguez Galindo jeneralaren isil-mandatarari oso baliotsua bihurtu zen. Zenbait komandoren arrastoaren gainean jarri zuen, eta Bidarteko hari-lkoaren hariak ere eman zizkion¹¹⁷.

Bi hilabetetan zehar José Antonio Anidok presioari eta bere egoi-larraren maniei eutsi zien, azken honek ETAREN aparatuko politikoaren arduradun Mikel Albizu Iriarteren (*Antza*) zerbitzura pasatzea proposatu zion arte. «Igoera bat zen nire balio pertsonalarengatik eta eskatzen zidaten guztia eraginkortasunez lortzeagatik», dio *Sangre, sudor y pazen* jasotako lekukotzan. *Antza* —gehitzen du— gizon jantzia zen, unibertsitate-ikasketak zituen eta niri euskara irakasten saiatu zen ere. Dirudenez, ez zuen odol deliturik, baina 1985eko uztaillean hainbeste miresten zuen Joseba Sarrionandiari eta HBko diputatu ohi Kepa Pikabea Burrenzari Martuteneko kartzelatik ihes egiten lagundu zien. Izan zituzten solasaldi ugarietan *Antza* irtenbide politiko baten alde agertu zen, nahiz eta ETAREN biolentzia «gogor» defendatu. Guardia zibil gazteak arrazoia ematen zion Frantziako errepideetan barrena batera eta bestera eramaten zuen bitartean. Gainera, bere *buruzagiak* eskatutako mandatu guztiak arduraz betetzen zituen: oharrak eramateko eskatzen zion, «jendeari kontsignak ematea»... «Lortzen nuen informazioaren kalitatea askoz hobea zen orain. ETAREN buruzagiak egin edo pentsatzen zuenaren zati handi bat eza-gutzea, hori zen gure nahi nagusia»¹¹⁸.

1994aren amaieran, infiltratu ausartak ETAREN aurka Frantzian burututako operazio garrantzitsu bat bizi izan zuen barrutik. Azaroaren 17an, goizeko lehen orduan, Frantziako poliziaren agenteak oldarka sartu ziren Toulongo pisu batean, Hendaiako mugatik mila kilometro ingurura. Bazekiten Félix Alberto López de la Callek, *Mobutuk*, ETAKO aparatuko militarren arduradunak, informazioko eta erakartzeko beste lau arduradunekin bilera bat izan zuela han. Denak atxilotu zituzten.

Mobuturen atxilotetak agerian utzi zuen segurtasun sistemaren zati bat, ETak bere buruzagien mugimendu eta komunikazioak blindatzeko sortu zuena eta zeinari *Sarea* deitu zion. Agenteek pisuan aurkitu zuten dokumentazioa oso baliotsua izan zen: zortzi poltsa handitan ETako ustezko dozenaka militanteri bidalitako gutunen kopiak aurkitu zituzten, non erakunde terroristaren lerroetara sartzeko proposamena egiten zieten, eta 250 formulario, errekrutatu nahi zituzten beste horrenbeste pertsonari bidaltzeko¹¹⁹. *Mobutur*engana eraman zuen aztarna «*Eduardo* izeneko iturriak» eman zuen antza denez¹²⁰: hau da, Luis Casaresek.

Frantziako poliziak Guardia zibilarekin partekatu zuen dokumentazio hura, eta paper horietako batzuk Iruñeako Komandantziara heldu ziren. Datu gehienak manifestazioetan edo Jarraik sustatutako sabotajeetan nabarmendutako gazteen abizenak eta ezizenak ziren. Bazen ere ohar bat, Informazio Zerbitzuaren adituen arreta erakarri zuena: «Marilyn Gorostiaga. Tejería kalean bizi da, ez dakigu zer zenbakitan. Iruñeako H.T.ko sukaldaria, Alde Zaharrean. Hura harrapatzeko ordu onena bazkalordua da. Loditxo da. Baditu bi lagun uki daitezkeenak»¹²¹.

Agenteek luze gabe jakin zuten emakume hura María Dolores Gorostiaga Retuerto zela, 1956ko maiatzaren 3an Barakaldon (Bizkaia) jaioa eta Iruñeako Tejería kaleko 30. zenbakian bizi zena, une hartan Carmen kaleko Herriko Tabernan sukaldari zebilena. Madrilen bizitakoa zela jakin zuten ere, eta ibilgailu bat zuela bere izenean: Renault 18 bat. Zenbait egunetan guardia zibilek haren mugimendu batzuk zelatatu zituzten, ezer susmagarria aurkitu gabe. Gauza bakar batek erakarri zuen haien arreta: ez zuela inoiz autoa erabiltzen. Xehetasuna ez zen bereziki esanguratsua, baina ez zuten baztertu ETako liberaturren bati uzteko erosi izanaren aukera. Badaezpada, autoaren matrikula zabaldu zuten Informazio Zerbitzuko kide guztien artean: norbaitek hura topatzeko aukera zegoen beti.

1994ko abenduaren 14ko goizean agente batzuek berde metalizatu koloreko NA-1140-L matrikuladun Renault 18a ikusi zuten Iruñean barrena. Hura jarraitzeari lotu zitzaizkion zentzuzko tarte bat utzita, baina nahikoa ibilgailuaren barruan bi gazte zihoazela egiaztatzeko. Gainera, gazte horiek kontrazaintzako zenbait maniobra susmagarri egin zituzten. Talde bat antolatu zuten jarraipenari eusteko, eta laguntza eskatu zioten Gipuzkoako Komandantziari, eskaera argudio irmo batekin lagunduta: Renault 18ko bidaiariek inork ezagutuak ez izateko neurriak hartu zituzten; ETArekin inolako harremanik baldin bazuten, inguruabar horrek aktibista *liberatuak* zirelako susmoa bermatzen zuen; hala izatera, logikoa zen pentsatzea beste garai batean *legalak* izan zirela, eta haien komandoak erortzean ihes egin zutela;

Nafarroatik ihes egin ez bazuten —gertagarritasun txikiko hipotesia zen hori, bai eskuratu zituzten datuen arabera bai haien aurpegiak ikusi zituzten agenteek ezagutzen ez zituztelako—, beste nonbaitetik ihes egingo zuten; eta Gipuzkoan, polizia operazioak zirela eta, bazuten muga zeharkatu zuten zenbait gazteren berri, eta ez zen burugabea bi susmagarriak bertakoak zirela pentsatzea.

Lau egunetan zehar, autoari egindako jarraipenak ETak Nafarroan zuen egitura ia osoa agerian jarri zuen: guardia zibilek ustezko etakideek zer pisu erabiltzen zituzten jakin zuten, baita norekin biltzen ziren eta nondik mugitzen ziren ere. Haietako bi identifikatu zituzten ere: Iñaki Cañas Cartón eta Aritz Arnaiz Laskurain. Hain zuzen ere, biek ihes egin zuten Gipuzkoatik hilabete batzuk lehenago. Agenteak ilusio-natuta zeuden operazioarekin. Abenduaren 17an liberatuek Pio XIIko kafetegi batean berekin lankidetzan aritzeko prest ziruditen bi gazterekin izandako topo egite baten irudiak grabatu zituzten. Horietako bat David Pla Martín zen. Topo egitean etakideek etxean egindako esku-liburu bat eman zieten Poliziaren edo Guardia Zibilaren jarraitze posibleak antzemateko.

Operazioa hurrengo egunean azkartu zen, Renault 18ko bidaiariak atzean zeramaten ibilgailu bati buruz susmatzen hasi zirenean. Guardia zibilek ez zuten bitan pentsatu, eta, gorri zegoen semaforo bat baliatuta, terroristengana oldartu, eta modu irmoan menderatu zituzten. Ondorengo orduetan ETak Nafarroan zuen azpiegitura ia osoa desegin zuten¹²².

José Antonio Anidok arretaz jarraitu zituen «Nafarroa» komandoaren erorketaren inguruko albisteak, ETarentzat eragozpen garrantzitsua izan zena. Zoritxarrak pilatzen ari ziren, neurri handi batean bere lan ordainezinari esker. Baina bera ere deskubritu zuten egun horietan beretan. Baionako bere pisukide Zorion Zamakolak Estrasburgora egindako bidaia bat aprobetxatu zuen Anidoren gurasoak bisitatzeko. Hauek bazekiten gutxi gorabehera zertan zebilen bere semea, eta, egoera egokitzuz gero, bazekiten nola jokatu. Naturaltasunez hartu zuten bisitaria, baina Zamakola «oso urduri» jarri zen hizketaldiaren une batean, eta modu apur bat itsumustukoan alde egin zuen, ia azalpenik eman gabe. Senar-emazteek gertatutakoaren berri eman zioten semeari telefonoz, eta José Antonio Martínez Anidok berehala lotu zituen hari-mutur guztiak: «[Nire aitak] deskribapena egin zidanean, odola izoztu zitzaidan. Zalantzarik gabe, Zorion Zamakola zen. Guardia zibilez jantzita banderaren zina egiten azaltzen nintzen argazkia ikusi zuela suposatu nuen berehala, nire gurasoek egongelaren komodaren gainean zuten argazki hura. Deskubritu egin ninduten»¹²³.

Infiltratuak bere buruzagiak ohartarazi zituen, eta berehala jarri zuten martxan halako egoera baterako aurreikusi zuten segurtasun

plana. Baionako pisuan zeuden bere gauzetako batzuk azkar-azkar hartu, eta handik atera zen. Hala ere, ateratzerakoan bera zelatatzen ari zen auto bat ikusi zuen. «Nire unitateak ematen zidan segurtasuna antzeman zuten, eta uste dut horregatik ez nagoela hilda, ez baitzuten horretarako aukerarik izan», idatzi zuen apur bat geroago. Hegazkin bat hartu zuen Bruselara, eta bere gurasoak Espainiara ekarri zituen Guardia Zibilaren Zerbitzu Berezien Unitateak.

1995eko maiatzaren 24an *Egin* egunkariak ETAren komunikatu batekin ireki zuen bere lehen orrialdea, non Frantzia hegoaldeko giro abertzaleetan sator bat zegoela salatzen zen. Albistearen arabera, ustezko infiltratuaren argazkia zekarrena, Josep Anido zuen izena, eta manifestazioetan eta errefuxiatuek antolatutako ekitaldietan parte hartu zuen, baita Baionako alde zaharreko taberna eta elkarteetan ibili ere. Nabigatzaileei egindako ohar bat zen, baina beranduegi zetorren.

2011ko urriaren 20an, BBC katearen bideo batean, hiru kaputxadunek ETAren su-eten «behin-betikoa» iragarri zuten. Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuetako beterano batzuek bozeramaileetako bat ezagutu uste zuten bideo horretan: David Pla Martín. 1994ko abenduan bideoz grabatu zuten bera, Iruñeako kafetegi batean «Nafarroa» komandoko bi liberatuekin bildu zenean. Denborarekin ETAren aparatukoaren burua bihurtu zen. Bera izan zen su-etenaren arrazoiak emateko arduraduna, nahiz eta, agian, bere zeregina haiek moztortzea izan zen: bere urratsak hainbeste urtez jarraitzen saiatu zirenek bazekiten 2011ko urrian «baldintza politiko berriez», eredu autonomikoaren «agortzeaz», Euskal Herriaren «bidegurutzeaz» eta «proiektu independentista antolatzeaz» hotsandiz ari zenean, bera eta bere kideak garaituak izan zirela onartzen ari zela benetan.

Florencio Domínguez antzeko ondorio batera iritsi zen porrotaren «gakoak» modu dokumentatuan aztertu ostean: «ETAk eta bere inguruneak aldebakarreko erabaki bezala aurkeztu dute indarkeriaren uztea, baina Estatuak behartutako erabakia izan da. Izan ere, bere tresna judizial eta polizialen bidez, taldea ezintasun eraginkorrera eraman du». Eta gehitzen du: «ETAk ez zuen terrorismoa utzi bere bilakaera bategatik edo inguruabar politikoaren aldaketagatik, bere interesetarako eraginkortasun gutxieneko bat zuen indarkeria maila bat gauzatzeko bere gaitasun ezagatik baizik»¹²⁴.

IX. ATALA

ETAren LEHEN BIKTMAK

MARÍA JIMÉNEZ RAMOS

Universidad de Navarra

ETAk ofizialki aitortutako lehen biktima ez hilgarriaren izena ez da inoiz publiko egin. Hala ere, hark bizi izandako abentura Guardia Zibilaren zenbait dokumentutan jasotzen da, 1965eko ekainaren 6aren ondorengo data dutenak¹ Arratsalde hartan Berako (Nafarroa) postuko lehen kabo batek eta bigarren guardia batek, Mugen 123. Komandantziakoak, bost norbanakok 34. muga modu klandestinoa nola zeharkatzen zuten ikusi zuten. Agenteek haiek geldiaraztea erabaki zuten, eta Usane izeneko baserri baten parean harrapatu zituzten. Agiriak eskatu zizkieten, bai eta susmagarriek erakutsi ere: haietako batek Espainiako pasaporte bat erakutsi zien; beste batek, Venezuelako bat; beste biek, Frantziako bana; eta bosgarrenak familia-liburu bat, Madrilen egindako NANaren eskaeraren frogagiri bat, kartilla militar bat eta Aireko Gudarostearen Transmisioen Elkarte Zentraleko boluntarioaren nortasun militar txartel bat. Paperen arabera, Julio Mejorada Cejudo zuen izena.

Guardiak galdezka hasi eta gizonak kontraesanetan erortzean hasi ziren arazoak. Agente bikoteak Berako kuartelera joatea erabaki zuen, gizonak «erabat identifikatzeko». Baina beste arazo bat zegoen, zenbakizkoa: bi bosten aurka ziren; hortaz, guardiek «kalez jantziko» bati eskatu zioten postuko sarjentu komandanteari abisatzeko beste bikote bat bidal zezan. Bien bitartean, bost gizoni agindu zieten herrirako bidean jarraitzeko, eta guardiek «zentzuzko tarte» bat utzita zelatatu zituzten.

Guardien kontakizunaren arabera, bat-batean eta ustekabeen norbanakoetako hiru oldarrean etorri zitzaizkien, eta aldean zeramatzaten subfusila eta mosketoia kentzen saiatu ziren. Agenteak beren armak erabiltzen saiatu ziren, baina ez zuten trebezia alde izan: kaboak errekamara irekiko segurtagailuan muntatu zuen morroiloa, eta guardiak

segurtagailuaren buruaren posizio zuzena aldatu zuen, halako eran non pieza ez zetorren bat. Azken batean, beren erasotzaileen mende geratu ziren. Kaboa konorterik gabe utzi zuten kolpeka. Erasotzaileak beste agentea jotzen hasi ziren, mosketoia kendu nahian. Agentea oihuka hasi zen, eta, oihuei esker, konortea berreskuratu zuen kaboak eta bere bikotekidea laguntzera joan zen. Erasotzaileek ihes egin zuten mugara bidean. Kaboa haien atzetik joan zen Luzurniaga Bentaraino, eta han eskopeta bat eramateko eskatu zuen. Itxaronaldian norbanakoetako hiruk muga nola zeharkatzen zuten ikusi zuen. Frantziako lurretan egon arren, agentea haien atzetik joan zen, baina ez zuen haiek harra-patzea lortu.

Erasoaldiaren lekura itzulita, Guardia Zibilak zorro bat aurkitu zuen zenbait gauzarekin, horien artean J.J.E. eta J.B. inzialak brodatuta zituzten bi zapi, *Union de la Gauche Socialist*eren liburuxka bat eta 6,35 milimetroko kalibreko pistola bat, kargadore batekin eta hiru kartutxorekin, «Fabrique D'Armes de Guerre de Grande Precision, Looking Class Patent» inskripzioa zuena. Hala ere, guardiek azaldutako sekuentziaren arabera, norbanakoek ez zuten pistola erabiltzeko inolako keinurik egin. Aitzitik, gogotik saiatu ziren agenteak armagabebetzen. Haien jarreraren zergatia ETAk berak azaldu zuen *Zutiken* ale batean: «Hil zitzaketen, baina horrelakoetan heriotza saihesteko agindua dute, eta agindu hori bete zuten. Gainera, beste zeregin bat dute, eta topo egitea erabat ustekabekoa izan da»².

1965eko udaberriko arratsalde hartan mugan gertatutakoaren historiak ondorioak izan zituen protagonista guztientzat. Alde batetik, Guardia Zibila gertaeren lekura itzuli zen hurrengo egunean, eta kaboaren Z-45 subfusila berreskuratu zuen. Apur bat geroago, Frantziako polizia jakinarazi zien denda bat miatu zutela Biarritzen, Ikar izenekoa, Julen Madariaga handik zebilela eta. Frantziako agenteen arabera, Madariagak esan zuen Ikar 1962ko maiatzaren 1an sortu zela, ETAREN «jarduerak estaltzeko». Gordetzen zuen dokumentazioari buruz xehetasun batzuk eman zituen ere, eta «Espainiatik zetozen ETAKo hiru afiliatuena zela baieztatu zuen. Hortik abiatuta, mugako borrokan parte hartu zuten bost norbanakoetatik lau identifikatu zituzten: bere burua Julio Mejorada bezala aurkeztu zuena Javier Imaz Garay zen benetan; beste hiruak, berriz, José María Benito del Valle Larrinaga, Sabino Uribe Cuadra eta Juan José Etxabe Orobengoa. Aurrerago jakin zenez, Julen Madariagak ere parte hartu zuen muga zeharkatzeko ahalegin zapuztuan (ikus III. atala).

Mugako ustekabeko topo egiteak beste zenbait ondorio izan zituen ere: etakideak ETAREN IV. Biltzarrera zihoazen, baina biltzarra atzeratu egin zuten, eta bere kideak non zeuden ikertu behar zuen «talka-

komando» baten buru izendatu zuten Xabier Zumalde, ezizenez *El Cabra*, (ikus III. atala). Garai horretan Zumalde ETAren lerroetara iritsi berria zen. Hala ere, haren izena geroago azalduko da atal honetan, kutsu zinematografikoa duen gertaera batekin lotua.

Nafarroako mugako gertaera horrek —ez zen ez lehena ez azkena izan— nolabaiteko garrantzi historikoa izan zuen. Guardia zibiletako bat Barne Ministerioak modu ofizialean aitortutako ETAren lehen zauritua izan zen. Mugako borroka jazo zenean agenteak 41 urte zituen. Terrorismoko biktimaren izendapena zehazki 41 urte geroago heldu zitzaion, 2006an. Ezintasun iraunkor osoa eman zitzaion, legeak onartzen dituen bost larritasun mailetatik hirugarrena³. Lehenago beste zaurituren bat egon zela badakigun arren, hura izan zen, maila ofizialean, ETAren lehen biktima, baita bizirik irten zen lehena ere.

I. LEHEN HILDAKOAK

Bera herriaren parean muga zeharkatu zuten bost etakideek uste-kabeen aurkitu zituzten bi guardia zibilak bizirik uztea erabaki zutenetik hiru urtera, beste bi etakidek José Antonio Pardines hiltzea erabaki zuten, eta harekin hasi zen taldeko biktima mortalen kontagailua. Hala ere, terrorismoaren biktimen zerrenda gaitzesgarria urte batzuk atzera hasi zen Espainian, 1960an, 22 hilabeteko Begona Urroz Ibarrola umea Donostiako Amarako geltokian hil zutenean.

Hamarkadetan zehar, Begoña Urroz ETAren lehen biktimatzat jo izan zen. Haren izena erakunde publikoek eta ikerketa akademikoek egindako zerrenden buru agertzen zen, nahiz eta atentatuaren egiletzaren inguruan zenbait eztabaida izan. Haren hilketaren eguna, ekainaren 27a, Terrorismoaren Biktimen Eguna bezala finkatu zen modu ofizialean Espainian. Umeari esleitutako sinbolismoa gorabehera, haren heriotzatik berrogeita hamar urte igaro ziren umearen gurasoek hitz egin zuten arte. 2010eko urtarrilean izan zen, *El País*eko Jesús Duva kazetaria Nafarroako herri txiki-txiki batera joan (Beinza-Labayenera), eta erreportaje zabal bat argitaratu zuen, honela hasten zena:

Nire izeba batek, Soledad Arruti Etxegoyenek, Donostiako Amarako geltokiko kontsignan lan egiten zuen. Hari laguntzera joaten nintzen, pezetatxo batzuk irabazteko. Egun hartan, nire umea harekin utzi, eta inguruko denda batera joan nintzen umearentzat zapata batzuk erostera. Itzuli nintzenean, sekulako nahaspila zegoen. Bonba batek eztanda egin zuen! Nire alaba kiskalia zegoen, eta beste zenbait pertsona, horien artean nire izeba, zaurituta. Izugarria izan zen⁴.

Jesusa Ibarrolak esan zituen hitz horiek, Begoña Urrozen amak. Bere alabaren hilketa gertatu zenetik publikoki hitz egiten zuen lehen aldia zen, 83 urterekin. Kazetariak azaltzen zuenez, haren oroimena argia eta sendoa zen, baina, tragedia gogoratzean, ezin izan zion negarrari eutsi. Madrilen, Donostian eta Bilbon 1960ko ekainaren 26a eta 29a bitartean bonbadun maletekin burututako eraso kate baten erantzulea DRILa zela ziurtzat jo arte hamarkadak igaro ziren. Donostian burututako erasoan hil zen umea (ikus III. atala).

Geroztik, eta diktadorearen heriotzara arte, 1975eko azaroan, terrorismoak gutxienez 69 biktima mortal eragin zituen Espainian, zortzi erakunderi leporatuak: ETA, FRAP, GRAPO, *Front d'Alliberament de Catalunya*, Colectivo Hoz y Martillo, Movimiento Ibérico de Liberación, DRIL eta eskuin muturra. Gainera, badira biktima mortalak eragin zituzten bederatzi kasu, non atentatuaren egiletza ez dagoen argituta⁵.

1 TAULA

Terrorismoaren biktima mortalak Espainian (1960-1975)

<i>Erakundea</i>	<i>Biktima kopurua</i>
ETA	45
FRAP	5
GRAPO	5
<i>Front d'Alliberament de Catalunya</i>	1
Colectivo Hoz y Martillo	1
Movimiento Ibérico de Liberación	1
DRIL	1
Eskuin muturra	1
Ezezaguna	2
Guztira	69

Urte odoltsuena 1975 izan zen, non aipatu epealdiaren biktimen ia erdia hil baitzuten, 33 guztira. Madril izan zen pertsona gehien erailak izan ziren probintzia —26—, eta haren atzetik Gipuzkoa dator, 12rekin. Heriotza eragin zuen erakunde sorta zabal baten agertokia izan zen Espainiako hiriburua, ETAtik hasita GRAPOraino, tartean FRAP eta beste talde batzuk daudela.

Edozein kasutan, urte horietan zehar talde horiek izan zuten helburu nagusia Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak izan ziren.

Kidego horietako 36 funtzionario hil ziren, eta hildako zibilak, berriz, 31 izan ziren. Horiei guztiei beste bi pertsona gehitzen zaizkie, zeinaren lana ezezaguna den. Biktimen adinaren batezbestekoa 37 urtekoa da, eta haietatik 42 —%60a— ezkondata zeuden, gehienak seme-alabekin. Kalkuluaren arabera, 1960 eta 1975 urteen artean, terrorismoak 179 haur zurtz utzi zituen Espainian.

II. ETAK HILDAKOEN MAPA

Espainian diktaduran zehar burututako 69 hilketetatik, 45etan ETA izan zen erantzulea; hau da, %65arena. Erdia baino gehiago, hogeita sei hain zuzen ere, Euskal Herrian burutu ziren, eta hamaseitan Madril izan zen agertokia.

2 TAULA

ETAren hilketen kokalekua probintziara (1968-1975)

<i>Probintzia</i>	<i>Biktima kopurua</i>
Gipuzkoa	17
Madril	16
Bizkaia	7
Araba	1
Bartzelona	1
Frantzia	3
Guztira	45

Udalerriei dagokienez, ETAk 21 udalerritan burutu zuen atentatuaren bat. Madril dago zerrendaren buru, hamasei biktimarekin.

3 TAULA

ETAren hilketen kokapena udalerrira (1968-1975)

<i>Udalerrria</i>	<i>Biktima kopurua</i>	<i>Udalerrria</i>	<i>Biktima kopurua</i>
Arrigorriaga	1	Madril	16
Ataun	1	Arrasate	2
Azpeitia	1	Oñati	3

Bartzelona	1	Oiartzun	1
Bilbo	2	Pasaia	1
Deba	1	Donostia	2
Galdakao	1	Ursubil	1
Getxo	1	Billabona	1
Gernika	2	Legutio	1
Hernani	1	Zarautz	1
Irun	1	Frantzia	3

Aurreko taularen bukaeran Frantzia aipatzen da inolako udalerririk zehaztu gabe, eta hiru biktima esleitzen zaizkio. Frantziako lurraldean 1973ko martxoan desagertutako hiru gazte galiziarren kasua da. Gertaera horren kokapen geografikoa ez da beharbada erregimen frankistan zehar izandako kasu krudelenetako horren kontu ezezagun bakarra. Sumariotik datorren dokumentazioak gertaeraren xehetasun batzuk eraikitzeke aukera ematen du, baina kasu horren itzala gaur egunera arte luzatzen da, eta hiru desagertuen familiek justizia eskatzen jarraitzen dute.

1. DESAGERTUTAKO HIRU GAZTE GALIZIARRAK

Julio García Souzak eta Josefa Carneiro García bere semea, Jorge, bizirik ikusi zuten azken aldia 1973ko martxoaren 17a izan zen. 23 urteko gazteak San Jose jaia baliatu zuen Irundik bere jaioterria, A Coruña, joan, eta bere neska-lagunari ezkontzeko mandatua egiteko. Zazpi hilabete geroago, Juliok eta Josefak elkarrizketa bat eskaini zioten *La Voz de Españari*, non bere larritasuna adierazten zuten semearen eta mugako herrian bizikide zituen bere bi lagunaren desagertpenetatik:

Baliteke ETA izatea. *El Casok* uste du hil egin dituztela edo preso daudela Frantziako baserri batean. Jendarmeriak beldur dien handiputz batzuez mintzo da. Ez dakit, hain da uherra dena..., eta inork ez du ezer egiten argitzeko. Egunetik egunera itxaropen gutxiago dugu. Irungo polizia oso hotz agertu zen. Koadro bat erakutsi zigun desagertutako argazkiekin, esanez bezala: «ez pentsa zuen semea bakarra denik»⁶.

Ordurako indarra hartua zuten Jorge Juan García Carneiro, Humberto Fouz Escobero eta Fernando Quiroga Veigaren egonlekuari buruzko zenbait bertsio gutxi gorabehera irmok. Aipatu hiruak Galiziarrek ziren jaiotzez, eta euskal udalerrian bizi ziren. Humberto Fouz izan zen besteak haraino eraman zituena. 29 urte zituen, eta

eleaniztuna zen: frantsesa, ingelesa, italiarra, alemana eta errusiarra hitz egiten zuen, eta Ingalaterran, Belgikan, Frantzia, Suitzan eta Suedian egindako egonaldietan ikasi zituen. Bere curriculumak ez zen batere ohikoa garai horretan. Cesáreo Ramírez Ponte bere koinatuaren bidez, lan bat lortu zuen interprete buru bezala Traffic S.A. enpresako merkataritza-sailean, non 25.000 pezeta irabazten zituen (gaur egungo 2.600 euro). Diru horrekin Austin 1.300 bat erosi zuen, 1972an A Coruñaara egindako bidaia batean estreinatu zuena, lagun baten ezkontzara joateko⁷.

Humberto Fouzen oparoaldia akuilu izan zen 25 urteko Fernando Quirogarentzat Euskal Herrira etorri, eta aduanako agente bezala lana topatzeko. Apur bat geroago Jorge Juan García etorri zen haien atzetik. Lan bat lortu zuen hark ere, eta apirilaren 1an hasi behar zuen. Lan finko baten aukera zuenez, egoera baliatu zuen Rosa Pita Aradasi berearekin ezkon zedin eskatzeko. Ezkontza eta hiru gazteen gainerako planak zapuztuta geratu ziren 1973ko martxoaren 24an.

Bazkariaren ostean, hiru lagunak eta Cesáreo Ramírez, zeinak bere etxean ostatu eman zien, Irungo Castilla tabernara joan ziren kartapartida bat jokatzera. Arratsaldeko lauak aldera Austinera igo, Ramírez Renfeko bulegoko bere lanean utzi, eta Frantziara bidean jarri ziren. Haien egitasmoa Hendaiara edo Donibane Lohitzunera joatea zen, *Azken tangoa Parisen* pelikula ikustera, artean Espainian debekatu zegoena. Inoiz ez zen haietaz ezer jakin.

Humberto Fouzen koinatua, Cesáreo, Irungo komisariara joan zen apirilaren 17an, hogeita lau egun zeramatzalako bere apopiloiei buruz ezer jakin gabe. Hipotesi nagusiaren arabera, auto istripu bat izan zutela uste zuten, eta autoa itsasora amildu zela. Frantziako agintariak ohartarazi zituzten, Itsas Komandantzia barne, Hendaiako errepidearen inguruak mia zitzaten. Emaitzarik gabe, ordea. Donostiako 3. zenbakidun Instrukzio Epaitegiko epaileak kasuaren behin-behineko artxibatzea dekretatu zuen 1973ko maiatzaren 18an.

Hilabete horretan bertan Ipar Euskal Herrian esku-paper batzuk zabaltzen hasi ziren «Trabajadores españoles» zehaztugabe baten sinadura pean, eta haietan hiru gazteren hilketa aipatzen zen, baita «zehaztasun osoz egiaztatutako egitateen» kontakizun bat ere. Esku-paperetan esaten zenez, martxoaren 24ko gauean gazteak La Licorne tabernan zeuden «bere herriko abestiak kantatzen»; etakide batzuk haien aurka oldartu ziren «jipoi basati» batean, eta galiziarretako bati begi bat erauzi zioten; taldeko buruak, Tomás Pérez Revilla etakideak borroka hura hilketa hirukoitz batean amaitzea erabaki zuen; komandoko beste kide batek, Ceferino Arévalo Imazek, «neska batekin ohean zegoela» onartu zuen balentria; eta beste etakide bat matrikula faltsu batekin erabiltzen ari zen biktimen autoa, Pedro Alquizu Leizarreta

hain zuzen ere, gertaeretan parte hartu izanaz harro agertzen zena. Esku-paperek sinadura bilketa baterako deia egiten zuten, Frantziako agintariei justizia eskatzeko, zeintzuei errudunen konplize izatea leporatzen zitzaaien. Egunkarietara gutunak bidaltzea eskatzen zuten ere, gertatutakoari ikusgaitasuna emateko, eta «Espainiako hierarka katolikoen» isiltasuna kritikatzeko zuten ere, zeintzuekin harremanetan jarri ziren, baina inolako erantzunik jaso gabe. Esku-paperekin beste aldean «koldarki eta basatik eraildako» hiru gazteen argazkiak agertzen ziren⁸.

Esku-paperekin jatorriari buruzko datu apurretako bat Polizia Nazionalaren komisarioorde ohi José Amedok eman zuen 2005ean — GALen parte hartzeagatik kondenatua izan zena —, zeinak baieztatu zuen esku-paper horiek Kidegoaren Zuzendaritza Nagusitik atera zirela⁹. Edozein kasutan, paper haiek zabaltzen zuten bertsioak antzekotasun handiak izan zituen Alfredo Semprún kazetaria *ABC* egunkarian 1973ko abenduaren 26an argitaratzen hasi zenarekin. Semprún Frantzia hegoaldera joan zen Carrero Blanco hil zuen komandoaren arrastoa jarraituz. Orrialdearen amaieran hiru gazte galiziarrei gertatutakoari buruzko xehetasun berriak ematen ditu, «gure informatzaileengatik» datozenak. «Espainiaren izen ona» defendatzeagatik piztu omen zen hiru gazteen eta «erabat mozkortuta zihozen» ETako zortzi pistolarien arteko borroka. Humberto Fouzia berehala hil zen, botilakada baten talkaren eraginez, masa entzefalikoaren isurketa eragin ziona. Haren gorpua Donibane Lohitzuneko badiara botatu zuten, eta, horretarako, etakideek erakunde terroristarena zen txalupa bat erabili zuten, «Dragón» izena zuena. Beste biak ETarena zen Donapaleuko landetxe batean atxiki zituzten, Pérez Revillak haiek tiro banaz hil eta gorpuak inguruan lurperatzeko erabakia hartu zuen arte¹⁰.

Gertatutakoaren bertsio hau egunkari nazional batean argitaratu eta gero, hiru gazteen familiek kereila bat jarri zuten Pérez Revilla eta kidearen aurka homizidio, hilketa eta lapurreta delituengatik. Urtarriaren 7an Donostiako epaitegian aurkeztutako salaketak Semprúnek bere ondorengo informazioetan aipatutako etakide guztiak seinalatzen zituen zuzenean: Tomás Pérez Revilla (*Hueso*), Manuel Murua Alberdi (*El Casero*), Ceferino Arévalo Imaz (*El Ruso*), Jesús de la Fuente Iruretagoyena (*Basacarte*), Prudencio Sudupe Azcune (*Pruden*), Sabino Achalandabaso Barandica (*Sabin*), Pedro Arquizu Leizarreta (*El Quepa*), eta Lucio Ochoantesana Badiola (*Luken*).

Frantziako agintariei ikerketa judizial bat zabaltzeko eskaerari uko egin zion arren, epaileak bai eskatu zion txosten bat Poliziaren Kidego Nagusiarri. Dokumentua epaitegira bidali zuten otsailaren 14ko datarekin. Hartan, ikertzaileek bi etakiderek ingindako kudeaketak zeha-

zten ziren, kasuari xehetasun berriak gehitzen zizkietenak: Jesús María Muñoa Galarragak Burgoseko kartzelatik baiezatu zuen ETA V. Bilzarrak landetxe bat zuela Donapaleun; eta Jesús María Zabarte Arregik, gerora *El carnicero de Mondragón* ezizenez ezagutuko zutenak, agenteen aurrean onartu zuen hiru gazte galiziarrekin zer gertatu zen galdetu ziola Pérez Revillari: «Zenbat eta gutxiago jakin kontu horretaz, askoz hobee», erantzun zion. Humberto Fouzen autoaren antzeko ezaugarriak zituen Austin 1.300 bat Frantziako lurraldetik Z-0978-B matrikula faltsuarekin ibili zela egiaztatu zuten ere. Matrikula hori Villanueva de Giloca-ko (Zaragoza) bizilagun baten furgonetari zegokion benetan. Txosten berean Poliziak hilketa hirukoitzaren zuzeneko bi egile posibleak adierazi zituen: Tomás Pérez Revilla eta Ceferino Arévalo¹¹.

Hurrengo hilabeteetan egindako txostenek ikertzaileek adierazitako hipotesiak baiezatu zituzten. Are gehiago, Ikerketa Sozialeko Komisaria Nagusiko barne dokumentu batek gertaeren bilakaera posible bat deskribatu zuen:

Hiru langile espainiarrei eman zieten jipoi basatiaren ondotik, jipoiak berentzat izan zitzakeen ondorioekin beldurtuta, baliteke erasotzaileek gertatutakoa ezkutu nahi izatea, eta, horretarako, hiru biktimak odol hotzean hil, eta gorpuak eta haiek zihoazen autoa desagerrarazi zituzten¹².

Bildutako informazio gorabehera, instrukzio epaileak ezezkoa eman zion etakide susmagarrien prozesamenduari. Lehia bat hasi zen orduan: batetik, familiak jarritako errekurtsioak, Frantzian ikerketa bat irekitzeko eskariarekin, eta, bestetik, epailearen ezezkoak, zeinak 1975eko apirilaren 17an sumarioa «bukatutzat» jo zuen. Eta 1975eko urriaren 18an modu behin-behinekoan artxibatu zuen¹³.

«Gure bizitza tormentu bat da gaur egun», adierazi zuen urtebete lehenago elkarrizketa batean Jaime Quirogak, Fernandoren aitak¹⁴. Onartu zuen bere suhiaren laguntzarekin Frantziako kostaldea miatu, eta «auto bat arrastorik utzi gabe galtzea ezinezkoa» zela ondorioztatu zuela. Dei anonimo bat jaso zuen ere, eta gazteak bizirik zeudela esan zioten, baina ez zezala informazio hori publiko egin. Kasua hurbilen jarraitzen ari zen Semprún kazetariari deigarria egin zitzaion hori.

Familia saia zitekeen eskura zituen baliabide guztiak erabiltzen Frantziako Poliziari ozta-ozta azaletik hasitako eta Donibane Lohitzuneko herritar beldurti batzuen deklarazio ahulen erruz abandonatua izan zen kasu hura sakon iker zezan eskatzeko. Hori eragotzi nahi al zuen telefono deiak?¹⁵

Asmoa edozein zela ere, Jaime Quirogak bere eguneroko bizitzaren estutasuna azpimarratu zuen: «Izugarrria da. Badirudi inor ez dela haien zoriaz arduratzen». Urte batzuk geroago, Humberto Fouzen arreba ere, Isabel, kexu zen polizien eta erakundeen utzikeria zela eta: «Poliziarengana joan ginenean txantxetan hartu gintuzten», adierazi zuen. Eta gehitu zuen: «beretarrak izan zitezkeela uste izan zutenean arduratu zen Francoren gobernu. Gizagaixo batzuk eta haien gurasoak ezezagun hutsak zirela ohartu ziren arte. Hortik aurrera, gaia amaitutzat jotzea erabaki zuten»¹⁶.

Ondorengo urteetan kasuari buruzko informazioa pitinka-pitinka agertu zen. 1984an gazteen hilketaren susmagarria zen pertsonak informazio gehiago emateko aukera desagertu zen: ekainaren 28an Tomás Pérez Revilla Baionako errein unitatean hil zen, GALen atentatu bat nozitu eta 45 egunera¹⁷. Haren terrorismo historian frogatuta geratu zen Felipe Huarte nafar enpresaria bahitu zuela, baina amnistia jaso zuen delitu horrengatik. Hiru gazte galiziarren desagerpenean izan zuen zeregina ez da inoiz argitu.

Ikerketa ez zen 1997ko irailera arte berpiztu. Frantziako Biriatouko hilerriko panteoi batean, non ustez beste desagertu baten hondakinak zeuden, Eduardo Moreno Bergaretxerenak (*Pertur*)¹⁸, beste hiru gorpu agertu ziren, eta zenbait informazioren arabera, gorpu horiek gazte galiziarrenak izan zitezkeen. Kontu hura ia bi urtez egon zen argitu gabe, harik eta 1999ko martxoan Jaime Mayor Oreja Barne Ministroak Coral Rodríguez Fouzek, Humberto Fouzen iloba eta Alderdi Sozialistako senataria zenak, Senatuaren osoko bileran egindako galdera bati erantzun zion arte. Ministroak baieztatu zuenez, hondakin horiek ez ziren hiru gazteenak.

Ordurako, Coral Rodríguez aldarrikapenen eta are ikerketen buru ere jarri zen kasua argitzeko. 2000. urtean bi gutun idatzi zizkion kontuan nahastuta zegoenetako bati, Manuel Murua Alberdiri, Logroñoeko kartzelan preso zegoenari, baina ez zuen erantzunik jaso¹⁹. Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordea premiatu zuen ere, *Josu Ternera* etakideari —organo horren arduraduna izan baitzen Euskal Herri-tarrok alderdiaren legebiltzarkide izan zenean— gazteen egonlekuari buruz galde ziezaioten, baina bere ahaleginak ez zuen arrakastarik izan. 2001an gertaeren zati bat ustez jazo zen landetxeari buruzko informazioa lortu zuen. Informazio hori orduan Barne Ministro zen Mariano Raxoyren eskuetan jarri zuen, eta 2002an Frantziak iragarri zuen kasua berriro irekiko zuela, nahiz eta «pazientzia» eskatzen zuen. Zapuztutako itxaropen bat izan zen.

2004ko urrian Coral Rodríguezek landetxearen kokaguneari buruzko datu zehatz gehiago eman zituen: Beyrie Sur Joyeuse-n zegoen, Donapaleuren erdigunetik hamar kilometrotara; 1973an Arnaud

Etchamendy zen jabea, «ezker abertzalea»rekin lotura zuen euskal hizkuntzaren ikertzaile bat. Ondoren bi baserritan banatu zuen lursaila: Casa Harandokia, Arnaud bere semea bizi zena, eta Maison Arteaga, Eric bere semea bizi zena. Ikertzaileek esan zuten lur-eremua zabalegia zela indusketa baimenduko zuen epailearen agindu bat jasotzeko, eta datu zehatzagoak behar zituztela.

2005ean berriro suspertu zen kasua. Antena 3-k emandako dokumental bati eta *El Mundo* egunkariak zabalduzako informazioari esker, ezagutzera eman zen landetxea zegoen orubea *Herri Batasunako* sortzailearena izan zela, Telesforo Monzónena²⁰. Hala ere, ez zuten Frantziaren baimena lortu lursail horietan indusketa egiteko.

Azken urteotan, jada politikatik kanpo, Coral Rodríguezek Ipar Irlandak «*dissapeared*» delakoekin eman zituen pausoak jarraitzeko eskatu du. «*Dissapeared*» horiek 1972 eta 1985 bitartean IRAko zenbait fakziok bahitu, erail eta lurperatutako hamasei pertsona ziren, eta haien egonlekua ezkutuan gorde zen hamarkadetan zehar²¹. 1999an Irlandako eta Britania Handiko gobernuek Biktimen Hondakinak Aurkitzeko Batzorde Independentea sortu zuten, eta biktima haietakoren hamabi gorpu topatu zituzten²². Orain arte, erakunde bakar batek ere ez du onetsi Coral Rodríguezeren eskaera. «Hiru gali-ziarren kasua da zirrara gehien eragin didana, gehienezko abandonu posiblea adierazten baitu», laburbildu zuen Javier Mendoza abokatuak, zeinak bere ibilbidearen zati handi bat terrorismoaren biktimen laguntza juridikoari eskaini dion. Mendoza zuzenean nahastu zen lau hamarkada geroago argitu gabe jarraitzen duen kasu horren xehetasunetan²³.

III. HURBILKETA BAT BIKTIMEN PROFILERA

1968 eta 1975 urteen arteko ETAren biktima mortalak zibilen eta Segurtasun Indar eta kidegoen kideen artean banatzen dira zati berdinetan: lehenen kasuan 23 dira —bi kargu politiko barne, Gobernuko presidentea, Luis Carrero Blanco²⁴, eta Oiartzungo alkatea, Antonio Echeverría Albisu—, eta agenteak, berriz, 21. Biktimetatik bost bakarrrik ziren emakumeak, guztiak ere Madrilgo Rolando kafetegiko atentatuan hilak, 1974ko irailaren 19an.

Biktimen batezbesteko adina 38 urtekoa zen. Erdia baino gehiago —28— ezkontuta zeuden. Hortaz, esan daiteke aipatu epealdian ETAK gutxienez 27 alargun utzi zituela²⁵. Gainera, erakunde terroristak 72 seme-alaba zurtz geratzea eragin zuen.

Biktima bakoitzaren hilketak familiaren ikuspegitik izan zituen ondorio tragikoez harago, krimen horietako batzuek ondorioak izan

zituzten talde terroristaren ibilbidean. Jarraian horietako bi azalduko ditugu xehetasunez: Fermín Monasterio taxi-gidariarena eta Antonio Echeverría alkatearena, ETAk hildako lehen zibila eta lehen zinegotzia hurrenez hurren. Monasterioren krimena ez da sartzen gerora taxi-gidarien aurka egindako kanpainaren barruan —sarritan «sala-tari» izatea leporatu zieten taxi-gidariei²⁶—, baina mezu kezagarria igorri zion gizarteari: terroristen bidea eragozten duen edonor biktima bihur daiteke. Echeverriaren kasuan, haren hilketaren ondotik, alkate guztiei zuzendutako mehatxu bat etorri zen: beren karguak utzi behar zituzten, terroristen helburu bihurtuko ziren bestela. Bai Monasterio bai Echeverría lehenak baino ez ziren izan: bere historian zehar, ETAk 16 taxi-gidari hil zituen gutxienez²⁷, eta kargu politikoak zituzten 68 pertsona²⁸.

4 TAULA

ETAk biktimen lanbidea (1968-1975)

<i>Talde profesionala</i>	<i>Biktima kopurua</i>
Zibila	21
Guardia Zibila	14
Polizia Nazionala ²⁹	7
Politikaria	2
Udaltzaina	1

1. ETAK ERAILDAKO LEHEN ZIBILA

ETAren biktima zibilen zenbagailua 1969ko apirilaren 9ko arratsaldean jarri zen abian. Fermín Monasterio Pérez Isar-en jaio zen, Burgosekoko herri txiki batean. 38 urte zituen, eta taxi-gidaria zen. Duela bost urte bizi zen Arangoiti auzoan, Bilbon, bere emaztearekin, María del Rosario Burgosekin, eta bere hiru alabekin: María del Rosario, hamahiru urtekoa; María de la Adoración, hamarrekota; eta María del Mar, bostekoa. Apirileko arratsalde hartan Bizkaiko hiriburuko alde zaharretik zebilen autoarekin. Zonalde horretan, hain zuzen ere, ETAk pisu bat egokitu zuen bere komando batentzat, zeinaren kide ziren Mario Onaindia, *Txutxo* Abrisketa, Víctor Arana Bilbo eta Miguel Etxeberria Iztueta (*Macagüen*). Poliziak pisua aurkitu zuen, eta zenbait agente barruan zeuden terroristak agertuko zain, Kantabrian astebete ezkutututa zeramatenak (ikus VIII. atala). Lehen hiruak atxilotu egin

zituzten oinak etxebizitzan jarri bezain laster. Laugarrenak, Etxeberriak, ihes egitea lortu zuen, nahiz eta zaurituta egon, bi tiro jaso baitzituen agenteen aldetik.

Kalera iristean, Fermín Monasterioren taxi hutsarekin topo egin zuen. Keinu egin, eta taxia geratu egin zen. Basauriko errepidetik Burgozera joateko eskatu zion, eta bidean jarri ziren. Bere oroitzapenetan Mario Onaindiak geroko gertakariak kontatu zituen: Arrigorriaga parean bere bidaiaria zauritua zegoela ohartu zen taxi-gidaria, eta zaurien jatorriari buruz hark emandako erantzunak ez zuen asebate. Hortaz, autotik jaisteko eskatu zion. «Echeverriak pistola atera, eta mehatxu egin zion, berak esandako helbidera eramaten ez bazuen hil egingo zuela, eta eraman nahi ez bazuen, taxia utz ziezaiola bestela. Baina taxi-gidariak kontra egin zion, eta Echeverriak bi tiro bota zizkion», idatzi zuen Onaindiak³⁰. *El Diario Vasco* argitaratutako informazioaren arabera, lau bala inpaktu jaso zituen: toraxean, iztondoan, eskuan eta bihotzean³¹. Zauri hilgarriak eragin ostean, Etxeberriak Fermín Monasterio bere taxitik atera, eta errepidean botata utzi zuen, Arrigorriagako udal-barrutian. Kide batek arratsaldeko sei eta erdietan topatu zuen, bai eta Basurtoko ospitalera eraman ere, non hil egin zen³².

«Sumindura... eta atsekabea» zioen *El Correo Español*eko hurrengo eguneko editorialaren izenburuak³³. Ordu arte José Antonio Pardines guardia zibilaren ustekabeko hilketeta eta Melitón Manzanasen heriotza eragin zuen atentatu planifikatua (ikus III, IV, VII eta VIII atalak) ezagutu zituen gizartea hunkituta geratu zen krimenarekin. Baina Fermín Monasterioren krimena ezberdina zen, terroristei aurre egiteko prest egon zitezkeen hiritar arruntei bidaltzen zien mehatxuagatik.

Fermín Monasterioren familiak jasotako babes adierazpenak hurrengo egunean Deustuko San Pedro Apóstol elizan egin zen elizkizunean agerikoak egin ziren. Bilbon lan egiten zuten zazpiehun taxi-gidarietatik ia bostehunek geldiarazi zuten orduko Avenida del Ejército etorbideko (gaur egun Agirre Lehendakariaren etorbidea) trafikoa, eta dolu-xingola beltzak eraman zituzten beren irrati-tresnen antenetan. Jendetza egon zen elizan, eta probintziako eta bertako agintariak zeremoniara joan ziren.

Alarguna eta hiru alabak ahultasun eta babesgabetasun egoeran geratu ziren, eta horrek nolabaiteko kezka eragin zuen Administrazioak terrorismo oraindik hasi berriaren biktimentzat inolako laguntza sistemarik indarrean jarri ez zuen garai batean. Beharbada, horregatik erantzun zuen gizarteak. Lehen pausoa Bizkaiko gobernadore zibilak, Guillermo Coll San Simónek, eman zuen, eta biktimaren familiarekiko interesa agertzeaz gain, herri-harpidetza bat martxan jarri zuen, dona-

zioak jaso zituzten. Berak estreinatu zuen harpidetza 25.000 pezetarekin. Bilboko Udala izan zen hurrena, 50.000 pezetarekin, eta haren ondotik emakume batek 25.000 pezeta eman zituen modu anonimoan³⁴. Donazio horiek bakarrik kontuan hartuta, familiak 100.000 pezeta jaso zituen, eta hori, KPIaren gaurkotzea ezarri ostean, 13.300 eurotik gorako kopurua izango litzateke gaur egun.

Azken finean, terrorismoko biktimek jasotako lehen laguntza ekonomikoak zenbait hirikideren eskutik etorri ziren, eta, gerora frogatuko zen bezala, orduko erakundeen konpromiso iragankorraren gaintik egon ziren. Taxi-gidariaren hilketaren ondorengo erantzunak aurrekari bat zuen, José Antonio Pardinesen krimenaren ondotik egin zen manifestazioa: garaiko prentsak zabaldu zuenez, Donostiatik zetorren donazio emaile anonimo batek 50.000 pezetako balioa zuen txeteke bat (gaur egun 6.800 euro baino gehiago izango lirateke) eman zion hildako guardia zibilaren aitari³⁵.

Fermín Monasterioren erdiko alabak, Dorik, gogoan du eskolara bueltatu zela hilketa gertatu eta bi egunera³⁶. «Zure aita ez du ETAk hil, Guardia Zibilak hil du», aurpegiratu zion ikaskide batek. Neskaren oroimenean iltzatuta geratu zen esaldi hark ETAk panfleto batzuen bidez Deustuko Unibertsitatean zabaldu zuen gertaeren bertsoarekin zerikusia zuen. Panfleto horietan erakunde armatuari («giza zabor» deitzen zioten) leporatzen zitzaion taxi-gidariaren hilketa, bertso ofiziala «polizia-nobelatzen» jotzen zen, kazetariak «salduta» zeudela esaten zen eta erakundeak «Monasterio jaunaren heriotza publikoki eta ofizialki deitoratzen zuela» baieztatzen zuen, «haren jatorria zeinahi dela ere»³⁷.

Propagandaren ondorioak gorabehera, Monasterioren hiru alabek ikasten jarraitu zuten. Ikasketa-beka bana jaso zuten Bizkaiko Aldunditik, baina, lehenbiziko foru hauteskondeekin eta PNVren etorrerarekin, kendu egin zieten. «Beka zuk baino gehiago behar duen Gerra Zibileko jende asko dago», gogoan du Dorik esan ziotela bere amari³⁸.

Elizaren babesa ere ez zen oso kontsolagarria izan. Bilboko gotzainak, José María Cirardak, krimena gertatu eta egun gutxira pastoral bat idatzi zuen non «une honetan bizikiago sufritzen ari diren horien» mina deitoratzen zuen, eta «taxi-gidariaren alargunak eta seme-alabak» eta «atxilotuak» aipatzen zituen, azken horiek «delituen erantzuleak direlako edo Justiziak haien prozesuari hasiera eman dielako, nahiz eta, azkenean, agian errugabe izango diren». Agian, José Ángel Ubieta zuen gogoan, Bilboko elizbarrutiko bikario nagusia, Monasterioren hilketaren ikerketaren harira atxilotua izan, eta, ondoren, aske utzi zutena behin-behinekoz. Dena den, Burgoseko prozesuko sententziak frogatutzat eman zuen apaiz batzuek, Ubieta barne, Miguel Etxeberriari ihes

egiten lagundu ziotela. Hogeita hamar urte geroago atxilotu zuten eta-kidea, 1998an, Mexikoko San Luis de Potosí herrian. Auzitegi Nazionalak zortzi urteko kartzela zigorra ezarri zion ETArentzat lehergaiak egiteagatik, baina ezin izan zuen zigortu Fermín Monasterioren krimenagatik, 1977an amnistia jaso baitzuen. Etxeberria 2003ra arte baino ez zen kartzelan egon, eta, geroztik, ezker abertzaleko erakundeen militante gogotsua izan zen. 2017ko ekainean hil zen Laudion, 72 urte zituela, eta «militante historiko» gisa izandako ibilbidea ohoratzeko ekitaldi bat antolatu zuten Laudion bertan³⁹.

2. ETAK ALKATEEN GAINEAN JARTZEN DU BERE JOMUGA

ETAren 1975eko azken biktima herri baten alkateza zuen lehena izan zen ere. Antonio Echeverría Albisu Oiartzungo alkatea zen. Azaroaren 24an, Franco Erorien Haranean lurperatu zuten egunean berean, ETA militarreko kide batek Oiartzungo plazatik gertu dagoen Ollarri-Arre baserriko atea jo zuen. Han bizi zen alkatea, 33 urteko ezkongabea, bere aitarekin eta arrebarekin, eta azken honen senararekin. Alkatearen koinatua izan zen, hain zuzen ere, atea ireki zuena⁴⁰. Atearen beste aldean hogeita bost urte inguruko gazte bat zegoen, 1,65-1,70 zentimetroko altuerakoa, ilegorria, praka eta jertse marroi koloreak soinean. Antonio Echeverría ikusi nahi zuela esan zion, probintziako beste alkate baten partetik mandatu bat zekarkiola. Echeverría agertu bezain laster, gazteak bularrean tiro egin zion. Larri zaurituta, Donostiako klinika batera eraman zuten, baina hilik iritsi zen. *ABC*ren kronikaren arabera, bidean zihoazela barkamena eskatu zien bere senideei. Hurrengo egunean, *El Diario Vascok* azalera eraman zuen krimena, nahiz eta egunkariaren 8. orrialdera gibelatu albistea, «Gipuzkoa, hombres y problemas» izeneko atalera⁴¹. *ABC*k, aldiz, gertaeren atalean sartu zuen. Azken egunkari honek kontatzen zuenez, Antonio Echeverriak, Gipuzkoako alkate gazteena zenak, ETArekin zerikusia zuen polemika bati aurre egin behar izan zion berriki osoko bilkuran: 1975eko irailaren 27an Juan Paredes Manot eta Ángel Otaegi etakideak exekutatu zituzten, eta exekuzioen ondotik egindako «borroka ekitaldian» parte hartu zuten bi zinegotzi kaleratu zituzten. Antza denez, zinegotziek greba sustatu zuten, eta pikete batzuen buru zeuden.

Hala ere, ez Echeverriaren familiak ez komunikabideek ez zuten uste izan ETAren atentatu bat zenik, eta arrazoi ekonomiko bat zegoela adierazi zuten: alkatea *La Voz de España* egunkarian argitaratutako informazio batzuen protagonista izan zen, eta haren higiezin enpresa aipatzen zen. Gainera, ordu arte ETAk ez zuen bere jomuga herriko

politikarietan jarri, eta ordu arte egin zituen atentatuen artean, kargu politikoa zuen biktima Luis Carrero Blanco almirantea zen, Gobernuko presidentea zena. Hala ere, erakunde terrorista bera arduratu zen zalantzak usatzeaz. Hurrengo egunean, Radio Montecarlora dei bat egin, Antonio Echeverriaren hilketari bere gain hartu, eta mehatxu egin zien alkate guztiei bi hilabetetan kargua uzten ez baldin bazuten. ETA militarrek kargu publikoen jazarpenari bidea ireki zion horrela, eta ildo horri eutsi zion bere indarkeriazko ibilbidearen amaierara arte.

IV. ETATIK BIZIRIK ATERA DIRENAK

Ez daude diren —edo izan ziren— guztiak, baina bai direla dauden guztiak. Barne Ministerioko Biktimen Arretarako Zuzendaritza Orokorren datu-baseak aitortzen duten terrorismoak zauritutako pertsonak jasotzen ditu. Espainiako lurraldean atentatuak nozitu zituztenak nahiz gure mugetatik kanpo atentatuen biktima izandako espainiarrak barne hartzen ditu. Eta terrorismoaren eraginez lesio larriak jasan dituztenak guztira 4.808 izan direla ondorioztatu du⁴². Horietatik, 48 izan ziren zaurituak 1965eko ekainaren 6a —lehen pertsona zauritua izan zen data— eta 1975eko abenduaren 17a bitartean. Erdiak baino gehiagok —27 guztira— ETArri edo haren ingurune erradikalari leporatutako atentatuak jasan zituzten. Gainerakoak honela banatzen dira: GRAPOkoek zauritutako bat eta zehaztu gabeko beste talde edo egilerekin zerikusia duten atentatuetan hogeitauritu.

5 TAULA

Terrorismoagatik zaurituak Espainian (1965-1975)

<i>Erakunde terrorista</i>	<i>Biktima kopurua</i>
ETA	25
ETAren ingurunea	2
GRAPO	1
Beste egile edo talde batzuk	20
Guztira	42

Zauritu gehien gertatu ziren urtea 1974 izan zen, neurri handi batean ETAk bereizi gabeko bere lehen atentatua egin zuelako: Madrilgo Rolando kafetegiarri eragin ziona. Estatistika mailan, horrek esan nahi du 1974 izan zela terrorismoak eragindako zauritu gehien

egon zen diktaduraren urtea, guztira hogeï izan baitziren. Atentatu hilgarriekin gertatu bezala, min hartutakoen kasuan ere, gehienek —21— Madrilén jasan zituzten atentatuak, eta bederatzi izan ziren Gipuzkoako probintzian min hartutakoak. Badira bost pertsona, guztiak militarrek ogibidez, atzerriko lurtean atentatuak jasan zituztenak: horietako hiru Saharan, bat Frantzian eta beste bat Ekuatore Ginean.

Terrorismoak zauritutakoen erdia baino gehiago zibilak izan ziren, hogeita zortzi guztira. Gainerakoak, aldiz, honela banatzen dira: bost guardia zibil, sei militar eta hamar polizia. Biktimen batezbesteko adina 32 urtekoa zen, epealdi berean eraildakoen batezbestekoa baino bost urte gutxiagokoa.

ETAré dagokionez, terrorismoak Espainian zauritutakoen %54aren erantzulea da —2.597— erakunde terrorista, 1965 eta 1975 urteen artean 27 baino zauritu ez zituen arren, guztizkoaren %1a alegia. Bestela esanda, ETAk eragindako zauritu ofizialki aitortuen %99a diktadura amaitu ostean burututako atentatuen biktimak izan ziren.

6 TAULA

ETAk zauritutakoen kokapena probintziaka (1968-1975)

<i>Probintzia</i>	<i>Biktima kopurua</i>
Madrid	15
Gipuzkoa	7
Bizkaia	4
Nafarroa	1
Guztira	27

ETAk Madrilén zauritutakoak bi atentatutan biltzen dira: Gobernuko presidente Luis Carrero Blanco hil zuen magnizidioa, bi pertsona zauritu zituena; eta Rolando kafetegiaeren aurkako atentatua, 13 pertsonari lesioak eragin zizkiena, nahiz eta prentsako informazioen arabera hirurogeita hamar baino gehiago izan ziren. Desoreka hori azaltzeko zenbait arrazoi egon daitezke: garai hartan ez zegoen terrorismoko biktimak laguntzeko legedi berariazkorik, eta alor horretan legezko lehen neurriak onartu zirenerako, lauurogeita hamarrek hamarkadaren bigarren erdialdean, kaltetuak hilda egon zitezkeen, edo laguntzarako eskubidea zutela jakin ez, edo ez zuten beharrezkotzat jotzen aitortza bat izatea edo zailtasunak izan zitzaireten beren lesioek urte batzuk atzera jasan dako atentatuarekin zerikusia zutela frogatzeko.

Diktaduran zehar ETAk zauritutakoen erdia baino gehiago zibilak ziren, eta hamazazpi izan ziren; zauritutako Segurtasun Indarren agenteak, aldiz, hamaika: sei polizia eta bost guardia zibil. Guztien batez-besteko adina 31 urtekoa zen.

7 TAULA
ETAk zauritutakoen ogibidea (1965-1975)

<i>Talde profesionala</i>	<i>Biktima kopurua</i>
Zibila	17
Polizia Nazionala	6
Guardia Zibila	5

Jasandako zaurien ondorioen larritasunari dagokionez, larritasun gutxiko lesioak jasan zituzten hamahiru pertsonak osatzen dute talde kopurutsuena. Kontrako muturrean Rolando kafetegiko atentatua egin zenean 37 urte zituen gizon bat dago, kafetegian ahaldun nagusi bezala lan egiten zuena. Hogeita hamazortzi urte geroago, erasoak eragindako ondorioekin lotura duen baliaezintasun handi bat aitortu zion Estatuak. ETAk eragindako lehen baliaezintasun handia izan da.

8 TAULA
ETAk zauritutakoen ondorioen larritasuna (1965-1975)

<i>Ondorioen larritasuna</i>	<i>Biktima kopurua</i>
Baliaezintasun handia	1
Ezintasun iraunkor absolutua	2
Ezintasun iraunkor osoa	11
Lesioak	13

Azkenik, eta diktaduraren azken urteetan terrorismoak eragindako zaurituei erakundeek eskaini zieten arretaren erakusgarri, interesgarria da Administrazioak ETAREN atentatuetan lesionatutakoak ofizialki zaurituzat aitortu zituen datak ikustea. Aitortua izan zen lehena Rolando kafetegiko atentatuaren biktima bat izan zen, 1974an burututakoa, eta biktimen zerrenda ofiziala osatzera igaro zen 1988an, hau da eraso gertatu zenetik ia hamalau urtera. Laurogeigarren hamarkadan hori lortu zuen bakarra izan zen. Jada laurogeita hamarretan sei

pertsona aitortu zituzten zauritutzat, horietako lau hamarkadaren amaieran, 1999an zehar. Gainerako hogei zaurituak honela banatzen dira: 2000ko urteen lehen hamarkadan hamar aitortu zituzten, eta beste hamar bigarrenean, 2011 eta 2015 bitartean. Beste datu deigarri bat: Rolando kafetegian 1974an zauritutako bat zauritutzat aitortua izan zen 2015eko azaroan, jasandako atentatua gertatu eta 41 urtera.

9 TAULA

ETako zaurituak (1965-1975) aitortzerakoan zenbat urteko atzerapena izan duen Estatuak

<i>Atentatuaren data</i>	<i>Aitortzaren data</i>	<i>Atzerapen urteak</i>	<i>Atentatuaren data</i>	<i>Aitortzaren data</i>	<i>Atzerapen urteak</i>
6-VI-65	8-III-06	40,8	13-IV-74	30-VII-01	26,9
18-VII-69	8-VII-91	22,0	13-IV-74	19-VI-09	34,8
29-IV-73	13-IV-99	26,0	13-IV-74	5-IX-12	38,0
27-IX-73	15-III-90	16,5	13-IV-74	5-IX-12	38,0
20-XII-73	17-IX-03	29,7	13-IV-74	14-XII-13	38,4
20-XII-73	1-X-14	40,8	13-IV-74	27-II-13	38,5
1-V-74	4-VIII-00	26,3	13-IV-74	27-XI-15	41,2
28-VIII-74	20-XII-11	37,3	18-XII-74	9-VII-12	37,6
13-IX-74	18-II-88	13,4	18-XII-74	12-XII-12	38,0
13-IX-74	13-IV-99	24,6	24-IV-75	3-X-12	37,4
13-IX-74	29-IX-00	26,0	14-IX-75	16-X-00	25,1
13-IX-74	12-XII-00	26,2	5-X-75	13-IV-99	23,5
13-IV-74	9-III-01	26,5	5-X-75	13-IV-99	23,5
13-IV-74	2-VII-01	26,8	13-IX-74	30-VII-01	26,9

Aurreko taulan emandako zifren arabera, ETak diktaduran zauritutakoek batezbesteko 30,5 urte itxaron behar izan zuten Estatuak haiek modu ofizialean aitortzeko. Zenbatezinak dira aitortza inoiz eskuratu ez zutenak.

V. ETAK BAHITUTAKOAK: BAHITUTAKOEN ISTORIOAK

1966 eta 1967 artean ETak bere V. Biltzarra egin zuen. Bertaratu-takoek erakundearen egitura lau «frontetan» banatzea erabaki zuten:

kulturala, ekonomikoa, politikoa eta militarra. Ekintza-ondorio-ekintza estrategia berretsi zuten ere, hirugarren Munduko ildo nagusitu zen, eta iraultza nazionalaren subjektu gisa «Herri Langile Euskalduna» kontzeptua sortu zuten. José Luis Álvarez Enparantza bezalako militante batzuek erakundea utzi zuten, ildo marxista ildo etnonazionalistaren kaltetan ezarri zela argudiatuta⁴³. Eztabaidaz kanpo zegoena baliabide urritasuna zen: berrehun bat militante izan arren, ETAk lauzpabost ibilgailu baino ez zituen, autoak eta motoak zenbatuta, eta hondatutako hiru kopiagailu. Hori dela eta, zuzendaritzak esku hartu, eta ETako kideek kuotak ordaintzeari utz diezaiotela erabaki zuen, eta baimena eman zuen banku-lapurretak eta bahiketak egiteko helburu ekonomikoekin. Lehen lapurreta 1965ean gertatu zen (ikus III. atala). Bi urte geroago, terroristek lehen bahiketa burutu zuten⁴⁴.

Biktima José Pablo Echeverría Ugalde izan zen, Billabonako Banco Guipuzcoanoko sukurtsaleko zuzendaria⁴⁵. Banketxeko bulegoaren goiko aldean bizi zen bere emaztearekin, María Victoria Galarza Ayastuyrekin, zeina hirugarren seme-alabaz haurdun zegoen. Gaueko bederatziaik paseak ziren, eta etxeko txirrina jo zuten. Familiako norbait izango zela uste izan zuen Echeverriak, baina armatutako hiru gizonen topo egin zuen. Gizon horiek ez zuten esan ETakoak zirenik, eta banketxeko giltzak hartu, eta berekin jaisteko agindu zioten. Emaztea soka batekin lotu, sukurtsalean sartu, kutxa-gotorra ireki, eta milioitik gorako kopurua eraman zuten. Alde egin aurretik, zuzendaria lotuta utzi, eta «lasai» egoteko esan zioten, bera askatzeko abisua emango zutela⁴⁶.

«Baina oso gaizki lotu ninduten», gogoratzen du Echeverriak berrogeita hamar urte geroago. Askatzeak ez zion lan gehiegi eman, nahiz eta aitortzen duen hasieran ez zela ausartu bere bahitzaileei entzungor egiten eta kalera atzeratzen, zain izan zitzakeen eta. Azkenean, bere etxera igo, eta emaztea askatzea erabaki zuen. Ikerketa polizialak aurrera egin ez zuen arte, José Pablo Echeverriari ez zioten baieztatu bera atxiki zuten gizonak etakideak zirela. Haietako bi identifikatu zituzten: Juan José Etxabe Orobengoa eta José María Eguren Menchaca. «Poliziak ezagutzen zituen jada, eta bazekiten okerkeriak egiten ari zirela», dio Echeverriak. Sei hilabete geroago, banketxeko zuzendaria ETaren beste lapurreta bat jasan zuen, oraingo honetan egun-argiz eta metrailetaz armatutako bi terroristekin. Inor ez zen zauriturik gertatu, baina, handik aurrera, zenbait segurtasun neurri hartu zituzten, hala nola kutxa-gotorreko giltzak banatzea edo irekiera atzeratuko ate bat jartzea.

José Pablo Echeverriaren bahiketa laburraren entseguaren ondotik, ETAk gutxienez beste lau pertsona bahitu zituen diktaduran zehar,

1970 eta 1973 bitartean⁴⁷: Banco Guipuzcoanoko sukurtsal bateko beste zuzendari bat, honako honetan Elgoibarren, José Ángel Aguirre, 1960ko urriaren 30ean; Alemaniako kontsula Donostian, Eugene Beihl Schaefer, 1970eko abenduaren 5ean bahitua eta hogeita bost ordu geroago aske utzia; Lorenzo Zabala Suinaga industrialaria, 1972ko urtarrilaren 19an Abadiñon (Bizkaia) bahitu eta hilabete horren beraren 22an aske utzia; eta beste industrialari bat, Felipe Huarte Beaumont, 1973ko urtarrilaren 16an Iruñean bahitua eta hamar egun geroago aske utzia. Administrazioaren begietara bahituek zauritu izaera jasotzen duten arren, Barne Ministerioak ez du modu ofizialean aitortu arestian aipatutako inor⁴⁸.

José Ángel Aguirre eta Felipe Huarteren bahiketek arrazoi ekonomikoak izan zituzten. Lehenaren kasuan, bahiketarekin banketxeko kutxa-gotorrera sartzea bilatu zuten. Zuzendariak giltzak gordetzen ez zituenez, zortzi terrorista armatuk Aguirreren etxean pasa zuten gaua, harekin eta haren emaztearekin, mehatxuka, harik eta goizean kutxazainak kutxa ireki zien arte. Lau milioi pezeta eraman zituzten (gaur egungo 495.000 euro)⁴⁹.

Felipe Huarteren kasuan, *modus operandia* askoz ere sofistikatuagoa izan zen⁵⁰. Etakide nabarmen batzuek, horien artean Tomás Pérez Revilla, Jesús María Zabarte Arregi edo orduko buruzagi militarra, Eustakio Mendizábal Benito, industrialaria bahitzea pentsatu zuten, Felipe Huarte Goñiren semea zena, Nafarroako industrializazioan ekarpen erabakigarria eduki zuen enpresa sarea antolatzeko ardura-duna. Bahitua berekin eraman aurretik, bahitzaileek ohar bat utzi zuten familiaren etxean, beren aldarrikapenak zehazten zituena: langatazka batean murgilduta zegoen Torfinasa enpresan kaleratuak izan ziren langileak berriro onartzea, grebalarien eskariak onartzea eta berrogeita hamar milioi ordaintzea (gaur egungo 4.647.000 euro). Lehen aldia zen ETAk erreskate ekonomiko bat eskatzen zuela. Iker Casanovaren arabera, «Huarte familiak ordaindutako erreskatea ETAk bere historian jasotako injekzio ekonomiko handiena izan zen. Ziur asko, ordu arteko lapurreta guztietan bildutako diru kopurua baino handiagoa, eta erakundearen finantzen saneamendua ekarri zuen epe motzera»⁵¹.

Erakunde terroristak arrakastatzen jo zuen ere Motobic lantegiko gerentearen, Lorenzo Zabalaren, bahiketa. Hura enpresaren sarreran bahitu, eta ordu batzuk geroago, ETAk komunikatu bat bidali zuen mehatxu batekin: 48 orduko epean exekutatu zutela baldin eta «langileen eskariak» kontuan hartzen ez bazituzten⁵². Lan-gatazka batean presioa egitea helburutzat zuen lehen bahiketa zen. Enpresak Bizkaitik kanpo hedatu nahi zuen, eta horrek tentsioak piztu zituen enplegatuen artean. Enpresaren eta langileen arteko negoziazioak azkartu, eta

21ean akordio batera heldu ziren. Hurrengo eguneko lehen orduan Lorenzo Zabala aske utzi zuten. Anjel Rekalde kazetari eta etakide ohiak «arrakasta biribil eta ikusgarritzat» jo zuen emaitza, baita «dokumentu kriptiko eta panfleto erako letania guztiek eduki duten oihartzun, gardentasun eta zori handiagoa izan duen asmo adierazpentzat» ere⁵³.

Azkenik, Eugene Behilen 1970ekoa asmo politikoa zuen ETaren lehen bahiketa izan zen. Bahiketaren hurrengo egunean erakunde terroristak komunikatu bat zabaldu zuen, non jakitera ematen zuen Alemaniako Errepublika Federaleko ohorezko kontsularen zoria egun haietan egiten ari zen Burgoseko prozesuaren emaitzaren mende zegoela, eta, halaber, terroristek herio-zigorrik ez jasotzeko exijitzen zuten. Hau da, bilatzen zutena nazioarteko mailako propaganda efektua zen.

Gatibualdiaren gorabeherak egunero jaso zituen prentsak. Bahitua bizirik zegoelako zenbait froga eman zituzten bahitzaileek publikoki, horien artean Beihlek bere emazteari idatzitako gutun bat:

Boni maitea: nire gatibualdiaren bigarren egunean zugar bakarrik pentsatzen dut, eta orain igarotzen ariko zaren ordu latzetan. Lasai zaitetz. Oso ondo nago, eta modu oso gizatiarrean tratatzen naute. Lucy Alemanian geratu dadila oraingoz. Egunkaria irakurri dut. Eman esker-erak Errepublikari eta Kontsulatu orokorrari nire askatasunagatik erakusten duten interesagatik. Mesedez, bulegoan zain dagoen korrespondentzia kontsular guztia hartu. Izan adorea eta konfiantza, dena konpontzea espero dut, txera handiarekin, Eugen Beihl⁵⁴.

Beihlek Alemaniak Bilbon zuen kontsulari, bere anaia Karl-i eta Espainiak Alemanian zuen enbaxadoreari idatzi zien, baita *La Voz de España* egunkarira ere. Haren irudi bat argitaratu zen *Sud-Ouest* egunkarian, non kartetan jolasten agertzen zen buru-beroki bat jantzitako terrorista batek zainduta⁵⁵. Bien bitartean, Espainiako Gobernuak salbuespen egoera dekretatu zuen Gipuzkoan hiru hilabetez. Bahitzaileek, berriz, kontsularen kokalekua aldatu zuten zenbaitetan. Bere oroitzapenetan Jon Idígorasek, Herri Batasuneko buruzagi historikoak, lehen bahiketa horietan etakideek zuten trebezia falta agerian jartzen duen jazoera bat kontatzen du, non gizar-tearen zati batek ETaren jardunarekiko zuen elkar hartzea agerian geratzen den ere.

Antza denez, eta hura zaintzen zuen komandoaren deskuidu batean, Beihl jaunak Zuberoako herrixka eder batean giltzapean zegoen etxetik ihes egin, eta herriko tabernan sartu zen. Bere burua ezagutzera eman, eta laguntza eskatu zuen handik ihes egiteko. Bezero urri eta harrituek berehala erreakzionatu zuten, eta bahitzaileak jakinaren gainean jarri zituzten, baita aurrerantzean arreta gehiago izan zezatela aholkatu ere...⁵⁶

Kontsularen bahiketa nazioarteko komunitateari begira egindako «propaganda ekintza» bat izan zela dio Idígorasek, baita «bere ondorioak» izan zituela ere⁵⁷. Piarres Larzabal aitak, *Anai Arteako* idazkari zenak —ETAko «errefuxiatuei» laguntza ematen zien elkarte, Telesforo Monzón buru zuena— jakitera eman zuenez, Alemaniako gobernuak ETArri bermatu zion Burgoseko prozesatuak ez zituztela hilko Beihl aske uzten bazuten. Prozesatuek herio-zigorra jasotzen bazuten, Alemaniako gobernuak hitzeman zuen harreman ekonomikoak bertan behera utziko zituela Francoren diktadorearekin⁵⁸. Azkenean, Alemaniako Kolonia hirian aske utzi zuten Beihl, eta hurrengo egunean Biarritzera joan zen hegazkin militar batean, eta Biarritzetik Donostiara hurrena. Abiatu aurretik, Alemaniako telebistan agertu, eta bahitzailek «onberatasunez» tratatu zutela esan zuen, eta ez ziela inolako gorrotorik⁵⁹. Bi egun geroago Burgoseko prozesuko sententzia jakitera eman zuten: hamazazpi etakideetatik sei kondenatu zituzten herio-zigorrrera, baina apur bat geroago zigor guztiak kommutatu zituzten kartzela-zigorrengatik.

VI. VALENTÍN PARRA TOSTADO: ARGITZEKE DAGOEN KASU BAT

Valentín Parra Tostadoren izena ez da terrorismoko biktimen zerrenda ia bakar batean agertzen Ez dago Barne Ministerioko erregistro ofizialean, ezta ETAk hildakoei buruzko lan gehienetan ere. Hala ere, Auzitegi Nazionaleko Biktimen Arretarako Bulegoaren zerrenda gaurkotu batean haren izena agertzen da, baita gorpua non eta noiz agertu zen ere, eta galdera ikurren artean, haren heriotzaren susmagarria ETA izan daitekeela aditzera ematen da.

Historian atzera egin behar da 1975era. Uztailaren 26an *Sud-Ouestek* informazio bat argitaratu zuen, hiru egun geroago *El Diario Vasco* jasoko zuena. Hartan esaten zenez, Donibane Lohitzuneko Urdazuri ibaiaren uretan gorpu bat topatu zuten. Lurrera itzuleran zetorren arrantzale batek topatu zuen, eta lupetza batetik atera zuen. Albisteak zehazten zuenez, gorpuaren kokalekua gorabehera, «ego-kiro jantzita» zegoen alkandora zuri batekin, praka gris batzuekin, gorbata gorri marradun batekin eta larruzko zapata batzuekin, espainiar marka batekoak. Orkatilen babesgarri bat zeramala ere zehazten zen⁶⁰.

Frantziako egunkariaren informazioak gizona, berrogei bat urtekoa, eraila izan zela aditzera ematen zuen. Eskuak eta oinak lotuta zituen, lepoan itotze markak, eta torturatua izan zelako arrastoak. Ikertzaileen susmoen arabera, auto baten maletategian eraman zuten

gorpua itsas-ertzeraino, eta litekeena zen ere Urdazuriren zubitik botea izatea. Edozein kasutan, gertatutakoa argitu bitartean, Baionako ehorztetxean egongo zen gorpua.

Ia urtebetez Urdazuri ibaian identifikatu gabeko gorpuaren historia ez zen albiste izan. 1976ko ekainaren 30era arte. Egun horretan, biktima identifikatua izan zela argitaratu zuten zenbait komunikabidek: Valentín Parra Tostado zen, 1935eko urriaren 27an Miajadasen, Cacereseko herri txiki batean, jaiotako gizon bat. Lehen hipotesiek iradokitzen zutenez, hil zenean berrogei urte zituen zehazki⁶¹.

Gorpuari izena jartzeko behin-betiko aztarna prakaren azpikoan josita zegoen. «Sastrería Miajadas. Juan Bejerano» irakur zitekeen etiketa bat zen. Espainiako polizia hari horretatik tiraka hasi, eta pertsona horren arreba bat topatu zuen. Azkenik, arrebak gorpua ezagutu zuen, baita Valentín Parraren bizitzari buruzko zenbait xehetasun eman ere. Haren nortasun agirian ogibide gisa ikaslea zela jarri arren, bere anaia Frantzia hegoaldeko zenbait jatetxe eta tabernatan lanean aritu zela kontatu zuen, eta unerren batean Biarritzeko kasinora sarri joan izan zela⁶².

Ikerketek hilketari buruzko zenbait xehetasun ekarri zituzten. Valentín Parra ito egin zuten. Autopsian agerian ipini zen arnasbideetan belaki bat sartu ziotela, eta horrek eragin ziola heriotza; eta, jada hilik zegoenean, zaku batean sartu, eta ibaira bota zutela. Gainera, oinarrizkotzat jotzen zen datu bat ezagutarazi zen: Valentín Parraren bularrean ETA V siglak irarriak zeuden laban batekin. Garaiko prentsarentzat ez zegoen egiletzari buruzko zalantzarik, eta sofistikazio halako bat zuen teoria bat kontuan hartu zuten ere: ABCrentzat Parra ATE (Antiterrorismo ETA) talde parapolizialeko kide batekin nahastu zuten⁶³. Edozein kasutan, titularra zalantzarik gabea zen: Valentín Parra ETA V Biltzarraren biktima izan zen.

Hala ere, kasua erregistro ofizialetatik kanpo eta ahanzturan geratu zen, beharbada, Juan Francisco Lópezek iradokitzen duen bezala⁶⁴, biktimak bi ahaide baino ez zituelako, bi arreba nagusi hain zuzen ere. 2004ra arte. Urte horretan Xabier Zumaldek, ETAREN lehe buruzagi militarrek, bere oroitzapenak argitaratu zituen *Las botas de guerrilla* izenburupean. Haietan hirurogeita hamarreko urteen erdialdeaz ari dela, «errefuxiatuen» aurkako «gerra zikina» orduan hasi zela aipatzen du. Ordu arte errefuxiatuak aske mugitzen ziren Frantzia hegoaldean. Zumaldek 1975eko apirilaren 6an finkatzen du gerra zikinaren hasiera, Hendaiako Mugalde liburu-dendan leherketa bat egon zenean. Apur bat geroago, maiatzean, Espainiako zerbitzu sekretuko kide bat handik zebilela jakin zuten. Kide horrek *El Anticuário* zuen ezizena, haren benetako izena Sebastián Pallega zen, eta «errefuxiatuak akabatzeke zeregina» zuen. Espainiara itzuli omen zen gero. *El Cabraren* hitzetan:

*Antiquario*ren desagerpen azkarraren ondotik, Donibane Lohitzunen beste norbanako bat harrapatu (honako hau Espainiako Gudarosteko Informazio Zerbitzuko kidea), galdeketa egin eta exekutatu egin zuten. Haren gorpua uztailearen 26an agertu zen Urdazuri ibaian. Poliziaren arabera, lotuta zegoen, eta hanketan zementu blokeak zituen. Itoa izan zelako markak eta itxurak zituen. Gauzak horrela, oso denbora gutxian Iparraldeko lur ederra odolez bete zen bai alde batean bai bestean⁶⁵.

Haren izena aipatu gabe bada ere, badirudi Zumalde Valentín Parraz ari zela.

Dokumentu argitaragabe batek daturen bat gehiago erants lezake ikerketara. Ikerketaz arduratu zen Poliziaren ohar labur bat da, behin gorpua identifikatu ostean bidalitakoa. Ohar horrek dioenez, Valentín Parrak Frantzia hegoaldeko zenbait establezimendutan lan egin zuen 1970 eta 1975 urteen artean, eta haren heriotzaren inguruko hipotesi baten alde egiten zuen: «aipatutakoaren bularrak V sigla zeraman bularean, hil ostean laban baten ahoarekin egina. Horrek pentsatzera garamatza ETA V-ek exekutatu duela»⁶⁶.

Hala ere, ez da kasuari buruzko froga gehiago topatu, eta Valentín Parrak ofizialki terrorismoaren biktimatzat kontuan hartua izan gabe jarraitzen du.

ONDORIOAK

ETAren indarkeriari buruzko estatistikek agerian uzten dutenez, beren biktimak gehienak Trantsizioan eta gaur egungo demokraziaren artean erailak edo zaurituak izan ziren. Diktaturaren azken urteetan atentatu kopuru txiki bat baino ez zuten burutu. Erakundeak bere historian eraildako 850tik gora biktimetatik, soilik 45ek galdu zuten bizitza 1968 eta 1975 urteen artean. ETARI leporatzen zaizkion 2.597 zauritu ofizialetatik soilik 27 izan ziren zaurituak 1967 eta diktaturaren amaiera bitartean burututako atentatuetan. ETAren zigilua daramaten laurogeita hamar inguru bahiketetan, bost baino ez ziren gertatu garai horretan. Azken finean, erakunde terroristak bere biktimak gehienak Trantsizioaren eta demokraziaren artean eragin izanak frogatzen du izaera antifrankista ez dela ETAren NDA egitate bereizgarri bat.

Hala ere, bere hasieran taldeak izan zuen jarduna funtsezkoa izan zen zentzu askotan: ETA izan zen diktaturaren amaierako urteetan indarkeria gehien eragin zuen taldea —hari zor diogu hilketen %65a eta zaurituen %50a baino gehiago—, eta burutu zituen atentatuek bere geroagoko estrategia finkatu zuten. Epealdi horretan zibil bat erail zuen, Fermín Monasterio taxi-gidaria, eta, Oiartzungo alkate Antonio

Echeverría hil ondoren, kargu publikoei zuzendutako lehen mehatxua zabaldu zuen, non beren postuak utz zitzaten eskatzen zien. Bahiketekin hasi zen ere, bai helburu ekonomikoak zituztenekin, bai lan-gatazka erabakitzeko edo gai politikoetan eragina izateko balio zutenekin. Azken batean, ETAk diktaduraren amaieran izan zuen jarduera demokraziaren ezarpenaren ondotik etorriko zen indarkeriaren hedatzearen aurretiko entsegu orokor moduko bat izan, ondorio dramatikoak izan zituen.

Epealdi horretako biktima mortalak zibilak eta Segurtasun Indarren kideak izan ziren proportzio berean, nagusiki 38 urteko batezbestekoa zuten gizonak. Alboko kalteen zenbait zifra ere aipa daitezke: ETAk 27 alargun eta, gutxienez, 72 umezurtz utzi zituen. Zaurituei dagokienez, erdia baino gehiago zibilak ziren, hildakoen batezbesteko adin bertsuarekin. Batzuek zein besteek partekatzen duten beste alderdi bat Estatuaren aldetik jasotako arreta falta da, kaltetuak artatzeko legedirik ez zegoen garai batean. Adibide bat: zenbait partikularrek kontu-korrante bat ireki behar izan zuten Fermín Monasterioren familiarentzat dirua biltzeko. Badira hipotesi hori baieztatzen duten datuak ere, hala nola ETAk frankismoan burututako atentatuetan zaurituak gertatu direnak aitortzeko Administrazioak behar izan dituen 30,5 urteak. Biktimen erreparazioaren arloarekin jarraituz, atal honetan aipatzen diren atentatu terroristak 1977an amnistiatuak izan zirela kontuan hartzea funtsezkoa da, eta gehienetan ez zuten inor kondenatu.

Erakunde terroristaren historiaren lehen uneak markatu zituzten zenbait jazoera gertatu zirenetik ia mendi erdi igaro den arren, inkognita esanguratsuak geratzen dira oraindik argitzeko. Horietako batzuek mina eragiten diete pertsona askori, adibidez 1973an desagertutako hiru gazte galiziarren gorpuen egonlekuak. Kontu hartan nahastuta zegoen terrorista bakar batek ere ez du informaziorik ezagutzera eman, krimen horiengatik epaituak izan arren. Badira beste galdera batzuk, agian minik eragiteko gaitasunik ez dutenak, hala nola Valentín Parraren hilketaren inguruabarrak. Agian, haren heriotzak ez zuen ETArekin zerikusirik izan. Baina baliteke zerikusia izatea, eta haren familiak, berrogei urte geroago, oraindik ez jakitea.

ERANSKINAK

1973ko maiatzean Ipar Euskal Herrian agertutako esku-papera, desagertutako hiru gazte galiziarrei aipamena egiten diena



ITURRIA: «290 zenbakidun Kausa», Donostiako 3. zenbakidun Instrukzioko Epai-egia, 1973.

«Trabajadores españoles»ek sinatutako esku-papera, 1973ko maiatzean Ipar Euskal Herrian agertu zena



ITURRIA: «290 zenbakidun Kausa», Donostiako 3. zenbakidun Instrukzioko Epai-egia, 1973.

Félix de Diego eta María Dolores Echeverría ezkontza



ITURRIA: familiako albuma.

El Correo Español, 21-I-1972

EL CORREO ESPAÑOL
EL PUEBLO VASCO
EDITOR: VICARÍA

12.340.—Hizketa, 27 en orria de 1972. Nro. 10.061. 1 pen.

UNA FAMILIA ANGUSTIADA

LOS PRINCES DE ESPAÑA EN TOKIO
★ FUERON RECIUDOS POR EL PRINCE HEREDERO DEL JAPON Y SU ESPOSA

★ **Vacaciones en Mallorca para los niños de Belxist**

NURIA: TODOS A SALVO

La Gaceta del Norte, 30-VI-1976

SEIS -30-6-76



REGIONAL

LA GACETA DEL NORTE

A FALTA SOLA DE LA APROBACION OFICIAL

El M.O.P. y el Sindicato del Transporte llegan a un acuerdo sobre el "canon de coincidencia"

MADRID 29 (EUROPA PRESS). El Ministerio de Obras Pùblicas y el Sindicato del Transporte han llegado a un acuerdo sobre el canon de coincidencia...

El canon de coincidencia, que se aplica a los conductores de autobuses y tranvías...



EL "CANON DE COINCIDENCIA"

El canon de coincidencia, que se aplica a los conductores de autobuses y tranvías...

Este canon de coincidencia se aplica a los conductores de autobuses y tranvías...

NAVARNIZ: CUARTO HERMANO QUE SE ORDENA FRANCISCANO

Sus tres hermanos mayores llevan en la Orden desde hace años

NAVARNIZ LA GACETA DEL NORTE. - Ante el papa, a los diez y seis de...

El papa ha aceptado la ordenación de Navarniz...



Según "La Voz de España"

Unos 200 millones de pesetas han sido pagados por industriales vascos a ETA

Según "La Voz de España", unos 200 millones de pesetas han sido pagados por industriales vascos a ETA...

Advertisement for 'SENSACIONALES OFERTAS 60 ANIVERSARIO Mantequeras Leonesas'. Features a cartoon lion and logos for Ideal, Champ, bedine, Colopentia, marbu, Viña Rosaura, and Nivea.

SE APLICARA A LA REPARACION DE CARRETERAS

Una ley que se aplicará a la reparación de carreteras...

COTIZARA TAMBIEN EL SERVICIO PROFES.

El servicio profesional también será cotizado...

APARECIO MUERTO FLOTANDO SOBRE LAS AGUAS DEL RIO NEVILLE EL 26 DE JULIO DEL PASADO AÑO

La Policía le ha identificado como víctima de ETA - V Asamblea

La policía ha identificado a un hombre muerto flotando en el río Neville como víctima de ETA...

El día 10 de julio se celebrará en Burgos la gran asamblea regional de Castilla la Vieja, de la Asociación U. D. E.

El día 10 de julio se celebrará en Burgos la gran asamblea regional de Castilla la Vieja...

El día 10 de julio se celebrará en Burgos la gran asamblea regional de Castilla la Vieja...

RUIZ DE GORDO, EN VITORIA, PARA ASISTIR AL SPELIZO DE SU MADRE POLITICA

Ruiz de Gordo, en Vitoria, para asistir al spelizo de su madre política...

Ruiz de Gordo, en Vitoria, para asistir al spelizo de su madre política...

TORMENTA Y LARGO APAGON EN PAMPLONA

Tormenta y largo apagón en Pamplona...

Tormenta y largo apagón en Pamplona...

Ángela Vega Rodríguezi, José Acedo Panizo sargentuaren
alargunari, dohain-txeke bat ematen



ITURRIA: Guardia Zibila.

*Terrorismoaren biktima mortalak Espainian (1960-1975)*⁶⁷

<i>Data</i>	<i>Biktima</i>	<i>Talde profesio-nala</i>	<i>Kargua</i>	<i>Urteak</i>	<i>Egoera Zibila</i>	<i>Seme-alabak</i>	<i>Udalerrria</i>	<i>Probin-tzia</i>	<i>Grupo</i>
60/6/27	Begoña Urroz	Zibila		22 hila-bete	Ezkon-gabea		Donostia	Gipuzkoa	DRIL
62/6/13	Manuel Eleuterio Liañez Benitez						Madril	Madril	Ezezaguna
68/6/7	José Antonio Pardines Arcay	Guardia Zibila	Agentea	25	Ezkon-gabea		⁶⁸ Billa-bona	Gipuzkoa	ETA
68/8/2	Melitón Manzanos González	Polizia Nazio-nala	Inspektorea	59	Ezkon-dua	1	Irun	Gipuzkoa	ETA
69/4/9	Fermin Monasterio Pérez	Zibila	Taxi-gidaria	38	Ezkon-dua	3	Arrigori-riaga	Bizkaia	ETA
71/3/7	Dionisio Medina Serrano	Guardia Zibila	Agentea	35	Ezkon-dua	1	Bartzelo-na	Bartzelo-na	<i>Front d'Alliberament de Catalunya</i>
72/8/29	Eloy García Cambra	Udaltza-ina	Agentea	44	Ezkon-dua	4	Galdakao	Bizkaia	ETA
72/11/2	Roger Tur Palier	Politika-ria	Frantziako kontsula Zaragozan	68	Ezkon-dua	1	Zaragoza	Zaragoza	Grupo Colectivo Hoz y Martillo
73/3/24	José Humberto Fouz Escobedo	Zibila	Garraio-entresa bateko langilea	28	Ezkon-gabea		Frantzia	Frantzia	ETA
73/3/24	Jorge Juan García Carneiro	Zibila	Langabetua	23	Ezkon-gabea		Frantzia	Frantzia	ETA
73/3/24	Fernando Quiroga Veiga	Zibila	Aduana-agentziako langilea	25	Ezkon-gabea		Frantzia	Frantzia	ETA
73/5/1	Juan Antonio Fernández Gutiérrez	Polizia Nazio-nala	Subinspe-ktorea	21	Ezkon-gabea		Madril	Madril	FRAP
73/5/1	Manuel Pedregal Manzano						Madril	Madril	FRAP

73/9/27	Francisco Jesús Anguas Barragán	Polizia Nazionala	Agentea	24	Ezkon-gabea		Bartzelona	Bartzelona	Movimiento Ibérico de Liberación
73/12/20	Juan Antonio Bueno Fernández	Polizia Nazionala	Inspektorea	52	Ezkon-dua	1	Madril	Madril	ETA
73/12/20	Luis Carrero Blanco	Militarra eta politikaria	Gobernuko presidentea	69	Ezkon-dua	5	Madril	Madril	ETA
73/12/20	José Luis Pérez Mogena	Zibila	Ministerioetako Parke Mugikorrerako gidaria	33	Ezkon-dua	2	Madril	Madril	ETA
74/4/3	Gregorio Posadas Zurrón	Guardia Zibila	Kabo lehena	33	Ezkon-dua	2	Azpeitia	Gipuzkoa	ETA
74/6/2	Manuel Pérez Vázquez	Guardia Zibila	Agentea	29	Ezkon-gabea		Ataun	Gipuzkoa	ETA
74/9/11	Martin Duran Grande	Guardia Zibila	Agentea	21	Ezkon-gabea		Bilbo	Bizkaia	ETA
74/9/13	Antonio Alonso Palacín	Zibila	Agentea	30	Ezkon-dua		Madril	Madril	ETA
74/9/13	María Jesús Arcos Tirado	Zibila	Telefonozaina	28	Ezkon-dua		Madril	Madril	ETA
74/9/13	Félix Ayuso Pinel	Polizia Nazionala	Inspektorea	46	Ezkon-gabea		Madril	Madril	ETA
74/9/13	Francisca Baeza Alarcón	Zibila	Maistra	45	Ezkon-gabea		Madril	Madril	ETA
74/9/13	Baldomero Barral Fernández	Zibila	Okina	24	Ezkon-dua	2	Madril	Madril	ETA
74/9/13	Gerardo García Pérez	Zibila	Zerbitzaria		Ezkon-dua	3	Madril	Madril	ETA
74/9/13	Francisco Gómez Vaquero	Zibila	Sukaldaria	31	Ezkon-dua	2	Madril	Madril	ETA
74/9/13	Antonio Lobo Aguado	Zibila	Tren-gizona	55	Ezkon-dua	2	Madril	Madril	ETA
74/9/13	Manuel Llanos Gancedo	Zibila	Zerbitzaria	26	Ezkon-gabea		Madril	Madril	ETA

74/9/13	Luis Martínez Marín	Zibila	Agente komertziala	74	Ezkon-gabea		Madril	Madril	ETA
74/9/13	M.ª Josefina Pérez Martínez	Zibila	Etxekoandrea	21	Ezkon-dua	2	Madril	Madril	ETA
74/9/13	Concepción Pérez Paino	Zibila	Segurtasuneko Zuzendaritza Orokorrean Administrazioa	65	Ezkon-gabea		Madril	Madril	ETA
74/9/13	M.ª Ángeles Rey Martínez	Zibila	Ikaslea	20	Ezkon-gabea		Madril	Madril	ETA
74/10/29	Jerónimo Vera García	Guardia Zibila	Sarjentua	45	Ezkon-dua	2	Pasaia	Gipuzkoa	ETA
74/12/17	Argimiro García Estévez	Guardia Zibila	Guardia Zibila	50	Ezkon-dua	7	Arrasate	Gipuzkoa	ETA
74/12/17	Luis Santos Hernández	Guardia Zibila	Subtenientea	52	Ezkon-dua	2	Arrasate	Gipuzkoa	ETA
75/3/29	José Díaz Linares	Polizia Nazionala	Agentea	30	Ezkon-gabea		Donostia	Gipuzkoa	ETA
75/4/22	José Ramón Moran González	Polizia Nazionala	Inspektorea	32	Ezkon-dua	1	Getxo	Bizkaia	ETA
75/5/6	Andrés Segovia Peralta	Guardia Zibila	Agentea	41	Ezkon-dua	2	Gernika	Bizkaia	ETA
75/5/7	Fernando Llorente Roiz	Polizia Nazionala	Inspektorea	51	Ezkon-dua	3	Bilbo	Bizkaia	ETA
75/5/14	Domingo Sánchez Muñoz	Guardia Zibila	Tenientea	48	Ezkon-dua	4	Gernika	Bizkaia	ETA
75/6/5	Mariano Román Madroñal	Guardia Zibila	Agentea	37	Ezkon-dua	5	Donostia	Gipuzkoa	ETA
75/6/6	Ovidio Díaz López	Polizia	Kabo lehena	31	Ezkon-dua	1	Bartzelona	Bartzelona	ETA
75/6/26	Fernando Fernández Moreno	Zibila	Arotza	26	Ezkon-gabea		Zeuta	Zeuta	Ezezaguna
75/7/5	Carlos Arguimberri Elorriaga	Zibila	Autobus-gidaria	43	Ezkon-gabea		Deba	Gipuzkoa	ETA

75/7/14	Lucio Rodríguez Martínez	Polizia Nazionala	Agentea	23	Ezkon-gabea		Madril	Madril	FRAP
75/7/31	Francisco Expósito Camio	Zibila	Taxi-gidaria	54	Ezkon- dua	4	Usurbil	Gipuzkoa	ETA
75/8/2	Casimiro Sánchez García	Guardia Zibila	Agentea	41	Ezkon- dua	4	Madril	Madril	GRAPO
75/8/8	Demetrio Lesmes Martín	Zibila	Zinpeko zaintzailea	55	Ezkon- dua	3	Hernani	Gipuzkoa	ETA
75/8/16	Antonio Pose Rodríguez	Guardia Zibila	Tenientea	49	Ezkon- dua		Madril	Madril	FRAP
75/9/14	Juan Ruiz Muñoz	Polizia Nazionala	Agentea	49	Ezkon- dua	1	Bartze- lona	Bartze- lona	FRAP
75/9/29	Diego del Río Martín	Polizia Nazionala	Agentea	24	Ezkon- dua	1	Bartze- lona	Bartze- lona	Ezezaguna
75/10/1	Agustín Ginés Navarro	Polizia Nazionala	Agentea	45	Ezkon- dua	2	Madril	Madril	GRAPO
75/10/1	Antonio Fernández Ferreiro	Polizia Nazionala	Agentea	23	Ezkon- gabea		Madril	Madril	GRAPO
75/10/1	Joaquín Alonso Bajo	Polizia Nazionala	Agentea	33	Ezkon- dua	1	Madril	Madril	GRAPO
75/10/1	Miguel Castilla Martín	Polizia Nazionala	Agentea	31	Ezkon- dua	1	Madril	Madril	GRAPO
75/10/5	Esteban Maldonado Llorente	Guardia Zibila	Agentea	20	Ezkon- gabea		Oñati	Gipuzkoa	ETA
75/10/5	Juan José Moreno Chamorro	Guardia Zibila	Agentea	26	Ezkon- dua	3	Oñati	Gipuzkoa	ETA
75/10/5	Jesús Pascual Martín Lozano	Guardia Zibila	Agentea	25	Ezkon- gabea		Oñati	Gipuzkoa	ETA
75/10/5	Ignacio Etxabe Orobengoa	Zibila	Ostala- ritzako enpresaria	39	Ezkon- dua	3	Elorrio	Gipuzkoa	Eskuin muturra
75/10/8	Juan Antonio Alba Escalera	Polizia Nazionala	Kaboa				Bartze- lona	Bartze- lona	Ezezaguna

75/10/8	José San Nicolás Sánchez	Polizia Nazionala	Kaboa				Bartzelona	Bartzelona	Ezezaguna
75/10/8	José Martínez Vélez	Zibila		50	Ezkondua	1	Bartzelona	Bartzelona	Ezezaguna
75/10/8	Antonia Pérez Fuentes	Zibila		49	Ezkondua	1	Bartzelona	Bartzelona	Ezezaguna
75/10/8	Antonio Martínez Pérez	Zibila		22	Ezkongabea		Bartzelona	Bartzelona	Ezezaguna
75/10/12	German Aguirre Irausegui	Zibila	Taxi-gidaria	38	Ezkondua	2	Legutio	Araba	ETA
75/10/18	Manuel López Triviño	Guardia Zibila	Agentea	48	Ezkondua	6	Zarautz	Gipuzkoa	ETA
75/11/24	Antonio Echevarria Albisu	Politikaria	Oiartzungo Alkatea	33	Ezkongabea		Oiartzun	Gipuzkoa	ETA

*Barne ministerioak terrorismoko zauritu gisa aitortuak (1960-1975)*⁶⁹

<i>Ekintzaren data</i>	<i>Udalerria</i>	<i>Probintzia</i>	<i>Jaiotze data</i>	<i>Talde profesionala</i>	<i>Adina</i>	<i>Onartutako maila</i>	<i>Erabakiaren data</i>	<i>Ekintzaren banda</i>
29/7/63	Madril	Madril	47/11/29	Beste batzuk	15	Erabatekoa (IP)	82/11/16	Beste batzuk
6/6/65	Bera De Bidasoa	Nafarroa	24/3/29	Guardia Zibila ⁷⁰	41	Erabatekoa (IP)	06/3/8	ETA
18/7/69	Hondarribia	Gipuzkoa	41/6/27	Guardia Zibila	28	Erabatekoa (IP)	91/7/8	ETA
6/2/71	Bartzelona	Bartzelona	27/12/24	Beste batzuk	43	Lesioak	00/12/30	Beste batzuk
6/2/71	Bartzelona	Bartzelona	39/10/9	Beste batzuk	31	Lesioak	00/12/12	Beste batzuk
6/2/71	Bartzelona	Bartzelona	44/10/11	Beste batzuk	26	Lesioak	12/10/23	Beste batzuk
2/4/72	Donostia	Gipuzkoa	44/9/11	Beste batzuk	27	Lesioak	12/11/28	Beste batzuk
11/6/72	Madril	Madril	35/8/30	Militarra	36	Baliaezintasun handia	99/4/13	Beste batzuk
2/3/73	Bartzelona	Bartzelona	36/12/8	Beste batzuk	36	Baliaezintasun handia	11/12/20	Beste batzuk
29/4/73	Barakaldo	Bizkaia	43/11/14	Polizia Nazionala	29	Lesioak	99/4/13	ETA
1/5/73	Madril	Madril	41/1/25	Polizia Nazionala	32	Lesioak	01/7/16	Beste batzuk
27/9/73	Bilbo	Bizkaia	47/2/13	Polizia Nazionala	26	Erabatekoa (IP)	90/3/15	ETA
20/12/73	Madril	Madril	24/11/4	Beste batzuk	49	Erabatekoa (IP)	14/10/1	ETA
20/12/73	Madril	Madril	53/8/5	Beste batzuk	20	Lesioak	03/9/17	ETA
1/5/74	Tolosa	Gipuzkoa	35/9/19	Beste batzuk	38	Erabatekoa (IP)	00/8/4	ETAren ingurune erradikala
6/7/74	Donostia	Gipuzkoa	49/1/18	Polizia Nazionala	25	Erabatekoa (IP)	12/4/9	Beste batzuk
28/8/74	Donostia	Gipuzkoa		Beste batzuk		Lesioak	11/12/20	ETA

11/9/74	Bilbo	Bizkaia	00/1/1	Beste batzuk	74	Lesioak	13/10/1	Beste batzuk
13/9/74	Madril	Madril	37/2/13	Beste batzuk	37	Baliaezin-tasun handia	12/9/5	ETA
13/9/74	Madril	Madril	26/2/16	Polizia Nazionalea	48	Osoa (IP)	00/9/29	ETA
13/9/74	Madril	Madril	43/1/11	Beste batzuk	31	Erabatekoa (IP)	00/12/12	ETA
13/9/74	Madril	Madril	41/5/3	Beste batzuk	33	Erabatekoa (IP)	13/2/14	ETA
13/9/74	Madril	Madril	42/10/5	Polizia Nazionalea	31	Erabatekoa (IP)	99/4/13	ETA
13/9/74	Madril	Madril	68/4/5	Beste batzuk	6	Lesioak	15/11/27	ETA
13/9/74	Madril	Madril	52/9/20	Beste batzuk	21	Lesioak	01/7/30	ETA
13/9/74	Madril	Madril	50/5/17	Beste batzuk	24	Lesioak	01/7/2	ETA
13/9/74	Madril	Madril	36/10/4	Beste batzuk	37	Lesioak	01/3/9	ETA
13/9/74	Madril	Madril	28/11/16	Beste batzuk	45	Lesioak	88/2/18	ETA
13/9/74	Madril	Madril		Beste batzuk		Lesioak	13/2/27	ETA
13/9/74	Madril	Madril		Beste batzuk		Lesioak	09/6/19	ETA
13/9/74	Madril	Madril	48/9/29	Polizia Nazionalea	25	Lesioak	12/9/5	ETA
18/12/74	Sahara	Atzerriko Herrialdeak		Militarra		Erabatekoa (IP)	15/3/31	Beste batzuk
18/12/74	Urduliz	Bizkaia		Guardia Zibila		Erabatekoa (IP)	12/12/12	ETA
18/12/74	Urduliz	Bizkaia	36/4/15	Beste batzuk	38	Erabatekoa (IP)	12/7/9	ETA
22/1/75	Ekuatore Ginea	Atzerriko Herrialdeak	52/2/27	Militarra	22	Lesioak	16/5/31	Beste batzuk
24/4/75	Donostia	Gipuzkoa	48/8/24	Polizia Nazionalea	26	Lesioak	12/10/3	ETA

9/5/75	Sahara	Atzerriko Herrialdeak	53/3/17	Militarra	22	Erabatekoa (IP)	10/7/7	Beste batzuk
11/5/75	Sahara	Atzerriko Herrialdeak	53/6/7	Militarra	21	Lesioak	13/5/23	Beste batzuk
26/6/75	Zeuta	Zeuta	52/5/18	Beste batzuk	23	Erabatekoa (IP)	83/12/30	Beste batzuk
17/7/75	Bartzelona	Bartzelona	36/12/31	Beste batzuk	38	Lesioak	01/8/2	Beste batzuk
19/7/75	Madril	Madril	48/2/24	Polizia Nazionalea	27	Erabatekoa (IP)	87/11/25	Beste batzuk
2/8/75	Madril	Madril	27/6/17	Beste batzuk	48	Lesioak	12/11/27	GRAPO
14/9/75	Legazpi	Gipuzkoa	32/2/5	Beste batzuk	43	Osoa (IP)	00/10/16	ETAren ingurune erradikala
29/9/75	Bartzelona	Bartzelona	48/8/3	Polizia Nazionalea	27	Erabatekoa (IP)	93/1/20	Beste batzuk
5/10/75	Oñati	Gipuzkoa	48/4/29	Guardia Zibila	27	Erabatekoa (IP)	99/4/13	ETA
5/10/75	Oñati	Gipuzkoa	46/12/2	Guardia Zibila	28	Lesioak	99/4/13	ETA
8/10/75	Frantzia	Atzerriko Herrialdeak	35/1/6	Militarra	40	Lesioak	22/5/01	Beste batzuk
17/12/75	Madril	Madril		Beste batzuk		Lesioak	12/10/11	Beste batzuk

X. ATALA

EPAIKETA ETA ERANTZUKIZUNA

JOSÉ MARÍA RUIZ SOROA

Abokatua

Amaierako atal labur honetan garatzen saiatzen garen tesia honako hau da: euskal nazionalismoa, ez hainbeste alderdi politiko zehatz bat bezala, baizik eta mugimendu edo arrazoibide eta ideia gintza politiko bezala ulertua, izan zen Txabi Echebarrietak eta Iñaki Sarasketak José Antonio Pardines erail izanaren eta Euskal Herrian biolentziaren zikloa abian jarri izanaren erantzuleak (ikus III eta VII atalak). Hasiera batean atzerritartzat jotzen zen erregimen (diktatorial) baten aurkakotzat edo erresistentzia borrokatzat jo zen, baina aurki bihurtu zen terrorismoa. Hasieratik errepikatuko dugu formulazioa: «erantzule», ez «erantzulea», horrelako gertaera historiko konplexu batean ez baitugu erantzukizun bakar eta xurgatzaile baten alde egiten.

Berez, euskal nazionalismoaren erantzukizunarena, ideia ia agerikoa da jende askorentzat, euskaldun askorentzat *va de soi* den zerbait, baina beharbada horregatik argudio garapen bat ez duena gaur egun. Eta, batez ere, ez dauka zuhurra eta kontsekuentea izango litzatekeen deribatu politikoa: terrorismo luze eta neketsu baten erantzulea den ideologia alderdikoi baten eduki muturrekoenak berrikusi eta birpentsatu beharko lituzkete haien eusleek, ez bada aurretik, bai behintzat haiek eragindako biolentziaren amaieran. Eta nahikoa da begiratzeta eta entzutea hori (berrikuspena) ez dela gertatu eta ez dela gertatuko ikusteko.

Tesiaren garapenak, nahiko agerikoa den bezala, bi pauso logiko eskatzen ditu: lehena, joan den mendeko berrogeita hamarretan zegoen ideia-bilduma nazionalistak garrantzi kausal bat izan zuela ETAK indarkeria ekintza-metodo gisa hartu izanaren erabakian, eta nola zertu zen konexio kausal hori; puntu horrek bere egiaztapenaren beharra planteatzen du errealitate historikoan, eta, horrez gain, *agentzia* eta

egituraren edo *askatasunaren* eta *determinismoaren* arteko dilema torturatua (nahiz eta oso faltsua) ukitzen du beti giza ekintzez ari garenean: aldez aurretiko egitura batek, dela ekonomikoa, soziala edo kulturala, mugatzen du ala haietan nahastua dagoen agentearen erabaki aske eta estrategiko baten ondorio dira? Hizpide dugun kasuan, adibidez, nazionalismo erradikalak gaur egun irmoki eusten du ETAREN indarkeriaren egiturazko determinazioaren tesia euskal nazioak iraganean jasandako zapalkuntza luzearen karietara, eta bizipen-eguneratze bat izan zuen hirurogeiko belaunaldiarentzat Gerra Zibilarekin eta frankismoarekin. Nazionalismo instituzionalak, aldiz, nahiago du beste modu batean formulatzea: ETA azpian dagoen *gatazka* baten sintoma baino ez litzateke izango, funtsean egituraren pisu erabakigarriaren alde egiten duen formulazio bat. Aitzitik, historialari fidagarriek ezein determinismo baztertzeko joera dute, eta lehen etakideek nahita erabakitako aukera estrategikoaren izaera nabarmentzen dute. Horretan ados egon gaitezke baldin eta ahazten ez badugu protagonista horiek berek sortu ez zuten eta errealtate politiko, ekonomiko eta kultural gisa *a priori* emanda zetorkien historia baten barruan jarduten zutela.

Lehen pausoari baiezkoa erantzun eta gero, bigarren pauso logikoa erantzukizunaren kontzeptuari berari dagokio. Krimen bat burutzen duten gizakiei erantzukizun nozioa ezartzea erlatiboki senezkoa bada ere («gertaera baten ondorioak agente baten kontu jartzea»), zailagoa da erantzukizunaren nozioa neurri batean anonimoa den «ideiagintza prozesura» zabaltzea, gizaki horiek motibatze eta ekintza kriminala arrazoizkotzat jotzeko beharrezkoa den esparru mentala eskaintzen duen horretara. Dogmatika juridiko-penalean duen jatorriagatik ezin ezabatuzko eran markatua dagoen kontzeptua da erantzukizunarena, eta horregatik lotu ohi da eksklusiboki asmoaren edo giza erruduntasunarekin, azken batean ekintza pertsonal kontzienteekin; hortaz, delitu egiten dutenak pertsonak direla esan ohi da, ez ideiak. Hala ere, ikusiko dugunez, indarkeriaren erabileraren prozesu batean erantzukizun sozial eta historikoa alderdi edo elkartasun politiko batek aldez aurretik eusten dituen ideiekin lotu daiteke ere, nahiz eta ezin den hartatik erantzukizun pertsonal eta hertsiki juridikoa eratorri. Bai erator daiteke beste mota batekoa, soziala, politikoa edo historikoa, eta ez hainbeste pertsona zehatzen gainean, baizik eta ideia politiko partikularren gainean. Bitxia da adieraztea, baina gure giro intelektualean nazkarik gabe onartzen da frankismoa, edo nazionalkatolizismoa, benetako krimenak burutzeko inspirazioaren erantzule izan zirela; are zaila litzateke eztabaidatzea frankismoa izan zela ETAREN indarkeriaren erantzule (berriro, ez «erantzulea»), soilik haren erregimen autoritario eta errepresiboaren baitan izan baitzuen zentzua indarkeria horren sorrerak. Erreparorik gabe esan liteke erantzukizun harreman bat dagoela nazi

ideologiaren eta Alemaniako totalitarismoaren krimenen artean. Eta, hala ere, euskal nazionalismoak ETAREN terrorismoagatik erantzukizun bat izan dezakeelako ideia proposatze hutsak ziur asko erreserba arretatsuak, bereizketak eta ñabardura teoriko eta politikoak eragingo lituzke, edo arbuio zuzen bat bestela.

Komeni da zehaztea, horrek bereziki iruzkin honen esparrua mugatzen duelako, euskal nazionalismoak ideia gisa duen kausalitatea eta erantzukizuna aztertuko dugula soilik ETAREN indarkeriaren lehen uneari dagokionez, joan den mendeko hirurogeiko urteei, haren jaiotza-uneari alegia. Zalantzarik gabe, nazionalismoak lehen biolentziaren erantzun gisa sortu zuen ideien egiturek geroagoko indarkerian izandako eragin eta erantzukizunera heda liteke ikerketa. Hasierako indarkeriak berak egitura sozial eta kultural berriak sortu baitzituen, egiten den (agenteen kasuan) eta gertatzen den horri (interesatuen eta ikusleen kasuan) zentzua ematen diotenak, eta egitura berri horiek berez biolentziaren beraren luzapenaren kausatzaile edo laguntzaile izan daitezke, beste batzuetan haren hedaduraren aurkakoak badira ere. Bada, ikuspegi historiko batetik, oso litekeena da indarkeriazko lehen kasuen aurrean euskal nazionalismoak izan zuen arrazoibideak eta praktikak —ez zen, noski, arrazoibide bateratua izan, baina bai hautatu zuela gramatika komun bat— berez aukerazko egitura berri bat sortu zuen terrorismoa gizartean finkatzeko eta gizartearen sektore zabal batek —gogotsu edo jasankor— hura onartzeko. *Egiturak* deitzen ditugun horiek ez dira datuak edo beti hor dauden egitate naturalak, neurri handi batean aldez aurreko giza erabakien eta hauek martxan jarritako prozesuen ondorio baizik. Zentzu horretan, gatazkaren (euskal nazionalismo guztiaren arrazoibide gramatiko komuna hirurogeiko urteetatik hona) argumentuzko ardatzaren inguruan eraikitako esanahi politiko eta kulturaleko egitura guztiak zuzenean terrorismoaren jarduerarena ez, baina bai gutxienez antzezle politiko gisa aintzat hartzeko duen kontsiderazioaren ideologia legitimatzaile bezala jokatu du, eta horregatik balio izan du hura iraunarazteko (arazo politikoa, negoziazioa, berdinketa amaigabea eta abar). Hala ere, berriro diogu, ez dugu epealdi hain konplexu eta luzexkan gure arreta luzatuko.

Azkenik, eta gure muga eta zorraren aitortza derrigorrezko gisa, lehen ETAREN jaiotzari eta motibazioari buruzko ezagutza historikoei dagokienez, izaera unibertsitarioko eta objektibotasun zientifiko frogatuko historiografiak sortutako *corpus* doktrinalean oinarritzen garena nabarmenduko dugu. Gure baieztapenen dokumentatuen froga aurkitu nahi badu, jo beza irakurleak ETAREN jatorri intelektual, sozial eta kulturei buruz Gaizka Fernández Soldevillak idatzitako lanera (*La voluntad del gudari*). Baieztapen horiek ez ditugu gure testuan errepikatuko¹. *Borroka gorenei* buruz Sabino Aranak bere lehen lanean idatzi

zuen bezala, «nik, egiazki, kopiatu baizik ez nuen egin, ez bainuen historia idazteko helburua, beste batzuek ikertutakoaz ondorioak ateratzekoa baizik: interpretatu egin nuen, ez aurkitu; eta interpretazioa jendarteratzeko, lana atsegingarri egin nuen». Nik ere halaxe egin dut, nahiz eta, nire auzo bereko bilbotar hark ez bezala, espero dut nireak kondaira alderdikoi ez bihurtzea historiografia.

I. ETAREN INDARKERIAREN GENESIA

Hirurogeiko urteetan ETako gazteek hasiera batean indarkeria erabiltzeko hartu zuten erabakian multikausalitate saihetsezin bat dago, joera soziala duten giza ekintza ia guztietan bezala. Dena den, ekintza sozialaren kausalitatea, Max Weberrek erakusten duen bezala, ez da ulertu behar horrenbeste natura fisikoan kausa bat bilatu eta ikertzen den modu berean, aukerazko hipotesi bat bezala baizik, fenomeno bat *gertatu ahal izatea* egiten duen hori bezala, kontuan hartuz zein faktorez ari garen, baina *gerta ez daitekeela* onartuta ere. Giza eremuan kausak ez dira aukerazko leihoak baino, azkenean gertatu zena sorrazteko irekitzen direnak. Zentzu horretan, gure ustez, ETaren indarkeriaren genesian leiho sorta bat egokitu zen, indarkeria erabiltzeko erabakia onargarria egin zuena, eta leiho horien artean zeregin esanguratsua jokatu zuten ideologia eta sentimendu jakin batek. Indarkeriaren baliabidea ez zen kasualitate historiko hutsa izan, nahiz eta Kepa Aulestia bezalako egile informatu batek hori idatzi duen. Kasualitateak oso bakanak dira historian, ohartarazi zuen Julio Caro Barojak, gizakiek eragindako egintzek zentzu bat dute aldebereko inguruabarren sare konplexu baten barruan. Hain zuzen ere, horregatik berreraiki eta interpreta ditzakegu zentzuz betetako egintzak bezala, horregatik *ulertu ahal* ditugu.

Faktore kausalen konplexutasuna areagotu egiten da aztertzen den erabakia gizaki jakin batetik ez datorrenean, antzezle kolektibo gisa jarduten duen erakunde batetik baizik. Arrazionaltasun determinatzaile baten esleipena konplexuagoa da antzezle kolektiboentzat gizabanakoentzat baino, zeren eta helburu jakin batzuen bilaketarekin batera, lehengoek antolaketa-hertsadurengatik motibatuta jarduten dute ere, eta gizabanakoen erabakietan kanpo geratzen den faktore batek pisu garrantzitsua hartzen du, erakundea bera martxan mantentzearena eta hura haztaraztearena (geroagoko erabakietan logika nagusia izan daitekeena).

Azken alderdi hori alboratuta (ETaren historian gero eta garrantzitsuagoa bihurtu zena, baina hasieran eragin gutxiago izan zuena), esan daiteke adostasun historiografiko orokor bat dagoela honako

kontu honetan: etakideek modu arrazoitu eta arrazoizkoan hartu zuten indarkeriara jotzeko hasierako erabakia, baliagarria zela uste zutelako (estrategia instrumentala), eta erabaki hori heltze prozesu luze baten ondotik etorri zen, baina batez ere haien aldardean hondoko arrazoiketara bat zegoelako (printzipioen araberako ekintza bat izan zen). Arrazoiketara oso arrunta eta landugabea izan zitekeen, eta egiatan hala zen. Gainera, ez zion egia historikoari erantzuten bere adierazpen eta supostu gehienetan. Baina hori gutxienezkoa da: agente horien buruetan finkatzeko *sinesgarritasun* nahikoa zuen arrazoiketara bat zen, eta, horregatik, ekintza politikoko metodo gisa indarkeriarako pausoa ematea bidezkoetzeko gaitasuna izan zuen. Arrazoiketara oinarritzeko edo sinesmen kodifikatu horrek bi osagai elkartu zituen muin bakar batean, jatorrian anitzak zirenak: lehena kanon politiko gisa aranismo hertsiena edo fundamentalistena hartzea izan zen: Euskadi atzeritar batek okupatutako aberria zen. Bigarrena 1936ko Gerra Zibiletik jasotako memoriaren barneratze pertsonala izan zen, sarraski nazional bat bezala ikusia izan zena, eta seme-alaben belaunaldian umiliazio eta errebantxa sentimendu indartsua piztu zuen. Zehaztuko ditugu, baina aurretik aldibereko beste zehaztapen batzuk aipatuko ditugu.

Beren buruak hogeita hamazazpiko gudarien oinordeko gisa ikusten zuten horien jarrerak belaunaldi haustura batere ez arbuigarria zekarren nazionalismoaren barruan: hain zuzen ere, berrogeita hamarreko gazte nazionalistek *zerbait egitea* eskatzen zuten, familietan zegoen sinesmen edo kodeari eusteko zeregin apalaz harago, aberri independentea eraikitze eraginkorra izango zen zerbait, eta, hori dela eta, PNV erbestean zuzentzen zuen belaunaldiarekiko kritika apurtzailea egiten zuten. Alde batetik erosoegitza jotzen zuten, eta, bestetik, Espainiako oposizioaren politikaren mendekoegitza. ETaren genesian gaztetasun kritikotik asko dago.

Horrekin batera, nola ez, izaera taktiko edo estrategikoko zenbait azterketa egin ziren, *soi dissant* izaera iraultzaile edo anticolonialen prozesu politikoetan indarkeriak zuen balioari buruzkoak, garai hartako Europa Mendebaldeko atmosfera intelektualean ohikoak eta gazte asko liluratu zituztenak herrialde askotan eta hainbat egoeratan (ikus I. atala). ETaren hasierako bilakaera pertsona talde txiki eta itxi batek berezkoa duena izan zen, eta bere ideologia abertzale erradikala hiru-garren munduarekiko joera besarkatzen zuen deskolonizazioaren nazioarteko testuinguruan (Frantz Fanon edo Jean Paul Sartrearen aipamen intelektualekin eta Aljeria edo Kubako kasuen inspirazioarekin) eta sozialismo iraultzaile halako baten aldeko apustuan zehazten joan zen. Dena den, marxismo lauso eta gutxi landutako horren eta arrazoibide deskolonizatzaileak sustatutako ekintza metodoen ekarpenak ez dira handietsi behar. Bere doktrinatzeko testuetan beretan egiazta dai-

teke —adibidez, hirurogeiko urteen erdialdekoa den ETaren *Libro Blanco* delakoan— indarkeriaren baliabidea dagoeneko lehenagotik bidezkotzen zela, zuzenean dotrina eskolastiko klasikoenetara joaz: arrazoi pertsonalengatik moralki zilegi ez zena, hala nola hurkoa hiltzea, bai da zilegi tartean aberriaren ongi gorena edo tirania bidegabe bat badago. Hala, esanguratsua da Donostiako Jesuitetan egindako *Txabi* Echebarrietaren hiletetan meza-emaileak indarkeria bidezkotu zuen Juan de Marianak XVI mendean tiranizidioari buruz idatzitako ideia baliatuz. Hirugarren Munduko deskolonizazio adibideak eta ideologia antikolonialista eta iraultzailearen ospe intelektuala indarkeriaren bidezkotze oinarritzkoari gainjarri zitzaizkion jada existitzen zen nazio zapaldu baten eskura zegoen arma bakar bezala, eta, horrela, nazio horrek garaikoagoa zen karrozeria intelektual bat eskuratu zuen.

Jakina, Euskal Herrian egunerokoan bizi zen errealitate politiko eta sozialak (erregimen autoritario nazional-katolikoak eragindako zapalkuntza) esparru berezi bat sortu zuen, indarkeriaren baliabideari sinesgarritasun ukitu halako bat ematen ziona (ikus II. atala). Zapalkuntza benetakoa zen arlo guztietan, arlo politikoan zein kulturean, baita arlo ekonomiko-sozialean ere. Hala ere, ez da komeni ETaren genesian antifrankismoak izan zuen garrantzia putzea: lehenik eta behin ETA Espainiaren aurkako joerarekin sortu zelako argi eta garbi, eta joera hura ez zen soilik agintean zegoen erregimenaren aurkakoa, Espainiako nazioaren edo Estatuaren aurkakoa baizik. Bigarrenik, errepresioa ez zelako soziala eta bizipen mailan zenbaitetan azaltzen den bezain indartsua. Hirurogeita hamarreko urteen geroagoko errealitateak ezarri zitzaizkion atzera begirakotasunez hirurogeiko urteei, non konformismo handia eta frankismo soziologiko bat zegoen euskal gizartean, eta jada hazten ari zen garapen ekonomikoak askatasun gabeziaren sentimendua leuntzen zuen. Zentzu horretan, Juan Aranzadik idatzi zuen ezen, ETAn indarkeriari buruzko eztabaida luze bat izan bazen ere, haren aldeko erabaki arrazional eta instrumental batekin amaitu zena, aukera horren gauzatze eraginkorra behartua izan zen azkenean, eta ez naturala, hain zuzen ere indarkeria ez zeterrelako bat giro harekin. Hain zuzen ere, gizartearen konformismoa eta hartan indarrean zeuden baloreak etsigarriak ziren aktibistentzat, materialistatzat eta burgestzat jotzen zituzten. Batzuetan indarkeriaren aldeko hautua ez da soilik estrategikoa, idealista bazik, agenteak garrantzi handikotzat jotzen dituen helburuak bilatzen dituelako. Hirurogeiko etakideak halakoak ziren.

Frankismoaren pean zegoen hirurogeiko urteetako euskal gizartearen giroan heriotza ez zen (oraindik) erraz ulertzen, hain zuzen ere erregimenaren onarpen pasibo bat zelako nagusi. Hurrengo hamarkadako ETaren joritasun hiltzailea dela eta, oraingo interpretatzaileari

ia logikoa eta erraza egiten zaio hiltzearen aldeko hasierako erabakia, baina ez zen horrela izan egiatan. Etakideei asko kostatu zitzairen teorizaziotik gauzatzeko pausoa ematea.

Goazen, beraz, nazionalisten ideien muinera, etorkizuneko etakideek munduaren ulermen eskema sinesgarri bezala (*arrazoia* azalpen gisa) eta jokatu zuten moduan jokatzeko (*arrazoia* motibazio gisa) integratu zituzten ideia horietara.

Muin horren lehenengo osagarria hasierako Aranatik zuzenean kalkatutako nazionalismoa zen, oinarrizko egia bat finkatu zuena: Euskadi Espainiak zapalduetako nazio bat zen, eta gizatalde bezala bizirauteko zuen aukera bakarra independentzia zen. Gauza jakina da Arana bera jarduera politiko askoz ere zehaztuago eta moldakorrago batean sartu zela bere garaiko erakundeen politikan parte hartzen hasi zenean, Sotaren foralistek eutsia, eta euskal nazionalismoaren baitan hasierako Aranaren muin gogorraren eta jarrera posibilista eta errealistaren artean (*pendulua*) aldi berean egon zen dualtasunak haren bilakaeraren epealdi guztiak markatu ditu. Orain axola zaiguna, dualtasun horren gauza esanguratsuen, zera da, nazionalismoak egin zuen jarduera politiko posibilista eta neurritsuak ez zuen inoiz berrikusi *Aranaren lehen garrasiaren* oinarrizko teorizazio doktrinal muturreko eta garbizalea, berrikuspenik behar ez zuen oinarrizko egia bezala mantendu zena, politika praktikoan parte hartu duen gehiengo nazionalistaren jarduera politiko inspiratu ez zuen arren. Anomalia horren erruz, segidako zenbait une historikotan gutxiengo *garbizale edo fundamentalista* bat jeltzaleen politikaren enbor komunetik aldendu izan da haren eratzaileren mezua aldarrikatze hutsarekin. Mezu horrek, hain zuzen ere bere fundamentalismoagatik, traiziotzat edo gutxienez akastzat edo dotrina zuzenaren desbideraketatzat jotzen ditu politika progresibo, autonomista edo *espainiarra den horretan esku hartzen dutenak* (halakotzat jotzen zituen Jose Antonio Etxebarrietak): beste nazio batek (batzuek) azpian hartuta dute Euskadi, eta euskaldunen zeregina bere independentzia lortzea da; gainerako guztia bigarren mailakoa da edo ondoren dator.

Honela, ETako gazteek hasierako Arana erradikal eta antiespainolarekin bat egin zuten. Apostoluarekin, ez politikariarekin. Ez ziren galdu guk *folklorikotzat* jo ditzakegun bere nazionalismoaren alderditan. Zuzendu egin zuten ere, osagai identitario bateratzaile bezala hizkuntza hartu baitzuten, eta ez arraza, eta haren katolizismo erreakzionarioa baztertu zuten. Hala ere, pentsamendu bakartzat onartu zuten haren hasierako dotrina, Euskadik nozitzen duen ukazio eta zapalkuntza egoerari buruzkoa, eta herri bezala irauteko beharrezkotzat jo zuten independentzia. Lotura hori zuzena edo tarteko pertsonaia *aberriano* batzuen bidez izan ote zen, hori gutxienezkoa da

orain; garrantzitsuena da hortxe zegoela muturreko dotrina arrunt eta fundamentalista bat, Euskadik duela bi mende bizi zuen zapalkuntza nazionalaren egoeraren aurka deiadar egiten zuena, nazionalismoak mantendua, ukiturik eta gaurkotzerik gabe, zapalkuntza hori gizaki bezala benetan bizi zuten horien buruak liluratzeko prest.

Etorkizuneko indarkeriaren hobia jada Aranaren fundamentalismoan zegoela esatea determinismo historiko erredukzionista litzatekeela idatzi izan da, eta arrazoiarekin gainera. Baina hemeretzigarren mendeko garai liberalean pentsatutako fundamentalismo hori beste inguruabar batzuetan bizi ziren fededunak indarkeriaren hipotesia aztertzeraz —ETAren kasuan hala izan zen— eraman zitzaizkien ukatzea, ideiek historian duten ezein balore kausatibo ukatzea izango litzateke. Eta, Max Weberrek gogora ekartzen zuen bezala, ideiak ez dira egiazki mundua mugitzen dutenak, zalantzarik gabe, baina zenbaitetan bai funtzionatzen dute «orratz-aldaketa» moduko bat bezala, eta, une jakin batean, antzezleen interesak norabide jakin batean joan daitezten lortzen dute, haiek gabe jarraituko ez luketena.

Eta hala izan zen kasu honetan: ETAko gazteek une historiko bat bizitzen ari zirela uste izan zuten, alderdi askotan hasierako Aranaren sentitutakoaren antzekoa, agonia-kutsukoa, Aranaren berak esaldi batean laburtu zuena: «hau badoa». Politikaren ikuspegitik, PNVko beren nagusiak gero eta egokituago eta moldatuago ikusten dituzte, baita ekonomikoki integratuak ere frankismoaren garapenean. Gizartearen ikuspegitik, garapen hori etorkinen beste inbasio bat bezala ikusi zuten, euskal nortasuna aurki ezabatuko zuena. Joan den mendean meatzaritzak Bizkaian izan zuen lehen garapenean Aranaren izandako antzeko bizipenak dira, non foruzaletasuna eraginik gabeko nostalgia politikoa baino ez zen.

Nazionalismoaren kanon argitzailean XIX. mendeko historia guztia Espainiak Euskadiren gainean eragindako indarkeria jarraitu baten historia da, karlistaldietan eta foru-kentzean gauzatu zena. Baina horrek guztiak oso urrutikoa ematen zuen hirurogeiko urteetan. 1936ko Gerra Zibila (gurasoena), aldiz, hurbil sentitzen zuten, eta oraindik jardunean, nahiz eta nazionalismoak eta 37ko Eusko Jaurlaritzak lehen unetik berreraikitako moduan, erbestean ere mantendu zutena: Espainia eta Euskadiren arteko beste gerra baten itxura pean, non gudari heroikoak garaituak eta umiliatuak izan ziren. Euskal Herria martiri gisa. Hori da ETA mugiarazten duen ideien eta emozioen muinaren bigarren osagarria, 1964an «garai guztietako gudariez» hitz egiten zuena, «beren bizitza independentziaren alde eman zutenak, batez ere 36/37ko gerrakoak, Euskal Herriaren aurka burutu den atzerriko azken eraso basatienaren biktima izan zirenak». Berrogeita hamarrek urteetan Espainiako sozialismoaren zati handi bat Errepublikaren garaian

izandako jokabidea berrikusten eta hondamendi hartan izandako erruduntasun kuota onartzen ari zen; komunistak berradiskidetze nazionalako politika bat sustatzen ari ziren bi bandoen seme-alaben artean; euskal nazionalismoak (salbuespen batzuk kenduta), aldiz, *bandoen memoria* osorik mantendu baino ez zuen egin: Gerra genozidio eta umiliazio nazional kolektiboko xedea zuen gatazka armatu gisa (nahiz eta haren benetako politika Espainiako oposizioaren gainerakoarekin batera joan).

Gainera, errepresio frankistak —errepresio basati baten bidez— sozialisten, komunisten edo anarkisten memoria ezabatzea lortu zuen ia-ia euskal gizartetik; aitzitik, nazionalismoak bizi izandako errepresio arinari esker, bere memoria partikularra gorde ahal izan zuen bai familiar bai eremu pribatuan.

Gerra Zibilaren memoria hori da hirurogeiko gazte nazionalistek oinordetzan hartuko dutena, hain modu aktiboan hartu ere, ezen oraindik erakundeetan zegoen etsai baten aurkako mendeku edo errebantxa asmo bihurtu baitzen. Mario Onaindiak honela azaldu zuen: «Etxetik joan ginen gerrarekin jarraitzeko», zeren eta «ETAren hirurogeiko urteen esperientziak asko izan zuen Hamletetik, hau da, aitaren heriotza, gerra zibilaren porrotaren umiliazioa mendekatu nahi genuen». Gerra Zibilaren memoriak arrazoi emozional indartsu bat eman zien ETAko aktibistei indarkeriara jotzeko. Eta ez da ahaztu behar ezen ideiak ez bezala —eraikitako tresna direnez gero, irudikapen zuzenak edo akastunak izan daitezke (eta horregatik zuzendu daitezke)—, emozio guztiak benetakoak dira. Hil baino urtebete lehenagoko poema batean, *Txabi* Echebarrietak zentzua eman zion heriotzari hain zuzen ere Gerra Zibilaren *baitan*: «Otxandio eta Mungiaren ondoan/ Bakio eta Lekeitioren ondoan/ Durango eta Markinaren ondoan/ Etxebarria eta Areitioren ondoan/ Gernikan bertan/ jausi nintzen ni, bizitzatik heriotzara».

Une historiko jakin horretan ETA indarkeriara bultzatu zuten ideien muinaren bi osagaiak finkatuta, hemen esaten dena (eta esaten ez dena) ondo ulertzeko garrantzitsua da azpimarratzea ezen une historiko jakin horretan gazteria nazionalistaren eskura zegoen ideien hazi hori erabakigarria izan zela indarkeriaren alde haiek egindako hautuan, baina erabakigarria izan zen Weberren zentzuan: hipotesi bat eraiki hura gertagarriagoa bihur dadin. Gertagarritasuna egintza baten aukeraren neurria baino ez da, eta aktibista nazionalisten buruetan ideia eta emozio horiek nagusi izateak indarkeriarekin lotura politiko bat gertatzeko *chance*-ak ugaritu baino ez zituen egiten. Ideia horiek gabe lotura hori gertatzea askoz ere arraroagoa izango zen, ia kontraesankorra. Behin eta berriz adierazi den bezala, frankismoaren aurkako oposizio sindikal eta politiko klandestino esanguratsua zegoen Euskal

Herrian, eta, hala ere, oposizio horren kideek ez zuten urte haietan indarkeriaren baliabidea mahaigaineratu, eta mahaigaineratu izan balute, erabat aurka agertuko ziren.

Hortaz, indarkeriak fruituak emateko hipotesiak *mundu-ikuskeraz nazionalista erradikal* baten baitan baino ez zuen aukeraren bat. Biolentziaren erabilerari buruzko teknika iraultzaile antikolonialak alde aurretik beren errealitate propioa kolonialtzat definitu zuten buruetan baino ezin ziren finkatu, eta, zentzu horretan, nazionalismo erradikala eta Gerra Zibilaren errebantxa sentimendua ezinbesteko aurretiazko baldintzak dira indarkeria gerta dadin.

Ezinbesteko baldintzak, baina ez nahikoak, kontu honetan arreta-tsuak izan behar dugu ekintza ideiangatik gainzehazteko akatsean ez erortzeko: EGIko gazte nazionalisten gehingoak, edo, oro har PNVren gehingoak, indarkeriaren baliabidea erabat arbuiatu zuen urte horietan, eta horrek esan nahi du ideiek ez zutela ezinbestean indarkeriara eramaten, eta ez zutela gertagarri egiten ere. Haien baieztapenari benetakoa aukera bat eman zioten, besterik ez. Aukera hori pertsona talde mugatu batengan baieztatu zen, eta, zentzu horretan, esan daiteke nazionalismo erradikala izan zela indarkeriaren arrazoia.

Baieztapen horren aurka «historiaren filosofiek» hainbestetan salatu duten akatsa argudia liteke: orainetik atzerako proposamenak izan ohi direla; hau da, erabaki baten berreraikitze historikoan gerora gertatu dela dakigun horrek eragin handia du. Hala, ETA gerora guardia zibilak su eta gar hiltzeari lotu zitzaionez, logikoa da lehenengo alditik hala egin zuela pentsatzea. Baina interpretazio historikoan beti posiblea den orainaldiarekiko joera salatzeak ezin gaitu eraman iraganezko zenbait daturen artean benetan existitzen diren eta dokumentatuta dauden loturak bazter uztera. Azken batean, pertsonen talde antolatatu batek indarkeriaren aldeko erabaki gogoetatsua hartu bazuen bere jardun politikoan, hala egin zuen besteak beste ideia eta sentimendu jakin batzuek bultzatuta. Erabakia soilik kasuala izan zela uste izatea helburu eta printzipioek giza ekintza soziala motibatzen dutelako (ere) ebidentziaren aurkakoa da; batez ere egileek berek ekintza hori zailtzat eta kontraintuiziozkotzat hautematen badute haiek bizi diren mundu sozialean.

Bitxia da ikustea tesi honen baieztapen onena, hau da, joan den mendeko hirurogeiko urteetan ETako gazteek indarkeriaren alde egin zuten hautua neurri handi batean aranismo erradikalaren ideien eta sentimenduen muinak eragin zuelako tesia, baita Gerra Zibilari buruzko memoria jakin batek ere, euskal nazionalismoaren teorikoek berek (batez ere nazionalismo erradikalekoek) jartzen dutela mahai gainean ETaren indarkeria terroristaren fenomenoaz azaltzen (eta batzuetan bidezkoztzen) saiatzen direnean. Egiatan, iraupen luzeko

gatazka baten ondorio aurreikusgarri bezala azaltzen dute ETA. Gatazka horretan Espainiak euskal nazioa zapaldu du, eta gerraz gerra, ezberdina den herri baten nortasun berezia indarkeriaren bidez suntsitzeko grina ezarri du. Indarkeriaren *continuum* horretan ETArena ia «saihetsezina» zen (José M^a Lorenzo Espinosa), edo modu sibilinoagoan baino asmo berarekin esanda, *gatazka* sakonago eta luzeago baten *sintoma* puntuala baino ez zen izan. Utz dezagun une batez kanon honen faltsukeria historiko frogatua, eta jar gaitezen hura babesten duten horien lekuan, *benetakoa jotzen dutelako* babesten duten horienean: iragana haiek dioten bezalakoa izan bazen, ETAREN indarkeria saihetsezina zen ondorio bezala; implizituki, horrek esan nahi du hirurogeiko urteetan dauden militante nazionalista batzuentzat, *kanon horretan irmoki et emozionalki sinisten zutenentzat*, arrazoi hori nahikoa eta sobera zela armak hartzeko. Iraganaren kontakizun nazionalistak ETAREN indarkeria gaur egun *azaldu* nahi badu, hori horrela da kontakizuna bera hura sortzeko gai izan zelako. Gaur egun, jada amaitutako historia baten epistemologia argitzaile bezala proposatzen den horrek historia horren errealitatean ekintzarako arrazoi gisa balio izan zuen, hura itsu-itsuan sinetsi zutenentzat. Bestalde, indarkeriaren aldeko hautua egin zuen unetik ETAK bere historian izan duen bilakakerak berak frogatzen du soilik erradikalismo abertzalean inspiratutako erakundearen zatia izan dela uneoro aukera horretan iraun duena; aldiz, iraultzan edo ezkertiaratasun soziopolitikoan inspiratutakoak indarkeria uzteko joera izan du etengabe. Eta hori hasieratik beretik. Faktore bataren zein bestearen garrantziaren balantzean desoreka bat dago nazionalismo erradikalaren alde. Desoreka horrek zerbait esan nahi du.

Esan liteke: ondo, baina ETA amaitu da dagoeneko, eta, hala ere, abertzaletasun erradikalaren kanon intelektualak osorik darrai, eta nazionalismoak, are Gobernutik ere, Gerra Zibilaren ikuspegi nazionalistena sustatzen jarraitzen du. Hortaz? Nire ustez, hori ezin da interpretatu iragan jakin batean kanon eta memoria horrek indarkeria sortzen lagundu zutelako egitatearen argudioaren kontra. Gertatzen dena da aukeraren egiturak aldatu egin direla urteekin, neurri handi batean benetako biolentzia horren ondorioz, eta haren erabileraren aurkakoak bihurtu dira gaur egun.

II. ERANTZUKIZUNA

Erantzukizuna kategoria iheskorra da hertsiki pertsonala den eremua utzi, eta eremu sozial eta kolektibora pasatzen garenean. Zuzenbidearen alorrean, norbait egintza baten erantzule egiten badugu, ekintza

horren orotariko ondorioak pertsona horren ardurapean jartzen ditugu, haren nahitako ekintzari edo ez-egite errudunari esleitzen baitizkiogu. Dogmatika juridikoak aspalditik landu duen kategoria bat da, batez ere zigor-dogmatikak, legea larriki urratu duen haren gainean zigorra antolatu eta bidezkozteko. Zigor Zuzenbide ilustratuaren arreta berme-zaleak dira nagusi hartan, eta horregatik da erantzukizunaren ezartze eremua oso murriztailea, eta egintza mingarri baten egile, konplize edo eragileetara mugatzen da.

Zigor Zuzenbidearentzat ez dago erantzukizunik erruduntasunik gabe, eta eskakizun hori dela eta, ezin da argi eta garbi esan gizarteak, kolektibo gisa, erantzuleak direnik, ezta ekintza bultzatu duten ideiak ere. Ez dira erantzuleak ez direlako errudunak. Zenbait ideia, edo haien zabalkundea, kalte baten erantzule egitea eskakizun juridiko penalen aurrean arraroa eta arrotza ematen duen proposizio bat da. Pertsonak egiten dituzte delituak, ez ideiek, inor ezin da kondenatua izan bere pentsamendu edo uste osoak kanpoko munduari proposatze hutsagatik. Hala ere, esparru juridiko hertsitik atera, eta kontzeptuak adiera orokorrago batean hartzen ditugunean beste zerbait gertatzen da: hor bai egon daitekeela erantzukizuna tartean ekintza pertsonal nahitako edo errudun bat egon gabe. Jada klasikoa da Karl Jaspersen adierazpena: nazien garaiko Alemaniako gizartea erantzuletzat hartu behar dugu, nahiz eta kolektibo gisa gertatutakoaren errudun ez izan. Dena den, eta interesgarria da adieraztea, esparru juridikoaren barruan erantzukizunaren beste kontzeptzio ezberdin batzuk erabiltzen dira esparru hertsiki juridiko penaletik kanpo. Adibidez, eta iruzkin honen helburuentzat biziki interesgarria da, erantzukizunaren nozioa nola erabiltzen den Kalteen Zuzenbidearen esparruan; hau da, istripuetan izandako ondasun kalteez eta kausazioan nahastuta dauden pertsonen artean haiek esleitzeaz arduratzen den Zuzenbidearen sektorean. Bestela esanda, nahigabe eragindako istripuzko kalte baten ondorioen kostua zer ondarek jasan behar duen zehazten duten arau juridikoetan. Hemen ere Zuzenbide klasikoena pertsona eragilearen erruagatik edo zabarkeriagatik erantzukizunaren ideian oinarritu zen; hortaz, alde zuzetik zabarkeria erruduntzat jo zitekeen giza jokabide bat existitzen zenean, baino ez zegoen erantzukizuna. Erantzukizuna giza jokabide zehatz eta kausatibo bati lotuta zegoen. Hala ere, gizarte industrial modernoetan izandako aldaketa sozial eta ekonomikoen ondorioz, erantzukizun kontzeptu askotariko bat onartu eta ezarri zen progresiboki, arriskua sortzeagatik erantzukizunarena.

Kalteengatik erantzukizunaren definizio berri horren azpian dagoen nozioa honako hau da: gizarte modernoetan badira, beren interes propioaren izenean, gizartearen gainerakoarentzat arrisku egoera

objektibo bat sortzen duten jarduerak burutzen dituzten pertsona edo enpresa jakin batzuk. Dela motordun ibilgailuak gidatzen dituztelako, dela produktu kimikoak sortzen dituztelako, jarduera horiek arrisku egoera objektiboak dakartzate pertsonentzat, nahiz eta arau bidez ezarritako arreten pean egin. Bada, arrisku hori benetako kalte bihurtzen denean, zoritxarrezko istripu batean, bidezkoa da jarduera burutzen duen agente edo enpresaren ondarearen ardurapean jartzea eragindako mina ordaintzeko betebeharra, pertsona jakin baten errua edo zabarkeria egon ote den kontuan hartu gabe. Erantzun bat dago arrisku bat sortu delako, istripuzko minen aukera estatistiko bat, are arrisku hori legeak berak baimendu eta arautzen badu. Zeharka bada ere, arriskua-gatiko ondarearen erantzukizunaren nozio juridiko hori erreferente iradokitzaile gisa erabil dezakegu ideia-gintza prozesu edo «pakete» batzuk zabaltze-gatik erator daitekeen erantzukizun politiko eta sozialeko zenbait kasu ulertzeko. Badira «pentsalari gaiztoak» deritzotenak, baita «antagonismo eta laido kateen sortzaile diren intelektualak» ere, eta buru-esparru gutxi gorabehera konplexuak zabaltzen dizute, oso inguruabar jakinetan munduaren ulermen esparru bezala onartzen dituzten pertsonak indarkeriara eraman *ditzaketanak* (hor dago arriskua). Ideien prozesu horien sorrera eta hedatzea ez da inolaz ere etorkizuneko indarkeriaren kausa ziur eta egiazkoa, baina bai dakarrela indarkeria horren arriskuaren areagotze bat. Sionismoarena eta agindutako lurrarena bezalako idealak, edo Kosovoko *ethos*aren bidezko serbiar herriaren salbazioarena, ez dira ideal horien jarraitzeak praktikan eragindako indarkeria kriminalarekiko inola ere arrotzak. Ideal horiek komunitate diskurtsibo itxi eta fundamentalisten agerpena erraztu zuten, non indarkeriaren erabilera sinesgarri bezala agertzen zen. Kasu horietan erantzukizunaren nozioa (ez juridikoa, morala, politikoa eta historikoa baizik) pertsona batek edo gehiagok zabaldu-tako ideiei bakarrik ez, mugimendu edo alderdi jakin bezala beren interes-gatik ideia horiek landu eta bizirik eta indarrean mantendu dituztenei ere ezar dakieke; hau da, erasan dituen gizartearen zati horren gainean eragiten duten erakarmen handi-gatik eta funtzio bateratzaile indartsu-gatik, nahiz eta arriskua dagoen zenbait pertsonen kontaktuzuna serio hartu, eta trama horren eskakizunak indarkeriaren bidez lortzeko.

Jaits gaitezen zelaira: esaten ari garena da euskal nazionalismoak, joan den mendeko hirurogeiko urteen inguruan, bi konplexu diskurtsibo edo emozional bizirik mantentzen zituela nahita. Bi konplexu horiek ez ziren erregimen frankistaren oposizioan egiten zuen politika praktikoaren zati, eta ez zuten hura inspiratzen, baina hain zitzaizkion ezagunak eta erosoak, ezen ez zuen haiek berrikusteko zeregin deserosoa burutu nahi izan.

Lehena Aranaren hasierako dotrina edo garrasia zen, hau da Euskadi nazio zapaldu gisa definitzen zuena eta bere salbaziorako, herri bezala, independentzia eskatzen zuena. Urte askotako benetako politikak parentesi artean jarri zuen dotrina hori, alderdiak posibilismo autonomistaren alde egin baitzuen, baina ez zuen inolako momentutan dotrina hori berrikusi edo zehaztu. Alderdiaren eguneroko politika ez inspiratu arren, dotrina hura eta bere sortzailea *legearen taulak* izaten jarraitzen zuten nazionalismoarentzat, eta indarrean jarraitzen zuten. Nazionalismoarena *kalkulatutako anbiguotasuna* zen, *hitzezko ehozirilana* egiten zuena Aranaren oinarrizko tesia José Antonio Aguirreren posibilismoarekin bateragarri egiteko. Belaunaldi baten zati batek une jakin batean bere egin zuen oinarrizko tesi hori bere literaltasun eta fundamentalismoan, eta, ondorioz, ekintza zuzena eskatu zuen botere kolonialaren aurka, hiltzailea gainera. Jeltzaleek ez zuten planteatu aipatu aukera hori, eta elkartasun nazionalistaren diziplinaren mende utzi zuten dena. ETArek militantek *JELen ideien seme-alabak ziren, aitaren etxetik urrundua*k, idatzi zuen oso grafikoki Telesforo Monzónek. Eta, hala ere, hartze hori gertatu egin zen.

Nazionalista bakar batek ere inoiz ez ditu ETako biolentoak *desbiazionistatzat edo dotrina-heretikotzat* salatu. Alderdiaren benetako diziplinatik ateratzeagatik kritikatu zituzten, beren egonezinagatik, beren «komunismoa»gatik, are alderdiaren tradizioaren eta ildo estrategikoaren aurka indarkeria erabiltzeagatik, baina inoiz ez diete esan Euskadiri buruz, nazio gisa, dituzten adierazpen teorikoak okerrak zirenik. Eta hori logikoa da, Aranaren adierazpenak baitira. Eta hori da, hain zuzen ere, nazionalismoaren erantzukizunaren frogapen onena. Ideien kanon bat osorik mantendu dute, egoera jakin batzuetan, inolako aldaketarik egiteko beharrik gabe, indarkeriari atea ireki ziezaiokeena, berez *tentsio handikoa* zelako. Normalean ez zen hala gertatu, hori egia da, kasu gehienetan hala izan zen, baina arriskua hor zegoen, eta hirurogeiko urteetan gaurkotu egin zen tragikoki.

Eta gauza bera esan daiteke, *mutatis mutandi*, Gerra Zibilari buruz eraiki, babestu eta mantendu zuten memoriari buruz —Espainia eta Euskadiren arteko gerra bat bezala—, non Euskal Herriaren rola martiriarena zen, eta Espainiako herriarena, aldiz, genozidarena. Ikuskera hori ñabartu zuten ahots gutxi batzuk egon baziren ere, hori izan zen 1936ko Eusko Jaurlaritzak hartu zuen ikuspegia, eta osorik mantendu zuten gerran eta gerraondoan zehar, tribu nazionalistak introiektatua eta familien baitan belaunaldi berriei transmititua. Berrogeita hamarreko urteetan PNVk erbestean zeuden gainerako Espainiako alderdiekin erregimen frankista salatzeke eta guztien artean irtenbide demokratiko bat topatzeko nazioarteko jarduera batean parte hartu bazuen ere, horrek ez zuen zirkinik ere aldatu gerrari buruz zuen memoria

publikoa, eta kontu handia izan zuen bere politika posibilistak memoria horren egia aldaezina zikin ez zezan. Hortaz, egiten ari zena bere militanteei ezkutatzeko edo hitzezko ehoziri-lanaren bidez azaltzeko joera izan zuen, inoiz ez Gerra Zibilaren memorizazioa berrikustearena.

Joan den mendeko hirurogeiko urteen inguruan, frankismoaren oposizioaren barruan euskal nazionalismoa zen Gerra Zibilaren memoria militante eta manikeoari eusten zion bakarra. Gainera, diktaduraren erregimenak euskal nazionalismoaren gainean eragin zuen erreprezioaren arintasun erlatiboari esker, soilik euskal nazionalismoak kontrola zezakeen memoria horren iraupena bere postulatu eta sentimenduekiko hurbilekoa zen gizartearen sektorean. Bitxiki, zapalketa askoz txikiagoa izateagatik martiri gisa sentitzen jarrai zezaketen. Horrik dator memoria errebantxista horrek aktibisten belaunaldi berri batean une jakin batean eragin zituen ondorio ziur asko ustekabekoan erantzukizuna. Zehazki, *bandoen* arrazoibide suntsiezinaren berpizte politiko eta aktiboa, kasu honetan bando nazionalena. Inork ez zuen zuzenean nahi izan etakideek izan ezik, eta, hala ere, asko —nazionalistak— izan ziren egitura kultural ausartegiak bizirik mantendu izanaren erantzuleak.

Horrek amaiera jartzen dio jada urruti, jauzitako indarkeria itsaso batean ia galduta dauden egintzen epai eta erantzukizunari buruzko laburpen laburrari. Nahiz eta, dena esan behar bada, beharrezkoa litzateke azterketa honi beste azterketa gaurkotuago bat gehitzea: ETAren indarkeria terroristak hura inspiratu zuten kanon nazionalisten deslegitimazio eta arbuio soziala eragin ez duenez, eta euskal nazionalismoa ETAren naufragioaren *hondamenetik nolabait libratu* eta ETAren sorrera inspiratu zuen arrazoiketa bera kontatzen jarraitu ahal duela ikusita (nahiz eta bere eguneroko politika posibilismo zuhur baina errukigabe batean inspiratu), komeniko litzateke horren zergatiaren arrazoi oro aztertuko duen ikerketa bat egitea. Historiak, idatziko luke historialari batek, ez du justizia egiten, eta ez du bakoitza bere lekuan jartzen, hala sinistea gustatzen bazaigu ere; historiak jolas egiten du.

OHARRAK

SARRERA

¹ Patxo Unzueta: «Junio del 68», *El País*, 1998-VI-18

I. ATALA

* Lan hau Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Idazkaritzak diruz lagundutako ikerketa proiektu baten barruan kokatuta dago, «Europako terrorismoa berunezko urteetan: azterketa konparatiboa» izenburukoa, HAR2015-65048-P erreferentziarekin.

¹ Rapoport (1999 eta 2004).

² Martín Álvarez y Rey Tristán (2017).

³ Ipar Irlandako gatazkari buruzko bibliografia ikaragarria da. Sarrera orokor gisa, McKittrick eta McVea (2012) ikus daiteke; IRARI buruz, English (2012); UVFari buruz, Cusack eta McDonald (2008).

⁴ Avilés eta beste batzuk (2002) eta Casals (2016).

⁵ Berunezko urteetan Italian gertatu zen terrorismoari buruz, Drake (1989), Panvini (2009), Re (2013) eta Satta (2016) nabarmen daitezke.

⁶ Alemanez dauden argitalpen ugarietz gain, RAFi buruz Aust (2009), Becker (1981) eta Kellen (1990) kontsulta daitezke.

⁷ Kassimeris (2001 eta 2007).

⁸ Narciso (2000) eta Raby (1995).

⁹ Ana Ferreira, Nova de Lisboa Unibertsitatekoa, FP-25ei buruzko ikerketa bat egiten ari da.

¹⁰ Dartnell (1995).

¹¹ Van der Velpen (1988).

¹² Azcona eta Re (2015), Radu (1988), Wickham-Crowley (1991) eta Wright (1991).

¹³ *Weathermenei* buruz, ikus Sprinzak (1990); eta RAFen kasuarekin ikerketa konparatua egiteko, Varon (2004).

¹⁴ Palestinako terrorismoari buruz, sarrera onena Ensalaco-n (2008) dago.

¹⁵ Kawahara (1983).

¹⁶ Steinhoff (2017).

¹⁷ Badira zenbait liburu *Carlosi* buruz. Azpimarratzekoa da Follain (2011). RZei buruz, ikus Kraushaar (2008).

¹⁸ Brillant (2000).

¹⁹ «Youth and the Great Refusal», *The Nation*, 1968-III-25.

²⁰ Marwick (1998: 3-4).

²¹ Marwick (1998: 10).

²² Kalter (2008).

²³ Dreyfus-Armand eta Portes (2000).

²⁴ Frank (2000).

²⁵ Gurr (1981), Stone (1983) eta Spierenburg (1996 eta 2008).

²⁶ Elias (1988).

²⁷ Eisner (2008).

²⁸ Pinker (2011: 106-116).

²⁹ Eisner (2008).

³⁰ Pinker (2011: 116-128 eta 378-481).

³¹ Ipar Irlandako protesta mugimenduei buruz, ikus Dooley (1998), Ó Dochartaigh (2008), Prince (2006) eta Purdie (1990).

³² Italiako inkonformismoari eta honek terrorismoaren hasierarekin izandako loturari buruz, ikus Cazullo (2005), De Luna (2009), Donato (2014), Falciola (2015), Giannuli (2003), Licciardi (2014), Lumley (1994), Satta (2016: 65-152) eta Scavino (2012).

³³ Alemaniako inkonformismoari buruz, ikus: Cook (1982), Klimke (2008 eta 2009), Markovits eta Gorski (1993), eta Thomas (2003).

³⁴ Aust (2008).

³⁵ Cook (1982).

³⁶ Baumann (1979).

II. ATALA

* Artikulu hau Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Idazkaritzak diruz lagundutako ikerketa proiektu baten zati da (HAR2015-64920-P, MINECO/FEDER erref.), eta UPV/EHUREN Ikerketa talde baten esparruan egin da (GIU 17/005 erref.).

¹ Euba (2016: 38-40).

² Ahozko lekukotza asko —hala guardia zibilenak nola garai hura bizi izan zute herri-tarenak— normaltasun irudi hori baieztatzen datoz. Beste askoren artean, Luis Iriondo antzezleak honako hau gogora ekarri zuen 1983an: «haurra nintzenezan Azkoitian bizi nintzen, eta han zeuden guardia zibilen seme-alabekin jolastan nuen; nik euskara erakusten nien (sic), eta haiek niri, berriz, gaztelera» (*Deia*, artxibo pribatuko ebakina, datarik gabea, *circa* 1983).

³ Casquete (2012b: 270).

⁴ *El País*, 1998-VIII-28. Fernández Soldevillak (2016: 255) gehitzen du 1968tik aurrera «poliziaren jarduna atzeraeraginezkoa egin zela», esan nahi baita «orainaldi asaldatu eta uherra iraganera proiektatu zela, baita kutsatu ere», eta Euskal Herrian Espainiaren gainerakoan baino handiagoa zen errepresioa *oso aspaldikoa* bezala aurkeztu zuten, nahiz eta, eiazki, ETAREN lehen hilketaren geroagokoa izango litzateke.

⁵ Rivera eta De Pablo (2017: 18).

⁶ Kontraste hori dela eta, uler daiteke, adibidez, Fusik (2017) 1960 eta 1990 urteen arteko espainiar kulturari eskainitako bere ikerketari «Espacios de libertad» izenburua jartzea, eta frankismoaren amaiera, Trantsizioa eta demokraziaren sendotzea barne hartzea. Javier Mariás idazleak ere adierazi du «eguneroko bizitza are atseginagoa zen diktadura batean orain baino (...), nahiz politikoki askoz ere hobeto gauden orain ni jaio nintzen garai frankistan baino» (*XL Semanal*, 2017-XI-4).

